# Alegia

## 1936-1945

**Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan**





**Ione Zuloaga Muxika**
(Azkoitia, 1995)

Euskal Herriko Unibertsitatean Historian Graduatua eta Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria. Horrez gainera, Historia Garaikidean espezializatua da, Euskal Herriko Unibertsitatean burututako masterra izaki.

Sustatzailea
Promotor

Alegiako Udala

Laguntzailea
Colabora

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
*Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia*
*Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos*

# Alegia
## 1936-1945

Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa
Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

Ione Zuloaga Muxika

Alegia 2019

aranzadi
zientzia elkartea

**PROIEKTUAREN ERAGILEA**
Alegiako Udala

**PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA**
Juantxo Agirre-Mauleon, Javier Buces Cabello.

**IKERLARI KOLABORATZAILEAK**
Karlos Almorza, Javier Buces, Iñaki Egaña, Francisco Etxeberria, Lourdes Herrasti, Marijose Hernández, Olatz Retegi, Ana Isabel Rodríguez, Rebeca Martínez, Maider Urretabizkaia.

**ESKERRAK**
Mikel Errazkin Agirrezabala, Jose Ignacio Iglesias, Mikel Legorburu Arzamendi, Ahaztuen Oroimena 1936: Markinaldeko Frentea, ahotsak.eus, Alegiako Argazkizaleen Taldea, Euskal Memoria Fundazioa, Alegiako udal-langileak eta herritarrak. Ikerketa honetan zehar, testigantza eman, dokumentazioa biltzen lagundu eta beti laguntzeko prest egon diren guztiei.

**DIGITALIZAZIOA**
Anais Rodriguez, Aranzadiko Artxibo Orokorra.

**EDUKIAREN ZUZENTZAILEA**
Karlos Almorza.

**AZALEKO ARGAZKIA**
Milizianoak Alegian 1936an. (Pascual Marín Funtsa).

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA**. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea
Ione Zuloaga Muxika

Maketazioa
TamTam S.L.

Imprimatzen du
Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-17713-05-8
L.G. SS 332-2019

# Aurkibide orokorra

**1. AURKEZPENA** .....07

**2. BIGARREN ERREPUBLIKA ALEGIAN: GARAI BERRI BATEN HASIERA** .....11

2.1. Bigarren Errepublikaren aldarrikapena Alegian .....12
2.2. Alegiar emakumea, askatasunaren bidean oinarriak ezarriz .....19
2.3. Bigarren Errepublikaren etorrera, Alegiako erlijiotasunaren nahigabearen sortzaile .....25
2.4. Nazionalista, ezkertiar eta tradizionalisten arteko eztabaidak, udal-gobernuan .....34
2.5. Autogobernuaren defentsa .....44

**3. GERRA ZIBILA HASI ZENETIK, ALEGIAN KOLPISTAK SARTU ZIREN ARTE** .....57

3.1. Gerrako frontea Oria bailaran barrena .....58
3.2. Bitartean, zenbait alegiar babesleku bila: “Gardoki 6” kaleko txaleta eta “bator, bator” ikara oihua .....64
3.3. Mobilizatutako alegiarrak .....81
3.4. Alegia bonbardatu zutenekoa .....90
3.5. Alegiako eskuindarren aurkako errepresioa .....91

**4. ERREPRESIOA ALEGIAN: ALEGIARREN AURKA LEHEN FRANKISMOAN** .....97

4.1. Alegiako udal-gobernuen osaera, tropa frankistak sartu zirenetik 1945era arte .....107
4.2. Diktaduraren legitimazioa lortzeko trikimailuak, Alegian .....112
4.3. Enplegatu publikoak botatzea .....122
4.4. Errepresio ekonomikoa .....128
4.5. Askatasunak lortzetik, menpekotasunera: Alegiako emakumeen aurkako errepresioa .....143
4.6. Kartzela eta kontzentrazio-eremuetan preso egon ziren alegiarrak .....156
4.7. Errepresio mardularen ondorioak: fusilamenduak eta presoenganatiko tratu-txarrak .....179
4.8. Frankistak, Dibisio Urdinarekin, Bigarren Mundu Gerran, nazien alde borrokatzen .....184

**5. LEKUKOKATZAK** .....187

**6. MEMORIAREN IZENAK** .....197

**7. ERANSKINAK** .....265

**8. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA** .....281

Txintxarriak egiten Alegiako kalean. (Pascual Marín Funtsa).

# 1. Aurkezpena





Agur bat irakurle,

Eskuetan duzun liburuaren argitalpenarekin, Alegiako Udala eta Alegiako herria, urte gehiegiz luzatu den zor historiko bat konpontzeko bidean jartzen dira. Zor historiko hau, 1936-1939 bitarteko Gerra Zibila eta Lehen Frankismoko Garaia ezagutu eta sufritu zuten guzti horiekikoa da. Tamalez, denbora eta urte asko igaro dira gertakari latz haien ondotik eta garai hura bertatik bertara ezagutu eta sufritu zuten lekuko asko joan zaizkigu, ea liburu honekin merezi duten omenaldia egin ahal diegun, gertatu zenaren egia eta memoria berreskuratuz.

Gerra Zibila eta ondorengo Frankismoa izan dira bai Alegiak, bai Euskal Herriak, XX.mendean jasan dituen gertakari gogorren eta trajikoenak. Liburu honekin egiten dugun atzera begirada, etorkizunean antzekorik ez gertatzeko pausu bat izatea nahiko genuke, belaunaldi berriei bakean eta justizia sozialean bizitzeko aukerak zabalduz.

Amaitzeko, eskerrik beroenak eman nahi genizkieke lan hau osatzeko ekarpena egin duten guztiei. Jaso ezazue gure begirunezko besarkada sendoena eta emaitzak asebeteko zaituztela espero dugu.



**Unai Iraola Agirrezabala**
Alegiako alkatea

**Kale Behera 1923an.** (J.M. Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

# 2.

# Bigarren Errepublika Alegian: garai berri baten hasiera



## 2.1. BIGARREN ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENA ALEGIAN

1930eko urtarriletik aurrera, estatu espainiarrean berebiziko aldaketa gertatu zen, hain zuzen, ordura arte Alfontso XIII.a erregearen baimenez agintzen egon zen Miguel Primo de Rivera diktadorea ordezkatu egin zuten Dámaso Berenguer militarrarengatik. Baina ordura arte monarkikoak izan ziren zenbait politikari zein herritar desadostasunez agertu ziren hartutako erabakiaren aurrean, ustelkeriaz hornitutako sistema mantendu egingo zela uste baitzuten. Horren aurrean, 1930eko maiatzaren 14an, Aliantza Errepublikarrak (Acción Republicana eta Partido Radical-ak eratua) eta Alderdi Erradikal-Sozialistak (EAJ/PNV-ren presentziarik gabe), espainiar errepublika finkatzeko delegatuen komitea eratu zuten, zeina "Donostiako Ituna" gisan ezagutzen den. Liskar, greba … hilabeteak izan ziren, 1931ko otsailaren 14an Dámaso Berenguerrek dimititu zuen arte.

Alegian ere, giroa gori-gori zegoen, 1931ko martxoaren 8a, zinez egun garrantzitsua izan zen. Udal-gobernuak, espainiar gobernuak Kataluniari erregimen autonomikoa emango ziola erreparatu ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak espainiar gobernuari, gipuzkoar herri guztien izenean, "Vasconia"-ko edo Euskal Herriko eskubide eta askatasunak onartzeko agindu zion. Hori eskatzeko, 1917an Gasteizen, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak sinatu zuten autonomia eskubideetan oinarritzen zen:

"Acto seguido el Sr. Presidente manifestó, que enterada la corporación municipal de la declaración ministerial anunciando que se concederá a Cataluña un regimen (sic) autonómico, ha entendido la corporación que es un deber el que se dirija a la Excma. Diputación para que esta en representación de los ayuntamientos se dirija al Gobierno de S. M. pidiendo la reintegración de sus derechos y libertades que corresponden a Vasconia su independencia económica administrativa, recordándole que el Pais Vasco (sic) tiene reiteradas veces formulada su demanda de la reintegración foral completa y en su caso, y como transición para llegar a ella una autonomia (sic) concebida en los terminos (sic) expresados en el mensaje aprobado por las tres Diputaciones de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya en Vitoria en Noviembre de mil novecientos diez y siete.

Enterado el ayuntamiento pleno de todo lo expuesto por el Sr. Presidente, acuerda sancionando con su aprobación y a la vez se remita copia del mismo al Excm. Sr. Presidente de la Diputación de Guipúzcoa en atento oficio"[1].

Honenbestez, Alegiako udal-gobernua, hein handi batean euskal identitatearekin identifikatzen ziren agintariez osatuta zegoela nabarmen genezake; horrek, aldi berean, alegiar herritarrek euskal identitatearekiko zuten lotura adierazten zuelarik:

### 1930eko otsailaren 27ko udalbatza

**ALKATEA**
Juan Bautista Jauregui Lasa (tradizionalista)

**Lehen alkateordea:**
Esteban Gorostiaga (tradizionalista eta mediku dekanoa)

**Lehen alkateorde ordezkoa:**
Pedro Jose Arrue

**Bigarren alkateordea:**
Serapio Alustiza

**Bigarren alkateorde ordezkoa:**
Bernardino Azurza Gorostiaga

**Errejidore ikuskatzailea:**
Bernardino Azurza Gorostiaga

**Errejidoreak**
- Pedro Jose Arrue
- Bernardino Azurza Gorostiaga
- Fermin Jauregui
- Juan Jose Arin
- Jose Antonio Zuquia



En la provincia

Número de candidatos elegidos, por filiación:
Alzo, 6 monárquicos.
Andoain, 7 nacionalistas, 4 tradicionalistas.
Astigarraga, 2 católicos, 2 de Acción Católica y 5 nacionalistas.
Aya, 10 católicos.
Beasain, 11 católicos, 2 republicanos.
Berástegui, 6 católicos monárquicos, 2 indeterminados, 1 liberal monárquico.
Cizúrquil, 6 independientes y un carlista.
GoYaz, 2 monárquicos.
Ibarra, 7tradicionalistas y 1 católico.
Idiazabal, 6 tradicionalistas monárquicos y 5
Irún, 13 republicanos y 7 católicos.
Gainza, 6 católicos monárquicos.
Gaztelu, 2 liberales monárquicos y 4 tradicionalistas monárquicos.
Isasondo, 5 nacionalistas y 2 católicos obreros.
Larraul, 6 monárquicos.
Legorreta, 1 integrista y 6 católicos monárquicos.
Oreja, 4 integristas y 2 nacionalistas.
Pasajes, 3 republicanos, 1 socialistas, 1 nacionalista, 3 demócratas y 3 liberales.
Oñate, 10 nacionalistas y 4 jaimistas.
Salinas, 6 monárquicos.
Urnieta, 5 católicos.
Vidania, 7 católicos monárquicos.
Zaldivia, 5 nacionalistas, 3 tradicionalistas, 1 católico monárquico.
Zumarraga, 5 nacionalistas, 3 republicanos y empate de un republicano y un jaimista.
Aduna, 6 independientes.
Alegría, 4 tradicionalistas, 2 católicos, 2 nacionalistas, 1 adicto.
Anzuola, 3 católicos agrarios, 2 de Solidaridad Obrera, 1 católico independiente y 3 tradicio-

*La Voz de Guipúzcoa*, 1931ko apirilaren 14ko udal-hauteskundeen emaitzak herriz herri.

[1] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: Alegiako Udal-Agiritegia: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

[2] AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

Testuinguru horretan, 1931ko apirilaren 12rako udal-hauteskundeak deitu ziren. Alegian, 1929 erroldaren arabera, 1097 pertsonek eman ahal izango zuten beraien botoa[2] eta guztira, 9 ordezkari zegozkion udal-gobernuari. Gipuzkoako udalerri askotan, langile mugimenduak eta alderdiek adierazitako ezarpen eskasaren eraginez, 1907ko abuztuaren 8ko Hauteskunde-Legeko 29. Artikulua aplikatu zen, zeinaren arabera, udal-gobernua hauteskundeak ospatu gabe osatzea bidezkoa zen. Tolosaldea osatzen zuten 39 herrietatik 21etan honako kasua suertatu zen[3], gehienbat nekazari guneetan. Alegia salbuespena izan zen, udal-hauteskundeak ospatu baitziren.

1907ko abuztuaren 8ko Hauteskunde-Legeko 29. artikuluaz mintzo garenean, urte luzeetan zehar, estatu espainiarreko herri gehienak kolpatzen zituen fenomenoaz hitz egitea dagokigu, hain zuzen, kazikismoaz. Kazikismoak, estatu espainiarrean Borboi familiaren Berrezarkuntza osoan zehar iraun zuen (1874-1931). Aldi horretan zehar, agintari espainiarrek, herritarrei haien boterea eman zietela irudikatu nahi izan zuten, botere ematea, irudi hutsa izan zelarik.

Hauteskundeak ospatzen ziren bakoitzean, estatuaren ordezkari gisan, Ministerioko Gobernatzaileak, herri bakoitzeko kazike edo administrazioaren boterea zuten agintariei, hurrengo hauteskundeetako emaitzak zeintzuk izan behar zuten bidaltzen zizkieten. Hau da, zerrenda batean, hurrengo hauteskundeetan hautatuak izango ziren ordezkariak adierazten zituen. Tokiko kazikeak, maiz, herritarren botoak erosten zituen eta beste zenbaitetan, hildakoen botoak ere erabiltzen zituen, bidalitako zerrendak bete ahal izateko.



**Kazikismoa.** (*La Flaca* Aldizkari madrildarrean argitaratua).




**Hildakoak hauteskundeetan.** (*La Flaca* Aldizkari madrildarrean argitaratua).

Sistema horrek, hauteskundeen emaitzak itsutu egiten zituen, izan ere, estatuaren nahiak betetzeaz arduratzen zen, herritarren nahiak islatu beharrean. Hauteskundeak ospatzen ziren aldiro, aurreko gobernuak egokitutako alderdiak irabazten zuen. Bigarren Errepublikaren guztizko ezarpenera arte, Berrezarkuntza aldi osoan zehar, bi alderdi baino ez ziren izan gobernuan agintari: Alderdi Kontserbadorea eta Alderdi Liberal Fusionista deiturikoak, hain zuzen. Azaldutakoari, Txandakatze-Sistema zeritzon eta haren bidez, instituzioen norakoa alda zezaketen alderdi ezkertiar zein eskuindar erradikalak, hautaketatik kanpo geratzen ziren, ideologia berberak aginduko zuelarik urte horietan guztietan zehar.

Urteetan zehar praktikatzen ari zen Txandakatze-Sistemaren oinordeko, 1931ko apirilaren 12an ospatutako udal-hauteskundeak, Alegian, ustelkeria kasuen erakusgai izan ziren[4]. Horren aurrean, Tolosako distrituko Komite Iraultzailea, Cecilio Iglesias buru zuela, Alegian bildu zen, udal-hauteskundeetan hautetsiak izan ziren Ceferino Lasa Iraragorri, Timoteo Zabala Saizar eta Ignacio Galarragarekin bat, hauteskundeen osteko udal-gobernu berria era zedin. Orduko idazkaria zen Celestino Olloquiegui Eneterreagaren presentzian, Cecilio Iglesiasek Bigarren Errepublikaren aldarrikapena gauzatu zuen eta segidan, Ceferino Lasa Iraragorri, Alegiako alkate izendatu zuen:

---

[3] BARRUSO BARÉS, P. 1996. *El movimiento obrero durante la II República: organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Diputación Foral de Guipuzcoa, Departamento de Economía y Turismo, D.L.: Donostia.

[4] Maria Miguel Goicoechea Zubillagari horixe bera gertatu zitzaion urteetan zehar. Tradizionalisten jabetzakoa zen etxean bizi zen eta haiek, beraiei botoa emanez gero, ordaintzan zerbait emango ziotela adierazten zioten. Horrela usteltzen zituzten alegiar tradizionalistek hauteskundeak, jendea engainatuz. Baina ustelkeriak hondoa jo zuen, hain zuzen, Donato Eguiburu Azpiazuk hurrengo hauteskundeetan botatzera lagundu baitzion eta ondorioz, ez zion tradizionalistei botoa eman beharrik izan.



Ceferino Lasa Argentinan, 1925ean.
(Artanotarrek emandako argazkia).

"El Sr. Iglesias, ocupando el sillón de la Presidencia, hizo saber que proclamada la República con el mayor entusiasmo y orden más admirable realizado España su más grandiosa revolución sin colisión ni derramamiento de sangre, el Comite (sic) de la conjunción republicana socialista del Distrito obligado a conseguir que la vida administrativa no sufra la menor interrupción, le habia (sic) comisionado para que dadas las condiciones anómalas en que se habia (sic) verificado las elecciones en este Municipio por las coacciones llevadas a efecto, actos reprobables realizados y medios utilizados para obtener el triunfo, procediera a determinar la Comisión gestora que con carácter provisional deberá administrar los intereses de este Municipio y a ese efecto declaró delegada en el concejal electo D. Ceferino Lasa, la alcaldia (sic) de esta Villa para que desde el momento, ostendando (sic) el cargo quedará investido en los derechos y atribuciones que corresponden y competen a los alcaldes y con sus compañeros los tambien (sic) concejales electos D. Timoteo Zabala Saizar y D. Ignacio Galarraga Garmendia, constituya la junta que en tanto se reciban instrucciones del Gobierno deberá actuar como ayuntamiento de este Municipio. Invito al Sr. Lasa a que ocupara el sillón de la alcaldía (sic) y al abandonar la Presidencia le dio posesión del cargo entregándole las insignias correspondientes al mismo"[5].

Alegian eratutako Bigarren Errepublikako lehen udal-gobernua, *Konjuntzio Errepublikar Sozialistak*[6] hautatua, udal-gobernuan behin-behinean ezarri zen eta haren helburu nagusia, udaleko administrazioaren mantenua gauzatzea izan zen, behin-betiko udal-gobernua eratu bitartean. Udal-gobernu berria eratu zuten kideak errepublikazaleen presentziaren erakusgarri izan ziren, Ceferino Lasa Iraragorri alkate berriaren hitzetan errepara genezakeenez "Declaró que por antecedentes de familia, por sentimientos naturales y convicción siempre habia (sic) militado en los avanzados del liberalismo y que lleno de juvilo (sic) y de entusiasmo por haberse instaurado la República, cumplirá con exactitud cuantos instrucciones emanen del Gobierno o sus representantes (…) agregó que como primer actor dirigiria (sic) una alocución al vecindario anunciando de la proclamación de la República, recomendando el orden para su consolidación y bien de la Patria"[7].

Horrezaz gain, 1931ko maiatzaren 1a, estatu espainiarrean ospakizun nazionaleko eguna, langileen ospakizun eguna baitzen, Alegian ere ospakizun eguntzat izendatu zuten.

---

5 Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu : AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

6 Espainiar estatu osoan eratu zen Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Errepublikarren arteko elkartzea izan zen.

7 Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 391.Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.



**Bigarren Errepublikaren aldarrikapena Alegiako udal-gobernuan.** (AUA).

## 2.1.1. 1931ko maiatzaren 31ko hauteskundeak, behin-betiko udal-gobernua osatze bidean

Behin-behineko udal-gobernua, 1931ko maiatzaren 9an disolbatu egin zen. Horren ostean, Celestino Olloquiegui Enetarreaga idazkariak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz, 1931ko apirilaren 12ko hauteskundeetan boto gehien jaso zituzten zinegotziei udaletxean batzeko deia egin zien. Honako bilkura, *Konjuntzio Errepublikar Sozialistak* hautatutako Ceferino Lasa Iraragorri alkatearen eta, Timoteo Zabala Saizar eta Ignacio Galarraga Garmendiaren presentziarik gabe ospatu zen. Hiru zinegotziek bilkuran parte ez hartzearen arrazoi nagusia, Gipuzkoako Gobernadore Zibilari aurkeztu berria zieten beren karguaren dimisioa izan zen, Alegiako udal-aktetan erreparatu ahal izan dugunez. Horren aurrean, udal-gobernua, geroago Gerra Zibilean eta diktaduran zehar eragin berezia izan zuten agintariek osatu zuten. Juan Bautista Jauregui Lasa Alegiako alkate izendatu zuten, 1877ko urriaren 2ko udal-legeko 53. artikulua jarraituz, 1931ko apirilaren 12an boto gehien izan zituen hautagaia izan baitzen[8]:

### 1931ko maiatzaren 9an osatutako udalbatza[9]

**ALKATEA**

Juan Bautista Jauregui Lasa (tradizionalista, 5 botorekin)

**Lehen alkateordea:**
Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista, 5 botorekin)

**Bigarren alkateordea:**
Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV, 5 botorekin)

**Prokuradore sindikoa:**
Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista, 5 botorekin)

**Ikuskatzailea:**
Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV, 5 botorekin)

**1. Errejidorea:**
Tomas Arostegui Tolosa (tradizionalista)

**Zinegotziak**

Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)

Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)

8 BOE, 1877ko urriaren 4a.

9 AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

Hala eta guztiz ere, Alegiako behin-behineko gobernua izan zen aurrekoa. 1931ko maiatzaren 20an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, hain zuzen, ordura arte ezarritako udal-gobernua desegiteko agindua bidali zuen "bertan behera uzten da apirilaren 12an ospatutako zinegotzien hautaketa"[10]. Bitartean, udalaren administrazioa bertan behera gera ez zedin, aipatu Gobernadore Zibilak, Kudeaketa Batzordea (Comisión Gestora) eratu zuen, zeinaren partaideak Juan Bautista Jauregui Lasa, Ceferino Lasa Iraragorri, Juan Antonio Letamendia Lasa eta Timoteo Zabala Saizar izan ziren. Juan Antonio Letamendia Lasa Kudeaketa Batzordeko presidente izendatu ostean (hautatuen artean urte gehien izanagatik), Alegiako Bigarren Errepublikako alkatea izendatzeari ekin zioten. Alkatetza postua lortzeko bi bozketetan, Juan Bautista Jauregui Lasa eta Ceferino Lasa Iraragorri hautagaien artean berdinketa gertatu zen. Berdinketa hautsi eta alkatea aukeratu ahal izateko, Juan Antonio Letamendia Lasak, Kudeaketa Batzordeko presidenteak, 1877ko urriaren 2ko udal-legeko 55. artikulua jarraituz, aurpegia ala gurutzea jokoa erabiltzeko adierazi zuen. Jokoan, Ceferino Lasa Iraragorri Jaureguiren aurrean irabazle suertatu zen. Horrela, Ceferino Lasa Iraragorri Bigarren Errepublikako Alegiako alkate berria izanen zen. Celestino Olloquiegui Eneterreaga udal-idazkariak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilari behin-behinean udal-administrazioaz arduratuko zen Kudeaketa Batzordearen hautaketaren berri eman zion.

Horren guztiaren aurrean, arazoari konponbidea eman ahal izateko eta behin-betiko udal-gobernua osatu ahal izateko, alegiarrak, 1931ko maiatzaren 31n, espainiar estatuko beste zenbait udalerriren gisan, hauteskundeetara deitu zituzten[11]. 1931ko ekainaren 4an botoen zenbaketa egin eta hurrengo egunean, Alegiako behin-betiko udalbatza eratu zen, zeina 6 katolikoz eta 3 errepublikarrez osatu zen[12]:

**1931ko ekainaren 5eko udalbatza**

**ALKATEA**
Juan Bautista Jauregui Lasa (tradizionalista: 116 boto herritar)

**Lehen alkateordea:**
Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista, ofizinista)

**Bigarren alkateordea:**
Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)

**Prokuradore sindikoa:**
Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)

**Ikuskatzailea:**
Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV)

**1. Errejidorea:**
Tomas Arostegui Tolosa (tradizionalista)

**2. Errejidorea:**
Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

**3. Errejidorea:**
Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)

**4. Errejidorea:**
Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)

### 2.1.2. 1932ko abuztuaren 10a, Sanjurjadaren ondorioak txintxarrien herrian

Alegiako udal-gobernuaren aldaketetan erreparatu ahal izan dugunez, Bigarren Errepublika aldarrikatu osteko lehenengo urteak nahiko tirabiratsuak izan ziren. Alde batetik, udal aktetan identifikatu ahal izan dugunez, nazionalista eta tradizionalistek izango ditugu, zeintzuek gobernu zentraletik zetozen aginduei etengabean aurka egiten saiatu ziren. Bestetik, errepublikarrak edo gobernu zentralarekin gehienetan bat egiten zutenak identifika genitzake, zeintzuen artean Lasa, Zabala eta Galarraga zinegotziak entzutetsuenak izan ziren.

1932ko abuztuaren 13a, bi blokeen artean existitzen zen tentsioaren berri emateko, zinez egun garrantzitsua bilakatu zen. Hiru egun lehenago, 1932ko abuztuaren 10ean, Sanjurjo jeneralaren gidaritzan, herriak demokratikoki aukeratu zuen Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako altxamendu militarra gauzatu zen. Militarren porrotaren ostean, gobernu errepublikarrak erreakzionarioak zigortzeko neurri zorrotzak hartu zituen eta, herriaren haserrea ere kaleetan barrena islatu zen.

[10] AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

[11] Gaceta de Madrid, 1931ko maiatzaren 29ko dekretua 1931ko maiatzaren 30ean argitaratua.

[12] AUA: 391. Kaxa, 3. Zenbakia. Eusko Jaurlaritza. - Segurtasun-Saila: http://www.euskadi.eus/web01a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_resul_muni_gip_1931_1933/es_def/index.shtml



**Sanjurjoren epaiketa.**

Alegian ere giro zalapartatsua nabari zen, hain zuzen ere, 1932ko abuztuaren 13ko udalbatzan, Ceferino Lasa zinegotziak, Alegiako udala Bigarren Errepublikaren alde posizionatzeko eskatu zuen. Proposamenaren aurrean, Letamendia, Lasa eta Zabala adostasunez agertu ziren bitartean, Arrizabalaga eta Arostegui zinegotziek aurkako aldarria egin zuten, Jauregui alkatearen abstentzioarekin. 1932ko abuztuaren 20an ospatutako udalbatzan, Arostegui eta Arrizabalagak beraien botoa zuria zela adierazi zuten eta beraz, ez zutela Lasaren proposamenaren aurkako hautua egin.

Gertaera ez zen ezerezean geratuko, txintxarrien soinua handitu egingo zen haren egoitza ofiziala den Alegian, zehazki 1932ko irailaren 17ko udalbatzan. Zinegotzi guztiak udaleko udalbatza egongelan bildurik, Celestino Olloquiegui udal-idazkariak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren idatziari erreferentzia eginez, udalbatzari hasiera eman zion. Gipuzkoako estatu- ordezkariak, Juan Bautista Jauregui Lasa, Tomas Arostegui Tolosa eta Antonio Arrizabalaga Aguirre, 1932ko abuztuaren 10eko altxamendu militarraren aurka ez jarri izanagatik, haien karguetatik kentzeko agindua eman zuen. Horren aurrean, Juan Jauregui Lizarribar ordura arte lehenengo alkateordea, Alegiako alkate hautatu zuten eta, zinegotzi lanetan Jose Letamendia, Juan Antonio Letamendia, Ceferino Lasa, Timoteo Zabala eta Ignacio Galarraga geratu ziren. Modu horretan, Alegiako behin-behineko udal-gobernua eratu zen eta hemendik aurrera, Alegian burutu beharreko zeregin guztiak, 6 zinegotziren presentzian hautatuko ziren, Alegiari zegozkion 9 zinegotzien partez.

1932KO IRAILAREN 17KO UDALBATZA

| 1932ko IRAILAREN 17ra ARTEKO UDAL-GOBERNUA | EGOERA-POLITIKOA | 1932ko IRAILAREN 17tik AURRERAKO UDAL-GOBERNUA |
|---|---|---|
| **Juan Bautista Jauregui Lasa:** alkatea (tradizionalista) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere kargutik kendua | - |
| **Juan Jauregui Lizarribar:** lehenengo alkateordea (tradizionalista) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Juan Jauregui Lizarribar:** alkatea (tradizionalista) |
| **Jose Letamendia Lasa:** bigarren alkateordea (EAJ/PNV) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Jose Letamendia Lasa:** zinegotzia (EAJ/PNV) |
| **Juan Antonio Letamendia Lasa:** prokuradore sindikoa (tradizionalista) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Juan Antonio Letamendia Lasa:** zinegotzia (tradizionalista) |
| **Antonio Arrizabalaga Aguirre:** ikuskatzailea (EAJ/PNV) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere kargutik kendua | - |
| **Tomas Arostegui Tolosa:** 1. Errejidorea (tradizionalista) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere kargutik kendua | - |
| **Ceferino Lasa Iraragorri:** 2. Errejidorea (katoliko independentea) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Ceferino Lasa Iraragorri:** zinegotzia (katoliko independentea) |
| **Timoteo Zabala Saizar:** 3. Errejidorea (EAJ/PNV) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Timoteo Zabala Saizar:** zinegotzia (EAJ/PNV) |
| **Ignacio Galarraga Garmendia:** 4. Errejidorea (katoliko independentea) | Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ez kanporatua | **Ignacio Galarraga Garmendia:** zinegotzia (katoliko independentea) |

1933ko urtarrilaren 31n burututako udalbatzari esker, arestian azaldutako hiru zinegotzien beharra asetuta geratu zen. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Juan Bautista Moreno Galilea (tren geltokiko faktorea), Francisco Arrue Basabe eta Eusebio Ugartemendia Olano (papergilea) Alegiako udal-gobernuko zinegotzi berri gisan izendatu zituen. Segidan, alkate berriaren hautaketa gauzatu zen, zeinetan Ceferino Lasa ageri zen irabazle, aldeko bost botorekin eta, bat zurian izanik. Horretan guztian, Bigarren Errepublikako gobernuaren aurka gertatzen ari ziren langile (Casas Viejas, Andaluzia: 1931ko urtarrila) zein militarren (Sanjurjada: 1932ko abuztuaren 10a) altxamendu ezberdinek eragina izan zutela esan genezake. Honakoa izan zen 1933ko urtarrilaren 31ko udalbatzan osatutako Alegiako udal-gobernua:

**1933ko urtarrilaren 31ko udalbatza**

**ALKATEA**
Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

**Zinegotziak:**
- Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista)
- Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)
- Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)
- Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)
- Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)
- Juan Bautista Moreno Galilea (IR)[13]
- Francisco Arrue Basabe[14]
- Eusebio Ugartemendia Olano (IR)

Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Alegian, Bigarren Errepublikako gobernuari fidela izango zen udal-gobernuaren hautaketa egin zuen. Hauteman genezakeenez, 9 agintarietatik 5 gutxienez berriki ezarritako erregimenari fidelak ziren eta Alegia herri txikia izanik ere, erreforma berriaren aldeko hautua udal-gobernutik izatea ezinbestekoa zen eta halaxe egin zen.

Aldaketak ordea ez zuen giroaren baretzea ekarri, iskanbila handiagotu besterik ez zuen egin, udal-gobernuan, herrian ordezkapen handia zuten alderdi eskuindarren gutxiagotzea gauzatu baitzen. Horren erantzun gisa, udalbatza ezberdinetan, herritarren kanpo-indarrez baliatuz, alderdi tradizionalistak zeharka bada ere, udal-gobernuan muturra sartzen saiatu ziren. Udalbatza bat baino gehiagotan, Juan Bautista Moreno Galilea bere zinegotzi kargutik besterentzen saiatu ziren. Maria Josefa Olano Artola emakumeak, Morenok, ezin zuela zinegotzi izan aitortu zuen, hain zuzen, trenetako langile zenez, udalak bertako zergetatik jasotzen zuen zatietako bat eskuratzen baitzuen. Morenok, bere zinegotzi kargua defendatu zuen, esanaz, ez zuela udaletik ezertxo ere kobratzen. Hala eta guztiz ere, Jauregui zinegotzia, Iparraldeko Trenbideetako Estazioetako Zuzendariaren eskutitz baten bidez, Morenok, estazioetako zergaren %10a jasotzen zuela berresten saiatu zen. Horren guztiaren aurrean, Ceferino Lasa alkateak, Jaureguiren eskutitza sinesgarria zen ala ez adierazteko botazioa bideratu zuen. Maria Josefa Olano Artolak, Jaureguik, Galarragak eta Letamendiatarrek baliogarritasuna eman bitartean, Arrue, Ugartemendia, Zabala eta Lasaren alkate botoak, bertan behera utzi zuten Morenoren kargu kentzea[15]. Eskutitz hura, Iparraldek Trenbideetako Estazioetako Zuzendariak ez zuela idatzi uste zuten.

Hori gutxi ez balitz, 1933ko udan, kale izendegia aldatzeko proposamena mahai gaineratu zen. Moreno zinegotziak, Alegiako herriko plazari “Errepublikaren plaza” izena jartzeko proposamena egin zuen. Jauregui zinegotzi tradizionalistak, horrekin ezados agertuz, herriko plazak, Prudencio Tolosa alegiarraren izena eman behar zuela adierazi zuen. Iskanbila berriro ere mahai gainean zegoen, izan ere, Moreno zinegotziak, behin eta berriro, plaza haren izenak estatu espainiar osoarentzat behar zuela izan argudiatuz, “Errepublikaren plaza” zela egokiena adierazten saiatu zen. Morenoren proposamena, Arrue, Ugartemendia, Moreno eta Lasa zinegotzien baieztapen botoekin eta, Jauregui eta Letamendiar zinegotzien ezezkoarekin, berretsi egin zen.

---

[13] IR: Izquierda Republicana, 1934an Manuel Azaña politikari errepublikazaleak sortutako alderdi ezkertiar burgesa izan zen.

[14] Ezin izan dugu zein alderdietara afiliatuta zegoen berretsi.

[15] AUA: 1932-1934 Aktak, 392. Kaxa, 2.Zenbakia, A. Sekzioa. 1.Negoziatua. Aktak.

## 2.2. ALEGIAR EMAKUMEA, ASKATASUNAREN BIDEAN OINARRIAK EZARRIZ

Udal-gobernuaren boterearen isla bakarra gizonezkoak izan ziren. Alegiar emakumeak ez zuten inongo aukerarik izan hautetsiak izan zitezen. Garaiko alegiarren artean, boterea gizonezkorekin erlazionatzen zen eta horrenbestez, emakumezkoari bestelako espazio publikoak edo bigarren maila bateko espazio publikoak zegozkion. Hau da, beti ere, alegiar emakumea, eremu publikoko bazter batean geratzen zen, nahiz eta politika arloan haren papera izan, gehienetan gizonezkoaren laguntzaile izan zen.

Hala eta guztiz ere, Bigarren Errepublika, aldaketa politiko, sozial eta kultural sakonen lekuko izan zen. Aldaketa horiek guztiek, jendartea osatzen zuten emakume zein gizonen egunerokotasunean biziki eragin zuten. Emakume alegiarrarentzat, zentzu batean, aldaketa bereziki handia izan zen. XIX. mende amaierara arte rol tradizionaletan[16] eraiki zen emakumearen irudia alboratu eta estatuko gobernu berriak, emakume modernoaren aldeko apustua egin zuen. Emakume modernoa, XX. mendeko 20ko hamarkadan garatzen hasi zen eredua izan zen. Emakume hark, etxean lan egiteaz gain, fabrikan (batez ere, ehun lantegietan), ofizinetan … lan egingo zuen. Hau da, emakume hark, lirain eta dotorea izaten jarraituko zuen, espazio pribatuko lanak burutuko zituen, baina lan munduan murgiltzeagatik, autonomia puntu bat irabaziko zuen.

### 2.2.1. Bigarren Errepublikako erreformak, emakumearen burujabetzarako bidean

Hori guztia lortu ahal izateko, Bigarren Errepublikako gobernuak, lege eta erreforma aunitz martxan ezarri zituen. 1931ko abenduaren 9an Konstituzio errepublikarra onartzeaz bat, emakume zein gizonezkoak, legearen aurrean, berdin tratatuak izango ziren. Horrez gainera, kongresuan izandako eztabaida luze eta sakonaren ostean, emakumeak, botoa emateko eskubidea ere lortu zuen . Hori gutxi ez balitz, dibortziatzeko eskubidea ere martxan jarri zen, bai eta lan-mundura sartzeko askatasun handiagoa ezartzen zuten beste zenbait lege ere.

| BIGARREN ERREPUBLIKAN[18], EMAKUMEARENTZAKO LEGE-HOBEKUNTZAK | |
|---|---|
| **BOTO-ESKUBIDEA** | 1931ko urriaren 1a |
| **DIBORTZIATZEKO ESKUBIDEA** | 1932ko otsailaren 25a |
| **ABORTATZEKO ESKUBIDEA (12 haurdunaldi asteren buruan)** | 1937ko urtarrilaren 9a |

Modu horretan, garaiko emakumeari, biziki aldatu zitzaion bizitza. Orain, lanera joan eta soldata bat jasotzeko eskubidea izanen zuen. Hala eta guztiz ere, haren soldatak gizonezkoaren soldatak baino txikiagoa izaten jarraitu zuen. Honakoa, emakumea, gizonezkoaren objektu eta ez subjektu propio, izaten jarraitzen zuelako gertatzen zen. Hau da, emakumeak gizonezkoaren lan-mota eta kantitate berdina egin arren, gutxiago baloratua izaten zen, gizonezkoaren prestigioa kolokan ez jartzeagatik. Horrenbestez, emakumea, bigarren mailako gizakitzat jotzen zen eta da gaurdaino.

Ordura arte, emakumearen bizitza, orokorrean, bestelakoa izan zen. Hura, bere aita, gizon zein eliz-gizonengandik kontrolatua izan zen, bere burua askatasunez erabiltzeko eskubidea ukatzen zitzaiolarik. Ez zuten eskolaratzeko eskubiderik eta, jendarteak, oro har, berrikuntzen aurrean, ezkortasuna adierazten zuen. Emakumeak, orokorrean, ordura arte, etxeko lanak egiteaz arduratzen ziren, gizonezkoak, kanpoan lana eginez, sisteman[19] bizi ahal izateko dirua ekartzen zuelarik. Emakumearen etxeko lana ezinbestekoa zen, era berean, gizonezkoak kanpo-lana egitera bideratzeko. Hitz sinpleagoetan adierazita, gizonezkoak bere lan-indarra emakumeak etxean burutzen zuen elikagaietatik lortzen zuen; bai eta, gizonezkoak deskantsurako probesten zituen uneak, emakumeak etxea ongi mantentzeko laboreak egitera bideratzen zituenean ere.

Ez da harritzekoa beraz, lorpenak lorpen, Bigarren Errepublika garaian, oro har, bi emakume mota bereizi izatea. Alde batetik, emakume tradizionala egongo zen, ama, emazte eta etxeko zaintza-lanak beteko zituena. Honakoa, haren gehiengoan, Euzko Alderdi Jeltzaleko alderdi kideek babestu zuten emakume mota izan zen. Hala eta guztiz ere, emakumeek, alderdiaren barnean kokatuko zen taldea eratzea lortu zuten: Emakume Abertzale Batza (EAB) deiturikoa.

EAB-n, emakumezkoen ekintza politikoa eta ekintza abertzalea ahalik eta gehien banatzen saiatu ziren. Emakume euskalduna Ama Babesletzat irudikatu zuten, hau da, Euzko Alderdi Jeltzaleak, emakumeari urte luzeetan atxiki zitzaion amatasunaren rola bermatu nahi izan zuen. Ignacia Sarasola Iraola alegiarra, propagandista nazionalista, gerra hasi bezain laster bi hilabetez Frantzian erbestean egon zena, Bigarren Errepublikan Tolosaldeko herri ezberdinetan egindako mitinetan arestian aipatutako emakumearen irudia islatzeaz arduratu zen[20].

---

[16] Emakumea, espazio pribatuan egokitzea. Ama eta emazte lanak egingo zituelarik, besteak beste, biologikoki emakume determinatzeagatik.

[17] Clara Campoamor, Bigarren Errepublikaren lehen aldian, Madrildik hautatako diputatua izan zen. Hark, Gorte Errepublikarretan emakumearen boto-eskubidearen alde emandako diskurtsoak, bertako partaideek, emakumearen boto-eskubidea legedi-errepublikarrean onartzeko ezinbestekoak izan ziren.

[18] Gerra Zibilean zehar, Bigarren Errepublikako gobernua estatu espainiarraren barnean oraindik ere mantendu zen gunean egindako lege-berrespenak ere aipatu dira taulan.

[19] Sistema-kapitalista: langileriak, bizi ahal izateko, diruaren gehiengoa biltzen duen nagusiari bere lan-indarra saldu behar izaten dion sistemari deritzo.

[20] Nafarroko Artxibo Irekia: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1098.



**1918an, emakumeak arropa garbitzen Amezketa ibaian.** (J.M. Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).



**Emakumea menpeko.**

BIGARREN ERREPUBLIKA GARAIAN,
JARDUN POLITIKOA EGIN ZUTEN EMAKUME ALEGIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | EGINKIZUN POLITIKOA |
|---|---|
| AGUIRRE LETAMENDIA, MARGARITA | Nazionalista |
| ARRIZABALAGA AHIZPAK | Nazionalistak |
| GASTESI ITURRIOZ, MARIA | - |
| GOROSTARZU SARASOLA, LUCIA | Organizazio sozialeko militante eta/edo itzultzaile sindikala |
| GASTESI ITURRIOZ, FILOMENA | Alegiako Emakumeen Abertzale Batzako presidentea |
| LASA IRARAGORRI, FRANCISCA | Errepublikazalea |
| LASA IRARAGORRI, ISIDORA | Errepublikazalea |
| LETAMENDIA, KONTXITA | Nazionalista |
| SARASOLA IRAOLA, IGNACIA | Alegiako Emakume Abertzale Batzako propagandista, EAJ/PNV-ra afiliatua |

## 2.2.2. Amets gaiztoa: rol tradizionaletan oinarritutako lan-merkatua

Hala eta guztiz ere, emakumeek lan merkatura egin zezaten eta, ordura arte mendekoak izan zirenen eskuetatik alde egiteko ahaleginak ere bultzatu ziren. Horren eredu dugu, esaterako, Alegiako zenbait emakumek, Arzabalza papertegian lan egin izana. Eredu modernoari jarraiki, Alegiako emakumeen artean, Maria Echenagusia Muñagorri eta Aurelia Gimeno Huarte bereiz genitzake. XX. mende hasieratik, emakumeak ofizinista, irakasle, erizain, telefonista, dendari … gisako lanetan aritzea ongi ikusia izaten hasi zen. Horren arrazoi nagusia, oraindik ere, gizonezkoaren laguntzaile edo objektu lanetan jarraitzea izan zen. Ofizinista karguetan lan egiten zuten emakumeak, gehienetan, gizonezkoaren idazkari izatera iristen ziren. Erizain lanak ere, medikuaren laguntzaile papera betetzen zuen eta beraz, balio tradizionaletatik zetorren aldaketa ez zen hain drastikoa, emakumeak zaintza-lanak betetzen jarraitzen zuen, baina oraingoan espazio pribatuan beharrean, espazio publikoan.



**Erizain (1924).** **(Martin Ricardo).**



**Aurelia Gimeno Huarte 1942an.** **(Maria Isabel Tolosa Gimenok emandako argazkia).**

## AURELIA GIMENO HUARTE, EMAKUME BOTIKARIA

Erizainez gain, emakume botikariak, gizonezko medikuari laguntzen zioten langileak izan ziren. Alegian, Aurelia Gimeno Huarte nafarra (Aibar) Alegia, Altzo, Amezketa, Ikaztegieta, Baliarrain, Abaltzisketa eta Orendainek osatzen zuten Mankomunitate Farmazeutikoaren titularra izan zen. Aurelia Gimenok, Fronte Popularraren agintaldian, espazio publikoko lan merkatura jauzi egitea lortu bazuen ere, oraindik, rol tradizionalen barnean sartzen zen emakumearen irudia espazio publikoan islatzea lortu zuen. Izan ere, Jose Maria Tolosa Zudaire (bere senarra) eta Jose Maria Ezcurdia Albisu gizonezko mediku alegiarren (subjektuak) laguntzaile (objektu) papera bete zuen, oraindik ere, mediku izateko gaitasuna, emakume izateagatik, gaitzetsi egin zitzaiolarik[21]. Diktadura garaian, bere postutik kanporatua eta handik denbora gutxira, berrezarria izan zen.

[21] Honekin ez dugu esan nahi, Aurelia Gimenok, mediku izateko eskaera egin zuenik. Jada aurretiaz, mediku izateko aukera, gizonezkoei baino ez zitzaien atxikitzen, emakumeak baino jakinduria maila handiagoa zutela uste baitzuten garaiko jendartean.

**ALEGIAKO EMAKUME IRAKASLEAK**

Irakasle lanek ere, antzeko zerbait suposatzen zuten, emakumeak, tradizionalki, haien seme-alaben hezkuntza irakastera behartuak baitziren, amatasunaren transmisio rola jarraituz. Amak, EAJ/PNV-ko alderdi kideentzat, hizkuntzaren babesaren zutoina eta transmisioaren iturri nagusia suposatzen zuen. Horregatik, tradizioari jarraiki, emakume nazionalista zein tradizionalistek, irakasle lanak, inongo konflikto egoerarik sortu gabe bete ahal izan zituzten, ez baitzuten tradizioarekin hausten. Kasu horretan ere, emakumeak espazio pribatuan betetzen zuen lana, espazio publikora islatua baino ez zen izan. Horregatik, Franconi Fundazioko mojak, irakaspenaz arduratu ziren, bai eta, Francisca Ibarrolaburu, Carmen Goicoechea Gorostarzu, Josefa Ormazabal, Purificación Jauregui eta Dolores Berroa Arestimuño ere. Hauetako batzuk, diktadura frankistan zehar, errepresioa jasan behar izan zuten.

Eskola nazionaletan neskatoak eta mutikoak gela ezberdinetan jarri zituzten bitartean, Ormazabal eta Jaureguik zuzendutako eskola, mistoa izateagatik nabarmen genezake.




**Eskolako umeak.** (Jon Aizpuruak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emana).



**Eskolako umeak 1930ean.** (M.R. Zabalak Alegiako Alegiako Argazkizaleen Taldeari emana).

**ALEGIAKO EMAKUME DENDARIAK**

Dendariarena, emakumearen ohiko lanpostua bihurtu zen. Horrek, antzinakotasun gehiago zuen. Alegian, Bide Berri kaleko, "Etxe Berri" etxean, Filomena Iturrioz Muruaren denda kokatzen zen, zeinetan guztietariko produktuak saltzen zituen. Iturriozek, nazionalista izaki, gerra garaian erbestean egon eta itzultzean, errepresio frankistaren ondorioak jasan behar izan zituen. Horien artean, bere denda, Frantzian erbestean izan zen bitartean, frankistek hustu eta konfiskatu egin zioten.

**MARIA ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, ALEGIAKO TELEFONISTA**

Azkenik, telefonisten kasua dugu, zeintzuek haien oinarriak, 1882tik telegrafista gisan lanean jardun zuten emakumeengandik hartu zituzten. XX. mendearen hasieran, emakume modernoaren isla nagusia izan ziren. Lan mundura jauzi egin eta emakume autonomo gisan lan egin ahal izan zuten. Telefonista lanak bete ahal izateko, 16-25 urte bitartean izan behar zituzten emakumeek. Horretaz gain, 1903ko Dekretu baten bidez ateratako legediaren arabera, emakumeek, lana eskuratu ahal izateko, hiru hilabetez telefonoen zentral batean ikasle gisan jardun beharra zuten, beren jaiotza-data justifikatu eta beraien jarrera ona adierazten zuen egiaztagiria ere azaldu behar zuten.

Itxura denez, Maria Echenagusia Muñagorri errenteriarraren kasua honakoa izan zen. Errenteriatik Alegiara egin zuen, bertako "familiako-zentrala" deituriko telefonoan lan egitera. Behin tropa frankistak Alegiara sartu zirenerako, bertatik alde eginda zegoen. Hori aitzakiatzat hartuta, eta Euzkadiko Aireko Armadaren aldeko diru-bilketa egin zuela argudiatuz, Eugenio Jauregui Lasa alkate frankistak, bere lanpostutik kanporatu zuen. Haren ordez, Josefa Garmendia Ulacia eta haren laguntzaile lanetan, Maria Mercedes Vazquez ezarri zituzten.



**Telefonista bat zentralean.**

## 2.2.3. Indarkeria sexista isildua

Aipatutako kasuak kasu, emakumeak, Bigarren Errepublikan zehar, objektu papera jokatzen jarraitu zuen. Espazio publikoan lanean hasi arren, etxeko zaintza-lanak betetzen jarraitu zuen. Lan-merkatuan, gizonezkoak baino gutxiago kobratzen zuten eta horrenbestez, gizonezkoak oraindik ere, botere gehiago izatea bermatzen zuen. Hori gutxi ez balitz eta aurrerapenak aurrerapen, indarkeria sexista kasuak nonahi egoten jarraitu zuten. Agintzen zuen heteropatriarkatuaren[22], hau da, hitz errazagoetan esanda, gizonezkoaren supremazia eta emakumearen menderakuntza egoera kontutan hartuz, emakumeei zein heteropatriarkatuak ezarritako ereduan sartzen ez ziren pertsonenganako guztietako erasoak (zauritzetik hiltzeraino) ohikoak ziren. Hala eta guztiz ere, gobernu errepublikarrak, eraso hauek guztiak, ez zituen inoiz identifikatu izan egiturazko formakuntza baten erantzun gisan. Hau da, eraso eta indarkeria sexista ez zuten hitz hauekin izendartu, baizik eta, indarkeria soil[23] gisan identifikatu zuten eta hau ekoizten zutenak, gaizkile gisan baino ez. Jarraian ikusgai dituzuen 1925eko La Voz de Guipúzcoa egunkariko berri hauek, XX. mendean zehar emakumeak jasaten zuen indarkeria sexistaren isla dira.

[22] Heteropatriarkatua: gizonezkoen generoak eta heterosexualitateak, beste genero eta sexu-orientazioekiko duen nagusitasuna da. Eredu mota horren barnean sartzen ez diren pertsona oro diskriminatzen duen sistema litzateke.

[23] Indarkeria sexista, aipatu bezala ez zen identifikatzen hala. Hiltzaileak, emakumea hiltzen zuenean, gizon batek beste bat borroka batean hiltzen zuen garrantzia berdinaz eta beraz, indarkeria gradu berdinaz identifikatzen zuten. Hilketaren oinarriak ez ziren aztertzen oinarritik emakumearen menderakuntzan eratutako sistema baten erantzun gisan izan zirenik.


12 de Sepbre. La Voz de Guipúzcoa Página 7

Capítulo de sucesos

Una mujer muerta de una paliza

Suicidios incendios y desgracias

La política mundial

Los turcos tienen 40.000 hombres concentrados en la frontera de Irak para penetrar en Mosul

Los rebeldes drusos resistirán a los franceses hasta el último extremo

La fiesta de los toros

Villalta, Belmonte y Valencia, triunfan

Ayer en Tomelloso y en Haro


Página 2 La Voz de Guipúzcoa 15 de Sepbre.

"Y ahora, señores, yo quiero hacer una declaración, y es que este homenaje debo compartirlo y lo comparto, desde luego, con aquellos señores de las comisiones de las Diputaciones vascongadas, al frente de las cuales figuraban los tres presidentes, con aquellos señores que se trasladaron a Madrid para gestionar la renovación del Concierto Económico. A ellos principalmente, mejor dicho, solo a ellos, se debe el éxito

dalecio Prieto. El telefonema enviado por el ex diputado socialista dice así:

«Imposibilidad en que me encuentro, y lamento, asistir homenaje Echevarrieta no ha de ser obstáculo para que agradezca profundamente la invitación por la deferencia que justifica para una representación suprimida y no reemplazada.»

LOS BRINDIS

El señor Urien se levantó luego y dijo

Una denuncia

De Barcelona a San Sebastián en auto

Un timo descubre una estafa

Capítulo de sucesos

Mata a su suegra, hiere a su cuñada y luego intenta suicidarse

Una explosión y un incendio

***La Voz de Guipúzcoa*, 1925eko irailaren 12a eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1925eko irailaren 15a.**

Horretaz gain, azpimarratzekoa zaigu, bortxaketen kasua ere. Bigarren Errepublikako egunkarietan, bortxaketa kasu gutxi aipatzen ziren, baina horrek ez du esan nahi egoten ez zirenik. Aldi hartako jendartea, orain arte azaldu dugun gisan, balio tradizionaletan hezita zegoen. Balio tradizional haietako bat, ohorea zen. Bortxatua zen emakumeak, haren ohorea galtzen zuen eta horrek, emakumearen familiaren ohore galtzea zekarren. Bortxaketa kasuak, kalean ez ezik, etxean ere gertatzen ziren. Ohikoak izaten ziren bikote barneko bortxaketak, emakumeak ezetza eman ostean, gizonezkoak haren supremazia baliatuz egiten zituenak. Emakumea ordea, haren eta haren familiaren ohorearen bermearen babespean, isildu egin ohi zen, elizak ere, ezkondu ondoren, bizi osorako poztasuna eman baitzien. Emakume hauetako batzuk dibortziatzeko aukera hartu bazuten ere, beste askok isiltasunean mantendu zituzten haien bortxaketak. Garai hartako jendartea, balio tradizionaletan hezita egoteak, bortxaketa salatzeko zailtasunak eta isiltasuna orokortzea eragin zuen.

Indarkeria sexista horren guztiaren erantzun gisan, emakume gutxi batzuk, beren buruaren autodefentsan haien senarrak hil zituzten. Bakarrik batzuetan, familiaren laguntzaz ere bai, besteetan.

Indarkeria sexistaren inguruan helarazitako isiltasunak, oraindik ere, jendarte tradizionalaren berri ematen digu. Beraz, zenbait emakume taldek zein sindikatuk eginiko lana ezinbestekoa izan bazen ere, oraindik, Bigarren Errepublikako jendarteari berdintasunean oinarritutako jendartea lortu ahal izateko pauso handiak falta zitzaizkion. Baina bidea jadanik hasita zegoen eta, berdintasunerako joera zuten eredu berriak (emakume modernoa kasu) garatzen hasita zeuden. Aldarri hauen aurkako talderik ere sortu zen ordea: eliza katolikoaren kongregazio ezberdinak, Margaritak (karlistak) zein Sección Femenina (falangistak) delakoak, azken hau 1934an.

1936ko uztailaren 18an, herriak boto bidez hautatutako Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako estatu-kolpearen porrotak, gerrak eta balio tradizional irmoetan oinarritzen zen ondorengo diktadura frankistaren ezarpenak, berdintasunean oinarritutako jendartearen ametsa guztiz zapuztu zuen.



**Jostunak.**
**(A. Eizmendik Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).**

## 2.3. BIGARREN ERREPUBLIKAREN ETORRERA, ALEGIAKO ERLIJIOTASUNAREN NAHIGABEAREN SORTZAILE

### 2.3.1. Erlijioa, etxeko irakaspena

Eliza, emakumearen askatasunak mugatu eta alegiarren bizitzaren gaineko eskumena izan zuen beste botereetako bat izan zen. Elizak bideratutako erlijio katolikoak, Alegian izugarrizko garrantzia zuen, gainontzeko gipuzkoar herrietan gertatu gisan. Erlijioa, etxeko irakaspen bat gehiago izaten zen "130.- En casa reciben una instrucción religiosa buena como exponente de esto es que el niño que viene a la catequesis apenas hay alguna que no sepa las oraciones. Sin embargo, hay algunas familias que no dan ninguna instrucción religiosa, esos no son de aqui (sic), sino de Castilla y sus alrededores"[24]. Alegiar gehienek, beraien herria, euskal nortasunaren eredugarri zuten eta erlijioa ez praktikatzearen auzia, kanpotarrekin lotzen zuten.



**Gotzaia, Alegiako herritarrei hitz egiten.** (Artanotarrek utzitako argazkia).

[24] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2.

Garai batera arte, lurra musukatzera eta barkamena belaunikatuta eskatzera derrigortzen zituzten alegiarrak. Bigarren Errepublika aldarrikatuz geroztik ordea, ohitura horiek poliki-poliki galtzen joan ziren, guztiz ez galdu arren "152.-Es la fuerza de la tradición porque sus antepasados asi (sic) lo hacian (sic); hay que notar que la religiosidad del pueblo va decayendo en estos últimos años"[25]. Letamendia etnografoak bere lanean azaltzen duenez, elizara gutxien joaten zirenak, Alegiako gazteak ziren, batik bat, soldaduska egin ostekoak.

Hala eta guztiz ere, alegiarrak meza nagusira joatera derrigortuta zeuden, bai eta goizeko errezoetara ere "132.-Generalmente el rosario familiar, oraciones al comer y cenar, santiguarse al salir de casa, en las (…) Encender la vela bendita, quemar el laurel bendito del domingo de Ramos. El dia (sic) de San Juan enviarles con ramilletes de flores a la Iglesia para que sean bendecidas (…)"[26]. Garai hartako alegiarrak, ohiturak jarraituz hartutako erlijioaren nortasunaren jabe ziren "152.-Es grande la fuerza de la Tradición. Si se les pregunta por que (sic) son católicos, muchos contestan poco más o menos: "Gure aur'ekoak ere or'ela omen ziran ta; guk ere zer egingo degu, bada? Oitura zar'ari jar'aitu (sic)"[27].

Horien guztien artean, baserritarrak, erlijioaren eta tradizioaren mantenua ongien ahalbidetzen zutenak ziren:

"155.-En la región montañosa, en la de dificil (sic) acceso. Nuestros caserios (sic) son los santuarios de la religión y de la raza. Conviene advertir que en algunos de estos, hoy raros gracias a Dios, es muy debil (sic) la fe"[28]. Nekazariek, batez ere, uztarekiko zuten erlazioagatik gurtzen zuten jainkoa. Horregatik, baserri bakoitzeko nekazari bat joaten zen parrokoak egingo zituen otoitzak entzutera "Los vecinos tenian (sic) sus heredades tocandose (sic), los de uno junto a las de otro y hacia (sic) mucho tiempo que no llovia (sic): El dia (sic) de rogativas dijo el uno al otro: 'Goaziak er'ogatibatara' (sic). El otro le respondió: 'Y joan adi ta irean egiten ba-du, nerean ere egingo dik' (sic). Fuese el primero oro y llovió aquel año todo lo que quería (sic) per oen (sic) los terrenos de su vecino ni gota ('ebi tantarik ere ez')"[29].

Elizaren boterea emakumeen kasuan gizonezkoenean baino menperatzaileagoa izan zen. Emakume eta gizonezkoak, elizara sartu orduko bi aldetan eta banaturik ezartzen ziren. Hori gutxi ez balitz, Alegiako emakumeek lurrean eta ez bankuko egurrean, belaunikatu beharra izaten zuten "Durante la bendición solemne y la consagración de los grandes domingos las mujeres no se ponen de rodillas en la silla sino en el suelo"[30].


Folio 69

Seguidamente el Sr. Presidente manifiesta, que aunque acatando las ordenes del poder constituido, como catolico ve con dolor la disolucion de la Orden Religiosa de la Compañia de Jesus; de esta orden que tantos hombres de ciencia ha dado a la Sociedad, y protesta energicamente pero respetuosamente de tal medida gubernamental. Solicito al Ayuntamiento se adhiriese a estas manifestaciones y acordase conste en acto el sentimiento que dicha disposicion causa a la Corporacion.

Visto el Ayuntamiento lo expuesto por el Sr. Presidente acuerda hacer suyas dichas manifestaciones, y a la vez se dirige un telegrama de protesta al Excmo. Sr. Presidente del Consejo de Ministros.

Acto continuo el Sr. Presidente manifiesta que conste en acto el sentimiento que le ha producido la muerte del padre politico del concejal D. Ceferino Sora, Hilario Arrieta (q.e.p.d.) asociandose en el dolor que en este momento le aflige, y que en tal sentido se pase una comunicacion. El Ayuntamiento acuerda acceder a lo solicitado por el Sr. Presidente.

Tambien se acuerda instalar una puerta de hierro en la [illegible] del Puente llamado [illegible], por hallarse en peligro para las personas que transitan por dicho puente, y a la vez dar curso a las aguas del mismo al rio evitando asi que inunden la [illegible].

Acto seguido el concejal Sr. Galarraga, manifiesta que, en uno de los dias de la semana, han procedido al derribo de arboles los vecinos de esta

Juan Bautista Jaureguiren jarrera Jesuiten auzian. (AUA).

[25] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (13).

[26] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (3).

[27] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (13).

[28] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (23).

[29] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (28).

[30] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (32).

## 2.3.2. Erlijioaren bazterketa Alegiako udal-gobernuan

Bigarren Errepublikako gobernua ezarriz geroztik, elizak eskumenetako batzuk galdu bazituen ere, haren presentziak alegiarren egunerokotasunean, handia izaten jarraitu zuen. 1931ko ekainaren 5ean eratutako udal-gobernua eliza katolikoak Alegian zuen indarraren erakusle izan zen, arestian aipatu gisan, sei katolikoz eta hiru errepublikarrez eratu baitzen.

Bigarren Errepublikako urteak, erlijioarentzat urte ezegonkor bilakatu ziren, batik bat 1932ko urtarrilaren 23an ordena erlijiosoak disolbatzeko onartu zen dekretuaren eraginez. Horren bidez, jesuiten ordena disolbatu egin zuten. Horren aurrean, txintxarrien herriko udal-gobernuaren jarrera tinkoa izan zen, hain zuzen, Juan Bautista Jauregui Lasa tradizionalistak, jesuiten disolbatzearen inguruan protestatzen Ministroen Kontseilura telegrama bat bidaliko zuela adierazi baitzuen.

Beste zenbait neurriren artean, Alegiako udaletxera, irudi erlijiosoak udalbatza gelatik kentzeko agindua iritsi zen eta haren ordez, estatuburu berriaren irudia ezartzeko agindu. Horrezaz gain, udaletxean ezarrita zegoen Jesusen Bihotzaren irudia, herriko parrokiara eraman zuten. Horrekin guztiarekin bat, 1932ko apirilean, alegiar udal-karguei ospakizun erlijiosoetara kargu politiko gisan joatea debekatu zitzaien (gobernu zentralak, laikotasunaren aldeko hautua egin baitzuen) bai eta udalen altxortegiak elizaren laguntzarako erabiltzea ere:

### 1931ko ekainaren 5eko udalbatza

**ALKATEA**
Juan Bautista Jauregui Lasa (tradizionalista)

**Lehen alkateordea:**
Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista)

**Bigarren alkateordea:**
Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)

**Prokuradore sindikoa:**
Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)

**Ikuskatzailea:**
Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV)

**1. Errejidorea:**
Tomas Arostegui Tolosa (tradizionalista)

**2. Errejidorea:**
Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

**3. Errejidorea:**
Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)

**4. Errejidorea:**
Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)

"El Estado, las Regiones, las Provincias y los Municipios no podrán mantener, favorecer ni auxiliar económicamente a las iglesias, asociaciones e instituciones religiosas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo veintiseis (sic) de la Constitución"[31].

Ordura arte, urte luzez hala baimenduta, elizak herrietako lur gehienen jabetza bere eskuetan izan zuen. Alegian ere halaxe gertatzen zen, eta herritarretako askok, elizako lurrak errentan hartu eta nekazaritza lanetan jarduten zuten. Gehienetan errenta, eliz-karguei, ereindako elikagaietan ordaintzen zieten. Baina Bigarren Errepublikaren etorrerarekin eta 1933an berretsitako Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen legearen bitartez, elizaren jabetzak aldatu egin ziren:

"Pertenecen a la propiedad pública nacional los templos de toda clase y sus edificios anexos, los palacios episcopales y casas rectorales, con sus huertas anexas o no, Seminarios, Monasterios y demás edificaciones destinadas al servicio del culto católico o de sus ministros. La misma condición tendrán los muebles, ornamentos, imágenes, cuadros, vasos, joyas, telas y demás objetos de esta clase instalados en aquellos y destinados expresa y permanentemente al culto católico, a su esplendor o a las necesidades relacionadas directamente con el:

Las cosas y los derechos relativos a ellas, referidas en el párrafo anterior, quedan bajo la salvaguardia del Estado como personificación juridica de la Nación a que pertenecen y sometidas a las reglas de los articulos siguientes"[32].

Honenbestez, Alegiako udal-gobernuak, hasiera batean elizarenak ziren Pobazubi-Chiqui-tik (sic) gertuko lurretan gaztainondoak landatu zituen. Horrek izugarrizko iskanbila eragin zuen herriko parrokoa zen Julian Ayestaran-ekin. 1934ko martxoaren 6an, Julian Ayestaran parrokoak, guztiz oldartuta, udalbatzako plenoan, Pobazubi-Chiquiko (sic) lurrak elizarenak zirela adierazi zuen. Udal-gobernuak, Juan Antonio Letamendia eta Celestino Olloquieguik baso zerbitzuko ingeniariarekin bat, arazoa konpondu ahal izateko komisioa eratu zuen.

Auzi honekin argiago geratzen zaigu, Alegiako elizak, zer-nolako boterea izaten jarraitzen zuen. Oraindik ere, Alegiako boterea ez zela sekularizatu errepara genezake.

Boteretik erlijiotasuna besterentzeko prozesuan zehar, 1932ko martxoan, hilerria sekularizatzeko agindua etorri zen.

1931ko uztailaren 9an, Gobernu Probisionalak ateratako dekretuaren bidez, hilerriak udaletxeen esku geratzen zirela determinatu zen, baina hilobiratze zibila edota erlijiosoa egiteko hautua pertsona bakoitzarena izango zen. Ordura arte, Alegiako hilerrian, katolikoa ez zen jendearentzat toki besterendu bat ezarrita zegoen, baina data horretatik aurrera, osoki toki ez-erlijioso bat bilakatuko zen.

[31] Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen Legea (1933). Bigarren izenburua: konfesio erlijiosoen kontsiderazio juridikoa: 10. Artikulua.

[32] Konfesio eta Kongregazio Erlijiosoen Legea (1933). Hirugarren izenburua: konfesio erlijiosoen kontsiderazio juridikoa: 11. Artikulua.



**Pobazubi-Chiquiko lurren auzia.** (AUA).



**Alegiako kanposantuaren sekularizazioa.** (AUA).

## 2.3.3. Hezkuntza eta erlijioa

Bigarren Errepublika garaian, hezkuntzako pedagogiaren arloan burututako erreforma zinez garrantzitsua izan zen. Azken finean, haren helburu nagusia, gobernua osatzen zuten alderdi askorentzat, herritar errepublikar on bat egituratzea zen "Lehen momentutik erreparatzen dugunez, oso lotura estua zegoen egiteko politikoaren eta hezkuntzaren artean, arazo politiko eta arazo pedagogikoen arteko lotura estua zegoen"[33]. 1931ko abenduan aldarrikatutako Konstituzioak, hezkuntza laiko baten eta ez-erlijioso baten aldeko apustua eginen zuen.

1933ko azarorako, Alegiako hezkuntzaren egoera oparoa zela adieraz genezake, izan ere, eskola nazionalez gain, bestelako eskolak ere baziren bertan:

"Ademas (sic), la población escolar de esta Villa, puede calcularse proximamente (sic) en ciento cincuenta y una, niños y niñas, y para ello cuenta con dos escuelas Nacionales con una matricula (sic) en ella de niños de unos cincuenta y cinco y de treinta y ocho en la de niñas. Existe tambien (sic), una Escuela de Fundacion (sic) particular a la que concurren niñas de esta Villa y de la de Alzo en numero (sic) de sesenta de los cuales puede calcularse que treinta y tres son de esta localidad, y tambien (sic) funciona una Escuela particular mixta a la que acuden unos veinticinco alumnos"[34].

Alegiar neskatoetako askok, Fundación Franconi deituriko mojen komentuan ikasi zuten "M: Hemen herrin kolegion ibili nitzen hamar bat, hamaika bat urte arte ta gero (…) E: nola zun izena kolegiok? M: Fundación Franconi (…)"[35].

---

[33] MOLERO, A. 1975. La Segunda República Española y la enseñanza (primer bienio). *Revista de educación, 240 (SEP-OCT)*: 53. or.

[34] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 392. Kaxa, 2.Zenbakia, A. Sekzioa, 1. Negoziatua.

[35] Testigantza: Maria Teresa Aguirre Ormazabal: 00:00:02-00:00:14.

Testigantzetarako argibideak:

-(…) adierazpenak, elkarrizketa liburuan ezartzeko egokitua izan dela esan nahi du.
-… adierazpenak, elkarrizketatuarengan isilunea izan dela adierazten du.
-Elkarrizketatzailea, "E" adieraz adieraziko da.
-Elkarrizketatua, bere izenaren lehenengo letraz adieraziko da.
-Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.


Folio 168

nueva Enseñanza de la República, al considerar debe crearse en esta villa, desde primero de Enero próximo, una Escuela de Párvulos, para con las ya existentes compensar las que se sustituyen, á cuyo efecto el Ayuntamiento debe habilitarse el local y material adecuado. Se dice al presente: Se establece por todo el Ayuntamiento una Escuela de Párvulos, y aparte de que la creación de esa nueva enseñanza entiende el que suscribe requiere el cumplimiento de requisitos que dirán como resultado, el que la superioridad al mostrar su conformidad, designará el Maestro ó Maestra que deba regentar la Escuela, considera el exponente que la primera dificultad con que tropezaría el Ayuntamiento para su instalación, es la de falta de local, pues esta villa carece en absoluto de dependencias en condiciones para destinarlas á fines como el de referencia.
Además, la población escolar de esta villa, puede calcularse próximamente en ciento cincuenta y una, niños y niñas, y para ello cuenta con dos Escuelas Nacionales con una matrícula en la de niños de unos cincuenta y cinco y de treinta y ocho en la de niñas. Existe también, una Escuela de Fundación particular á la que concurren niñas de esta villa y de la de Alzo en número de sesenta, de las cuales puede calcularse que treinta y tres son de esta localidad, y también funciona una Escuela particular mixta á la que acuden unos veinticinco alumnos.

**Alegiako eskola ezberdinak.** (AUA).



**Ikasleak Franconi Fundazioan.** (Tolosa-Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

### 2.3.3.1. Eskola nazionalak

Udaletxeko lehenengo eta bigarren solairuan kokatzen ziren eskola nazionalek, izugarrizko arazoak zituzten, eraikina egoera kaxkarrean baitzegoen. Horren aurrean, Ceferino Lasa Iraragorri Alegiako alkatea, eskolen eraikitzearen zenbatekoaren berri eduki ahal izateko, Azkoitiako arkitektoa zen Joaquin Yrizarrekin hitz egitera joan zen. Eskolen eraikitzeak guztira 15.000 pezetetako gastua izango zuela adierazi zion.

1933ko otsailean, Alegiako udal-gobernuko Hezkuntza Kontseiluaren adierazpenez, hezkuntza eredu duin bat eduki ahal izateko, eskola nazionalak eraikitzea zeinen garrantzitsua zen adierazi zuten. Bide horri jarraiki, Alegiako udal-gobernuan, eskola nazionalen berreraikitzearen aldeko botazioa gauzatu zen. Juan Bautista Moreno, Francisco Arrue, Eusebio Ugartemendia eta Ceferino Lasak, eskola nazionalak berreraikitzearen aldeko hautua egin zuten. Udal-gobernuko zinegotzi katolikoek, Jose eta Juan Antonio Letamendiak eta Ignacio Galarragak, eskola nazionalen berreraikitzearen aurka botatu zuten. Ceferino Lasa alkateak udal-gobernuak eskola nazionalak eraikitzeko gastuen %25 baino ez zuela ordainduko adierazi eta gainontzekoaz gobernu zentrala arduratuko zela adierazi arren, zinegotzi katolikoak aurka agertu ziren. Beraz, kontrako botoak eman zituzten zinegotziek zergati ekonomikoak ezarri bazituzten ere eskola nazionalen berreraikitzearen aurkako aitzakiatzat, atzean erabaki politiko irmoa zegoela ikusgarria da. Zinegotzi katolikoen hautuan, seguruenik, Bigarren Errepublikako gobernuak hezkuntza laikoaren alde egindako apustua eta hezkuntza katolikoaren besterentzeko erabakia zegoen.

Alegiako eskola nazionalak, hau da, estatuaren politiken bidez administratzen zirenak, udaletxean bertan kokatzen ziren eta neska-mutilak bananduta ikasten zuten "(…) mutillek goran ta neskak be(he)ran(…)"[36]. Alegiako haurrak 4 urterekin hasten ziren eskolan. Bederatzietatik hamabietara goizez eta ordu bietatik lauetara jarduten zuten arratsaldetan, guztira bost ordu egunean. Ostegunak eta igandeak jai izaten zituzten, bai eta festa nazionalak ere. Gabonak, Aste Santua eta inauteriak ere ospakizun, eta beraz, jai egun bihurtzen ziren Alegian.




**Eskolako umeak.** (I. Aranburuk Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

Hasiera batean, Carmen Goicoechea Alegiako eskola nazionaletako irakasleak, puntu-lanak eta laborea erakusten zizkien neskatoei, hau da, azken finean, lan-mundura bideratuta zegoen sailkapen binomiala[37] irakasten zitzaien "(…) maistra hure zan … Carmen Goicoechea, bertakoa hamengoa zan hura (…) eskola behiñ e ezteu euskeraz hitz eiñ (…) keba ezta pentsature (…) ez genun entenditzen erdera. Harek (Carmen Goicoecheak) puntu lanen eakusten ziun berriz (…) da laboreare bai. (…) Geo hamen sortu zan komentue monjana, asko harutza jun tzien"[38]. Neska eta mutilen arteko bereizketa garaiko pentsamenduaren isla zen,

[36] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. "Alegiako eskolan asko ikasi zuen".

[37] Sailkapen binomiala: emakumezkoek rol jakin batzuk (zaintza-lana eta ugalketa-lana, eremu pribatuan garatzen dena) eta gizonezkoek beste rol jakin batzuk (kanpoko lana, hau da, produkzio lana, esaterako, fabrika lana litzatekeena eta beraz, eremu publikoan gauzatuko zena) egitea, emakumezko edo gizonezko jaiotze hutsagatik.

[38] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. "Bi maistra, bat gerra aurretik, bestea gerra ondoren".




**Eskolako umeak 1934an.** (Tolosa-Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

hala ere, emakumezkoek ordura arte gizonezkoen ikasketak kontsideratuak izan ziren ikasgaiak jasotzea lortu zuten, Pakita Artola Egiburuk adierazi gisan "(…) nei gustatze zitzaiana letzea… gero geografie… matematikak etzien holako grazik iten ez… gero geometria zala… fisika zala… gendun liburu bat, danak han etortze zien, fisika, kimika… bueno bakarrik gramatika izango zan apartekoa"[39].

Eskola nazionalek era guztietako irakasgaiak irakasteko gaitasuna bazuten ere, irakasleek materialen faltagatik, behin eta berriro eskakizunak egin zituzten. Esaterako, 1935eko otsailean, liburutegi baten eskaera egin zuten Alegiako Hezkuntza Kontseiluaren berrespenarekin.

Hamahiru urtez geroztik, eskola nazionaletako jarduna amaitu eta eskola partikularretan ikasten edo lanean hasten ziren alegiar gazteak, honakoetako irakasleari ordaindu egin behar izaten ziotelarik. Eskola partikularretan katekesia ere irakasten zen.

Bigarren Errepublikan zehar, ordura arte, banaketa binomialari (gizonezkoek haien zeregin zehatzak zituzten -fabrika lana, esaterako- eta emakumezkoak beraienak -etxeko lanak, gehienbat-) jarraiki inposatu zen irakaskuntza, hein handi batean, disolbatu egin zela errepara genezake. Emakumezkoei, gizonezkoek ordura arte mantendu zituzten pribilegioak eskuratzeko ate gehiago ireki zitzaizkien. Hala eta guztiz ere, arestian aipatu gisan, bi sexuen (emakumezko eta gizonezkoen) arteko banaketak bere horretan jarraitu zuen.

*Euskara eta hezkuntza nazionala*

Neskatoen irakaslea, 1932ko maiatzera arte, Francisca Ibarrolaburu izan zen, baina azken honen erretiroaren ostean, Carmen Goicoechea Gorostarzu ezarri zen Alegiako lehen hezkuntzako irakasle gisan. Carmen Goicoechea, alegiarra eta euskalduna zen arren, irakasgaiak gaztelaniaz ematera derrigortuta zegoen. Gobernu zentraletik bultzatutako hezkuntza erreformak ez zuen albo batera uzten euskararen irakaskuntza, baina ezinbestekoa zen hori legeztatu ahal izateko autonomia-estatutuaren beharra. Horren aurrean, estatuko hizkuntza ofiziala gaztelera zenez, ezinbestean Alegian ere gazteleraz irakasten zuten[40]: "140-Todos poseen titulo (sic) oficial. El Maestro es de Oviedo. La Maestra de Irun (sic), La Maestra de la escuela particular es del pueblo. Hay despues (sic) una escuela o colegio regentado por monjas castellanas. A los niños se les habla en castellano; en lengua materna nunca, fuera de alguna explicación esporádica, siempre en castellano; a pesar de haberse rogado por padres de familia que se diera bilingüe, siendo en este aspecto sectaria, toda ilustración en lengua materna hasta el catecismo"[41].

[39] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. "Alegiako eskolan asko ikasi zuen".

[40] Gaceta de Madrid, 1931ko Konstituzioa: 1931ko abenduaren 10eko argitalpena. III. Izenburua, II. Kapitulua, 50. Artikulua.

[41] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (7-8).



**Carmen Goicoechea Gorostarzu, haren eskolako umeekin, Gerra Zibila hasi baino lehen.** (Tere Inza Goikoetxeak emandako argazkia).

Euskararen aurkako aldarriak entzutetsuak izan ziren, batik bat, Andres Vazquez irakasle nazionalaren partetik, zeinak diktadura garaian udal-idazkari postua urte batzuez bete zuen. 1931ko azaroan, udal-gobernuak, aho batez, euskal kultura ikasleei transmititu ahal izateko *Saber euskalduna* delako liburua eskola nazionaletako liburuetako bat izan zedin baieztatu zuten. Vazquez tradizionalista, bere korronte ideologikoaren erakusgarri, *Saber euskalduna* delako liburuak ez zuela irakasgaiak irakasteko balio adierazten saiatu zen.



**Andres Vazquez bere ikasleekin, gerra hasi baino lehen.** (Koro Ruizek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako irudia).

Neskatoen kasuan, laster irakaslez aldatuko zuten eta berau, Gerra Zibilean eta diktaduran zehar errepresioa jasango zuen Dolores Berroa Arestimuño irundarra izanen zen "(…) oso maistra ona gendun e…oso ona! Irungoa zan bea… esto… Lolita Berroa"[42]. Dolores Berroa, Alegiako eskola nazionaletako irakaslea izan zen eta Alegiara tropa frankistak 1936ko abuztuaren 7an sartu zirenean, bere kargutik kanporatu zuten[43]. Dolores Berroa irakasle nazionala, Bigarren Errepublikako agintarientzako ezinbestekoa zen ikasleak hezteaz arduratu zen, hain zuzen, jendarte justuago bat eraikiko zuten ikasleena eta horregatik, geroago diktadura garaian inposatuko zen hezkuntza katolikoaren errotik, besterendua izan zen "I: Maistra oso jatorra gendun, tarte baten faltatu zan, eztakit guk, nik aurrena maistra hue izan nun ta aizkena re bai, baina tarten izan genun Tolosako maistra bat doña (…) Maria Luisa Echeverria, ta hue moja jun tzan geo, gure eskolatik atea ta ondorenen moja sartu zan, eta atzea berriz lehengo maistra hoi, Irungo hoi etorri zan gureana. E: Ta zein izen tzun maistrak?. I: Lolita Berroa, Maria Dolores zan, baiño beai Lolita esatea gustatze zitzaion eta gero lanbatetan Irunea jun behar izate zun, bere etxea, Irunen bizi zan ta"[44]. Kanporatu eta denbora gutxira, berriro ere, bere lanean jardun ahal izan zuen Dolores Berroa Arestimuño irakasleak.

Garaiko neskato zein mutikoak, eskoletako zuzentasun irmoaren berri izan zuten biolentziaren bidez "143-. Se les castiga a los niños en la escuela, encerrándoles durante más tiempo, pegarles moderadamente, ponerles de rodillas, hacerles barrer la escuela"[45].

### 2.3.3.2. Doktrinaren irakaspena

Alegiako udaleko eskola nazionaletan doktrina ez irakastea lortu bazuten ere, 1933ko Konfesio eta Kongregazioen Legearen bidez, umeetako asko, klasetik irten eta doktrinara joaten ziren Maria Angeles Montoyarengana "(…) doktriñaik ez e, doktrinaik etzan eakusten, gero jute giñen handiken doktriñe etxea (…) 12k laurdengutxiagotan ateatze giñan, 12tan atea ber genun baño (…) handiken doktrina etxea jute giñen (…) katekistake izate zian bastante ta guk oso katekista ona gendun han (…) doktrina zala oso zaille ikasten (…) euskera berrien ta guk izate giñuzen komerik (…) nei erakuste ziana oso ona zan (…) gurea behintzat oso ona zan, apaiza zun anaia, beak aberatsak zien, hor bizitze zien aberatsak, ta haure dedikatze zan arreba guri eakusten, hoi gerra baño lehenago, zeatik gero gerrako garaien Frantzia alde ein ber izan tzuen (…)"[46].

Doktrinaren irakaspena euskaraz egin ohi zen, jatorrizko hizkuntza izateak erraztu eta jainkoaren hitza errazago barneratuko zutela uste baitzuten "148.-En la explicación del catecismo siempre se emplea el Euzkera"[47].

### 2.3.3.3. Franconi Fundazioa

Franconi Fundazioaren Kolegioa, Alegian kokatzen zen (Larraitz auzoan) eta, Altzoko eta Alegiako neskentzako eraiki zen eskola izan zen. Eusebia Franconi eta Zuaznabarrek, 1915eko irailean egindako testamentuaren bidez, neskatoentzako izango zen eskola baten eraikuntza egin nahi zuela adierazi zuen. 1915eko urrian hil ostean, bere ametsa egia bihurtzeko prozesua hasi zen "(…) doña Eusebia Franconi y Zuaznábar dispuso en su testamento, otorgado en San Sebastián, el 25 de septiembre de 1915, que despues (sic) de su fallecimiento -ocurrido el 20 de octubre del mismo año- se destinase el Caserio (sic) Beguiristain, a un dia (sic) con sus pertenencias, radicantes en el Municipio de Alegria (sic), asi (sic) como la suma de 150.000 pesetas, a la fundación de una Escuela de Niñas para los pueblos de Alzo y Alegria (sic)"[48]. Eskola, Begiristain baserria zegoen tokian kokatuko zen eta bertan, neskatoei, katekesia euskaraz zein gaztelaniaz erakutsiko zitzaien.



**Franconi Fundazioa.** (Pilar Riveraren argazkia-2004).

[42] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. "Alegiako eskolan asko ikasi zuen".

[43] PARES: Archivo General de la Administración. Fondo: Ministerio de Educación Nacional. Serie: Expedientes de depuración de maestros nacionales. Signatura: 32/13256. Fecha de expediente: 1936-1942. Número de páginas del expediente:-. Tipología: Depurado. Observaciones:-.

[44] Testigantza: Miren Ixiar Intxausti Arregi: 00:00:06-00:00:42//00:04:05-00:04:17. "Eskola errepublikarra eta frankista".

[45] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (8).

[46] Testigantza: ahotsak.eus. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. "Doktrina asko ikasi zuen, katekista ona zutelako".

[47] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (12).

[48] Gaceta, 1940 abenduaren 25ean argitaratua: 8858 orrialdea.

## 2.4. NAZIONALISTA, EZKERTIAR ETA TRADIZIONALISTEN ARTEKO EZTABAIDAK, UDAL-GOBERNUAN

Alegia ere, Bigarren Errepublikan zehar, ezkertiarren, nazionalisten eta tradizionalisten arteko tirabiren lekuko izan zen. Alegiako kaleak hiru indar nagusik hartu zituzten: tradizionalistak, nazionalistak eta ezkertiarrak. Haien indarraren erakusgarri, herrian zehar, bakoitzak, bere zentroa zuen, zeinetan beren aldarrien ikusgarritasuna plazaratzen zuten. Zentro Errepublikarra, Alegiako Bide Berrian kokatzen zen (Ceferino Lasa alkate errepublikazalea, Olloquiegui udal-idazkaria zein Moreno trenbideetako faktorea izan zirelarik ustezko sortzaileetako batzuk), Batzokia 1918ko irailaren 22an inauguratua "(…) aurrenengo Batzokie Alegin, fundatu zuen honen (Mikel Artano Gastesi) aittek (Jose Artano Altuna), apaiz horrek (Pio Montoya), Oquiñena… zea… beterinariok (…) eta Laudianoneko Antoniok, hoik."[49] San Juan 36an eta Circulo Tradicionalista edo "Euskal-Fueristen Echea" deiturikoa, San Juan kaleko 43 zenbakian kokatzen zen "Hay un Batzoki, un centro republicano, y un centro carlista, la influencia religiosa se puede deducir del matiz del centro"[50].

Kaleez gain, Alegiako udal-gobernuan ere hiruen ordezkaritza present zegoen eta horrek izugarrizko eragina izan zuen herriarentzako garrantzitsuak ziren erabakiak hartzerako orduan.

1931ko uztailaren 25eko udalbatzan, ezkertiarren eta tradizionalisten arteko lehen ika-mika gertatu zen. Hain zuzen ere, 1931ko uztailaren 17an, herriko ospakizuna bide, errepublikar bandera Alegiako udaleko balkoian ezarri beharra zegoen. Horren aurrean, Ceferino Lasa zinegotziak Juan Bautista Jauregui Alegiako alkateari errepublikar bandera ezarri zezan agindu zion. Jauregiuk, bandera jartzeari uko egin zion, beharrezkotzat ez ikusita. Urte bereko abuztuan, ika-mikak jarraitu egin zuen, hain zuzen ere, bandera errepublikarra oraindik ere ez baitzen ikusgarri Alegiako herritarrentzat.

### 2.4.1. Ideologiaren eragina udal-langileengan

Gai sinbolikoei eragiteaz gain, udaleko langileei ere eragin zien alderdi bakoitzaren irmotasunak, horren adibide dugu Joaquin Guerendiaga aguazilaren kasua. Guerendiagak, soldataren igoera eskatu zuen udalbatzan eta erantzuna alderdikoia izan zela esan genezake. Hain zuzen, alderdi tradizionalista eta nazionalistako kide ziren Jauregui eta Letamendia zinegotziek soldataren igoeraren aurkako hautua egin bitartean, Lasak, soldataren igoeraren aldeko hautua egin zuen, beti ere, beste udal langile batek eskaera berbera eginez gero onartzen bazitzaion.

Francisca Ibarrolaburu eskola nazionaletako irakasleak, bere soldata 100 pezetatik 250 pezetetara igotzea eskatu zuen, bere logela herriko aguazilak erabiltzen zuela aldarrikatuz. Honakoaren aurrean, Alegiako udal-gobernuko alderdiek, Guerendiagaren kasuaren aurrean azaldutako posizioaren guztiz bestelakoa hartu zuten. Juan Bautista Jauregui alkatea eta, Jose Letamendia, Juan Antonio Letamendia, Antonio Arrizabalaga eta Tomas Arostegui soldata altxatzearen alde agertu bitartean, Lasa eta Zabala zinegotzi errepublikazaleak, soldata altxatzea eskupeko gisa ulertuz, honako hautuaren aurka agertu ziren.

#### 2.4.1.1. Diruzaina

Alegiako udalak, gainontzeko herriek bezala, udaletxeko diru-kontuez arduratzen zen diruzaina zuen, Miguel Olano[51] deiturikoa. Bigarren Errepublika betean, 1932ko ekainean, Miguel Olano hil egin zen eta diruzain berria ezarri bitartean, Juan Jauregui haren postua betetzeaz arduratu zen.

Alegiako udal-gobernuan diruzain berria aukeratzeko eskakizunak, eztabaida luzea eragin zuen. Oraingoan ere, udal-gobernua bi bloketan bereizi zen. Zabala eta Lasa errepublikazaleek blokeetako bat osatu bitartean, tradizionalista eta nazionalistek hauen aurkaritzako blokea osatu zuten. Azken blokeak, Miguel Olano zenaren Eduardo Olano seme adingabekoak postua hartu bitartean, Rafael Oyarzabal Lizarralde zinegotzia, Alegiako udaleko diruzaintzaz arduratzea berretsi zuen.

Lasa zinegotziak, diruzaintza postua enkante publikora ez zela atera adierazi zuen eta beraz, Rafael Oyarzabal zinegotziak ezin zuela izendatutako postua bete. Eztabaida konpondu beharra zegoen eta horretarako, udal-gobernuak, kasua ongi aztertzeko, Jose Mugica letratua abokatu gisan izendatu zuen. 1931ko uztailaren 15eko dekretuaren arabera, zinegotziek diruzaintza postua har zezaketela berretsi ahal izan zen, baina Oyarzabal zinegotziak ezin izango zuen postu hura aurretik enkante publikoa egin gabe diruzain berriaren eskuetan jarri. Horren aurrean, 1932ko uztailean, Alegiako udal-gobernuak diruzain postua enkante publikora ateratzea erabaki zuen.

Nazionalistek eta tradizionalistek, diruzainaren postua beren ideologia mantentzen zuen kidearen eskuetan uztea nahi izan zuten. Lasa zinegotzia honako aukerari kontra egiten saiatu bazen ere, nazionalista eta tradizionalisten blokeak, laster, Mugica letratuaren gomendioz, 1932ko abuztuan, Alegiako diruzain gisan Ignacio Galarraga Garmendia izendatu zuten.

Bloke errepublikazaleak gogor egin zuen, Ignacio Galarraga zinegotzia haren postutik kendu ahal izateko, eta emaitza urtebete beranduago iritsi zen, 1933ko abuztuan. 1933ko urtarrilean ezarritako udal-gobernu errepublikazaleak, diruzain postua enkan-

---

49 Testigantza: Maria Teresa Aguirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:04-00:00:22. "Batzokia".

50 Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (16).

51 AUA: 1932-1934 Aktak, 392. Kaxa, 2. Zenbakia, A. Sekzioa, 1. Negoziatua.

te publikora ateratzea erabaki zuen. Horren aurrean, alderdi tradizionalista eta nazionalistaren apustua, Maria Josefa Olano Artolarena izan zen eta bloke errepublikazalearena berriz, Antonio Munduate Urdampilleta. 1933ko abuztuaren 26an, Arrue, Ugartemendia, Zabala, Moreno eta Lasa zinegotzi errepublikazaleen botoei esker, Antonio Munduate Urdampilleta Alegiako udaletxeko diruzain berria bilakatu zen. Gerora, Munduate, tropa frankistak Alegiara sartu bezain laster, bere postutik kendu zuten, haren postuan, Francisco Urteaga karlista ezarriz.

Alegiako udal-karguak hautatzerako garaian, bi blokeen banaketak, izugarrizko eragina izan zutela erreparatzekoa da.

#### 2.4.2.2. Oquiñena albaitariaren kasua

Gregorio Oquiñena Erro[52], Alegiako herriko albaitaria eta, bertako Euzko Batzokiaren sortzaile eta zuzendarietako bat izan zen. Batzokian bertan errezitatu zituen zenbait mitinen egile eta euskal kulturaren propagandista sutsua ere izan zen. Alegiako herrian, euskal nazionalismoaren irudi bizietako bat izateak, arazoak ekarri zizkion bere albaitari postua mantentzeko.

Tradizionalistek eta errepublikazaleek indarrak batu zituzten bere albaitari kargutik kendu ahal izateko. Horrenbestez, 1932ko martxoaren 19rako bere kargutik besterendua izan bazen ere, herriko albaitari gai zen Munitarekin batera, higienearen inspektore kargua mantentzen jarraitu zuen. Horren aurrean, zinegotzi nazionalisten laguntzaz, Oquiñenak, Gipuzkoako Abelazkuntza Orokorreko Zuzendaritzari bere albaitari kargua itzul ziezaion idatzi zion. Borroka instituzionalen ostean, 1934ko urtarrilaren 16an, tradizionalista eta nazionalistek berriro ere Alegiako udal-gobernuko gehiengoa osatu zutenean, Oquiñenak bere albaitari postua berreskuratzea lortu zuen.

### 2.4.2. Ideologiaren eragina herriko proiektuen finkatzean

Ideologia, txintxarrien herriko udal-gobernuan, edozein hautaketa egiterako orduan erabakigarria izan zen. Herriko zenbait proiektu erabakitzerako orduan, gehienetan, bi bloke nabari ezberdindu ziren.

#### 2.4.2.1. Merkatua eta animalien hiltokiaren eraikitzea

Horren adibide ditugu, merkatua eta animalien hiltokia[53] eraiki behar ziren ala ez erabakitzeko sortutako eztabaidak, zeintzuk argi eta garbi, alderdi bakoitzak mantentzen zuen ideologiaren arabera erabakiko ziren, eta ez herriarentzat beharrezkoak ziren ala ez kontutan hartuz.

Juan Bautista Jauregui Lasa Alegiako alkate tradizionalista agintean zegoelarik, Ceferino Lasa zinegotzi errepublikazaleak, 1931ko abuztuaren 1eko udal-plenoan, higiene-legeak agindu gisara, herri barnean kokatzen zen hiltokia, handik kanpora atera zedin eskatu zuen. Ordurako, herri barnean kokatzen zen hiltokiaren berrikuntza hasita zegoen eta hura gelditu, Lasak eta errepublikarren blokeak, hiltokia herritik kanpora eramateko apustua egin zuten. 1933ko urtarrilaren 31n alde errepublikazalera egin zuen alegiar udal-gobernuaren eraginez, hiltoki berria eraikitzeko proiektua berretsi egin zen. Horrez gainera, merkatu berri bat eraikitzeko hautua ere egin zuten. Enkante publikoaren bidez, Jose Balerdiri eman zioten hiltoki berria eraikitzeko eskumena eta berriz, merkatua eraikitzeko eskumena, Angel Azurmendiri egokitu zitzaion.

1933ko hauteskundeen ostean, Alegiako udal-gobernua, balio errepublikarrekin hain ados ez zegoen korporazioak osatu zuen, eta horrenbestez, ordura arte onartutako merkatuaren zein hiltokiaren proiektuak bertan behera utzi zituen, Juan Jauregui Lizarribar alkatearen zuzendaritzan egituratuta. Horren aurrean, merkatua, udal-biltegia bihurtzeko erabakia hartu zuten. Geroago, Lasa alkatetzara itzultzean merkatu berriaren handitzea onartu bazuten ere, proiektuen handitasuna txikitasunean murgildu zen.

### 2.4.3. Ekonomia, udal-gobernuko erabakietatik at

Alegia, biztanle kopuruz xumea baina ekonomia oparoa zuen herria zen. Haren basoetan kokatutako burdinolak aipatutakoaren erakusle izan ziren, zeintzuetan gehienbat, aizkorak ekoizten ziren, basoko egur eta Ingalaterrako Scheffield hiriko altzairuarekin. Haien artean, esanguratsuenak, “Sagastume” deiturikoak izan ziren; baina XX. mendeko 20ko hamarkadarako haien ekoizpena eten egin zen[54]. Aizkorez gain, armak, ezpatak … eta herriari eta bertako biztanleei izena eman dien txintxarriak ere bertan ekoizten ziren. Alegia, txintxarrien herria.

[52] -AUA: 421.Kaxa, 2.Zenbakia, 1931-1932 Aktak.
-AUA: 392. Kaxa, 2.Zenbakia, A. Sekzioa, 1. Negoziatua, 1932-1934 Aktak.
-AUA: 476. Kaxa, 1. Zenbakia.

[53] AUA, 421. Kaxa, 2.Zenbakia, 1931-1932 Aktak; 392. Kaxa, 2.Zenbakia, A.Sekzioa, 1. Negoziatua, 1932-1934 Aktak; 391.Kaxa, 2.Zenbakia, 1934-1936 Aktak.

[54] OYARZABAL, A. 1983. *Alegia: dos siglos de su historia 1786-1986.* A. Beneditarrak-Lazkao: Gipuzkoa. 24.or.



**Txintxarriak egiten Alegiako kalean.** (Pascual Marín Funtsa).

XIX. mende hasierarako, lehen paper-ola, Ola deituriko baserritik gertu eraiki zen. Azken hau, Gipuzkoan eraikitako lehen paper-olen artean izendatzen da. Handik aurrera, Alegian, zenbait paper fabrika eratzeari ekin zioten.

Haietan lehenengoa, Zegamatik zetozen Arza familiak sortutako "La Providencia" delako paper fabrika izan zen "Bazan (papertegia) baiño gure gazte denboran itxi zan papelera."[55]. Fabrika ixtean, ordura arte jarioan izan zen inmigranteen etortzea etenda geratu zen:

"La garra poderosa de Arza (ursus) además de haber absorvido (sic) la posesión y el nombre de 'La Esperanza' hasta el punto que a esta más se le conocia (sic) con el titulo (sic) de 'Arzanea' fundó una fábrica de papel en Alegria de Oria (sic): 'La Providencia'. Despues (sic) de este apogeo declina la familia Arza hasta extinguirse completamente pocos años más tarde"[56].

La Providencia papertegia ordea ez zen alegiar langileen etortzea eragin zuen bakarra izan. Oraingoan, Arzabalza papertegiaz hitz egitea dagokigu, nahiz eta Tolosako udalerrian kokatu, zeresan handia izan baitzuen Alegiako lurrekin muga egiten zuen papertegi hark alegiarrengan. 1903an presa eraiki eta bi urtera, Soto, Tuduri y Cia. Elkarteak, eraiki zuen Arzabalza deituriko papertegia. Gertukotasuna medio, alegiar askok eta askok papertegi horretan lan egin zuten, segidan, aipatutako alegiar papergile batzuen zerrenda:




**Arzabalza fabrika, 1933ko apirilaren 12an.** (Tolosako Udal-Agiritegia).

## ARZABALZA PAPERTEGIKO LANGILE ALEGIAR BATZUK

Pedro Gastañaga Jauregui (EAJ/PNV)
Miguel Angel Oyarzabal Murguiondo (erreketea)
Juan Urdangarin Zabala
Alberto Gastañaga Jauregui (EAJ/PNV)
Teodoro Goicoechea Lasa (EAJ/PNV)

55 Testigantza: Maria Teresa Aguirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:40-00:01:26. "Fabrikei buruz".

56 LABAYEN, A.M. 1947. *Escenas papeleras: a la sombra de la celulosa en mi pueblo.* Icharopena: Zarautz.

Alegia ere, Gipuzkoako bigarren industria oparoena zen papertegien lekuko izan zen[57] eta hori alegiar papergileen ehunekoan nabarmen genezake:

ALEGIAKO PAPERGILEEN ZERRENDA

| |
|---|
| Ignacio Mugica Garayalde |
| Adrian Mugica Garayalde |
| Juan Bautista Irizar Aramburu |
| Miguel Jose Errondosoro Sarasola |
| Eusebio Ugartemendia Olano |
| Pedro Gastañaga Jauregui (Arzabalza) |
| Martin Luloaga Sarriegui |
| Miguel Gonzalez Salamanca |
| Angel Munduate Urdampilleta |
| Jose Ignacio Beraza Sarasola |
| Miguel Balerdi Garayalde |
| Sabino Mugica Azpeitia (Esperanza) |
| Miguel Angel Oyarzabal Murguiondo (Arzabalza) |
| Valentin Tobar Azpeitia (Esperanza) |
| Juan Urdangarin Zabala (Arzabalza) |
| Jose Martinez Goicoechea (Esperanza) |
| Jose Zabalo Iraola (Esperanza) |
| Ramon Aizpurua Eceizabarrena (Olarrain) |
| Domingo Cincunegui Galarraga |
| Francisco Garmendia Aguirrezabala (Illarramendi) |
| Alberto Gastañaga Jauregui (Arzabalza) |
| Teodoro Goicoechea Lasa (Arzabalza) |

| |
|---|
| Juan Irastorza Aguirre (Española) |
| Ramon San Miguel Lafuente (Arcaute y Compañia) |
| Joaquin Ruiz Ruiz (Arcaute y Compañia) |
| Francisco Guijosa Sarasola (Arcaute y Compañia) |
| Pedro San Miguel Lafuente (Esperanza) |
| Jose Maria Arostegui Elola (Esperanza) |
| Antonio Ortiz Martin (Esperanza) |
| Jose Maria Aizpurua Eceizabarrena |
| Pedro Azpeitia Beloqui |
| Miguel Otaño Mugica |
| Pedro Arzamendi Eguskiza |
| Miguel Munduate Urdampilleta |
| Pablo Gaztañaga Ayestaran |
| Prudencio Echeverria Urcola |
| Jenaro Galarza Murua |
| Jose R. Irazustabarrena Zubeldia |
| Pedro Garcia Ortega |
| Aurelio Ruis Ruis |
| Jose Ignacio Carrera Lavaca |
| Angel Urcelay Ayestaran |
| Martin Ayestaran Garin |

Alegiar emakumeak ere, papertegietan lanean aritu ziren "(…) E: han (paper fabrikan) alegiar askok eitten zuen lana, ez? M: bai, bai… emakumek behintzat asko. Eskun paperak kontatzen da… emakumek bizi handie eman tzion garai baten papelerak Alegriri. E: gehienbat ordun emakumek jarduten zuen fabrika hartan? M: eztakit gehienak, baiño askok behintzat bai"[58]. Emakumeek, garaiko jendartean eratutako banaketa binomialari jarraiki, etxeko zaintza-lanak ere betetzen zituzten fabrikako lana amaitu ostean "124.-Del cuidado de los niños se encargan principalmente los padres y entre estos la madre, y las criadas"[59].

Soldatari dagokionez, arestian aipatu gisan, inposatutako heteropatriarkatuaren eraginez, emakumezkoek gizonezkoek baino gutxiago kobratzen zuten, hau da, emakumezkoak emakume jaiotze hutsagatik gizonezkoek baino gutxiago kobratzen zuten "Beraz, emakumearen soldataren egoera gipuzkoar industrian guztiz kaltegarria zen gizonezkoaren soldataren egoerarekin alderatuta"[60].

Horiez gainera, baziren 1920rako kaolin fabrika eta 1912rako Iriartek irekitako mantekilen fabrika ere. Kaolin fabrika, gaur egungo Alegiako futbol zelaia kokatzen den tokian ezarrita zegoen. Azken horretan, minetatik, lehengaia hartu eta fabrikan bertan eraldatu egiten zuten.

Industria ere, nekazaritza eta abeltzaintzaz gain, Alegiako ekonomiaren zati esanguratsuenetako bat izan zela determina genezake[61].

---

[57] BARRUSO BARÉS, P., op. cit., 49. or.

[58] Testigantza: Maria Teresa Aguirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:40-00:01:26. "Fabrikei buruz".

[59] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketari egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (1).

[60] BARRUSO BARÉS, P., op. cit., 49. or.

[61] Azpiatal honetan zehar, Alegiako fabrika esanguratsuenak eta udal-aktetan identifikatu ahal izan ditugunak baino ez ditugu aipatu. Beraz, azpiatal honetan, garai hartan Alegian zeuden tailer, fabrika … guztiak ez dira agertzen.





**Kaolin fabrika.** (J.M.-k Alegiako Argazkizaleen Taldeari Emandako Argazkia).

**Kaolin fabrika.** (M.D. Galarzak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

## 2.4.3.1. Langabezia, sindikatuak eta grebak

1929ko mundu mailako krisiak, Gipuzkoako industrietan ere izugarrizko eragina izan zuen eta horren erakusgarri langabezian zeuden langileak erakundeetan egituratzea izan zen "i) Hay un sindicato católico: un centro para los solidarios y 'Eusko nekazarien alkartasuna'. Más bien provechosas para la religión que perniciosos. En general indiferentes"[62]. Langileak babestu asmoz, 1931ko azaroan, Gerardo Bernabe langileak, udal-gobernuari, langabezian zeuden langileak laguntzeko zerga bat ezartzeko eskatu zion. Horrez gainera, langabezian zeuden langile horiek herrian egingo ziren obra publikoak egiteko aukera zabaltzeko eskaera ere egin zuen[63]. 1936ko maiatzean, Alegian hiru langabetu zeuden.

## 2.4.3.2. Fabriketarako lehengaiak

Alegia basoz inguraturik egon arren, eta Tolosako La Española papertegiak bertan bere papera ekoizteko pinudiak izan arren, Arzabalzako papertegiak, Errusiatik inportatzen zuen paper-pasta, inguruetako pinudiak papertegi guztiak hornitu ahal izateko ez baitziren nahikoa "(…) generalmente ordun fibra corta hemen eitte zan, bi klase die, bat fibra corta ta bestea fibra larga. Fibra corta hemen eitte zan, eukaliptokin eitte huan ta, piñukin ez huan zeatzen, etzeon gaña piñuik asko eitteko ta hoi generalen Sueziatik etortze zan. E: friba larga, hoi? S: bai…"[64]. Egoera euskal lurralde osoan errepikakorra zen "Para la realización del papel es necesaria pasta de madera proveniente del 'pinus insignis', que pese a que comienza a ser plantado en la provincia no cubre las necesidades de las empresas. Esto obliga al establecimiento de vínculos comerciales con los países escandinavos para la importación de pasta de papel"[65].

## 2.4.3.3. Garraiobide aproposak fabriken funtzionamendu egokirako

1897ko uztailaren 1ean, Alegian, trenaren geralekua inauguratu zen. Ordura arte, papertegiek, haien merkantziak eta produktu bukatuak salmentan jartzeko, Tolosatik ekarriz, 5 kilometro egin behar izaten zituzten.

[62] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (20).

[63] AUA: 421.Kaxa, 2.Zenbakia. 1931-1932 Aktak.

[64] Testigantza: *ahotsak.eus*. Santos Irazustabarrena Ermina: ALE-001. "Papelerako lana".

[65] BARRUSO BARÉS, P., op.cit., 53.or.



**Alegiako tren-geralekua 1916an.** (Alegiako Argazkizaleen Taldea).

Hori guztia kontutan hartuta, irisgarritasuna hobetzeko asmoz, 1918ko urtarrilaren 13ko udalbatzan tren-geltokiaren proiektua martxan jarri zen, zeina 1925eko irailaren 1ean amaitu zen[66]. Hori eraiki ahal izateko, Alegiako aurrezki-kutxan kreditua eskatzea ezinbestekoa izan zen.




**Alegiako tren-geralekua.** (M. Larrartek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

[66] OYARZABAL, A., op. cit., 36-37. orr.



**Alegiako tren-geltokiaren inaugurazioa.** (A.M. Arangurenek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).



**Alegiako tren-geltokiaren inaugurazioa.** (J.M.Jauregik Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

Alegiako aurrezki-kutxa 1903an ireki zen, izan ere, txintxarrien herria, Altzo, Amezketa, Abaltzisketa, Ikaztegieta eta Orendain herrietako eta, Aldaba eta Bedaio auzoetako zentroa zen. Horren eraginez, 1936ra arte mikeleteek administratu zuten San Juan kaleko 81 zenbakiko aurrezki-kutxan, izugarrizko mugimendua egon zen. Gehienbat nekazarien kredituak eskatzeko erabili bazen ere, benefizentzia kasuak eta tren-geltokia eraikitzeko kredituak ere eman zituzten.

Irisgarritasunari zegokionez, Alegia zinez herri garrantzitsua zen XX. mende hasieran. San Juan kaletik, Madril-Irun noranzkoa zuen errepidea igarotzen zen. Lehen Mundu Gerra (1914-1918) bukatu zenez geroztik, kotxeen ekoizpena eta erabiltzaileek gora egitearekin bat, ibilgailuen trafikoa handitu eta San Juan kalea ibilgaitza bihurtu zen. Horren aurrean, 1923ko irailaren 14an, Madril-Irun errepidea jarraituko zuen bide berria inauguratu zen.



**Bide Berria eraikitzeko obrak 1922-1923.** (J.M. Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).



**Alegiako tren-geltokiko lanak, 1924an.**
(J.M. Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

## 2.4.4. Euskara, bigarren mailako hizkuntzatzat udal-gobernuan

### 2.4.4.1. Kaleko egoera

1931ko abenduko Konstituzioaren arabera, Bigarren Errepublikako hizkuntza ofiziala gaztelania izango zen. Horren arabera, estatuko gainontzeko hizkuntzei ez zitzaien aipamenik egiten eta hauek mahai gainean ezartzeko eskumena autonomia bakoitzeko estatutuaren esku geratzen zen. Euskal estatutua prozesuan zegoen bitartean, euskararen egoera, administrazioan zein hezkuntzan, oso kaskarra zen. Horrenbestez, gaztelania, bi eremu horietako hizkuntza ofiziala zen.

Euskal kultura babesteko asmoz, haren oinarriak lehenagokoak baziren ere, 1930eko urriaren 9an Euskaltzaleak Elkartea sortu zen. Alegiako udalera 1931ko udan diru-laguntza eske hurbildu baziren ere, gehiengo tradizionalista biltzen zuenaren ezezkoa jaso zuten. 1933ko uztailean, Urretxun ospatuko zen euskal poesia errezitaldi egunerako, Alegiako udalaren subentzioaren baiezkoa jaso zuen. Errezitaldi hura, Iparragirre musikari eta poetaren omenez egingo zen, zeina azken urteetan euskal kulturaren erreferentetako bat bihurtu zen. Urretxuko olerki ekitaldiaren babestea Alegiako euskal nortasunaren erakusgarri izan zen. Bertan bildu ziren, euskal nortasunaren erakusle diren dantzari, txistulari, bertsolari zein antzezleak. 1934an ospatutako Olerki Egunera ere Alegiako udal-gobernuak bere etortzea egin zuen, eta bertan, Jose Agirre poeta omendu zuten[67].

Txintxarri soinuaz gain, Alegian, txistuaren soinuak berebiziko oihartzuna izan zuen euskal kulturaren aldarrikapenerako. Laureano Zubeldia (danbolin jolea) herriko txistularien bandako zuzendariaren soinuek gidaturik ibiltzen ziren J. Zabala Escudero eta Imanol Artano Gastesi, Alegiako kaleak alaituz.

Euskal kulturaren beste babesguneetako bat Alegiako Euzko Batzokia izan zen. Bertan, hitzaldiez gain, antzerkiak ere egiten ziren:

“Se entero tambien (sic) el ayuntamiento de la recaudación obtenida en las funciones teatrales celebradas en la Sociedad Euzko Batzokia, correspondiendo al ayuntamiento la cantidad de treinta y tres pesetas y treinta y ocho centimos (sic), cuya cantidad ha sido ingresado en la Tesoreria (sic)”[68].

“1-En cuanto a los espectáculos, solo suele haber teatros en el Batzoki, morales todos y que viene en bien de los jóvenes porque asi (sic) no van a otros lugares peligrosos. Todos los años suelen venir algunos comediantes, a veces un poco inmorales, otras indiferentes”[69].

Hauen artean, antzerki zalerik eta idazlerik oparoena, gerra hastean Ziburun errefuxiatu eta 1940an hil zen Andres Amonarriz Uranga izan zen. Hark sortutako Alegiako antzerki taldea, Donostiako Kursaalean antzeztera iritsi zen. Antzerkiaz gain, euskal dantza saioak ere izaten ziren txintxarrien herriko Batzokian. Alegiako Batzokia euskal nortasuna bere horretan mantentzeko toki paregabea bilakatu zen.



1933ko Urretxuko olerki eguna.


Laureano Zubeldia.
(Loli Ganzarainek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

[67] AUA: 391. Kaxa, 2. Zenbakia. 1934-1936 Aktak.

[68] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin: AUA: 392.Kaxa, 2. Zenbakia, A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 1932-1934 Aktak.

[69] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Titular: José Miguel de Barandiarán Fundazioa/Fundación José Miguel de Barandiarán Fondo: Archivo personal de D. J. M. de Barandiarán. Fecha: 1936. Descripción: Fichas con anotaciones y apuntes etnográficos, clasificadas por pueblos e indicando informante. Alegría de Oria. Letamendia Sección: Etnología. Serie: Notas de trabajo. Legajo: 55. Número de legajo: 2 (16).




**Euskal antzerkiaren iragarpen kartela.**

### 2.4.4.2. Hizkuntzaren erabilera

Alegiako herritar batzuei edo besteei hitz egiterako orduan, euskararen erabilera guztiz aldatzen zen; hau da, euskara bat eta bakarra izanik ere, alegiar herritar bakoitzari modu ezberdinean zuzentzen zitzaizkion herrian mantentzen zuen boterearen arabera. Beti ere, hitanoa, urte bereko edo gazteagoak ziren pertsonei zuzentzeko erabiltzen zen, zaharragoei, errespetua merezirik, zuka edo berorika egiten zitzaielarik "Oaiñ eozeiñ ume etortze zaizu ta 'hi!' Ze esaten ai haiz! Hika iuel hitz eiteizue… nei amorrazio bat emateitena guk oaindik gu baino zaharroi zu hitz eiteiou ta hoi… denbora oson umek 'hi!' Hori itsusie gauze… oso itsusie… oaiñ erderaz tu ta esatea, hua errexo hartzet… tu… usted baiño e… baiño hi… gauz bat da euskeraz… joiño!"[70].

Herritarren artean gehienbat hika aldaera erabiltzen zen bitartean, Julian Ayestaran apaizari, esaterako berorika hitz egiten zioten alegiarrek, hura baitzen herrian agintea zuen ordezkarietako bat. Alegiako herriko medikuak, hari berorika egitea errefusatu egin zuen.

### 2.4.4.3. Galarraga zinegotzi euskaldunaren eta Moreno errepublikazalearen arteko eztabaida

Alegiako kaleak euskal nortasunaren erakusleiho bihurtu bitartean, udal-gobernua ere haren errebindikazioaren eszenatoki bihurtu zen. Udal plenoen aktak, 1930etik aurrerako legearen bitartez, gaztelaniaz idatzi behar zirela adierazi bazen ere, udalbatzak euskaraz egiten ziren. Horrek ere eman zuen zeresana ordea, izan ere, Alegiako udal-gobernuan, euskararik ez zekiten kideak ere biltzen ziren. Egoera horretan, udal-gobernua osatzen zuten kide nazionalistek, aginte-instituzionalean, kaleetatik zetorren aldarrikapena islatu nahi izan zuten:

"El Sr. Galarraga en una de las veces dirigiendose (sic) al Sr. Moreno, le requirio (sic) que hablara en vascuence, a pesar de que bien sabe el Sr. Galarraga que desconoce el idioma euskera el Sr. Moreno, replicandole (sic) este que en una sesion (sic) publica se debe de emplear la lengua castellana que es la Española, y que el Sr. Galarraga, aunque no fuera mas (sic) que por decoro y caballerosidad debia (sic) de hacerlo en Español y no en vasco, ademas (sic) añade el Sr. Moreno, que el Sr. Galarraga no representa a ningun (sic) partido politico (sic) ya que le fueron retirados sus votos, por lo tanto debe callarse por no onstentar (sic) representacion (sic) de ninguna clase"[71].

Euskararen aldeko aldarrikapena egin arren, gaztelera zen instituzioen jabetza hura mantenduko zuena.

---

[70] Testigantza: *ahotsak.eus.* Lucas Lasa Burumendi: ALE-004. "Hika, zuka eta berorika".

[71] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 392.Kaxa, 2. Zenbakia, A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 1932-1934 Aktak.

## 2.5. AUTOGOBERNUAREN DEFENTSA

### 2.5.1. Lizarrako estatutua

1931ko apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu zenerako, euskal nazionalismoa gori-gorian zegoen. Herri mugimendu zein politikari nazionalistek, euskal nortasuna eta lurralde eskubideak berretsiko zituen estatu baten aldeko hautua egin zuten. Horrez gain, gizonezkoak soldaduskara joatea ere ekidin nahi izan zen, ordura arte, euskal gizonek ez baitzuten espainiar estatuan soldaduska egiteko betebeharrik. Herriaren nahia bete ahal izateko ezinbestekoa zen espainiar Gorteetan onartuko zuten estatutuaren eratzea eta horrenbestez, euskal lurraldeetako herritar agintariek bat egin zuten euskal estatuaren aldarrikapen bidea irekiko zuen legedi osatzea egin ahal izateko.

Lehen pausoa, 1931ko apirilaren 17an EAJ/PNV-k Gernikan deitu zuen bileran burutu zen. Hain zuzen, honakoaren helburu nagusiak, Euskal Errepublika Federalaren aldarrikapenean zetzan, baina estatu espainiarreko indar polizialek hau ez gauzatzea determinatu zuten. Horren aurrean, Azpeitia, Getxo, Laudio eta Zangozak, Alkateen Batzorde Iraunkorra eratu zuten, Jose Antonio Agirre Getxoko alkatea haren buru nagusia izan zelarik.

Laster, Alegiako udalean, zehazki, 1931ko maiatzaren 10ean, lurralde historikoaren nortasuna defendatzeko asmoz, geroago Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakaria izan zen Jose Antonio Agirreren eskutitza jaso zuten, Alegiako udala ere, Udalen Kanpainara batu zedin:

"Tambien (sic) se dio cuenta de una carta suscripta por el alcalde de Guecho, en la que manifiesta que en vista de transcendentales momentos por los que atraviesa el Pais (sic), de los que depende el regimen (sic) de libertad que ha de disfrutar y que se debe de hacerlo recurriendo a todos los Municipios del Pais (sic) de manera que Navarra, Vizcaya, Álava y Guipúzcoa reunidos en sus asambleas históricas y luego todos juntos en una asamblea expresen a la luz de todos cual es pensamiento, y sobre todo lo dispuesto que están a que le fueran arrebatados inicuamente, y además solicita los siguientes datos:

1º. Si este Municipio ha acordado adherirse a la Campaña de los Municipios.

2º. Que se remita una nota con los nombres de los concejales que componen este Municipio y la filiación politica (sic) de cada uno de ellos.

El ayuntamiento por unanimidad acuerda contestar al primer extremo que, se halla adherido a la campaña de Municipios, y en cuanto al segundo remitirle los datos solicitados"[72].



**Estatutua eta soldaduska.**

1931ko ekainaren 11n, Alegiako udalaren baiezkoa aho batez iritsi zen, Juan Bautista Jauregui Alegiako alkatea eta Jose Letamendia Lasa zinegotzia, Azpeitiako Alkateen Batzorde Iraunkorreko bilerara joanez. Haien helburu nagusia, handik hiru egunera, 1931ko ekainaren 14an Lizarran ospatuko zen Euskal Estatutuaren barne-eztabaida finkatzea izan zen. Azken horretara, ordezkari gisan, Alegiako udaleko Juan Bautista Jauregui alkatea, eta Jose eta Juan Antonio Letamendia Lasa zinegotziak joan ziren.

Lizarrako eztabaidan, Eusko Ikaskuntzak 1931ko maiatzaren 31n aurkeztu zuen Euskal Estatutuaren Aurreproiektuak, tradizionalista eta nazionalisten partetik erreforma esanguratsuak jaso zituen. Horren eraginez, Euskal Estatutua espainiar Gorteetan bi bloketan defendatu zuten: alde batetik, nazionalista eta tradizionalistek, euskal lurralde konfesional baten aldeko hautua egin zuten eta bestetik, errepublikazaleek, euskal lurralde federal eta laiko baten aldeko hautua.

Gauzak horrela, Alegiako udala, 1931ko uztailaren 12an, nazionalista eta tradizionalistek haien batasuna adierazteko Gernikan ospatuko zuten ospakizunera gonbidatu zuten. Tolosako udalaren gonbiteari ezezkoa emanda, Alegiako udaleko ordezkariak ez ziren Jose Antonio Agirrek euskal lurraldeen izenean egin zuen aginte-hartze sinbolikoaren lekuko izan, ez baitzuten beharrezkotzat ikusten.

Lizarrako Estatutuak, euskal jendartean eta batik bat, politikarien artean, izugarrizko eztabaida sortu zuen. Esan bezala, bi bloke nagusi nabarmendu ziren, nazionalista eta tradizionalistena alde batetik eta, errepublikarrena, Diputazioko Batzorde Kudeatzailean bilduak, bestetik. Txintxarrien herrian ere, udalbatza aktetatik har-

[72] AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia. Aktak.

tutako datuek adierazten digutenez, eztabaida esanguratsua izan zen. Garai hartan, Alegiako udal-gobernua 6 katolikoz eta 3 errepublikarrez eratuta zegoen: katolikoak, Juan Bautista Jauregui Lasa, Juan Jauregui Lizarribar, Jose Letamendia Lasa, Juan Antonio Letamendia Lasa, Antonio Arrizabalaga Aguirre eta Tomas Arostegui Tolosa izango ziren; errepublikazaleak berriz, Ceferino Lasa Iraragorri, Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV) eta Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)[73]. Lehenengoek, arestian adierazi gisan, Lizarrako Estatutua irmoki defendatu zuten eta bigarrenek, berriz, estatu laikoaren aldeko hautua eta beraz, Lizarrako Estatutuaren aurkako aldarria gauzatu zuten.

Bitartean, Madrilen, Bigarren Errepublikaren legeztatzea martxan jarria zen, hura 1931ko apirilaren 14an aldarrikatua izan zenetik. Hori jakinik, eta zehazki, estatuak, estatuaren eta erlijioaren eskumena gobernu zentralaren eskumenean utziko zuen 14. Artikulua eztabaidatu aurretik, Lizarrako Estatutuaren babesleak ziren zinegotziei deia egin zitzaien, Madrilera euskal lurraldeen nortasuna defendatzera joan zitezen. Testuinguru horretan, Alegiako udal-altxortegian nahikoa diru ez zegoela arrazoi nagusitzat hartuz, Lasa, Zabala eta Galarraga zinegotziak, Madrilera Alegiako udal-ordezkaria bidaltzearen aurka agertu ziren. Hala eta guztiz ere, bozketaren ostean, 1931ko abuztuaren 29an, Alegiako udal-gobernutik, Juan Bautista Jauregui Alegiako alkatea Lizarrako Estatutua espainiar gorteetan defendatzera joango zela ebatzi zuten. Juan Bautista Jauregui alkatea, beste 419 alkate euskaldunekin batera Madrilen izango zen[74].

Hori gutxi ez balitz, 1931ko irailaren 5eko udalbatzan, Alegiako udal-gobernuak, Lizarrako Estatutua Celestino Olloquiegui udal-idazkariak irakurri ostean, onartu egin zuen " (…) bere (Lizarrako Estatutuaren) irakurketa amaitu ostean udalak onestea erabaki du, Lasa eta Galarraga jaunen kontrako bozkekin"[75]. Alegiako errepublikarrek Lizarrako Estatutuaren aurkako aldarria argiki mantendu zuten, katolikoek honen onespena eginagatik ere.

1931ko abenduaren 8ko Dekretuari jarraiki eta Bigarren Errepublikako Konstituzioaren onarpenarekin, euskal lurralde historikoko udalerrien gehiengoak babesten zuten Lizarrako Estatutuari gauzak zaildu egingo zitzaizkion. Lizarrako Estatutuak, euskal estatu konfesional baten aldeko aldarria egin bitartean, Konstituzio berriak, 14. artikuluaren bitartez, estatu zentralaren eskumenean utzi zituen erlijioaren eta estatuaren arteko hitzarmenak. Horrenbestez, ezerezean geratu zen, tradizionalista eta nazionalistek euskal lurralde historikoaren alde eginiko apustua, eta baita Alegiako udal-gobernuak eginiko hautaketa ere.

### 2.5.2. 1932ko urtarrileko Gestoreen Estatutua

Euskal lurralde historikoen ezberdintasuna eta eskubideak aldarrikatu asmoz, Euskal Estatutua berreskuratzeko hautua, oraingoan, errepublikarren aldetik etorri zen. Estatutu berria idazteaz Probintziako Batzorde Kudeatzaileak arduratu ziren. Tradizionalistak, ezkerreko joera izango zuen Euskal Estatutu berriaren guztiz aurka agertu ziren.

Alegiako udal-gobernura, 1932ko urtarrilaren 23rako, Euskal Estatutuaren idazpenaz arduratuko zen Probintzietako Batzorde Kudeatzailearen mezua iritsi zen, 1932ko urtarrilaren 31rako, haren inguruan gauzatuko zen eztabaidara gonbitea luzatuz. Alegiako alkateak, Juan Bautista Jauregui tradizionalistak, eztabaida horretan parte hartzeari uko egin zion, bere alderdia zen Comunión Tradicionalista-k hala erabaki zuelako. Hala eta guztiz ere, Jaureguik, Euskal Estatutu berriaren aurka ezer ez zuela argudiatu zuen, nahiz eta, ezinbestekotzat jotzen zituen estatutu berriak elizaren eta euskal tradizioaren mantenua aldarrikatzea "El Sr. Presidente manifiesta, que con arreglo a las normas dadas por la Comunión Tradicionalista se inhibe en absoluto de tomar parte, si bien no era contrario del Estatuto, pero sin prejuicio de que cuando este se redacte, lo examine para atemperar su conducta en la forma en que quedan garantizados los derechos de la Iglesia y las libertades tradicionales del Pais Vasco (sic)"[76]. Juan Jauregui Lizarribar zinegotziak ere bat egin zuen alkatearen hautuarekin.

Gainontzeko zinegotzien artean, 1932ko urtarrilaren 31rako Probintziako Batzorde Kudeatzaileak deitutako Euskal Estatutuaren eztabaidarako Alegiako udal-ordezkaria hautatzeko botazioa egin zuten. Jose eta Juan Antonio Letamendia, Antonio Arrizabalaga, Tomas Arostegui eta Timoteo Zabala zinegotziek, bozka bidez, Antonio Arrizabalaga izendatu zuten eztabaidarako ordezkari gisan. Horren aurrean, Juan Bautista Jauregui Lasak Antonio Arrizabalagari zer-nolako postura defendatuko zuen galdetu zion, azken honek "(…) Euskal lurraldeentzako Estatutu bakar bat"[77] defendatuko zuela adieraziz.

Hautu horretan, tradizionalistek bat egin ez zuten arren, nazionalista eta errepublikar alderdiak, Alegian bertan ere, Probintziako Batzorde Kudeatzaileek idatzi zuten Euskal Estatutuaren aldeko aldarria egin zuten.

1932ko martxoaren 21erako, Probintziako Batzorde Kudeatzaileek Euskal Estatutua prest izan zuten. Horren inguruan eztabaidatu ahal izateko, 1932ko ekainaren 19an, Alkateen Batzorde Iraunkorreko kideak deitu zituzten. Bilera, 1932ko maiatzaren 3an bere ateak ireki zituen Iruñeako Gayarre Antzokian ospatu zen. Alegiako alkatea zen Juan Bautista Jaureguik udaleko ordezkaria aukeratzeari uko egin bazion ere, gainontzeko zinegotzien artean Antonio Arrizabalaga Aguirre izan zen hautetsia; haren ordezko gisara, Juan Antonio Letamendia izendatu zutelarik.

---

[73] Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila: 1931ko maiatzaren 31ko hauteskundeak Alegian http://www.euskadi.eus/web01a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_resul_muni_gip_1931_1933/es_def/index.shtml

[74] INTXAUSTI, J. 1977. "Errepublika espainola eta Euskal Estatutua", *Jakin 3*. 61.or.

[75] AUA: 421. Kaxa. 2. Zenbakia. Aktak.

[76] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin: AUA: 421.Kaxa, 2.Zenbakia. Aktak.

[77] AUA: 421. Kaxa, 2. Zenbakia. Aktak.



surtan sus efectos en el expediente de quinta.
Así también y de conformidad con lo dispuesto en la Real Orden Circular del Ministerio de la Guerra, de quince de Diciembre de mil novecientos veinticinco, acordó el Ayuntamiento fijar en seis pesetas el tipo del jornal regulador en este Municipio, á los efectos del artículo 271 del Reglamento para la aplicación de la vigente Ley de Reclutamiento.
Acto seguido se dio cuenta de un escrito de la Comisión gestora Provincial, convocando á una reunión de Ayuntamientos para tratar del Estatuto el día treinta y uno de los corrientes, y para que se le designe el representante y se le extienda su credencial, á la vez que se le hace saber que á esta villa le corresponden mil noventa y siete votos, según el Decreto del Ministerio de la Gobernación de ocho del pasado mes de Diciembre.
El Sr. Presidente manifiesta, que con arreglo a las normas dadas por la Comunión Tradicionalista se inhibe en absoluto de tomar parte, si bien no era contrario del Estatuto, pero sin perjuicio de que cuando éste se redacte, lo examine para atemperar su conducta en la forma en que queden garantizados los derechos de la Iglesia y las libertades tradicionales del País Vasco.
El concejal Sr. Jáuregui se adhiere á las manifestaciones de la Presidencia.
Puesto á votación entre los señores Letamendia José, Letamendia Juan, Arrizabalaga, Aristegui y Zabala, se acordó nombrar como representante de este Municipio á D. Antonio Arrizabalaga, expidiéndole para su presentación la correspondiente credencial.



Folio 67

El Sr. Presidente preguntó el criterio y sentido que llevaría el Sr. Arrizabalaga, contestándole sería el de un Estatuto único para todo el País Vasco.
También se enteró la corporación de una circular del Colegio oficial de arquitectos Vasco-Navarros, participando la forma que había quedado constituida la Junta del mismo y el haber designado en cada una de las cuatro provincias de la región, las Delegaciones provinciales del colegio, que actuarán en representación de la Junta, dando al mismo tiempo a conocer algunos de los artículos de los Estatutos para el régimen y gobierno de los Colegios que puedan ser de interés para los Ayuntamientos.
Se da también cuenta de una Comunicación de la Delegación Guipuzcoana del Colegio, participando que asume en la Provincia todas las funciones propias de aquel, ofreciendo al Ayuntamiento su colaboración en cuantos asuntos se requiera la intervención de dicho organismo.
La corporación se da por enterado de todo ello.
Acto seguido se dio cuenta de una factura de los Hijos de Sarasola, que importa la cantidad de doce pesetas por suministro de una tapa de pizarra para un registro que se halla frente a la Iglesia Parroquial.
Acto continuo dice el Sr. Presidente que ha dado órdenes para que se pasen a la casa nº 99 propiedad del Ayuntamiento todos los enseres correspondientes á incendios, y que a la vez ha ordenado también al carpintero para poner un pequeño techo con el fin de conservar en mejores condiciones los

**Euskal Estatutuaren inguruko auzia.** (AUA).

Euskal Estatutu berriaren defendatzaileen hautu nagusia, lau euskal lurralde historikoen (Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa) defendatzea izan bazen ere, eskuindar nafarrek bestelako bidea hartu zuten. Nafar eskuindarrek, Nafar Estatutuaren aldeko hautua egin zuten eta horrenbestez, hiru probintzien aldeko hautua egin beharrean gelditu ziren gipuzkoar, bizkaitar eta arabarrak. Zenbait arabar politikarik, atzera egin zuten gipuzkoar eta bizkaitar indarrekin estatutu bat osatzearekin, izan ere, nafarren laguntzarik gabe bi hauen nagusitasun industrialak botererik gabe utziko zituela uste zuten.

Hori horrela izanik, Euskal Estatutua indartu asmoz, Alegian ere, haren aldeko jarraitzaileak biltzeko mitinik ere egin zen “Nere laune Rita eta ni Pelota Plazan (…) zien Irujo, Monzon, Jose Antonio Agirre (…) eta gero señorita Kontxita (Kontxita Letamendia) presentazioa ein tzuna, hoi hemengoa zan. (…) Nere laune ta biok (…) han aurre-aurren (…) haiei aitzen”[78]. Hura izan zen Pakita Artolak, 1932ko uztailaren 9an, Alegiako Pelota Plazan ikusi ahal izan zuen euskal nazionalisten mitina.



**Batzokiaren inaugurazioa, 1932ko uztailaren 10ean.** (E. Arrayetek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

[78] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. “Abertzaleen mitina Alegiako plazan”.

Bertan, Jose Antonio Agirre (geroago euskal lurraldeetako lehendakari izan zena) diskurtso egile eta protagonistetako bat izan zen. EAJ/PNV alderdiarentzat behin-betiko euskal lurraldeen askatasuna suposatzen ez bazuen ere, hura lortu ahal izateko bideetako gisan irudikatua izan zen:

"Hace un año vibraba de entusiasmo la Patria. Una Comisión de alcaldes representando el sentir de la mayoria (sic) del pais (sic), se dirigía (sic) a un ideal, un ideal como el del Estatuto, que para nosotros los nacionalistas no es el regimen (sic) de nuestras aspiraciones, pero que era un cauce de libertad y un medio para nosotros"[79].

Agirreren mitinak izugarrizko txalo zaparradak jaso zituen aldian aldiko esanekin. Hori gertatu zen, esaterako, nafar diputatuek nafar estatutu baten aldeko hautua egin eta Hegoaldeko hiru euskal probintziak haien estatututik baztertu zituztela adierazi zuenean. Alegiarrek eta inguruetako herrietatik hurbildu zen jendeak, izugarrizko txalo zaparradaz babestu zuten:

"Aquellos hombres no tuvieron el valor, la nobleza de ir a una Asamblea, por cuya solución, por cuya finalidad estábamos conformes particularmente, y prefirieron marcharse a otra parte en lugar de ir a una Asamblea"[80].

Txalo zaparradak intentsitatez igotzen joan ziren, batik bat, euskal lurraldeetako lehendakaria izango zena, euskal jendarteak babestu beharra zuen katolizismoaren inguruan mintzatu zenean:

"Porque tenemos los nacionalistas una fe religiosa a la que rendimos culto referente, no admitimos que haya nadie fuera de la autoridad eclesiástica que se abrogue cátedra de catolicismo, ni quienes den normas de catolicismo como medio cacicato, como engaño, como banderin de enganche. No consentimos que haya nadie, que desenfundando el Cristo, a quien rendimos pleitesia y acatamiento soberanos, sea esgrimido por plazas y pueblos por los nuevos mercaderes del templo, que lo ofenden, que lo escarnecen en su grandeza utilizándole (txalo zaparrada). Tenemos los vascos un alma propia que nos la dio Dios, no para que las pisoteemos, sino para que las cultivemos, para que hagamos un pueblo grande, un pueblo digno, un pueblo honrado …"[81].

Diskurtsoan zehar, garai hartan EAJ/PNV-k hain errotuta zuen banaketa binomialaren auziari buruzko datu garrantzitsuak ageri zaizkigu. Hain zuzen, emakumeak "Aberriaren ama" gisan irudikatuak ziren, gizonezkoak aberria babestuko zuten subjektu gisan erreparatuak ziren bitartean. Beraz, gisa horretara, Euzko Alderdi Jeltzaleak, aberriaren sorrerarako, zientziak aldarrikatu zituen sexu bakoitzak (emakume eta gizonezkoak), zeregin jakin batzuk bete behar zituela uste zuen, emakumeak emakume eta gizonezkoak gizon jaio izate hutsagatik. Zehazki, emakumeei Agirrek egiten dien erreferentzia honetan aipatutako banaketa errepara genezake:

"A vosotras, emakumes (sic), me dirijo de todo corazón. A vosotras, que tenéis (sic) hijos que han de ser los hombres del mañana. Vosotras debéis (sic) formar a los que han de ser futuros baluartes de la Patria. Decidles que somos los herederos de aquellos hombres que luchaban por Dios y por los Fueros, por Dios y por la libertad"[82].

Gisa horretan, argi eta garbi ikusten da, zelan emakumezkoen egiteko nagusietako bat, euskal ohitura zaharren transmisioa zen. Agirrek diskurtsoa amaitu eta euskarazko hitzei txalo zaparrada eskaini ostean, "Itxartu zaiz euskotarrak. Gora gure anziñako logiak"[83] aldarrikatu zuen. Bertan bildutako jendarteak, euskal aberriaren ereserkia abestuz eman zion amaiera ekitaldiari.


AMAYUR

Discurso del diputado nacionalista por Nabarra José Antonio de Agirre en el mitin patriota de Alegria de Oria

Decreto de Araba Buru Batzarra

Jose Antonio Agirreren Alegiako mitinaren argitalpena, Amayur egunkarian, 1932ko uztailaren 16an. (J.M. Lasak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

[79] Amayur egunkaria, 1932ko uztailaren 16ko argitalpena.
[80] *Ibídem.*
[81] *Ib.*
[82] *Ib.*
[83] *Ib.*

Euskal nazionalistez gain, tradizionalistek ere ekitaldi oparoa eskaini zuten uztailean bertan Bedaion. Mitin haren ostean, Jose Maria Sagastume Lasa alegiar errepublikazalea, Guardia Zibilak berau miatu eta tradizionalistetako batek bultzakada eman ostean, tradizionalisten kotxeari harriak jaurti izanagatik, Diktadura Frankistan zehar tribunal frankistek zigortu egin zuten. Errepresio mardularen lekuko izan zen diktadurako kartzeletan, diktadurak inposatzen zituen ideien aurkakoa izate hutsagatik.



Declaración de José María Sagastume Lasa.

En San Sebastián a veinticinco de mayo de mil novecientos treinta y nueve. Año de la Victoria
Ante el señor Juez comparece el anotado al margen quien advertido de que iba a prestar declaración jura decir verdad en cuanto supiere y fuere preguntado.

Preguntado por las generales de la Ley manifiesta llamarse como queda dicho, de veintiseis años de edad, soltero, linternero, natural y vecino de Alegría de Oria.

Preguntado por su ideología y actuacion politicas antes del Movimiento Nacional, DICE: Que antes del Movimiento Nacional estaba afiliado al Partido de Izquierda Republicana, desde el año mil novecientos treinta y dos. En el partido no desempeñó cargo alguno.

Preguntado si intervenía en mítines de izquierdas y contribuía a impedir mítienes de derechas, DICE: Que nunca ha intervencido en mítines de niguna ideología pero recuerda que en cierto mítines derechista habido en el pueblo de Bedayos hubo un pequeño jaleo siendo el declarante cacheado por la Guardia Civil y en lío uno de los asistentes dio varios empujones al declarante y entonces él por espíritu de desquite hechó dos o tres pedradas contra un automovil que conducía a asistentes al mítin de referencia.

Preguntado por su actuación una vez iniciado el Movimiento Nacional, Dice: Que iniciado el Movimiento llegó al pueblo una orden del Comité de Tolosa disponiendo que se presentaran a recoger las armas para efectuar guardias y el declarante como afiliado que era fue uno de los que se presentaron, haciendo las guardias en la carretera. Al llegar al pueblo las tropas nacionales se fue a San Sebastián y después de algunos días se fue a Bilbao donde tenía las hermanas viviendo con unos tíos y luego fue

**Jose Maria Sagastume Lasak, Gerra-Kontseiluan eginiko deklarazioak.** (Sumarisimoa 11915/38).

## 2.5.3. 1933ko azaroaren 5eko Euskal Estatutuaren inguruko Erreferenduma

Euskal lurraldeetako agintariek bere horretan jarraitu zuten, haien eskubide politiko, ekonomiko eta sozialak onartuko zituen Euskal Estatutu baten sorkuntzan. Alegiako alkateak, Juan Bautista Jaureguik, Euskal Estatutu berria defendatzeari uko egin zion, eliza eta euskal balio tradizionalen defentsa ez baitzituen ziurtatzen. Alegian, errepublikazaleen eta haien aurkakoen artean, geroz eta bloke argiagoa eratzen joan zen.

Alegiako udal politikarien arteko banaketa "definitiboa", 1932ko abuztuaren 13ko aferarekin etorri zen. 1932ko abuztuaren 10eko Bigarren Errepublikaren aurkako altxamenduak, Alegiako zinegotzi errepublikazaleak, udalbatzara, Bigarren Errepublika defendatzeko hautua eramatea ekarri zuen. Horren aurrean, udal-gobernua osatzen zuten zenbait zinegotzi ez posizionatzearen eraginez, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Juan Bautista Jauregui Lasa alkatea bere kargutik kendu eta haren ordez, Ceferino Lasa Iraragorri ezarri zuen Alegiako alkate. Alegiako udal-gobernuaren egitura, tradizionalista izatetik hein handi batean, errepublikazalea izatera pasatu zen:

### 1933ko urtarrilaren 31ko udalbatza

**ALKATEA**

Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

**Zinegotziak:**

- Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista)
- Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)
- Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)
- Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)
- Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)
- Juan Bautista Moreno Galilea (IR)
- Francisco Arrue Basabe
- Eusebio Ugartemendia Olano (IR)

Alegiako udalak, 1933ko urtarrilaren 31ko udalbatzaren ostean osatutako udal-gobernu errepublikazalearekin, Euskal Estatutu berriaren aldeko apustua egin zuen. 1933ko uztailaren 30ean, Probintziako Batzorde Kudeatzaileek, hiru euskal lurralde historikoak barne hartzen zituen Euskal Estatutua bozkatzeko erreferendumaren aldeko deia egin zuten. Txintxarrien udal-gobernuak erreferendum haren aldeko hautua egin zuen, Juan Jauregui Lizarribar tradizionalistaren kontrako boto bakarrarekin.

Euskal Estatutua ez zen ausaz onartzeko zerbait eta aurreko aldietan gauzatu zen gisara, 1933ko abuztuaren 6an, Gasteizen bildu ziren euskal lurraldeetako udal-ordezkariak, Alegiakoak barne. Txintxarrien herriko udal-gobernuaren ordezkaritza Ceferino Lasa Iraragorri alkate errepublikazaleak bete zuen, haren ordezkoa Francisco Arrue Basabe izan zelarik. Udal-gobernu errepublikazaleak, 1933ko uztailaren 29an, Euskal Estatutuari baiezkoa ematea berretsi zuen aho batez. Erreferenduma, azkenean, 1933ko azaroaren 5ean ospatu zen, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurraldeetan baiezkoaren aldeko hautua egin zelarik.

Baina bi aste geroago gauzatuko ziren 1933ko azaroaren 19ko hauteskundeen eraginez, Euskal Estatutuaren idazpena etenda geratu zen. Alegiako udal-gobernuak, gobernu zentralarekin gertatu zen gisara, tradizionalismorako bidea hartu zuen, Madrildik hautetsitako Gipuzkoako Gobernadore Zibila aldaketa hartaz arduratu zelarik[84]:

## 1933ko abenduaren 16ko udalbatza

**ALKATEA**

Juan Bautista Jauregui Lasa (tradizionalista)

**Zinegotziak:**
- Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista)
- Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV)
- Tomas Arostegui Tolosa (tradizionalista)
- Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)
- Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)
- Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)
- Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)
- Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independentea)

1934ko urtarrilaren 16an, Juan Bautista Jauregui Lasak bere postuaren dimisioa aurkeztu zuen "(…) debido a las muchas ocupaciones particulares en que me hallo y serme por ello incompatible atender a los cargos de concejal y de alcalde que ostento, pido a lo compañeros que integran el Ayuntamiento, me admitan la dimision (sic) de los dichos cargos y que en este escrito presento"[85]. Horren aurrean, Lege Munizipalaren 53. Artikulua aplikatuz, Alegiako alkate gisan Antonio Arrizabalaga Aguirre hautatu zuten[86].

Alegiako udal-gobernuan, nazionalista eta tradizionalistak gailendu ziren. Nazionalistek, Euskal Estatutuaren aldeko hautua egin bazuten ere, alkatetza eta lehen alkateordetza zuten Jaureguitarrek Euskal Estatutua besterendu zuten, gobernu zentralak 1934ko otsailetik aurrera erabaki zuen gisan "El Liberal de Bilbao, diario de Indalecio Prieto, vaticinó ya el 21 de noviembre de 1933: 'Los nacionalistas ganan la elección y pierden el Estatuto vasco', 'el Estatuto ha muerto', por considerar imposible su aprobación por esas Cortes de mayoria (sic) de centro-derecha"[87].



**Antonio Arrizabalaga Aguirre.**
**(J.M. Gorostiagak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).**

[84] AUA: 392. Kaxa, 2. Zenbakia, A. Sekzioa, 1. Negoziatua. Aktak.

[85] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin: AUA: 392.Kaxa, 2. Zenbakia. Aktak.

[86] 1877ko urriaren 2ko 53. Artikulua: "Presidencia interina del Concejal que hubiere obtenido mayor número de votos , procederá á la elección del Alcalde" (BOE).

[87] DE LA GRANJA, 2004. "1934: Un año decisivo en el País Vasco: Nacionalismo, socialismo y revolución". *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 21: 11-25.

## 2.5.4. Ardoaren gerra eta Alegiako euskal nazionalisten udal-gobernuko kanporatzea

Alegiako herritar nazionalisten, errepublikazaleen eta tradizionalisten arteko tentsioak, Euskal Estatutuaren etetearekin bat eta Probintziako Batzorde Kudeatzaileak Madrildik hautatuak izatearekin bat, areagotu egin ziren. Hori gutxi ez balitz, Madrilgo Gorteetan ardoaren zerga jaisteko hartutako erabakiak, iskanbila areagotzea ekarri zuen. Erabaki horrek, udal-gobernuek alkoholaren kontsumoaren eraginez jasotzen zuten diruaren zenbatekoa hein handi batean jaistea zekarren. Euskal nazionalistek ardoaren zergaren aurkako mugimendua probestu zuten, euskal eskubide eta tradizioen aldeko aldarrikapenak gauzatu ahal izateko.

Probintziako Batzorde Kudeatzaileak, nazionalista eta ezkertiarrak ez ziren gehiengoaz osatuta zeuden eta horrek, gehienbat nazionalistak ziren gipuzkoar udal-gobernuekin izugarrizko tentsioa eragin zuen. Nazionalistek, Probintziako Batzorde Kudeatzaileak euskal kontzertu ekonomikoa ez zutela defendatzen uste zuten. Horretaz gain, gobernu zentralak, Kataluniako Parlament-ak onartu zuen Laborantza Kontratuen Legea atzera bota ostean, Esquerra Republicana eta euskal nazionalistek (solidaritate gisan) Madrilgo Gorteak abandonatu zituzten.

Egoerari aurre egin asmoz, Fernando Sasiain Donostiako alkateak, Probintziako Batzorde Kudeatzaileekin elkarrizketak hasi zituen. Hauen ezezkoaren aurrean, Sasiainek, euskal udalen artean eratu behar zen Batzorde Batu eta Iraunkor baten aldeko hautua egin zuen. Ildo hori jarraituz, Alegiako udal-gobernua, 1934ko uztailaren 15ean Udalen Bitarteko Batzorderako hautatuko ziren kideen batzarrera gonbidatu zuten, zeinaren ordezkaritza Jose Letamendia Lasa zinegotzi nazionalistak bete zuen. 90 gipuzkoar herrietatik 85ek bidali zituzten beraien ordezkariak aipatutako batzarrera. Bertan, Fernando Sasiain Donostiako alkatea, Florencio Iracheta Irungo zinegotzi errepublikarra eta, Ignacio Zubizarreta, Feliciano Beldarrain eta Domingo Berriochoa Bergara, Oiartzun eta Ordiziako alkate nazionalistak, hurrenez hurren, Udalen Bitarteko Batzorderako hautatu ziren.

Gobernu zentralak ez zuen erantzunik eman eta horren aurrean, Udalen Bitarteko Batzordeak, 1934ko abuztuaren 12rako hauteskundeak deitu zituen. Egun bat lehenago, Alegiako udal-gobernuak Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren eskutitza jaso zuen. Horren arabera, Alegiako udalak, Udalen Bitarteko Batzordeko kide izan eta Ardoaren Estatutuaren aurkako aldarrikapena defendatzen bazuen, lege hausketa egin eta haren aurkako neurri gogorrak hartuko zirela adierazi zion. Hala eta guztiz ere, prozesuak aurrera jarraitu zuen eta 1934ko abuztuaren 12rako Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Udalen Bitarteko Batzordeko kideak, Udalen Batzorde Iraunkorra osatuko zuten kideak hautatzeko deitu zituzten. Gipuzkoari guztira, 20 kide hautatzea zegokion eta horiek Donostia, Tolosa, Azpeitia, Irun eta Bergarako distrituetan bananduta hautatu ziren. Alegiako udal-gobernuko eta Udalen Bitarteko Batzordeko kide ziren Antonio Arrizabalaga alkateak, Jose eta Juan Antonio Letamendiak, Tomas Arosteguik, Timoteo Zabalak eta Ignacio Galarragak, Udalen Batzorde Iraunkorra osatzeko haien botoa eman zuten:

UDALEN BATZORDE IRAUNKORRA HAUTATZEKO 1934ko
ABUZTUAREN 12ko HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ALEGIAN

| HAUTAGAIA | BOTO-KOPURUA |
|---|---|
| **ANTONIO LABAYEN TOLEDO (EAJ/PNV)** | 534 |
| **PABLO EGUIBAR MUNITA** | 534 |
| **FRANCISCO ITURRIOZ IZTUETA** | 534 |
| **MIGUEL LICEAGA LANBURU (IR)** | 70 |



ACTA DE LA REUNIÓN CELEBRADA PARA LA ELECCIÓN DE LA COMISIÓN DEFINITIVA ENCARGADA DE LA DEFENSA DEL CONCIERTO ECONOMICO.

AYUNTAMIENTO DE ALEGRIA DE ORIA.

En la villa de Alegria de Oria a doce de Agosto de mil novecientos treinta y cuatro, previa convocatoria efectuada en forma y a los efectos de cumplimiento de la circular de la Alcaldía del Ayuntamiento de San Sebastian de cuatro de los corrientes, se procedio bajo la Presidencia de D. Antonio Arrizabalaga, Alcalde de este Ayuntamiento y con asistencia de los concejales D. Jose Letamendia, D. Juan Letamendia, D. Tomas Arostegui, D. Ignacio Galarraga, D. Timoteo Zabala, D. ___ a la elección de la Comisión definitiva encargada de la defensa del Concierto Economico, haciendo constar el Secretario volvia a advertir como lo hizo en la sesión de ayer que el acto que se iba a celebrar era ilegal.

Votaron, con los votos que obtuvieron en la elección y en el orden en que se citan los Concejales siguientes.

Votan a los siguientes Sres.

| | Labayen | Eguibar | Iturrioz | Liceaga |
|---|---|---|---|---|
| D. Antonio Arrizabalaga, Alcalde del año 1931, con votos... D. Jose Letamendia ......Concejal del año 1931. | 116 | 116 | 116 | |
| con votos... D. Juan Letamendia, Concejal del año 1931. | 116 | 116 | 116 | |
| Concejal del año 1931. D. Tomas Arostegui Concejal del año 1931 | 116 | 116 | 116 | |
| D. Ignacio Galarraga Concejal del año 1931. | 116 | 116 | 116 | |
| D. Timoteo Zabala Concejal | | | | |
| | 70 | 70 | 70 | 70 |

Total de votos obtenidos por cada Candidato

D. Antonio Labayen Toledo Votos 534
D. Pablo Eguibar Munita Votos 534
D. Francisco Iturrioz Iztueta Votos 534



D. Miguel Liceaga Lanburu Votos 70

Realizada la elección se levanta la presente acta que firman todos los concurrentes al acto, de todo lo cual yo el Secretario, certifico.

**Euskal Estatutua.**
**1934ko abuztuaren 12ko hauteskundeak.** (AUA).

Tolosako distrituan, nazionalistak atera ziren garaile. Horren ostean, Gipuzkoako Probintziako Batzorde Betearazlea eratu zen, errepublikazaleen gehiengoarekin. Gobernu zentrala ez zen geldirik geratu eta gipuzkoar udalerrietako erabakiei aurre egin asmoz, 1934ko abuztuaren 14an, Ormaiztegi, Azpeitia, Zumaia, Deba eta Getariako alkateak bere karguetatik baztertu zituen. 1934ko abuztuaren 21erako Antonio Arrizabalaga, alkatetzatik suspenditu eta handik aurrera, ordura arte lehen alkateordea zen Juan Jauregui Lizarribar ezarri zen alkatetza postuan. Horren guztiaren eraginez, Udalen Batzorde Iraunkorra 1934ko irailaren 2an Zumarragan bildu zen.

Giro zalapartatsua nagusitu zen kaleetan zein instituzioetan. Horren lekuko izan ziren 1934ko irailaren 3an Gernikan parlamentari katalanei ongi etorria emateko asmoz bildu ziren herritarrak. Gernikako Arbolaren inguruan zeudelarik, estatuko segurtasun indarrak oldartu eta herritarren aurka kolpeka hasi ziren. Modu horretan, estatuak probintzietako agintariek ordura arte hartu zituzten erabakien aurreko iritzia islatu zuen. Udalen Batzorde Iraunkorren aurkako ekintza izan zen, hauen deuseztapena lortu asmoz. Beldurraren aurrean, euskal udaletako agintariek haien kemena erakutsi zuten, Probintziako Batzorde Betearazleak 1934ko irailaren 4an batuz eta honako aldarria eginez[88]:

1º Euskal lurraldeko udal guztien dimisio kolektiboa.

2º Euskal parlamentari guztiei eta herrialdearen defentsan interesatutako alderdi politiko guztiei hitzarmen honen berri ematea.

3º Hiru hiriburuetako alkateak dimisio kolektiboa gauzatzeko ahalduntzea hilabete honetako 7. egunerako.

4º Batzorde Iraunkorrek bere horretan jarrai dezatela Kontzertu Ekonomikoaren eta udalen autonomiaren defentsan eta, alkate eta zinegotzien ezarri zaizkien prozesu eta multen aurka.

Horrekin bat eginik, Antonio Arrizabalaga Aguirre Alegiako alkatea 1934ko irailaren 4an atxilotu[89] eta nazionalistak haren dimisioa aurkeztu zuen 1934ko irailaren 7an (aurretik suspenditu bazuten ere).

Hurrengo egunean, Juan Antonio eta Jose Letamendia Lasa eta Tomas Arostegui zinegotzi nazionalistek ere haien dimisioa aurkeztu zuten.

Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1934ko irailaren 10ean, dimititu berri zuten zinegotziei haien postuetara itzultzeko agindua eman zien. Alegiako zinegotziek ordea, Gipuzkoako Gobernadore Zibilari haien postuetara ez zirela itzuliko argi eta garbi adierazi zieten. Handik aurrera, 1934ko azaroaren 13ra arte Juan Jauregui Lizarribar izan zen Alegiako alkatea, zeinak data horretan, 11.631,01 pezetako zorra utzi zuen[90].



Tengo el honor de poner en su conocimiento que, reunidos los Comités Ejecutivos de los Ayuntamientos del Pais Vasco, examinaron con todo detenimiento la gravísima situación porque atraviesa el pais a consecuencia del sistema represivo que el poder central utiliza en contra del normal desenvolvimiento de los Concejos vascos, causando ofensas al Fuero Municipal y a las libertades administrativas reconocidas desde tiempo inmemorial en este pais, y en su virtud se adoptaron los siguientes acuerdos:

1º. La dimisión colectiva de todos los Ayuntamientos del Pais Vasco.

2º. Dar cuenta de este acuerdo a los parlamentarios vascos y partidos politicos interesados en la defensa de los intereses del pais.

3º Facultar a los Alcaldes de las tres capitales para la ejecución de la dimisión colectiva el dia 7 de los corrientes.-

4º Que las Comisiones definitivas continuen en sus funciones para la defensa del Concierto Económico, de la autonomía de los Municipios y de los procesos y multas contra Alcaldes y Concejales."

Lo que, en cumplimiento del acuerdo adoptado, me apresuro a trasladar a Vd. para su ejecución el dia 7 de los corrientes.

San Sebastian, 5 de sepbre de 1934.

EL ALCAIDE DE SAN SEBASTIAN.

**Euskal Estatutua. 1934ko Batzorde Betearazlearen erabakia.** (AUA).



ILYESTRE ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE

ALEGRIA DE ORIA.

El que suscribe D. Antonio Arrizabalaga Aguirre, Concejal de este Ayuntamiento, atentamente a V.S. expone.

Que se ve obligado a dimitir su cargo con caracter irrevocable, fundando en motivos siguientes.

PRIMERO: En el cumplimiento del acuerdo de la Comisión de Ayuntamientos del Pais Vasco.

SEGUNDO: Como protesta contra las persecuciones, multas, suspensiones, destituciones, procesamientos, embargos, detenciones y vejamenes de quese ha hecho objeto por el Gobierno a los Alcaldes y Concejales vascos.

TERCERO: Como protesta contra el asalto de los municipios por la fuerza publica.

CUARTO: Por los actos de fuerza, violencia y vejamen cometidos.

QUINTA: Por la prohibición de la Asamblea de Zumarraga.

SEXTO: Por los atropellos cometidos contra los parlamentarios Catalanes y vascos.

SEPTIMA: Por ladestitución del Ayuntamiento de Vitoria y el nombramiento de gestora Municipal.

OCTAVO: Por laprolongación de las gestoras de las Diputaciones.

NOVENO: Por los contrafueros cometidos.

SUPLICO a V.S. se sirva recibir este escrito y aceptar la dimisión que presento de mi cargo de Concejal de este Ayuntamiento.

ALEGRIA DE ORIA a 7 de Septiembre de 1934.

**Euskal Estatutua, Antonio Arrizabalagaren dimisioa.** (AUA).

88 AUA: 28. Kaxa. 2. Zenbakia. Aktak.

89 AUA: 391.Kaxa. 2. Zenbakia.

90 AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia.


Al Ayuntamiento de Alegria

Los que suscriben Juan Antonio Letamendia Lasa, Jose Letamendia Lasa y Tomas Arostegui concejales de este Ayuntamiento, atentamente á V.S. dice; Que se ven obligados á dimitir sus cargos con caracter irrevocable, fundando en los motivos siguientes.

Primero.- En el cumplimiento del acuerdo de la Comision de Ayuntamientos del País Vasco.

Segundo.- Como protesta contra las persecuciones, multas, suspensiones, destituciones, procesamientos, embargos, detenciones y vejámenes de que se ha hecho objeto por el Gobierno á los alcaldes y concejales vascos.

Tercero.- Como protesta contra el asalto de los municipios por la fuerza pública.

Cuarto.- Por los actos de fuerza, violencia y vejámenes cometidos.

Quinto.- Por la prohibicion de la Asamblea de Zumarraga.

Sexto.- Por los atropellos cometidos contra los parlamentarios catalanes y vascos.

Septimo.- Por la destitucion del Ayuntamiento de Vitoria y el nombramiento de gestora municipal.

Octavo.- Por la prolongacion de las gestoras de las Diputaciones.

Noveno.- Por los contrafueros cometidos.

Suplico á V.S. se sirva recibir este escrito y aceptar las dimisiones que presentamos de nuestro cargo de capitulares de este municipio.

Alegria 8 de Septiembre 1934

Juan Letamendia

José Letamendia Tomas Arostegui

**Euskal Estatutua, zinegotzien dimisioa.** (AUA).

## 2.5.5. Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren hautaketaz osatutako udal-gobernua

Alegiako udal-gobernua hiru zinegotziren administrazioan geratu zen, 1934ko azaroaren 13ko udalbatzara arte. Bertan, lau egun lehenago Gipuzkoako Gobernadore Zibilak izendatu zituen kideak Alegiako udal-gobernuko zinegotzi gisan hautetsi zituzten, aurreko hauteskundeetan aukeratu ziren zinegotziekin bat[91]:

### 1934ko azaroaren 13ko udalbatza

**ALKATEA**
Ceferino Lasa Iraragorri (katoliko independientea)

**Lehen alkateordea:**
Juan Jauregui Lizarribar (tradizionalista)

**Bigarren alkateordea:**
Miguel Otaño Mugica (gerran zehar detenitua)

**Sindikoa:**
Jose Echeverria Eceiza

**Zinegotziak:**
- Pedro Martinez Lasa
- Jesus Beraza Garayalde
- Hilario Aguirre Chapartegui (tradizionalista)
- Jose Ermina Zabala

[91] AUA: 1934-1936 Aktak, 391. Kaxa. 2. Zenbakia.

### 1936ko otsaileko hauteskundeak

1936ko otsaileko hauteskundeak ospatu baino lehen, zehazki, 1936ko otsailaren 4an, Ceferino Lasa Iraragorri, ordura arte Alegiako alkatea izan zenak, bere dimisioa aurkeztu zuen, gaixorik zegoela eta haren negozioaz arduratu behar zuela berretsiz.

Haren ordez, ordura arte bigarren alkateordea zen Miguel Otaño Mugica, ofizioz papergilea, Alegiako alkate izan zedin izendatu zuten.


Al Ilustre. Ayuntamiento de Alegria de Oria.

El que suscribe, Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento de Alegria de Oria, al mismo tiene el honor de exponer:
Que desde el trece de noviembre de mil novecientos treinta y cuatro, en que fue honrado con el cargo de Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento viene desempeñando á pesar de que sus negocios particulares no se lo permiten y hallandose en la actualidad quebrantado de salud como acredita la adjunta Certificación Facultativa, renuncia á dicho cargo, presentando ante el Ayuntamiento, la dimisión con caracter irrevocable, suplicando al mismo tiempo tenga á bien el aceptarla.
Viva V. muchos años
Alegria de Oria á 4 de Febrero de 1936.
Ceferino Lasa


MODELO A.

COLEGIOS MÉDICOS DE ESPAÑA CONSEJO GENERAL

Derechos autorizados por la Dirección General de Sanidad 5 PESETAS

Póliza del Estado Ptas. 3

Serie 1.ª Nº 981330

CERTIFICADO MÉDICO OFICIAL

COLEGIO DE GUIPUZCOA

Don José María Tolosa y Zudaire Licenciado en Medicina y Cirugia, con residencia en Alegria de Oria, inscripto con el número 376 en el Colegio Oficial de Médicos de esta Provincia.

CERTIFICO: Que D. Ceferino Lasa é Iraragorri vecino de esta villa, padece algias precordiales y del plexobraquial, por lo que conceptuo que su estado de salud, requiere un prolongado reposo ó disminución en la intensidad de sus actividades y ocupaciones ordinarias.
Para que conste

Y para que así conste donde convenga y a instancia del interesado, expido el presente Alegria de Oria a tres de Febrero de mil novecientos treinta y seis.

J. M. Tolosa

NOTAS.—1.ª Ningún Certificado Médico será válido si no va extendido en este impreso editado por el Consejo de los Colegios Médicos, cuyo origen garantiza la filigrana al agua marcada en el papel con la siguiente inscripción: «Consejo General de los Colegios Médicos de España. Certificado Oficial»; debiendo además llevar estampado el sello oficial del Colegio Médico Provincial.
2.ª Los derechos autorizados por la Dirección General de Sanidad son independientes de los Timbres que exigen las disposiciones vigentes.

**Ceferino Lasaren dimisioa.** (AUA).

1936ko otsaileko hauteskundeek Alegiako udal-gobernua osatzerako orduan izugarrizko bira suposatu zuten. 1934ko azaroko udal-gobernuaren osatzearen ostean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak haien karguetatik alboratu zituen Antonio Arrizabalaga, Jose Letamendia, Juan Antonio Letamendia eta Tomas Arostegui zinegotziak, berriro ere haien postuak hauteskundeen bidez hartzeko aukera izan zuten, amnistiatuak izan ostean[92]:

**1936ko otsailaren 29ko udalbatza**

**ALKATEA**

Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV)

**Zinegotziak:**

- Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)
- Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)
- Tomas Arostegui Tolosa (EAJ/PNV)
- Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)
- Timoteo Zabala Saizar (EAJ/PNV)

[92] AUA: 391. Kaxa, 2.Zenbakia. 1934-1936 Aktak.


En la Sala consistorial de la N. y L. Villa de Alegria de Oria, siendo las once y media de la mañana del dia veintitres del Febrero de mil novecientos treinta y seis, previa convocatoria verificada en forma por el Secretario, comparecieron los concejales de eleccion popular D. Antonio Arrizabalaga, D. Jose Letamendia D. Juan Antonio Letamendia D. Tomas Aristegui y D. Timoteo Zabalo, cuyos señores han sido amnistiados por el Gobierno de la condena de inhabilitacion que sufrian, y despues de dada lectura del telefonema de la Superioridad remitido al Secretario de esta Corporacion, quedaron los mismos reintegrados a sus puestos, cesando en este acto los Gestores gubernativos en los cargos que desempeñaban.
A continuacion acordaron dirigir al Excmo. Sr. Presidente del Consejo de Ministros el siguiente telegrama.
Al tomar posesion cargos municipales, señalamos nuestro reconocimiento por tan acertada disposicion, y para completar deseos Pais Vasco esperamos rapida constitucion de Diputaciones Provinciales por representaciones populares, asi como la rapida aprobacion del Estatuto Vasco.
Por ultimo se acordó celebrar la sesion ordinaria el dia veintinueve de los corrientes y seis horas de la tarde.
Con tanto se dio por terminado el acto que firman todos los concurrentes, de todo lo cual yo el Secretario, certifico.


Folio 167

Jose Letamendia
Juan A. Letamendia
Tomas Aristegui  Ygnacio Galarraga

En la Sala consistorial de la N. y L. Villa de Alegria de Oria a veintinueve de Febrero de mil novecientos treinta y seis, se reunió el Ayuntamiento en sesion ordinaria bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Antonio Arrizabalaga, con asistencia de los concejales D. Jose Letamendia, D. Juan Antonio Letamendia, D. Tomas Aristegui y D. Ignacio Galarraga, acompañado de mi el Secretario.
Declarada abierta la sesion se dio lectura al acta del anterior que fue aprobada.
Seguidamente quedó enterado el Ayuntamiento de un telegrama del Excmo. Sr. Presidente del Consejo de Ministros cuyo texto es el siguiente "Agradezco felicitacion, ruego saludo miembros ese Ayuntamiento."
Acto seguido se dio cuenta al Ayuntamiento de la situacion economica en que se encuentra el municipio el dia de hoy.
Primera Parte - año 1935.
Cargaremes extendidos 77, importan ... 57.039.49
Libramientos extendidos 214, importan ... 43.982.19
Total superavit -- 13.057.30

**Euskal Estatutua defendatu zuten zinegotzien amnistia.** (AUA).

1936ko maiatzaren 12an, Antonio Arrizabalagak haren dimisioa aurkeztu zuen, ez baitzioten utzi haren kargua behar bezala betetzen. Haren ordez, Jose Letamendia Lasa jarri zen Alegiako alkate berri gisan eta Arrizabalaga zinegotzi postura egokitu zen.

1936ko otsaileko hauteskundeetatik aurrera, alegiar udal-gobernuan ere errepublikazaleek oraingoan babestuko zuten Euskal Estatutuaren aldeko apustua egin zuten. Estatutuak, autonomiaren barnean, Araba zein Nafarroako lurraldeak atxikitzea onartzen zuen.

Euskal Estatutua aurrera bidean bazen ere, 1936ko uztailaren 17 eta 18 artean Bigarren Errepublikaren aurka gauzatutako estatu-kolpeak, Euskal Estatutuarentzat etenaldia suposatu zuen, nahiz eta hiru hilabete beranduago 1936ko urriaren 1ean espainiar errepublikako gobernuak onartu egin zuen.



OCTUBRE 2 Viernes — Bilbao, 1936

**Euzkadi**

PRECIOS DE SUSCRIPCION — Bilbao ... Ptas. 9 trimestre — Fuera de Bilbao ... 11,25 — América ... 67,00 — Otros países ... 112,50

Franqueo concertado

Año XXV | Redacción y Administración: Correo, 17, 1.º | Apartado de Correos 234 | Teléfono: 17.810 | Número 7.415

## Una histórica sesión en las Cortes españolas

# Por aclamación fué aprobado ayer el Estatuto vasco

## Un emocionante discurso de nuestro diputado don José Antonio de Agirre, acogido con vivas muestras de respeto y simpatía por todos los parlamentarios

## Afirmó en él el cristianismo, el espíritu de libertad y el elevado sentido social de la organización patriótica vasca

## Nabarra podría incorporarse al territorio autónomo cumpliendo los requisitos constitucionales oportunos

### ¡¡ITXARKUNDIA!!

En el acta última de la Comisión de Estatutos acerca del proyecto de Estatuto vasco aprobado ayer por aclamación por las Cortes se hace constar por unanimidad que Nabarra podrá incorporarse al territorio autónomo cumpliendo los requisitos constitucionales

ESTATUTOA LORTU DEGU

### Azkatasuna gurekin!!

Nueva responsabilidad

### Ante la aprobación del Estatuto

Una alocución

### El gobernador de Bizkaya da cuenta de la aprobación del Estatuto vasco

DISCURSO DE MARTINEZ BARRIO

DISCURSO DE LARGO CABALLERO

### Abando-Bilbao

CARNETS

DISCURSO DEL SEÑOR AGIRRE

VARIOS DISCURSOS

Euskal Estatutuaren aldarrikapena, Euzkadi Egunkarian, 1936ko urriaren 2an argitaratua. (Euskal Memoria Fundazioa).

**Milizianoak Alegian 1936an.** (Pascual Marín Funtsa).

# 3.

# Gerra Zibila hasi zenetik, Alegian kolpistak sartu ziren arte



## 3.1. GERRAKO FRONTEA ORIA BAILARAN BARRENA

1936ko uztailaren 17 eta 18 artean, espainiar armadako militarren sektoreetako batek, herriak bozka bidez hautatutako Bigarren Errepublikaren gobernuaren aurkako estatu-kolpea gauzatu zuen. 1936ko uztailaren 17ko goizean, Diario Vasco egunkariak, Gipuzkoako kolpisten transmisio katea egiteaz arduratuz, militar erreakzionarioak "Mañana hará buen tiempo" adierarekin kolpeari hasiera emateko abisatu zituen. Hala eta guztiz ere, estatuko zenbait lurraldetan estatu-kolpeak porrotean amaitu zuen. Gipuzkoa eta Bizkaiako egoera horixe izan zen, Araba eta Nafarroako arrakastak ez bezala.

Hori horrela, alegiarrek, bortizki pairatu behar izan zuten gerrari hasiera eman zitzaion "Gerra hasi emen dek, gerra! Gerra! Ba emen tzetoztek Villafrankatik zea… reketek eta… kiston moimentue izan tzan hemen"[93]. Handik aurrera, kolpistek, gerra osoan zehar Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntza izango zuten.

Une hartan, Alegiako udal-gobernua Jose Letamendiaren alkatetzarekin eta Antonio Arrizabalaga, Juan Antonio Letamendia, Tomas Arostegui eta Ignacio Galarraga zinegotzien zuzendaritzan zegoen[94].




**Alemania nazia, Italia faxista eta Espainia frankista bat eginik.** (Euskal Memoria Fundazioa).

[93] Testigantza: Gerra. Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:24-00:00:37.
Testigantzetarako argibideak:
- -(…) adierazpenak, elkarrizketa liburuan ezartzeko egokitua izan dela esan nahi du.
- -… adierazpenak, elkarrizketatuarengan isilunea izan dela adierazten du.
- -Elkarrizketatzailea, "E" adieraz adieraziko da.
- -Elkarrizketatua, bere izenaren lehenengo letraz adieraziko da.
- -Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.

[94] 1936ko uztailaren 12ko Alegiako udal-gobernua. AUA: 1936-1941eko Aktak. A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 3.1.1. Nafarroatik Oriako bailararen ateetara

Gipuzkoa, estatu espainiarreko mugetan kokatutako lurraldea zen eta horrenbestez Frantziarako pasabidea egiten zuena. Hori kontutan izanik, militar erreakzionarioek gipuzkoar errepublikazaleek frantziarrekin izan zezaketen edozein kontaktu (hornigaiak emateko…) mozteko asmoz, gipuzkoar mugen isolamendua helburu nagusitzat izan zuten. Isolamendua, Alfonso Beorlegui militar erreakzionarioak ezarri zuen martxan, Nafarroatik zetozen bere tropekin Irun hartzeko lehenengo ahaleginak egin zituelarik. Hala eta guztiz ere, tokiko botere errepublikazaleek sortutako batzordeek, militar erreakzionarioen ahaleginak irailaren 5era arte geldiarazi zituzten.

Gipuzkoako lurralde osoa kontrolpean eduki ahal izateko beste puntu estrategikoetako bat, gipuzkoar hiriburua zen. Hain zuzen, erreakzionarioek Donostia beraien mendean hartzen bazuten, errazagoa izango zitzaien lurralde osoaren kontrola. Horrela bada, Nafarroako iparraldetik zetorren Beorleguiren batailoiari laguntza emango zion beste zutabeetako bat, Nafarroako ekialdetik gipuzkoar lurraldera sartuko zen Pablo Cayuelaren Arapiles batailoia izanen zen. Nafarroako ekialdetik, Goierriko lurraldeetan barrena Oriako bailarara iristeko asmoz hiru unitate militar abiatuko ziren, eta horietatik bat, hau da, arestian aipatu dugun Pablo Cayuelaren Arapiles Batailoia Alegia 1936ko abuztuaren 7an mendean hartu zuena izan zen.

1936ko uztailaren 19an, Pablo Cayuelak, bere mendean 800 gizonezko[95] errekete Lizarran batuta, arratsaldeko 17:00etan Altsasurako bidea gauzatu zuen. Alegiarren artean ere izan zen Arapiles Batailoiko partaiderik, hori dugu esaterako Ignacio Goicoechea Luluagaren kasua, zeina 1937ko maiatzean, Lemoatx mendian hil zen[96].


BATALLÓN DE MONTAÑA ARAPILES, N.º 7
[redacted] CORONEL

Jefe 2ª Brigda de Navarra

Durango, 12 de junio de 1937

Sra. Micaela Luloaga

Muy Sra. mía: Contesto a su carta de 8 del corriente, manifestándole que, efectivamente, su hijo murió gloriosamente el día 30 de mayo, en combate librado en la Peña de Lemona. Su cadaver se halla enterrado en el cementerio de esta localidad, señalada su fosa con el nº 53.

Al acompañarle en su dolor por tan sensible pérdida, le encarezco resignación y ánimo para sobrellevarla, ya que con su muerte ha cumplido una gloriosa misión para con la Patria.

Suyo affmo. y s. s.

q. e. s. m.,

24 Agosto 1.939.
Se interesó del Batallón de Arapiles el certificado de defunción, filiación y estado civil cuando fallecio y del haber que disfrutaba el soldado [illegible] LULUAGA.

**Micaela Luloagari bidalitako eskutitza bere seme Ignacio Goicoechea Luluagaren heriotzaren berri emanez.** (AUA).

Sakanan barna, Cayuela, herriak hartuz joan zen, 50 km-tan zehar inongo erresistentziarik aurkitu gabe[97]. Uztailaren 19an, erreakzionarioek, haritzen herria (Altsasu) mendean hartu ostean, Sakanatik Goierri alderako noranzkoa hartu zuten, hartarako Etzegarate mendiko portua zeharkatu zutelarik. Portua zeharkatu ostean, 1936ko uztailaren 25eko arratsaldeko 16:00etan Idiazabalera iritsi ziren eta Albizu komandantearen gidaritzan zegoen bigarren unitate militarrarekin bat egin zuten, inongo erresistentziarik aurkitu gabe. Bitartean, Malcampok, Iruñatik Etxarri-Aranatzera joateko tren militarraz baliatuz, Ataunerako bidea hartu zuen Lizarrustiko mendiko portua zeharkatuz.

Pablo Cayuelaren helburu nagusia, Beasain mendean hartzea zen, izan ere, industrializatutako herri oparoa izateaz gain, horrek, Oria bailarara sarrera eta horrenbestez, Tolosaren okupazioa bideragarriagoa izango zela suposatzen zuen.

Cayuelak, goierritarren herri industrializatua mendean hartzeko zailtasunik ez zuela izanen uste zuen, miliziano gehienak Donostian altxatu ziren erreakzionarioak baretzera joanak baitziren. Errepublikazaleak, Cayuelaren helburuen berri izan zuten eta, haietaz baliatuz, milizianoen talde bat bidali zuten Beasain kolpistengandik defendatzeko.

1936ko uztailaren 26an, Beasaingo inguruetan, Eibarko milizianoek eta erreketeen hiru unitateek izugarrizko borrokak izan zituzten. Hurrengo egunean, hilaren 27an, Cayuelak Beasain mendean hartzea lortu zuen. Bataila oso gogorra izan zen eta horren jakitun izanik, frankistek Beasainen izugarrizko errepresioa gauzatu zuten.

Hogeita hamar pertsona inguru fusilatzeaz gain (horietako bateren bat karlista zelarik), abandonatutako etxeetan, ofizialek haien soldaduei bertan zeuden ondasunak hartzeko baimena eman zieten. Hurrengo egunetan Oriako bailaran gauzatuko zen errepresio ankerraren lehen lekukoak izan ziren goierritar herritarrak.

---

95 BARRUSO BARÉS, P. 1996. *El movimiento obrero durante la II República: organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Diputación Foral de Guipuzcoa, Departamento de Economía y Turismo, D.L.: Donostia. 228. or.

96 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

97 ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. 2013. *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945.* Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia. 61-63.orr.



**Tropa frankistak Oria bailaran.** (Tolosako Udal-Agiritegia).

Modu horretan, erreketeek, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroaren artean gauzatzen ziren komunikazio ezberdinen kontrola eskuratzeaz gain, Oria bailarara sartzeko bidea eskuratu zuten. Errepublikazaleek, bere horretan herriak demokratikoki aukeratu zuen gobernuaren defentsan jarraitzeko hautua egin zuten eta horren zantzuak Ordizian burututako erresistentzian errepara genitzake. Uztailaren 29an, Cayuelak, Ordiziaren aurkako erasoa hasi zuen eta milizianoek ezin defendatzearen eraginez, herria egun horretan bertan frankistek menperatu zuten. Hala eta guztiz ere, Barrusok argitzen digunez, uztailaren 30ean, Montaud Gipuzkoako komandante militarrak Oriako fronte guztia aztertu ostean, Eduardo Urtizberea sektoreko kapitain berriari, mikelete, Guardia Zibil eta miliziano guztiak batu eta Ordiziatik frankistak pasa ez zitezen, agindua eman zuen[98]. Guztira 300 gizonezko bildu zituen eta ehun pertsona zituzten zutabeetan egituraturik, arma eskasekin, erresistentzia antolatu zuen.

Cayuelak bere mendean zituen militarrak kuantitatiboki gehiago izateaz gain, kualitatiboki ere hobeto formatuta zeuden soldadu erregularrak ziren. Armak eta soldadu kopuru zein kalitatea kontutan izanik, ez zen harritzekoa izan 1936ko abuztuaren 1erako Ordizia bere mendean hartuta izatea:

"(…) quebrantando grandemente al enemigo hasta las 16 en que, dada la orden de avance, se tomó Villafranca entre el clamoroso entusiasmo de los vecinos de la villa"[99].

Hurrengo egunean, Junta Carlista de Guerra deiturikoa ezarri zen Ordizian, zeina handik aurrera, tropa frankistak mendean hartzen zihoazen udalerriak administratzeaz arduratuko zen.

### 3.1.2. Oriako bailarako frontea

Cayuelak, herri bakoitza mendean hartzen zuen aldiro, bertako gazteez baliatzen zen borrokaldietan izan zituen soldadu-galtzeak berreskuratzeko. Horrela, abuztuaren 4an, bere zutabea 1000 soldaduz hornitua egotera iritsi zen eta Tolosa mendean hartzeko asmoz, haiek, Aldir komandantearen zein Baeza kapitainaren eskuetan utzi zituen. Aldir komandanteak, Itsasondorako bidea hartu bitartean, Baeza kapitainak, Zaldibia, Abaltzisketa eta Gaintzako inguruetara egin zuen.

Errepublikazaleak gainera zetorkiena ikusirik, Alegia, Orendain, Gaintza eta Aldaban zehar, defentsa-lerroa eratu zuten. Horrek izugarrizko mobilizazioak eragin zituen txintxarrien herrian, miliziano asko eta asko Alegiara hurbildu baitziren "(…) gero hemen Alegrin… karretera generala pasatzen zan, eta gue etxekok han, izoa esate giñon, dana dala, denda ttiki bat taberna batekin zeken, da han eote zan kamino hartan, ta ordun hasi zin milizianok eta… batzuk Villafranca, bestek Villafrancatik Tolosa ta izuarrizko muimentue (…)"[100].

---

[98] *Ibídem*, 62.or.

[99] Garaiko dokumentua, ez da aldaketarik egin: "Cayuela Teniente Koronelaren, Cayuela Zutabea deiturikoaren Operazioen Egunerokoa", AGMAV, 2677 kaxa, 23B karpeta, 2.or.

[100] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:38-00:01:14. "Gerra".



**Milizianoak Alegian 1936an.** (Pascual Marín Funtsa).

Horrezaz gain, abuztuaren 5ean bertan Loiolako Santutegian, Eusko Miliziak sortzeari ekin zioten, Euzko Gudarostea Azpeiti-Buruzagitza izena hartuz. Bai eta, Ordizian sortu berri zen Junta Carlista de Guerra-k, handik aurrera Eugenio Jauregui Alegiako alkate postuan ezarri ere:

"1. Orria:

Por acuerdo de la JUNTA DE GUERRA CARLISTA DE GUIPUZCOA, se le faculta para que en nombre de esta entidad haga nombramientos de Alcalde de este pueblo y constituya Ayuntamiento con las personas de confianza absoluta que Ud. Designe.

Es sumamente urgente e interesante cumplan las instrucciones que al dorso se detallan, dando cuenta inmediatamente de cuantas gestiones que en este sentido realicen.

Dice guarde a U. muchos años.

Villafranca de Oria, 5 de Agosto de 1936.

El Presidente; El Secretario

Sr. Dn. Eugenio Jáuregui, Alegría.

2. Orria:

Instrucciones que deberán tener en cuenta:

1º-La bandera deberá ser española: bicolor ondeara (sic) en el Ayuntamiento y edificios públicos, prohibiendo toda otra bandera sea cualquiera el matiz político que representa.

2º-Procederá inmediatamente a colocar el crucifijo en las escuelas y edificios públicos.

3º-Así mismo si en algún Ayuntamiento hubiese sido entronizado en Sagrado Corazón de Jesús (sic) y se hubiere destronizado (sic) volverá a presidir y ser colocado en la Sala Capitular con toda solemnidad.

4º-Acudirá el Ayuntamiento en Corporación a cuantas funciones religiosas se celebren en la localidad con ocasión del movimiento salvador pues se está llevando a cabo en toda España.

5- Los Alcaldes deberán tomar la filiación a todas personas que con carácter voluntario se incorporen a este movimiento remitiéndolo juntamente con una relación de todos ellos a esta Junta de Guerra[101]."

[101] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 510.Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

Horrez gain, Junta Carlista de Guerra de Guipúzcoa-k, Eugenio Jaureguiri Alegiako ekonomiaren eta egoera sozialaren berri emateko eskaera egin zion hilaren 5ean, gerra modu egokian bideratu ahal izateko:

"Estimado imprescindible conocer por esta Junta Carlista de Guerra de Guipuzcoa (sic):

1º-Estado territorial de fincas urbanas y rusticas (sic).

2º-Estado de la contribución industrial de cada uno de esos municipios.

3º-Presupuesto municipal del ejercicio en curso.

4º-Ruego a Ud. Se sirva facilitarme cuanto antecede para la buena marcha y gobierno de esta Junta de Guerra.

Dios guarde a U. muchos años.

Villafranca de Oria 5 de Agosto de 1936.

El Presidente.

Sr. Alcalde Presidente del Ilustre Ayuntamiento de Alegría"[102].



Estimando imprescindible conocer por esta Junta Carlista de Gerra de Guipu coa:

1º - Estado territorial de fincas urbanas y rusticas.

2º - Estado de la contribución industrial de cada uno de esos municipios.

3º - Presupuesto municipal del ejercicio en curso.

4º - Ruego a Vd. se sirva facilitarme cuanto antecede para la buena marcha y gobierno de esta Junta de Guerra.

Dios guarde a V. muchos años.

Villafranca de Oria 5 de Agosto de 1936.

JUNTA INTERINA DE GUERRA DE GUIPUZCOA

El Presidente

Sr. Alcalde Presidente del Ilustre Ayuntamiento de Alegria.

**Junta Carlista de Guerrak, 1936ko abuztuaren 5ean Alegian zeuden ondasunen zerrendatzea egiteko bidalitako agindua.** (AUA).



Instrucciones que deberán tener en cuenta

1º - La bandera deberá ser española: bicolor-ondeará en el Ayuntamiento y edificios públicos, prohibiendose toda otra banderas cualquiera el matiz politico que represente.

2 - Procederá inmediatamente a colocar el crucifijo en las escuelas y edificios públicos.

3º - Así-mismo si en algun Ayuntamiento hubiese sido entronizado el Sagrado Corazón de Jesus y se hubiere destronizado volverá a presidir y ser colocado en la Sala Capitular con toda solemnidad.

4º - Acudirá el Ayuntamiento en Corporación a cuantas funciones religiosas se celebren en la localidad con ocasión del movimiento salvador pues se está llevando a cabo en toda España.

5 - Los Alcaldes deberan tomar la filiación a todas personas que con caracter voluntario se incorporen a este movimiento remitiendolo juntamente con una relación de todos ellos a esta Junta de Guerra.



Por acuerdo de la JUNTA DE GUERRA CARLISTA DE GUIPUZCOA, se le faculta para que en nombre de esta entidad haga nombramientos de Alcalde de este pueblo y constituya Ayuntamiento con las personas de confianza absoluta que Vd. designe.

Es sumamente urgente e interesante cumplan las instrucciones que al dorso se detallan, dando cuenta inmediatamente de cuantas gestiones gestiones que en este sentido realicen.

Dios guarde a V. muchos años.

Villafranca de Oria, 5 de Agosto de 1936.

El Presidente El Secretario

Sr. Dn. Eugenio Jaúregui

Alegria.

**1936ko abuztuaren 5ean Junta Carlista de Guerrak Alegiako udal-gobernua osatzeko bidalitako aginduak.** (AUA).

[102] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin: AUA: 510.Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

Egun horretan bertan, Aldir komandanteak, Aldaba hartzea lortu zuen. Bitartean, Gual kapitainak Gaintza eta Orendain hartzea zituen helburu nagusitzat, baina errepublikazaleen artileriak honakoa ekidin zuen:

“La Columna del Comandante Gual tuvo que detenerse en Gainza, donde fue continuamente hostilizada por numeroso enemigo que trataba de cortar comunicación con Villafranca, sin conseguirlo. Sufrió un intenso fuego de cañón del 15,5 teniendo en la operación un muerto, cuatro heridos y dos contusos”[103].

Hilaren 6rako, Gual kapitainaren soldaduei 250 falangista batu ostean, Gaintza beraien mendean hartzea lortu zuten.

Defentsa lerro guztia apurtu ostean, 1936ko abuztuaren 7ko goizeko 10:30etan, tropa frankistak Alegian sartu ziren[104].



El día 1º de Agosto a las 16 horas, fué iniciado nuevamente el avance ocupandose Villafranca, haciendo la entrada las fuerzas en este pueblo entre el clamoroso entusiasmo de los vecinos del mismo, quedando el Batallon de servicio de seguridad y reconocimiento así como la recogida de armas y municiones el día 4 al mando del Capitan Baeza, efectuo el Batallon servicios de reconocimiento sobre Zaldivia, Gainza, Abalcisqueta, recibiendo en Gainza nutrido fuego de cañon, regresando al punto de partida. En la madrugada del día 5 y en union de otras fuerzas mandadas por el Comandante Aldir, procedio a la ocupación de l Aldana, Oredaga, y dominar las alturas próximas a Alegría de Oria, donde pernocto y quedó en servicio de seguridad, hasta que al amanecer del día 7 continuó el avance formando columna con otras fuerzas, consiguiendo ocupar el citado pueblo de Alegría de Oria, cogiendo al enemigo abundante armamento y material, donde pernoctó y quedó prestando servicios de seguridad.

**Alegian, tropa frankisten sarrera.** (AGMAV).




**Euskal emakumea kolpistek etendako eta herriak demokratikoki hautatutako Bigarren Errepublikako gobernua babesteko deia egiten.**

[103] “Cayuela Teniente Koronelaren, Cayuela Zutabea deiturikoaren Operazioen Egunerokoa”, AGMAV, 2677 kaxa, 23B karpeta, 3.or.

[104] Cayuela Teniente Koronelaren, Cayuela Zutabea deiturikoaren Operazioen Egunerokoa”, AGMAV, 2677 kaxa, 23B karpeta, 3-4.orr.

## 3.2. BITARTEAN, ZENBAIT ALEGIAR BABESLEKU BILA: "GARDOKI 6" KALEKO TXALETA ETA "BATOR, BATOR" IKARA OIHUA

1936ko gerrak, Alegiako herritar guztiengan orban eta zauri irekiak utzi zituen. Txintxarritar familia guztiek gerraren ankerkeriak (atzeraguardian zein frontean) pairatu zituzten, eta batzuek gerraren ostean haiek ixteko aukera izan bazuten ere, beste batzuek ez zuten zorte bera izan.

Alegiara tropa frankistak sartzear zirela, sufritu ahal zuten errepresioaren beldurrez, alegiar askok eta askok alde egin beharra izan zuten txintxarrien herri kuttunetik.

### 3.2.1. Helmugarik gabeko "bidaia"

#### 3.2.1.1. "Bidaia"-ren hasiera

<u>SAGASTUME-LASA FAMILIA</u>

Sufrikario haien testigu izan ziren Sagastume-Lasa familiakoak. Errefuxiatu zein soldadu joanak izan ziren Sagastume-Lasatarren familian. Haietan lehenak aipatuko ditugunak, Antonia, Damasa eta Isidora Sagastume Lasa ahizpak izanen dira. Alegiara tropa frankistak iritsi baino zertxobait lehenago, handik alde egiteko beharrean ikusi ziren hiru ahizpak, bakoitzak bere soinean, haien seme-alabak hartuta. Ordurako haien anaia Jose Maria Sagastume Lasa ere, herritik alde eginda zegoen, Azaña-Gipuzkoa batailoiarekin borrokatuz lehendabizi eta haren ostean Facundo Perezagua batailoian borrokatu zuelarik. Bigarren Errepublikan eginiko zenbait ekintzengatik herriko eskuindar batek baino gehiagok begiko hartuta zuten.

Haien bitartean, aipatu bezala, Antonia Sagastume Lasak, helmuga jakinik gabeko bidaia hasi zuen bere ahizpa eta seme-alabekin: txikienak, Silvestrek, urtebete baino ez zuen, Jose Joaquinek lau urtetxo eta zaharrenak, Mari Carmenek, bost urtetxo baino ez. Isidora ere, haren alaba Angeles, Maria Teresa eta Jose Antonio berarekin harturik abiatu zen. Alegiako, Sagastume-Lasatarrek, herria atzean uzterako, hilabete luzez luzatuko zitzaien bidaiari hasiera eman zioten. Gaur egun, garai hartan 5-6 urte bitartean zituen Mari Carmen Balerdi Sagastumek ongi baino hobeto gogoratzen du hilabete luze haietan eginiko bidaia:

"(…) aurrenengo (…) nola jun giñen Bizkai aldea, Gernikan bonbardeoa harrapatu gendun eta ordun bonbardeoko garaien ama jun tzan attei ta gerran tzerela… attei ta osabai arropa zerbaite kanbiatzea. Gernikako basarri baten eon giñen gu (…) kamiñon ondon nola zeon eta hasi zan garaien bonbardeoa ordun (uste det tio Estebane han tzala) eta ordun denak (jende gehio re bai) atea giñen etxetiken ta sartu giñen alkantarillan (…) eta bonbardeoko denbora guztie guk han pasa gendun. (…) Pasa zan garaien atea giñen, berriz etxea jun giñen (etxei etzion ezer -eiñ-) (…) eta basarri zean… leiho ttxiki[105] batzuk denak han hola jarri (begiratzen zeinua) eta hue (Gernika) erretzen han eon giñen"[106].



Gernikako bonbardaketa.



GERNIKA

-1-

Milla ta bederatzieunetan
ogeita amazazpia
Euzkotarrentzat urte beltz illun
triste eta negargarriya
Autz biurturik utzi zutena
Gernika zoragarriya
Euzko reliki maitatuenak
gordetzen zituen erria.

-2-

Pitxirik gozo eta kutunena
zu ziñan euzkaldunentzat
lur mordul ona eman naizendun
arbola santuarentzat
Pentzatu utzez begiak ¡bai!
ditugu negarrarentzat
Orra zer sami modu zeukaten
etzai ankerrak zuretzat

-3-

Apirilleko illarekin zan
ogeita seigarrerean
Ain justu ere peri eguna
astelen arratzaldean
Kale-baserri millaka anai
gizatasun ederrean
Plaza inguruan arkitzen ziran
lengo oitura zarrean.

-4-

Kampantorreko eskillak asi
ziran dinbilin danbala
Goiko pixtien motor burrundara
entzun zan bereala
Emakume eta ume gaxoak
kurriska heriotela
eriotzari igezi nairik
nora jo etzekitela.

-5-

Bertzoz nork esan bonba txar ayen
indar gaiztoko danbarra
Etzuten beintzat osorik utzi
bizileku bat bakarra
Ta dana txetu zuten garayan
alde guztiki garra
Erru gabeko gixaxoentzat
orra or azken ederra

-6-

Bizi ziranak igesten zuten
ategi zatar artatik
Bañan egazkiñak tiro eta tiro
eten gabe goyetatik
Kristau gorputzak alde batetik
beso-buruak bestetik
Odol gorrizko itxaso artan
etzan ikusten besterik

-7-

Bunka izan ziren etxe jausien
zakarpetan gelditurak
Nork daki zenbat kale gorrian
zearo erdibituak
Inpernu ontan usteb gaituzte
laguntza gabe salduak
Aiziaz euzkaldunen miñ oñazerik
ez du sentiten munduak

-8-

Milletik gora igaro ziran
arnasa utzitakoak
Ezjakin zenbat bizi geldiko
eri gelditutakoak
eta oyetatik geyen-geyenak
andretxo eta umetxoak
Gerra itxar ortan erru galantik
izan ez zuten gaxoak

-9-

Puska dituzte gure erri polit
apain eta maitekorrak
Puska dituzte baserri txuri
gure kabi on xamurrak
Eta zirtzildurik kaletan utzi
Ooooo…. euzkaldunen azurrak
Alemanitik gu txikitzera
etorritako maltzurrak.-

-10-

Basati gaizto odolzaleak
atzerritatik ekartzen
tokirik zoragarrienari
Txikitu eta su ematen
Auta egindako gure Gernika
antzika nago esaten
Franco ta bere laguntzalleak
zein biotz ona daukaten.

**Gernikako bonbardaketaren inguruko bertsoak.** (Miren Ixiar Intxausti Arregik emana).

---

[105] Ahoskatzean, tt+tx batzean sortutako soinua egiten du.

[106] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia: 00:04:57-00:07:40. "Erbestea".

Gernika, frankistek, 3 aldiz bonbardatu bitartean, Durango, 14 aldiz bonbardatua izan zen 1936ko irailaren 25etik 1937ko apirilaren 29ra bitartean. Alegian, 1936ko abuztuaren 1ean, tropa frankistek abiazio-bonbak jaurtiki zituzten.



**Durangoko bonbardaketaren biktima.**

Mari Carmenek, agertu bezala, une oso horretan zehar bere ama Antonia kanpoan egon zela gogoratzen du eta bonbardaketaren ostean itzuli zela aita eta osabekin egon ostean. Antonia Sagastume Lasa, haren senarra zen Jose Balerdi Machiñena eta haren anaiak bisitatzera joana zen bonbardaketa hasi zenean. Balerdi-Machiñena anaiek, Eusko Gudarosteko Loiola batailoian jardun zuten borrokan, zeinak Gernikan zuen haren kuartela, Lino Lazkano komandantearen zuzendaritzan.



**Antonia Sagastume Lasa.** (Balerdi-Sagastumetarrek emandako argazkia).



ALBAÑIL

gn. taldea

gn. zenbakia

(Sello)

Izen abizenak José Balerdi Machinena

Eria Alegria

Urteak 31

Ezkondua

Gudaritzan noiztik 21/10/936

Gernika 1936 gn. 21/10/936

Talde burua

**Jose Balerdi Machiñenaren gudari-txartxela.**
(Balerdi-Sagastumetarrek emandako agiria).

Mari Carmenentzat, haiek, tentsio eta ikara uneak izan ziren, ama, zerutik “sua” erortzen ari zen bitartean, bonba haietako baten biktima izan zitekeela bai baitzekien. Barealdia ere iritsi zen ordea, eta orduantxe Antonia Sagastume Lasa, familia aterpe hartzen ari zen baserrian agertu zen, guztien lasaitasunerako. Laster, alegiar ahizpek, Gernikarako bidea hartu zuten[107], karroak eta astoak laguntzen zielarik “(…) nola zinetan ikusteituzun karrokin pasatzen familik? Hala pasa giñen Gernikan herritiken (…) trastek eta be (r)e karrokin; dena sutan … goatzen naiz zubi bat, han lantxa bat eta han (…) gizonen bat zeola hilda”[108]. Mari Carmenen begiak Condor Legio alemaniarraren hegazkinen bonba jaurtiketek egindako ankerkeria eta krudelkeriaren lekuko izan ziren.

Bideak ez zuen etenik, aurrera jarraitu beharra zuten, tropa frankistak geroz eta gertuago baitzituzten. Horrela, tropa frankisten atzaparretatik ihesi zebiltzan beste zenbait familien gisara, karroaren eta astoaren laguntzaz, Bakiora lehenik eta Galdakaora ostean, joan ziren. Egun haietako atsekabearen ostean, zineaz gozatzeko aukerarik izan zuten Bilbo ondoko herri bizkaitarrean. Denbora gutxiz ordea, berriro ere, bideari ekin beharra izan baitzioten, Bilbora iritsi arte.

Han, beste zenbait alegiar errefuxiaturekin batera, Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuentzako ezarri zituen etxeetako batean egon ziren, hain zuzen, Gardoki 6 kaleko txaletean “(…) txalet hartan, casa de muñecas ta… (algarak…). Txalet hortan Artanoneko Filomena ta… han eon giñan pixka baten”[109].





DEPARTAMENTO DE GOBERNACIÓN — ERI-ZAINTZA ZAINGOA

Nº 12 A.

D. Antonia Sagastume Lasa de 28 años de edad, estado casada natural de Alegria de Oria domiciliada últimamente en Bilbao Gardoki 6 embarcó en el puerto de Bilbao el día ........ con dirección a Francia como refugiada acompañada de sus hijos

Mª Carmen Balerdi Sagastume de 6 años
Jose Joaquin de 4 años
Silvestre de 2 años.

El Secretario general,

**Errefuxiatu nortasuna.** (Balerdi-Sagastumetarrek emandako agiria).

Mari Carmenek aditzera eman zigun gisan, Sagastume-Lasatarrak ez ziren bertan errefuxiatu ziren alegiar bakarrak izan. Han izan ziren, besteak beste, Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV), Jose Alegiako apaiza, Juanito Urdangarin “Gantxain zaharra”, “Elixalde”, Ricardo Otaño, Zacarias Aranguren, Inazio Mugica bai eta segidan aipatuko ditugun Gastesi-Iturrioztarrak ere.

GASTESI ZALDUNBERE ETA GASTESI ITURRIOZ FAMILIA

Gerrak gogor kolpatu zituen Gastesi Iturrioz eta Gastesi Zaldunbere familiak. Alegiar familia honetan ere errefuxiatuak zein gerran ibiliak izan ziren. Haietan esanguratsuak, Filomena Iturrioz Murua edo “izoa” amonaren (bere ilobek hala deitua) bizitzako ibilerak izan ziren.

Filomena Iturriozek, haren ilobak adopzioan hartu zituen beren gurasoak hiltzean, hain zuzen, Gastesi Zaldunberetarrak. Anselmo eta bere arreba Corona Lekunberriko osabarengana joan bitartean, Filomena Gastesi Zaldunbere (1913/02/18), bere “izoa” Filomena eta Miantonio osabarekin gelditu zen.

1936ko gerra iristean, “izoa” eta ilobaren bideak banandu egin ziren denboraldi batez. Iloba Filomenak bere senarra Angel Munduate zegoen fronterako bidea hartu bitartean, “izoa” Filomenak haren ahizparen alabekin, Filomena eta Maria Gastesi Iturriozekin ekin zion Alegiatik urruntzeko bideari.



**Filomena Iturrioz Murua, 1950ean.**
(Artanotarrek emandako argazkia).

[107] Damasa Sagastume Lasa, Gernikara iritsi zen, baina gero ez zen Frantzian erbesteratu.
[108] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia: 00:07:37-00:08:15. “Erbestea”.
[109] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia: 00:11:06-00:11:36. “Erbestea”.

## GASTESI ZALDUNBERETARRAK

1936ko gerra iristean, tropa frankisten atzaparretatik ihesi egin beharrean aurkitu zen Filomena Gastesi Zaldunbere. Haren alaba Koro Munduate Gastesik azaldu gisan, 1936ko abuztua baino lehen alde eginda zeuden Alegiatik bere gurasoak[110]. Aitak, Angel Munduate Urdampilletak, ELA/STV-ko San Andres Batailoian jardun zuen gerran. Amak aitaren gerrako bidea jarraitu zuen.

Amak, Alegiatik, Elgoibarrerako bidea hartu zuen eta han, Etxebarriako Errotako jabea zen Joxepa ezagutu zuen. Hark bere baserrian hartu zuen. Max Kalamuako frontea hain arriskutsua izanik, Filomena kezkatuta zegoen Angel bertan hil zitekeelako. Horregatik, Maria Josefa Ganuza Lardizabalekin[111] hitz egin zuen, senarra babesean jartzeko asmotan. Haren bitartean, Filomena Gastesi Zaldunbereri bere seme Luis Munduate Gastesi hil egin zitzaion, 1937ko urtarrilaren 14an eta gauez, balen artetik ihesi, hilobiratu zuten umetxoa.

Filomena Gastesik Maria Josefa Ganuzarekin mantendutako elkarrizketak, bere fruitua eman zuen: Angel Munduate Urdampilleta, Bilbon mikelete eta miñoiak batuz 1936ko urrian sortu berria zen ertzaintzako kide egitea lortu baitzuen.

Horren eraginez, Angel Munduate, ertzain gisan, Ángeles Custodios-eko konbentua zaintzen egon zen, zeinetan preso frankistak zeuden. Hain zuzen, Munduate, 1937ko urtarrilaren 4an alemanek frankisten baimenaz Bilbo bonbardatu eta kausitutako hildako bilbotarren mendeku gisan 224 preso frankista hil ostean ezarri zuten bertako zaindari gisan. Filomena ere Bilbora gerturatu zen eta bertan bat egin zuen Gardoki 6 kaleko txaletean, gainontzeko alegiarrekin batera.

Bitartean, Anselmo Gastesi Zaldunbere, Filomena Gastesi Zaldunbereren anaia, gerran zehar desagertu egin zen. Mikel Artano Gastesik azaldu digunez, Tolosan komunisten desfilea egiten ari zirela bertan omen zen eta hura probestuz, beraiekin joan omen zen. Jexus Manuel Arregui Artanok bere liburuan azaltzen digunez, seguruenik, gerran zehar, fusilatu egin zuten.



**Ángeles Custodios-eko kartzela.**



**Filomena Gastesi Zaldunbere 1928an Josetxorekin.** (Artanotarrek emandako argazkia).



**Anselmo Gastesi Zaldunbere 1932an.** (Artanotarrek emandako argazkia).

[110] Testigantza: Koro Munduate Gastesi. "Ahaztuen Oroimena 1936: Markinaldeko Frentea" https://ahaztuenoroimena.com/tag/gastesi/

[111] Maria Josefa Ganuza Lardizabal: euskararen aldeko mugimenduan parte hartu eta Telesforo Monzonen emaztea izan zena.

**GASTESI ITURRIOZTARRAK**

Gastesi Iturrioztarrek Alegiatik alde egiteko, Gastesi Zaldunberetarren bestelako bidea hartu zuten. “Izoa” Filomena Iturrioz Muruak, bere iloba Filomena Gastesi Iturriozekin ekin zion tropa frankisten atzaparretatik urruntzeko bideari. Iturriozek, Bide berri kaleko, Etxe Berri etxean[112], denda izan zuen eta bere iloba Filomena Gastesi Iturriozek laguntzen zion zenbaitetan inguruko herrietan, esaterako, erroskilak saltzen[113]. Filomena Iturrioz Murua ideia nazionalisten defendatzaile eta haren iloba, Filomena Gastesi Iturrioz, Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidenteak, ez zuten beste biderik izan tropa frankistak sartu baino lehen Alegia uztea baino.

“Izoa”, Filomena Gastesi Iturrioz eta haren seme Imanol eta Bingenek Bilborako bidea hartu zuten. Bitartean, Maria Gastesi Iturrioz eta haren seme Josetxok, Donostiara zihoan alegiarrez betetako kamioi bat hartu zuten:

“La salida de casa fue muy angustiosa, todo era correr, subir y bajar precipitadamente las escaleras. La familia se dividió en tres grupos. En el primero la amona-izoa de 66 años con Imanol de 17, más la amona, de 43 años, con Bingen, entonces un niño de 5 años, huyeron a Bilbo. (…) Formaba parte del segundo grupo la tía María de 50 años y su hijo el tío Josetxo con 10 años. Hacía las tres de la tarde de un día de finales de julio se montaron como pudieron en un camión lleno de alegitarras que los trasladó a Donostia. Desde la capital y en el tren de la costa, llegaron hasta Bilbo. Empezaba el exilio”[114].

Bien bitartean, Miren eta Mikel anai-arrebak bere aita Jose Artano Altunarekin geratu ziren Amezketako izeba Anttoniren etxean. Jose Artano Altuna, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen, eta 1934an Alegiako EAJ/PNV-ko Batzordeko presidentea, bai eta Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat ere, Antonio Arrizabalaga Aguirre (Bigarren Errepublikako EAJ/PNV-ko Alegiako alkate), Pio Montoya Arizmendi (apaiz abertzalea eta Gerra Zibilaren eraginez, Frantzian errefuxiatua) eta Gregorio Oquiñena Errorekin (EAJ/PNV-ko afiliatua eta albaitaria) batera.

Hasiera batean, Artanok, bere burua ez zuen arriskuan ikusi eta mendian ezkutaturik pasatu zituen gerrako lehendabiziko egunak. Laster ordea, Filomena bere emazteak, Bilbotik Amezketarako bidea egin zuen, tropa frankistak Tolosaldearen ateetan zeudela abisatu eta handik alde egin behar zutela abisatzeko. Horren aurrean, Mikel, Miren, Jose eta Filomenak Andoainerako bidea hartu zuten eta bertan, Joseren anaia zen Gregorioren etxean errefuxiatu ziren astebetez. Handik, abuztuaren 11ko goizean irten eta iluntze aldera, Bilbora iritsi ziren. Han, lehendabizi Llona ostatuan egon ziren eta tolosar batzuen etxean ere bai. Horren ostean, Gregorio Oquiñena Alegiako albaitariak gonbidatuta[115], alegiar guztiekin bat egingo zuten Gardoki 6 kaleko txaletean hartu zuten ostatu.

<u>Bilboko bizimodua</u>

Bilbora iristean, haien mantenurako lan egin beharrean aurkitu ziren Gastesi Iturrioztarrak. Miren Artano Gastesik, euskaldun ofizialentzako uniformeetarako intsigniak bordatzen lan egin zuen. Neba zaharrena, Imanol, euskal moneta berriarekin zerikusia zuen inprenta batean hasi zen lanean. Haren lehengusina Josetxok, Mirenen 5 urteko neba (Bingen) zaintzeko ardura hartu zuen eta bitartean, Mikelek, frontetik etortzen ziren gudarientzako trajeak banatzen egin zuen lan “Gu ibiltzen giñen Bilbaon eon giñenen ‘en el Centro Vasco’ ta (…) ni trajek partitzen, aitte elizen pistola handi batekin ez erretzeko elize (…) Hiru laun Alegrikok hiru relebotan eote zien elizeko aten (…) ez eliza erretzeko (…) bat Clemente ta bestea Ganzarain”[116]. Hasiera batean, janaria soberan izan bazuten ere, azken egunetan alegiarren elikagai iturri bakarra arroza eta garbantzuak izan ziren. Goseari zein frankisten bonbardaketei urtebete luze batez aurre egin behar izan zieten “También (Mikel) se volvió un experto en recorrer la ciudad y apuntarse a cuantas colas pudiera para obtener algún alimento. Cuando la cola se rompía por un bombardeo, a su término la recomposición de la cola originaba fuertes disputas, pues sobre todo las mujeres, luchaban para obtener algún alimento para su progenie”[117].


DIARIO DE NAVARRA
FRANQUEO CONCERTADO — PERIÓDICO INDEPENDIENTE — No se devuelven los originales
Año XXXIV.—Número 10.690 — Pamplona sábado 26 de Septiembre de 1936 — Zapatería, 49.—Apartado N.º 5
Camino de la victoria
Nuestra aviación bombardea con gran intensidad, mañana y tarde, la plaza de Bilbao, terminado el plazo señalado para su rendición
Se consiguen importantes éxitos locales en los frentes de Guipúzcoa, Asturias, Aragón, Soria y Avila

**Bilboko bonbardaketak Diario de Navarran, 1936ko irailaren 26an argitaratuta.**

112 ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.* 40.or.

113 *Ib.*, 51-52.orr.

114 *Ib.*, 65-66.orr.: testuak ez du aldaketarik jasan.

115 Dirudienez, etxe hura, Bilboko abokatu batena zen eta gerraren eraginez, Bilbo utzi beharrean ikusi zen. Horregatik, hura (etxea) babespean mantendu zedin, Bilbora tropa frankistak sartu baino lehen, bertan zenbait alegiar errefuxiatu gisan egon ziren.

116 Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:00:26-00:01:42. “Bilboko bizimodua”.

117 ARREGUI, J., op. cit., 70.or.



**Izoa Filomena Iturrioz Murua, Filomena Gastesi Iturrioz eta Maria Gastesi Iturrioz 1952an.** (Artanotarrek emandako argazkia).



**Filomena Gastesi Iturrioz, Jose Artano Altuna, Maria Gastesi Iturrioz, Anselmo Gastesi Zaldunbere, Mikel, Imanol eta Miren Artano Gastesi eta, Jose Gastesi 1927an.** (Artanotarrek emandako argazkia).

### 3.2.1.2. "Gardoki 6" kaleko txaleta

Gardoki 6 kalea aipatzean, zenbait alegiarri oroimen gazi-gozoak datorzkio burura oraindik ere. Izan ere, sorlekutik urrun kokatzen zen alegiarren arteko giro goxoa eta aldi berean, Bilbora iristen ari ziren tropa frankisten mehatxuen aurreko gotorlekua izan zen "(…) Jendea enteratu zanen Bilbon Alegrikok zerenela etxe hortan, bueno… ya etxe hura izan tzan… Alegriko ayuntamentue (e)re han jarri zuen"[118]. Gosearen, negarraren… lekuko izan eta bonben jaurtiketak "bator, bator"[119] arerioz jasotzen bazituzten ere, horrek, nolabait bertan bizi izan ziren alegiarren arteko batasuna ere gauzatu zen. Aldian aldiko, frontean borrokan zebiltzan gudari alegiarrek, bertan hartzen zuten ostatu. Testuinguru horretan, hain zuzen, Alegiako udal-gobernu errepublikarra osatu eta 1936ko azaroaren 17an, bertako kideek osatu berria zen Eusko Jaurlaritza zoriondu zuten:

"Habiendose (sic) constituido en Bilbao el Ayuntamiento de Alegria de Oria (sic) e instalado sus oficinas en la calle Gardoki Nº 6 Chalet y reunido en sesión el dia (sic) de hoy, ha tomado en acuerdo de felicitar al Gobierno Basko (sic) y su dignísimo Presidente y al mismo tiempo enviarle su respetuoso saludo e incondicional adhesión y manifestarle nuestra firme esperanza de que es el bien de la República y de Euzkadi.

Urte Azkotan Jaungoikuak euki dezala Lendakari opa diogu (sic).

BILBAO a 17 de Noviembre de 1.936.

El Alcalde Acctal.

Firma: Antonio Arrizabalaga

EXCMO. SEÑOR PRESIDENTE DEL GOBIERNO PROVISIONAL DE EUZKADI

BILBAO"[120]




Habiendose constituido en Bilbao el Ayuntamiento de Alegria de Oria e instalado sus oficinas en la calle Gardoki Nº 6 Chalet y reunido en sesión el dia de hoy, ha tomado en acuerdo de felicitar al Gobierno Basko y su dignísimo Presidente y al mismo tiempo enviarle su respetuoso saludo e incondicional adhesión y manifestarle nuestra firme esperanza de que es el bien de la República y de Euzkadi.

Urte Azkotan Jaungoikuak euki dezala Lendakari opa diogu.

BILBAO a 17 de Noviembre de 1.936.

El Alcalde Acctal.

EXCMO. SEÑOR PRESIDENTE DEL GOBIERNO PROVISIONAL DE EUZKADI

B I L B A O

**Alegiako Udala Gardoki 6an, Bilbon.**
**(Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia).**

Antonio Arrizabalaga Aguirre EAJ/PNV-ko kidea eta Bigarren Errepublikan zehar Alegiako alkatea izandakoa bihurtu zen berriro ere Gardoki 6 kaleko txaletean eratutako Alegiako udaleko alkate. Antonio Oyarzabal Murguiondo geroago apaiza izan zenak, idazkari lanak beteko zituen udal eratu berrian.

[118] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:01:22-00:01:37. "Erbestea".

[119] ARREGUI, J., op. cit., 71.or.

[120] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

### 3.2.1.3. Bilbotik Santanderrera eta handik Frantziara

1937ko ekainean, Bilbo tropa frankistek hartu baino lehen eta egun luzeetako bonbardaketak jasan ondoren, Gastesi Iturrioztarrek zein Sagastume-Lasatarrek Santandarrerako bidea hartu zuten.

Sagastume-Lasatarrei dagokionez, Santanderrera iritsi eta laster, itsasontzian sartu ziren Frantziarako bidean. Lurrean bezalaxe, ur handietan ere tentsio-uneak bizi beharra izan zuten "Itsason goazela bagijoazen ta klaro… jendea ohien… buillek ia jendea hasi zan Cervera…"[121], eta orduan guztiak itsasontziaren beheko aldera jaitsi ziren babestu ahal izateko, izugarrizko izu eta iskanbilaren artean. Cervera almirantearen itsasontziaz dihardu Mari Carmenek, zeina 1936ko uztailaren 21ean tropa frankistek bereganatu eta Kantauri itsasaldeko portu errepublikarrak bonbardatzeko erabili zuten. Isidora eta Antonia ahizpak, haien umeekin, Frantziara iritsi eta erbestean zenbait hilabete pasa ondoren, Alegiara heldu ziren trenez. Handik aurrera, herriko irabazleek eragindako errepresioa beraien azaletan jasan beharra izan zuten.

Gastesi-Iturrioz, Munduate-Gastesi eta Artano-Gastesitarrek ere, ekainaren 13an Bilbotik alde egin zuten, Santanderrerako bidea hartuz. Jose Artano Altuna eta haren semea, Imanol Artano Gastesi ordea, Bilbon geratu ziren. Azkenak, hurrengo hilabeteetan fronteko ibilerak bizi izango zituen. Imanol Artano Gastesiri, erreketeek, kartzelaren edo frontera joatearen artean aukeratu behar zuela adierazi zioten. Horren eraginez, frontean borrokan Nuestra Señora de Begoña Tertzioarekin jardun behar izan zuen. Hala, gerra-urteak, Asturias, Castelló zein Terueleko frontean igaro zituen. Bitartean, Jose Artanok, Bilboko Santiago elizan, sakristau lanetan jarraitu ahal izan zuen.



**Imanol Artano Gastesi soldadu jantzita 1939an.** (Artanotarrek emandako argazkia).

[121] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia: 00:14:17-00:14:55. "Erbestea".



**Imanol Artano Gastesi frontean 1939an.** (Artanotarrek emandako argazkia).

Filomena Gastesi Zaldunberek, bere erbesteko denboraldia Nimes-en pasatu zuen.

Santurtzin, Maria Gastesi Iturrioz eta haren seme Josetxok, Habana itsasontzian Frantziarako bidea hartu eta Donibane Garazin pasa zuten erbesteko denboraldia:

"Poco pude saber de los alegitarras a partir de los primeros días de junio, pues yo huí a Francia con mi madre en el último barco de refugiados, el Habana, que salió del puerto de Santurce, cargado de niños"[122].

"Izoa" Filomena, Filomena Gastesi eta haren seme-alabek, berriz, Santanderrera joan eta zenbait egun esperoan egon ostean, Frantziara (Clères) eramango zituen Sarastone[123] itsasontzian sartzea lortu zuten:

"Han eskapada ikearrie ein gendun, zeatiken jendea barkun sartu zan, da hainbeste jende, da barkue beteta, handie zan Sarastone… Halako handie zan da ni amakin pasatzen nijoala barkoa 'Tú fuera, tú pa´l frente ya vales todavía'. Da ni kanpoa, etziaten barkun sartzen uzten, orduako "izoa"-amona ta sartuta zeren barkun, ta gu geatu giñen bi parte einda: ama ta ni alderdi batetiken ta beste anai gaztea ta ia barrun sartuta. (…) Gau arte itxoin gendun a ver sartze giñen barkun ta nei, (eztakit nundiken guaizek ateako zitun -ama Filomenak-) galtza luzekin nebillen ni orduako, ta moztu zizkiañ galtzak (…). Ordun sartzen utzi ein tziun barkoa"[124].

Gastesi-Iturrioztarrek ere Cervera itsasontziaren mehatxua beren aurrean izan zuten: "En eso, apareció el Almirante Cervera y les apuntó con los cañones. Mi ama en cubierta le dijo a su hermano Mikel, 'oraintxe joango gaituk beste mundura"[125].

1937ko urtearen amaieran eta 1939ko urtearen hasieran, Gastesi-Iturrioz guztiak (batzuk Clères-etik zein Nimes-etik eta besteak, Donibane Garazitik) Alegiara itzuli ziren eta txintxarrien herrian, hauek ere, diktadura frankistaren errepresioa beraien azaletan bizi izan zuten.

Helmuga jakinik gabeko "bidaia" luze haren joan-etorriak ongi baino hobeto irudikatu zituen Jose Urdangarin Loiola batailoiko gudari eta alegiar bertsolariak[126]:

---

[122] GASTESI, J. 2007. *Alegiari buruz kontu-kontari 1900-1950.*

[123] Errefuxiatuak ebakuatzeaz arduratu zen itsasontzietako bat izan zen.

[124] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:02:36-00:04:06. "Bilbo, Santander, Frantzia".

[125] ARREGUI, J., op.cit., 80.or.

[126] *Ib.*, 81-82.orr.

*Artano'tar Joxe joan zan*
*bere zendi guztiakin,*
*Bilbon egon zen eliza zaintzen*
*Patxiko Ganzaraiñekin*
*gero etxe bat eman zioten*
*Gardoki kale egokin*
*Alegitarrak an egon ziren*
*oso ondo elkarrekin*
*guztiontzako ostatua zan*
*borondate onarekin*
*Argi ta garbi ikusi ziran*
*pamil orren almenak*
*ederki asko esaten dute*
*etxe artantze zeudenak.*

*Razionamendu kaxkarra eta*
*jale bikainak geienak*
*jana jarri nai, zer jarririk ez*
*emakume aien penak*
*zer naigabeak pasa zituan*
*etxekoandre Pilomenak*
*Azken aldean iru menditan*
*ibili ginaden bero*
*Bizkargi aurren eta Sollube*
*Artxandan genduan gero.*
*Bota ziguten makiñatxobat*
*bonba, bala eta mortero,*
*era orretan aurkitutzerik*
*ez gendun espero.*

*Norteko gerra an bukatu zan*
*egia esatezkero*
*Ikus gendun etzala errez*
*guk egitea aurrera*
*ta erritarrak jon nai genduan*
*guztiok Prantzi aldera.*
*An, Santoña'ko kala artantxe*
*egin genduan sarrera*
*"Cervera" antxe zai jarria zan*
*gu botatzeko urpera,*
*itxas-ontzian gelditu giñan*
*arrai prexkoen antzera.*

Egilea: Urdangarin'dar Joxe
(Gure familiarekin egun gogor haiek
bizitu zituen gudaria eta bertsolari alegitarra)"

### 3.2.1.4. Bilbotik SESB-era (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna), errefuxiatu gisan

Frankistek, Bilbo behin eta berriro bonbardatzeari ekin zioten. Horrek suposatzen zuen arriskuaren aurrean, elikagaiak lortzeko arazoen aurrean eta Gernikan frankista eta alemanek eginiko sarraskiaren ostean, Eusko Jaurlaritzako Laguntza Sailak urtarriletik martxan zuen 5 eta 14 urte bitarteko umeen ebakuatzeko planak azkartu egin zituen.

Guraso askok eta askok, egoera arriskutsutzat joz, beren seme-alabak ebakuatzeko erabakia hartu zuten. Gurasoek, haien seme-alabak, atzerrian, denbora laburrez egongo zirela uste zuten. Aurreko lerroetan aipatu dugun gisan, batzuek, Frantziarako bidea hartu zuten, baina egon zen, Ingalaterra, Belgika eta SESB-era (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) egin zuenik ere, besteak beste. Han bertako familiek hartu eta zenbait kasutan, errefuxiatuentzako prestatutako kontzentrazio-eremuetan egon behar izan zuten.



**Ume errefuxiatuak Ingalaterran.** (Diario Montañés).

Batzuetan gurasoek bere seme-alaben norakoa erabaki bazuten ere, beste batzuetan ausaz tokatutako tokietara eraman zituzten.

Itsasontzietan sartu baino lehen, ume haiek mediku azterketa gainditu beharra izaten zuten. Behin helmugara iritsi ostean, txertatuak izaten ziren.

Hori izan zen Margarita Díaz Vicente neskato alegiarraren kasua. Bere aita zen Alejo Díaz Herrerosek, umeak ebakuatzeko zerrendetan ezarri zuen. Margarita Díaz Vicentek, 11 urte baino ez zituen SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)-erako itsasontzian bidaia hasteko hautatua izan zenean.

Habana itsasontzia, ume errefuxiatu gehienak beraien helmugara eramateaz arduratu zena izan zen. Lehen espedizioa 1937ko maiatzaren 6an burutu zuen, La Palliceko portura (Arroxela, Frantzia). Baina, Margarita Díaz Vicente alegiarra, 1937ko ekainaren 13an irtengo zen Santurtzitik, Habana itsasontzian. Azterketa medikua gainditu ondoren, lehen helmuga, beste 4500 inguru umerekin batera, Paulhacera (Okzitania) izango zen. Haietatik 2900 Frantzian geratu ziren bitartean, Margaritak, beste 1600 umek hartu zuten Sontay baporea hartu zuen. Haren helmuga, Leningrado izan zen (garai hartako SESB)[127].



**Habana itsasontzia Southampton-en, 1937ko maiatzean, Bilbotik ateratako ume eta helduekin.** (Diario Montañés).



PAIS VASCO
DEPARTAMENTO DE
ASISTENCIA SOCIAL

EUZKADI
GIZARTE-LAGUNTZA
JAINGOA

88

D
248

Expedición a U. R. S. S.
Apellidos Díaz Vicente
Nombre Margarita
Edad 11 años, fecha del nacimiento 4 Enero de 1926
Naturaleza Alegría de Oria (Guipúzcoa)
Nombre y domicilio de los padres o tutores Alejo Díaz Herreros
María Díaz de Haro, 40, 3º doha.
Lugar de residencia BILBAO.
Familia que se hace cargo del niño

**Margarita Díaz Vicenteren errefuxiatu-nortasuna.**



**SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)-era joandako umeak.**

[127] Errefuxiatu-nortasunarekin eta aurkitutako gainontzeko dokumentu historikoekin, Margarita Díaz Vicentek, honako bidaia egin zuela suposatu dugu.

### 3.2.2. Errefuxiatuentzako kontzentrazio-eremuak

Zibilak ez ziren Gerra Zibileko errefuxiatu bakarrak izan. 1939ko urtarrilaren 27an, Bartzelonaren aurkako ofentsiba amaitu ostean, zenbait zibilekin batera, gerran jardun zuten zenbait errepublikazalek, Frantziarako muga zeharkatzeari ekin zioten.

Gerrak iraun zuen azken hilabeteetan, 500.000 pertsona inguruk zeharkatu zuten Frantziako muga. Behin hara iritsita, estatuaren hegoaldeko kontzentrazio-eremuetan ezarri zituzten guztiak: Argelès-sur-Mer, Saint Cyprien, Le Vernet d'Ariège, Barcarès eta Septfonds-en.



**Errefuxiatuak Collilouren (Frantzia), 1939ko otsailean.** (Diario Montañés).




**Frantziako kontzentrazio-eremuen mapa.** (Euskal Memoria Fundazioa).



**Errefuxiatuak Frantziako kontzentrazio-eremu batean.**

Hasiera batean, eremu frankistan baino hobeto egongo zirela uste izan bazuten ere, egoera ez zen askoz hobea izan. Kontzentrazio-eremu izena eman ez bazioten ere, bertako barne-baldintzek beste gauza bat zioten. Oro har, hondar eta alanbre-hesiz jositako eremuak izan ziren eta, egoerarik onenean, egurrezko barrakoi eraikiak izaten zituzten. Horren eraginez, haietako zenbaitek, jada frankista zen estatu espainiarrera itzultzea erabaki zuten. Laster damutuko ziren hartutako erabakiaz, asko eta asko, epaiketa azkarra egin ostean, fusilatu egin baitzituzten.

Iritsi eta berehala, gobernu frantsesak errefuxiatuen klasifikazioa gauzatu zuen. Bram-era (Aude) adineko jendea bidali zuten, Agde (Hérault) eta Riversaltes (Ekialdeko Pirinioak) katalanei atxiki zitzaizkien; Sepfonds (Tarn-et-Garonne) eta Le Vernet (Ariège) langileentzat. Geroago, Argelès-sur-Mer, Saint-Cyprien (bien artean, 180.000 errefuxiatu izan zituzten), Prat-de-Molló, Gurs (23.000 errepublikazale eta 7.000 brigadista), Noé eta Barcarès (150.000 errefuxiaturekin) batu zitzaizkien. Gurs eta Le Vernet-eko kontzentrazio-eremuak, Frantziako garrantzitsuenak izan ziren, zeintzuk 1944ra arte funtzionatu zuten. Bertan, Bigarren Mundu Gerran zehar, zenbait errepublikazale, judu, errumaniar, ijito zein naziek gorrotatzen zituzten beste zenbait pertsona errepresaliatu ziren.

Euskaldunetako asko, Argelès-sur-Mer kontzentrazio-eremuan egon ziren, zeintzuk "Gernika-Berri" eremuan bildu ziren.



**Gerra Zibileko errefuxiatuak bizi behar zuten barrakoien eraikitzea, Frantzian.**

Bertan egon zenetako bat, jaiotzez legorretarra zen baina gerra hastean Alegian bizi zen Joaquin Ruiz Ruiz izan zen. Joaquin Ruiz, gerra hasi baino lehen Arcaute y Compañia-ko papertegian lan egindakoa zen. Gerran zehar, Eusko Gudarostean borrokatu zuen. 1939ko otsailean iritsi zen bertara Kataluniako frontetik eta, uztailerako, martxoan eraiki zuten Gurs-eko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten.

Saint-Cyprien-eko kontzentrazio-eremuan egon zen alegiarrik ere badugu. Severiano Urdangarin Esquizabal izan zen haietariko bat. Gerra hasi bezain pronto, frontera abiatu zen. Langilea profesioz, Saint-Cyprien-eko kontzentrazio-eremutik Gurs-ekora lekualdatu zuten.



RUIZ RUIZ Joaquin.- .- Legorreta.- Nº 5445

Profesión:
En Cataluña: Soldado del Bón. Alpino.

Argeles.-"Gernika-Berri"
12/2/39.

CAMPO DE GURS.-Islote C.- Trasladado al Islote A. el 9/7/39.

**Joaquin Ruiz Ruiz Frantziako kontzentrazio-eremuetan.** (Euskadiko Artxibo Historikoa).



URDANGARIN EZQUIZABAL, Severiano - 40 años - Alegria de Oria Nº 3641

Salio a la guerra desde el primer dia

Saint Cyprien

**Severiano Urdangarin Esquizabal Frantziako kontzentrazio-eremuetan.**
(Euskadiko Artxibo Historikoa).



**Errefuxiatuak Argelès-sur-Mer-en.**

Gurs-eko kontzentrazio-eremua, euskaldun gehienak hartu zituena izan zen. Gerra amaitzeko bi aste falta zirela, 1939ko martxoaren 15ean, berau eraikitzeko agindua eman zuten. 42 egunetan eraiki zuten eta, barrakoiak, kontzentrazio-eremuko tokirik esanguratsuenak bihurtu ziren. Azken hauek, egurrez eginak, 24 metroko luzera, 6 metroko zabalera eta 2,5 metroko altuera zuten.



**Gurs-eko kontzentrazio-eremua (Frantzia).**




**Gurs-eko barrakoien planoa.** (Euskal Memoria Fundazioa).




**Gurs-eko barrakoien planoa.** (Euskal Memoria Fundazioa).

Apirileko lehen egunetan, 4.178 preso euskaldun, Gurs-etik gertuen zegoen Olorón-Saint Marie deituriko tren estaziora lekualdatu zituzten. Bertan, Argelès-sur-Mer, Barcarès eta Saint-Cyprien-etik zetozen errefuxiatu euskaldunak zeuden. Behin herriko agintariek harrera egin ostean, ejertzito errepublikarraren 15 kamioietan Gurs-eko kontzentrazio-eremura eraman zituzten.

Gurs-en, "Gernika Berri", Argelès-sur-Mer, Saint-Cyprien eta Barcarès-etik zetozen 15.000 errefuxiatu inguru sartu zituzten. Ikerlari batzuek bertan 18.500 errefuxiatu egon zirela berretsi dute.

Alegiako errefuxiatu errepublikazale batzuk ere bertan egon ziren: Joaquin Ruiz Ruiz, Miguel Aramburu Lasa, Nicolas Martínez de Butron Ugarte eta Severiano Urdangarin Esquizabal.

13 errepublikazale hil ziren kontzentrazio-eremuaren lehen etapan zehar.


ARAMBURU LASA Miguel.- Nº 9963

CAMPO DE GURS.-Islote .- Trasladado al Hospital de "La Roseraie" el 3 noviembre 1.939.

Miguel Aramburu Lasa Frantziako kontzentrazio-eremuetan. (Euskadiko Artxibo Historikoa).


MARTINEZ DE BUTRON UGARTE Nicolás.- 25 años.- Alegria.- Nº 8329

En Euzkadi:
En Cataluña:
Profesión: Pastor.

CAMPO DE GURS.- Islote C.19.- Sale a trabajar como PASTOR el 4/6/39 a Nerbey par Brie et Angones (Isere).
Devuelto al Campo el 7/6/39.
Sale a trabajar como AGRICULTOR el 18/6

Nicolas Martinez de Butron Ugarte Frantziako kontzentrazio-eremuetan. (Euskadiko Artxibo Historikoa).


URDANGARIN ESKIZABAL Severiano.- 40 años.- Alegria de Oria.- Nº 3641

En Euzkadi:
En Cataluña:
Profesión: Jornalero.

S. Cyprien.- Campo nº 12.
CAMPO DE GURS.-Islote B.-Bª 16.-Gº 4º.

Severiano Urdangarin Esquizabal Frantziako kontzentrazio-eremuetan. (Euskadiko Artxibo Historikoa).

## 3.2.3. Alegiako errefuxiatuen zerrenda

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| AGUIRRE APAOLAZA, MARCELINA | Urrestilla, Izurtza (Durango ondoan) | - |
| AMONARRIZ URANGA, ANDRES | Ziburu | Alegiako Batzokiko Idazkaria // EAJ/PNV-ko propagandista eta mitinen egile // Autoritate frankistek, 3000 pezetako isuna ezarri eta kargu publikoetatik ezgaitu 10 urterako |
| ARAMBURU LASA, MIGUEL | Gurs (Frantzia) | - |
| ARRAYET EINDEIZA, VALENTIN | Nay (Basses Pyreneés) | EAJ/PNV-ko afiliatua |
| ARTANO GASTESI, BINGEN | Clères (Frantzia) | Filomena Gastesi Iturrioz eta Jose Artano Altunaren semea |
| ARTANO GASTESI, MIKEL | Clères (Frantzia) | Filomena Gastesi Iturrioz eta Jose Artano Altunaren semea |
| ARTANO GASTESI, MIREN | Clères (Frantzia) | Filomena Gastesi Iturrioz eta Jose Artano Altunaren alaba |

| IZEN-ABIZENAK | HELMUGA | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **BALERDI SAGASTUME, JOSE JOAQUIN** | Frantzia | Antonia Sagastume Lasa eta Jose Balerdi Machiñenaren semea |
| **BALERDI SAGASTUME, MARI CARMEN** | Frantzia | Antonia Sagastume Lasa eta Jose Balerdi Machiñenaren alaba |
| **BALERDI SAGASTUME, SILVESTRE** | Frantzia | Antonia Sagastume Lasa eta Jose Balerdi Machiñenaren semea |
| **DÍAZ VICENTE, MARGARITA** | SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) | 11 urte zituen SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)-era bidaltzean |
| **ERCILLA ECHEVERRIA, JUAN** | Frantzia eta Huesca | Apaiza // Loiola Batailoia // Osasun Militarra // Olivenza (Badajoz) desherriratua |
| **GARAYALDE URRETAVIZCAYA, JOSE A.** | Frantzia | Afiliatuta ez egon arren, ideia nazionalistaduna // Autoritate frankistek, 500 pezetako isuna ezarri |
| **GASTESI, JOSE** | Donibane Garazi (Nafarroa-Beherea) | Maria Gastesi Iturriozen semea |
| **GASTESI ITURRIOZ, FILOMENA** | Clères (Frantzia) | Alegiako Emakumeen Abertzale Batzako presidentea |
| **GASTESI ITURRIOZ, MARIA** | Donibane Garazi (Nafarroa-Beherea) | Autoritate frankistek, 750 pezetako isuna ezarri |
| **GASTESI ZALDUNBERE, FILOMENA** | Nimes (Okzitania) (1937/06/13-1939) | - |
| **GOICOECHEA LASA, TEODORO** | Kanbo "Urraldia" (1947/08/29) | EAJ/PNV-ko afiliatua // Loiola Batailoian gudari // Kartzelan eta kontzentrazio esparruetan egona |
| **GOROSTARZU SARASOLA, LUCIA** | Santander (1936/10/21) | UGT sindikatuko itzultzailea |
| **GOROSTIDI ALTUNA, SEBASTIAN** | - | Erlijiosoa, Oreuzabala jaunak gomendatuta |
| **IRAOLA MENDIA, ANTONIO** | Bilbo, Santander | Telesfora Mendia Garayalde eta Clemente Iraola Iparraguirreren semea |
| **IRAOLA MENDIA, CONSUELO** | Bilbo, Santander | Telesfora Mendia Garayalde eta Clemente Iraola Iparraguirreren alaba |
| **IRAOLA MENDIA, JUANA** | Bilbo, Santander | Telesfora Mendia Garayalde eta Clemente Iraola Iparraguirreren alaba |
| **IRAOLA MENDIA, TOMAS** | Bilbo, Santander | Telesfora Mendia Garayalde eta Clemente Iraola Iparraguirreren semea |
| **LASQUIBAR LARRETA, JULIA** | Ziburu (Lapurdi) | - |
| **MARTINEZ DE BUTRON UGARTE NICOLAS** | Gurs (Frantzia) | Artzaina |
| **MENDIA GARAYALDE, TELESFORA** | Bilbo, Santander | - |
| **MONTOYA ARIZMENDI, MARIA ANGELES** | Frantzia | Katekista // Ondasunak desjabetutakoa |
| **MONTOYA ARIZMENDI, PIO** | Kanbo | Errepresio frankistaren aurka egin zuen apaiza // Ondasunak desjabetutakoa |
| **MUNDUATE SAGASTUME, ANGELES** | Frantzia | Isidora Sagastume Lasa eta Antonio Munduate Urdampilletaren alaba |
| **MUNDUATE SAGASTUME, JOSE ANTONIO** | Frantzia | Isidora Sagastume Lasa eta Antonio Munduate Urdampilletaren semea |
| **MUNDUATE SAGASTUME, MARIA TERESA** | Frantzia | Isidora Sagastume Lasa eta Antonio Munduate Urdampilletaren alaba |
| **OQUIÑENA ERRO, GREGORIO** | Venezuela | Alegiako Batzokiko sortzaile eta presidentea // Ideia nazionalisten propagandista eta mitinen egile // Alegiako eskuindarren zentroko presidente (1931-1933) // Albaitari lanpostutik kendutakoa 1936ko abuztuaren 7an |
| **OQUIÑENA MORALES, MARIA** | Frantzia | - |
| **OTAÑO MUGICA, RICARDO** | Bilbon egon zen[128] | - |
| **RUIZ RUIZ, JOAQUIN** | Gurs (Frantzia) | Argelès-sur-Mer kontzentrazio esparruko Gernika-Berri kanpamendutik zetorren // Gudaria edota miliziarra |
| **SAGASTUME LASA, ANTONIA** | Frantzia | - |
| **SAGASTUME LASA, DAMASA** | Gernika | - |
| **SAGASTUME LASA, ISIDORA** | Frantzia | - |
| **SARASOLA IRAOLA, IGNACIA** | Kanbo | EAJ/PNV-ko propagandista // Autoritate frankistek 8000 pezetako isuna ezarri |
| **TOLOSA ZUDAIRE, JOSE MARIA** | Nafarroa | Alegiako Batzokiko Afiliatua (Zuzendaritza juntako presidente) eta 1936an Gorteetako hauteskundeetan diputatu kandidatura // Errefuxiatutakoa edo erbesteratutakoa Nafarroan, gerra hasi zenetik tropa frankistak Alegian sartu ziren arte // Poliziaren aginduz, 5000 pezeta eman beharra alderdi frankistari // Autoritate frankistek, 1000 pezetetako isuna ezarri eta kargu publikoetatik ezgaitu 5 urterako |
| **URDANGARIN ESQUIZABAL, SEVERIANO** | Gurs (Frantzia) | Langilea // Saint Cyprien: 12. Zenbakiko eremutik zetorren |

[128] Ez dakigu haren ostean Frantziara erbesteratu zen ala ez.

## 3.3. MOBILIZATUTAKO ALEGIARRAK

Alegia, 1936ko abuztuaren 4tik aurrera, defentsa-lerroa eratu asmoz, hein handi batean, Ordiziatik zetozen milizianoez bete zen. Alegiar errepublikazaleak ere, Alegia Bigarren Errepublikako gobernarien menpe zegoen bitartean, defentsa honetara bildu ziren. Gainera, Eusko Gudarostea Azpeitian sortzean, zenbait alegiar bertako batailoietan parte hartzera sartu ziren.




Gudarien kartela.

### 3.3.1. Alegiako milizianoen zerrenda

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| ACHOTEGUI, JOSE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| AGOTE, ENRIQUE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| AGUIRRE GOROSTARZU, ANGEL | 24 | - | CNT nº 4, Sacco y Vanzetti |
| AGUIRRE GOROSTARZU, JOAQUIN | 27 | Langilea | CNT nº 4, Sacco y Vanzetti |
| AGUIRRE, RUFINO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ALBERDI, MIGUEL | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ALUSTIZA, LUCIO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| AMESTI, FELIX | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| APELLANIZ, FRANCISCO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ARAITAORRA, NARCISO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ARAMBURU LASA, LUCIO | 19 | - | Gudaria edota milizianoa |
| ARANA, MODESTO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ARCE, VICENTE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| AROSTEGUI BERAZA, JOSE | 25 | Trenbideetako langilea | Azaña-Gipuzkoa // Facundo Perezagua |
| AROSTEGUI BERAZA, JOSE | - | Marinela | Gudaria edota milizianoa |
| AROSTEGUI, MARCELO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ARRAYET ENDEIZA, JOSE ALFREDO | 20 | Langilea | Loiola 1 Batailoia: kaboa |
| ARTOLA GARIN, JUAN BAUTISTA | - | Langilea | Gudaria edota milizianoa |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, ANTONIO | - | Alegiako alkate izana Bigarren Errepublikan (ofizinista) | Eusko Gudarostea: Zapadores Minadores |
| AZCONA, BIBIANO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| BALERDI MACHIÑENA, IGNACIO | 22 | Igeltseroa | Loiola Batailoia |
| BALERDI MACHIÑENA, JOSE | 31 | Igeltseroa | Loiola Batailoia |
| BALERDI MACHIÑENA, JUAN JOSE | 36 | Igeltseroa | Loiola Batailoia |
| BALERDI MACHIÑENA, MARTIN | 24 | Igeltseroa, Pintore Donostian | Loiola Batailoia |
| BALERDI MACHIÑENA, SILVESTRE | 31 | Igeltseroa | Itxarkundia Batailoia |
| BARROSO LAFUENTE, JUAN | 23 | - | CNT nº 4, Sacco y Vanzetti |
| BERAZA SARASOLA, JOSE IGNACIO | 26 | Papergilea | Preso edo entregatua |
| BERECIBAR, JUAN | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| CINCUNEGUI GALARRAGA, PEDRO JOSE | 25 | Langilea, gurinen fabrikan | Gudaria edota milizianoa |
| CUBAS, SANDALIO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ECHEVERRIA, JOSE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| EIZAGA, ENRIQUE | - | - | Alegian egondako milizianoa |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| ERCILLA ECHEVERRIA, JUAN | 46 | Apaiza | Loiola Batailoia: kaperau gisan |
| ERMINA OYARZABAL, BERNARDO | 27 | Langilea | Gudaria edota milizianoa |
| ESNAOLA ITURBE, BARTOLOME | 31 | Langilea | Eusko Gudarostea |
| FERNANDEZ-BARRENA ZUAZOLA, FRANCISCO | 28 | - | Isaac Puente Batailoia |
| GALARRAGA GOICOECHEA, JESUS | - | - | Gudari edota milizianoa |
| GANZARAIN GOICOECHEA, VICTORIANO | 20 | Langilea | Gudaria edota milizianoa |
| GARMENDIA GARMENDIA, JOSE | - | Langilea | EAJ/PNV-ko atzeraguardia |
| GASTAÑAGA JAUREGUI, ALBERTO | 21 | Papergilea Arzabalza fabrikan | Loiola Batailoia |
| GASTAÑAGA JAUREGUI, PEDRO | 23 | Papergilea Arzabalza fabrikan | Loiola Batailoia |
| GASTESI ZALDUNBERE, ANSELMO | 20 | Iturgina | Gudaria edota milizianoa |
| GOICOECHEA LASA, TEODORO | 21 | Papergilea | Loiola Batailoia |
| GUEZALAGA, VALENTIN | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| HERRERO BARRENO, JOSE | 19 | Iturgina | Gudaria edota milizianoa |
| IRAOLA IPARRAGUIRRE, CLEMENTE | 38 | Ofizinista | Guillermo Torrijos Batailoia |
| IRAOLA IPARRAGUIRRE, JOSE EUSEBIO | - | Apaiza | Kaperau gisan frontean |
| IRAOLAGOITIA, JOSE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| IRASTORZA AGUIRRE, JUAN | 21 | Papergilea, Española fabrikan | Gudaria edota milizianoa |
| IRASTORZA IGUAIN, JULIAN | 18 | Langilea | Gudaria edota milizianoa |
| JAUREGUI, AGUSTIN | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| LETAMENDIA ARRILLAGA, MANUEL | - | - | Loiola Batailoia |
| LETAMENDIA ARRILLAGA, SERAPIO | 18 | Ikaslea seminarioan | Gudaria edota milizianoa |
| LLUVIA, ELADIO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| LUNA MORALES, JOSE | 28 | Industriala, pintzen fabrika | Intendentzia marxista |
| MARTINEZ ALEGRIA, MOISES | 39 | Tornularia | Gipuzkoako Lehergailuak (UGT) |
| MEJINO, ENRIQUE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| MENDIA GARAYALDE, MIGUEL | 26 | Langilea | Eusko Gudarostea |
| MUGICA, BALBINO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| MUGICA AZPEITIA, SABINO | 24 | Langilea, Esperanza fabrikan | Azaña-Gipuzkoa Batailoia |
| MUGICA GARAYALDE, JOSE IGNACIO | 31 | Langilea | Eusko Gudarostea |
| MUNDUATE URDAMPILLETA, ANGEL | 27 | Papergilea | San Andres Batailoia |
| MUNDUATE URDAMPILLETA, ANTONIO | 32 | Iturgin | Gudaria edota milizianoa |
| OLANO IZAGUIRRE, JOAQUIN | - | - | Eusko Gudarostea |
| OLANO LULUAGA, SEBASTIAN | 27 | Mekanikoa | San Andres Batailoia |
| ORTIZ, JESUS | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| ORTIZ MARTIN, ANTONIO | 17 | Ile-apaintzailea | Gudaria edota milizianoa |
| OTAÑO MUGICA, FELIPE | 21 | Langilea | Loiola Batailoia |
| OTAÑO MUGICA, JOSE | 32 | Langilea | Guillermo Torrijos 14 Batailoia |
| PEREZ BALSATEGUI, MIGUEL | 31 | Metalurgikoa | Gipuzkoa Batailoia |
| PLACER, ELOY | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| RUIZ RUIZ, JOAQUIN | 20 | Papergilea Arcaute y Compañían | Gudaria edota milizianoa |
| SAGASTUME LASA, JOSE JOAQUIN | - | - | EAJ/PNV atzeraguardia |
| SAGASTUME LASA, JOSE MARIA | 24 | Iturgin, bere aitaren konpainian | Azaña-Gipuzkoa // Facundo Perezagua |
| SAN MARTIN, DEMETRIO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| SAN MARTIN, VICENTE | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| SANZ, DAMASO | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| SARASOLA BERAZA, LORENZO | 19 | - | Gudaria edota milizianoa |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| **UBARA, ANGEL** | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| **UGARTEMENDIA OLANO, EUSEBIO** | 32 | Papergilea | Intendentzia marxista: ospitaleetako laguntzaile |
| **URDANGARIN, JOSE** | - | - | Gudaria edota milizianoa |
| **URDANGARIN ESQUIZABAL, SEVERIANO** | - | - | Gudaria edota milizianoa |
| **URIARTE, JULIO** | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| **URRESTI, FRANCISCO** | - | - | Alegian egondako milizianoa |
| **ZABALA ATIN, IGNACIO ANTONIO** | 48 | Mikeletea | Mikelete gisan frontean |
| **ZABALO IRAOLA, JOSE MARIA** | 23 | Papergilea, Esperanza fabrikan | Gudaria edota milizianoa |
| **ZABALO IRAOLA, RUFINO** | 27 | Langilea | Gudaria edota milizianoa |
| **ZUAZO, CASTOR** | - | - | Alegian egondako milizianoa |

Ezker alderdietako alegiarrek ere nazionalisten antzeko prozesua izan zuten. Alegiako Defentsa Batzordearen buruzagia izan zen Juan Bautista Moreno Galilea eta Defentsa Batzordea osatzen zuten gainontzeko kideek, alegiar ezkertiarrak Ordiziatik zein Tolosatik zetozen milizianoei batu eta tropa frankistak beren menpe hartzen ari ziren herriak defendatzera joan ziren.



**Loiola Batailoiko alegiarrak Gernikako arbolan. Tente ezkerretik eskuinera: Manuel Letamendia Arrillaga, hirugarrena Juan Balerdi Machiñena, hurrengoa Teodoro Goicoechea Lasa, bosgarrena Victoriano Ganzarain, hurrengoa Felipe Otaño Mugica, zortzigarrena Jose Alfredo Arrayet Endeiza, azkena Urdangarin. Behean, ezkerretik eskuinera: Martin Balerdi Machiñena, Alberto Gastañaga Jauregui, laugarrena Pedro Gastañaga Jauregui, hurrengoa Ignacio Balerdi Machiñena, azkena Juan Irastorza.** (Maitane eta Maria Jesus Gaztañaga Oterminek ekarritako argazkia; L. Ganzarainek Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

### 3.3.2. Frontean hildako miliziano alegiarrak

**JOAQUIN AGUIRRE GOROSTARZU**

Alegiarra zen jaiotzez, baina Tolosan bizi zen. Izquierda Republicana-ko afiliatua izan zen, baina 1936ko uztailaren 26tik CNT-ko Gipuzkoako Lehergaien konpainian jardun zuen eta CNT-ko Sacco y Vanzetti batailoiko kaboa izan zen. Gizarte egitura eta itzultzaile lanetan ere lagundu zuen (CNT-UGT). 1937ko apirilaren 30ean Lemoan hil zenean, 28 urte zituen. Ezkonduta zegoen eta haren alabak Remigia Aguirre Mugica izena zuen.

**JOSE AROSTEGUI BERAZA**

Jose, Alegian jaio eta Tolosan bizi zen trenbideetako langilea zen. Gudari lanetan ibili zen Azaña-Gipuzkoa batailoian lehendabizi eta honakoa desegin ostean, Facundo Perezagua batailoian hartu zuen parte, biak ala biak Eusko Gudarostearen barnean. Gerraren eraginez, mutilatua izan zen. 1937ko abenduan, frontean, borrokan hil egin zen. Seguruenik, hil zenean, tropa frankisten aldean borrokatzen ari zen, Logroñon errekrutatu baitzuten, Mixto Infantería Armas nº86-an.

**FRANCISCO FERNANDEZ-BARRENA ZUAZOLA**

1908an Alegian jaio zen, baina gerra hastean Sestaon bizi zen eta ezkongabea zen. 28 urterekin abiatu zen gerrako frontera, Isaac Puente batailoian izen emanda. Isaac Puente Batailoia 1936ko irailean Bilboko Casillako kuartelean sortu zen eta abenduan, Arabako ofentsiban parte hartu zuen. Fernandez-Barrenak ere ofentsiba hartan parte hartu zuen. Hilaren 2an, Alonso Vega frankistaren militarren eraginez, bere kideetako 100 nola hiltzen ziren ikusi beharra izan zuen. Horrez gainera, 200 zauritu ere izan zituzten. Egun batzuk ofentsibatik haratago pasa ostean, berriro ere frontera itzuli zen batailoiarekin batera. Fernandez-Barrenak, Arabako ofentsiban ezagutuko zituen bere azken egunak. 1936ko abenduaren 8an, Ubideako frontean egindako zauriengatik Bilboko ospitale zibilean hil zen[129].

**JOSE GARMENDIA GARMENDIA**

1936ko uztailean, militar eta tradizionalen estatu-kolpearen porrotak ekarritako Gerra Zibilaren garaian, Alegian bizi zen. Peoi lanak burutzen zituen eta 1936ko abuztuaren 16an, Alegiako tropa frankisten errekrutamendu deialdira hots egitean, 40 urte zituen eta ezkongabea zen. EAJ/PNV-ra afiliatuta, atzeraguardiako ekintzetan lagundu zien gudariei, baina Guardia Zibilak Alfaron atxilotu zuen. Horren ostean, Tolosako Erreketeen Kuartelera eraman zuten, bertan deklara zezan. Gerra-Kontseiluak[130] argitzen digunez, 1937ko abenduaren 18an bonba baten “laguntzaz” bere buruaz beste eginik hil zen[131]. Hurrengo egunean, Antonio Garmendia Garmendia gisan hilobiratu zuten, Tolosako hilerrian.

**JUAN GOROSTIDI ALTUNA**

1936ko uztailean, Gerra Zibila hastean, Alegian bizi zen eta 1936ko abuztuaren 16an 42 urte zituen. 1936ko azaroaren 7an Oiartzunen fusilatu zuten[132].

**JUAN BAUTISTA MORENO GALILEA**

1893ko abuztuaren 29an Calahorran (Errioxa) jaio, baina Alegian bizi zen, bertako tren-estazioko faktorea izanik. Ezkonduta zegoen eta bi haur zituen. Alegiako Izquierda Republicana-ko buruzagia izateaz gain, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko nagusia izan zen. Gerran zehar, Izquierda Republicana-ko batailoietan miliziano gisan jardun zuen. Santanderren atxilotu eta 1937ko irailaren 29ko sententziaren ostean, abenduaren 18an fusilatu zuten. Hilda egonagatik ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, Izquierda Republicana-n afiliatuta egoteagatik, Alegiako Izquierda Republicana-ko buruzagia izateagatik eta, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko buruzagia izateagatik, 1941eko ekainaren 23an, 1000 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen.

[129] FAHPV (Araba): R.C.Nº 1 DE BILBAO // Euskal Memoria Fundazioa.

[130] Sumarisimoa 1131.

[131] Hala eta guztiz ere, ikerketak aditzera eman digunez, bere buruaz beste egin zuelako zalantza dugu. Izan ere, bonbak eztanda egin zuenean, bere eskuak esposatuta zituen. Hurrengo kapituluan, kasuaren azalpena modu argiagoan azalduta duzue, 4.7. azpi-atalean, hain zuzen.

[132] Desaparecidos Forzosos en la CAPV.

**MIGUEL PÉREZ BALSATEGUI**

Alegiarra zen jaiotzez, baina 1936ko Gerra Zibila hasterako Villaverde Truciosen bizi eta metalurgiko gisan lan egiten zuen. Ezkonduta eta bi haur zituen. Gerran zehar, Eusko Gudarosteko Gipuzkoa batailoian borrokan aritu zen. 1937ko apirilaren 4an Otxandianoko Ospitalean hiltzean 31 urte zituen.

### 3.3.3. Matxinatuen alde borrokatu zuten alegiarrak

Altxamenduaren aldekoei dagokionez, bi joera izan zituzten. Batzuk, Jauregui-Lasatarrak kasu, Zentro Errepublikanoan sinatzera pasaz kontrolatu zituzten bitartean; beste batzuk, Ordiziatik zetozen erreketeei batu zitzaizkien, Alegian sartzerako orduan, beraien protagonismoa eduki ahal izateko.

Izan ziren beste batzuen artean, 1936ko abuztuaren 16an Eugenio Jauregui Lasa alkateak hala aginduta, tropa frankisten alde borrokatzera joan behar izan zutenak ere. Hauen artean, zaila dagokigu desberdintzea zein joan ziren hala nahi izanagatik tropa frankisten alde borrokatzera ala derrigortuta eraman zituzten. Azken kasuaren erakusle Imanol Artano Gastesirena izan daiteke, zeina bere familiarekin Bilboraino joan zen tropa frankistetatik ihesi. Behin frankistek Bilbo mendean hartzean, ezin izan zuen alde egin eta, frankistek, kartzelaren edo beraien alde borrokatzearen arteko aukera baino ez zioten eman. Horren eraginez, Nuestra Señora de Begoña Tertzioarekin jardun zuen frontean borrokan. Segidan, matxinatuen alde borrokatu zuten alegiarren zerrenda doakizue:

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| AGUIRRE, MARCELINO | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| AGUIRRE GOROSTARZU, ANGEL | 24 | - | 1. Legioko Falangearen Bandera |
| AGUIRRE MACHIÑENA, JOSE JOAQUIN | 24 | Nekazaria, Egusquiza baserrian | Tropa frankistekin borrokan |
| AGUIRRE MACHIÑENA, MARCELINO ANTONIO | 22 | Nekazaria, Machiñena baserrian | Tropa frankistekin borrokan |
| AGUIRRE MACHIÑENA, PEDRO JOSE | - | - | Tropa frankistekin borrokan |
| AGUIRRE ORMAZABAL, JOSE MARIA | 22 | Okina, Beistiñena etxean | Tropa frankistekin borrokan |
| AGUIRRE ORMAZABAL, MANUEL | 20 | Okina | Sizilia 8. Zenbakia Mendiko Batailoia |
| AIZPURUA AGUIRREZABALA, MANUEL | 24 | Nekazaria, Aristizabal baserrian | Erreketea |
| AIZPURUA ARRIZABALAGA, CARLOS | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| AIZPURUA ECEIZABARRENA, JOSE MARIA | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| ALUSTIZA ECHEVERRIA, MARCOS | - | - | Atzeraguardiako erreketea |
| ARACAMA SARASOLA, MIGUEL | 22 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| ARANGUREN, LUCIANO | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| ARANZASTI, JOSE | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| AROSTEGUI BERAZA, LORENZO | - | - | America 23. Zenbakiko Erregimendua // tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| AROSTEGUI ELOLA, JOSE MARIA | 18 | Papergile La Esperanzan | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| ARRIETA GARMENDIA, JUAN | - | - | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa |
| ARRUABARRENA GANZARAIN, EUSTAQUIO | 16 | - | Tropa frankistekin borrokan |
| ARRUE RECONDO, MANUEL | 19 | Ikaslea institutuan | Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia |
| ARTANO GASTESI, IMANOL | 17 | - | Nuestra Señora de Begoña Tertzioa |
| ARTOLA GARIN, ALEJO | 26 | Nekazaria, Arzabalza baserrian | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| AZURZA GOROSTIAGA BERNARDINO | 24 | Enkuadernatzaile | 1937an frankistek, gerrara joateko soldadu deklaratu |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| **BALERDI, JUAN** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **BALERDI MACHIÑENA, ESTEBAN JOSE** | 16 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **BALERDI MACHIÑENA, MARTIN** | 24 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **CARRERA LAVACA, JOSE IGNACIO** | 32 | Papergilea | Atzeraguardiako erreketea: kaboa |
| **CARRERE AZCARRETA, GERARDO** | - | - | Alegiako erreketeen alfereza |
| **CINCUNEGUI GALARRAGA, DOMINGO** | 25 | Papergilea | Arapiles 7. Zbk. Mendiko Batailoia // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **CORTES CARBEÑA, JUAN** | - | - | Atzeraguardiako erreketea |
| **ECHEVARRENA URCOLA, PRUDENCIO** | 20 | Papergilea | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia |
| **EGUIBURU, DONATO** | 27 | Ofizinista | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **ERMINA TOLOSA, MARTIN** | 21 | Nekazaria, Ecedi baserrian | Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GALARRAGA, EUGENIO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GALARRAGA, FRANCISCO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GANZARAIN GOICOECHEA, ROMAN** | 21 | Erizain (praktikantea) | Arapiles 7. Zbk. Mendiko Batailoia // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GARMENDIA, FRANCISCO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GARMENDIA UGARTE, JOSE** | - | - | Atzeraguardiako erreketea |
| **GOIBURU ECHEVEGUREN, JUAN MIGUEL** | - | - | Oriamendi Tertzioa |
| **GOICOECHEA, ESTANISLAO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **GOICOECHEA LULOAGA, JOSE IGNACIO** | 22 | Nekazaria, Aristizabal baserrian | Arapiles 7. Zbk. Mendiko Batailoia |
| **GOICOECHEA LULOAGA, JOSE MIGUEL** | 20 | Nekazaria | Tropa frankistekin borrokan |
| **GOICOECHEA LULUAGA, IGNACIO** | - | - | Arapiles 7. Zbk. Mendiko Batailoia, Boilen 24. Erregimendua |
| **GOROSTIAGA AGUIRRE, VICTORIANO** | 39 | Harakina | Atzeraguardiako erreketea |
| **GOROSTIDI GARMENDIA, JOSE** | - | - | Oriamendi Tertzioa |
| **GUIJOSA LEGUIA, LUIS** | - | - | Oriamendi Tertzioko Infanteriako Koman-dante Nagusia |
| **GUIJOSA SARASOLA, FRANCISCO** | 19 | Papergilea Arcaute y Compañían | Tropa frankistekin borrokan |
| **IBARZABAL GOICOECHEA, JOSE IGNACIO** | 23 | - | Tropa frankistekin borrokan |
| **IBARZABAL OLANO, BENITO** | 17 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **IBARZABAL OLANO, JOSE** | 22 | Nekazaria | Sizilia 1. Zbk. Batailoia |
| **IBARZABAL OLANO, SEBASTIAN** | 20 | Nekazaria | Tropa frankistekin borrokan |
| **IRAOLA, ANTONIO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **IRAOLA ARTOLA, ANTONIO** | 25 | Nekazaria Echechuri baserrian | Erreketea |
| **IRAOLA ARTOLA, BERNARDO** | 32 | Nekazaria | Atzeraguardiako erreketea |
| **IRAOLA ARTOLA, MARTIN** | 29 | Nekazaria | Atzeraguardiako erreketea |
| **IRAZUSTA AGUIRRE, JOSE M.** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **ITURRIOZ, MODESTO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| **JAUREGUI LIZARRIBAR, ANGEL JACINTO MARIA** | 25 | Merkataria | Virgen del Camino de León Tertzioa // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **JAUREGUI LIZARRIBAR, JOAQUIN** | 27 | Merkataria | Oriamendi Tertzioa |
| **JAUREGUI LIZARRIBAR, MANUEL** | 30 | Ofizinista | Lacar Tertzioa, 3. Konpainia: alferez |
| **LAVACA AIZPURUA, JOSE IGNACIO** | 19 | Nekazaria, Arterreca baserrian | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia |
| **LAVACA AIZPURUA, PEDRO** | - | - | Erreketea |
| **LETAMENDIA, SERAPIO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **LETAMENDIA ARAMBURU, ANTONIO** | 25 | Gidaria | Oriamendi Tertzioa // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **MAIZ, JOSE MANUEL** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **MARTINEZ, JOSE** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **MUNDUATE, MIGUEL** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **MUNDUATE URDAMPILLETA, JUAN MIGUEL** | 18 | Langilea, bere etxean | Tropa frankistekin borrokan |
| **MURUA, MARCELINO** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **OLANO, JOSE** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **OLANO ODRIOZOLA, VICTORIANO** | 19 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **ORTIZ ZABALA, TIMOTEO** | 23 | Nekazaria | Tropa frankistekin inkorporatuta |
| **OTAMENDI, JOSE** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **OTAMENDI OYARZABAL, JUAN BAUTISTA** | - | - | Tropa frankistekin borrokan |
| **OTEGUI OTEGUI, JOSE** | 23 | Nekazaria, Galarreta baserrian | Tropa frankistekin borrokan |
| **OTEGUI OTEGUI, MARTIN** | 24 | Nekazaria, Naparrecheverri baserrian | Tropa frankistek, 1938an soldadu deklaratua |
| **OYARVIDE MAIZ, JUAN** | - | - | Oriamendi Tertzioa |
| **OYARZABAL GAZTAÑAGA, JUAN BAUTISTA** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **OYARZABAL MURGUIONDO, ANGEL** | 23 | - | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia |
| **OYARZABAL MURGUIONDO, MIGUEL ANGEL** | 25 | - | Oriamendi Tertzioa, 2. Konpainia: kaboa |
| **OYARZABAL MURGUIONDO, VENANCIO** | 29 | Papergilea | Atzeraguardiako erreketea |
| **OYARZABAL OTAMENDI, JUAN BAUTISTA** | 16 | - | Tropa frankistekin borrokan |
| **RECONDO GARMENDIA, NICOLAS MARIA** | 20 | Nekazaria, Echarraga baserrian | Erreketea // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **SAGASTUME BERBIL, MARTIN** | 25 | Ikaslea, Gasteizen | Frontean kaperau |
| **SAN MIGUEL LAFUENTE, RAMON** | 19 | Papergilea, Arcaute y Compañían | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa |
| **TOBAR AZPEITIA, VALENTIN** | 23 | Langilea | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **TOLOSA, JOSE** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **TOLOSA LASA, SEBASTIAN** | 20 | Nekazaria, Arzabalza baserrian | Zumalacarregui Tertzioa // San Ignacio Tertzioa, 1. Konpainia // Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **TOLOSA ZUDAIRE, JUAN** | - | - | Atzeraguardiako erreketea |
| **URCOLA GARMENDIA, JOSE MARIA** | - | - | Atzeraguardiako erreketea // Oriamendi Tertzioa |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936-08-16an | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| **URDANGARIN, JOSE** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **URDANGARIN, JUAN** | - | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **URDANGARIN ZABALA, MIGUEL** | 29 | Gidaria | Atzeraguardiako erreketea |
| **ZABALA ESCUDERO, JOSE MARIA** | 17 | - | Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen |
| **ZABALA SAN SEBASTIAN, JUAN JOSE** | 22 | - | 3. Zenbakiko Artileria Astuna |

### 3.3.4. Frontean hildako matxinatu alegiarrak

| IZEN-ABIZENAK | JAIOTZA, URTEAK | LANBIDEA | FILIAZIOA |
|---|---|---|---|
| **AGUIRRE MACHIÑENA, JOSE JOAQUIN** | 22 | - | Frontean hildakoa |
| **AGUIRRE MACHIÑENA, PEDRO JOSE** | 19 | - | Frontean hildakoa: 1938/03/19 |
| **AGUIRRE ORMAZABAL, MANUEL** | 21 | Sizilia 8. Zenbakia Mendiko Batailoia | Otxandio, Bizkaiko frontea: 1937/04/06 |
| **AIZPURUA AGUIRREZABALA, MANUEL** | 25 | Erreketea | Frontean hildakoa: 1938/12/28 |
| **ARRUABARRENA GANZARAIN, EUSTAQUIO** | | - | Ebroko Batailan hildakoa |
| **GOICOECHEA LULOAGA, JOSE IGNACIO** | 22 | Arapiles Batailoiko 7. zenbakia, Boilen 24. Erregimendua | Lemoatx mendia: 1937/05/30 |
| **GOICOECHEA LULOAGA, JOSE MIGUEL** | 20 | - | Frontean hildakoa |
| **GUIJOSA LEGUIA, LUIS** | - | Oriamendi Tertzioko Infanteriako Komandante buruzagia | Frontean hildakoa: 1937/04/04 |
| **GUIJOSA SARASOLA, FRANCISCO** | 1916/11/02 | - | Frontean hildakoa: 1938/01/08 |
| **IBARZABAL GOICOECHEA, ANTONIO** | - | - | Frontean hildakoa |
| **IBARZABAL GOICOECHEA, JOSE IGNACIO** | 23 | - | Frontean hildakoa |
| **JAUREGUI LIZARRIBAR, MANUEL IGNACIO** | 32 | Lacar Tertzioko 3. Konpainiako Alferez-a | Ebroko frontea, Sierra Pandola: 1938/11/04 |
| **LAVACA AIZPURUA, JOSE IGNACIO** | 19 | Erreketea | Arrasateko Frontean zauritua // Azkoitiako Ospitale Militarra: 1937/04/03 |
| **LAVACA AIZPURUA, PEDRO** | - | Erreketea | Frontean hildakoa |
| **OTAMENDI OYARZABAL, JUAN BAUTISTA** | - | - | Frontean hildakoa |
| **OTEGUI OTEGUI, JOSE** | 23 | Nekazaria, Galarreta baserrian | Frontean hildakoa |
| **OTEGUI OTEGUI, MARTIN** | 24 | - | Frontean hildakoa |
| **OYARZABAL OTAMENDI, JUAN BAUTISTA** | 16 | - | Ebroko-frontea: 1938/09/15 |

### 3.3.5. Alegiar iheslari edo desagertuen zerrenda

Zenbait gazte alegiar txintxarrien herritik gerrari ihesi joan ziren, batzuk ez zutelako nahi borrokatu eta beste batzuk aldiz, indar errepublikarrekin borrokatu eta tropa frankisten errekrutamenduei muzin egin nahi izan zietelako.

ALEGIAKO IHESLARI ZEIN “DESAGERTU” GISAN IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

| IZEN-ABIZENAK | JAIOTZA-DATA, URTEAK | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **ARANZASTI GALARRAGA, JOSE** | Alegia, 1913/08/13 | Desagertuta: gerraren hasieran Burgosen |
| **BALERDI GARAYALDE, MIGUEL** | Alegia, 1910/11/14 | Desagertuta “se ignora el paradero” |
| **GASTESI ZALDUNBERE, ANSELMO** | Alegia, 1915/10/04 | Gerran zehar desagertua, seguruenik fusilatuta, Jose Gastesiren arabera |
| **GOICOECHEA, TEODORO** | - | Desagertuta: 1937/02/01 |
| **GONZÁLEZ, GREGORIO NICOLAS** | - | Iheslaria: 1941/05/18 |
| **GONZÁLEZ SALAMANCA, MIGUEL** | Portillo, 1910/09/29 // Alegian bizi | Desagertuta “se ignora el paradero” |

| IZEN-ABIZENAK | JAIOTZA-DATA, URTEAK | DATU-GEHIGARRIAK |
|---|---|---|
| **GONZALO RODRÍGUEZ, TEODORO** | Arcos de Jalón, 1910/11/09 // Alegian bizi | Desagertuta "se ignora el paradero" |
| **ITURRIOS AROSTEGUI, HILARIO** | Alegia, 1911/07/07 | Iheslaria |
| **LARREA LARREA, MIGUEL** | Irun, 1918/05/31 // Alegian bizi | Ez dakite non dagoen "ignorado paradero" // 1961/07/24an Erorien Haranean hilobiratuta, Gasteizeko Santa Isabel Hilerritik emandako gorpuarekin // Irunen zerrendaratuta, 1939ko soldaduska deialdian |
| **MARTÍNEZ LOINAZ, CORNELIO** | Alegia, 1917/06/01 | Ez dakite non dagoen "ignorado paradero" // Iheslaria |
| **MARTÍNEZ LOINAZ, PEDRO** | Alegia, 1915/01/18 | Iheslaria: 1937/10/18 // Atzerrian |
| **MATEOS CALVO, RAMON** | - | Iheslaria: 1941/05/18 |
| **MEDRANO UGARTE, JUAN** | Alegia, 1915/07/28 | Iheslaria |
| **MUGICA GARAYALDE, JOSE IGNACIO** | Alegia | Desagertuta: 1936/07/20-22 // Nazionalista |
| **ROYO OÑATE (ÚBEDA), CELESTINO** | Alegia, 1910/02/25 | Desagertuta "se ignora el paradero" |
| **SARASOLA BERAZA, LORENZO** | Alegia, 1917/05/07 | Iheslari 1937/10/18an // Bere aitak adierazi, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen alde egin zuela // Indar errepublikarren aldean dagoela adierazi agintari frankistek |
| **URDANGARIN ZABALA, JUAN** | Alegia, 1912/09/26 | Tropa frankistak Alegian sartu zirenetik alde eginda |
| **URDANGARIN ZABALA, JUAN MARTIN** | Alegia, 1909/11/13 | Tropa frankistak Alegian sartu zirenetik alde eginda |

***Ikus 1.Eranskina: GERRARA JOAN ZIREN ALA EZ, ETA JOAN BAZIREN ZEIN TROPEKIN BORROKATU ZUTEN IDENTIKATU EZIN IZAN DITUGUN ALEGIARRAK***



**Milizianoak Alegian 1936an.** (Pascual Marín Funtsa).

## 3.4. ALEGIA BONBARDATU ZUTENEKOA

1936ko abuztuaren 7an, tropa frankistek, Alegiara sartzeko ez zuten inongo arazorik izan, haien bidean ez zitzaien inor jarri. Hala eta guztiz ere, herrira sartu baino sei egun lehenago, 1936ko abuztuaren 1ean, Gregorio Oquiñena Erro albaitariaren etxetik gertu, abiazio bonba bat bota eta, horren eraginez, herriko albaitariak Getariara joan beharra izan zuen bizitzera[133].

Alegiarrek, oraindik ere, herrira jaurtitako abiazio bonbak ongi gogoratzen dituzte “Gerra hasi zanen bonbak bota zituen Alegrin, lau o bost bonba bota zituen ta jende guztik Alegritiken alde ein tzun”[134]. Mikel Artano Gastesik adierazi gisan, gerra hasi eta berehala, kolpistek, armagabetutako biztanleriaren aurkako erasoa hasi zuten:

“Aurrena bota zituen bonbak, bonbardeoa izan tzan, aurrena hiru bota zituen, gero sei ta gero hamasei o hamazortzi bota zituen. (…) denak ingurun bota zituen, etzien handik izaten (…) danak ikuillutan ta gaiñeakotan sartuta ta ordun gure ikuillun, beran, estazioko fatorea, Moreno, eta hure bere semea, alaba ta andrekin hiruek gure (…) Dionixianeko ikuillun ta gure ama ta gero eztakit zein tzien”[135].

Tropa frankistek Alegia hartu ostean ere bonbardatua izan zen, eta horren testigu izan zen Jesus Ayestaran Casturiense[136], diru-trukatzailea. Hain zuzen, 49 urterekin, 1936ko irailaren 2an, bonba batek eragindako zaurien eraginez hil zen.



**Donostiako badiaren bonbardaketa.** (Euskal Memoria Fundazioa).

[133] AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia.

[134] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:01:16-00:01:26. “Gerra”.

[135] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002.

[136] Fusilados Irun 1936. Jesus Ayestarán Casturiense, haren bigarren emaztea zen Cristina Ugarterekin ezkonduta zegoen hil zenean (haren lehenengo emaztea Juana Recondo izan zen). Iruneko Blayako hilerrian hilobiratu zuten.

## 3.5. ALEGIAKO ESKUINDARREN AURKAKO ERREPRESIOA

1936ko uztailaren 17 eta 18 bitartean, espainiar armadako ofizial monarkiko eta erreakzionarioek Bigarren Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman eta porrotaren ostean, hiru urtez (1936-1939) iraungo zuen gerra ankerra hastean, Alegiako udal-gobernua[137], haren gehiengoan, indar-errepublikazaleez eratuta zegoen:

**1936ko uztailaren 12ko udalbatza**

**ALKATEA**
Jose Letamendia Lasa (EAJ/PNV)

**Zinegotziak:**
- Antonio Arrizabalaga Aguirre (EAJ/PNV)
- Juan Antonio Letamendia Lasa (tradizionalista)
- Tomas Arostegui Tolosa (tradizionalista)
- Ignacio Galarraga Garmendia (katoliko independentea)[138]

Udal-gobernuari bermea eman ahal izateko, Fronte Popularreko Batzordea sortu zen eta horren buruzagitzan aritu ziren Angel Urcelay Ayestaran zein Juan Bautista Moreno Galilea, Izquierda Republicana-ko afiliatuak.

Horrela beraz, alegiar errepublikazaleek, hilabete batzuk lehenago alegiarrek beren bozkaz hautatu zuten udal-gobernua defendatzeko joera hartu zuten. Testuinguru horretan, Bigarren Errepublikaren aldeko Tolosaldeko indarrak, Alegia, Orendain, Gaintza eta Aldaban zehar barreiatu ziren, erreketeak Tolosara ez iristeko defentsa-lerroa osatuz. Horren eraginez, miliziano ugari Alegian kokatu ziren eta zenbaitetan tentsio egoerak kausitzea ekarri zuen.




**Euskal milizia antifaxistetan sartzeko deia.** (Euskal Memoria Fundazioa).

[137] 1936ko uztailaren 12ko Alegiako udal-gobernua. AUA: 1936-1941eko Aktak. A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia.

[138] Afiliatutako alderdiak 1931ko maiatzaren 31ko hauteskundeetako emaitzen arabera zehaztu dira: Resultados Segunda República. Elecciones Municipales 1931-1933. Guipúzcoa – Municipios, http://www.euskadi.eus/web01a2haukon/es/contenidos/informacion/w_em_resul_muni_gip_1931_1933/es_def/index.shtml

Horren adibide izan zen alegiar tradizionalistek pairatu zuten errepresioa. Alegiar errepublikazaleek, gerra hasi izanaren errudun nagusien artean zituzten, ofizial monarkiko eta erreakzionarioekin bat egin baitzuten estatu-kolpean lagundu asmoz. Horren eraginez, Alegian beren fusilekin zebiltzan zenbait milizianok, Juan Bautista Jauregui Lasa[139] eta Eugenio Jauregui Lasa[140] anaiak Alegiatik Tolosako presondegira eramateko ahalegina egin zuten. Frankistek idatzitako dokumentuek helarazten dutenez, miliziano haiek Tolosara iritsi baino lehen, herriko bi mandatari frankistak fusilatzeko asmoa omen zuten, baina Alegiako errepublikazaleek hori ekidin ahal izan zuten:

> “ALEGRIA DE ORIA (GUIPUZCOA)-SIC-
> INFORMACION (SIC) SOBRE EL PASO DE LOS ROJOS POR ESTA VILLA Y SU ACTUACION (SIC)
>
> En esta Villa fueron detenidos para ser llevados a Tolosa con malos fines los señores siguientes:
>
> D. Eugenio Jauregui Lasa, ----- (hoy Alcalde)
>
> y D. Juan Bautista Jauregui Lasa
>
> Mas debida a la entereza y energía con que actuaron en su favor los izquierdas de Alegria (sic), evitaron que fuesen fusilados como querían hacerlo los rojos sin llegar a Tolosa, y los de Alegria (sic) no consintieron el que saliesen del pueblo; y en estas codiciones (sic), y en estas condiciones quedaron sujetos a presentarse a firmar en el centro republicano dos veces al dia (sic), juntamente con los señores,
>
> D. Gerardo Carrere Azcarreta
>
> D. Martin Jose Gorostidi
>
> D. Venancio Oyarzabal Murguiondo
>
> D. Jacinto Arin
>
> D. Miguel Zufiria
>
> y D. Angel Oyarzabal Murguiondo
>
> Al final los izquierdas de Alegria (sic), cuando ya veian (sic) las cosas muy malas los facilitaron la huida y asi (sic) salvaron (…)[141].”

Alegiar errepublikazaleek, altxamenduaren alde egin zuten alegiarrak kontrolpean eduki nahi izan zituzten. Hori horrela, erreakzionarioen aldekoek, egunean bi aldiz, herriko Zentro Errepublikarretik sinatzera pasa beharra zuten.



GOBIERNO MILITAR
DE
SAN SEBASTIÁN

N.º

Sección de E. M.

Para poder completar datos sobre prisioneros y heridos durante la ocupación de esa por los rojos intereso de U.S. me facilite los que le sea posible sobre las siguientes preguntas.

? Ha habido detenidos en el territorrio de ese Ayuntamiento, sea en la carcel, fuertes o cualquier otro lugar de prisión, procedentes de prisioneros hechos por los rojos en el frente de combate?

Caso de haber habido ? Como se llamaban y de que pueblo de naturaleza?

? Fueron fusilados, trasladados o libertados?

Quedo pendiente de sus noticias, que agradezco de antemano.

San Sebastián 21 de Octubre 1936

Por la sección de Información.

El Comandante.

Sr. Alcalde de Alegría.



ALEGRIA DE ORIA (GUIPUZCOA)

INFORMACION SOBRE EL PASO DE LOS ROJOS POR ESTA VILLA Y SU ACTUACION

En esta Villa fueron detenidos para ser llevados a Tolosa con malos fines los señores siguientes:

D. Eugenio Jauregui Lasa,-----(hoy Alcalde)

y D. Juan Bautista Jauregui Lasa

Mas debida a la entereza y energía conque actuaron en su favor los izquierdas de Alegria, evitaron que fuesen fusilados como querian hacerlo los rojos sin llegar a Tolosa, y los de Alegria no consintieron el que saliesen del pueblo; y en estas codiciones,y en estas condiciones quedaron sujetos a presentarse a firmar en el centro republicano dos veces al dia , juntamente con los señores,

D. Gerardo Carrere Azcarreta D. Jacinto Arin

D. Martin Jose Gorostidi D. Miguel Zufiria

D/ Venancio Oyarzabal Murguiondo

y D. Angel Oyarzabal Murguiondo.

Al final los izquierdas de Alegria, cuando ya veian las cosas muy malas los facilitaron la huida y asi salvaron.

Por qué fué V destituido de Legorreta? No fuí destituido, sino suspendido por la Junta de Guerra Carlista pero seguí actuando hasta Abril o Mayo de 1937 por disposición del Ayuntamiento que quería que continuase yo.
Por qué lo ha tenido guardado el Oficio del Gobernador que ordenaba la reposición de Jáuregui? Yo no he guardado nada por cuanto la correspondencia la recibia directamente el Alcalde, quien daba cuenta al Ayuntamiento en la primera sesión.
V. les ayudaba en la busqueda de faltas y preparación de cargos a Azpeitia y Tolosa? Si Señor,
Antes del Movimiento a qué politica seguía V.? A ninguna y por extricta imparcialidad no acudia a ninguno de los Centros ni botaba en las Elecciones a nadie.
Qué política considera V. que tiene el Alcalde? Tradicionalista.
Y el Secretario del Ayuntamiento de Alzo? También
Y Joaquín Jáuregui? También
Quien ha hecho los padrones varios? Yo le hacia todas esas cosas



**Ricardo Inchaustik, Tolosako Presondegitik idatzitako eskutitza.** (Miren Ixiar Intxausti Arregik emandako dokumentuak).

[158] AUA: 437.Kaxa. 2. Zenbakia, A.Sekzioa, 1. Negoziatua.

[159] Testigantza: Miren Ixiar Intxausti Arregi. "Ricardo Inchausti Larrañaga kartzelan".

Altunak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren botere ordezkapena eginez, 1941eko azaroaren 25-27 bitartean udal-gobernu berria izendatu zuen[160]:

**1941eko azaroaren 25-27 bitarteko udalbatza**

**ALKATEA**
Jose Maria Ezcurdia Albisu

**Lehen alkateordea:**
Luciano Aranguren Maiz

**Bigarren alkateordea:**
Juan Ayestaran Arrese

**Errejidore sindikoa:**
Martin Jose Gorostidi Aguirre

**Zinegotziak:**
- Jacinto Arin Bereciartu
- Venancio Oyarzabal Murguiondo
- Angel Jauregui Lizarribar

Alegiako udal-gobernuko idazkari gisan, Juan Imaz Aguirre amezketarra izendatu zuten 1941eko azaroaren 28an. Alegian, udal-gobernu aldaketek jarraitu egin zuten. Zehazki, 1942ko maiatzaren 8an bidalitako eskutitz baten bidez, Miguel Angel Oyarzabal Murguiondo ezarri zuten Alegiako udaleko alkate eta Jose Maria Ezcurdia Albisuk bere ordura arteko alkatetza kargua utzi beharra izan zuen. Udal-gobernu aldaketarekin batera, Joaquin Jauregui Lizarribarrek, azkenean, 1942ko abuztuaren 27an bere Alegiako udal-idazkari postua lortu zuen eta horren eraginez, Imaz idazkaria kargugabetu egin zuten.

1942ko azaroaren 14an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Juan Ayestaran Arrese eta Angel Jauregui Lizarribar haien zinegotzi postuetatik kendu ostean, Fernando Berasategui Gorrochategui eta Miguel Urdangarin Zabala aukeratu zituen Alegiako udal-gobernuko zinegotzi berri gisan. 1945eko uztailaren 22an, Joaquin Jauregui Lizarribar, Alegiako eta Altzoko idazkari gisan izendatu zuten.



**Errepresio handiko uneak zetozen.** (San Pedro de Cardeñako espetxeko argazkia, Euskal Memoria Fundazioa).

[160] AUA: 437. Kaxa. 2. Zenbakia, A Sekzioa, 1. Negoziatua.

## 4.2. DIKTADURAREN LEGITIMAZIOA LORTZEKO TRIKIMAILUAK, ALEGIAN

Gerraren prozesu luzeak, hildakoak eragin zituen tropa errepublikar zein frankisten aldean. Gerra irabazi zutenek, hau da, diktaduraren aldeko alegiar agintari eta herritarrek beren hildakoei omenaldia egin ahal izan zieten bitartean, borrokalari errepublikarrek ezin izan zuten hargatik inongo omenaldirik egin edo jaso. Galtzaileentzat, isiltasun aldiko etapa luzea ateetan deika zen.

Goraipamenen eredu izan zen, esaterako, Santiago Apostoluaren egunean, Sección Femeninak Alegiako kaleetan zehar antolatutako desfilea. Bai eta, esaterako, 1938ko apirilaren 30ean, Juan Jauregui Lizarribarrek, Avenida Navarra deiturikoan, gerran hildako tropa frankistetako soldaduei omenaldia egiteko, monumentua eraikitzeko eskaera egitea ere. Hark, Alegiako kanposantuan aurkitzen ziren alegiar erreketeak ere, monumentu hartan hilobiratu nahi izan zituen[161].

1936ko apirilaren 9an, Pazko Garizuman, Alegian, gerra amaitu zelako ospakizuna egin zen. Goizean tanborrak, txistulariak eta meza nagusia ospatu ziren. Bazkari herrikoia ere egin zuten herriko frontoian eta, arratsaldean, pilota partidua. Gero, aurreskua eta txistua jotzen aritu ziren gaueko 23:00ak bitarte.

Testuinguru horretan, frankistak, uneoro Alegiako biztanleria kontrolatuta edukitzeaz arduratu ziren. Horregatik, herritik alde eginik ziren alegiarrekin zein bertan geratu zirenekin zerrenda luzea egiteaz arduratu ziren.



ALEGRIA DE ORIA (GUIPUZCOA)

RELACION DE FAMILIAS DE ESTA VILLA QUE TIENEN FAMILIARES EN EL FRENTE ENEMIGO

MIGUEL SARASOLA----------Un hijo en el campo enemigo

JOAQUINA MACHISANA===----Cuatro hijos solteros y dos casados con sus correspondientes mujeres e hijos.

RAMONA SARASOLA---------- Un hijo en campo enemigo

DOLORES ESCUDERO--------- Su esposo,miquelete,en campo enemigo

FRANCISCA BERAZA--------- Dos hijos solteros,voluntarios

PEDRO MUNDUATE-----------Dos hijos casados con sus correspondientes mujeres e hijos.

EUFEMIA OCHOA AZCOAGA-----Su esposo miquelete.

ANTONIO SAGASTUME---------Dos hijos solteros,mas otros tres casados con sus conyuges e hijos.

JOSEFA ARTANO-------------Parientes varios en el frente

TOMASA GOICOECHEA---------Esposo y un hijo voluntario

ADRIAN MUGICA------------- Un hermano Voluntario

RAFAEL OYARZABAL----------Un hijo

MODESTA IRAOLA SALCEDO----Dos hijos,uno soltero y otro casado

JUAN BTª ARRUABARRENA-----Un hijo

JUAN BTª IRIZAR-----------Dos hermanos politicos voluntarios

Joaquina MAIZ-------------Un hijo voluntario

JOSE LETAMENDIA ----------Dos hijos voluntarios

JOSEFA IPARRAGUIRRE-------Un hijo con su esposa e hijos

ANTONIO IRAOLA------------Un cuñado con esposa e hijos

EUGENIO GOICOECHEA---------Un hermano voluntario

IGNACIO GOICOECHEA --------Padre del anterior

CORNELIO OTAÑO-------------Tres hijos,uno de ellos casado con esposa e hijos.

Maria ITURRALDE------------Un hijo voluntario

JOSE M. ECEIZABARRENA------Cuñado con su esposa e hijos

CEFERINO LASA IRRAGORRI---Cuñado y sobrinos en el frente enemigo

JOSE MARIA MUGICA EIZAGUIRRE--Un hijo voluntario

IGNACIO ARAMBURU-------------Un hijo Voluntario

ANTONIA IZAGUIRRE -----------Su esposo voluntario

ANTONIO Mª ARRIZABALAGA----------Un hijo voluntario

MARIA GALARRAGA -----------------Un hijo voluntario

CARLOS URDANGARIN----------------Un hijo voluntario

PEDRO IRASTORZA------------------Un hijo voluntario

HILARIO AGUIRRE------------------Un hermano ,un cuñado y dos sobrinos

AGUSTINA MUÑOA-------------------Un hijo voluntario

Josefa Luloaga===----------------Dos hijos voluntarios

JOSE AGUSTIN ELIZALDE------------Un hijo en el campo enemigo

JOAQUINA CANZARAIN -------------Esposo pero es el hijo del anterior

HERMANOS OLANO-------------------Tres hermanos en le campo enemigo

JOSE Mª ERMINA-------------------Su esposa esta en campo enemigo

AGUSTINA AGUIRRE ----------------Esposo Miquelete

ANTONIO ERMINA-------------------Un hijo en el frente

MICAELA ENDIZA-----------Está en Ibarra,pero tiene a su esposo y un hijo voluntarios en el frente P.

Alegria de Oria a II de Enero de 1937.

**Beren senideak alde errepublikazalean zituzten alegiarrak.** (AUA).

[161] Herritarrei monumentua eraiki zen ala ez galdetu ostean, ez zutela eraiki adierazi digute.

## 4.2.1. "Junta Local de información" delakoaren osatzea

Tropa frankistek herri errepublikarrak beraien mende hartu ostean, errepresio forma andana erabiltzen zuten bertako biztanleria ongi begiztatuta eduki ahal izateko. Horretarako, tresna nagusia, gobernuak maneiatutako instituzioak izan ziren. Haietako bat, "Junta Local de Información" delakoa izan zen, zeina ideologia frankistatik at geratzen zen txintxarritar oro kontrolatuta izateko tresna aproposari zegokion. Alegiako "Junta Local de Información" delakoa, 1937ko azaroaren 18an sortu zen, Tolosako Plazako Komandante Militarraren agindua betez[162]:

1937KO AZAROAREN 18a, ALEGIAKO "JUNTA LOCAL DE INFORMACIÓN"-aren OSATZEA:

| IZEN-ABIZENAK | FILIAZIOA | KARGUA |
|---|---|---|
| EUGENIO JAUREGUI LASA | Tradizionalista | Alkatea |
| JUAN BAUTISTA JAUREGUI LASA | Tradizionalista | F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagia |
| ANDRES VAZQUEZ GOMEZ | Derecha Españolista eta ondoren, tradizionalista | Irakasle nazionala |
| MARTIN JOSE GOROSTIDI AGUIRRE | Tradizionalista | Ferratzailea |

Gaur egun, batzorde hark sortutako datuak desagertu badira ere, pentsatzekoa da, alegiar errepublikarrak, batzordeak sortzen zituen fitxekin kontrolatu zituztela[163]:

"En la villa de Alegría de Oria, hoy dieciocho de noviembre de mil novecientos treinta y siete; a las 19h; hora señalada en la convocatoria hecha al efecto en tiempo y forma: se reunieron en la Sala Consistorial de éste Ayuntamiento, a sesión de constitución los señores Don Eugenio Jauregui, Alcalde Presidente del Ayuntamiento de éste distrito, Don Bautista Jauregui Lasa Jefe Local de F.E.T y de las J.O.N.S y los vecinos Don Andres Vazquez Gomez y Don Martin José Gorostidi Aguirre, ambos distinguidos por sus relevantes cualidades de honradez y reconocida solvencia e imparcialidad.

Pasó a ocupar la presidencia el Sr. Alcalde Eugenio Jauregui, quien después de haber declarado abierto el acto hizo uso de la palabra manifestando a los reunidos, que por escrito de fecha 11 de las corrientes, había recibido la orden del Ilmo. Sr. Comandante Militar de la plaza de Tolosa de constituir en este municipio una Junta Local de Información con los miembros y especiales condiciones que en el mismo hace mención. Dice que de la misma procedencia había recibido las normas é (sic) instrucciones á (sic) que ésta se había de sujetar para su normal funcionamiento y á (sic) las que había dedicado su extenso y minucioso estudio por la importancia que su misión lleva aparejada y entregó a cada uno un ejemplar de los mismos para que hicieron lo propio. Añadió que era un asunto delicado, de conciencia y patriotismo y que su (…). Al m (…) importancia le había conducido ha (sic) practicar un detenido análisis entre las individuos dignos y patriotas de la localidad con capacidad suficiente para ocupar este cargo y que de su criterio los individuos aquí presentes crean las mas (sic) indicadas por las excelentes y especiales cualidades que cada uno parece y que convencido de ello no duda que todos y cada uno aceptaran el cargo poniendo todo el interés para el cumplimiento de tan honroso deber para beneficio de los altos intereses de nuestra Gloriosa Patria España.

Los señores concurrentes pusieron de relieve que jamás habían regateado sacrificio alguno al hartarse de servir a la Patria y menos en estos momentos que todos son necesarios aceptaron, se posicionaron de sus cargos y prometieron cumplirlo fielmente. En su consecuencia la presidencia en alta voz declaró constituida la Junta Local de Información de éste (sic) distrito tal y como sigue:

Don Eugenio Jauregui Lasa, Alcalde Presidente, nación en Alegria (sic) el 15 de Noviembre de 1878, de 59 años de edad, Tradicionalista antes y después del Movimiento, de profesión Comerciante domiciliado en la calle San Juan nº42 de esta villa.

Don Bautista Jauregui lasa, Jefe Local de F.E.T. y de las J.O.N.S., nació en Alegría el 10 de julio de 1882, de 55 años de edad, Tradicionalista, antes y después del movimiento, de profesión empleado, domiciliado en plaza España nº 65 de esta villa.

Don Andres Vazquez Gomez, vecino, nació en Laguna de Duero (Valladolid), el 4 de noviembre de 1892, de edad 25 años, de filiciación (sic) Derecha Españolista antes y tradicionalista después, de profesión Maestro Nacional y domiciliado en la Casa Consejo de esta villa.

Don Martin José Gorostidi Aguirre, nació en Orendain, el 10 de diciembre de 1884, de edad 53 años, Tradicionalista antes y después del movimiento de profesión herrero y domiciliado en ésta (sic) villa.

Por último se acordó comunicar ésta constitución a la superioridad en la forma ordenada, adquirir un libro de actas y fijar los (…) de cada semana y hora de las siete de la tarde para celebrar las sesiones ordinarias.

En este estado se dio el acto por terminado firmando los asistentes al acto que certifican.

Firmas: Eugenio Jauregui, Juan Bautista Jauregui, Andres Vazquez, Martin Jose Gorostidi"

---

[162] AUA: 419. Kaxa. 2. Zenbakia.

[163] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 419. Kaxa. 2. Zenbakia.



**“Junta Local de Información” delakoaren osaera.** (AUA).

## 4.2.2. Hezkuntza, errepresio baliabide gisara

Erregimen orok egin ohi duen bezalaxe, frankistak, haien ideologia zabaldu eta jendartean errotu ahal izateko, beste zenbait baliabideren artean, hezkuntzaz baliatu ziren. Tolosan tropa frankistak sartu ostean sortutako Gipuzkoako Junta Carlista de Guerra-k argi zuen hezkuntza tresna ezin hobea izan zitekeela, diktadura haren defendatzaile izango zen jendartea eraiki ahal izateko[164]:

> “1936ko abuztuaren 31a, Tolosa, Junta Carlista de Guerra de Guipúzcoa:
>
> ‘Mugimenduak’ hezkuntza ezinbestekotzat jotzen du Espainia berria eraikitzeko eta horren eraginez, hezkuntza, ‘mugimendukoak’ diren pertsonen mendean jarriko da. Irakasle guztiek, ‘mugimenduko’ arauei men egin beharko diete, ez eginez gero, kaleratu egingo dira. Eskola guztietan, arauak betetzen diren ala ez jakiteko inspekzioak burutuko dira:
>
> - Lehen Hezkuntzako tokiko kontseilua eratuko da, zeinetatik Fronte Popularreko kideak botako diren eta ‘mugimenduaren’ aldekoak ezarri. Derrigorrez, herriko parrokoak meza emango du eskolan.
> - Espainiar nazionalismoan eta erlijio katolikoan oinarritutako jendarte berri bat osatuko da, hezkuntza berria sustatuz. Horri hasiera 1936ko irailaren 15ean emango zaio.
> - Espainiar banderak, eskola publiko zein pribatuetako fatxada guztietan ezarri beharko dira. Gurutzea ere gela guztietan ezarriko da, bai Espainiako mapa handiak ere. Horrez gainera, erlijio katolikoarekin eta Espainiako Historiarekin erlazionatutako irudiak … eskola guztietan ezarriko dira.
> - Eskola pribatu zein publikoetan, hezkuntzak katolikoa eta espainiarra izan behar du. Katekesia, historia sakratua eta Espainiako historia derrigorrezkoak izango dira. Eskolako lanak hasi baino lehen “Aita gurea” errezatuko da. Gainera, katekesia eta historia erakusterakoan, euskaldunek bertan izan duten eragina azalduko da, eta nola lagundu izan duten Espainiaren batasunaren babesean.
> - Igandeko meza nagusira, irakasle zein ikasleek joan beharko dute.
> - Euskaraz baino ez dakiten umeei, euskaraz erakutsiko zaie, nahiz eta ahalak eta bi egingo diren hauek gaztelera ikas dezaten; baina gaztelera ulertzeko gai diren umeei, klasea gazteleraz emango zaie.
> - Manuel Jimenez Cachón, Tolosa inguruko hezkuntza inspektorea izendatzen da eta berau arduratuko da, aurrean aipatutako arauak betetzen diren ala ez begiztatzeaz.”

[164] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.



La finalidad principal del movimiento iniciado por el Ejército y las fuerzas más sanas de la nación consiste en sustituir totalmente el espíritu que inspira el organismo del Estado. Este va a ser modificado fundamentalmente, de la raíz a la cúspide, animándolo con los principios que constituyen el genio de España.

Palanca esencial para esta obra de transformación del espíritu español es la Enseñanza que, por consiguiente, ha de ser en lo sucesivo fundamentalmente católica y netamente españolista sin paliativos, sin remilgos de ninguna clase.

Las autoridades representativas de este movimiento dedicarán especialísima atención a la Enseñanza, conscientes de la decisiva importancia que ella tiene para la formación del espíritu de la nueva España. Cuantos obstáculos dificulten este sentido, claro y rotundo, que se quiere dar a la formación de las nuevas generaciones serán apartados inexorablemente. Nadie piense en claudicaciones ni en desidia sobre esta cuestión. Los maestros instructores han de incorporarse resueltamente a esta obra o serán apartados de sus cargos inmediatamente. Una persistente y rigurosa inspección se establece sobre los centros de enseñanza y ella aquilatará hasta qué punto se cumplen estas instrucciones y el grado de celo y de buena voluntad que cada maestro pone en esta labornacional.

Espero que V.E. sabrá darse cuenta de toda la importancia que esta Junta atribuye a la presente circular y que pondrá especialísimo empeño en que su contenido tenga puntual cumplimiento en ese pueblo.

1º.- Se constituirá en cada pueblo Consejo local de 1ª Enseñanza, sustituyendo las personas de significación política afecta al Frente Popular por otras adheridas al movimiento salvador de España y se dará entradaen la misma obligatoriamente al Sr. Cura Párroco de la localidad.

2º.- El día 15 de Septiembre se celebrará con la mayor solemnidad posible en las escuelas públicas la inauguración del curso escolar con asistencia de la Junta local de Instrucción procurando con la ceremonia hacer ver a los alumnos que una nueva era empieza en España inspirada en los principios de la Religión Católica y en los de un nacionalismo españolista fervoroso.

3º.- La bandera española ondeará obligatoriamente en la fachada principal de todas las escuelas y centros de enseñanza, tanto públicos como privados. El Crucifijo presidirá todos los locales destinados a las clases y habrá grandes mapas murales de España. Se procurará también que en dichos locales se prodiguen cuadros, estampas, etc. con motivos religiosos y de episodios de la Historia de España.

4º.- La enseñanza, tanto en las escuelas públicas como en las privadas, ha de ser eminentemente católica y XXXXXXX españolista. Será obligatoria la instrucción del Catecismo, de la Historia Sagrada y de la Historia de España.



Los trabajos escolares empezarán y terminarán rezando colectivamente un Padrenuestro bajo la dirección del Maestro. Este instruirá a los niños de la doctrina católica con especial empeño. Les instruirá tambien de la Historia Sagrada y de la Histroai de España, explicando a los niños con predilección las aportaciones de los vascos - y en especial de los guipuzcoanos y, más concretamente, de los hijos ilustres de cada pueblo - a la formación y a las gloriosasa gestas de la nación española, así como los beneficios que las Provincias vascongadas y especialmente Guipúzcoa han recibido de la unidad de España.

5º.- Será obligatoria la asistencia colectiva de los niños de las escuelas con sus maestros a la Misa mayor de los domingos en la Parroquia de cada pueblo.

6º.- A los niños que sólo sepan el vascuence, se les dará la enseñanza en vascuence, pero se les enseñará además con especial empeño el castellano. XXXXXXXX A los niños que puedan entender la enseñanza en castellano se les dará aquella en esta lengua.

7º.- Se designa a don Manuel Jimenez Cachón, Inspector de Enseñanza de la zona ocupada con carácter provisional, y con la misión de velar por que se cumplan puntualmente estas instrucciones tanto en los centros escolares públicos como en los de iniciativa privada.

Al comunicarle estas instrucciones me permito manifestarle que don Manuel Jimenez Cachon, visitará a Vd. para poner en ejecución de mutuo acuerdo estas decisiones.

Dios guarde a Vd. muchos años.
Tolosa, 31 de agosto de 1936.

P. LA JUNTA CARLISTA DE GUERRA DE GUIPUZCOA,

EL PRESIDENTE,

JUNTA CARLISTA DE GUERRA
DE GUIPÚZCOA
TOLOSA

Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Alegria de Oria

**Aparailu frankista, hezkuntza arautzen, 1936ko abuztuaren 31n.** (AUA).

Eskolara zihoazen alegiar haurrak, handik aurrera, agintari frankistek agindutako arauak bete behar izan zituzten. Bigarren Errepublikan zehar eskola eta erlijioa banantzea lortu bazen ere, diktadurako agintariek, erlijioa berriro ere hezkuntzan irmoki errotzea lortu zuten. Horren eraginez, alegiar haurrek, eskolara joan baino lehen, goizeko 08:00etako mezara joan behar izaten zuten[165]:

“BANDO

D. Eugenio Jáuregui Alcalde de esta Villa de Alegría de Oria,

Hago saber: Que desde el día (sic) 15 del corriente mes darán comienzo en esta Villa las clases escolares en todos los centros docentes y espera esta Alcaldía (sic) que todos los padres se den cuenta de la importancia que tiene la instrucción de sus hijos en las normas de la nueva ciudadanía y procuren matricular a sus hijos para dicho fin-.

Se hace observar que esta matrícula es obligatoria y que sin excusa ni pretesto (sic) alguno deben inscribirse todos los niños incluidos en la edad escolar, advirtiendo además a los padres la obligación de que sus hijos acudan a las clases, ya que en caso contrario se impondrán a los mismos las sanciones a que hubiere lugar.

Alegría de Oria a 10 de Septiembre de 1936.

Firma: El Alcalde Eugenio Jáuregui.

NOTA= Se ruega a los padres que el día (sic) 15 procuren mandar a sus hijos a la escuela a las 8 de la mañana para poder ir a misa y dar el mayor realce a la apertura del curso.”

Hala eta guztiz ere, deigarriena, eskola nazionaletan bertan, euskaraz ez zekiten haurrei euskaraz egin ahal izatea baimentzea izan zen. Modu horretan, euskaraz baino ez zekiten haurrak ahalik eta azkarren gazteleraz ikastea ahalbidetzen zen. Edonola ere, euskaraz mintzo ziren alegiar haurrek, hainbat zigor jaso zituzten beren ama hizkuntzan mintzatzeagatik. Horien artean, “eraztun jartzea”[166] edo erregelarekin irakasleak haurra eskuetan jotzeko zigorrak izan ziren. Euskara, deabruaren hizkuntza bihurtu zen autoritate diktatorialentzako eta, horren eraginez, etxeko eremu pribatuan eta ezkutuan erabiltzeko hizkuntza bilakatu zen. Eremu publikoan, gaztelania egunerokotasunaren jaun eta jabe egin zen eta, euskarak, erabateko bazterketa jasan zuen “Guri…euskeraz etzeon hitz eiteik, (…) beti euskeraz herrin, baño ‘hi hi! Atzetik zetorrek hoi e ta erderaz hitz ein

[165] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[166] Gelan bertan, eraztun bat egoten zen. Euskaraz mintzatzen zen umeari hura jartzen zitzaion. Horren eraginez, klase orduetan zehar, haur ezberdinen behatzetatik pasatzen zen, hauek euskara hitz egiten bazuten. Klaseak amaitzean, behatzean eraztuna zeukan haurrak, kastigua jasotzen zuen, zeina ekonomikoa zein fisikoa izan zitekeen.

berra zeok hemen e…"[167]. Askotan, euskara mingainetan zebilkitela, tropa frankistekin borrokatzen ari ziren soldaduen jantziak eskolan bertan josten zituzten. Eskolako haurrek, soldaduentzat jantziak egin eta haiek eskutitzen bidez eskerrak emanez erantzuten zieten[168].

Euskaraz mintzo ziren zenbait alegiarrek, beraien ama hizkuntza erabiltzeari utzi eta haien egunerokotasunean, gaztelania gainjarri zuten. Euskara, ez zibilizatuen hizkuntza gisan definitu eta ondorioz, euskaradun guztiak ez-zibilizatutzat hartu izanik, traumarik ere eragin zuen eta hargatik, gaztelania haien hizkuntza izatera pasatu. Egoera hau, ez zen Alegiako kasu bakandua izan, euskal lurraldeetako herri gehienetan kausitu zen.


BANDO
D. Eugenio Zauregui Alcalde de esta Villa de Alegria deOria ,
Hago saber:Que desde el dia I5 del corriente mes darán comienzo en esta Villa las clases escolares en todos los centros docentes y espera esta Alcaldia que todos los padres se den cuenta de la importancia que tiene la instrucción de sus hijos en las normas de la nueva ciudadanía y procuren matricular a sus hijos para dicho fin-.
Seh- hace observar que esta matrícula es obligatoria y que sin excusa ni pretestos alguno deben inscribirse todos los niños incluidos en la edad escolar, advirtiendo además a los padres la obligacion de que sus hijos acudan a las clases, ya que en caso contrario se impondrán a los mismos las sanciones a que hubiere lugar.
Alegria de Oria a IO de Septiembre de 1936.
El alcalde,
Eugenio Jáuregui
ALCALDIA DE LA N.V.L. VILLA DE ALEGRIA
NOTA=Se ruega a los padres que el dia I5 procuren mandar a sus hijos a la escuela a las 8 de la mañana para poder ir a misa y dar el mayor realce a la apertura del curso

**1936ko irailaren 10eko bandoa.** (AUA).


Obra en poder de esta Alcaldía, atta. comunicacion, Nº 2486, del negociado 4º, del Excmo Gobierno Civil de esta Provincia, fecha 27 del mes de Octubre p.pdo y una de cuyas partes, copiada literalmente, dice:"....se requiera a los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las losas y sustituídas las citadas inscripciones por otras en castellano".-
Y siendo V. uno de los propietarios dela tumba en la cual aparece inscripción con nombres en vascuence, requiero a V. para que con la debida urgencia sea retirada dicha placa y sustituida por otra en castellano.-
Dios guarde a V. muchos años.
Guernica y Luno 2 de Noviembre 1.949.
EL ALCALDE,

**Gernikako hilerrian, euskarazko inskripzioak debekatuta.**

## 4.2.3. Autarkia: "Junta de Abastos", errazionamendua eta estraperloa

Gerran zehar eta gerra amaitu ostean, batez ere, gosetea nagusitu zen alegiarren artean, gerra pairatu zuten gainontzeko lurraldeen gisan. Pobrezia hori amaitzea aitzakiatzat hartuta eta mundu mailako estatuek ezarritako merkataritza boikota oinarri, agintari frankistek, sistema autarkikoa martxan ezarri zuten. Autarkiaren bidez, agintari frankistek, ekonomia nazionalaren ahalik eta independentzia handiena lortu nahi izan zuten. Helburua bere horretan lortzeko, produktu nazionalen babesa eta inportazioen kontrola bultzatu zituzten.



**Emakumeak janaria banatzen, gerra osteko gose garaian.**

[167] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi: 00:02:28-00:03:04. "Euskara".
[168] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002.

Modu horretan, Alegian, industria eta merkataritza erregulatu nahi izan zituzten, "Junta de Abastos" delakoa eratuz. Hauek Alegiako zenbait denda zein baserrietan inspektore lanak bete zituzten eta, horren eraginez, multak zein denden itxiarazteak burutu zituzten. Alegiako "Junta de Abastos" delakoa, Gipuzkoako probintziako "Junta de Abastos" izenekoaren mendean egon zen eta, udal-agintari frankistek osatu zuten[169]:

## 1938ko irailaren 22a, Alegiako "JUNTA DE ABASTOS"-en osatzea

**ALKATEA**
Eugenio Jauregui Lasa

**Alegiako F.E.T. eta J.O.N.S.-eko buruzagia:**
Juan Bautista Jauregui Lasa

**Lanaren ordezkaria:**
Miguel Munduate

**Lehen alkateordea:**
Martin Jose Aguirre

**Udaltzaingoa:**
Juan Miguel Artola

**Udal-idazkaria:**
Joaquin Jauregui Lizarribar

Gerraren eraginez, zenbait industria kaltetuta suertatu ziren eta merkataritzak ere haren ondorioak jasan zituen. Era berean, inportazioen kontrolak, herritarrengan gosetea handitzea besterik ez zuen ekarri. Horri aurre egiteko, Alegian, gainontzeko lurralde frankisten gisan, "Día del Plato Único" delakoa martxan jarri zen. Ondokoa, 1936ko urriaren 30ean, Fermoso Gobernadore Generalak idatzitako legea izan zen. Horren arabera, hilabete bakoitzeko 1 eta 15 egunetan, jatetxeetan, menu erdia aterako zen arren, oso bat kobratu beharra zegoela adierazi zen. Handik sortutako soberakinak, benefizentziara bideratuak izanen ziren. Hori betetzen ez zuten alegiarrak, zerrenda beltzetan sartuak izanen ziren, "Mugimendu Nazionalaren" kontra zeudela argudiatuz.

Hori guztia burutu ahal izateko, zenbait alegiar emakumeren kolaborazioa ezinbestekoa izan zen[170]:



INSTRUCCIONES PARA LA IMPLANTACION EN ESPAÑA DEL

"DIA DEL PLATO UNICO"

Por V. E. en esa capital y los Alcaldes en sus respectivas localidades, en íntima relación con las demás Autoridades, organizaciones de derechas y personas especialmente capacitadas, se propagará y establecerá el «DIA DEL PLATO UNICO» atendiéndose, aparte de las sugerencias que su elevado celo le sugiera, a las siguientes instrucciones de carácter general:

PRIMERA. El día del «PLATO UNICO» tendrá lugar los días 1 y 15 de cada mes, siendo el 15 del próximo noviembre la primera fecha en que tendrá lugar.

SEGUNDA.—*Propaganda.* A base de la doble finalidad que cumple dicho día, de espíritu cristiano y patriótico, al proporcionar medios por un lado con qué atender a nuestros hermanos parados e indigentes, ancianidad desvalida, y orfandad abandonada, y por otro lado educar a la nueva sociedad española a que se sacrifique, prescindiendo de sus comodidades habituales, en el día que así lo exige la Patria, no cumpliendo por consiguiente sus deberes de buen patriota quien solo contribuya con su aportación económica y no con su sacrificio personal; se hará una intensa propaganda:

a) *Por Radio.*—Mediante conferencia y avisos recordatorios, tan frecuentes como sea posible, y siempre en los días anteriores a aquellos en que se haya de celebrar el «DIA DEL PLATO UNICO» y con motivo de su implantación el próximo día 15 de Noviembre los días 12, 13 y 14 del expresado mes.

Se procurará que estas radiaciones sean hechas por todas las emisoras locales y en las horas que las Autoridades consideren más convenientes.

b) Por Notas, artículos, etc., en la prensa de esa provincia sobre todo en las fechas señaladas para las radiaciones.

c) Por carteles permanentes, que por V. E. en esa capital y los Alcaldes en sus respectivas localidades harán fijar y conservar, en los escaparates de los establecimientos céntricos, sitios de reunión como casinos, cafés, bares, hoteles, etc.

d) Organizando banquetes o fiestas en el «DIA DEL PLATO UNICO», de manera especial el próximo día 15 de noviembre, fecha de su implantación, en que se coma un solo plato, abonándose el importe que según la categoría del hotel en que se verifique, se acostumbre e ingresando la diferencia entre este precio y aquel que suponga realmente el valor del cubierto en el «DIA DEL PLATO UNICO».

*Recaudación.*—Por V. E. en la capital y los Alcaldes en sus respectivas localidades, auxiliados de los elementos o Juntas que crean más convenientes al mayor éxito económico de la recaudación, se organizará ésta por la aportación:

a) De los cabezas de familias, a quienes no sólo se estimulará por los medios de propaganda ya reseñados, sino por advertencia de las autoridades que se publicarán listas negras de los malos patriotas, que debiendo hacerlo, según su modo normal de vida, no contribuya a esta empresa Nacional, llegándose en casos notorios a la imposición de multas que compensen con exceso las cantidades con que hayan dejado de contribuir.

Para el mejor éxito de la recaudación pida V. E. en la capital y los Alcaldes en sus respectivas localidades, el auxilio de un grupo de señoritas postulantes que en los días 2 y 16 de cada mes y siguientes pasen por las diversas casas para recoger las aportaciones con que cada cabeza de familia contribuya a este patriótico fin.

b) Celebrará V. E. en esa Capital y los Alcaldes en sus localidades respectivas, una reunión previa con los hoteleros de todas clases o con sus asociaciones respectivas en que fijarán el tanto por ciento que del importe de hospedajes y comidas que perciban en el «DIA DEL PLATO UNICO» deberán ingresar para los fines benéficos de dicho día. Este tanto por ciento no podrá nunca ser inferior al 25 °/o de dicho total importe de hospedajes y comidas servidas.

Para la debida vigilancia de esta recaudación, los dueños de los hoteles, restaurants, etc., al verificar el ingreso expresado presentarán declaración jurada de los huéspedes que tenían ese día y su pensión y de las comidas servidas aparte, con su importe.

Por los Agentes y Autoridades dependientes de la suya se vigilarán y controlarán dichas declaraciones y su exactitud.

Los ingresos se harán siempre mediante el oportuno recibo en que constará el nombre del donante y cantidad ingresada. A estos efectos por ese Gobierno Civil o por las Juntas Provinciales de Beneficencia se remitirán a los Alcaldes talonarios sellados y foliados, para los fines expresados. Las matrices de estos talonarios una vez agotados los recibos que comprenda, se remitirán a la Junta Provincial de Beneficencia, con un resumen de su total importe, y servirán de comprobantes de las cantidades recaudadas.

La Junta provincial de Beneficencia en la Capital y los Alcaldes previa notificación a aquélla, ingresarán la recaudación de cada mes dentro de la primera decena del siguiente.

Los ingresos se harán en la cuenta corriente que en el Banco de España y sus sucursales en provincias se abrirá a nombre de cuenta corriente de «DIA DEL PLATO UNICO» a disposición de este Gobierno General.

Además del «DIA DEL PLATO UNICO», los Gobernadores civiles estimularán las aportaciones corporativas que puedan realizarse entre los Bancos, Cámaras de la Propiedad, Compañías de ferrocarriles, naviera y demás entidades de carácter público y particular, para conseguir así una recaudación más elevada.

De esta Orden e Instrucciones dará V. E. conocimiento en el BOLETÍN OFICIAL.

Dios guarde a V. E. muchos años.

Valladolid, 30 de Octubre de 1936.—El Gobernador General, *FERMOSO* (Firmado y rubricado).—Excelentísimo Sr. Gobernador Civil de Guipúzcoa.

**Plato Único-aren instrukzioak.** (AUA).

1938ko AZAROAREN 30a

| IZEN-ABIZENAK | |
|---|---|
| ARACAMA, PAQUITA | GANZARAIN, MARIA DOLORES |
| ARRIETA, MARIA | GARMENDIA, HILARIA |
| BERAZA, JOSEFA | GIMENO, PILAR |
| BORDAZAR, LUISA | JAUREGUI GOROSTIAGA, ELOISA |
| ECHEVERRIA BERACOECHEA, MARÍA | JAUREGUI LIZARRIBAR, FELICITAS |
| GALARZA, PILAR | JAUREGUI LIZARRIBAR, IRENE |
| | JAUREGUI LIZARRIBAR, JOAQUIN (baserrietatik) |

[169] AUA: Hornidurak. A Sekzioa. 8. Negoziatua.
[170] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.



Excmo. Sr.

Adjunto tengo el honor de remitir á V. E. relación de las Señoritas recaudadoras que llevan trabajando mas de un año y voluntariamente dich servicio gratuito, de PLATO UNICO.

Señoritas

Felicitas Jauregui Lizarribar
Eloisa Jauregui Gorostiaga
Irene Jauregui Lizarribar
Pilar Galarza
Hilaria Garmendia
Maria Echeverria Beracoechea
Maria Arrieta
Luisa Mordazar
Pilar Gimeno
Maria Dolores Ganzarain
Josefa Beraza
Paquita Aracama
Joaquin Jauregui Lizarribar por los caserio

Dios guarde á V. E. muchos años.
Alegria de Oria á 30 de Noviembre de 1938.
III Año Triunfal.
El Tet. Alcalde.

**Alegiako Plato Único-aren arduradunak.** (AUA).

Hori gutxi ez eta, aipatu elikagai eskasia zela medio, oraindik ere zuotako zenbait alegiarrek gorrotoz gogoratzen duen ogi beltzaren aldia etorri zen, errazionamenduaren aldia, hain zuzen. Gosea, gerra garaian zein diktaduran zehar izan zen munstrorik gorrotagarriena bihurtu zen. Aipatu dugun sistema autarkikoaren bidez, nekazal-produktuak eta mea esportatzeaz arduratu ziren agintari frankistak, industrian inbertitu ahal izateko irabaziak lortu eta gosetearekin amaitzea helburutzat hartuta. Baina sistema autarkikoa, agintari frankistek erabilitako errepresio tresna irmoa eta disimulatua bilakatu zen.

Agintari frankistak, Merkataritza Ministerioarekin harremana zuten bakarrak ziren. Agintariek, Ministerioarekin kontaktua zuten beste kide batzuekin bat egin eta, gainontzeko herritarrek ez zituzten produktuak lortzen zituzten, hauek kanpotik ekarrita. Azken hauek, merkatu beltzean prezio oso altuetan ezartzen zituzten, populazioaren zati batek baino erosi ezin zituelarik. Gainontzeko txintxarritarrek, halabeharrez, errazionamenduaren bidez[171], Aguirre-Ormazabaldarren okindegian, "La Protectora" ekonomatoan, Maria Elizalde, Gastesi, Felipe Insausti, Filomena Iturrioz, Antonio Maria Jauregui, Eugenio Jauregui, Ceferino Lasa, Olano zein Otamendiren merkataritza guneetan haien oinarrizko produktuak jasotzen zituzten: azukrea, arroza, babarrunak, olioa, ogia…[172] Errazionamenduan oso gutxitan ematen ziren txokolatea, kafea, menbriloa edo xaboia bezalako gutiziak eta, haragia, esnea eta arrautzak, merkatu beltzeko produktu miretsienak bilakatu ziren.




**Errazionamendu boletoak.** (AUA).



Racionamiento de viveres repartido durante el año de 1.945 en pueblo considerado como industrial y para cattillas de 3ª clase.
Rosabel (polvo indefinido) ½ paquete.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Azucar............. | 5.200 | Kg. | a 5 pts |
| Aceite ............ | 7,000 | id | a 5 pts |
| Arroz ............. | 1.750 | id | a 3 pts |
| Chocolate ......... | 1.300 | id | a 10 pts |
| Pasta para sopa.... | 100 | id | a |
| Patatas ........... | 24.000 | id | de 0'90 a 1'20 pts |
| Alubias ........... | 200 | id | |
| Jabon ............. | 1.200 | id | a 4,50 pts |
| Bacalao ........... | 900 | id | a 7,60 pts |
| Harina de pan...... | 1.000 | id | |
| Café .............. | 100 | id | a 30 pts |

2 cartillas de racionamiento a 0'50 pts = 1,00 pts
Pan 200 g. por dia hasta 4 Julio y despues 150 g.

**Errazionamendua, klaseen arabera.** (Miren Ixiar Intxausti Arregik emandako dokumentua).



RESUMEN DE LOS CLIENTES QUE CORRESPONDEN A CADA COMERCIANTE

| | |
|---|---|
| Aguirre ............ | 102 |
| Economato ........... | 145 |
| Elizalde ............ | 59 |
| Castesi ............. | 53 |
| Insausti ............ | 114 |
| Iturrioz ............ | 108 |
| Jauregui Antonio Ma . | 66 |
| Jauregui Eujenio ... | 163 |
| Ceferino Lasa ...... | 142 |
| Olano ............... | 74 |
| Otamendi ............ | 90 |
| Total .... | 1124 |

**Alegiako errazionamendu merkatal-guneak.** (AUA).

[171] Errazionamendua: 1939ko maiatzean, Industria eta Merkataritza Ministerioak herritarrek zuten goseteari aurre egiteko ezarri zuen sisteman zetzan (Industria eta Merkataritza Ministerioaren Ordena, *BOE*, 137.zbk., 1939/05/17, 2691.or.).

[172] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

Errazionamendu libreta delakoak Alegiako udaletxera heldu eta bertatik, alegiar familia bakoitzari ematen zitzaizkion. Bertan, bakoitzari zenbateko elikagai kopurua zegokion zehazten zen eta, aberatsenetik pobreenetara hiru klase bereizten ziren.

Aberatsenen artean, gehienbat, herriko agintari-frankistak kokatzen ziren, hurrengoak gerran zehar tropa frankistekin bat egin zutenak ziren eta azkenak, pobreenak, errepublikazaleak izan ziren "Emate zuen liburu bat, ta eunero razionamentue izate zan ogie. Ta izate zian holakoxe (seinalatuz) torta txiki batzuk, bel-beltzak, etzeon jateik, buff … (…) Orduan ba jute ziñen tarjeta batekin ta kartille batekin (…)"[173]. Agintari frankistek, jendartea, klaseetan sailkatzea lortu zuten errazionamenduaren bidez eta, modu horretan, kontrol soziala lortu zuten, zeinak 1952ra arte iraun zuen.

Errazionamenduaren bidez eratutako kontrol soziala erabatekoa izan zen, tabakoa ere errazionatu egin baitzuten "Erretzailearen kartila" deiturikoaren bidez. Agintari frankistek sustatutako gizonaren supremazia ongi islatuta geratzen zen kartila horretan, hain zuzen, gizonezkoak baitziren haren jabetza izan zezaketen bakarrak. Agintari frankistek, emakume lirain eta txukuna eraiki nahi izan zuten eta, tabakoak itxura zikina irudikatzen zuenez, emakumeak, tabakoa erretzea debekatuta izan zuen.

Agintari frankistak gero eta aberatsago egiten joan ziren heinean, alegiar errepublikazaleek, gosete handia pairatu zuten eta horren eraginez, esan genezake, jan beharra lehenengo mailan ezarri zutela. Gisa horretara, agintari frankistek, ordura arte eginiko eskubide sozial eta politikoen aldeko mugimendu eta aldarriak isilaraztea lortu zuten. Goseak berekin bat gaixotasunak ere ekarri zituen.

Deskribatutakoa, hein handi batean, Alegiako kaletarren kasua izan zen. Baserritarrak, beti ere, arto irinezko taloak eta baserrian ekoizten zituzten beste zenbait elikagai jan ahal izan zituzten "Basarrin etzan diruik jateko nahikoa. Taloa, esnea ta ogie, patata ta dena. Diru haundik etzuen izango, baiño guk berriz ez diruik ta ez jatekoik. Gue aitte jun izandu da lanea eun guztin debalde, kilo bat irin ekartzeko etxeako. (…) Sardin zaharra, erdie bazkaltzen ta beste erdie afaltzeako. (…) Babarrunek eta izate zien. (…) Merindatzeko garaien, orduen esnea lori-lorie tzan nata ta hue bota azukre pixkatekin da ogie zunak jate zun, baiño beste batzuk ez. Taloa asko jan ber"[174]. Hala eta guztiz ere, agintari-frankistek, noizean behineko bahitzeak egiten zizkieten baserritarrei. Goseari aurre egiteko erremedioa, askotan, goseari barre egitea izan zen. Horixe dugu diktadura garaiko txiste honen egitekoa:


†

Rogad a Dios por el alma de la Excma Sra Doña
PATATA TEMPRANA Y TARDIA
Dama de honor del puchero obrero
Tubérculo de primera necesidad

que desapareció de este mundo, víctima de los mas viles manejos, despues de la Victoriosa Cruzada de Liberacion

R. I. P.

Su Director espiritual, Rvdo Padre BACALAO Misionero (Cautivo), su desconsolado esposo Don ACEITE (Residente en el Extrangero) hermanos Don ARROZ (Ausente); Don GARBANZO (desaparecido) Doña LENTEJA (desterrada) ; hermanos politicos Don JAMON (enfermo); Don PAN (enfermo grave) y demas parientes Don Azucar- Doña Carne y Don Cafe [illegible] (en paradero desconocido.

Ruegan a sus amistades la recomienden a los extraperlistas y asistan a los funerales que se celebraran en todas las Delegaciones de Abastos.-

El cadaver será conducido desde la casa mortuoria (Fiscalia de Tasas) hasta los Economatos militares donde se despide el duelo.-

El Sr. Ministro de Agricultura, concede 500 dias de indulgencias a los que en su recuerdo eleven una plegaria

Mes de Octubre el año fatal

**Patataren hileta-elizkizuna.** (Miren Ixiar Intxaustik Arregik emandako dokumentua).

[173] Testigantza: *ahotsak.eus.* Lucas Lasa Burumendi: ALE-004. "Gosea eta errazionamendua".

[174] Testigantza: *ahotsak.eus.* Lucas Lasa Burumendi: ALE-004. "Kaleko bizimodua, gose denboran".

Gosea ahalik eta txikiena izan zedin, alegiarrak, beste zenbait herrietan gertatu bezalaxe estraperloari ekin zieten "Estraperloa asko izate zan, harrapatuzkeoz, dena kendu ta kartzela eun batzutan. (…) Hamen Alegin asko eon tzan ogie. Bazeren bi-hiru emakume ta gizonezko bat, Donostia eunero ogie, trenen da, botata ta karrillen ta. Geo jun ta atzea hartu ta (…)"[175]. Azken finean, agintari-frankista aberatsek produktuak ematen zizkieten eta herritarrak, merkatu beltzean saltzeaz arduratzen ziren. Produktu haiek, normalean, kanpotik ekarritakoak izaten ziren eta, agintari-frankistek, haiek saltzeaz arduratzen ziren herritarrek baino irabazi handiagoak lortzen zituzten. Aberatsenen kasuan, haien helburu nagusia irabazi handiak lortzea zen bitartean, pobreenen kasuan, biziraupena zegoen jokoan. Kasurik gehienetan, emakumeak izan ziren horretan protagonistak, ezinbestekoa baitzuten senarra kartzelan izanik edo kasuak kasu, haien eta beren seme-alaben biziraupenerako "Gosea zan garaien estraperloa zan dena. (…) Estraperloa izan zan iriñekin ta ogieta re, badakizu"[176], irin zuria deiturikoa Nafarroatik ekartzen zuten herriko okinek, San Migeletik barrena Alegiaraino.

## 4.2.4. Soldaduak Alegian

1944ko apirilaren 23an, Alegiako herrian berriro ere, División de Montaña nº 51[177] delakoa ezarri zen eta horren eraginez, alegiar askoren etxeetan soldaduak egon ziren bizitzen.

Alegiarren etxeetan bizi izan ziren soldaduen zerrenda[178]:

- Zoila Aranguren: San Juan 91ko 2.pisuan, 3 teniente ditu.
- Aurelio Ruizek, San Juan 77ko 2.pisuan, komando bat du.
- Miguel Mendiak, San Juan 75eko 1.pisuan, bi kapitain ditu.
- San Juan 67an bizi den botikariak, ohe bat ezarri du.
- Miguel Letamendiak San Juan 67ko 2.pisuan kapitain bat du.
- Rosario Iraolak, San Juan 67ko 3.pisuan, teniente bat du.
- -- Andres Azpitartek San Juan 67ko 3.pisuan, teniente bat du.
- San Juan 67ko 4.pisuan, pisu huts bat dago eta aurrerago artileriako militarrak daude bertan.
- San Juan 50eko 1.pisuan, "cuadra de caballeria para 15" eta bi ohe, sarjentuarentzako.
- San Juan 42an Eugenio Jaureguik sarjento bat du.
- Aurelia Gaztañagak, San Juan 42ko 2.pisuan, ofizial bat du.
- Beatriz Irazustak, San Juan 61eko 2.pisuan, komando bat du.
- San Juan 61eko 2.pisuan: "3 habitaciones para seis camas, amplio para sargento ".
- General Mola ….. "Bar 'Ignacio' tiene y puede con un sargento".
- General Mola kalean, Florida etxeko lehenengo pisua altzariekin eta libre.
- General Mola kalean, Oquiñena Villan, ukuiluak mandoentzako.
- General Mola kalean, Candida Gaztañagak, ohe libreak ditu eta … (dokumentua moztuta dagoenez, ezin izan dugu zer adierazten zuen ebatzi).
- Victoriano Gorostiagak, San Juan 34ko 2.pisuan, ofizial bat du.
- San Juan 30eko 1.pisuan, altzariak dituen etxea eta inor bizi ez dena dago.
- San Juan 47an, "pueden y no quieren".
- Jenaro Galarzak, San Juan 35eko 2.pisuan, sarjentu bat du.
- Aramburu Lasatarrek, San Juan 6ko 2.pisuan, 2 sarjentu dituzte.
- F.(emakumea) Arosteguik, San Juan 6ko 1.pisuan, 3 sarjentu ditu.
- Lasa ahizpek, San Juan 5eko 2.pisuan 2 kapitain dituzte.
- Miguel Aramburuk, Avenida Navarrako 3.pisuan, sarjentu bat du.

[175] Testigantza: *ahotsak.eus.* Lucas Lasa Burumendi: ALE-004. "Estraperloa eta ogia".

[176] Testigantza: *ahotsak.eus.* Lucas Lasa Burumendi: ALE-004. "Irina".

[177] Zenbait testiguk, lehenagotik ere soldaduak herrian egon zirela argitu digute, baina data zehatza identifikatu ezin izan dugunez, ez dugu horren berri zehatza eman.

[178] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.



**Militarren kotxeak Alegian, gerra ostean.** (Ricardo Intxaustiren argazkia. Miren Ixiar Intxausti Arregik emandakoa).



**1945-1946 Ostiral Santua, soldaduekin.** (German Intxaustik ateratako argazkia).

## 4.3. ENPLEGATU PUBLIKOAK BOTATZEA

Aurreko lerroetan erreparatu ahal izan dugunez, Alegiako frankistek, instituzio publikoak erabili zituzten herritarren legitimazioa lortu ahal izateko. Instituzio publikoak legitimazio frankistaren aparailu gisan erabili ahal izateko, ezinbestekoa zitzaien, egitura haiek osatzen zituzten pertsonak ere aginte frankistaren aldekoak izatea. Horrenbestez, ez da harritzekoa, 1936ko abuztuaren 7an txintxarrien herrian tropa frankistak sartu zirenetik, udalak eskaintzen zituen postuetatik lehen garbiketak edo kaleratzeak hastea. Alegiakoa ez zen kasu isolatua izan, herriak bozkaz aukeratu zuen gobernuaren aurka estatu-kolpea eman zuten tropa frankistek, ordura arte herri errepublikarrak izan ziren eremu guztietan gauzatu zuten errepresio antolatua izan zen.

Hala beraz, Eugenio Jauregui, indar-militarren bidez ezarri zuten udal-gobernu frankistaren laguntzaz, Alegiako udal-postu publikoak betetzen zituzten errepublikazaleak[179] kanporatzeaz arduratu zen. Alegiar hauek kaleratzearen arrazoi nagusia, indar militarren bidez osatu berria zen udal-gobernu frankistaren ideologiaren aurkakoak izatea izan zen.

1936ko abuztuaren 7an, lehenik eta behin, udal-gobernu frankista, Alegiatik, jasan ahal izanen zuten errepresio frankistaren beldurrez alde egin zutenen postu-kaleratzeez arduratu zen. Haien artean ziren, Maria Echenagusia Muñagorri telefonista, Jose Artano Altuna ur-kontatzailea[180], Antonio Munduate diruzaina, Francisco Irastorza udaltzaingoa[181] eta Gregorio Oquiñena Erro albaitaria[182], zeintzuek haien postua behin-betiko galduko zuten eta ez zuten berreskuratuko diktadura osoan zehar.

Haiek ez ziren kargugabetutako bakarrak izan. Hasiera batean haien postuetan mantendu zituzten zenbait alegiar, diktadurak aurrera egin ahala, haien postuetatik kanporatu zituzten. Erabakia, 1936ko irailaren 13an Junta de Defensa Nacional delakoak egindako 108/36 delako Dekretuaren bidez hartu zuen Alegiako udal-gobernu frankistak. Honakoaren bidez, Fronte Popularrari lagundu edo haren kide izan ziren alderdi eta talde politiko guztiak, bai eta kolpista frankistei aurre egin zieten erakunde guztiak ere, legez kanpo geratu ziren. Zehazki, dekretuaren hirugarren artikuluan, “mugimenduaren” aurka egin zuen edozein funtzionario karguetatik ken zezaketela adierazten zen.

### 4.3.1. Maria Echenagusia Muñagorri

Data horretatik oso gertu, hain zuzen, dekretua onartu baino egun bat lehenago, Maria Echenagusia Muñagorri, ofizialki[183], bere telefonista kargutik kanporatu zuen Alegiako udal-frankistak. Errenteriakoa izatez, Alegian telefonista gisan urte batzuk zeramatzan. Kanporatzeko arrazoia, eremu errepublikazalean Euzkadiko Aireko Ejertzitoarentzako diru-bilketan laguntzea izan zen.


3 ENE 1948
N.º 1875
SECRETARIA

Como Instructor del expediente de revisión instruido a DOÑA MARIA ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, ex-telefonista de la Red provincial, con domicilio en la Calle de Viteri nº 27.- 2º de esa Ciudad, intereso de V.S. se remita con la mayor urgencia posible, una información comprensiva de los antecedentes político-sociales de la citada ex-funcionaria, antes, durante y después del Glorioso Movimiento Nacional, a fin de que se incorporen al referido expediente que vengo instruyendo.

Dios guarde a V.S. muchos años.
San Sebastián 30 de Diciembre de 1.947.
EL JUEZ INSTRUCTOR,

SEÑOR ALCALDE DE
RENTERIA.

Consecuente a su atto. oficio de fecha 30 del pasado mes, tengo el honor de participar a V.S. que de las averiguaciones practicadas por los Agentes de mi Autoridad, resulta que; Doña María Echenagusía Muñagorri marchó de esta localidad algunos años antes de iniciarse el Movimiento Nacional, no habiendo tenido ninguna actuación política durante su residencia en esta, regresando a la misma poco antes de la terminación de la guerra y observando buena conducta.

Durante el Movimiento, no residía en esta localidad, ignorando su actuación fuera de la misma.

Dios guarde a V.S. muchos años.
Rentería, 5 de Enero de 1.948.
El Alcalde.

Juez Instructor
SAN SEBASTIAN

**Maria Echenagusia Muñagorriren aurrekari penalak.** (Errenteriako Udal-Agiritegia).




**Por Avión Euzkadi.**

[179] Gehienetan Bigarren Errepublikarekin zerikusia izan zuten pertsonak kanporatzeaz arduratu baziren ere, batzuetan, bestelako arrazoiak (arrazoi pertsonalak, kasu) erabili zituzten alegiar funtzionarioak beren postuetatik kanporatzeko.

[180] Bilbora ihesi joandako EAJ/PNV-ko kidea.

[181] Izquierda Republicanako afiliatua. Gerran borrokatu ostean, frankistek atxilotu zuten eta, Iruñeako zein Tolosako presondegian preso eduki zuten.

[182] Hasiera batean Bilbora ihesi joana, “Gardoki 6” kaleko txaletean bizi izan zen, frankistek Bilbo mendean hartu zuten arte.

[183] Tropa frankistak, 1936ko abuztuaren 7an sartu zirenean bere postutik kendu zuten arren, data honetan, ofizialki kendu zuten telefonista postutik.

Kasu horretan ere, Alegiako agintari frankistek, telefonista postua, bere kabuz abandonatu zuela argitu zuten. Horren aurrean, Alegiako udal-artxiboan aurkitutako dokumentuetako batek, autoritate militarrek Alegiako telefono bakarra aurkitzen zen etxea prezintatu eta udaletxeari eman zietela haren kargua adierazten du[184]:

> D. Eugenio Jáuregui, Alcalde de Alegría de Oria (sic), pone en conocimiento de V. lo siguiente:
>
> Que el día (sic) en que este Ayuntamiento del movimiento salvador de ESPAÑA tomó posesión y observó el abandono del Teléfono por parte de V., procedió, por orden de la Autoridad Militar, a precintar la casa donde estaba dicho Teléfono (sic); y como la citada Autoridad Militar, al marchar, entregase el cargo del Teléfono a esta Alcaldía (sic), propuso a la Junta Carlista de Guerra el nombramiento de la que actualmente lo desempeña, el cual fue aprobado, y entonces este Ayuntamiento acordó su cese por no haberse presentado a su (sic) debido tiempo, lo cual pongo en su conocimiento.
>
> Dios guarde a V. muchos años.
>
> Alegría de Oria a 12 de septiembre de 1936.
>
> Firma: El Alcalde: Eugenio Jáuregui.
>
> Srta María Echenagusia (Telefonista).

Horrela beraz, 1936ko abuztuaren 7tik telefonoaren kargua zuen Josefa Garmendia telefonista, ofizialki txintxarrien herriko telefonista izendatu zuten. Irailaren 13tik aurrera, Garmendia eta haren laguntzailea, Mercedes Vazquez arduratu ziren Alegiako telefonoaz. Josefa Garmendiak ez zuen telefonista kargurako titulurik. Gipuzkoako Telefonoen Komisioak kargu hori betetzen utzi zion arren, azterketa eginez gero, eskubide gehiago izango zituela adierazi zion[185].

1937ko martxoan, Echanagusiak, 1936ko uztailean kobratu gabe geratu zen soldataren eskaera egin zion Gipuzkoako Telefonoen Komisioari. Hark, bere 156,25 pezetako soldata ordaintzeko ardura hartu zuen.

Gerraren eraginez, telefonoak zenbait konponketa jasan behar izan zituen. Leihoetako kristalak, esaterako, konpondu beharra egon zen, guztiz txikituta geratu baitziren[186].



D. Eugenio Jáuregui, Alcalde de Alegria de Oria, pone em conocimiento de V. lo siguiente;

Que el dia en que este Ayuntamiento del movimiento salvador de ESPAÑA tomó posesióny observó el abandono del Teléfono por parte de V., procedió, por orden de la Autoridad Militar, a precintar la casa donde estaba dicho Telefono; y como la citada Autoridad Militar, al marchar, entregase el cargo del Teléfono a esta Alcaldia, propuso a la Junta Carlista de Guerra el nombramiento de la que actualmente lo desempeña, el cual fue aprobado, y entonces este Ayuntamiento acordó su cese por no haberse presentado asu debido tiempo, lo cual pongo en su conocimiento

Dios guarde a V. muchos años.
Alegria de Oria a 12 de SEptiembre de 1936.

El Alcalde,

Srta Maria Echenagusia ( Telefonista)

**Maria Echenagusia Muñagorriren kaleratzea.** (AUA).



Excmo. Sr.

D. Eugenio Jaúregui Lasa, Alcalde de esta Villade Alegria de Oria, a V.E. con el debido respeto y consideración expone: Que en vista delpatriótico y magnífico proceder de la vecina de esta villa DÑA Josefa Garmendia Ulacia, actuando desde el mismo momento que ocuparon las tropas libertadoras este pueblo, el puesto del LOCUTORIO PUBLICO con un celo y espiritu altamente satisfactorio, sin abandonar ni un momento unservicio tam esencial en aquellos dias y en los actuales, este Ayuntamiento acuerda unanimemente,

SUPLICAR A V.E. que admita como empleada a dicha Josefa Garmendia y que siga prestando los servicios como lo ha hecho hasta estos dias. Haciendo constar al mismo tiempo que prestó durante cinco años otros servicios de ayudante en el mismo locutorio, (telefónico)

Gracia que espera obtener del magnanimo proceder de V.E. cuya vida Dios guarde muchos años.

¡VIVA ESPAÑA!

Alegria de Oria a 15 de Enero de 1937.

El Alcalde,

Excma. COMISION DE TELEFONOS DE LA DIPUTACION DE GUIPUZCOA

**Maria Echenagusia Muñagorriren kaleratzea.** (AUA).



Escrito de la Srta. Echenagusía reclamando el sueldo de julio 1.936.- Se dá lectura al escrito que dirige a la Comisión provincial por el que reclama le sean abonados sus haberes del mes de julio de 1936. El Director manifiesta que, esta señorita, actualmente destituida, atendía al servicio de la estación familiar de Alegría y que, para cuando recibió el Libramiento telefónico por el que se ordenaba el pago de dicho sueldo, la oficina de la Caja de Ahorros de Alegría había sido ya cerrada no pudiendo hacerlo efectivo.

Más tarde, una vez liberada la Capital, hizo entrega de aquel documento en las Oficinas Centrales de la Red y esta a su vez a la Contaduría, constanto, por tanto, que la Srta. Echenagusía no ha podido cobrar dicha mensualidad que alcanza a Pesetas 156,25

La Comisión acuerda informar favorablemente su pago.

**Maria Echenagusiak, bere soldataren eskaera.** (Gipuzkoako Artxibo Orokorra).

[184] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Liburuan zehar, aztertutako dokumentu guztiak, dauden gisan ezarri dira. Hau da, ikusgarri duzuen testuan, nabarmentzekoa da, garai hartan, azentuen ezarpena ez zela beharrezko arauak jarraituz egiten (hitz askotan azentuak falta baitira) eta zenbait hitz ere, behar bezala ez zirela idazten. Beraz, horrek, garaian oraindik ere, instituzioetako kide izanagatik ere, idazmena ez zutela behar bezala menperatzen adierazten digu: AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[185] GAO_JDIT_1113.

[186] *Ibidem.*

### 4.3.2. Eskola nazionaletako irakasle-kaleratzeak

Arestian azaldu dugun gisan, frankistek, indar militar bidez lortutako boterea legitimatzea nahi izan zuten. Hori lortu ahal izateko erabilitako tresnetako bat, hezkuntza izan zen. Hezkuntzaren bidez, agintari frankistak, txikienen artean, garai hartan babesten zituzten oinarriak eta ideiak errotzen saiatu ziren[187]:

"La atención que merecen los problemas de enseñanza, tan vitales para el progreso de los pueblos, quedaría esterilizada si previamente no se efectuase una labor depuradora en el personal que tiene a su cargo una misión tan importante como la pedagógica. El hecho de que durante varias décadas el Magisterio en todos sus grados y cada vez con más raras excepciones haya estado influido y casi monopolizado por ideologías e instituciones disolventes, en abierta oposición con el genio y tradición nacional, hace preciso que en los solemnes momentos porque atravesamos se lleve a cabo una revisión total y profunda en el personal de Instrucción Pública, trámite previo a una reorganización radical y definitiva de la enseñanza, extirpando así de raiz esas falsas doctrinas que con sus apóstoles han sido los principales factores de la trágica situación a que fué llevada nuestra Patria".



**Dolores "Lolita" Berroa Arestimuño Alegiako irakasle nazionala, bere ikasle izandakoek eginiko omenaldian.**
**(Miren Ixiar Intxausti Arregik emandako argazkia).**

Modu horretan, indarrez hartu zituzten instituzio berriak babestuko zituzten herritarrak sortzea zuten helburu. Horretarako, ezinbestekoa izan zen Junta de Defensa Nacional delakoak 1936ko azaroaren 8an argitaratutako 66. Dekretua, zeinak Gipuzkoako Gobernadore Zibilari, lehen hezkuntzako irakasle errepublikazaleak kanporatzeko baimena eman zion. Dolores Berroa Arestimuño irakasle nazional irundarra, agintari frankistek Alegian kaleratu zuten irakasleetako bat izan zen[188]. Miren Ixiar Intxausti Arregik lekukotza ematean adierazi zigunez, Lolita deitzen zioten haren ikasleek eta, haren ordez, denbora batez, geroago moja joan zen Etxeberria abizena zuen Tolosako maistra izan omen zuten alegiar neskatilek.

Mutikoen irakasleen kasuan, zerbait nahasia ageri zaigu. Izan ere, haien irakaslea zen Andres Vazquez delakoa, udal-gobernuko idazkari lanetan ezarri zen agintari-frankistek boterea hartu bezain laster. Horrez gain, bere irakasle funtzioa betetzen jarraitu zuen, baina zenbait kexa medio, idazkari karguko soldatari uko egin behar izan zion, haren ordez, udal-agintariek emandako eskupekoa jasotzen jarraituz[189]. Bere funtzioa betetzen jarraitu zuen arren, honakoa ere, kaleratutako irakasleen zerrendan ageri zaigu[190].

### 4.3.3. Gainontzeko udal-funtzionarioen kaleratzeak

Funtzionarioen kanporaketak erraztu ahal izateko, lege berrien eratzea ezinbestekoa suertatu zen. 1936ko abenduaren 3an, Junta Técnica del Estado delako Batzordeak, beste dekretu bat argitaratu zuen, honakoa adieraziz: "Uztailaren 18tik aurrera askatutako eremuko egoitza ofizialetik kanpo eskuduntza duen agintaritzak emandako inolako baimenik edo eginkizunik gabe egon diren, edo baimen horiek amaitutakoan aurkeztu ez diren funtzionario guztiak kargutik kenduko dira espedientea osatu gabe"[191]. Horren eraginez, Alegian, ordura arte ez kanporatzea erabaki zen zenbait funtzionario, beren karguetatik botatzea erabaki zuten:

1937ko URTARRILAREN 3ko UDALBATZAN BEREN LANPOSTUETATIK KANPORATUTAKO UDAL-LANGILE ALEGIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | ARAZTUTAKO LANPOSTUA | ZERGATIA |
|---|---|---|
| ARANGUREN MAIZ, RUFINO | Alondegiko praktikantea | "Ideologia nazionalista" |
| GOICOECHEA IRURZUN, PIO | Alondegiko langilea | "Fronte Popularraren aldekoa" |
| IRASTORZA MENDIA, PEDRO | Kale-garbitzailea | "Ideia politikoak" |
| SARASOLA ZUBELZU, MIGUEL | Baso-zaintzailea | Nazionalista |

Pio Goicochea Irurzun Alegiako alondegiko langilea eta Rufino Aranguren Maiz Alegiako alondegiko praktikantea eta musikari trebeak baino ezin izan zuten beren lanpostua berreskuratu. Hala eta guztiz ere, lehenengoa, lanean jardun arren, lau hilabetez soldata kobratu gabe egon zen eta bigarrena, hiru hilabetez aurrekoaren egoera berdinean egon zen.

[187] BOE: Burgos 1936ko azaroaren 11-27. Zenbakia.

[188] PARES: Archivo General de la Administración. Fondo: Ministerio de Educación Nacional. Serie: Expedientes de depuración de maestros nacionales. Signatura: 32/13256. Fecha de expediente: 1936-1942. Núm. de expediente:-. Tipología: depurado. Observaciones:-.

[189] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.

[190] PARES: Archivo General de la Administración. Fondo: Ministerio de Educación Nacional. Serie: Expedientes de depuración de maestros nacionales. Signatura: 32/13255. Fecha de expediente: 1936-1942. Núm. de páginas del expediente:-. Tipología: depurado. Observaciones:-.

[191] DAVILA, F. Presidencia de la Junta Técnica del Estado. Presidencia Junta de Defensa Nacional. Burgos, 1937ko martxoak 15.


Nº 5 - ALEGRIA DE ORIA

Sigue..Funcionarios sancionados:

Pio Goicoechea, Alhondiguero(S.Sdo.4 meses)-SIMP.IZQ.-

Funcionarios sancionados:

Rufino Aranguren, Practicante titular(S.sdo.3 meses)
SIMPAT. NACI.- AN,DP-1035-11

**Pio Goicoechea eta Rufino Aranguren, soldatarik gabe lanean.**
**(Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia).**

Alegiako udaletik kargugabetu zituzten langileei, 1937ko urtarrilaren 17tik aurrera, espedientea ireki zieten, bakoitzaren kargugabetze zergatia ongi zehaztu eta haren bidez, epaiketak martxan jarri ahal izateko[192]. 1939ko otsailaren 10eko Langile Publikoen Garbiketarako Legearekin, ordura arteko kargugabetzeak berretsi baino ez zituzten egin[193]:

"La liberación de nuevos territorios, y especialmente la de Barcelona, ciudad que ha sido sede del Comité rojo en estos últimos tiempos, plantea con urgente apremio el problema de la depuración de los funcionarios públicos. Es deseo del Gobierno llevar a cabo esta depuración con la máxima rapidez y dentro de normas flexibles que permitan reintegrarse rápidamente a sus puestos a aquellos funcionarios que lo merecen por sus antecedentes y conducta, y, al mismo tiempo, imponer sanciones adecuadas, según los casos, a los que incumpliendo sus deberes contribuyeron a la subversión prestaron asistencia no excusable a quienes por la violencia se apoderaron, fuera de toda norma legal, de los puestos de mando de la Administración. A este propósito obedecen las normas que el Gobierno recoge en la presente Ley para readmitir al servicio del Estado a quienes son dignos de ello y sancionar, dentro del espíritu de magnanimidad que informa toda la actuación de las Autoridades Nacionales, la conducta de aquellos funcionarios a los que alcancen las responsabilidades."

Hala eta guztiz ere, beraien postuetatik, arrazoi ideologikoak medio bota zituzten langileetako batzuk, haien postuak berreskuratzeko ahaleginak egin zituzten.

---

## AURELIA GIMENO HUARTE, BOTIKARIA

Haietako bat, Alegia, Altzo, Abaltzisketa, Amezketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendainek osatzen zuten Mankomunitate Farmazeutikoko burua zen Aurelia Gimeno Huarte botikaria izan zen. 1937ko martxoan, ideologia nazionalista zuen jendearekin kontaktua mantendu zuela aitzakiatzat hartuta, espedientea ireki zioten. Prozesua aurrera zihoan ahala, 1937ko apirilean, agintari frankistek, bere kargutik kendu zuten, eta haren ordez, Crespo Tolosa eta Pilar Gimenok hartu zuten hark 1936ko maiatzetik betetzen zeraman botikari postua. 1939ko otsailean, Gipuzkoako Osasun Korporazioak, bere postutik errurik izan gabe bota zutela berretsiz, Alegiako udala, Gimenok ordura arte jasotzerik izan ez zuen soldata ordaintzera derrigortu zuen. Hala, 1942ko martxoaren 2an, bere botikari postua berreskuratu zuen.

---

## CELESTINO OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, UDAL-IDAZKARIA

Bere lanpostua berreskuratzen saiatu zen beste alegiar bat, Celestino Olloquiegui Eneterreaga udal-idazkaria izan zen. 1918tik Alegiako udal-idazkaritza lanetan ibili ostean, 1936ko abuztuaren 7an tropa frankistak herrira sartzean, "mugimenduaren" aurkako ideologia izatea leporatuta, haren postutik kaleratu zuten. Horrez gainera, garaiko Jauregui alkate frankistak, idatz-makina, udaleko dirua eta ingresuen liburua eramatea ere leporatu zion. Olloquieguik adierazi gisan ordea, idatz-makina Altzoko bizilagun batek hartu bitartean, inon ageri ez zen dirua eta ingresuen liburua udaletxean bertan zeudela argitu zuen. Udal-frankistari eta Valladolideko Estatuko Gobernadore Generalari idatzitako eskutitzak ez ziren nahikoa izan haren errugabetasuna frogatu ahal izateko. Horrenbestez, behin-betiko bere kargua galdu zuen Olloquieguik. Haren ordez, Andres Vazquez irakasle nazionala eta Joaquin Jauregui Lizarribar izan ziren Alegiako udal-idazkari (nagusiki, tarteko beste udal-idazkari batzuk izan baziren ere); azkenekoak, denbora luzez postu hura mantentzea lortu zuelarik, arestian azaldu gisan. Horren guztiaren aurrean, 1944ko urriaren 3an, jada Olloquiegui hilda egonik (1940ko urtarrilaren 31tik), haren amak, Josefa Eneterreaga Zabalak, haren semeak 1936-1939 bitartean kobratu behar zuen soldata erreklamatu zuen. Eneterreagak ordea, agintari-frankisten ezezkoa baino ez zuen jaso. Hala eta guztiz ere, Eneterreagaren egoera kaskarra zela ikusiz, Alegiako udal-frankistak, emakumeari, egunero 3 pezeta ematea adostu zuen[194].

Lanpostu haiek guztiak ordezkatu zituztenak, erregimenaren aldeko pertsonak izan ziren. Modu horretan, erregimenaren aldeko funtzionarioekin, agintari-frankistei errazagoa egin zitzaien erregimenaren legitimazioa gauzatzea. Onuradun nagusiak, gerrako soldaduak eta hauen artean elbarriak izan ziren. Haien artean kokatzen zen aipatu Joaquin Jauregui Lizarribar, zeina Oriamendi Tertzioko soldadua izanik, udal-idazkari postua lortu zuen.

---

## JUAN BAUTISTA MORENO GALILEA

Alegiako trenbideetako langileen kargugabetze prozesua ere aztertzekoa zaigu. Gerra hasterako, Juan Bautista Moreno Galilea, Alegiako trenbideetako faktorea, herriko Fronte Popularreko Komiteko buruzagia zen. Tropa frankistak sartzerako, Alegiatik alde

[192] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.
[193] BOE: 45. zk., 1939/02/14koa, 856tik 859 arteko orriak.
[194] AUA: 422. Kaxa. 2. Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.

egin zuen haren familiarekin batera, eta frontean miliziano jardun zuen Izquierda Republicana-ko afiliatua izanik, harik eta, tropa frankistek atxilotu zuten arte. 1937ko abenduaren 18an fusilatu eta Ciriego-ko (Kantabria) hilerrian hilobiratu zuten. Haren ordez, lehenagotik Nafarroako Milagro herrian zein Zumarragan faktore izan zen Eugenio Santos Giménez ezarri zuten Alegiako faktore gisan. Azken horri ere, Bigarren Errepublikan zehar UGT-koa izan eta Zumarragan 1936ko uztailaren 27an gertatutako trenaren deskarrilamenduaren errudun izatea leporatu zioten. Alegiara etorri eta Falangean afiliatu zen arren, mezetara ez zela joaten adierazi zuten, bai eta, Alegiako ezkertiar zein nazionalistekin (Ceferino Lasa Iraragorri zein Jose Maria Tolosa kasu), harreman ona mantendu zuela ere[195].



Tengo el honor de pûner en conocimiento V.L.
y atendiendo al requerimiento que me hace respectoa al Factor de esta Estación D. EUGENIO SANTOS, debo de contestar lo siguiente.
En relación con su conducta anterior del Movimiento, tenemos referencias del pueblo de MILAGROS (Navarra) en nos han dicho verbalmente que hizo una labor verdaderamente izquierdista en union de elementos comunistas. Tambien existe un certificado diciendo que era irreligioso y que convivia con los comunistas de aquella localidad.
Durante el dominio rojo, estaba de factor en Zumárraga y asi mismo fue elemento preponderante del Frente Popular actuando activamente y en hechos de sabotaje en la misma Estación de Zumárraga.
Adjunto copias de los informes que emitieron el Jefe Sr. Val y el vecino de Zumarraga Sr. Dorronsoro.
Contesto a las preguntas que se ha dignado hacerme por su oficio Nú 314 de esas Jefatura de 13 de Mayo de 1937, sobre la actuacion del factor Eugenio Santos en la estación de Zumarraga durante la dominación roja.
1ª pregunta.- Se ofreció al Frente Popular.
En una reunión en que fuimos llamados todos los ferroviarios por el Frente Popular y citados en el Fronton de Villareal, contestando a cierta indicación que hizo uno de los miembros de dicho frente, el aludido Eugenio Santos, manifestó en público y como rechazando la interpelación que él desde el primer dia se había puesto á disposición de dicho F.P. y que lo podia acreditar.
2ª pregunta.- Si perteneció a la guardia roja ferroviaria.
En la misma reunión que cito anteriormente, diero a conocer la obligación que tenian los ferroviarios de alistarse en las llamadas Milicias ferroviarias ó bien servicios auxiliares y de lo cual creo que el citado Sr. Santos debió alistarse, toda vez que hizo guardia en la Estación con otros empleados en los turnos que les designaban, en cuanto armas desconozco las llevase o por lo menos no se la ví.
3ª pregunta.- Si se hallaba de servicio cuando fueron descarrilados los vagones
En la madrugada del dia 27 de Julio de 1936 fueron llevados con la máquina-1357 de maniobras los vagones D= 2195-2928 y 21036 de Zumarraga al kilómetro 556 entre Brincola y Otzaurte, siendo descarrilados como tambien la máquina, me parecerecordar se encontraba de servicio el Sr. Santos, para mayor seguridad puede confrontarse libro de entrega de servicio, trenes ó telegráfico.
4ª pregunta.- Si despues de la entrada de las fuerza Nacionales la clase de servicio que prestó y si me amenazó con detenerme.
Organizando dè momento con poco personal de que se disponia, encomendé á 1 factores autorizados del servicio de estadística además del suyo propio(exist poca circulación). El citado que Ud. pregunta dejó de cumplimentar algo el servicio(0000 de estadística, por lo que se le recomendó dos ó tres veces al pro tiempo noté en él algo de apatia por el servicio( bien por su temperamento ó bien por la emoción o comentarios de lo sucedido) y en vista de ello le llamé la atención estando próximo el alferez Sr. Lira manifestándole prestase aten y coayuvara al mucho trabajo que teníamos, contestándome Santos que yó no er quien 0000 para llamarme la atención á la que indiqué que allí no estaba con-



con--caracter militar(vestia uniforme Alferez ferrocarrilés) sino como ferroviario, que para ser solamente Militar debia de solicitarlo á la Superioridad, alzando la voz, se violentó y una vez llegados al gabinete telefónico, amenazó con detenerme si él queria e interviniendo para convencerlo de su error, el empleado de D. Patricio Echeverria, Sr. Hernandez que tenia establecida una oficina en la estación.
Es cuanto puedo informar á Ud, como interesa, no recordando si existe agun detalle más sobre el particular.-Dios guarde á Ud, muchos años.-El Jefe suplentario. Vicente del Val.-(Firmado y rubricado)
Fuera yá de Zumarraga y destinado a este pueblo de Alegria de Oria, se enchufó y se acogió con mucho disimulo a la Falage, sin que las autoridades locales supier en aquellos momentos de su actuación en el Movimiento.
Pero cierto tiempo despues, observamos como se reunia con elementos destacados izquierdistas y separatistas del pueblo y que fueron condenados por sus actuaciones en contra del ideario del Movimiento.
Por ejemplo: Fué compañero inseparable de D. Ceferino Lasa, izquierdista, que fue Alcalde en tiempos de la República, hasta que fue condenado á 6 años de prisión.
Compañero tambien de José María Tolosa, separatista, que fué Presidente del Batzoqui y multado por las autoridades en 10.000 pesetas, etc.etc.
Y otros muchos rojos y separatistas.
Ha llegado a tal extremo su osadia y descaro, que todo el pueblo, ecepto rojos y separatistas, estan indignados con este factor. La gente no quiere despachar en las facturaciones cuando le toca en guardia.
Dios guarde á V.E. muchos años.
Alegria de Oria á 10 de Junio de 1940.
El Jefe Local.

**Eugenio Santos Giménez faktorearen salaketa.** (AUA).

## MIKELETEAK

Azkenik, mikeleteen kanporatzeari buruz hitz egitea dagokigu. 1839an, Gipuzkoako Aldundiak, euskal lurraldeetako Lehen Karlistaldia amaitu ostean eratu zuen *Celadores de Protección y Seguridad Pública* izenarekin. 1844an Mikelete izena hartu zuten, zeina, Lehen Karlistaldian boluntarioki *txapel gorri* (karlistak) zein *txapel zuri* (liberalak) gisan ibili ziren 100 gizonezkok osatu zuten. Urteak igaro ahala, geroz eta mikelete gehiago egon ziren. Gipuzkoako Aldundiaren mende zegoen polizia zen, segurtasun publikoaz arduratzen zen eta horrenbestez, eskumen guztiak Gipuzkoako Aldundiari zegozkion. Horrek, estatu espainiarreko gobernuarekin zenbait talka egitea eragin zion. Hala eta guztiz ere, XIX. mende osoan zehar irautea lortu zuten.

Gerra Zibila hastean, mikeleteak, lurraldea ondo ezagutu eta suzko armak ongi erabiltzen zekitenez, haietako asko, goi-karguak eta milizianoen instrukzioak egiteaz arduratu ziren. Behin Eusko Gudarostea, 1936ko urrian sortuta, haietako asko, bertako batailoietan zerrendatu ziren. Horren eraginez, kolpistak Bilbora sartu zirenean, bertan zeuden mikeleteak preso hartu eta Arriaga Antzokian inprobisatutako kartzelan eduki zituzten. Atxilotutako 126 mikeleteei deklarazioak egin ostean, batzuei, gehienetan goi-kargu eta instrukzioetan parte hartu zuten 16 mikeleteei, Gerra-Kontseiluak egin zizkieten. Gainontzekoei, haien aginduetara ibili izana leporatu eta horrenbestez ez zituzten epaitu. Atxilotu haien guztien artean, bazen alegiarrik, Fernando Berasategui Gorrochategui, Miguel Beraza Garayalde eta Ignacio Antonio Zabala Atin.



**Ignacio Antonio Zabala Atin mikelete, gerra baino lehen.**
(Maria Rosario Zabala Zabalak emandako argazkia).

Haietatik, Miguel Beraza Garayalde baino ez zuten epaitu, geroago errepresio frankista, haren kartzeletan sufritu behar izan zuelarik. Jose (Eulalio) Azpeitia Orbegozo mikeleteari, Gerra-Kontseilua egin zioten eta horren ostean, absolbitu egin zuten. Aipatutako guztiak eta Segundo Olañeta Gaztañaga mikeletea, 1936ko azaroaren 26an beren postutik kanporatu egin zituzten. Horren guztiaren eraginez, 1937ko abuztuaren 25ean argitaratutako dekretu baten bidez, agintari kolpistek mikeleteak desegin zituzten.

[195] AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia.

## 4.3.4. Behin-betiko beren karguetatik kaleratutako alegiarren zerrenda

| KARGUGABETUAK | | KARGUGABETUAK ORDEZKATU ZITUZTENAK | |
|---|---|---|---|
| **IZEN-ABIZENAK** | **KARGUA** | **IZEN-ABIZENAK** | **KARGUA** |
| - | - | **ARANZASTI, MATIAS (ez zuten bere kargutik bota)** | Hobiratzaile |
| **ARTANO ALTUNA, JOSE** | Ur-kontatzailea | **INCHAUSTI JAUREGUI, EUGENIO** | Ur-kontatzailea (tradizionalista) |
| **AZPEITIA ORBEGOZO, JOSE (EULALIO)** | Mikeletea | - | - |
| **BERASATEGUI GORROCHATEGUI, FERNANDO** | Mikeletea | - | - |
| **BERAZA GARAYALDE, MIGUEL** | Mikeletea | - | - |
| **ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, MARIA** | Telefonista | **GARMENDIA ULACIA, JOSEFA**<br>**VAZQUEZ, M. MERCEDES (laguntzailea)** | Telefonista |
| **GOICOECHEA LASA, EUGENIO** | Bidezain | | |
| **IRASTORZA, FRANCISCO** | Udaltzaingoa | **ARTOLA, MIGUEL** | Udaltzaingoa (tradizionalista) |
| **IRASTORZA MENDIA, PEDRO** | Kale-garbitzailea | **SARASOLA, JOAQUIN** | Kale-garbitzailea |
| **MORENO GALILEA, JUAN BAUTISTA** | Trenbideetako faktorea | **SANTOS GIMÉNEZ, EUGENIO** | Trenbideetako faktorea |
| **MUNDUATE URDAMPILLETA, ANTONIO** | Diruzaina | **URTEAGA, FRANCISCO** | Diruzaina (karlista) |
| **OLAÑETA GAZTAÑAGA, SEGUNDO** | Mikeletea | - | - |
| **OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, CELESTINO** | Udal-idazkaria | **VAZQUEZ GOMEZ, ANDRES**<br>**JAUREGUI LIZARRIBAR, JOAQUÍN** | Udal-idazkaria |
| **OQUIÑENA ERRO, GREGORIO** | Albaitaria | **MUNITA GONZÁLEZ, GREGORIO** | Albaitaria |
| **SARASOLA, MIGUEL** | Baso-zaintzailea | - | - |
| - | - | **GOROSTIAGA SASIAIN, ESTEBAN** | Medikua (tradizionalista) |
| **ZABALA ATIN, IGNACIO ANTONIO** | Mikeletea | - | - |


AYUNTAMIENTO DE ALEGRIA DE ORIA — PROVINCIA DE GUIPUZCOA

RELACION DE LOS POSTERIORES AL I8 DE JULIO

D. ANDRES VAZQUEZ GOMEZ, Secretario Interino, no pertenecia a ningún partido politico, pero siempre votó a los tradicionalistas con quienes simpatizaba, y hoy está afiliado al partido Carlista.

D. FRANCISCO URTEAGA, Tesorero Municipal Interino, de filiación Carlista

D. GREGORIO MUNITA, Veterinario interino, destituido desde hoy, pero que continuará hasta que se provea la plaza que se anunciará inmediatamente. Es Izquierdista.

D. EUGENIO INSAUSTI JAUREGUI, Revisos de aguas interino? Tradicionalista.

D. JUAN MIGUEL ARTOLA, Alguacil interino, tradicionalista.

D. ESTEBAN GOROSTIAGA SASIAIN, médico titular propietario, simpatizante del tradicionalismo a quien siempre votó.

D. RUFINO ARANGUREN MAIZ, Practicante destituido desde hoy por simpatizante nacionalista, pero que continuará interinamente hasta que se encuentre otro practicante

PIB GOICOECHEA IRURZUN, Alhondiguero destituido desde hoy por simpatizante de izquierdismo o Republicano Radical, pero que continuará algún tiempo hasta que se encuentre una persona que pueda encargarse de la Alhondiga y aprender la contabilidad.

Pedro Irastorza Mendia?, Barrendero destituido desde hoy por simpatizante con los izquierdas, pero que o

MIGUEL SARASOLA, Guarda Municipal destituido desde hoy por Nacionalist

MATIAS ARANZASTI, enterrador, anciano sin politica, catolico.

Alegria de Oria a 22 de Diciembre de I936.

El Alcalde,

**Tropa frankistak sartu ostean, udal-karguetan postua lortu zuten alegiarrak.** (AUA).

## 4.4. ERREPRESIO EKONOMIKOA

Lanpostuak galtzeaz gain, zenbait alegiarrek haien ondasunak ere galdu zituzten agintari frankisten bestelako ideologia izateagatik. Beste zenbait herrietan egin zuten gisan, agintari frankistek, Bigarren Errepublikaren alde ezarri ziren zenbait alegiarren etxe, lur-sail zein ondasunen konfiskatze edo bahitzeak burutu zituzten. Hasiera batean, honakoa gauzatzeaz Junta Carlista de Guerra delakoa arduratu bazen ere, laster instituzioetako aparailuetatik abiatu zituzten aipatu konfiskatzeak. Hain zuzen, 1937ko urtarriletik aurrera, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintziala (CPIB) eratzean, agintari frankistek, errepresio ekonomikoa egonkortu egin zuten. Azken hau, Batzorde Zentralaren filiala zen, Junta de Defensa Nacional delakoaren Batzorde Teknikoak osatutakoa. Haren egiteko nagusia, 1936ko irailaren 13ko 108. Dekretua betetzea zen, zeinak altxamenduaren kontrako alderdi zein pertsonenak ziren ondasun guztiak konfiskatu behar zirela berresten zuen. Aipatutako ondasun-bahitzeak administratzeaz, Alegiako udal-idazkari gisan izendatu zuten Joaquin Jauregui Lizarribar arduratu zen.

### 4.4.1. Euskal klero alegiarra, errepresio ekonomikoaren lekuko

Bigarren Errepublikaren aldeko hautua egin zuen euskal kleroak, diktadura frankistaren errepresioa jasan behar izan zuen. Haietako batzuk, tribunal frankistek epaitu zituzten bitartean, beste batzuk, erbesteratu beharra izan zuten. Fusilaturik ere egon zen euskal kleroaren baitan, haietan esanguratsuenetako bat, Jose Ariztimuño "Aitzol" apaiz nazionalista izan zen, 1936ko urriaren 17an, Ondarretako kartzelan torturatu ostean, Hernaniko hilerrian frankistek fusilatua.

Alegian ere, Bigarren Errepublikan zehar, euskal klero nazionalista present izan zen eta, horren eraginez, diktadura frankistaren errepresioa jasan behar izan zuen: erbestea, ondasunen konfiskatzea …

ALEGIAKO EUSKAL KLERO NAZIONALISTA

| IZEN-ABIZENAK | EKINTZA POLITIKOA | ERREPRESIO-MOTA |
|---|---|---|
| **ERCILLA ECHEVERRIA, JUAN** | EAJ/PNV-ko afiliatua // Kaperau: Loiola Eusko Gudarostea-18 // Eusko Gudarosteko Osasun Militarreko partaide | Erbestea: Huesca eta Frantzia // Desherriratzea: Olivenza (Badajoz) |
| **GARAYALDE URRETAVIZCAYA, JOSE** | Ideia nazionalisten propagandista | Erbestea: Frantzia // Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak: errudun, 500 pezeta ordaindu estatu-frankistari |
| **IRAOLA IPARRAGUIRRE, JOSE EUSEBIO** | Kaperau frontean | Desherriratzea: Maruri-Jatabe (Bizkaia), Antiguo (Donostia), Zaragoza (Aragoi), Mataró (Katalunia) eta Hernani |
| **MONTOYA ARIZMENDI, PIO** | Nazionalista | Erbestea: Frantzia // Ondasunen Konfiskatzea |
| **MUGICA GARAYALDE, SERAPIO** | - | - |
| **OYARZABAL MURGUIONDO, ANTONIO** | - | - |
| **TOLOSA ZUDAIRE, JOAQUIN**[196] | Nazionalista | Desherriratzea: Aramatik, Bergarako San Prudentzio auzora |

Hala eta guztiz ere, Alegian guztiak ez ziren euskal klero nazionalistara batu. Hori dugu esaterako, diktaduran zehar, herriko parrokoa izan zen Julian Ayestaran kasua. Baita Martin Sagastume Berbilen kasua ere, zeina erreketeekin kaperau gisan joan zen gerrara. Denbora batez, Zaragozako Gurutze Gorriko Ospitale Militarrean egon zen laguntza-lanak betetzen.


PÁGINA 7550 BOLETIN OFICIAL DEL ESTADO.—27 Mayo 1938

**Martin Sagastume kaperau erreketea.**
**(BOE, 1938ko maiatzaren 27a).**

[196] ARRUABARRENA GOIKOETXEA, A. 2005. *Arama: apunte historiko eta etnografikoak.* Elkarlanean: Donostia.

**Maria Angeles eta Pio Montoya Arizmendi**

Aurreko taulan erreparatu ahal izan dugunez, Pio Montoya Arizmendi, bere ideia nazionalistagatik, diktadura frankistak errepresioa eragin zion apaiz alegiarretako bat izan zen. Hura ordea, ez zen bere familian izan zen errepresaliatu bakarra izan eta beraz, segidan, haien historia laburra azalduko dizuegu.

Maria Angeles eta Pio Montoya Arizmendi, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialaren (CPIB) ondorioak jasan zituzten alegiar herritarretako bi izan ziren. Maria Angeles eta Pio anai-arrebak, tradizio erlijioso handia zuen familia batetik zetozen. Euskal kulturaren babespean hezi ziren alegiar familia aberatseko kideak izan ziren. Maria Angeles katekesia emateaz arduratzen zen bitartean, Pio, 1927rako apaiz ordenatu zen[197]. Bigarren Errepublikan zehar, asko izan ziren, katekesia zein musika ikasketak burutu ahal izateko Montoyatarren San Juan Kaleko etxe esanguratsura hurbildu ziren alegiar haurrak. Pakita Artola Egiburuk bere lekukotzan argitzen duenez[198], doktrina, Maria Angeles Montoyak alegiar haurrei euskara “berrian” irakasten zien. Bitartean, bere anaia Pio Montoyak, Alegiako koruko zuzendaria zenak, alegiar txikienei solfeoa irakasten zien, koruan parte hartzeko aukera ere emanez. Hark musikarekiko zuen harremanak, Alegiako kaleetatik urrun ere aurkitu zuen lekurik, hain zuzen, Francisco Escuderori, 1967an, Bilbon estreinatu zuen *Zigor* opera sortzen lagundu ziolarik.

Gaztea zelarik, Piok, Comillaseko Unibertsitate Pontifizean ikasi zuen eta bertan Jose Ariztimuño Olaso “Aitzol” tolosarraren lagun handia egin zen. Euskal kulturaren garrantziaz ohartu eta haren babeserako joera ere hartu zuen. Aitzolekin izugarrizko laguntasuna eginda, berau izan zen 1930eko ekainaren 1ean Aitzolen izenpean argitaratu zen *El Día* egunkaria finantzatu zuena. Garai hartan, oso ohikoa zen, Montoya, Aitzol, Leizaola, Telesforo Monzon … Altzo aldean berriketaldi luzeak egiten ikustea. Haien arteko laguntasuna, gerra hasi bezain laster ere mantendu zen, 1936ko irailaren 11n, Aitzolek Belloch-eko monasteriotik Pio Montoyari idatzi zion gutun[199] honetan ikus genezakeenez:

“(…) te agradeceré que, si te enteras de las negociaciones que se llevan a cabo entre carlistas y nacionalistas para llegar a un acuerdo, me escribas cuatro palabras. Tú, que puedes influir sobre Ziaurriz -entonces Presidente del Euzkadi Buru Batzar y pariente mío-, haz lo posible para que se pueda llegar a una inteligencia, porque, si no, me temo por la suerte de nuestros jóvenes mendigoizales. Espero que se pueda aminorar en alto grado esta catástrofe si ahora se sabe llevar una labor inteligente; ésta es mi preocupación desde que, a los pocos días de la revolución militar, me convencí de que el triunfo de los militares era indiscutible. Proyecté entonces hacer las paces, más no fueron bien vistos estos primeros pasos. Ahora, sin embargo, es el momento propicio; tú puedes hacer mucho en este sentido (…)”

Iparraldeko euskal nazionalistekin izan zuen orduan ere Montoyak elkarrizketarik. Horien artean suertatu zen Eugène Goyheneche, zeinak zenbait mitin eman zituen euskal aberriaren eta euskal nortasunaren mantentzearen alde.



**Pio Montoya eskuinean, “Zigor” opera sortzen ari zelarik.**

[197] MARTÍNEZ SÁNCHEZ, S. 2007. Mons, Antoniutti y el clero nacionalista vasco (julio-octubre de 1937). *Sancho el Sabio: Revista de cultura e investigación vasca,* 27: 61.or.

[198] Testigantza: ahotsak.eus. Pakita Artola Egiburu: ALE-002. “Doktrina asko ikasi zuen, katekista ona zutelako”.

[199] IBARZABAL, E. 1978. *50 años de nacionalismo vasco 1928-1978: (a través de sus protagonistas).* Ediciones Vascas: Bilbo.

* Hala eta guztiz ere, Aitzolek, eskutitza idatzi eta, Eusko Jaurlaritza egituratzerako, hurrengo hilaren 15erako, Bilbora itzuli nahi izan zuen, bere ideiak euskal gobernu berriaren pean babestera. Erbestetik Bilborako bidean zela, egun horretan bertan, Galerna itsasontzia, frankistek hartu eta Aitzol atxilotu zuten. Ondarretako kartzelan torturatu ostean, 1936ko urriaren 17an, frankistek, Hernaniko hilerrian fusilatu zuten.

1936ko gerra hastean, hark eta haren arreba Maria Angelesek erbestera alde egin beharra izan zuten, frankisten errepresioaren beldurrez. Euskal kleroa, estatu espainiarreko kleroaren multzo handienarekin gertatu ez bezala, Bigarren Errepublikaren alde posizionatu zen. Arrazoia garbia zen, euskal kleroaren gehiengoa, nazionalista zen eta beraz, euskal lurraldeen autonomia handiagoa eskuratzeko, errepublikak, monarkiak eman nahi izan ez ziona emango ziola uste zuen. Bigarren Errepublikan zehar eta gerra hastean, euskal nazionalismoaren babesean eginiko lanarengatik, Montoyatarrek ez zuten erbestera joatea beste irtenbiderik izan.

Lehendabizi, Pio Montoya, Belloch-eko monasterioan egon zen bizitzen eta haren ostean, gainontzeko urteak, Kanbon egin zituen, zeinetan bost urte, Mateo Mugica Gasteizko apezpikuarekin partekatu zituen[200]. Bitartean, Ingalaterra, Belgika eta Frantzian erbesteratuta zeuden apaizak erlazioa mantendu ahal izateko Parisen argitaratutako “Anayak” aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, 1938an.

Horren guztiaren eraginez, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak (CPIB), Alegian zituzten zenbait ondasun bahitu zizkieten Montoya anai-arrebei. 1938ko urtarrilaren 13rako, Eugenio Jauregui Lasa alkate frankistak eta Trinidad Tolosak sinatutako dokumentu baten bidez, Montoyatarren ondasun guztiak[201], agintari frankisten eskuetan geratu ziren:

“Yltre. Sr.

Adjunto remito a V. E. las comunicaciones firmadas y cumplimentadas por los interesados D. Eugenio Jáuregui Lasa, y Dª. Trinidad Olano, los Srs. Montoyas Pío y Mª. Ángeles (sic) se encuentran en Francia huidos cuando el Glorioso Alzamiento Español. Todos estos terrenos de los Hnos. Montoyas están incautados.

Dios guarde a V. E. muchos años.

Alegría de Oria a 13 de Mayo de 1938.

II Año Triunfal.

El Secretario. Act.

Yltre. Sr. Ingeniero Jefe de minas de Guipúzcoa-Alava-Navarra.

San Sebastián.”

Montoyatarrei, 22. Zenbakiko espedientea irekiz, honako ondasunak eta segidan doan argazkian agertzen diren ondasunak kendu zizkieten[202]:

- San Juan kaleko 47 zenbakia, Lopeteguinea deiturikoa
- Lursail partzela Jauregui-Celayeta ibarrean
- Alegiako ibarrean kokatutako lursaila
- Beguiristain-aldea deituriko lursaila
- Zabaltequi-aldea deituriko gaztainondo lursaila
- Jauregui-Celayeta ibarreko lursaila eta bertan kokatutako lursaila
- Aurreko ibarrean kokatutako lursail partzela
- Aurreko ibarrean kokatutako lursail zatia
- “Mitad indivisa’ de un trozo de terreno en la misma vega”
- Izenik gabeko lursaila Alegian (…)


PRIMERA RELACION DE BIENES INMUEBLES INCAUTADOS EN EL

TERMINO MUNICIPAL DE ALEGRIA DE ORIA.

Expediente nº 22.- D. Pio y Doña Maria de los Angeles Montoya.

Casa llamada Lopeteguinea nº 47 de la calle de San Juan.

Parcela de terreno en la vega de Jauregui-celayeta.

Terreno situado en la vega de Alegria de Oria.

Terreno llamado Beguiristain-aldea.

Terreno castañal llamado Zabaltegui-aldea.

Terreno en la vega de Jauregui-celayeta.

Terreno situado en la misma vega.

Parcela de terreno en la misma vega.

Porción de terreno en la misma vega.

Mitad indivisa de un trozo de terreno en la misma vega.

Terreno sin nombre en Alegria de Oria.

SIN VALORAR. LIBRES DE CARGAS.

Casa llamada Arosteguinea mayor nº 1 en la calle de San Juan.

Casa llamada Aristeguinea menor nº 3 de la calle de San Juan.

Terreno llamado Goico soroa en Alegria de Oria.

Terreno sembradio llamado Goico-soro-juzka en Alegria de Oria.

Terreno llamado Calebarrena en Alegria de Oria.

Terreno llamado Ellori-aldapa en Alegria de Oria.

Terreno llamado Elorri-aldapa en Alegria de Oria.

**M. Angeles eta Pio Montoya Arizmendiren ondasunen bahitzea.** **(AUA).**

200 HARANBURU ALTUNA, L. 2016. *El crepúsculo de Dios: Historia cultural del Cristianismo en Vasconia.* Atxular Atea S. L.: Bizkaia.

201 Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin: AUA: 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

202 AUA: 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

1947an[203], haren laguna zen Gasteizko barrutiko apezpiku Mateo Mugicaren aberriratzea lortu zuen Piok eta, urtebete beranduago, euskal kleroko beste kide batzuekin batera, klandestinitatean, *Egiz* aldizkaria sortu zuen.

1953an, urte esanguratsua izan zen Pio Montoyarentzat. Estatu frantsesean, bi haur, Gérald eta Robert izenekoak, beren guraso juduetatik bananduak izan eta eliza katolikoaren mendean geratu ziren. Bi haurrek, gurasoak Auschwitz-eko kontzentrazio eremuan galdu zituzten. Horren eraginez, Zelanda Berrian zein Israelen zituzten familiarrei zegokien haien zaintza. Baina haurrak desagertu egin ziren eta estatu frantses zein espainiarreko kolegio katoliko ezberdinetan barrena lekualdatu zituzten. Francok, bi haurren eskumena, etorkizunean, estatu frantsesari mehatxu egiteko arma gisa baliatu nahi izan zuen. Bitartean, Gérald, Pio Montoyak bere Alegiako etxean babestuta izan zuen eta Robert berriz, Montoyaren lagun mina zen Patxi Arruti Urrestarazuren Tolosako etxean egon zen. Hala, laster, apaiz euskaldun nazionalistek, bi haurrak, Israelen zuten familiara eramatea lortu zuten.

Hura ez zen euskal nortasunaren eta eskubideen alde Montoyak egin zuen egiteko bakarra izan. Hain zuzen, 1960ko maiatzaren 30ean, Montoya, beste 338 apaizekin batera, euskal lurraldeetan diktadura frankista kausitzen ari zen errepresioaz jaramontzeko “339en Eskutitza”-ren egileetako bat izan zen.



**Pio Montoya -eskuinetik hasita lehena-. Ezker. 3, Pepe Izaguirre; 4 Doroteo Ziaurriz; 5 Enbeita bertsolaria; 8 Labayen; 9 Isaac Lopez.** **(IBARZABAL, E. 1978. 50 años de nacionalismo vasco 1928-1978: (a través de sus protagonistas). Ediciones Vascas: Bilbo).**

Alegiar herritarren artean kuttunak izan ziren bai, Maria Angeles eta baita Pio ere, horregatik, 1996ko uztailaren 16an, azkenaren izena daraman enparantza inauguratu zuten.

Montoyatarrez gain, izan zen Alegian, ondasunak bahitu zizkietenik ere[204]:




**On Pio Montoya Enparantza.**

[203] Pio Montoya Arizmendi, data horretarako, jada euskal lurraldeetara itzulita zegoen.

[204] AUA: 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

## 4.4.2. Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak (CPIB) Alegian eginiko ondasunen-bahiketak

| IZEN-ABIZENAK | ONDASUN BAHITUA |
|---|---|
| **ARTANO ALTUNA, JOSE** | "Echeandia" etxea, San Juan 16an kokatuta // "Echechiqui" etxea, San Juan 33an kokatuta |
| **GALARRAGA GOICOECHEA, JESUS** | Ondasun higiezinak |
| **GUTIÉRREZ LLORENTE, DAVID** | Ondasun higiezinak |
| **ITURRIOZ MURUA, FILOMENA** | "Bideberrieta" deituriko etxea, errepidearen eta "Echeandia" etxearen artean kokatuta |
| **LASA IRARAGORRI, CEFERINO** | "Lasanea" etxea, San Juan kalean kokatuta // "Erretorre-echezarra", baratzearekin, San Juan kalean |
| **LASQUIBAR LARRETA, JULIA** | Olaechea baserria (Madrid-sagasti, Goicosoroa deitutako lursaila; Olaldeco lursaila) // Tolosako San Francisco kalean zuten Lasquibar familiaren etxea, Sección Femenina-ren asoziazio falangistaren sede bilakatu zuten frankistek |
| **OQUIÑENA ERRO, GREGORIO** | Villa Pilar delako etxea (Alegia) // Jauregui-Celayetako lursail zatia (Alegia) // Lursail partzela trapezoidea (Alegia) // Villa Vicenta delakoa San Juan kalean (Alegia) |
| **OTAMENDI OTAMENDI, JUAN BAUTISTA** | "Simon Basoa" deituriko lur-saila // "Arterreca" deituriko belardia |
| **SARASOLA, IGNACIA** | 40 lursail area |

Errepublikarrek zein tropa frankistek izan zuten arazo larrienetarikoa, arestian aipatu gisan, gerra egin ahal izateko armen eta garraioen falta izan zen. Horri aurre egiteko, Alegian, tropa frankistak sartu eta ia urtebetera, 1937ko urtarrilean, kotxeen zein motoen konfiskatzea martxan jarri zuten. Alegian bertan geratu ziren eta tropa frankisten alde jardun zuten txintxarritarrek inolako aurkakotasunik gabe eman zizkieten haien garraiatzeko tresnak, beren ideien alde borrokan ari zirenei. Aldiz, errepresioaren beldurrez ihesi joan ziren alegiarrei, inongo abisurik eman gabe bahitu zizkieten haien ondasun higigarriak (motoak, kamioiak …). Horretarako, Tolosako Komandantzia Militarrak, kotxeen, autoen … matrikulazioak eskatu zituen, guztia kontrolpean izan eta zehazki zein garraio errekisatu ahal zitutzten jakiteko.


Relacion de los automoviles , camiones y motocicletas deAlrgria de Oria con expresion de l Nº , tonelaje etc. De los mismos

| Nombres y Apellido | Matricª | Fuerza | Marca | Asientos | Estado |
|---|---|---|---|---|---|
| D. Esteban Gorostiaga-- -- | Vi-I296 | T-9 H P | Fiat | 4 | Requisadopor el Ayuntamiento. |
| D. Rufino Aranguren------- | S.S.506I | T-8 H P | Renault | 4 | Averiado |
| D. Felipe Inchausti-------- | S.S.329I | T-II H P | Fiat 50I | 4 | Id. |
| D. Gerardo Carrere-------- | M.28386 | T-23 H P | Krisler | 5 | Inutilizado porlos rojos a martillazos |
| D. Felipe Inchausti------- | S.S.5666 | -T-II?I5 H P | Renault--- | | --Camioneta dedicada a la panaderia 500Kg |
| D. Francisco Sarasola------ | | | | | Camion al servicio de los Militares de Tolosa. |
| D. Francisco Jauregui----- | NA.II25--- | T-II H P | Citroen-- | | --Camioneta dedicada a la panaderia,500Kg |
| D. Id. Id. -- --- | Vi.602--- | T-II H P- | Id. --- | | -- Id. Id. Id. |
| D/ Jose Maria Tolosa ------ | NA 3049--- | T-7 H P | -Hanomac-- | 2 | --Requisado por la Comandancia de Tolosa al servicio medico. |
| D. Id. Id. Id. ------ | S.S.4389-- | T-8 H P | -Renault -- | 4 | --Inutilizado por los rojos. |
| D. Antonio Munduate-------- | S.S.5256-- | T-I2 H P | -Erskine--- | 4--- | Averiado. |
| D. Ceferino Lasa----------- | S.S.036I-- | T-I7 H P | -Citroen -- | 4--- | Sele llevo el frente Popular. |
| D. Antonio Letamendia------ | S.S.9628-- | T-24 H P | -Diamond--- | | --Camion llevado por los del Frente Popular. 6000Kg. |
| D.Juan Irazusta ----------- | S.S.2828-- | T-8 H P | -Renault--- | 3--- | Servicio propio. |
| D. Juan Irazusta----------- | S.S.37I7-- | T-3 H P | -Indian--- | I--- | Motocicleta inutil. |
| D. Lorenzo Elizalde-------- | S.S.4859-- | T-3 H P | -B.S.A.--- | I--- | Id. srevicio propi |
| D. Antonio Arrizabalaga---- | S.S.3739-- | T- | Citroen--- | 3--- | Llevado por los Falangistas. |
| D. Ignacio Galarraga------- | Vi-407---- | T-I0 H P- | Id.--- | 4---- | Para llevar leche a Tolosa. |
| D. Miguel Munduate--------- | S.S.7048-- | T-3 H P | -A.J.S.--- | I--- | Motocicleta inutil. |
| D. Santiago Azpeitia------- | S.S.7760-- | T-3 H P- | -B.S.A.--- | I--- | Motocicleta Util. |
| D. Juan Iriarte------------ | S.S.3807-- | T-I0 H P | -Citroen-- | | --Camioneta en Vidania disponible 500Kg. |
| D.Juan Iriarte------ | S.S.595I--- | T-I0 HP--- | Citroen---- | | Camioneta requisada por los Militares en Tolosa 500Kg |
| D. Id. Id. ------ | S.S.757I--- | T-20 HP--- | Id. | | ---Disponible en Vidania -- I000 Kg |
| Id. Id. ------ | S.S.7395--- | T-I7 HP--- | Id. | | ----Camioneta requisada por los Militares de Tolosa,2000Kg. |
| Id. Id. ------ | S.S.7204--- | T-I0 HP--- | Id. | | ----Coche de turismo en Azpeitia, de 4 asientos. |
| Id. Id. ----- | S.S.7944--- | T-I7 HP--- | Id. | | --- Camioneta con los Militares en Azpeitia, 2000 Kg. |

**Errekisatutako ondasun higigarriak.** (AUA).

### 4.4.3. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak (TRRP) epaitutako alegiarrak

Errepresio ekonomikoa eraginkorragoa egiteko, aipatu gobernu organismoaz gain, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia (TRRP) delakoa eratu zuten agintari frankistek, 1939ko otsailaren 9an. Honakoa, armada, magistratura eta, F.E.T eta J.O.N.S.-eko aparailuek osatu zuten. Aparailu horren bidez, gerra osteko errepresioa mantendu nahi zen; hala harrigarriena, aparailu honek hil ostean ere, errepresioa ezartzen jarraitzea izan zelarik. Esaterako, Juan Bautista Moreno Galilea 1937ko abenduaren 18an fusilatu bazuten ere, 1941eko ekainaren 23an Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak epaitu eta zigortu egin zuen[205].

Aipatu Auzitegiak, hiru motatako zigorrak ezartzen zituen: isun ekonomikoak, lanerako desgaikuntza eta bizileku-askatasunari ezarritako murrizketak (erbesteratzeak, gehienbat). Alegiako kasuan, lanerako desgaikuntzarik ageri bazaigu ere, herritar gehienak, isun ekonomikoen bidez zigortu zituzten.

Epaiak zuhurtziaz egin ahal izateko, Erantzukizun Politikoen Auzitegi Nazionala eta probintzietako sukurtsalak eratu zituzten. Gipuzkoan, Nafarroako eta Gipuzkoako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak CPIB-k hasitako lanari heldu eta jarraipena eman zion, Donostian instrukzio-epaitegi bat izan zuelarik.

Guztira, azken organismo horrek, 24 alegiar epaitu zituen, zeintzuetatik 3 baino ez zituzten absolbitu[206]:

**ANDRES AMONARRIZ URANGA**

RESULTANDO: que incoado expediente y aportados los informes relativos a la persona y bienes del inculpado el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente a este Tribunal para su resolucion.

RESULTANDO: que puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartado d) del artº 55 de la Ley, se presento escritode defensa alegando lo que estimo conveniente a su derecho.

RESULTANDO) que en la tramitacion del procedimiento se han observado las prescripciones legales.

CONSIDERANDO: que los hechos que se declaran probados se hallancomprendidos en los apartados c) e) y n) del artº 4º de la Ley de Responsabilidades politicas siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sancion adecuada a los hechos realizados y a su posicion social, economica y cargas familiares.

CONSIDERANDO: que es procedente imponer al inculpado ademas de sancion economica la de extrañamiento, por su persistente actitud de rebeldia, ya que no obstante el largo tiempo transcurrido desde la terminacion de la guerra de liberacion no ha regresado al territorio nacional, persistiendo en su extrañamiento voluntario sin haber justificado suficientemente a juicio del Tribunal causa legitima que se lo impida.

CONSIDERANDO: que no son de apreciar circunstancias modificativas de la responsabilidad.

Vistos los articulos 1-4-8-10-13 y concordantes de la Ley.

FALLAMOS: que debemos condenar y condenamos al inculpado Gregorio Oquiñena Erro como responsable politico, a que pague al Estado en concepto de indemnizacion de perjuicios la cantidad de MIL PESETAS. Asimismo le imponemos la sancion de extrañamiento por tiempo de diez años. Notifiquese esta sentencia personalmente a la esposa del encartado, y por edictos en los Boletines del Estado y la Provincia de Guipuzcoa, y una vez firme cumplase lo dispuesto en la Ley para su ejecucion.

ASI -

por esta nuestra sentencia, lo pronunciamos, mandamos y firmamos.

PUBLICACION.- Leida y publicada fue la anterior sentencia en el dia de su fecha por el Sr Magistrado Ponente estandose celebrando audiencia publica al efecto, de que certifico,

**Gregorio Oquiñena Errori egindako epaiketa.** (Nafarroako Artxibo Irekia).

## VICTOR PÉREZ OÑATE

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1940ko azaroaren 7an epaitu zuen. Garai hartan txoferra zen. Ezkondua zen eta 10 urteko ume bat zuen. Gerra hastean Euskal Langileen Alkartasunera (ELA/STV) afiliatuta zegoen. Errepublikarrak Alegian egon bitartean, guardia zerbitzuak egin zituen eta Donostiara esnea eramaten zuen. Tropa frankistak Alegiara iristerako, errepublikarrekin Donostiara alde egin zuen eta bertan bizitzen ezarri zen. Donostian tropa frankistek sartzean, Alegiara itzuli zen. 1938an F.E.T eta J.O.N.S.-eko partaide bilakatu zen, portaera ona erakutsiz. Horren guztiaren eraginez, errudun egin eta estatu frankistari 200 pezeta ordaindu behar izan zizkion.



SENTENCIA nº 687

En la Ciudad de Pamplona a siete de Noviembre de mil novecientos cuarenta.

Señores:
D. Eladio Carnicero Herrero.
D. Leocadio Tamara Garcia.
D. Joaquin Ochoa de Olza Arrieta.

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Politicas el Expediente número 1.435, seguido contra VICTOR PEREZ OÑATE, mayor de edad, casado, chofer y vecino de Alegria de Oria, siendo Ponente el Magistrado D. Leocadio Tamara Garcia.

RESULTANDO: Que el inculpado VICTOR PEREZ, al iniciarse el Glorioso Movimiento Nacional, era de ideologia separatista y estuvo afiliado a la Organización Nacionalista denominada Solidaridad de Obreros Vascos, sin que haya probado haberse dado de baja antes del Alzamiento. Durante el dominio rojo separatista en Alegria de Oria, hizo servicios de guardia, aun cuando sin armas, en el Centro Separatista de la Localidad y se dedico a abastecer de leche a San Sebastian. No quiso esperar la liberación de Alegria de Oria por las Tropas Nacionales y huyo con los rojos-separatistas fijando su residencia en San Sebastian y volviendo a Alegria despues de liberada aquella Ciudad. En 1.938 ingreso en F.E.T. y de las J.O.N.S. observando buena conducta. Es casado y tiene un hijo de 10 años. Sus bienes ascienden a unas 5.000 pts aproximadamente. Hechos probados y leves.

RESULTANDO: Que, incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes del inculpado, oido este y practicada a su instancia las diligencias solicitadas, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente a este Tribunal para su resolución.

RESULTANDO: Que, puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartado D) del articulo 55 de la Ley, el inculpado dejó transcurrir el termino sin presentar escrito de defensa.

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados se hallan comprendidos en los apartados C) y E) del articulos 4º de la Ley de Responsabilidades Politicas, siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social, economica y cargas familiares.

CONSIDERANDO: Que no son de apreciar circunstancias modificativas de la responsabilidad.

VISTOS los articulos 1,4,8,10,13 y concordantes de la Ley.

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculpado VICTOR PEREZ OÑATE, como responsable politico a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de DOSCIENTAS PESETAS. Notifiquese esta sentencia personalmente al inculpado y una vez firme cumplase lo demas d dispuesto en la Ley para su ejecución.

Asi por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.

PUBLICACIÓN. — Leida y publicada fué la anterior sentencia en el dia de su fecha por el Sr. Vocal Ponente en sesión celebrada al efecto, de que certifico.

**Victor Pérez Oñateri egindako epaiketa.**
(Nafarroako Artxibo Irekia).

## IGNACIA SARASOLA IRAOLA

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko uztailaren 15ean epaitu zuen. Garai hartan, etxeko emakumea zen. Gerra hastean EAJ/PNV-ra afiliatuta zegoen eta hauteskunde garaian batez ere, propagandista lanak egiten zituen. Gerra hastean, Frantziara alde egin zuen. Epaiketaren ostean, errudun egin zuten, estatu frankistari 8.000 pezeta ordaindu beharko zizkiolarik.



SENTENCIA nº 1098

En la Ciudad de Pamplona a quince de Julio de mil novecientos cuarenta y uno.

Señores:
D. Eladio Carnicero Herrero.-
D. Leocadio Támara Garcia.-
D. Joaquin Ochoa de Olza Arrieta.-

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Politicas el expediente número 2.042, seguido contra IGNACIA SARASOLA IRAOLA, mayor de edad, dedicada a sus labores y vecina de Alegria de Oria; siendo Ponente el Magistrado DON Leocadio Támara Garcia.-

RESULTANDO: Que la inculpada IGNACIA SARASOLA IAROLA, al iniciarse el Glorioso Movimiento Nacional se hallaba afiliada al Partido Nacionalista Vasco de cuya ideologia era ardiente propagandista especialmente en tiempos de elecciones en que marchaba por las casas pidiendo y exigiendo votos para la candidatura separatista, amenazando en caso contrario a los electores con echarlos de los caserios y tierras que la inculpada administraba; huyó a Francia donde reside en la actualidad sin haber justificado las causas que le impidan el regreso. Hechos probados y graves.-

RESULTANDO: Que se desconocen sus cargas familiares y que sus bienes en metálico y valores ascienden a 34.000 pesetas nominales aproximadamente.-

RESULTANDO: Que, incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes de la inculpada, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente aeste Tribunal para su resolución.-

RESULTANDO: Queno habiendo comparecido la inculpadad no se le ha puesto de manifiesto el expediente a los efectos del apartado B) del artº 55 de la Ley.-

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.-

CONSIDERANDO: Que los hechos declarados probados se hallan comprendidos en los apartados C)E)J) y N) del artº 4º de la Ley de Responsabilidades Politica siendo responsable de los mismos la inculpada a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social, económica y cargas familiares.-

CONSIDERANDO: Que no son de estimar circunstancias modificativas de la responsabilidad.-

VISTOS: Los articulos 1,4,8,10,13 y concordantes de la Ley.-

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos a la inculpada IGNACIA SARASOLA IRAOLA, como responsable politica y en concepto de indemnización de perjuicio a que pague al Estado la cantidad de OCHO MIL PESETAS. Notifiquese esta sentencia por medio de Edictos en los Boletines Oficiales del Estado y la Provincia y, una vez firme, cumplase lo dispuesto en la Ley para su ejecución.-

Así por esta nuestra sentencia lompronunciamos, mandamos y firmamos.-

PUBLICACIÓN. — Leida y publicada fué la anterior sentencia en el día de su fecha por el Sr. Vocal Ponente en sesión celebrada al efecto, de que certifico.

**Ignacia Sarasola Iraolari egindako epaiketa.**
(Nafarroako Artxibo Irekia).

## JOSE MARIA TOLOSA ZUDAIRE

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1942ko otsailaren 6an epaitu zuen. Ordurako, Aurelia Gimeno Huarte botikariarekin ezkonduta zegoen eta bi urteko alaba bat zuten. Mediku eta dentista gisan lan egiten zuen Alegian. Bigarren Errepublikan zehar, nazionalista izaki, Alegiako Batzokiko afiliatu eta bertako zuzendaritza juntako presidentea izan zen. 1936ko otsaileko Gorteetako hauteskundeetan diputatu hautagaitzan parte hartzeko hautatu zuten. Gerra hasi zenean, Nafarroara alde egin zuen, non Alegian tropa frankistak sartu ziren arte iraun zuen. Ondoren, Alegiara itzultzean, poliziaren aginduz, alderdi frankistari, 5.000 pezeta eman behar izan zizkion. Epaiketaren ostean, errudun egin zuten eta estatu frankistari, 1.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zion. Horrez gainera, 5 urterako guztiz ezgaituta geratu zen.


D. Jose Maria Tolosa Zudaire ha entregado en esta Alcaldía la cantidad de Quinientas Pts. en concepto de Subscripcion para el Ejercito Nacional ,y cuatro mil quinientas Pts. para la Junta Carlista de Guerra por orden del Policia Sr. Mintegui.

Y para que conste expido el presente en/ Alegria de Oria a 23 de Octubre de 1936.

El Alcalde?

Jose Maria Tolosa Zudairek poliziari eman beharreko diruaren ordainagiria.
(Maria Isabel Tolosa Gimenok utzitako dokumentua).


SENTENCIA

En la Ciudad de Pamplona a seis de febrero de mil novecientos cuarenta y dos.

Señores:
D. Eladio Carnicero Herrero
D. Leocadio Tamara Garcia.
D. Joaquín Ochoa de Olza Arrieta

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas el expediente número 5.006, seguido contra JOSE MARIA TOLOSA ZUDAIRE, mayor de edad, casado, odontólogo y vecino de Alegría de Oria;

siendo Ponente el Magistrado Don Leocadio Tamara Garcia.

RESULTANDO: Que el inculpado José María Tolosa Zudaire de ideología nacionalista vasca en 18 de julio de 1936 se hallaba afiliado al «Batzoki» de Alegría de Oria, siendo elemento significado dentro de dicha organización política pues fué nombrado para el año 1936 Presidente de su Junta directiva y proclamado candidato para Diputado a Cortes en las elecciones de 1936; comenzado el Glorioso Movimiento Nacional huyó a Navarra donde permaneció hasta la liberación de Alegría de Oria; entregó cinco mil pesetas a la Causa Nacional por orden de la Policía. Hechos probados y menos graves.

RESULTANDO: Que es casado y tiene una hija de dos años de edad y bienes valorados en 10.000 pesetas aproximadamente además de sus ingresos como odontólogo; su esposa posee una libreta con saldo de 800 pesetas y una Farmacia que se halla sin valorar.

RESULTANDO: Que, incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes del inculpado, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente a este Tribunal para su resolución.

RESULTANDO: Que puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartado D) del art. 55 de la Ley, el inculpado no presentó escrito de defensa.

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados se hallan comprendidos en los apartados B) C) y F) del art. 4.° de la Ley de Responsabilidades Políticas siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social económica y cargas familiares.

CONSIDERANDO: Que no son de apreciar circunstancias modificativas de la responsabilidad política.

VISTOS: Los artículos 1, 4, 8, 10, 13 y concordantes de la Ley.

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculpado José María Tolosa Zudaire como responsable político a que pague al Estado en concepto de indemnización de perjuicios la cantidad de MIL PESETAS. Así mismo le imponemos la sanción de inhabilitación absoluta por tiempo de cinco años. Notifíquese esta sentencia personalmente al inculpado y una vez firme cúmplase lo dispuesto en la Ley para su ejecución.

Así por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.

Jose Maria Tolosa Zudaireri egindako epaiketa.
(Nafarroako Artxibo Irekia).

## EUSEBIO UGARTEMENDIA OLANO

Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko abuztuaren 13an epaitu zuen. Ezkondua zen eta hiru seme-alaba zituen. Gerra hasi zenean, Izquierda Republicana-ko afiliatua zen. Herritik errepublikazaleen zonaldera alde egin zuen, frankisten errepresioaren beldur. Bitartean, Portugaleteko ontziolan lan egin zuen. Handik, Karrantza eta Santanderrera alde egin zuen, azken horretan tropa frankistek atxilotuz. Egindako Gerra-Kontseiluan, sei urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten “por auxilio a la rebelión”. Epaiketaren ostean, errudun egin eta estatu frankistari 50 pezeta ordaindu behar izan zizkion.


SENTENCIA No. 1154

En la Ciudad de Pamplona a trece de agosto de mil novecientos cuarenta y uno.

Señores:
D. Eladio Carnicero Herrero
D. Felipe Zalba Modet
D. Joaquín Ochoa de Olza Arrieta

Visto por el Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas el expediente número 2041, seguido contra Eusebio Ugartemendia Olano, mayor de edad, casado, papelero y vecino de Alegria de Oria;

siendo Ponente el Magistrado Don Felipe Zalba Modet.

RESULTANDO: Que el inculpado Eusebio Ugartemendia Olano, en 18 de julio de 1936 se hallaba afiliado al partido Izquierda Republicana; durante la guerra de liberacion colaboro con la subversion huyendo al interior de zona roja, y trabajando en la Constructora Naval de Portugalete; huyendo nuevamente a Carranza y Santander donde cayo prisionero siguiendosele sumarisimo de urgencia y condenado en Consejo de Guerra a la pena de 6 años y 1 dia por auxilio a la rebelion, no habiendose podido aportar al expediente testimonio de la sentencia apesar de haber sido reclamado. Hechos probados y graves.

RESULTANDO: Que el inculpado es casado y tiene tres hijos de 4, 6 y 8 años, careciendo de bienes de fortuna y la esposa gana jornal de 6'30 pesetas.

RESULTANDO: Que, incoado expediente, aportados los informes relativos a la persona y bienes de inculpado, el Juez hizo el resumen de la prueba relacionando lo actuado y elevando seguidamente el expediente a este Tribunal para su resolución.

RESULTANDO: Que puestas las actuaciones de manifiesto a los efectos del apartado D) del art. 55 de la Ley, el expedientado no presento escrito de defensa.

RESULTANDO: Que en la tramitación del procedimiento se han observado las disposiciones legales.

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados se hallan comprendidos en los apartados C) y L) del art. 4.° de la Ley de Responsabilidades Políticas siendo responsable de los mismos el inculpado a quien debe imponerse sanción adecuada a los hechos realizados y a su posición social económica y cargas familiares.

CONSIDERANDO: que no son de apreciar circunstancias modificativas de la responsabilidad.

VISTOS: Los artículos 1, 4, 8, 10, 13 y concordantes de la Ley.

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al inculpado Eusebio Ugartemendia Olano, como responsable politico, a que pague al Estado en concepto de indemnizacion de perjuicios la cantidad de CINCUENTA PESETAS. Notifiquese esta sentencia personalmente al inculpado y una vez firme cumplase con lo dispuesto en la Ley para su ejecucion.

Así por esta nuestra sentencia lo pronunciamos, mandamos y firmamos.

Eusebio Ugartemendia Olanori egindako epaiketa.
(Nafarroako Artxibo Irekia).

## 4.5. ASKATASUNAK LORTZETIK, MENPEKOTASUNERA: ALEGIAKO EMAKUMEEN AURKAKO ERREPRESIOA

Aurreko kapituluetan azaldu dugunez, emakumeak, Bigarren Errepublikan zehar, ordura arte izan ez zituen zenbait askatasun lortu zituen. Erreakzionariek herriak demokratikoki aukeratu zuen Bigarren Errepublikako gobernuaren aurka estatu-kolpea eman ostean, hasiera batean, emakumeek haien askatasuna lortzeko baliabideak muturreraino eraman ahal izan zituzten. Gerrak aurrera egin ahala, emakumeek, haien askatasunen murrizketa bizi izan zuten, bai frankisten baita errepublikazaleen aldetik ere[207].

### 4.5.1. Emakumea gerran eta diktadura frankistaren garaian

Gerra Zibilaren eztandarekin batera eta tropa frankistak herrian sartu baino lehen, Alegiako zenbait emakumek, erbestera ihes egin behar izan zuten. Sagastumetarrek, Gastesi-Iturrioztarrak, Iraola-Mendiatarrek … euskal lurralde maiteetako herrietatik ezinbestean alde egin zuten milaka lagunen erbesterako bideak jarraitu zituzten. Beste zenbaitek gerran parte hartu zuten eta beste batzuek, atzeraguardiako, arma-fabriketan … lan egin zuten.





**Emakumeak gerran.**

[207] Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dugu, frankistek emakumea espazio pribatuko objektu gisan ezarri zutela; espazio publikoan, oso eremu gutxi elkarbanatu zutelarik. Errepublikazaleek berriz, emakumea, espazio pribatu zein publikoko eremuan mantentzea erabaki zuten. Hurrengo lerroetan zabalago azalduko dugu.

Hasiera batean, emakumeei, gerrako frontean armak harturik, borrokatzen utzi bazitzaien ere, 1936ko urrian, Francisco Largo Caballero gobernuburuak eta Gerra Ministroak, Herri Ejertzitoa birmoldatu eta frontean zebiltzan emakumeak atzeraguardiara eramateko agindua eman zuen. Justifikazioa sinplea izan zen. Emakumeak, gerraren baldintza fisikoei aurre egiteko gai ez zirela eta atzeraguardian egin beharreko zaintza-lanak eta laguntzaileak egiteko efikazagoak zirela determinatu zuten. Emakume milizianen talde batzuk fronteko lehen ilaran jarraitzeko erabakia hartu bazuten ere, gehienek, garaiko talde feministenek ere hala aginduta (anarkistak ziren "Emakume Askeen" kasua), atzeraguardiara egin zuten. Gerra aurreko ordena binomiala berriro ere finkatu egin zen. Horrek, emakumearen askatasunen lorpenen bidean atzera pausoa suposatu zuen.

Gerran zehar, emakumeak bete zuen beste egitekoetako bat, "amabitxi" deiturikoena izan zen. Emakume hauek, haien eginbeharrak, alde errepublikazalean zein frankistan bete zituzten. Haien zeregin nagusiak, balio errepublikazale edo frankistetatik abiatuz, kasuan kasu, soldaduek gerran jarraitu ahal izateko babes morala ematean zetzan. Soldaduek emakumea errespetuz tratatzeko betebeharra zuten; hori bete ezean, emakumeek soldaduei idazteari utz zekioketen. Emakume haietako bakoitzak, soldadu bati baino gehiagori idazten zizkion eskutitzak, soldaduei borrokan jarraitzeko esperantza txiki bat sortuz. Ikustekoa zen, beraz, alde errepublikazale zein frankistan emakumearekiko eginiko objektualizazioa. Emakumeak, gizonaren zaintza bermatzen zuen beste behin, hau da, zaintza-lanak betetzen zituen, bake garaian bezala gerra garaian ere. Horrez gainera, alde frankistak, gerra amaitzean, amabitxi errepublikazaleak, prostitututzat jo zituen (soldaduei oinarri libertarioak igortzen baitzizkieten eta ez balio tradizionalistak) eta diktaduran zehar izugarrizko errepresioa jasan beharra izan zuten.




**Emakumea, atzeraguardiara.**



**Emakumeak arma-fabrikan.**



**Soldaduak idazten.**

### 4.5.2."Emakume berria" eraikitzeko erabilitako errepresio-metodoak

Arestian aipatu gisan, erbestean egon zen emakumerik ere izan zen. Horixe izan zen emakume alegiar gehienen kasua. Giroa pixka bat lasaitzean, batzuk gerran zehar eta beste batzuk gerra amaitu ostean, txintxarrien herri maitera itzuli ziren. Gerrak eztanda egin eta Alegian tropa frankistak sartu zirenetik ordea, Alegiako kaleak kopetilun bilakatu ziren. Batik bat, errepublikazaleen senideak edo errepublikarren alde borrokatzeko hautua egin zuten emakume zein gizonentzat. Emakumeei dagokionez, diktadura frankistak, errepresioaren bitartez, Bigarren Errepublikan zehar lortutako askatasunak deuseztatzeari ekin zion. Prozesua aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izan zen Eugenio Jauregui Lasa herriko alkate frankistak eta haren ordezkariek osatutako udal-gobernuaren konplizitatea.

Azken hauek, bereziki, Francok 1938ko udaran "Gabinete de Investigaciones Psicológicas" delakoko zuzendari izendatu zuen Antonio Vallejo-Nájera Ejertzitoko Zerbitzu Psikiatrikoetako komandante eta zuzendariaren teorietan oinarritu ziren. Vallejo-Nájera psikiatrak, teoria horiek, Francok Malagako kartzela batean eginarazi zizkion emakumezko eta gizonezko errepublikazaleen analisietatik atera zituen. Haren helburu nagusia, ideologia marxista zuten pertsonek, gainontzekoek baino burmuin ezgaituagoa zutela frogatzea zen.



**Antonio Vallejo-Nájera Ejertzitoko Zerbitzu Psikiatrikoetako komandante eta zuzendaria.**

Emakumeen ikerketa burutu ostean, hauen burmuinak, animalia eta umeetara asko gerturatzen zirela adierazi zuen eta emakumeek, egoera hauek beraiengan egunerokotasunean kontrolatu ahal izateko zenbait pauta erabiltzen zituztela. Emakume errepublikazaleek ordea, pauta hauek galdu egin zituztela determinatu zuen eta horren eraginez, gaizkiletzat izendatu zituen. Psikiatra frankistak, dohain gaizkileak izatearen errudun nagusitzat, iraultza marxista zuen. Emakumeak, bere sentimenduengatik egiten zuen aurrera ideia marxistekin eta ez bere idealak zirelako. Inguruaren eraginez bihurtu zen emakumea halakoa, ez bere ideia propioengatik.

Modu horretan, emakumea, bere kabuz erabakitzeko gai ez zela eta zaindari baten beharra zuela determinatu zuen. Emakumearen zaindaria, ohi bezala, gizonezkoa izango zen, baina balio tradizional eta frankistetan hezitako gizonezkoa, eta ez, balio errepublikazaleetan hezitakoa. Gainera, Vallejo-Nájerak eginiko astakeria oro, justifikatuta izatea lortu zuen, psikiatren lana guztiz zientifiko eta objektibotzat hartzen baitzen. Francok, hiltzaile papera, "ikerketa zientifiko" baten bidez, estali ahal izan zuen; bitartean, jendartean ongile papera eman ziotelarik, guztien onerako baitzen gaixoak (emakume errepublikazaleak) sendatzearen eta salbatzearen lana.

Oinarri horiei men eginez, balio tradizionaletan oinarritzen zen emakume berriaren eraikitzeari ekin zion frankismoak. Hori lortzeko, ezinbestekoa zen Bigarren Errepublikan zehar askatasunak menperatu zituen emakumea deuseztatzea. Horregatik, emakumeek, bi errepresio modu jasan behar izan zituzten. Alde batetik, zuzeneko errepresioa jasango zuten, hau da, beraiek espazio publikoko akzio politikoetan parte hartzeagatik jasango zuten errepresioa. Bestetik, zeharkakoa, zeina senideren bat errepublikazalea izanagatik jasango zuten. Aldi berean, bi errepresio mota ere jasan zituzten: bata, akzio politikoei lotutako aipatu errepresioa litzatekeena eta bestea, aldiz, emakume subjektu gisan eginiko errepresioa (bortxaketak, ile soiltzeak, errizino olioa, irainak, ume-kentzeak …).



**Emakumeak, ilea soilduta.**

Queipo de Llano militar frankistak 1936an, Sevillako irratian esandako esaldi honek ongi baino hobeto adierazten du, gerran eta diktadurako urteetan zehar, emakumeek zer-nolako errepresioa jasan behar izan zuten:

"Nuestros valientes legionarios y regulares, han demostrado de rojos cobardes, lo que significa ser hombres de verdad. Y de paso también a sus mujeres. Esto está totalmente justificado, porque estas comunistas y anarquistas, predican el amor libre. Ahora por lo menos sabrán lo que son hombres y no milicianos maricones. No se van a librar por mucho que berreen y pataleen"[208].

[208] Queipo de Llano general kolpistaren irrati-diskurtsoa, 1936an.




**Queipo de Llano 1936an, Radio Sevilla.**

Estatu frankista, boterera indarkeriaren bidez iritsi bazen ere, botere hura mantendu ahal izateko, ezinbestekoa zuen beste metodo batzuk erabiltzea. Horretarako, ezinbestekoa izan zen biztanleek denborarekin bereganatuko zuten ideologia sortzea. Emakumeak, ehunekoaren erdia ziren eta beraien ideologia barneratuz, gobernu berriaren mendeko egin zituzten "cristiana piadosa, madre ejemplar, esencia de feminidad, orgullo de España".




**Estatu diktatorial frankistak gizonaren menpe egongo zen emakumea eraikitzeko erabilitako iragarkia.**

Emakumeak Bigarren Errepublikan zehar lortutako eskubideak galtzeaz gain, gizonezkoen geroz eta jabetza handiagoa bihurtu ziren. Emakumeak, ama eta emazte ona izateaz gain, rol tradizional femeninoak bete beharra zituen: portaera onak, adimen-gutxiagotasuna, sentiberatasuna, hauskortasuna, otzantasuna, hunkiberatasuna, mendetasuna, gizonarekiko menpekotasuna eta sumisioa, sakrifizio espiritua, umiltasuna, erlijiotasuna … Emakumea, frankisten arabera, ez zen gai bere kabuz aurrera egin ahal izateko eta horrenbestez, gizonarekiko sumisioa izan beharra zuen. Horrez gainera, Bigarren Errepublikan bultzatu zen ama ezkongabearen irudia onartezina zen frankismoarentzat. Umeak eduki ahal izateko, ezinbestekoa zen ezkonduta egotea, bestelaz bekatu kontsideratzen zen.

1938ko Lanaren Foroak, emakumea espazio pribatura mugatzea ekarri zuen eta batez ere, ezkondu ondoren ez zitzaion utzi espazio publikoan lan egiten. Espazio publikoan lan eginez gero, beti ere, gizonezkoak baino gutxiago kobratzen zuen. Gizonezkoak, emakumearen soldata kobratzea eskatzeko aukera ere bazeukan. Emakumea, 1944ko Kodigo Penalaren bidez, harik eta menpekoagoa bihurtu zen. Horren arabera, emakumearen gizonak edo 23 urte azpiko emakumearen aitak, berau adulterioa edo egoera analogoetan topatzen bazuen, hura zauritu edo hiltzeko baimena ematen zion. Ezin zen antikontzeptiborik erabili ez eta abortua praktikan jarri ere.

Emakumeak, bitartean, etxean zain eta ongi dotore egon behar zuen bere gizona lanetik etortzean zaintzeko. Dotore egoteak, senarra sexu-harremanak izatera bultzatzen zuen eta horrela, umeak izatea errazten zuen. Horrek guztiak funtzionatu ahal izateko, gizonezkoak ere bere rol tradizionalak bete behar izan zituen: gogortasuna, autoritatea, sendotasuna, diziplina, egoismoa, inteligentzia, ardura, aldentze erlijiosoa …

Frankismoak haren botere nazionala handitu nahi izan zuen eta horrenbestez, emakumeak ugalketan izugarrizko garrantzia zuen. Diktadura frankistan zehar, emakumeak, estatu diktatoriala defendatu eta eraikitzeko gai izango ziren seme-alabak eman behar zituen. Demografia hazteko asmoz, instituzio frankistek, antikontzeptiboen salmenta debekatu eta ugalketa kontrolatuko zuten zenbait neurri martxan ezarri zituzten.

Eliza eta Sección Femenina[209] izan ziren, estatu frankistari emakumearen irudi berria ezartzen lagundu zioten instituzio indartsuenak. Hezkuntzaren bidez, emakumeak, amatasunerako prestatzea bilatzen zen, hau da, hezkuntza emakumearen gai domestikora bideratuta zegoen. Emakumeen liburuetan, berau, josten … hau da, etxeko eginbeharrak eginez ageri zen. Irakasle, mekanografa edo enfermera lanetan ere ageri zen, hauek ere rol tradizionalak betetzen zituztelako. Gizonezkoak berriz, haien liburuetan, espazio publikoan lanean irudikatzen ziren.



**Mojak neskatoen hezkuntzaren jabe.**

[209] 1934an, falangistek, Pilar Primo de Riveraren eskutik, Sección Femenina delakoa sortu zuten. Haren helburua, geroago diktadura frankistan zehar islatuko zen gisan, emakumeak bere rol tradizionala betetzea izan zen.




**Sección Femeninak emakumea rol tradizionaletan hezteko argitaratutako aldizkaria.**

Emakumeak, 17 urte betetzean Sección Femeninara sartzen ziren, 7-17 urte bitartean Regiduría Femenina de las Organizaciones Juveniles (1937ko abuztua-1940ko abendua), geroago Frente de Juventudes (1940ko abendua-1944ko apirila) delakora sartzen zirelarik. Emakumea rol tradizionalistara bueltatzea, falangistek, errekonkista gisan hartu zuten.

Gazteen falangean afiliatutako 11-14 bitarteko emakumeek, arratsaldean irakaspenak jasotzen zituzten. 15-17 bitartekoek, hizkuntzak, mekanografia, kontabilitatea … ikasten zituzten. Horrez gainera, "Ikastunen Tailerra" delakoa ere izaten zuten "Fletxen Etxeko" emakume afiliatu haiek. Ibilaldiak ere, emakumeak, kolektiboan bizi eta bizitza tradizionala menperatzeko egiten zituzten.

1941eko urrian, unibertsitatera joan ahal izateko, emakumeek, etxekoandre azterketa bat egin beharra izaten zuten.

Ez dago esan beharrik, indarkeria sexistako kasuak, guztiz estaliak izan zirela eta ideologia frankistak, emakumea indarkeria sexistaren errudun nagusi egin zuela. Horrezaz gainera, emakume hauei guztiei, luto eskubidea kendu, festa nazionaletan dantzatzera behartu zein beren seme-alaben izenak doktrina katolikoaren oinarriak jarraituz aldatzera behartu zituzten.

Instituzio frankisten aparailu eta ideologia hau guztia kontutan hartuta, ez da harritzekoa, Alegian ere, emakumeen aurkako errepresioaren lekukotza izatea. Alegiako emakumeek, errepresio aparailuaren ondorioak jasan behar izan zituzten tropa frankistak txintxarrien herrira sartu eta diktadurak iraun zuen bitartean. Arestian aipatu gisan, mota askotariko errepresioak pairatu zituzten: ile soiltzeak, guraso errepublikazaleak zituzten umeen bahitzea, irainak, isun-ekonomikoak, depurazioak … Segidan, puntuz puntu, errepresio mota hauek guztiak jasan zituzten emakumeen berri ematen saiatuko gara. Aldez aurretik, esan, emakumeen ikerketaren arloan, dokumentuen eskasia aurkitu dugula[210] eta ezinbestekoa izan zaigula alegiarren testigantza zein informazio transmisioa. Azken hauei, eskerrak eman.

## 4.5.3. Alegiako emakumeek jasandako errepresio mota anitzak

### • Herritik kanporatzeak, ile soiltzeak eta errizino olioa

Frankismoak, emakume errepublikarra bere osotasunean ezabatu nahi izan zuen. Rol tradizionalak jarraituko zituen emakumea eraiki nahi izan zuen, zeina fisikoki, liraina eta prestua izanen zen: ile luzeduna, ongi zaindua … Ohiko feminitatearen ezaugarriak bete behar zituen frankismoak "emakume berri" izena eman zion emakume hark. Emakumea, ideologia frankistak, gizonaren menpeko egiteaz gain, bere gorputzaren menpeko ere egin zuen. Jendarteak, emakume lirain eta ongi zaindutakoa errespetuz hartuko zuen eta gainontzeko emakumeen irudi-ereduak mespretxatu egingo zituen.

Horretaz baliatuz, aparailu frankistek, emakumearen gorputzaren gaineko errepresio-metodo ezberdinak erabili zituzten. Haietako bat, arestian aipaturiko ile soiltzearena izan zen. Euskal jendarteak, emakumearen irudian, ile luzedun eta dotorea[211] onartzen zuen. Beraz, emakumeei ilea soiltzeak, izugarrizko umilazioa suposatzen zuen, hain zuzen, bere feminitate eta dotoreziaren galtzea suposatzen baitzuen. Modu horretan, frankismoak, emakume haien feminitate eta beraz, emakume izateko ezgaitasuna adierazi nahi izan zuen. Bitartean, gainerako emakumeak, inposatutako ordenatik irteten baziren, zer-nolako etorkizuna espero zuten adierazteko teknika-errepresiboa izan zen.

Alegian ere izan zen halako kasurik. Antonio Arrizabalaga, Bigarren Errepublika garaian alkate izandakoaren ahizpak zirenak (ahozko iturrien bidez, Mercedes ahizpa haietako bat izan zela berretsi digute) eta Gertudris zein Arantxa Artolanekoak, etxetik atera, ilea moztu eta errizino olioa eman ostean Alegiako kaleetatik barrena ibili zituzten. Bitartean, alde frankistako pertsonen guztietako umilazioak jasan beharra izan zuten.

Beste ahozko testigantza baten bidez jaso ahal izan dugunez, Maria eta Mercedes Arrizabalaga Aguirre, Gertrudis Artolanekoa eta Margarita Aguirre Letamendia alegiarrak, kamioi batean sartu eta laurak Donostiara eraman zituzten. Fusilatzera zeramatzatela berretsi zieten hango soldaduek. Behin Donostiako Auzitegian, Eugenio Jaureguiren semeak, han ez zituztela fusilatu behar

[210] Ile soiltzeak, esaterako, ez ziren dokumentatzen. Emakume haien ohorearen galtzea suposatzen zuen bai eta haien familiarena ere. Bigarren Errepublikan gertatu gisan, indarkeria sexista mota hau, ezkutatu egiten zen. Horrez gainera, dokumentuak, oro har, gizonezkoek ekoiztuak izaten ziren eta beraz, ez da harritzekoa, garaiko ideologiagatik emakumea bigarren mailakotzat hartu eta gizonezkoen datuak baino ez agertzea dokumentuetan, haren gehiengoan.

[211] Garaiko balio tradizionalak oinarri hartuz.



**Arrizabalaga eta Brontz harakinaren familiak.** (J.M. Gorostiagak Alegiako Argazkizaleen Taldeari emandako argazkia).

eta etxera itzultzeko agindu zien. Erreparatu ahal dugunez, alegiar frankistek, lau emakumeei esandako gezurra, azken hauei beldurra barneraino sartzeko erabilitako trikimailua izan zen.

Hori gutxi ez balitz, gerran zehar, erbesteratu ziren zenbait emakumeri ez zitzaien berriro ere beraien jatorrizko bizilekuetara itzultzen utzi. Hori izan zen esaterako, Filomena Gastesi Iturriozen kasua. “Gorri” gisan sailkatuz, ez zioten Alegiara sartzen utzi. Filomena Gastesi, Bigarren Errepublikan izandako jardun politikoagatik kanporatu zuten Alegiatik. Hain zuzen, garai hartan, Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidentea izan zen eta zenbait mitin ere eman zituen. Horrek guztiak, frankismoko emakumearen irudia zalantzan jartzen zuen. Frankismoan zehar, hitza, gizonari eman baitzitzaion eta, emakumeak, Pilar Primo de Riverak[212] zioen bezala:

“Todos los días deberíamos de dar gracias a Dios por habernos privado a la mayoría de las mujeres del don de la palabra, porque si lo tuviéramos, quién sabe si caeríamos en la vanidad de exhibirlo en las plazas”.

Filomena Gastesi Iturrioz, bere seme txikia, Bingen, hartuta, Altzoko baserri batera joan zen bizitzera. Baserri hura, Bingen txikitan zaindu zuen emakume batena zen.

Filomena Gastesi Iturrioz ez zen haren herritik kanpora bizi behar izan zuen emakume bakarra izan. Alegian bertan, Arcaute y Compañía fabrikan[213], tropa frankistek, bere gogoaren aurka beren umeekin ekarri zituzten emakume iruindarrak egon ziren bizitzen. Otorduak, tropa frankistetatik ihesi joan zen Gregorio Oquiñenaren[214] etxean ematen zizkieten[215].

Beraz, Gastesi, Arrizabalaga ahizpek zein iruindar emakumeek, beste zenbaiten artean, garaiko emakumearen irudiarekin bat ez egiteagatik, errepresio frankista mardula jasan behar izan zuten.

[212] Sección Femenina, Falangearen emakumeen adarreko zuzendaria izan zen. Frankismoko emakumearen irudia sortu zuenetako bat izan zen. Irudi hura garaiko jendartean errotu eta zabaltzeaz gehien arduratu zena izan zen.

[213] Orduko fabrika itxita zegoen, arestian aipatu dugun gisan.

[214] Etxea hutsik eta errekisatuta zegoen. Oquiñena nazionalista baitzen eta gerra hasiz geroztik, erbestean baitzen.

[215] Testigantza: *ahotsak.eus*. Pakita Artola Egiburu: ALE-002.

## • Umeen bahitzea, senide errepublikazaleak izateagatik

Gerra guztietan bezalaxe, inongo errurik izan gabe, Gerra Zibilean ere, umeak izan ziren ondoriorik larrienak pairatu zituztenak. 1937an, 14 urte azpiko 36.125 ume hil zituzten, eta urte horretako hildakoen %28,83a izan ziren[216]. Ramon Salas Larrazabalen arabera, 1936-1939 artean, gerrak iraun bitartean, 414.309 ume hil ziren.

Batzuek beraien gurasoak galdu zituzten, hala fusilatzeen, nola goseteen, bonbardaketen … eraginez. Haien ondorioak jasangaitzak bihurtu ziren, izan ere, zenbaitetan, noraezean galdurik, konbentuetan erreklutatu eta estatu frankistarentzat gatibu-lanak eginez hezi baitzituzten, oso soldata txikia edo musutruk adierazitako lanetan ezartzen zituztelarik.

Beste ume batzuk, norabide ezberdinetatik iritsi ziren konbentu hauetara. Gurasoak bizirik eduki arren, gehienak kartzeletan egon eta ideologia ez-frankista eta ezkertiarra izateagatik, psikiatra frankistek, haien seme-alabak ezin zituztela hezi determinatu zuten. Instituzio frankistek erabaki argia hartu zuten, beren diktaduran beren aldeko jendartea hezi nahi zuten, Bigarren Errepublikaren aldarririk txikiena zapuztuz. Gurasoak beraien umeak hezi nahi zituzten arren, askotan, haien eskuetatik kendu eta asiloetan sartu zituzten.

Hura izan zen, esaterako, Maria Martinezen alaben kasua. Maria Martinez, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko presidente izan zen Angel Urcelay Ayestaran-ekin ezkonduta zegoen. Angel Urcelay ikaztegietarrak, bere eginkizun politikoagatik, zenbait kartzela ezagutu zituen 1938tik 1940ra bitartean: Tolosakoa, Ondarretakoa, Ezkabakoa, Orduñakoa … 20 urte eta egun bateko kondena ezarri zieten arren, 1940ko uztailaren 14ra arte, bere etxean preso egon zen. 1945eko urriaren 22ko Alegiako udalbatzan argitzen denez, bere emazte Maria Martinezi, bere bi alaben, hau da, Maria Dolores eta Magdalena Urcelay Martinezen tutela kendu zioten. Horren ostean, Tolosako Asiloan edo Errukietxean sartu zituzten bi gaztetxoak, ideologia frankistan hezteko asmoz[217].


tarde bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Angel
Ojarzabal asistido de los Sres Concejales que al
margen se expresan y de mi el infrascrito
Secretario.
Abierta la sesión, se dió lectura del acta anterior
y fué aprobada.
Seguidamente se aprobó la factura de la Vda
de D. Pedro Sansó de pts 135, por la reparación de
una báscula de 500 Kg. del matadero.
Seguidamente se dió lectura al oficio del
Tribunal de menores referente a los niños
menores de edad María Dolores Urcelay y Martinez
y Magdalena Urcelay Martinez, en la que manifiesta
para que se haga cargo de las indicadas menores
y se indique el Establecimiento benéfico en que
ingresen, y que han sido suspendida a su
Madre María Martinez el derecho a la guarda
y educación de sus hijas.
El Ayuntamiento una vez estudiado y discutido
sobre las menores de edad Mª Dolores y Mª Mag
dalena Urcelay y Martinez, acuerda dar su ingreso
en el Asilo de Tolosa, en los puestos libres que tiene
en dicho establecimiento este Ayuntamiento.
También acuerda el Ayuntamiento, solicitar a la Jefatura
de Montes 3 a 4 mil robles americanos, y su planta
ción en varios puntos del monte Aldaba-[illegible].
Seguidamente acuerda también después de discutido
sobre los pinos "estrobus", solicitar al Sr. Jefe del
distrito, como tienen enfermedad estos pinos estrobus
y para que autorice una subasta extraordinaria, antes
de que se sequen y echar a perder.
Seguidamente se dió cuenta a los reunidos, que como
se subastó el derribo de la casa nº 40 y fué adjudi
cado al Sr Manuel Aranzasti, en 2.300 pts. y que por
la tardanza del expediente del desahucio, han perdido
el depósito dejando lo solicitado.
Y acto seguido acordó anunciar nuevamente [illegible]

**Maria Martinez-en umeen bahitzea.** (AUA).

[216] ARAGÜÉS ESTRAGÜÉS, ROSA MARIA. 2016. *"La cárcel de mujeres" Predicadores: legislación y represión (1939-1955).* UNED, 105. or.
[217] AUA: 1941-1947 Aktak A Sekzioa 1 Negoziatua. 422. Kaxa 2. Zenbakia.

### • Ekintza politikoetan parte hartzeagatik kartzela zein isun-ekonomikoak jasotako emakume alegiarrak

Bigarren Errepublikaren garaian ekintza politikoak bete zituzten emakumeak, diktadura frankistan zehar, bortizki zigortu zituzten. Batzuk, kartzela-zigorrak pairatu zituzten eta bertan, funtzionario frankistek eginiko indarkeria sexista (bortxaketak, torturak …) jasan zituzten. Beste batzuk, isun-ekonomikoak pairatu zituzten, eta biak pairatu zituenik ere egon zen.

Isun ekonomikoak pairatu zituztenen artean, Margarita Aguirre Letamendia, Filomena Iturrioz Murua eta Maria Gastesi Iturrioz ditugu.


COMANDANCIA MILITAR VILLAFRANCA DE ORIA

Enterado que la vecina de esa localidad Margarita Ag... Letamendia, se dedica apropalar noticias tendenciosas sobre los actuales sucesos, he tenido a bien impponerle por primera vez una multa de CIEN PESETAS (100 pts.), que debera acerlas efectivas en todo el dia de hoy, haceindole saber que de reincidir, sera corregida con el mayor rigor.

Villafranca de Oria a 24 De Agosto de 1936

El Comandante Militar

Buenaventura Alegria

Salvo Artola

Sr. Alcalde de´ALEGRIA.

Pagadas y entregadas al Comandante Militar

**Margarita Aguirre Letamendiari Ordiziako Komandante Militarrak 1936an ezarritako isuna.** (AUA).

## a. Erantzukizun-Politikoen Eskualdeko Auzitegiak zigortutako emakume alegiarrak

| IZEN-ABIZENAK | ISUNA |
|---|---|
| **AGUIRRE LETAMENDIA, MARGARITA** | 100 pezeta |
| **GASTESI ITURRIOZ, MARIA** | 750 pezeta |
| **ITURRIOZ MURUA, FILOMENA** | 250 pezeta |
| **LASA IRARAGORRI, FRANCISCA** | Absolbitua |
| **LASA IRARAGORRI, ISIDORA** | Absolbitua |
| **SARASOLA IRAOLA, IGNACIA** | 8.000 pezeta |

## b. Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak zigortutako emakume alegiarrak

| IZEN-ABIZENAK | ONDASUN-BAHITUA |
|---|---|
| **ITURRIOZ MURUA, FILOMENA** | “Bideberrieta” deituriko etxea, errepidearen eta “Echeandia” etxearen artean kokatuta |
| **LASQUIBAR LARRETA, JULIA** | Olaechea baserria (Madrid-sagasti, Goicosoroa deitutako lursaila; Olaldeco lursaila) // Tolosako San Francisco kalean zuten Lasquibar familiaren etxea, Sección Femenina-ren asoziazio falangistaren sede bilakatu zuten frankistek. |
| **MONTOYA ARIZMENDI, MARIA ANGELES** | San Juan kaleko 47 zenbakia, Lopeteguinea deiturikoa // Lursail partzela Jauregui-Celayeta ibarrean // Alegiako ibarrean kokatutako lursaila // Beguiristain-aldea deituriko lursaila // Zabaltequi-aldea deituriko gaztainondo lursaila // Jauregui-Celayeta ibarreko lursaila eta bertan kokatutako lursaila // Aurreko ibarrean kokatutako lursail partzela // Aurreko ibarrean kokatutako lursail portzioa // “Mitad indivisa” de un trozo de terreno en la misma vega // Eta beste zenbait lur (…) |
| **SARASOLA, IGNACIA** | 40 lursail area |

[218] Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa AHPG-GPAH GEZ, 002776/0082.

<u>Tolosako Barrutiko Presondegian</u>

Kartzelaratu zuten alegiarretako bat, Pilar Luna Morales[218] izan zen. Donostiarra zen jaiotzez, baina 22 urterekin Tolosako Barrutiko Presondegian preso sartu zutenean, Alegian bizi zen. Tolosako Barrutiko Presondegia, bertan presoei ematen zizkieten tratu txarrengatik ezaguna zen: torturak, bortxaketak, hilketa susmoa ageri zuten bere buruaz beste eginiko presoak …

Pilar Lunak, hantxe pasatu zituen bere bizitzako bi urte, zehazki, 1937ko azaroaren 17an atxilotu zuten eta 1939ko irailaren 2ra arte bertan atxilo izan zuten. Presondegian zegoela, bere anaia Jose Luna Moralesekin batera, Gerra-Kontseilua egin zioten. Pilar Luna, irrati marxistak entzuteagatik salatu bitartean, bere anaia, intendentzia marxistari laguntza ematearren salatu zuten. 1938ko abenduaren 14an, epaiketa ospatu ostean, biei askatasuna deklaratu zieten, aipatutako ekintzak derrigorturik bete zituztela argudiatuz.

Hala eta guztiz ere, Pilar Luna Moralesek, ez zuen askatasun haizerik sentituko. 1939ko ekainean, Pilar Luna, presondegiko alferez-epaile instruktoreak salatu egin zuen. Bere ziega miatzean, "Mugimendu Nazionalaren" aurkako aldarriak erakusten zituzten kantuak aurkitu zituzten. Dokumentu frankistak dionez, kantu hauek, presondegian egondako Carmen Aulet García Malagako haurrari esker lortu omen zituen. Hurrengo irailean, azkenean, askatasuna lortu zuen.



**Tolosako Barrutiko Presondegia.**
(Tolosako Udal-Agiritegia eta APPSS).



3

JUZGADO MILITAR Nº 8
San Sebastián.

187

Ruego a V. se sirva indicar a este Juzgado Militar con la mayor urgencia posible, las diligencias de que se sirvió para esclarecer lo referente a los cantares insultantes para el Movimiento Nacional encontrados en un cacheo en la celda ocupada por PILAR LUNA MORALES, que segú parece fueron pedidos por ésta a la niña CARMEN AULET GARCIA, de Málaga que fue trasladada de esa cárcel, por interesarlo así la Información Gubernativa nº 836-38 instruida contra la primera.

Dios guarde a V. muchos años.

San Sebastián 23 de junio de 1939.-Año de la Victoria.

EL ALFEREZ JUEZ INSTRUCTOR.

JUZGADO EVENTUAL de la PLAZA de S. SEBASTIAN

Señor Director de la Prisión del Partido de T O L O S A.



JUZGADO MILITAR Nº 8 (antes 13)
San Sebastián.

Habiendose terminado definitivamente y sin declaración de responsabilidad la Información que se ha seguido por este Juzgado contra la reclusa detenida en ese establecimiento llamada PILAR LUNA MORALES ruego a V.S. se sirva ponerla en libertad con notificación a este Juzgado.

Dios guarde a V.S. muchos años.

San Sebastián a 2 de Septiembre de 1939.- Año de la Victoria.

EL JUEZ INSTRUTOR.

6a. REGIÓN JUZGADO PERMANENTE de la PLAZA de S. SEBASTIAN

SEÑOR DIRECTOR DE LA PRISION DEL PARTIDO DE T O L O S A.

**Pilar Lunaren aurkako salaketa eta askatasun lorpena.** (AHPG-GPAH).

<u>Ondarretako eta Prim kaleko kartzela</u>

Sofia Olano Olloquiegui[219] 1906ko irailaren 27an Alegian jaio zen. Urte gutxiz bizi izan zen txintxarrien herrian, haren aita kimikari altzotarra hiltzean, amak, haren seme-alabak hartuta, Donostiara lanera egin behar izan baitzuen. Sofia Olano Olloquieguik, eskuetan izugarrizko abilezia zekarren eta lanerako adina izan zuenean, haren trebezia Donostiako aristokraten etxeetan barneratu zen. Donostian bizi ziren aristokrata ospetsuenen sonbrerogile famatu eta gutiziatua bilakatu zen. Miren Begoña Amunarriz Olano bere alabak argitu ahal izan digunez, Parisera lanera joateko eskaintzarik ere jaso zuen, baita ezezkoa eman ere.

Elite atzerritarren artean lan egin bazuen ere, Alegiako herri txikiko nortasunetik gertu kokatzen zen euskal abertzaletasunaren aldeko aldarria beti oso present izan zuen.

[219] Ferroleko Agiritegi Militarra, 836/38. Testigantza: Miren Begoña Amunarriz Olano.

Sofia Olano Olloquieguik bere abertzaletasunaren erakusle, frankistak atzetik zituen gudari bat etxean ezkutatzeko hautua egin zuen. Norbaitek, Sofia Olano Olloquieguik egin zuenaren berri autoritate frankistei eman zien eta horren eraginez, atxilotu egin zuten. Lehenik, gau bat Ondarretako kartzelan pasa zuen eta gainontzeko urteak, Donostiako Prim kalean, emakume zein gizonezkoentzat egokitutako San Jose Ikastetxeko presondegian igaro zituen[220]. San Jose Ikastetxea presondegi gisan erabili zenean, berau, mojek administratzen zuten.



**Sofia Olano Olloquiegui (eskuinean zutik).** (Miren Begoña Amunarriz Olanok emandako argazkia).

Auzitegi Militar Frankistak, Sofia Olano Olloquieguirekin bat epaitu zituen gainontzeko pertsonak, instituzio frankisten aurkako pertsonak Frantziara pasatzen laguntzeagatik kondenatu zituzten. Guztira bi urte eta erdi egin zituen kartzelan. Kartzelan bertan, Olanok, haurrei eskolak ematen jardun zuen. Bitartean, haren bi alabak, amona alargunarekin bizi behar izan zuten, Donostian bertan.

Preso zegoela, Burgoseko kontzentrazio-eremura zeramatzaten gudariak, Donostiako tren-estaziotik pasatuko zirelako berria iritsi zitzaion. Haien artean, bere senarra Castor Amunarriz egon zitekeelarik, kartzelatik irteteko baimena eskatu zuen. Eskaera onartu eta senarrarekin biltzeko aukera izan zuen besarkada eta negar-malkoen artean.

Kartzelatik irten ostean, lanaren arloan birmoldaketa jasan zuen. Gerra Zibilaren ostean, emakumeek, kapelak erabiltzeari utzi zieten. Baina Olanok, bere alabak hezi ahal izateko lana egitea ezinbestekoa zuen. Horren irtenbidea, umeentzako kapelak egiten hastea izan zen.

Liburuan zehar, kargu publikoetatik bota zituzten emakumeak ere aipatu ditugu. Segidan haien erreferentzia egiten duen taula:

### d. Kargu publikoetatik botatako emakume alegiarrak

| IZEN-ABIZENAK | ZIGORRA |
|---|---|
| BERROA ARISTIMUÑO, DOLORES | Behin-behineko kargugabetzea |
| ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, MARIA | Behin-betiko kargugabetzea |
| GIMENO HUARTE, AURELIA | Behin-behineko kargugabetzea |

[220] Testigantza: Mikel Legorburu Arzamendik egina. Valen Tardón.

Prozesu hau guztia aurrera eraman ostean, eta diktadura frankistan zehar, Alegiako udal-gobernu frankista, aipatutako errepresio-metodoez baliatuz, garaiko emakumea, gizonaren eta aparailu frankistaren menpeko izatea lortu zuten. Frankismo garaiko emakumea, Ama Birjinaren irudiaren isla zen, emakume, lirain, puru, gizonaren menpekoa eta laguntzailea, aldi berean. Alegiako udal-gobernuak, ezinbestekoa izan zuen Alegiako elizaren laguntza, oinarri tradizional-katolikoak inposatuz, emakumea gizonaren menpeko bihur zedin. Hala, emakumeak, feminitate rolak bete beharko zituen (zuzentasuna, purutasuna …) eta rol maskulinotzat hartuak ziren ekintzak (bizikletan ibiltzea, esaterako) betetzen zituzten emakumeak, "mari-mutil" gaitzizenaz isekatzen ziren, besteak beste.

## e. Diktadura frankistan zehar errepresioa jasan zuten Alegiako emakumeen zerrenda[221]

| IZEN-ABIZENAK |
|---|
| AGUIRRE APAOLAZA, MARCELINA |
| AGUIRRE LETAMENDIA, MARGARITA |
| ARREGUI JAUREGUI, MANUELA |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, FRANCISCA |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, MERCEDES |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, MARIA |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, URBANA |
| ARRIZABALAGA AGUIRRE, VRIGIDA |
| BERROA ARESTIMUÑO, DOLORES |
| DOLADO GONZALO, JUANA |
| ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, MARIA |

| IZEN-ABIZENAK |
|---|
| ENETERREAGA ZABALA, JOSEFA |
| ESCUDERO LARREA, VISITACIÓN DOLORES |
| GASTESI ITURRIOZ, FILOMENA |
| GASTESI ITURRIOZ, MARIA |
| GASTESI ZALDUNBERE, FILOMENA |
| GIMENO HUARTE, AURELIA |
| GOROSTARZU SARASOLA, LUCIA |
| ITURRIOZ MURUA, FILOMENA |
| LASA IRARAGORRI, FRANCISCA |
| LASA IRARAGORRI, ISIDORA |
| LASQUIBAR LARRETA, JULIA[222] |

| IZEN-ABIZENAK |
|---|
| LUNA MORALES, PILAR |
| MARTINEZ, MARIA |
| MENDIA GARAYALDE, TELESFORA |
| MONTOYA ARIZMENDI, MARIA ANGELES |
| OLANO OLLOQUIEGUI, SOFIA |
| OQUIÑENA MORALES, MARÍA |
| SAGASTUME LASA, ANTONIA |
| SAGASTUME LASA, DAMASA |
| SAGASTUME LASA, ISIDORA |
| SAGASTUME LASA, LUISA |
| SARASOLA IRAOLA, IGNACIA |


Aguirre Apaolaza
Marcelina


Arregui Jauregui
Manuela


Berroa Arestimuño
Dolores "Lolita"


Gastesi Iturrioz
Maria


Gastesi Iturrioz
Filomena


Gastesi Zaldunbere
Filomena


Gimeno Huarte
Aurelia


Iturrioz Murua
Filomena


Lasquibar Larreta
Julia


Olano Olloquiegui
Sofia


Sagastume Lasa
Antonia

[221] Historia orain gutxira arte, gizonezkoek idatzia eta gizonentzako idatzia izanagatik, dokumentazioan emakumeon hutsune handia ageri zaigu. Horregatik, batez ere, eskerrak eman nahi dizkiegu alegiarrei, beraiei esker, paperetan isilaraziak izan ziren emakumeak gure historiaren parte izatera ekartzeagatik. Oraindik ere, hutsuneak geratu zaizkigu, badakigu ez direla garai hartan errepresioa jasan zuten emakume guztien izenak taula honetan ageri. Lanean jarraituko dugu, hutsunea ahalik eta txikiena izan dadin.

[222] Tolosako Emakume Abertzale Batzako kidea, baina Alegian zenbait ondasun errekisatzeagatik sartu dugu zerrenda honetan.Lanean jarraituko dugu, hutsunea ahalik eta txikiena izan dadin.

## 4.6. KARTZELA ETA KONTZENTRAZIO-EREMUETAN PRESO EGON ZIREN ALEGIARRAK

Gerraren ondorioak, zenbait alegiarrentzat, ankerrak izan ziren. Zentzu horretan, askatasunen mugaketaz hitz egitea dagokigu. Alegiako udal-gobernu frankistak, beldurraren bidez alegiarren bizitza mugatu zuen, gainontzeko herrietako autoritate frankistek egin bezala. Publikoki adieraz zitekeen pentsamendu askatasuna, altxor preziatuenen kutxan gordeta geratu zen, ezinbestean. Garai ilunak ziren, inposatutako ordena irmotik at kokatzen zen edozein pentsamendu aske, epaitu egiten baitzuten.

Hori guztia lortzeko, ikusi dugunez, autoritate frankistek, errepresio modu ezberdinak erabili zituzten: langile publikoen kaleratzeak, errepresio ekonomikoa, emakumeak menpeko egiteko errepresio metodo ezberdinak … Horiez gain, ezin gaitezke ahaztu, kartzela eta kontzentrazio-eremuetan, preso errepublikazaleek jasandako errepresio fisiko zein psikologikoaz.

Kartzela eta kontzentrazio-eremuek, emakume zein gizonezko andana bildu zuten beraien barroteen artean. Autoritate frankistak, atzeraguardian zein frontean, Bigarren Errepublikaren alde borrokatu zen pertsona oro, zigortzeaz arduratu ziren. Horrez gainera, konfliktoan inongo parte hartzerik izan ez zuten pertsonak ere, beren senideen parte hartzeagatik, askotan, zigortu egin zituzten.

1937ko udan, gerrara, altxatutako ejertzito frankistaren aurka borrokatzera joan ziren alegiar asko, preso hartu zituzten. Abuztuaren 26a, Eusko Gudarosteko gudari zein milizianoentzat, zinez egun lazgarria izan zen. Bi egun lehenago, Eusko Jaurlaritzak, tropa frankisten menpe zeuden tropa italiarrekin, “Santoñako Paktua” gisan ezagutzen dugun hitzarmena sinatu zuen. Haren arabera, gudari eta milizianoei, tropa italiarren gerra-preso egin eta, beraien bizitza barkatuko zitzaien, armak entregatzearen truke. Bitartean, funtzionario, agintariek … errefuxiatzeko aukera izanen zuten.



**“Santoñako Paktua”: armen entrega.**
(Irargi Institutua Bidasoa Dokumentu Bilduma).



**“Santoñako Paktua”, ebakuazioa.**
(Irargi Institutua Bidasoa Dokumentu Bilduma).

Baina hitzartuak hitzartu, tropa frankistek, hitzarmena hautsi egin zuten. Horren eraginez, tropa frankistek, gudari eta euskal milizianoak, El Duesoko presondegian sartu zituzten. Haien artean ere, bazen alegiarrik.

Urrian, El Duesoko presondegian, epaitegi militarra ezarri zuten. Hargatik, presondegian, sailkatzeko zain zeuden gerra-presoak eta zigorra jasotakoak pilatu ziren. Egoera latza pasa zuten preso haiek guztiek. Baldintzak ez ziren batere onak: arkakusoak, zimitzak, elikagaien eskasia (potajerik ez zen, sopen artean, maiz, bareak agertzen ziren …), leihoak irekita lo egin behar izatea hezetasun eta hotz ikaragarriarekin … Torturak eta fusilamenduak ere, ohiko gauza bihurtu ziren. Presondegia gainezka zegoen eta ez zegoen tokirik horrenbeste preso bertan mantentzeko.



**Duesoko Presondegia diktadura frankistan zehar, presoen kontaketa.** **(Euskal Memoria Fundazioa).**

Horri aurre egin ahal izateko, 1937ko martxoan, Bizkaiaren aurkako azken erasoa hasi baino pixka bat lehenago, militar kolpisten buruzagiek egindako *Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra* erabili zuten. Presoak, lau kategorietan sailkatzen zituzten:

A) “Presoak edo aurkeztutakoak, ‘Mugimendu Nazionala’-ren aldekoak izatea justifikatzen dutenak edo, gutxienez, ‘Mugimendu’-aren aurkakoak ez direnak, edo etsaiaren aldean soldadu ibilitakoen kasuan, behartuta egin izana, edo lerro horietan haien borondatez soldadu ibili arren, etsaiaren fronteari aurkeztea sustatzeko igorritako aldarrien ondorioz gurera borondatez etorritakoak”.

B) “Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak”.

C) “Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta ‘Mugimendu Nazionala’-ren etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, ‘Mugimendu Nazional Askatzailea’ baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak”.

D) “Delitu arrunten edo jendearen zuzenbidearen aurkako delituen egiletzat jo daitezkeen pertsona harrapatuak edo aurkeztutakoak, izan delitu horiek ‘Mugimendu Nazionala’ baino lehenagokoak edo ondorengoak”[223].

[223] Sailkatzeko Agindu Orokorra (AGMA).

Sailkapen hura probestuz, B atalean sailkatutakoak eta A ataleko zalantzazkoak, kontzentrazio-eremuetara eta kartzela frankistetara eramaten zituzten. Han, gehienak Langile Batailoietan ezartzen zituzten. Horien bitartez, gatibu-lanak egitera behartzen zituzten, kartzela bakoitzeko *Presoak Sailkatzeko Batzordearen* irizpideak jarraituz. Batzordeek, bi informazio-iturri erabiltzen zituzten: batetik, presoak ziren herrietako agintari-frankistek eginiko txostenak eta, bestetik, agintari haiek aipatutako batzordeetan eginiko adierazpenak.

Herri guztietan gisan, Alegian ere, txosten haiek egiteaz, “Junta Local de Información” delakoa arduratu zen. Hura, aurrerago aipatu gisan, 1937ko azaroaren 18an sortu zen (ikus 18. orrialdeko taula). Bertan, herriko goi-agintariak bildu ziren: udala, eliza, Falangea eta Guardia Zibila. Eliza, Alegian, Julian Ayestaran parrokoaren eskutik, frankismoan zehar, Bigarren Errepublikan zehar galdu zituen zenbait eskubide berreskuratzen saiatu zen eta baita lortu ere.

Alegiako Udal-Agiritegiko dokumentuan, eliza eta Guardia Zibilaren zantzurik ageri ez bazaigu ere, jakinekoa da, haien laguntza ezinbestekoa izan zela, txostenak egiterako orduan:


Ilustre Ayuntamiento de la noble y leal villa de Alegria de Oria,

Ilustre Ayuntamiento.

El que suscribe Cura ecónomo de la iglesia parroquial de San Juan Bautista de esta villa, a ese Iltre. Ayuntamiento humildemente expone;

Que antes de que las leyes laicas de la república entraran en vigor, esta parroquia tenia el honor de recibir de los fondos municipales, la cantidad de "ciento veinticinco" pesetas(125) para los cinco sermones de Semana Santa, S, Juan y Carmen; ademas"ciento veinte" pesetas (12o), para el señor sacristan, mas"cincuenta" pesetas (5o) por el aniversario en sufragio del finado Dn José Manuel Lopetegui, insigne bienhechor de este pueblo; y los gstos de las procesiones de Semana Santa que pagaba diractamente.

Habiendose ahora restablecido el honor y respeto a la Santa Iglesia Católica, por el glorioso movimiento Nacional, salvador de España, el que suscribe solicita, que se incluyan en los presupuestos municipales que se van a formalizar para el año de 1938, las partidas arriba citadas, como lo han hecho otros católicos e ilustres ayuntamientos.

Gracia que no dudo alcanzar del Bondadoso corazón de ese Ilustre Ayuntamiento a quien Dios guarde muchos años.

Alegria de Oria a 2o de Noviembre de 1937.

¡Viva Cristo Rey! ¡ Viva España !

Julián Ayestarán

PARROQUIA DE SAN JUAN BAUTISTA · ALEGRIA ·

Ilustre Ayuntamiento de la noble y leal villa de Alegria de Oria.

**Julian Ayestaran parrokoak egindako ondasunen erreklamazioa.** (AUA).


PROVIDENCIA - Burgos a diecisiete de Marzo de mil novecientos treinta y ocho - Por recibida orden de proceder de la Autoridad Militar de la VI Region para que se instruyan Diligencias Previas contra JOSE OTAÑO MUJICA, guardese y cumplase cuanto se ordena y acusese recibo - Remitase oficio al Alcalde, Guardia Civil, Jefe local de F E T de las J O N S, Juez Municipal y Cura Parroco de Alegria de Oria (Guipuzcoa), para que informen a la mayor brevedad sobre cuanto les conste referente a la actuacion del encartado en relacion con el Glorioso Movimiento Nacional, asi como sus actividades politicas y conducta moral anteriores a este -
Asi lo mando y firma S S de que doy fe -

Rafael Ruiz y Ruiz

**Auzitegi Militarrek, Jose Otaño Mugicaren informazio eskaera Alegiako “Junta Local de Información” delakoari.** (Sumarisimoa 2456/39).

Behin txostenak jasota, eta epaitu edo epaiketaren zain zeuden presoak, presondegiz mugitzen zituzten. Presoak, kartzela batetik bestera pasatzen zituzten aldiro. Horregatik, eta, agintari militarrak eta espetxe frankistek arbitariotasunez jokatu eta *Presoak Sailkatzeko Batzordeak* igorritako txostenen iturriak oso sakabanatuta egoteagatik, oso zaila zaigu, Alegian zenbat gerra-preso egon ziren eta, haietatik Langile Batailoietan zenbat sartu zituzten jakitea.

Langile Batailoietan sartzen ziren ala ez, *Presoak Sailkatzeko Batzordeak* zein epai militarrean adostuak erabakitzen zuen. Horrela beraz, zenbait alegiar, kartzela, kontzentrazio-eremu eta Langile Batailoietatik pasatu ziren.

KONTZENTRAZIO-EREMUETAN EDO LANGILE BATAILOIETAN PRESO EGONDAKO ALEGIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | KONTZENTRAZIO-ESPARRUA EDO LANGILE-BATAILOIA |
|---|---|
| **AIZPURUA ECEIZABARRENA, RAMON** | BDST (Soldaduen Batailoi Diziplinatzailea) |
| **ARAMBURU LASA, LUCIO** | BDST |
| **AROSTEGUI BERAZA, JOSE** | BBTT (Langile Batailoia) |
| **ARRAYET ENDEIZA, JOSE ALFREDO** | BBTT // BDST |
| **ARTOLA GARIN, JUAN BAUTISTA** | BBTT 41 (Muelako Langileen Batailoia) |
| **ARRIZABALAGA AGUIRRE, ANTONIO** | Laredon atxilotuta |
| **BALERDI MACHIÑENA, JUAN JOSE** | BBTT |
| **CINCUNEGUI GALARRAGA, PEDRO JOSE** | BBTT |
| **GARCÍA ORTEGA, PEDRO** | BDST |
| **GASTAÑAGA JAUREGUI, ALBERTO** | Miranda de Ebroko (Burgos) kontzentrazio-eremua // BBTT 40 |
| **GASTAÑAGA JAUREGUI, PEDRO** | BBTT // Kontzentrazio-eremua |
| **GOICOECHEA LASA, TEODORO** | Kontzentrazio-eremua |
| **HERRERO BARRENO, JOSE** | BDST // Iruñeako Probintziako Presondegia // Santa Rita Kartzela (Madril) |
| **IRAOLA IPARRAGUIRRE, CLEMENTE** | Santanderreko Zezen Plaza |
| **LETAMENDIA ARRILLAGA, SERAPIO** | BDST |
| **MENDIA GARAYALDE, MIGUEL** | Palma del Río (Córdoba) |
| **MUGICA GARAYALDE, JOSE IGNACIO** | K-E Gasteiz (Araba), Orduña (Bizkaia) eta Murgia (Araba) // BBTT |
| **MUNDUATE URDAMPILLETA, ANGEL** | BBTT Cangas de Narcea, Teruel, Peñiscola |
| **OLANO IZAGUIRRE, JOAQUIN** | BDST |
| **OLANO LULUAGA, SEBASTIAN** | San Pedro de Cardeña K-E (Burgos) // BBTT |
| **ORTIZ MARTIN, ANTONIO** | K-E: Miranda de Ebro (Burgos), Santanderreko Zezenketa Plaza (Kantabria), Santoña (Kantabria), San Pedro de Cardeña (Burgos) // BDST |
| **OTAÑO MUGICA, JOSE** | K-E: Aranda de Duero // Valdenocedako Kartzela (Burgos) // Ondarreta |
| **SARASOLA BERAZA, LORENZO** | BDST |
| **URDANGARIN ESQUISABAL, SEVERIANO** | BDST |

Frankistek, Bigarren Errepublikako zantzurik utziko ez zuen sistema politikoa inposatu ahal izateko, ezinbestekoa izan zuten populazio osoaren kontrol soziala. Bigarren Errepublikan hedatu ziren ideia askatzaileak kontrolpean izan beharra zuten. Horregatik, ezinbestekoa zen, aurreko lerroetan aipatu gisan, ideia haiek zabaltzeaz arduratu ziren pertsona guztiak kontrolpean izatea. Horiez gain, inongo ideia askatzaileen eraginik izan ez zuten pertsonak ere, kontrolatu egin zituzten, badaezpada, ideia haiengandik kutsatu ez zitezen. Hori burutu ahal izateko metodoak, ezinbestean, errepresioa eragingo zutenak izan behar zuten. Pertsonak, askatasunez pentsatzetik, estatu diktatorial batek pentsatzen zuena obeditzera pasa beharko zuten. Asko eta asko, hari muzin egiten saiatu ziren, baina aparailu frankistak, bazuen hartarako metodorik: kartzelak, kontzentrazio-eremuak, fusilamenduak … Gaur egun, giza eskubideen urraketen oinarri diren ekintzak, hain zuzen.

Zenbait alegiarrek ere, errepresio mardul hori jasan beharra izan zuten. Horrek guztiak, beldurraren unibertsoa izendatuko duguna sortu zuen. Alegiarrak, nolabait esatearren, urte haietan zehar, ez zuten pentsamendu askatasunik izan. Publikoan eginiko bizitza, beti ere, agintari frankistek kontrolatuta zegoela bazekiten. Hargatik, etxean ere, ahalik eta diskrezio handienarekin, isilpean eta beldur instituzionalizatuarekin bizi beharra izan zuten. Beldur hori, frankismoa bukatzean ez zen amaitu, erreparaziorik ez baitzen bideratu. Horregatik, beldurraren zama, generazioz generazio pasatzen joan da zenbait familiaren artean, eta oraindik ere, bere sustraiak errotuta ditu Alegian ere, beste zenbait herri euskaldunen gisan. Poliki-poliki, erreparazioa bide, oroimena gogoratuz, beldurraren zama besterendu eta barne-askatasun eta lasaitasuna lortzeko gai izango gara.

KARTZELAN EGONDAKO ALEGIARRAK

| IZEN-ABIZENAK | TOKIA |
|---|---|
| ARTANO ALTUNA, JOSE | Tolosako Barrutiko Presondegia (Tolosako Arte eta Lanbide Eskolan) // Ondarreta |
| ARTOLA CIPITRIA, SABINO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| AYESTARAN GARIN, MARTIN | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| AZPEITIA BAZTARRICA, JOSE BAUTISTA | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| AZPEITIA BAZTARRICA, JUAN BAUTISTA | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| BALERDI MACHIÑENA, IGNACIO | Ez dakigu zehazki non |
| BALERDI MACHIÑENA, JOSE | Ez dakigu zehazki non |
| BALERDI MACHIÑENA, SILVESTRE | Ez dakigu zehazki non |
| BERASATEGUI GORROCHATEGUI, FERNANDO | Bilboko Arriaga Antzokia |
| BERAZA GARAYALDE, MIGUEL | Bilboko Arriaga Antzokia // Burgoseko Presondegi Zentrala // Astorgako Presondegi Zentrala (León) // Preso etxean (Zumarraga) |
| BERAZA SARASOLA, JOSE IGNACIO | Ez dakigu zehazki non |
| EGUIBURU AZPIAZU, DONATO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| ERMINA OYARZABAL, BERNARDO | Ez dakigu zehazki non |
| ERRONDOSORO SARASOLA, MIGUEL JOSE | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| GANZARAIN GOICOECHEA, VICTORIANO | Ez dakigu zehazki non |
| GARMENDIA GARMENDIA, JOSE | Alfaroko Guardia Zibilaren Kuartela // Tolosako Erreketeen Kuartela |
| GOICOECHEA LASA, ESTANISLAO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| GOICOECHEA LASA, EUGENIO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| GOICOECHEA LASA, JUAN | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| INCHAUSTI LARRAÑAGA, RICARDO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| IRASTORZA AGUIRRE, JUAN | Ez dakigu zehazki non |
| IRASTORZA IGUAIN, FRANCISCO | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta // Burgoseko Presondegi Zentrala |
| IRASTORZA IGUAIN, JULIAN | Ez dakigu zehazki non |
| LASA IRARAGORRI, CEFERINO | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta |
| LEUNDA LULUAGA, JOSE | Tolosako Barrutiko Presondegia // Donostiako Probintziako Presondegia |
| LÓPEZ MARTÍNEZ, TOMAS | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta |
| LORENTE NAVARRO, ANTONIO | Dueso (Kantabria) // Penal de Vega de Paz (Kantabria) |
| LUNA MORALES, JOSE | Donostiako Probintziako Presondegia |
| LUNA MORALES, PILAR | Tolosako Barrutiko Presondegia // Donostiako Probintziako Presondegia |
| MORENO GALILEA, JUAN BAUTISTA | Santanderreko Probintziako Presondegia |
| MUNDUATE URDAMPILLETA, ANTONIO | Ez dakigu zehazki non |
| OLANO OLLOQUIEGUI, SOFIA | Ondarreta // San Jose Ikastetxea (Prim kalea, Donostia) |
| OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, JOSE MARIA | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta |
| OTAMENDI OTAMENDI, JUAN BAUTISTA | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| OTAÑO MUGICA, FELIPE | Santoña (Kantabria) |
| OTAÑO MUGICA, JOAQUIN | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| OTAÑO MUGICA, JOSE | Valdenoceda (Burgos) // Ondarreta |
| OTAÑO MUGICA, MIGUEL | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| PÉREZ OÑATE, VICTOR | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| ROYO OÑATE (ÚBEDA), CELESTINO | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta |
| SAGASTUME LASA, JOSE MARIA | Santoña (Kantabria) // Dueso (Kantabria) // Ondarreta |
| UGARTE CHINCHURRETA, IGNACIO | Tolosako Barrutiko Presondegia |
| UGARTEMENDIA OLANO, EUSEBIO | Tolosako Barrutiko Presondegia // Ondarreta |
| URCELAY AYESTARAN, ANGEL | Tolosako Barrutiko Presondegia // Donostiako Probintziako Presondegia // Ezkaba Mendiko Presondegia (Iruñea) // Etxean preso |
| URDANGARIN ZABALA, JUAN | Ez dakigu zehazki non |
| ZABALA ATIN, IGNACIO ANTONIO | Bilboko Arriaga Antzokian |

### 4.6.1. Auzitegi militar frankistek epaitutako alegiarrak

Pertsonen kontrola bermatzeko, autoritate frankistek, XIX. mende bukaeran egituratutako Justizia Militarrean oinarritutako Gerra-Kontseiluak egin zizkieten zenbait gerra-preso zein herritarrei. 1936ko azaroaren 1ean Espainiako Defentsako Junta Nazionalak, Gerra-Kontseiluen bermea Madrileko hirian ziurtatu zuen dekretua atera zuen. Baina Madril, oraindik, errepublikarra izaki, 1937ko urtarrilaren 7an, altxatuek beren menpe hartu zituzten gainontzeko lurraldeetan hedatu zen aipatu dekretua. Modu horretan, ekintza publikoak ere, justizia militarraren eskuetan geratu ziren.

Presoak herri bertako presondegian kartzeleratu eta ondoren, Barrutiko edo Probintziako presondegira eramaten zituzten. Han ministerio fiskalak ezarritako kondenaren jakitun izaten ziren eta normalean, Gerra-Kontseiluaren ostean emango zien zigorra baino handiagoa izan ohi zen. Horregatik, presoek, denbora horretan zehar, asko sufritzen zuten. Errepresio psikologikoaz mintza gaitezke, beraz. Heriotza-zigorra zutenak, benetako epaia berretsi bitartean, beste presoengandik aparte, presondegian, ziega berezi batzuetan sartzen zituzten.

Gerra-Kontseiluak jaso behar izan zituztenak, C eta D ataletan sailkatuta geratu ziren alegiarrak ziren. Behin sailkatuta, *Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren* menpe geratzen ziren. Epaitu ahal izateko, preso zeuden kartzela edo kontzentrazio-eremutik, epaitegitik gertuen zegoen presondegira eramaten zituzten. Alegiarren gehiengoaren kasuan, Tolosako Barrutiko Presondegitik, Donostiko Ondarretako espetxera lekualdatzen zituzten, epaiketa Donostian egiten baitzieten. Bilboko kasuan, Larrinagako kartzelara lekualdatzen zituzten.

Epai haietan, “Junta Local de Información” delakoak ez ezik, epaiketara testigu gisan agertzen ziren alegiarrek ere, zenbaitetan paper erabakiorra burutu zuten. Izan ere, batzuetan, haien deklarazioengatik, epaituak, urte gutxiago jasotzeko aukera ere izan zuten. Esaterako, Jose Artano Altunak, zigor txikiagoa jasotzea lortu zuen, epaiketako testiguak (Carrera, delakoak) deklaratzean, “gizon ontzat” kalifikatu zuelako.

Zigor luzeenak, Alegiako Defentsa Batzordeko kide izan ziren militanteek jaso zituzten. Haien artean ohikoenak, heriotza-zigorra, biziarteko kondena eta, 12 urte eta egun batekoak izan ziren. 1941etik aurrera, *Zigorrak Aztertzeko Batzordeak*, zigorrak arindu egin zituen, presoen kondena-denbora laburtuz. Horren eraginez, 1943rako, preso gehienak aske utzi zituzten, beti ere, Alegiako Falangearen eta Guardia Zibilaren zaintzapean. Handik aurrera, kargu publikorik ere ezin izango zuten bete. Gerra-Kontseilua egin zieten alegiar batzuk, honakoak ditugu:

**JOSE ARTANO ALTUNA**[224]

Amezketarra jaiotzez, Alegian bizi zen, zeinetan iturgin, bizargin eta bonbero[225] gisan ere jardun zuen. Filomena Gastesi Iturriozekin ezkonduta zegoen eta, beren Imanol, Bingen, Miren eta Mikel seme-alabekin San Juan kalean bizi ziren.

Artano, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen, eta 1934an Alegiako EAJ/PNV-ko Batzordeko presidentea, bai eta Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat ere, Antonio Arrizabalaga Aguirre (Bigarren Errepublikako EAJ/PNV-ko Alegiako alkatea), Pio Montoya Arizmendi (apaiz abertzalea eta Gerra Zibilaren eraginez, Frantzian errefuxiatua) eta Gregorio Oquiñena Errorekin (EAJ/PNV-ko afiliatua eta albaitaria) batera.

Gerra iritsi eta Alegiara tropa frankistak sartu bitartean, Amezketan pasa zituen egunak. Tropa frankistak Tolosaldean sartzen ari zirelarik, bere emazte Filomenaren aholkuz eta laguntzaz, bere karguan zituen Miren eta Mikel seme-alabekin eta emaztearekin, Bilborako erbestea hasi zuen. Behin Bilbon egonik Santiago elizako sakristau eta zaindari lanak bete zituen. Tropa frankistak Bilbon sartzearekin bat, haren semea Imanol erreketeek eraman zuten eta beronek sakristau lanetan jarraitzeko aukera izan zuen.

Bere emaztea, Filomena Gastesi Iturrioz, Altzon desherriratuta zegoen eta oso gaixorik jarri zen. Herriko Jose Maria medikuak, badaezpada, testamentua egin beharra



**Jose Artano, Filomena eta Maria Gastesi, Anselmo, Mikel, Jose, Imanol eta Miren 1927an.**
**(Artanotarrek emandako argazkia).**

[224] Sumarisimoa 300/38.

[225] Gerra ostean, Alegiako bonberoen nagusia izan zen.

zegoela adierazi zion eta horretarako, beharrezkoa zela haren senarra Jose Artano Altuna etortzea. Hasieran Alegiara itzuli nahi ez bazuen ere, azkenean, bertara etorri zen. Alegiara iristean, alkatearengana joan beharra izan zuen eta hark, oso modu txarrean hartu zuen. Azkenean, Tolosan, testamentua egiteko tokia adierazi zion. Hurrengo egunean Tolosan adierazitako tokira agertu ostean, errekete eta Guardia Zibilen artean, atxilotu eta, Arte eta Lanbide Eskolan preso eduki zuten.

1937ko azaroaren 8an, Tolosako Presondegira eraman zuten. Bertara, bere semea den Mikel Artano Gastesik, egunero janaria eramaten zion eta, ostegunetan, aitarekin hitz egiteko aukera izaten zuen. Gerra-Kontseilua, Gerrako Auditoriako 6. Erregioan egin ostean, 1938ko otsailaren 19an, Ondarretako Presondegira eraman zuten, urtebeterako kartzela zigorrarekin eta, handik aurrera, kargu politikorik bete ezin izango zuelarik. Orué abokatuari esker, eta Alegiako zenbait testiguri esker, Artanoren kartzela-zigorra ez zen hain luzea izan. Beste epaiketa bat egin zioten eta, handik hiru egunera, libre geratu zen. Artanori, kartzelak, izugarrizko kaltea suposatu zion. Gerra hasi baino lehen, udaletxean, ur-kontatzaile lanetan jarduten zuen, baina behin tropa frankistak txintxarrien herrira sartu zirenetik, haren lanetik bota zuten.

Hori gutxi ez balitz, Gerra-Kontseiluaren bidez, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialari, Artano eta haren emazte Filomenaren ondasunak konfiskatzeko agindua eman zioten: “Echeandia” etxea, San Juan 16an kokatutakoa eta “Echechiqui” etxea, San Juan 33an kokatutakoa. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak ere, 1.500 pezetako isuna ezarri zion, bere jardun politikoagatik. Etxeetako giltzak, beren semea zen Imanol Artano Gastesi, gerra pasa ostean, soldaduska egitetik itzuli zenean eman zizkieten. Etxeak, goitik behera, hutsik zeuden. Beraz, Artano eta haren familiak, Alegiako frankisten errepresio gogorra jasan behar izan zuten[226].


**Jose Artano Altuna 1945ean.** (Artanotarrek emandako argazkia).

**JUAN BAUTISTA ARTOLA GARIN**

1909ko otsailaren 28an Alegian jaio zen eta langilea zen ofizioz. Alegian tropa frankistak sartu zirenetik alde eginda zegoen eta errepublikazaleen alde borrokatu zuen. Tropa frankistek atxilotu eta, Donostiako Plazako 8. Auzitegi Militarrean Gerra-Kontseilua egin ostean, Muelako Langile Batailoian BB.TT. nº 41 delakoan aritu beharra izan zuen, gatibu-lanak eginez. Hura izan zen diktadura frankistak ezarri zion zigorra[227].

**JOSE (EULALIO) AZPEITIA ORBEGOZO**

Deban jaioa, mikeletea lanbidez, Alegian bizi zen. Gerra garaian, mikelete gisan obra publikoetan ibili zen, 1936ko azaroaren 26an bere lanetik kanporatu egin zuten. Gerra-Kontseilua egin ostean, absolbitu egin zuten[228].

**MIGUEL BERAZA GARAYALDE**

Gerra hasi zenean 45 urte zituen eta jaiotzaz alegiarra bazen ere Zumarragan bizi zen, bere emazte Benedictarekin. Leku aldaketa, bere mikelete ofizioa medio egin zuen. Mikelete gisan 29 urte zeramatzan lanean eta gerra hastean, Zumarragako Aurrezki Kutxan lanean zegoen. Mikeletea izateagatik, Bilboko Arriaga Antzokian atxilotu zuten eta 1936ko azaroaren 26rako bere kargutik kendu. Deklarazioen arabera, ez zuen gerran parte hartu. Saturraranen egon zen 3-4 egun, hala agindu zitzaiolako. Haren ostean, Bakiora joateko deitu zioten, mikelete zerbitzua hilabetean bete zuelarik. Handik Las Arenasera eta azkenik, Bilbon, intendentziako eraikineko lanetan jardun zuen. Galdakaon ere, Polvorin-a zaintzen egon zen eta gero, berriro ere, Bilbon ezarri zuten. Tropa frankistak Bilbon sartzean, ez zuen Santanderrera alde egin. Tribunal frankistek, marxista izateagatik, bere aurkako karguak ezarri zizkioten. Gerra-Kontseilua, 1937ko uztailaren 13an hasi zen, bi egun beranduago emandako sententzian, atzeraguardiako lanak, boluntarioki bete zituelako akusatu zuten.

[226] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002777/0020 // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1118 // ARREGUI, JEXUS. 2016. Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz. 86-91.orr.

[227] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Mikel Errazkinen ikerketa-zerrenda.

[228] BOG.


Declaración indagatoria de MIGUEL BERAZA GARAYAL- de
DE
En Bilbao a trece de mil novecientos treinta y siete julio ante el Sr. Juez Militar núm. asistido por mí el Secretario, comparece el inculpado del margen, el cual es exhortado a decir verdad en lo que sepa y se le pregunte, habiéndolo ofrecido así:
Preguntado a tenor del art. 457 del Código de Justicia Militar dice: Que se llama MIGUEL BERAZA GARAYALDE de edad cuarenta y seis años; natural de Alegria de Oria provincia de Guipuzcoa partido judicial de Tolosa vecino de Zumarraga de estado casado ; de oficio miquelete hijo de Jose Ignacio y de Cayetana ;
no ha sido procesado por delito ;
si sabe leer si escribir. Preguntado convenientemente manifiesta: que se afirma y ratifica en los extremos todos de su declaracion obrante al folio 18 de los autos.
A nuevas preguntas agrega:que jamas estuvo afiliado a partido politico alguno ni tuvo ideas izquierdistas.Que nunca hizo otra cosa que la de cumplir las ordenes que se le daban por la Diputacion y sus jefes,sin que se significara en nada. Que no ha votado nunca en ninguna eleccion. yY que antes y despues del 18 de Julio de 1936 no tuvo cargo alguno en el expresado cuerpo de miqueletes sino que era miquelete raso.
Designa defensor a :
Asi lo dice y leido se ratifica y firma con S.S. Doy fe.
Miguel Beraza
Benedo Olivera

Miguel Beraza Garayalderen Gerra-Kontseilua.


RESULTANDO que los procesados José Zubiaurre, Miguel Marichalar y Miguel Barazar del cuerpo de Miqueletes y de antecedentes extremistas intervinieron voluntariamente durante el pasado movimiento revolucionario en trabajos de vigilancia y organización de retaguardia sin estar en los frentes.

Miguel Beraza Garayalderen Sententzia.


Póliza
G. N.º A 340821
CERTIFICACIÓN EN EXTRACTO DE ACTA DE DEFUNCIÓN
Don Pablo Querejeta Usarralde
Juez municipal de Zumarraga
provincia de Guipúzcoa, y Encargado de su Registro civil,
CERTIFICO: Que según consta del acta reseñada al margen y correspondiente a la Sección III de este Registro civil,
D. Miguel Beraza Garayalde
nacido en Alegria de Oria (Guipúzcoa), de cincuenta y cinco años de edad
e hijo de José Ignacio y de Cayetana, de estado casado
FALLECIO
en esta villa
el día veinte de enero
de mil novecientos cuarenta y cuatro
Zumarraga, a 20 de diciembre de 1947

Miguel Beraza Garayalderen heriotza-erregistoa.

## PEDRO JOSE CINCUNEGUI GALARRAGA

1911ko azaroaren 16an Errezilen jaio zen, baina Alegian bizi eta bertako gurinen fabrikan lan egiten zuen. EAJ/PNV-ra afiliatua, gerra hastean, 24 urte zituelarik, errepublikazaleekin borrokatzera joan zen frontera. Gerran zehar, tropa frankistek harrapatu eta preso egin zuten. Gerra-Kontseilua Bilboko Plazako 12. Auzitegi Militarrean egin eta “sobreseimiento provisional”[230] delakoa aplikatu zioten. Horren eraginez, seguruenik, Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera bidali zuten[231].

Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko uztailaren 23an eginiko epaiketaren ostean, diktadura frankistako estatuari 150 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen. Modu horretan, frankistek, Cincuneguiri “egindako kalteak” barkatuko zizkioten[232].


Pedro Cincunegui Galarraga. (AUA).

[230] Itzulpen literala.
[231] Sumarisimoa 1409/37.
[232] AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1112.

## BERNARDO ERMINA OYARZABAL

1909ko irailaren 3an Alegian jaio zen eta ordudanik, Ecedi-n bizi izan zen. Langilea ofizioz, tropa frankistak Alegian sartu zirenetik desagertuta zegoen. Horren eraginez, Antonio Erminak Alegiako alkatetzara idatzitako idatzi batean, errepublikazaleen aldean zegoela adierazi zuen. Preso hartu zuten eta Gerra-Kontseilua egin zioten, 1941eko apirilaren 4an, Bilboko Auzitegi Militarrak, askatasuna deklaratu zion[233].


Antonio Ermina manifiesta que su hijo
salió de casa con rumbo incierto, estando siem-
pre en campo enemigo sin poder regresar
y sin saber de él mas que estuvo en Vida.
y que no hallan medio de comu-
nicarse con él ni sabe si existe
Alegria de Oria 20 Enero 1937
Antonio Ermina

**Antonio Erminak bere semeari buruz idatzitakoa.** (AUA).

## JOSE GALARRAGA AGUIRREZABALA

1913ko otsailaren 20an Alegian jaio zen eta gidaria zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Kinten orrian "En Bata", hau da, agian Langileen Batailoian zegoela edo frontean zegoela adierazi nahi zuten. Miranda de Ebron aurkitzen zen bere autua (auto) desglosatu zutenean[234].

## TEODORO GOICOECHEA LASA

1915eko abenduaren 7an Alegian jaio zen. Arzabalza fabrikan lan egin zuen papergilea izan zen. 1936ko abuztuaren 16an tropa frankisten alde borrokatzeko Alegiako udal-frankistak atera zuen zerrendan ageri zen. Baina, hau, errepublikazaleekin borrokatzera joana zen, Eusko Gudarosteko Loiola Batailoiarekin, hain zuzen. Haren anaia zen Eugenio Goicoecheak, alkatetzari, berau non zegoen ez zekiela adierazi zion.

Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, Bilbora egin zuen eta haren ostean, Asturiasera, bertan atxilotu zutelarik. Horren eraginez, Gerra-Kontseilua, Donostiako Plazako 7. Zenbakiko Auzitegi Militarrean egin zioten. Bere deklarazioetan, San Jose Sindikatu Katolikora afiliatuta zegoela adierazi zuen eta ez zegoela beste inongo alderdietara afiliatuta. Horrez gain, Carlos Arrieta apaiza atxilotzera joan izanagatik salatu zuten. Hala eta guztiz ere, Arrieta apaizak eta haren neskame Isabel Insaustik, beren testigantzekin, aurrekoa deuseztatu zuten. 1943ko abuztuan, "sobreseimiento provisional" delakoa ezarri zioten.

1947ko abuztuaren 29an, kartzela eta kontzentrazio-eremu ezberdinetan egon ondoren, Kanbo "Urraldia"-an aurkitzen zen. Han zegoelarik, Coué et Casse, par Seugoangnet-en (Haute Garonne) lan egin zuen[235].


DECLARACION DEL TESTIGO . ) En San Sebastian a veinticinco de
D.CARLOS ARRIETA LARUMBRE...) Marzo de mil novecientos cuarenta
y tres, ante S.Sª y presente el Se-
cratario comparece el anotado al margen, quien enterado de la obli-
gación que tiene de decir verdad y de la pena en que incurre el reo
de falso testimonio juro con arreglo a su clase ser veraz en sus
manifestaciones y preguntado convenenientemente manifiesta: llamar-
se como queda dicho de 72 años de edad, natural de Alegria de Oria
vecino de la misma localidad con domicilio en calle San Juez, sacer-
dote adscrito a la parroquia de la citada Villa, y que no le com-
prenden las demas generales de la Ley.
PREGUNTADO: Si conoce al encartado TEODORO GOICOECHEA LASAX DIJO;
que si, que le conoce desde hace muvhos años.
PREGUNTADO: Si es cierto que el encartado al estallar el G.M.N.
fue a detenerle, cuya detención no pudo realizarse
por estar prevenido y haberse escondido, pero hizo fuertes amenazas
a su criada siendo registrada la casa DIJO: Que esta seguro de que
el mencionado TEODORO no fue a detenerle; que él se enteró que re-
gistrarón la casa unicamente con objeto de recoger armamento; que
el citado TEODORO no amenazó a su sirvienta; que sospecha que si
hubo amenaza la habrian provocado algun otro que él ignora.
PREGUNTADO: Si tiene algo mas que decár DIJO; que le tien por na-
cionalista pero que no le cree capaz de cometer hecho
delictivo alguno; que es de buena familia siendo un bien muchacho,
que lo dicho es la verdad en descargo del juramento prestado.
En este estado S.Sª dio por terminada esta declaración
y leida que fue por el declarante enterado del derecho que le asiste


DECLARACIÒN DE LA TESTIGO ) En San Sebastian a 30 de Marzo de mil
ISABEL INSAUSTI OYARZABAL..) novecientos cuarenta y tres, ante S.Sª
y presente el Secretario comparece la
testigo anotada al margen quien enterada de la obligación que tiene de
decir verdad y de la pena en que incurre el reo de falso testimonio,
juro ser veraz en sus manifestaciones y preguntada convenientemente,
manifiesta, llamarse como queda dicho de 60 años de edad, saltera, natu-
ral de Alegría de Oria con domicilio en la misma en la Calle de San
Juan nº 50 de profesión sirvienta del Sacerdote de la misma Villa Don
Carlos Arrieta, que sabe leer y escribir y que no le comprenden las de-
mas generales de la Ley.
PREGUNTADA: Si conoce al encartado TEODORO GOICOECHEA DIJO: que si, qu
conoce desde que nacio.
PREGUNTADA: Si es cierto que el encartado fuera a detener al cura Don
Carlos Arrieta donde la declarante prestaba sus servicios
DIJO: Que no es cierto, que solamente le pidierón las armas diciendo
que era de orden del Gobernador.
PREGUNTADA: Si al no encontar al cura, profirió amenazas contra la de
clarante DIJO que no, que nuevamente hace constar que no
fuerón a detener a Don Carlos Arrieta sino que unicamente le pidieró
las armas diciendo que èra orden del Gobernador y que se las entregar
a lo que la declarante les contestó que "pobres de vosotros como esto
de la vuelta que vais a hacer entonces" y que al oir esto el grupo
parece que cogio miedo y se marcharón sin proferir amenaza alguna en
contra de la declarante.
PREGUNTADA: Si tiene algo mas que decir DIJO que le tiene al encarta
en buen concepto, y de familia muy buena, de ideas naciona
tas, sin que le crea capaz de cometer hecho delictivo alguno; y que
cuando estalló el G.M.N. era el encartado un chiquillo; y que no tie
mas que decir que lo dicho es la verdad en descargo del juramento pr
tado.
En este estado S.Sª dio por terminada esta declaración y
leida que fue por la declarante enterada del derecho que le asiste p
ello se afirma y retifica en ella y firma con S.Sª de lo que como Se
cretario certifico.

**Carlos Arrietaren eta Isabel Insausti Oyarzabalen deklarazioak.** (Sumarisimoa 716/43).

---

[233] AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Aurre-diligentziak 2056.
[234] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 1350/37.
[235] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 482.Kaxa. E. Sekzioa 6. Negoziatua // Sumarisimoa 716/43.

## FRANCISCO IRASTORZA IGUAIN

1909ko abuztuaren 15ean Alegian jaio zen eta, udaltzain eta gidari lanak egiten zituen gerra hasi baino lehen. Gerra hastean, 27 urte zituen eta Izquierda Republicana alderdian afiliatuta zegoen. Tropa frankistak Alegiara sartzear zeudela, Tolosara alde egin zuen. Handik, Bidania, Orio, Zarautz, Zumaia, Bergara, Antzuola, Zumarraga eta azkenik, Besainen tropa frankistek 1936ko irailaren 18an atxilotu zuten.

Handik, Iruñeako Ezkaba mendiko Presondegira eraman zuten. 1936ko urriaren 9an aske utzi, baina urriaren 15ean Zumarragara joan ahal izateko "ibiltzeko baimenaren" (salvoconducto) bila joan zenean, berriro ere atxilotu egin zuten.

1936ko azaroaren 8an, Tolosako Barrutiko Presondegian sartu zuten, eta bertan erreketera afiliatu eta frontera joateko baimena eman zieten, berari eta Jose Antonio Lasa Dorronsoro Albizturreko presoari. Lasak, Irastorza, behin frontera iristean, ejertzito errepublikazalera alde egingo zuela esan ziola akusatzen zuen. Irastorzak berriz, biek, behin erreketeekin boluntario joan ostean, ejertzito errepublikazalera pasatuko zirela akordatu zutela adierazi zuen. Azken horregatik, bi presoek, bigarren salaketa jaso zuten. Horren eraginez, 1937ko urriaren 27an, Ondarretako kartzelara lekualdatu zituzten, epaiketa azkarra egin ahal izateko.


Prisión de Partido de Tolosa
NOMBRES Y DOCUMENTACION
Francisco Irastorza Iguain
He recibido del Sargento del Requeté
Don José Carrera
en concepto de detenido
y a disposición del Sr. Gobernador Militar de la Plaza
el individuo cuyo nombre y documentación que le acompaña se expresa al margen.
Tolosa 8 de Noviembre de 1936
El Jefe Requeté
José Carrera

**Francisco Irastorza Tolosako Presondegian.** (AHPG-GPAH).

Bertan, Irastorza, Fronte Popularrekoa izateaz, propaganda ezketiarra egiteaz, Carlos Arrieta apaiza atxilotu nahi izateaz, Mataderotik kobratutako dirua eraman eta Fronte Popularrari emateaz, kotxe bat konfiskatzeaz… akusatzen zuten beste zenbait gauzen artean. "Adhesión a la rebelión militar" delakoagatik akusatu zuten eta bere defentsa gisan, Artileriako Tenientea zen Juan Artamendi Arluciagak egin zuen. 1937ko urriaren 25ean, sententzia eman zioten: 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta horrez gain, Alegiako Mataderotik bildu zituen 500 pezeta itzuli beharko zizkion Alegiako udaletxeari. Handik, Goi Auzitegietara eraman zuten epaiketa, fiskalak, presoak heriotza-zigorrera kondenatu behar zirela uste baitzuen. Lehenengo auzitegiak, Fronte Popularrean parte hartzerik ez zutela izan eta inor ez zutela hil determinatuz, ez zituen heriotza-zigorrera kondenatu. 1938ko urtarrilaren 24an, Valladolideko Goi Auzitegiak, heriotza-zigorra ezarri zien bi auzipetuei. Baina Francok kondena kommutatu egin zien, eta 30 urteko kartzela-zigorra definitiboa ezarri.


En Alegria de Oria a ocho de noviembre de mil novecientos treinta y seis, ante mi el jefe de los Requetés se presenta D. Francisco Irastorza, y tomada declaración manifiesta que, viene de Pamplona donde ha estado detenido en el fuerte de S. Cristóbal, no presentando ningún documento que acredite su libertad declarando asi mismo que, cuando la evacuación por ellos efectuada de esta Villa de Alegría marché a Tolosa, de esta plaza se dirigió a Vidania, de ésta a Zumárraga por carretera pasando por Orio, Zarauz, Zumaya por Vergara Anzuola a Zumárraga desde viéndose ya sin recursos se presentó a la fuerza Nacional cuando ésta entró a Zumárraga de donde en calidad de detenido fué trasladado al Castillo de Sn Cristóbal de Pamplona.

Asi mismo manifiesta que, como Alguacil que era de este Ayuntamiento y encargado del cobro de arbitrios del matadero Municipal de esta Villa se llevó consigo el importe integro del mes de julio que debia haber ingresado en Tesorería Municipal en concepto de carnes y cerdos sacrificados en dicho mes cuyo importe íntegro entregó en S. Sebastian al Frente Popular.

Y manifestando su conformidad firma el interesado el presente atestado.

Francisco Irastorza

INFORME: El individuo a quien hace relación el presente atestado/ según relacion que obra en poder de VdI., figura como Socialista y el declara que era de Izquierda Republicana. Fue Muy Activo con las armas en la mano y usando dos bonitos coches requisados a derechas para sus correrias al servicio del Frente Popular Inutilizándoles

Alegria de Oria a 8 de Noviembre de 1936.

El Jefe de Requetés,

**Francisco Irastorzaren deklarazioa.** (Sumarisimoa 1457/37).

Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeak, Irastorzari, Aurrezki Kutxan zuen kartila konfiskatu zion Alegiako udalarekin zuen 500 pezetako zorra ordaintzeko. Gerora, 1944an, kondena 20 urte eta egun batera kommutatu zioten.

Horren eraginez, gogorki jasango zuen diktadura frankistaren errepresioa: Burgoseko Presondegi Zentralean 1938ko azaroaren 24tik aurrera, 1944ko apirila ingurura arte egongo zen bertan[236].

---

[236] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002777/0084 // Sumarisimoa 1457/37.



CUARTEL GENERAL DE S.E. EL GENERALISIMO
ASESORIA JURIDICA

Ilmo.Sr.

Rds. 5159.
Sus. 1457-37.

S.E.EL JEFE DEL ESTADO, noticiado que le ha sido la parte dispositiva de la sentencia dictada por el ALTO TRIBUNAL DE JUSTICIA MILITAR,para ver la causa instruida a FRANCISCO IRASTORZA IGUAIN, se ha dignado CONMUTARLE la pena impuesta, por la inferior en grado.

Lo que traslado a V.I. para su conocimiento y efectos.

Dios guarde a V.I. muchos años.

Burgos a 12 de Mayo de 1.938.

II Año Triunfal.

EL ASESOR,

...Sr. Auditor de la 6ª Región Militar.-BURGOS.

Francisco Irastorzaren heriotz-zigorraren kommutazioa. (Sumarisimoa 1457/37).



LIQUIDACION de tiempo de prision preventiva que durante la causa ha sufrido el reo FRANCISCO IRASTORZA IGUAIN,para deducirle el que ha de servirle de abono para la extincion de la condena conforme a la Ley de 17 de Enero de 1901 y R.O. de 5 de Marzo del mismo año,(C.L. números 101 y 102)

| | Dia | Mes | Año | Años | Meses | Dias |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Se le constituyó en prision según diligencia | 8 | 11 | 36 | | | |
| Se hizo firme la sentencia | 20 | 5 | 38 | | | |
| Tiempo que ha estado en prision | | | | 1 | 6 | 12 |
| Tiempo que ha de servirle de abono | | | | 1 | 6 | 12 |
| Ha sido condenado a la pena de | | | | 30 | .. | .. |
| Le quedan, descontados 7 dias por años bisiestos | | | | 29 | 11 | 23 |
| Le resta cumplir condena desde el dia 20 de Mayo de 1938,hasta el dia 31 de Octubre inclusive de 1966 | | | | 28 | 5 | 11 |

San Sebastian 31 de Julio de 1938
II Año Triunfal
El Capitan Juez Instructor
Nicanor Torres

Francisco Irastozaren kartzela-zigorra. (Sumarisimoa 1457/37).



CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

En contestación a su oficio de fecha 27 del actual,pongo en su conocimiento que don Francisco Irastorza Iguain,es titular de la libreta ordinaria numero 192.322,con un saldo de Pesetas 36,36, que ya con fecha 28 de septiembre de este año se puso a disposición de la Comisión Provincial de Incautación de Bienes de Guipúzcoa.Al mismo tiempo le comunicamos que la agencia de Alegria que depende directamente de esta Central, no acusa en favor del inculpado saldo alguno.

Dios guarde a V.S.muchos años.

San Sebastian,28 Noviembre de 1.938.-III Año Triunfal.

EL DIRECTOR,

Juzgado Militar-Ejecuciones-Nº18-Sección B.
SAN SEBASTIAN.

Francisco Irastorza kartilaren konfiskazioa. (Sumarisimoa 1457/37).



LIQUIDACION DE CONDENA, del encartado en SUMARISIMO Nº 1.457/37
FRANCISCO IRASTORZA IGUAIN

| | Día | mes | año |
|---|---|---|---|
| Fué constituido en prisión el día............ | 8 | 11 | 1936 |
| Le ha sido conmutada la pena primitiva de 30 Años de Reclusión mayor, por la de VEINTE AÑOS Y UN DIA de Reclusión mayor.......... | 1 | | 20 |
| | 9 | 11 | 1956 |
| Se le descuentan CINCO días por años bisiestos | 5 | | |
| | 4 | 11 | 1956 |

DEJARA EXTINGUIDA SU CONDENA EL DIA....... 4 de NOVIEMBRE de 1.956

San Sebastián 8 de Marzo de 1.944
EL COMANDANTE JUEZ INSTRUCTOR

Francisco Irastorzaren kartzela-zigorraren kommutazioa. (Sumarisimoa 1457/37).

## CEFERINO LASA IRARAGORRI[237]

1891ko apirilaren 24an Alegian jaio zen, eta Bigarren Errepublika baino lehen, Abya Yala-n[238] lanean aritu zen.

1931ko apirilaren 12an ospatutako hauteskundeak, ustelkeriaren emaitza izan ziren Alegian. Zenbait hautagaiek, beren botoak herritarrei erosi egin zizkieten. Horren aurrean, Tolosako Distrituko Komite Iraultzaileko buru zen Cecilio Iglesiasek, Ceferino Lasa Iraragorri Alegiako alkate izendatu zuen. Ceferino Lasa Iraragorri, katoliko independente gisan aurkeztu zen aipatutako

[237] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 485. Kaxa // 511. Kaxa E Sekzioa. 6. Negoziatua // AHPG-GPAH GEZ 002777/0103 // Sumarisimoa 65.

[238] Gure jendartean Amerika gisan ezagutzen dugun kontinentea litzateke. Gaur egun, bertako zenbait herri, Kuna herria kasu (Panama eta Kolonbia iparaldean kokatuta), Abya Yala izena, gure ahotan ezartzeko aldarria egiten ari dira. Izan ere, Amerika izena, Americo Vespuccio europar kolonizatzailearen eraginez ezarri zioten. Modu horretan, kontinente horrek, oraindik ere Amerika izena mantentzeak, lurralde horrek europar zein mundu mailako beste zenbait botetsuengandik bizi duen kolonizatu egoeraren berri ematen digu. Beraz, Abya Yala izena, bertako zenbait herrik erabilitako kontzeptu gisan, kontinente hori dekolonizatzeko kontzeptu gisan hartu eta erabiltzea dagokigu, europarrek bertako konkista hasi baino lehen hango zenbait herrik beraien lurraldea izendatzeko erabilitako kontzeptua baitugu. Abya Yala-k, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.

hauteskundeetara. Laster, ustelkeria kasuei irtenbidea eman asmoz, urte bereko maiatzean, hauteskundeak ospatu ziren Alegian, ustelkeria jasan zuten gainontzeko herrietan gisan. Emaitza, Lasa, alkatetza postutik zinegotzi postura jaistea izan zen, Juan Bautista Jauregui Lasa Alegiako alkate izendatu zutelarik. Hala eta guztiz ere, 1932ko Sanjurjadaren ostean, Jaureguik altxamenduaren aurkako aldarririk ez egin ostean, eta, Bigarren Errepublikako gobernuaren aldeko aldarririk ez egiteagatik, Ceferino Lasa Iraragorrik berriro ere alkatetza postua lortu zuen. 1936ko otsailaren 9an, otsaileko hauteskundeak ospatu baino lehen, Ceferino Lasa Iraragorrik bere dimisioa aurkeztu zuen, gaixorik zegoela argudiatuz.

Ceferino Lasa Iraragorrik Alegia laiko eta errepublikazaleago baten aldeko aldarria egin zuen, eta horrek bere ondorioak ekarri zizkion gerra osteko diktadura garaian. Bigarren Errepublikan zehar, ideia horiek bultzatu zituen Zentro Errepublikarra ireki zuen, Olloquiegui udal-idazkariarekin, Moreno Alegiako trenbideetako faktorearekin… batera. Dokumentu frankistetan, gerra hasi eta berehala Donostiara alde egin zuela adierazten da. Tropa frankistak Alegiara sartzean, itzuli egin omen zen eta haiei laguntza gisan 10.000 pezeta eskaini. Esanak esan, urte gogorrak pairatu behar izan zituen bai kartzelan baita kaleko giro errepresiboan ere.



**Ceferino Lasa Argentinan, 1925ean.** (Artanotarrek emandako argazkia).



D. EUGENIO JAUREGUI LASA, ALCALD DE ESTA VILLA DE ALEGRIA DE ORIA

Behin herritik alde eginik, Portugaleten ontziolan lan egin zuen. Intendentzia marxistan lan egin zuen, bereziki, ospitaleetan laguntzen. Bilbora tropa frankistak sartzerako, Karrantza eta Santanderrera egin zuen. Santanderren, tropa frankistek 1937ko irailaren 11n harrapatu eta preso egin zuten. 1937ko urriaren 2an, 35 urte zituela, Tolosako Presondegian sartu zuten. Gerra-Kontseilua, 1937ko urriaren 9an hasi eta 1939ko urtarrilaren 3an amaitu zioten, ordura arte kartzelan egon zelarik. Bertan, sei urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten "por auxilio a la rebelión". Horren eraginez, 1938ko ekainaren 10ean, Guardia Zibilak, Ondarretako Presondegira lekualdatu zuen. Hiru egun beranduago, Ondarretako Presondegira iritsi zen. Zigorrak Aztertzeko Batzordeak, 1943ko irailaren 6an, 3 urtera jaitsi zioten kondena.

Horrez gainera, frankistek, egindako "kalteak" ordaindu behar zituelakoan, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiaren bitartez, 50 pezetako isuna ezarri zioten[252].



**Eusebio Ugartemendia eta Martina Iraola ezkonberritan.**
**(Juan Ugartemendia Iraolak emandako argazkia).**



Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.
Departamento de Investigación e Información
TOLOSA

Tolosa 20 de Octubre 1937

Sr. Juzgado Eventual Numero 8
San Sebastian

s/ referencia: 9 Octubre
n/ referencia: 392

Muy Sr. nuestro:

En contestación a su atento escrito de referencia, tenemos el gusto de informarle a continuación sobre la persona que en el mismo se interesa.

Estamos a su disposición para cualquier aclaración o ampliación de detalles.

Dios salve a España y guarde a V. muchos años.

[I]NFORME DE D. Eusebio Ugartemendia Olano

[A]CTIVIDADES Y FILIACION POLITICA.- U.G.T.

[I]NTERVENCION DURANTE EL DOMINIO ROJO-SEPARATISTA EN TOLOSA Y DURANTE [L]A HUIDA.-
Actuo con [illegible] desde el primer momento

[A]NTECEDENTES PERSONALES: Mala conducta

[O]TROS DETALLES:

**Eusebio Ugartemendia preso.** (Sumarisimoa 1912/37).



DECLARACION DEL DETENIDO
EUSEBIO UGARTEMENDIA OLANO

En Tolosa y a veinte de Octubre de mil novecientos treinta y siete, comparece el detenido al margen, el cual exhortado a decir verdad, manifiesta llamarse como ya consta, mayor de edad, casado, natural y vecino de Alegria de Oria y

PREGUNTADO si se afirma y ratifica en su declaración prestada ante la Guardia Civil. Dijo: Que si, pero que tiene que rectificar, que no se detuvo a Fermin Imaz sino que fue traido solo para hacerle una pregunta, quedando luego en libertad.
PREGUNTADO si es cierto que quiso fusilar a Jose Maria Tolosa, yendo para ello provisto de dos pistolas dijo: Que no.
PREGUNTADO si es cierto intento la detencion de don Leon Goicoechea de Tolosa, dijo que se encontraba en su casa un tal Corella de Tolosa que le invito a que le acompañase al caserio Olazabal, diciendole en el camino que iban a detener al mencionado señor, cosa que no se efectuo porque no estaba en su casa.
PREGUNTADO si fue a detener al individuo de Amezqueta llamado Calzagorri dijo: Que invitado por unos individuos se dirigio al domicilio del citado para detenerlo y traerlo, estando en la casa mientras los demas hacian el registro. Que este Calzagorri es el llamado Jose Fermin Imaz.
PREGUNTADO si ha sido concejal en el año 1933, dijo: Que si, que fue nombrado por el Gobernador como representante de izquierdas. Que no tiene mas que decir y leida esta por el interesado, la firma con S.S. de que certifico.

**Eusebio Ugartemendiaren deklarazioa.**
**(Sumarisimoa 1912/37).**

[252] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002774/0136 // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1154// Sumarisimoa 1912/37.

## ANGEL URCELAY AYESTARAN

Jaiotzez Ikaztegietakoa zen, baina Alegian bizi zen. Papergilea zen ofizioz. Gerra hasi berritan, 32 urte zituen. Maria Martinezekin ezkonduta zegoen eta, bi alaba zituen, Maria Dolores eta Magdalena deiturikoak.

Izquierda Republicana-ko afiliatua izan zen eta, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko presidente ere bai. 1936ko abenduaren 17an, Tolosan Fronte Popularrak egindako ekintzengatik atxilotu zuten. Tolosako Presondegiko ziegan, 5 egunez inkomunikatuta izan zuten, Martin Ayestaran Garin eta, Joaquin eta Miguel Otaño Mugica anaiekin batera. 1937ko azaroaren 8an eginiko Gerra-Kontseiluan, 20 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. 20 urte baino gehiagoko kartzela zigorra izan zitekeen, baina testiguek, Angel Urcelay-k zenbait frankistei laguntza eskaini ziela adierazi zuten. 1937ko azaroaren 12an, Donostiako Probintziako Presondegian sartu zuten, bere zigorra betetzeko. 1938ko urtarrilaren 18an, Ezkabako Presondegira lekualdatu zuten. Azken urteak, bere etxean preso bete behar izan zituen, 1940ko uztailaren 14ra arte.

Errepresioak ez zuen etenik izan, 1945eko urrirako, bere emazte Maria Martinezi, haien alaben tutela kendu baitzioten. Bi alabak, Tolosako asiloan sartu zituzten, ideologia frankistaren baitan hezteko[253].

## JOSE MARIA SAGASTUME LASA

1913ko otsailaren 20an Alegian jaio zen, eta iturgin gisan bere aitarekin lan egiten zuen. Bigarren Errepublikan zehar, Bedaion tradizionalistek eginiko mitinaren ostean, Guardia Zibilak miatu egin zuen eta tradizionalista batek bultzakada eman ostean, haien kotxeari harriak jaurti zizkion. Hori, geroago, frankistek berau preso egiteko erabili zuten aitzakia izan zen, beste zenbait gauzen artean.


Declaración de José María Sagastume Lasa.

En San Sebastián a veinticinco de mayo de mil novecientos treinta y nueve. Año de la victoria. Ante el señor Juez comparece el anotado al margen quien advertido de que iba a prestar declaración jura decir verdad en cuanto supiere y fuere preguntado.

Preguntado por las generales de la Ley manifiesta llamarse como queda dicho, de veintiseis años de edad, soltero, lintenero, natural y vecino de Alegría de Oria.

Preguntado por su ideología y actuacion politicas antes del Movimiento Nacional, DICE: Que antes del Movimiento Nacional estaba afiliado al Partido de Izquierda Republicana, desde el año mil novecientos treinta y dos. En el partido no desempeñó cargo alguno.

Preguntado si intervenía en mítins de izquierdas y contribuía a impedir mítienes de derechas, DICE: Que nunca ha intervencido en mítines de niguna ideología pero recuerda que en cierto mítin derechista habido en el pueblo de Bedayos hubo un pequeño jaleo siendo el declarante cacheado por la Guardia Civil y en lío uno de los asistentes dio varios empujones al declarante y entonces él por espíritu de desquite hechó dos o tres pedradas contra un automovil que conducía a asistentes al mítin de referencia.

Preguntado por su actuación una vez iniciado el Movimieto Nacional, Dice: Que iniciado el Movimiento llegó al pueblo una orden del Comité de Tolosa disponiendo que se presentaran a recoger las armas para efectuar guardias y el declarante como afiliado que era fue uno de los que se presentaron, haciendo las guardias en la carretera. Al llegar al pueblo las tropas nacionales se fue a San Sebastián y después de algunos días se fue a Bilbao donde tenía las hermanas viviendo con unos tíos y luego fue

Jose Mari Sagastumeren deklarazioa. (Sumarisimoa 11915/38 eta 3513/40, 21032/39).


Comisión Clasificadora de Prisioneros o Presentados de SANTOÑA — Número 1

Nombre: JOSE MARIA
Apellidos: SAGASTUME LASA
Edad: 24 años
Profesión u oficio: ojalatero
Alistamiento, for-zoso o voluntario): voluntario
Capturado o presentado: presentado
Fecha de la captura o presentación: 26 Agosto de 1,937.
Lugar de la misma: en Santander
Circunstancias: Rendición
Con o sin armas: son armas
Empleo Militar en el Ejército enemigo: soldado — Cabo
Id. id. en el Ejército Nacional antes de producirse el movimiento: ---
Cuerpo y Unidad a que pertenecía en el Ejército enemigo: Batallón de Infantería nº 10
Destino o mando que tenía en el Ejército Nacional antes de producirse el Movimiento: --
Señas personales: --
Documentos que se le han ocupado o ha presentado

Jose Mari Sagastume Santoñan. (Sumarisimoa 11915/38 eta 3513/40, 21032/39).


**Jose Maria Sagastume Lasa.**
(Martxeli Sagastume Agirrek emandako argazkia).

Tropa frankistak Alegiara sartzean, hauen alde borroka egiteko deitu zuten. Baina, Jose Maria Sagastume Lasa, Izquierda Republicana-ko afiliatua izaki, ordurako Alegiatik alde eginda zegoen, Donostia aldera, Usurbileko frontean Eusko Gudarosteko Azaña (Gipuzkoa) 20. Zenbakiko Batailoiarekin borrokan eginez. Handik, Bilbora joan zen eta tropa frankistak sartzear zeudela, hiria ebakuatzen lagundu zuen. Azaña Batailoia desegin ostean, Alderdi Komunistako “Facundo Perezagua” Batailoian aritu zen borrokan, kabo gisan. Zenbait fronteren artean, Castro-Alen-en ere borrokan aritu zen.

Santoñako errendizioan, 1937ko abuztuaren 26an, tropa frankistek atxilotu egin zuten. Horrela, presoen klasifikaziorako “C” atalean ezarri zuten, kabo gisan ibili baitzen gerran, errepublikazaleekin.

[253]AHPG-GPAH GEZ 002777/0166 // Gerra-Kontseilua: 1684.

Hilabetea betetzera zihoala, Duesoko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten, 1937ko irailaren 23an. Bi Gerra-Kontseilu egin zizkioten, bata Santoñan hasia eta bestea, Bilboko Gerra Auditorioan, biak ala biak, azkenean Donostiako Plazan burutu zituztenak. 1939ko martxoaren 20-23 bitartean, Duesotik Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten eta 1939ko maiatzaren 25ean, Sagastumek lehen deklarazioak egin zituen.

Bigarren Errepublikan zehar eta gerra hastean eskuindar eta tradizionalisten aurka eginiko zenbait ekintzagatik zigortu zuten. Horren emaitza, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra izan zen “auxilio a la rebelión” delako delituagatik. Azkenean, Bilboko Gerra Auditorioari esker, 1940ko abenduaren 20an, 6 urte eta egun batera jaitsi ahal izan zuen bere kartzela-zigorra Jose Maria Sagastume Lasak.

Hala eta guztiz ere, Ondarretako kartzelako ziegetan, gaixo egon zen eta zenbait aldiz, erizaintzan ingresatu beharra izan zuten.

1941eko maiatzaren 7an, baldintzapeko askatasuna eman zioten. Azkenean, 6 urtean kartzela ezberdinetatik pasa ostean, 1943ko abuztuaren 26an, behin-betiko askatasuna lortu zuen Jose Maria Sagastume Lasa presoak[254].


Con esta fecha ingresa en esta enfermería el recluso José Mª Sagastume por habersele recrudecido la nefritis que antes padecía.
San Sebastián 5 Novbre 1940.
Cumplimentada
El Oficial

**Jose Maria Sagastume gaixorik.** (AHPG-GPAH).


CERTIFICADO DE LIBERACION DEFINITIVA

Don Marcelino Soleta Tarabo, Director de la Prisión Provincial de San Sebastián y Presidente de la Junta de Disciplina de la misma.

T. P. A.—Mod. 141

FILIACION Y RESEÑA
Nombre José María
Naturaleza Alegría de Oria
Edad 30 años
Pelo
Ojos
Cara
Color
Complexión
Estado civil Soltero
Hijos
Domicilio que elige Alegría de Oria (Guipúzcoa)
SEÑAS PARTICULARES
(Firma del liberado e impresión dactilar del pulgar derecho.)
Jose Mª Sagastume Lasa
Pulgar derecho.

CERTIFICO: Que en el día de hoy, y previa la aprobación del Tribunal sentenciador, se concede la libertad definitiva a José Mª Sagastume Lasa de Alegría de Oria por haber extinguido su condena, el día 26 de agosto de 1943 .......... el jornado cuya filiación se expresa al margen, fué puesto en libertad condicional el día siete de Mayo de mil novecientos cuarenta y uno desde entonces a la fecha su comportamiento ha sido irreprensible, demostrando con ello que ha hecho buen uso de la gracia que se le concedió.

Y para que conste, expido la presente en San Sebastián a treinta de Octubre de mil novecientos cuarenta y tres.

**Jose Mari Sagastume aske.** (AGMG-Martxeli Sagastume Agirrek emandako dokumentua).

## JUAN JOSE ZABALA SAN SEBASTIAN

Ofizioz, okina zen. Gerra hasi berritan, 22 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, frontean, 3. Zenbakiko Artileria Astuneko soldadu gisan ibili zen.

1937ko otsailaren 22an, Gerra-Kontseilua egin zioten, tropa errepublikazaleei laguntza eskaini ziela argudiatuz. Izan ere, bere nagusia zen Ceferino Lasaren kamioiarekin, milizianoak Amezketara eramateaz arduratu zen. Frankisten arabera, azken hauek, Amezketan, kamioi eta armen konfiskazioak egitea zuten helburu. Zabalak askatasuna bi arrazoirengatik lortu zuen: 1936ko abuztuaren 1ean, Alegiara oraindik tropa frankistak sartu gabe zeudelarik, Ceferino Lasarekin bat Donostiara alde egiteagatik eta, Arrasatera eginiko bidaia luzearen ostean, tropa frankistekin elkartzeagatik[255].

[254]AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 11915/38 eta 3513/40 (21032/39).

[255]Gerra-Kontseilua: 571. Zenbakia // AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 4.7. ERREPRESIO MARDULAREN ONDORIOAK: FUSILAMENDUAK ETA PRESOENGANATIKO TRATU-TXARRAK

### 4.7.1. Tolosako erreketeen kuarteleko tratu txarrak

Frankistek, tortura sistematikoa erabili zuten haien kartzeletan. Bi helbururekin: batetik, informazioa lortzeko eta bestetik, mendeku gisara. Diktadura frankistako lehen aldian fusilatutako hainbat pertsona, lehenago torturatu egin zituzten. Hori izan zen, esaterako, Jose Ariztimuño "Aitzol"-en kasua, zeina Ondarretako kartzelan sutsuki torturatu zuten, Hernanin fusilatu baino lehen. Torturatzaileak noizean behin, tribunal frankistek epaitu bazituzten ere, beti aske uzten zituzten, beren egitekoak bete zituztela argudiatuz.

Diktadura frankistako torturatzaileek, haien tortura, presoak eraso izanaren erantzuna izan zela esanez ere justifikatzen zuten. Errekete, falangista, polizia eta Guardia Zibilak, nahi erara torturatu zuen lehen frankismoan zehar, inpunitate guztiarekin.

Tortura kasuak estaltzeko beste trikimailuetako bat, presoak bere buruaz beste egin zuela esatea izan zen. Torturak estali nahian, kartzelaratutako presoak hil arte torturatu ostean, bere buruaz beste egin zutela determinatuz justifikatzen zuten. Agintari frankistek, zenbaitetan, presoen suizidioa, hilketak justifikatzeko estaldura gisan erabili zuten.

Alegian ere, badugu, hilketa susmoak agertu dizkigun kasu bat. Jose Garmendia Garmendia, txintxarrien herrian "Alegiako luzea" gisan ezagutzen zuten herritarrek. EAJ/PNV-ra afiliatuta, gerran zehar, atzeraguardiako lanetan ibili zen. Hartan zebilela, Guardia Zibilak Alfaron atxilotu zuen. Handik, 1937ko abenduaren 16an, bi Guardia Zibilen laguntzaz Tolosara lekualdatu zuten. Akusazio nagusia, Donostian, 1936ko uztailaren 31n, 12 preso tolosarren aurka egindako autoaren gidaritza lanetan aritzea izan zen.

Tolosako Plazako Komandante Militarraren aginduz, erreketeen kuartelean preso sartu zuten. Handik 2-3 egunera, Komandante Militarraren aginduz, atxilotuari galdeketa egiten hasi zitzaizkien, harengan zeuden salaketengatik. Galdeketa hura egiteaz, Francisco Fernandez Escalante, Tolosako Guardia Zibilaren Komandante Nagusia arduratu zen. Hark eginiko deklarazioek diotenez, Garmendiak galderei erantzuten ez zielako, Komandante Nagusiak, kuarteleko prebentzio gelan esposatuta utzi zuen. Azken horren deklarazioen arabera, ordu erdi beranduago, presoa, eskuko bonba batekin bere buruaz beste eginik hil zen. Horren eraginez, gela hartako kamantza baten gainean aurkitu zuten "Alegiako luzea", txaketa urdin eta praka kakiekin jantzita. Momentu horretan, kuartelean, Arsuaga Brigada eta beste errekete batzuk zeuden.


6

DECLARACION DEL TESTIGO FRANCISCO FERNANDEZ ESCALANTE

En Tolosa a trece de Enero de mil novecientos treinta y ocho ante S.S. y presente el Secretario comparece el testigo anotado al margen el cual juramentado en forma legal dijo llamarse como ya consta mayor de edad, casado, natural Navalagamella provincia de Madrid, Comandante Jefe del puesto de la Guardia Civil de Tolosa.
PREGUNTADO convenientemente dijo, que Antonio Garmendia llego a Tolosa conducido por una pareja de la Guardia Civil procedente del Puestp de Alfaro Logroño y por orden del Comandante Militar de esta Plaza paso al Cuartel de Requetes en caidad de detenido, a los dos o tres dias de su llegada tambien por orden del Comandante Militar se procerio por el declarante a iniciar el interrogatorio al citado tomando como base las denuncias que sobre el mismo habia. Como no contestara el declarante le dejo esposado en el cuarto de prevencion del citado Cuartel, marchando a confesarse por haber quedado de acuerdo con su esposa, cuando a la media hora poco mas o menos le manifestaron que el citado se habia pegado un tiro, cosa que creyo imposible puesto que no le suponia con armas, posteriormente supo que se habia suicidado al parecer con una bomba de mano de las llamadas de piña. Que en el Cuartel de requetes se encontraba el Brigada Sr. Arsuaga y unos cuantos requetes. Que las denuncias que el citado tenia eran sobre haber conducido el auto que llevo a San Sebastian a los doce presos de Tolosa el dia 31 de Julio del 36, haber robado el coche al Marques de Elosegui y otras de caracter muy grave, todas las cuales fueron entregadas por el Jefe de Linea al Comandante Militar al darle cuenta del asunto.
Que no tiene mas que decir y leida esta por el interesado se afirma en su contenido firmandola con S.S. de que certifico.

Francisco Fernandez Escalanteren deklarazioa.


DECLARACION DE DON LUIS VICUÑA ECENARRO.

En Tolosa a cuatro de Marzo de mil novecientos treinta y ocho, ante S.S. y presente secretario comparece previamente citado el testigo anotado al margen, el cual juramentado en forma legal, dijo: Llamarse como ya consta, mayor de edad, casado, natural de Tolosa y vecino del mismo. Agente Auxiliar de Investigacion y Vigilancia.
PREGUNTADO: Si presencio la entrega que hizo la Guardia Civil del detenido Jose Garmendia Garmendia, en el cuartel de Requetes de esta Plaza, dijo: Que no.
PREGUNTADO: Si el dia 18 de Diciembre pasado se hallaba en el Cuartel de Requetés en el momento en que Jose Garmendia falleció a consecuencia de la explosion de una bomba de manó, dijo Que el dia 18 viniendo el declarante de San Sebastian se dirigio al Cuartel de Requetes y estando en la puerta, entregando al Jefe del Cuartel Señor Arsuaga unos decimos de loteria comprados en San Sebastian, oyó una tremenda explosión, y asustados de momento los interlocutores salieron corriendo hacia la calle, dirigiendose el declarante a la puerta de la celda en que sehallaba el detenido, oyendo tres quejidos de dolor, retirandose a continuacion para avisar a las Autoridades.
PREGUNTADO: Si el declarante frecuenta el cuartel de Requetes y si en la celda ocupada por el Garmendia habia algun deposito de bombas de mano, dijo: Que va con bastante frecuencia y que no habia tal deposito de bombas en la celda, porque durante la estancia de las Brigadas Navarras en esta y a la salida de la misma, se hizo una limpieza general, sacandose todas las bombas, que eran de marca "Lafitte".
Que no tiene mas que decir y leida se afirma y la firma con S.S. de que certifico.

Luis Vicuña Ecenarroren deklarazioa.


DECLARACION DE DON JESUS ARSUAGA ALBERDI.

En Tolosa a veinticuatro de Febrero de mil novecientos treinta y ocho, ante S.S. y presente secretario comparece previamente citado el testigo anotado al margen, el cual juramentado en forma legal, dijo: Llamarse como ya consta, mayor de edad, casado, natural y vecino de Tolosa. Jefe del Cuartel de Milicias de Tolosa.
PREGUNTADO: Si el dia 18 de Diciembre del pasado año se hallaba en el Cua[...] prestando algun servicio en el momento en que el detenido en di[...] cuartelillo, José Garmendia Garmendia fallecio a consecuencia [...] la explosion de una bomba de mano, dijo: Que si, que estaba de [...]fe del servicio del referido cuartel.
PREGUNTADO: Si presenció la entrega que hizo la guardia civil del detenido Garmendia en el cuartel de requetés, dijo: Que no presencio la entrega, pero que vio al detenido a la hora aproximada de haber llegado al cuartel, observando que estaba esposado, habiendo dormido en el cuartelillo y al dia siguiente el Garmendia solicitó del declarante que le soltara las esposas por tener las muñecas doloridas, haciendolo asi el declarante, volviendoselas a poner las [...] de la noche del dia18. Presentandose a continuacion e[...] Brigada de la Guardia Civil Señor Escalante conotro numero, al objeto de tomarle declaracion en presencia del declarante, volviendo a ser recluido en la celda del cuartelillo a las siete. Acto seguido marcho la Guardia Civil, al mismo tiempo que entra[...] en dicho cuartel el requete afecto ala Policia Gobernativa Luis Vicuña y Juan Echeverria, y estando el declarante hablando con [...]chos señores sobrevinó la explosion, entrando acto seguido en la

Jesus Arsuaga Alberdiren deklarazioa.


celda con dichos señores y viendo al Garmendia postrado en el s[...] camastro y con el paquete intestinal fuera. Avisando seguidamente el declarante al Comandante Militar de la Plaza y al Comandante Medico del Hospital Militar, presentandose dichos señores a los pocos momentos del aviso acompañados del Juez Militar.
PREGUNTADO: Si durante la declaracion que presto el Garmendia observo algo anormal en él, dijo: Queno. y que no observo en el ningun bulto que pudiera denunciar la existencia de una bomba de mano.
PREGUNTADO: Si el Garmendia trajo consigo cuando vino conducido por la Guardia Civil algun bulto o paquete, dijo: Que si que traj[...] un paquete al parecer de ropa.
PREGUNTADO: Si en la celda en que ocurrio el hecho se guardaban con anterioridad bombas o artefactos explosivos, dijo: Que no, que unicamente en una habitacion continua e independiente por completo y cerrada bajo llave, a la que ocupaba el Garmendia habia bombas de mano, pero no de piña como la queorigino la muerte del Garmendia. Dichas bombas estaban con autorizacion del Comandantede la Plaza hastaque ordeno sutraslado al cuartel de San Sebastian de Recuperacion, sin que haya faltado ninguna.
Que no tiene mas que decir y leida se afirma y la firma con S.S. y presente secretario de que certifico.



DECLARACION DE DON JUAN ECHEVERRIA ASURMENDI.

En Tolosa a diez y seis de Marzo de mil novecientos treinta y ocho, ante S.S. y presente secretario comparece previamente citado el testigo anotado al margen el cual juramentado enforma legal, dijo: Llamarse como ya consta, mayor de edad, soltero, natural de Cegama y vecino de Tolosa.

PREGUNTADO: Si es cierto que en 18 de Diciembre se encontraba en el cuartel de requetes con Don Luis Vicuña y Don Jesus Arsuaga y manifieste cuanto ocurrio en aquel momento dijo: Que efectivamente se encontraba con los citados hablando sobre la loteria, cuando de pronto oyeron una fuerte explosion en el calabozo de dicho cuartelillo, dirigiendose entonces el centinela que habia en la puerta a ver lo que habia pasado, notando que habia sido la exlosion de una bomba que destrozo a un individuo que habia tendido en el camastro y que posteriormente le enteraron que era un detenido.

PREGUNTADO: Si en el primer momento se comentó de donde se habia agenciado el detenido aquella bomba, dijo: Que lo ignora. Queno tiene mas que decir y leida se afirma y la firma con S.S. de que certifico.

Juan Echeverria

Juan Echeverria Asurmendiren deklarazioa.

1938ko otsailaren 24an, Jesus Arsuaga Alberdi Tolosako Milizien Kuarteleko buruzagi eta brigadari ere galdeketa egin zioten. Haren arabera, Jose Garmendia Garmendia, erreketeen kuartelera esposatuta iritsi zen. Escalantek deklaratu gisan, Arsuagak ere, lehenengoak hartu ziola Garmendiari deklarazioa adierazi zuen. Arsuaga, Gobernuko Poliziari atxikitako Luis Vicuña eta Juan Echeverriarekin hitz egiten ari zenean, leherketa gertatu zen. Arsuagaren arabera, ezin zezakeen presoak lehergailurik izan. Ziega hartan ez zegoen lehergailurik, eta ziegaren alboan lehergailuak zituen gela giltzapetuta zegoen. Bertan gainera, eskuko bonbak zeuden eta ez, Jose Garmendia Garmendia hil zuen “piña bonba” delakoak.

1938ko martxoaren 4an, Luis Vicuña Ecenarrok deklaratu zuen, Ikerketa eta Zaintzako Agente Laguntzaileak. Jose Garmendia, ez zuen ikusi, Alfarotik nola ekarri zuten. Leherketaren unean, kuartelaren kanpoan aurkitzen omen zen, Arsuagari Donostiatik ekarritako loteria dezimoak ematen. Honek ere, Garmendiaren ziegan ez zegoela bonbarik determinatu zuen.

1938ko martxoaren 16an, Juan Echeverria Asurmendik deklaratu zuen. Leherketa gertatu zen garaian, Arsuaga eta Vicuñarekin loteriaren dezimoen inguruan hitz egiten zegoela adierazi zuen.

Testiguak aztertu ostean, Jose Garmendia Garmendia leherketa baten eraginez hil zela determinatu dugu. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa deritzogu, presoa, esposatuta zegoela jakinik, lehergailua bere kabuz hartu (testiguek hark inguruan ez zuela lehergailurik determinatzen duten heinean) eta bere buruaz beste egiteko gai izan zenik. Beste testigurik ere badago Tolosan, presoa kontrolatu ezin zutelako bota ziotela bonba haren ziegara berresten duenik.

“Alegiako luzea”, 1937ko abenduaren 18an Tolosako Erreketeen Kuartelean hil zen, 25 urte inguru zituela. Modu susmagarrian hil zenez, autopsia egin zioten Santos Irazusta Zalacain eta Pedro Irazusta Gaztañagak, Tolosako hilerrian:



Francisco Irasterza Huarte suplente Juez Municipal
y encargado del Registro Civil de Tolosa

CERTIFICO: Que en el cuaderno treinta y cuatro, sección de Defunciones, del Registro Civil de mi cargo, al folio cuarenta y cinco vuelto, aparece el acta que a la letra dice así:

NÚMERO 38
Jose Garmendia Garmendia

En la Villa de Tolosa, provincia de Guipuzcoa, a las diez horas del día quince de Marzo de mil novecientos treinta y ocho ante D. Francisco Irasterza Huarte, Juez municipal suplente y D. Luis Zalacain Arrieta Secretario de la misma, se procede a inscribir la defunción de D. Jose Garmendia Garmendia de natural de provincia de, hijo de D. y de doña domiciliado en Alegria de Oria de núm., piso, de profesión obrero y de estado (1) soltero

falleció en (2) el Cuartel de Requetes de esta Villa el día diez y ocho de Diciembre ultimo a las y minutos, a consecuencia de (3) heridas producidas por explosion de un artefacto de gran potencia, según resulta de (4) la autopsia practicada y reconocimiento practicado, y su cadaver habrá de recibir sepultura en el cementerio de Tolosa

Esta inscripción se practica en virtud de (5) orden del Sr. Juez Instructor del Juzgado Militar nº 10

Jose Garmendia Garmendiaren heriotza-erregistroa.



Informe. En la villa de Tolosa a diez y nueve de Diciembre de mil novecientos treinta y siete; en cumplimiento de lo ordenado por el Sr Juez Instructor Militar nº 10 de San Sebastian se han personado en el depósito de cadaveres del Cementerio Municipal de esta villa los Médicos Don Santos Irazusta Zalacain y Don Pedro Irazusta Gaztañaga para la practica de la autopsia del cadaver de José Garmendia Garmendia.

Han procedido en primer término al examen exterior apreciando en el torax algunas quemaduras y heridas en su parte inferior; la cavidad abdominal presenta su contenido al descubierto habiendo desaparecido la pared anterior; en el tercio inferior de los dos antebrazos y las muñecas presenta grandes abusiones con grandes desmenuzamientos de tegumentos y tejido muscular. Extremidades inferiores nada digno de mención.

Abierta la cavidad craneana no se observa ninguna lesión de importancia. Abierta la misma tampoco al examen acusa nada digno de mención.

La cavidad toracica en su parte inferior despues de abierta descubre desgarros pulmonares y rotura de diafragma, corazón vacio.

Cavidad Abdominal el estomago se halla verdaderamente triturado, el higado ampliamente lesionado, el paquete intestinal desplazado hacia el lado derecho con varias heridas en el mesenterio, rotura de bazo y rotura de la aorta, hallase también la vejiga completamente desmenuzada.

Conclusiones: De lo expuesto deducen los informantes que la muerte debió ser instantanea a consecuencia de las multiples lesiones gravisimas que señalan anteriormente, producidas por un artefacto explosivo de gran potencia.

Es cuanto tienen que manifestar en cumplimiento de lo ordenado por el Sr Juez Instructor Militar nº 10 de San Se-

Jose Garmendia Garmendiaren autopsia.

Autopsia egin ostean, Tolosako hilerrian bertan hilobiratu zuten, 1937ko abenduaren 19an. Tolosako Hilerriko Liburu Erregistroan, Antonio Garmendia Garmendia, izenarekin ageri zaigularik. Hala eta guztiz ere, Jose deitzen zela eta ez Antonio laster konfirmatu zuten aparailu frankistek:


Tengo el honor de poner en conocimiento de V. S. que el cadaver de Jose Garmendia Garmendia fue inhumado en el Cementerio de esta Villa en la fosa nº 3275, a 70 de la pared Norte, 119-60 de la del Sur, 080 de la del Este y 84 de la del Oeste.

Lo que en solicitud de V. S. pongo en su conocimiento.

Dios guarde a V. S. muchos años
Tolosa 23 de Marzo de 1,938
II Año Triunfal.

JUZGADO MUNICIPAL DE TOLOSA

Juez militar del Juzgado nº 1
San Sebastian

Jose Garmendia Garmendiaren hilotzaren kokapena Tolosako hilerrian.


De conformidad con lo dicho en su oficio de 29 del pasado mes de Enero adjunto remito a V. los documentos y diligencias que se encontraban en esta Comandancia Militar, relativas a JOSE GARMENDIA GARMENDIA. (NO ANTONIO).

Dios guarde a V. muchos años
Tolosa 1. de Febbero de 1.938
2º. Año Triunfal
El Teniente Coroenl Comandante Milit

Jose eta ez, Antonio Garmendia Garmendia dela ziurtatzen duen dokumentua.

## 4.7.2. Alegiar fusilatuak eta Alegian fusilatuak


Jose Ignacio Echezarreta Mugica.

Donostia eta haren inguruko herrietako jende gehiena 1936ko iraila eta 1937ko urtarrilaren artean, Oiartzungo hilerriko horman fusilatu zituzten. Guztira 110 pertsona fusilatu zituzten horma hartan eta haren ostean, Iragorriko fosa batean aurkitutako beste 13 ere, Oiartzunen bertan fusilatu zituzten[256]. Geroago, oiartzuarrek hilketa haien berri jakin ez zezaten, fusilamenduak, Artikutzako errepidean egiten hasi ziren. Hara ekarri zituzten pertsonak, beraien herrietatik segituan fusilatuak zein Ondarretako kartzelatik ateratakoak izan ziren. Arrasate, Donostia, Errenteria, Oiartzun, Tolosa, Zizurkil, Aretxabaleta, Eskoriatza zein Debako jendea fusilatu zuten.

Pertsona horien artean, alegiarrik ere egon zen. Hura izan zen, Jose Gorostidi Altuna, zeina, 1936ko azaroaren 7an, tropa frankistek, Oiartzuneko hilerriko horman fusilatu zuten.

Alegian bertan ere izan zen fusilamendurik, hura izan zen Jose Ignacio Echezarreta Mugicaren kasua. Berau Amasakoa zen eta Alegian hil zuten tropa frankistek. Alegiara, kotxe batean ekarri zuten eta kotxe hartan zihoazen gizonezkoek, kalean zebiltzan neskato alegiarrei kanposantua non zegoen galdegin zieten. Hauek izututa geratu ziren eta azkenean, beste alegiar batzuk erantzun zien hura non zegoen. Echezarreta hil baino lehen konfesatzera, Jose Eusebio Iraola Iparraguirre apaiza joan zen[257].

Juan Bautista Moreno Galilea, Alegiako trenbideetako faktorea, euskal lurraldeetatik kanpo fusilatu zuten. 1893ko abuztuaren 29an Calahorran (Errioxa) jaio, baina esan bezala, Alegian bizi zen. Ezkonduta zegoen eta bi haur zituen. Moreno, Santanderren atxilotu eta 1937ko irailaren 29an, heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Bere heriotzera arte, Santanderreko Probintziako Presondegian atxilotuta izan zuten. 1937ko abenduaren 18an fusilatu eta Ciriego-ko (Kantabria) hilerrian hilobiratu zuten.

Hilda egonagatik ere, Ardura Politikoen Nafarroako Tribunal Erregionalak, Izquierda Republicana-n afiliatuta egoteagatik, Alegiako Izquierda Republicana-ko buruzagia izateagatik eta, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko buruzagia izateagatik, 1941eko ekainaren 23an, 1.000 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen[258].

[256] EGAÑA, I. 2009. *Los crímenes de Franco en Euskal Herria.* Txalaparta: Tafalla.
[257] Haren iloba Consuelo Iraola Mendiak, Jose Eusebio Iraola Iparraguirre, amasarraren familiarekin kontaktuan ezarri zela adierazi digu.
[258] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1036.

## 4.7.3.Kartzelako bizimodua

Presondegietan, janaria administratzeko, merkatu beltza eratu zen. Presoak, ura eta elikagai gutxiren truke elikatzen zituzten bitartean, bertako funtzionarioek, iritsitako elikagaien zati handi bat, merkatu beltzean saltzen zuten. Modu horretan, presoak desnutrizioagatik gaixotu bitartean, funtzionarioek, taxuzko soldata ateratzen zuten.

Preso haien egoera guztiz jasangaitza bihurtu zen. Elikatzeko janari nahikoa ez izateaz gain, presondegietan, behar baino preso gehiago zeuden. Ez ziren guztiak behar bezalako egoera onean egoteko sartzen. Horrek, egoera, biziki zailtzen zuen. Izan ere, autoritate frankistek, higienea mantendu asmoz, kartzeletako leihoak zabalik mantentzen zituzten gau eta egun. Horrela sortu ziren zenbait presoren bizitzarekin amaitzea lortu zuten pneumoniak, tuberkulosiak …

Egoera mardula jasangarri egiteko presoek erabilitako metodoetako bat, eskutitzak bidaltzea izan zen. Norbait kanpoan eta egoera hobeago batean zegoenak, hitz batzuk igortzeak, preso haiei, borrokan jarraitzeko eta kartzelan bizirik irauteko indarra ematen zien. Paperetan idatzitako tintazko hitzek, presoari, bere ziega hotzetik, kanpoko mundua nola zegoen jakiteko balio zion. Berri tamalgarriak zein poza eman zietenak jaso ahal izan zituzten. Eskutitz hauek guztiak, beti ere, kartzeletako autoritate frankisten zentsura pasa ostean iristen ziren, bai presoengana baita kanpotik idazten zuen pertsonaren eskuetara ere. Zentsura hori pasa ahal izateko, zenbait bikotek, anai-arreben gisan jokatu zuten haien eskutitzak bidaltzerakoan. Huraxe izan zen Marcelina Aguirre Apaolaza eta Jose Maria Sagastume Lasa alegiarren kasua.

Jose Maria Sagastume Lasa, Izquierda Republicana-ko afiliatua izaki, Eusko Gudarosteko Azaña (Gipuzkoa) Batailoiarekin ibili zen borrokan gerra garaian. Haren ostean, Alderdi Komunistako “Facundo Perezagua” Batailoian ere ibili zelarik.

“Santoñako Paktua”-ren eraginez, 1937ko abuztuaren 26-27 bitartean, tropa frankistek atxilotu egin zuten. Hilabetea betetzera zihoala, Duesoko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten, 1937ko irailaren 23an. Han jaso zuen Marcelina Aguirre Apaolazak 1938ko martxoaren 19an idatzi zion eskutitza, zeina Marcelina Sagastume gisan sinatzen zuen, bere arreba bailitzan. Bertan, Jose Mariaren santu eguna izanik, zoriontzeko probestu zuen.

Aldi berean, Jose Mariak ere, haren arreba bailitzan idazten zion Marcelinari.

Dueson, beste kartzeletan gisan, presoen egoera ere ez zen hoberena izan. Jose Maria Sagastumek, esaterako, bertako ospitalea bisitatu beharra izan zuen:


Viva España
Arriba España
TARJETA POSTAL
CRUZADA CONTRA EL FRIO 10 CENTIMOS
CORREOS 15 ESPAÑA
A José María Sagastume
Penal del Dueso Santoña
Probincia Santander
Dirección del Remitente:
M. Sagastume
Calle Fuenterrabia
Letra A-3. Izd. San Sebastián
EN ESTE LADO SE ESCRIBE SOLAMENTE LA DIRECCIÓN.


San Sebastián 19-3-38
Queridísimo hermano; A la llegada de estas cortas líneas deseo te encuentres bien; así como yo por el momento a D. g.
La presente es para decirte que acordándome y no olbidándome de ti te felicito en el día de hoy por ser el día de tu Sto. Aunque te extrañe que te escriba después de aquel arrebato que tubimos en aquella cocina y siendo yo la culpable de todo, por hacer caso a los que me rodeaban y al mismo tiempo te pido perdón puesto que en los tiempos que estamos no me gusta tener rencor a nadie. Si en algo te puedo serbir avísame que estoy dispuesta hacer cuanto pueda por ti. Sin más por ahora recibe el cariño de tu hermana
Marcelina Sagastume

Marcelina Aguirre Apaolazak Jose Mari Sagastume Lasa Dueson zegoela idatzitako eskutitza. (Martxeli Sagastume Agirrek emandako eskutitzak).


Dueso-18-8-38
Mi querida hermana Marcela salud te deseo.
He recibido tu carta de fecha del 11 y en ella veo que gozas de perfecta salud, yo bueno por el momento.

**Jose Mari Sagastume Lasak Marcelina Aguirre Apaolazari Dueson zegoela idatzitako eskutitza.** (Martxeli Sagastume Agirrek emandako eskutitza).


Ondarreta - 17-4-39

Querida esposa Marcheli. Me he puesto ha escribirte dos letras nada mas para decirte, que estoy muy contento desde el otro dia, que te encontre muy guapa. que satisfaccion la mia al verte tan hermosa, puedes creer que de alegria no dormi toda la noche? Marcheli no te daba pena al vernos tan cerca y no poder abrazarnos? pero sin embargo aquellos besos que me echaste al despedirnos que encanto. Mandame sin falta la medida de las sortijas, y material para hacer el estuche. que es lo siguiente. tres cartones de cuatro milimetros de grueso de 30x30. cuatro pliegos de papel blanco, el fino [illegible] a resultado muy bueno, y mandame otro para tener en reserva. y papel de fumar. todo esto certificado, vienen a la visitar todos las veces que me [illegible] sin mas, besos tuyo que te quiere. Juan

**Jose Mari Sagastume Lasa Ondarretako kartzelatik.** (Martxeli Sagastume Lasak emandako eskutitza)


Con esta fecha ingresa en esta enfermeria el recluso José Mª Sagastume por habersele recrudecido la nefritis que antes padecia.

San Sebastian 5 Novbre 1940.

Cumplimentada
El Oficial

**Jose Maria Sagastume Lasa erizaintzan ingresaturik.** (AHPG-GPAH)



**Marcelina Aguirre Apaolaza eta Jose Maria Sagastume Lasa.** (Martxeli Sagastume Agirrek emandako argazkia).


Apellidos SAGASTUME LASA — Nombre JOSE MARIA
Conocido por — Prisión de COLONIA PENITENCIARIA DEL DUESO

Se halla a disposición de la Auditoría de Guerra de la 6ª Región Militar
20-3-939 a San Sebastián
a diligencia 17-11-39 Procesado, Jzdo Mtar nº 8. 26-1-40 Sentencia, Aª Gra
7-5-41

Nombre del padre: Antonio
Nombre de la madre: Prudencia
Nombre del cónyuge: soltero
Edad 24 Naturaleza Alegría
Partido de Tolosa Provincia de Guipúzcoa
Vecindad Alegría Provincia id.
Domicilio San Juan 29 Profesión fontanero
Delito Aux. a la rebelión Mtar.
Ingresó en 23 de Septbre de 1937
Procedente de Santoña
Condenado por sentencia de 8 de enero de 1930 a la pena de Procesado 12 a 1 d.
EL DIRECTOR,

Sello del Juzgado — Sello del Registro — VITORIA

(1) indicar si es preventivo.

**Jose Maria Sagastume Lasa egondako kartzela eta kontzentrazio-eremu ezberdinak.**

1939ko martxoaren 20an, Jose Maria, Duesotik Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten eta urte horretako abenduaren 6an, militarrek, Gerra-Kontseilua egin zioten. Bigarren Errepublikan zehar eta gerra hastean eskuindar eta tradizionalisten aurka eginiko zenbait ekintzagatik zigortu zuten. Horren emaitza, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra izan zen. Azkenean, 6 urte eta egun batera jaistea lortuta.

Jose Maria Sagastumek, Marcelinari, Ondarretako kartzelatik ere idazten jarraitu zion.

Ondarretako kartzelako ziegetan, gaixo egon zen eta zenbait aldiz, erizaintzan ingresatu beharra izan zuen.

1941eko maiatzaren 7an, baldintzapeko askatasuna eman zioten. Azkenean, 6 urtean kontzentrazio-eremu eta kartzela ezberdinetatik pasa ostean, 1943ko abuztuaren 26an, Jose Maria Sagastume Lasa preso alegiarrak, behin-betiko askatasuna lortu zuen.

## 4.8. FRANKISTAK, DIBISIO URDINAREKIN, BIGARREN MUNDU GERRAN, NAZIEN ALDE BORROKATZEN

Gerra Zibila amaitu eta sei hilabetera, 1939ko irailaren 1ean, mundu mailako jendartean aldaketa bortitza eragingo zuen Bigarren Mundu Gerra hasi zen. Euskal lurraldeak, errepublikazaleek gerra galdu ostean, diktadura frankistaren atzaparretan kateatuta eta irten ezinik geratu ziren. Alegiara ere, garai ilunen aldia iritsi zen. Tropa frankistek garaipena lortu bazuten ere, materialki zein pertsonei zegokienez ere izugarrizko galtzeak izan zituzten.

Hala eta guztiz ere, Franco diktadore makabroak, Hitler diktadore naziak eskatutako laguntzari erantzunez, Gerra Zibilean emandako laguntza eskertzeko, "Dibisio Urdina" deituriko ejertzitoa bidali zien. Frankistek, 1941eko ekainaren 26an sortu zuten eta hurrengo egunean, soldadu boluntarioak bertaratzeko zerrendak ireki zituzten. Zerrendak uztailaren 2an itxi eta Madrilen 10 eguneko instrukzioa jaso ondoren, uztailaren 13an, Alemaniarako bidea hartu zuten 18.104 boluntariok. Guztira, 1941-1943 bitartean, 50.000 boluntariok Stalinen Ejertzito Gorriaren aurka borrokan egin zuten. Haien artean, Sección Femenina-ko 146 emakumezko ere joan ziren, zeintzuk erizain lanetan aritu ziren.

Boluntario haien guztien artean, alegiar bat ere izan zen, Saturnino Sarriegui Yarza deiturikoa. 263 Granadarien Erregimentuarekin, Errusiako frontean borrokan jardun zuen. Francok bere esker ona erakutsiz, 1943ko apirilaren 23an, Merezimendu Militarraren Gurutze Gorria eman zion.

Urte bereko uztailaren 25ean, Armada Naziak ere haren esker ona adierazi nahi izan zion:

"Alemaniako Indar Armatuen goi-lider eta komandantearen izenean, Saturnino Sarriegui Yarza ofizial-ordeari, 1943ko uztailaren 25ean, boltxebismoaren aurka borrokatu duten boluntario espainiarren oroitzapen-domina aitortu zaio.

18 Ejertzitoko Koronel Jenerala eta Jeneralisimoa"[259].

Bigarren Mundu Gerran borrokatzera joan ziren frankistei laguntzeko asmoz, Franco diktadorea, zenbait jasotze-ekonomiko egiteko iragarkiak egiteaz arduratu zen. Alegiako udaletxera ere iritsi zen berria eta bertako zenbait herritarrek "Dibisio Urdinak" naziekin borrokan jarraitu ahal izateko ordaintzak egin zituzten.

Behin Alegiara itzuli zenez geroztik, Sarrieguik, Falangearen esparrurik eskuindar eta tradizionalenean lan egin zuen. Hain zuzen, bere lanak, Francoren Guardian bete zituen, 1945eko irailaren 1etik aurrera. Sektore hau, 1944an sortu zen, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko Milizia desegin zenean, falangistarik fanatikoenekin. Guardia Zibilarekin batera, errepublikazaleen aurka izugarrizko errepresioa egin zuen aparailua izan zen. Informazioa lortzeko zerbitzu propioa izateaz gain, haren buletin ofiziala ere, "En pie" deiturikoa, bazuen.


En nombre del Generalísimo
y por los
Notables hechos realizados
en la campaña de Rusia
concedo al
Soldado del Regimiento de Granaderos 263
SATURNINO SARRIEGUI JARZA
la
Cruz Roja del Mérito Militar.
En Rusia a 22 de Abril de 1943.
General Jefe
de la
División Española de Voluntarios

**Saturnino Sarriegui Yarza alegiarrari Francok eginiko aitorpena.** (AUA).


IM NAMEN DES FÜHRERS
UND
OBERSTEN BEFEHLSHABERS
DER DEUTSCHEN
WEHRMACHT
IST DEM
Unteroffizier
Saturnino Sarriegui Yarza
Gren.Rgt.262
AM 25. Juli 1943
DIE
ERINNERUNGSMEDAILLE
FÜR DIE
SPANISCHEN FREIWILLIGEN
IM KAMPF GEGEN DEN
BOLSCHEWISMUS
VERLIEHEN WORDEN.
Generaloberst und
Oberbefehlshaber der 18.Armee

**Saturnino Sarriegui Yarza alegiarrari Armada Naziak eginiko aitorpena.** (AUA).

[259] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.


Civil de Guipúzcoa
SECRETARIA GENERAL
Negociado
Núm.

Al contestar cítese el Negociado y el número, indicados en el membrete.

Con esta fecha se abrirá en ese Ayuntamiento, según los dos talonarios que se remiten, la Suscripción Pro-Aguinaldo de la División Azul que se organiza conforme a las órdenes Superiores intervenida por este Gobierno Civil. En las oficinas de recepción se expondrá, en sitio muy visible, unos carteles que digan: "DIVISION AZUL.- Aguinaldo para los Voluntarios que luchen contra el Comunismo".

Esta suscripción se ajustará a las siguientes normas:

1ª.- Se dará siempre recibo al interesado y se publicará diariamente en las tablillas expuestas en el lugar de la Suscripción, la relación de los donantes.

2ª.- Se recabará de todas las Entidades y especialmente de los vecinos acomodados, que contribuyan con la mayor eficacia a esta suscripción.

3ª.- Se podrán habilitar otros centros o dependencias para recaudar ingresos, bajo el control de los respectivos Ayuntamientos, en donde lo estime oportuno esa Alcaldía.

4ª.- Esta suscripción finalizará el día 5 del próximo mes de diciembre, remitiéndose las matrices de los talonarios con las listas correspondientes, a este Gobierno Civil, y los fondos a la cuenta corriente que a tal efecto queda abierta en la Sucursal del Banco de España de esta capital.

5ª.- Caso de efectuarse donativos en especie se otorgará recibo detallado de los géneros, clases y cantidades, almacenándose en lugar seguro hasta su remisión, consignados, a este Centro.

Dios guarde a V. muchos años.
San Sebastián, 21 de noviembre de 1942.
EL GOBERNADOR CIVIL

Sr. Alcalde de ALEGRIA DE ORIA

**Ordaintzak Dibisio Urdinarentzat.** (AUA).


AGUINALDO PARA LA DIVICION AZUL

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ayuntamiento de Alegria de Oria | ............... | 25 | pesetas. |
| Jefatura Local de F.E.T. y | ............... | 25 | id |
| Julian Ayestaran Ayestaran | ............... | 5 | id |
| Filomena Ercilla Ciauria | ............... | 10 | id |
| Casimiro Mocoroa Olano | ............... | 5 | id |
| Maria Eugenia Jauregui Echeverria | ............... | 5 | id |
| Ceferino Lasa Iraragorri | ............... | | una botella Jerez |
| Laureano Zubeldia Gorostidi | ............... | 5 | Pesetas, |
| Lasa Hermanos | ............... | 10 | id |
| José Echeverria "Bar" | ............... | 5 | id |
| Santiago Azpeitia Beloqui | ............... | 10 | id |
| Juan Iriarte Garcia | ............... | 5 | id |
| Francisco Urteaga Iturrioz | . . . | 3 | id |
| Pedro Munduate Ranquin | . . . . . . . . . . | 2 | id |
| Miguel Munduate Urdampilleta | . . . | 2 | id |
| | | 117 | id |
| Angel Oyarzabal Murguiondo | . . . . . . . . | 3 | id total 120 |

Alegria de Oria 14 de Diciembre de 1942.

**Ordaintzak Dibisio Urdinarentzat.** (AUA).


SEGUNDA LISTA PARA DONATIVOS "PRO AGUINALDO DE LOS VOLUNTARIOS ESPAÑOLES DE LA DIVISION AZUL.

| | | | |
|---|---|---|---|
| Antonio Maria Jauregui | ............ | 5 | Pesetas. |
| José Maria Ezcurdia | ............ | 5 | id |
| Hermanos Aranguren Maiz | ............ | 10 | id |
| Antonio Letamendia | ............ | 10 | id |
| José Manuel Ezmendi Garayalde .Bar. | ............ | 5 | id |
| Filomena Iturrioz .Bar. | ............ | 5 | id |
| José Artano y Familia | ............ | 5 | id |
| Maria Jesus Jauregui | ............ | 5 | id. |
| D.Lucas Garidi | ............ | 5 | id. |
| D.Miguel Ayestarán | ............ | 10 | id |
| D.Jose Letamendia | ............ | 5 | id. |
| Vda de Manuel Aguirre | ............ | 10 | id. |
| Ignacio Ugarte | ............ | 5 | id |
| Juan Miguel Artola | ............ | 1 | id |
| Julian Garmendia | ............ | 5 | id. |
| José Arambura Arandia | ............ | 5 | ID |
| Elena Martin Lacarra | ............ | 3 | id. |

**Ordaintzak Dibisio Urdinarentzat.** (AUA).


COMISION ORGANIZADORA AGUINALDO DIVISION AZUL DE GUIPUZCOA

División Azul
AGUINALDO PARA LOS VOLUNTARIOS ESPAÑOLES EN LUCHA CONTRA EL COMUNISMO

Nº 000334

POR DELEGACION DE LA COMISION ORGANIZADORA DE LA PROVINCIA DE GUIPUZCOA,
recibo de Don Ayuntamiento de
con domicilio en Alegria de Oria
la cantidad de Pesetas Noventa y nueve
San Sebastián, 16 FEB 1943 de 1942
P.O.

**Ordaintzak Dibisio Urdinarentzat.** (AUA).


F. E. T. y de las J. O. N. S.
GUARDIA DE FRANCO
Carnet n.º
Apellidos Sarriegui Yarza
Nombre Saturnino
Domicilio Alegría de Oria S.J.
Fecha 1-9-45
El Interesado, El Jefe Provincial,
V.º B.º, El Lugarteniente,

Provincia de Guipúzcoa
Local de Tolosa
Carnet n.º
ENCUADRAMIENTO
Jerarquía
Centuria
Falange
Escuadra
Con fecha ___ de ___ de
se le nombra Jefe de
El Jefe Provincial,

**Saturnino Sarriegui Yarzaren Francoren Guardia-ko nortasun-agiria.**

# 5. Lekukotzak



# MIKEL Artano Gastesi eta MARIA TERESA Aguirre Ormazabal



**Mikel Artano Gastesi, 1923ko otsailaren 16an Alegian jaioa. Maria Teresa Aguirre Ormazabal 1926ko abenduaren 28an jaioa[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

*“Trenen sartu giñen batzuk leihotiken, bestek atetiken … tren hartan sartu giñen ta Santanderrea”*

*“¡Tú, fuera! Tú pa’l frente ya vales todavía”*

*“Guk Bilbaotik aldeiñ genunen, Imanol ta aitte Bilbaon geldiu zien. Haik etzuen aldeitteik izan ta haik bate jakin bare, gu Frantzia jun giñen”*

*“Gero gue amak esate zun: ze eiñ ote ue aittek eta, bizi oteie ez oteie … nun ote dare? Da gure ama, bakar-bakarriken etorri zan Alegia (Rouenetik)”*

*“Aintze zunak, a ver handik aurrea zintzogo izate zan esan tzion gue amai. Herrin ez zioten sartzen utzi “por indeseable”, PNV-koa, eo ezkerrekoa zalako”*

## Maria Teresa, nola bizi izan zenuen 1936ko gerra?

Amezketako karreteran, hemendik kilometro batea zan gure etxea, panaderie ta han bizi ginen. Labea ta dana han tzeren.

Razionamentuik haundina, gure amak zeuken. Irinak gure etxea bialdu beharren, ayuntamentun gorde zituen, ta gu irin gabe utzi, razionamentuko ogik iteko.

Don Pio eta haren arrebaire (María Ángeles) dana sakeatu zioten.

Hiru anai eon tzien gerran, nahi bazun ta nahi ez pazun jun behar izan tzun. Bat hil ein tzan (Manuel Aguirre Ormazabal), 21 urtekin, gizajoa, mutiletan bigarrena.

## Eta zuei, Mikel, gerra hasi zenean, 1936ko uztailean, zer pasa zitzaizuen?

“Gerra hasi emen dek, gerra! Gerra! Ba emen tzetoztek Villafrankatik zea … reketek eta …” kiston moimentue izan tzan hemen. Gero hemen Alegrin … karretera generala pasatzen zan, eta gue etxekok han, izoa esate giñon, dana dala, denda ttiki bat taberna batekin zeken, da han eote zan kamino hartan, ta ordun hasi zin milizianok eta … batzuk Villafranca, bestek Villafrancatik Tolosa ta izuarrizko muimentue. Gerra hasi zanen bonbak bota zituen Alegrin, lau o bost bonba bota zituen ta jende guztik Alegritiken alde ein tzun.

Geroxeo, Alegritik alde ein gendun. Bilbaon eon giñen txalet baten. Alegriko beterinarioare, gu bezela aldein, eta jun tzan Bilbaoa, Oquiñena. Jendea enteratu zanen Bilbaon Alegrikok zarela etxe hortan, ia etxe hure izan tzan; Alegriko ayuntamentuere han jarri zuen. Alkatea, Antonio Arrizabalaga, Laudianoneko Antonio izan tzan.

Bilbaon, ni trajek partitzen. Neretzat goorra izan tzan. Castellanoz ondo jakin ez, da sastreri haundi bat zan. Hasieran, trajei ilbanak kentzen ta gero ba, trajek partitzen. Soldau asko etortze zan frentetik Bilbaoa, permisokin 8 euneako… 15 euneako … Ta haik (gudariek) beti ondo jantzita ibili nahi izate zuen, ta kriston propinak uzte zituen.

Gose ikearrie gendeken. Bonbardeoa zanen, aurrena mahaiea a ver norbait jaten ai zan eo, handiken pixkat jateko. Barkun bat aiatzen zanen Bilbaoa, zerbaiten kargakin, o avellanak zekarxkila o mandarinak eo hola, ni beti etxea zerbaitekin etortze nitzen.

Gero Bilbaotik aldein genunen, Santoña jun giñen. Trenen sartu giñen batzuk leihotiken, bestek atetiken … tren hartan sartu giñen ta Santanderrea. Ta Santanderren puertoa, ta halako baten barku bat etorri zan. Ta barkun ahal tzan bezela sartu giñen. Han eskapada ikearrie ein gendun, zeatiken jendea barkun sartu zan, da hainbeste jende … barkue handie zan Sarastone. Ni amakin pasatzen nijoala barkoa, "¡Tú, fuera! Tú pa'l frente ya vales todavía". Ni kanpoa, etziaten barkun sartzen uzten. Orduako, izoa-amona ta sartuta zeren barkun ta gu geatu giñen bi parte einda. Ama eta ni, ta beste anai gaztea ta ia barkun sartuta. Gau arte itxoin gendun, a ver sartze giñen barkun, ta amak galtzak moxtu xizkian. Gazteago emateatiken, ordun sartzen utzi ein tziun barkoa. Frantzin, Rouenea (Normandia) jun giñen. Aitte ta Imanol ez, gaiñontzeko guztik jun giñen.

Frantzin, kolonia baten bezela genden. Goiz baten seitun prepatzeko (esan ziguten), nahi bagendun, Mexikoa, Rusia eo Espainia. Hiru hoitako batea jun ein behar gendula. Izoak nahi zun hona (Alegia) etorri, ni berriz kontrarioik handina, nik enun Espainia etorri nahi. Izugarrizko jaleoa izan zan, etzeola derechoik derrigorrez Alegia bueltatzeko. Gero honea (Alegia) ekarri giñuzen. Irunea aiatu ta frontoi baten sartu giñuzen, ez ohirik eta lurren (lurrean egon beharra izan zuten). Gero handiken Alegria. Ta Alegrine gure ama "por indeseable" nola bialdute zeon, ahal tzan bezela. Beste etxe batea jun giñen (Laudianokoen etxera), etziuen eman giltzeik eta gue etxea sartzeko.

### Ama, Filomena Gastesi Iturriozek, Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidenteak, nola bizi izan zuen helmugarik gabeko bidaia hura?

Guk BIlbaotik aldeiñ genunen, Imanol ta aitte Bilbaon geldiu zien. Haik etzuen aldeitteik izan ta haik bate jakin bare, gu Frantzia jun giñen. Gero gue amak esate zun: ze eiñ ote ue aittek eta, bizi oteie ez oteie … nun ote dare? Da gure ama, bakar-bakarriken etorri zan Alegia (Rouenetik).

Anaiere fronten tzeon. Anaia frentetiken etorri, soldaduskan tzeon, etxen sartzeko giltzik ez. Ta gure etxek ondun tzun oilatei bat, ta holako (eskuekin lauki forma egin) xulo bat, oilok sartze ziena barrura. Ta zulo hartatik pasa ta gauen etxen lo ein tzun.

Aintze zunak, a ver handik aurrea zintzogo izate zan esan tzion gue amai. Herrin ez zioten sartzen utzi "por indeseable", PNV-koa, eo ezkerrekoa zalako. Da ordun Altzoa junt zan.

### Aita, José Artano Altuna, Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat, bitartean non zebilen?

Aitte elizen pistola haundi batekin ez erretzeko elize. Hiru laun Alegrikok (Clemente eta Ganzarain), hiru relebotan eote zien elizeko aten, ez elize erretzeko. Bueltaka ibiltze zien elizen aten, kuartel baten eoteien bezela (Tropa frankistak Bilbon sartu ostean ere pixka batean bertan egon zen).

Etxeko giltzen nahi giñutzen etxea sartzeko (behin Alegira itzulita). Ayuntamentoa jun ta beti "largas" ematen xixkiuen. Aitte jun tzan berrize giltzen bille ta juzgadua (Tolosa) juteko esan tzien. Juzgadua junt zan giltze eske, ta gue aitte juzgadua iyotzen eta ordun alkate zeona juzgadun goitik behera. Jun emen tzan, giltzek eman txizkioen, baño etxea dena hustuta.

Gue aitte zisko einda geatu zan osasunez. Gehio etzan gure aitte pertsona izan, kartzelatiken ateata. Ni jun nitzen Tolosa aurrera (aitaren bisitan). 4 hillebeten, eunero-eunero bizikletan, zestokin aittei jana ematea kartzela. Gero osteunetan, bixita izate genun. Osteunetan pozik harekin hitz eiteko. Aitte erdin, beste bat aitzen ze hitz eite genun ta ni, klaro, ixkiñen.

Han "pena de muertekin" tzerenakin da … Gauen da krixketa soinuk Ondarretan da aitze zuenen "Gu hiltzea datozte ia! Gaur eamango gaitue fusilatzea"(Tolosatik Ondarretara pasatu zuten, Gerra-Kontseilua egin ostean).

Amak abogaduk eta muitu zitun, aitte kartzelatik ateatzeko.

### Garai hartan, euskara erabiltzen al zenuten?

Euskeraz ez. Guri…euskeraz etzeon hitz eiteik, (…) beti euskeraz herrin, baño 'hi hi! Atzetik zetorrek hoi e ta erderaz hitz ein berra zeok hemen e…

### Alegian fusilaturik egon zen?

Moreno, estazioko jefea zan. Hue bakarrik fusilatua izango zan Alegrikoa. Lizartzako bat e bai.

### Zer esango zeniokete gaur egungo gazteei?

Sensibilidade guztik, gerra baten galdu iteie. Gerra aixkenengoa da.

# LOLI Balerdi Sagastume, MAIXOL Balerdi Sagastume, MARI CARMEN Balerdi Sagastume eta Mari Cruz Urrestarazu Garmendia



**Loli Balerdi Sagastume, 1945ean Alegian jaioa. Mari Carmen Balerdi Sagastume, 1931n Alegian jaioa. Maixol Balerdi Sagastume, 1939n Alegian jaioa. Mari Cruz Urrestarazu Garmendia, 1937an Villabonan jaioa[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

*“Nola zinetan ikusteituzun karrokin pasatzen familik? Hala pasa giñen Gernikan herritiken (…) trastek eta be (r)e karrokin; dena sutan … goatzen naiz zubi bat, han lantxa bat eta han (…) gizonen bat zeola hilda”*
*“Gernikan, bonbardeoa hasi zan garaien, etxetiken atea eta kamino azpin zeon alkantarila baten eon ginen”*

**Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, Mari Carmen, herritik alde egin behar izan zenutela esan didazu?**

Bai. Aurrenengo nola jun ginen, Bizkai aldea, Gernika. Gernikan bonbardeoa harrapatu gendun eta ordun bonbardeoko garaien, ama jun tzan aittei ta osabai arropa kanbiatzea. Gernikan basarri baten eon ginen gu, kaminon ondon zeon. Hasi zan garaien bonbardeoa, ordun atea ginen etxetiken ta sartu ginen kamino azpin zeon alkantarila baten. Bonbardeoko denbora guztie guk han pasa genun. Pasa zan garaien, berriz atea ginen eta basarriko leiho txikitatik hue erretzen (Gernika) han eon ginen. Gero ama etorri zan.

Hala pasa giñen Gernikan herritiken (…) trastek eta be (r)e karrokin; dena sutan … goatzen naiz zubi bat, han lantxa bat eta han (…) gizonen bat zeola hilda. Geo handiken, jun ginen Bakioare bai. Bakion alturen, itsasoa beira eote ginen. Geo handiken Galdakanoa. Galdakanon zinea emate ziuben. Geo handiken Bilbaoa eta Bilbaon, “en la calle Gardoki”, txalet baten eon ginen. Txalet hartan, muñekak eta … zeren.

Geo Bilbaotik Santanderrea. Santanderren barkun sartu ginen. Itsason goazela, Cervera gerturatu zan, ta danak beldurrez.

Handiken Frantzia jun ginen, ta Frantzia aiatu ginen garaien, txertuk. Han jende asko eon ginen eta guk “un caramelo para la petit” eskatzen genun.

**Aita bitartean non ibili zen?**

Aita gerran, Loiola Batailoian.

**Gaur egungo gazteei zer esango zeniokete?**

Transmisioa eon ber dula. Oso garrantzitsua da.

# MAITANE Gaztañaga Otermin eta MARIA JESÚS Gaztañaga Otermin



**Maria Jesús (1954) eta Maitane Gaztañaga Otermin (1961), biak Alegian jaio zirenak[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

> *"'Ojala ez bagenduke ikusiko gerra bat' esate zun"*
> *"Lan asko ta gero diru gutxi ta mixerie, gerratiken gerore mixerie dexente"*

**Zuen aitaren eta amaren izenak emango dizkidazue?**

Attek Alberto Gaztañaga Jauregi izena zun eta amak Juanita Otermin Eceiza. Atte Alegikoa zan eta ama amezketarra.

**Ama, Amezketako papertegian lan egin zuen lehenengo emakumea izan zela esan didazue. Kontaidazue zertxobait haren inguruan.**

Amak papeleran lana eiten zun eta aurreneko emakumea zan gañeaz Amezketan, kotizatu zuena bai. Eta ordun beak esate zun nola aurreneko orduetan jute ziela lanea, hiruek o lauek jute zien lanea, eta jana bille jute ziela Nafarroa gerra garaien. Gerra aurreagotik zebillen (lanen papeleran).

**Gerrari buruz, amak zerbait kontatzen zuen?**

Amai aitze ziozun gerrako garaien ba nola abioiak pasatze zien garaien da ta nola lur azpira sartze zien Amezketan.

**Aita, esan didazuenez, gerrako frontean ibili zen borrokan. Kontaidazue pixka bat horren inguruan.**

Ni nao beak noizbaitten esan ote zun, Gernika bonbardeatu zutenen nahiko gertu zeudela handiken, ta beak nola ikusi zun anaien arten nola hiltzen zien. Hoi aitu zan komentatzen, ta hoi okerrena zala ta … Ojala ez bagenduke ikusiko gerra bat esate zun. Gero beak esate zun handiken etorri zienen errepresaliak hartu zituztela.

Gutxi hitz eite zun tema hontaz, ni goatzen naizen bakarra, Oviedoko aireportoko zea guztie beaiek ein zutela ta gero Palma de Mallorca bialdu zituela eta han e aritu ziela, bai hoi esate zun. Ta etzan gauz bat asko gustatze zaiona hitz eitea, oso gutxi gaiñeaz, baiña hoi bai komentzatze zula, ta Miranda de Ebron eon tziela, denbora asko ez baño nola eon tzien.

# MIREN IXIAR Intxausti Arregi



**Miren Ixiar Intxausti Arregi, 1930ean Legorretan jaioa[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

*"Ni goatze naiz ezkutuka ta nola ibili ginen. Bestela aitte etxen izan bazan, eaman eingo zuen."*
*"Amak, ayuntamentun telefonon eo kargu bat bazun, Legorretan. Ama beti aittei fotografik eta ateatzen launtzen ibili zan."*

## Gurasoen izenak esango al dizkidazu?

Ama, Manuela Arregui Jauregui eta aita, Ricardo Inchausti Larrañaga.

## Amak zertan lan egiten zuen?

12 urteako artzai jun tzan gure ama, Ormaztei... Zeama aldea, anaien txamarrakin. Gero gainea, etxen e gazta ein tzun; han, artzai eon tzan toki hartan, ikusi ta ikasi eingo zun. Handik aurreaxeo, Lasarteko hotel-restaurante batea lanea jun tzan. Amonak ofizioa ikasteko handik ateazi, ta Tolosan Ayertzanea jun ta jertsek eta galtzerdik eta makinan nola eitte zien ikasi, eta prenda hoik gure amunak saltze omen tzittun ferin. Hori ama soltera zeola. Amak, ayuntamentun telefonon eo kargu bat bazun, Legorretan. Ama beti aittei fotografik eta ateatzen launtzen ibili zan.

## Aita nola gogoratzen dezu?

Tolosan, Eskolapiotako jute zan, bizikletan ikastea. Eozeinen lanak etten aitze zan. Aittena goatze naiz nola etorri zien sekretario kargutik alde eitteko esatea 1936en. Hala re, uaindio beste sekretarioa ezarri bitarten gure aitte euki zuen, soldataik gabe. Leorretako, Ikaztegietako eta Baliarraingo sekretarioa zan, bizikletan jun ta etorri ibiltze zan. Horrezaz gaina, teatrok eta, musika asuntok eta … holako gauzak eitte zitun. Laune bazun altzotarra "Zapel" esate zitzaiona, da teatrok eta beak eitte zittuen, organizatu, bestei eakutsi ta dana … Antonio Arrizabalaga e teatrok eitten ibiltze zan.

Leorretan, aittonan ta amonan etxe hortan, gure aittek fotografik eta ateatzeko behar tzun toki izkutu bat, ilune, eta Etxezarreta papelerako nausie re laune gendun eta harrek emandako kartoi haundikin ein tzun kuarto bat bezelako toki bat, ilunpekoa. Han zintzilika argi gorri-gorri. Ta han ateatze zitun fotografik eta, ni jute nitzen o bea batematei entregatzea gero. Ni ta amai aittei fotografik rebelatzen launtzen ibiltze ginen.

Gure aitte etzan sekretario gehio Leorretatik aurrea izan. Han Alegrin, sekretarioa behar tzuen, ta irabazteko modue baldin bazan baietz. Sekretario jarri zuen eta ordun, lehen tzeon sekretarioa kendu eta gure aitte jarri zuen. Azarun 1en Tolosako kartzela eaman tzuen aitte eta han eon tzan "26 de noviembre" arte. Pena ta tristurek euki ginutzen. Pixkanaka jana ematen da joate ginen kartzela. Anaie ta biok jute ginen, txandaka. Jute nitzen eta kartzelerak giltzakin atea irekitze zun, ta jute nitzen reja batekiko toki batea, ta aitte alde batetik ta ni bestetik, ta kartzelera ondon eote zan.

Aitte txistue jotzen ibiltze zan gerra ondoren, inguruko herritan.

**1936ko gerra, nola gogoratzen duzu?**

Ni goatze naiz ezkutuka ta nola ibili ginen. Bestela aitte etxen izan bazan, eaman eingo zuen. Baliarraingo baserri bateare nola junda eon ginen. Ta hizketarako re, kanpoa beidatu ta bildurrez ta … Han gendela, eun baten, “Ba(d)atoztela, ba(d)atoztela!” ta Arama aldetik eo, pasoa zan baserri horren ondon ta gu danok izkutatuta han koarton eon ginen. Lau o bost soldadu, reketek eo eskupetakin ta guzti. Ta gu barrun isil-isilik eta pasa zien ta halaxe geatu ginen, larri.

**Legorretatik Alegiara noiz etorri zineten?**

Eun baten, aittona Alegrikoa, ittota hil tzala, korputs euneako iek biltzen ai zala (jaso genuen abisua). Etxea hutsik geatu zan eta ordun Leorretatik Alegria etortzeko modua ein gendun. Aittonak denda bazun, ta han geatu zan generoa: alpargatak, karamelok, argizaie …

**Gosea pasatu zenuten?**

Gosea, hoixe. Razionamentue ta. Gure amak ogie re etxen eitten aitze zan, beti oilo batzuk eo batza ta izan ginuzten da … Ni neonen goseik enaiz goatzen. Oain, xerraik existitze zunik enaiz goatzen e… haragik eta nik eztakit ze jate gendun. Babarrunak bai, babarrunak, asak ta hoik goatze zaixkit. Esne hutse ta talok eitten e aitze zan gure ama, taloa ta esnea. Postrik ez eta holako gauzik e ez… gaztaina garaien gaztaina e(g)osi ta sa(g)ar errea, da txokolatea baldin bazan, koxka ein da lokatza bezela geatze zan.

**Eskolako zein oroitzapen dituzu?**

Legorretako eskola: Leorretan, gu bizitze ginen ayuntamentun goien tzan eskola. Dana erderaz.

Alegiako eskola: Maistra oso jatorra gendun, tarte baten faltatu zan, eztakit guk, nik aurrena maistra hue izan nun ta aizkena re bai, baina tarten izan genun Tolosako maistra bat doña (…) Maria Luisa Echeverría, ta hue moja jun tzan geo, gure eskolatik atea ta ondorenen moja sartu zan, eta atzea berriz lehengo maistra hoi, Irungo hoi etorri zan gureana. Lolita Berroa, Maria Dolores zan, baiño beai Lolita esatea gustatze zitzaion eta gero lanbatetan Irunea jun behar izate zun, bere etxea, Irunen bizi zan ta. Goizean, dictado, sumar, restar … atsalden laborea.

Eskolan, asten behin, erretorea etortze zitzaiun relijioa esplikatzea. Gero jun bar gendun, jaiero mezata eta asten e, ahal gendun guztitan. Doktrina re (gerra ostean) erderaz.

**Eskolan guztia erderaz egiten zenutela esan didazu. Eta etxean?**

Bakarrik bakoitzek bere etxen euskeraz. Hika eitte gendun, amai zuka. Alegrin zuka ein beharren, beorrika hitz eitte zan. Erderaz e, beorrika hitz eitte zan. 9tan sartze ginan eskola, ta eskue hola (agur falangista) kantantze gendun “Viva España …”.

**Alegiara soldaduak etorri zirela kontatu didazu. Nolatan ba?**

Itxita zeon fabrika horta etorri zien (Arcaute y Compañía). Hor eon tzienen soldaduk, haien baino gehixo zienak (kapitanak …), eon tzien Don Pioneko etxen. Hoik aldeinda zeren gerrako garaien ta etxea hutsik zeon ta hoi dana militarrak hartuta eon tzan. Soldadu haitako batzuk, herrikoen etxetan eon tzien. Gure etxen e, bi kapitan ta tenientea eon tzien.

**Zertan ibiltzen zineten zuen denbora librean?**

Soka salton, txingoka, gordeketan ta … pelotan ta neskak ezta pentsatu re. Leorretan bizikletan galaazita zeon neskentzat. Leorretan, fabrikako ofizinistak, paletan ibiltzen zien.

Eun baten teatroa sumatu gendun ta anuntziatu lagunei. Lucas Guridi apaize gure teatroa ikusten eon tzan. Bi-hiru teatro ein ginuzen, 10 xentimo jarri gendun entrada, Donostia juteko dirue eitteko eta jun ginen.

**Zein ezberdintasun ikusten duzu gaur egungo eta orduko emakumeekin?**

Garai hartan, amak jute zien enkarguta. Haik ein ber tzuen, etxeko lana, arropak, jana … eta deskuidatu ezkeore atsalden ba (r) atza eukitze zuen. Denda etortze zien (emakumeak) be (r ) en etxeko poltsakin, ta han hitz eitte zuen. Emakume batzuk ezkatzan (etxeko ataria) biltze zien ta jokun aitze zien. Gizonak o semek ta … fabrikan zebilkixkien.

**Zer esango zenieke gazteei?**

Jakittea ona da, gerokoke letzeko.

# JUAN Ugartemendia Iraola



**Juan Ugartemendia Iraola Alegian jaioa[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

*"Amak, etxea itzuli zanen, dena hankaz gora aurkittu zun.
Gure senidek ihesi jun zien bitartean, frankistak etxera sartu zien. Etxe guztie izorratuta zeon"*

# MARIA ROSARIO Zabala Zabala



**Maria Rosario Zabala Zabala 1955eko irailaren 30ean Alegian jaioa eta Loli Zabala Zabala, 1954ko otsailaren 24an Alegian jaioa[1].**

[1] *Elkarrizketa jaso gisan transkribatu da. Liburua euskara batuan idatzi denez, bertako euskalkiaren nolakotasunak mantentzeko egin da honako aukera.*

*"Aittona desesperatuta eon tzan, eskun tiroa bota ta baja hartzeko"*
*"Amona, gerra hasi zanen, Donostira jun zan, ahizpan etxea"*
*"Aitte, 18 urtekin, Donostin, kamiona baten sartuta eaman tzuen"*

**Amaren eta aitaren izenak emango dizkidazu, mesedez?**

Valeriana Zabala Goicoechea eta José María Zabala Escudero. Aitte jaio zan, Zaraten, Tolosako barrio bat da, Bedaio alden. Ta ama jaio zan Altzon.

**Aitona mikeletea zela esan didazu. Kontaidazu, non ibili zen gerran zehar?**

Aittonak izena zun Ignacio Antonio Zabala Atín, mikeletea zan. Gaztelun gerra izan tzan, ta gure aittonare hor, desesperatuta eon tzala eskui tiroa botatzeko baja hartzeko eo hola. Hain larri eon tzala …

Aittonak hoi esate zun, bea kartzelan zeola, Bilbaon eon tzan, eta ateatze zituela hola batzuk, eta eztakit nola kontatu eo ite zituela, ta zu ta hue eaman ta hil ite omen tzuela. Bea juxtutiken libratu emen tzan. Gero kartzelatiken libratu zuenen da, ia mikelete izateik ez emen tzun izan, ez emen tziela utzi.

**Eta amona?**

Visitación Dolores Escudero Larrea. Gure amona Donostia jun tzan ahizpan etxea eta han pasatzean dabillela, hartu ta kamiona baten eman tzuen aitte. Amona Donostin josten aitze emen tzan.

**Aita ere gerran ibili zen, ezta?**

Bai, aitte 18 urtekin eaman tzuen eta kontrariok emen tzien (aita eta aitona), baiña biek eman tzituen tokia jungo zien, haiek ze jakingo zuen. Aitte 6 urten eon emen tzan (frontean eta soldaduskan). Kamiona baten sartuta eaman emen tzuen, Donostin zerela. Amonakin pasatzeatzen zebillela, eaman tzuen.



# 6. Memoriaren izenak

# Aurkibide orokorra

**IZENAK** .......................................................... 197

**A (1-121)** .......................................................... 200
**B (122-142)** .......................................................... 213
**C (143-150)** .......................................................... 216
**D (151-153)** .......................................................... 217
**E (154-182)** .......................................................... 218
**F (183-184)** .......................................................... 221
**G (185-252)** .......................................................... 221
**H (253-254)** .......................................................... 229
**I (255-308)** .......................................................... 229
**J (309-317)** .......................................................... 236
**L (318-348)** .......................................................... 237
**M (349-392)** .......................................................... 241
**O (393-436)** .......................................................... 246
**P (437-440)** .......................................................... 252
**R (441-446)** .......................................................... 253
**S (447-463)** .......................................................... 254
**T (464-473)** .......................................................... 256
**U (474-491)** .......................................................... 257
**V (492-493)** .......................................................... 260
**Z (494-510)** .......................................................... 260

# A

## 1. ACHOTEGUI, JOSE

Alegian egondako milizianoa[260].

## 2. AGOTE, ENRIQUE

Alegian egondako milizianoa[261].

## 3. AGUIRRE, JOAQUIN

Gerra hasi baino lehen, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[262].

## 4. AGUIRRE, RUFINO

Alegian egondako milizianoa[263].

## 5. AGUIRRE APAOLAZA, MARCELINA

1916an Alegian jaio zen. Gerra hasi zenean Alegiatik Urrestillara alde egin beharra izan zuen. Bere bidaia ez zen Urola bailarako eremu hartan amaitu. Haren ostean, Durangaldera egin zuen bere senideekin, Izurtzara, hain zuzen. Bertan egonik, Durangoko bonbardaketetako bat ikusi zuen. Zehazki, haietako batean, bere anaia, Durangora joana zen, eta bizirik heldu zen Izurtzara, guztien lasaitasunerako. Horregatik guztiagatik, Zegamako euskalkian hala aritzen ziren "Gorrîtâ jûn giñen, gorrîtan ibiltzien àk ê, gorrîtan gênden gu Izurtzan ordûn[264]. Gero laster Alegiara itzuli zen. Bere senarra Jose Maria Sagastume Lasarekin, hau kartzelan zegoenean, eskutitzak idazten zizkieten elkarri, anai-arrebak bailiran gisan[265].

## 6. AGUIRRE CHAPARTEGUI, BERNARDO

Bidezain gisan lan egiten zuen ordezkapenetan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokan egitera joateko deitu zuten[266].

## 7. AGUIRRE CHAPARTEGUI, HILARIO

Ideologia tradizionalistakoa, gerra hasi zenean 40 urte zituen. 1934ko azaroaren 13ko udalbatzan Alegiako udal-gobernuko zinegotzi izendatu zuten eta bertan iraungo zuen 1936ko otsaileko hauteskundeak ospatu ziren arte. 1936ko abuztuaren 16an Eugenio Jauregui alkate frankistak gerran borrokatzeko deitutako zerrendan ageri zen[267].

## 8. AGUIRRE GOROSTARZU, ANGEL

1912ko abuztuaren 14an Alegian jaio zen, baina Tolosan bizi zen. Gerra hasi zenean, 23 urte zituen eta Eusko Gudarosteko Sacco y Vanzetti (CNT) Batailoian borrokatu zuen. Geroago, tropa frankistek atxilotzean, 1. Legioko Falangearen Bandera deiturikoan errekrutatu zuten[268].

## 9. AGUIRRE GOROSTARZU, JOAQUIN

1909ko otsailaren 2an Alegian jaio zen eta gerra hasi zenean, Tolosako bizilaguna zen. Ezkonduta zegoen eta Remigia Aguirre Mugica deituriko alaba bat zuen. Izquierda Republicanako afiliatua izan zen, baina 1936ko uztailaren 26tik CNT-ko Gipuzkoako

---

[260] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[261] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[262] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.
[263] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[264] ´ eta ^ ikurrak zegamar hizkeraren azentu ezberdinak adierazteko erabili dira. Euskara batuan: "Gorrietara joan ginen, gorrietan ibili ziren haiek ere, gorrietan geunden gu Izurtzan orduan" adierak erabiltzen zituzten, errepublikazaleak izateagatik erbestealdia jasan behar izan zutelako.
[265] Testigantza: Martxeli Sagastume Agirre.
[266] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[267] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[268] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

Lehergaien konpainian jardun zuen eta, CNT-ko Sacco y Vanzetti batailoiko kaboa izan zen. Gizarte egitura eta itzultzaile lanetan ere lagundu zuen (CNT-UGT). 1937ko apirilaren 30ean Bizkaiko frontean (Lemoa) hil zenean, 28 urte zituen[269].

## 10. AGUIRRE LETAMENDIA, MARGARITA

Ordiziako komandante militarrak, 1936ko abuztuaren 24an, "noticias tendenciosas" delakoengatik, 100 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen. Horrez gainera, Gertudris Artolanekoarekin eta, Maria eta Mercedes Arrizabalagarekin batera, kamioi batean sartu zituzten, fusilatu eginen zituztela berretsiz. Donostiara eraman zituzten laurak. Han etxera itzultzeko esan zien Eugenio Jauregui alkate frankistaren semeak, ez zituztela hil behar berretsiz. Hura, lau emakumeei beldurra sartzeko erabilitako trikimailua izan zen[270].

## 11. AGUIRRE MACHIÑENA, JOSE JOAQUIN

1912ko ekainaren 21ean Alegian jaioa, Eguzkitza baserrian nekazari gisan lan egiten zuen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, tropa frankistekin frontean borrokatzen hil zen[271].

## 12. AGUIRRE, MARCELINO

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[272].

## 13. AGUIRRE MACHIÑENA, MARCELINO ANTONIO

1914ko azaroaren 15ean Alegian jaio zen eta Matxiñena baserrian jarduten zuen nekazari lanetan. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten. Soldadu gisan joan zen[273].

## 14. AGUIRRE MACHIÑENA, PEDRO JOSE

1918ko irailaren 13an jaio zen Alegian eta Matxiñena baserrian nekazari gisan lan egiten zuen. Gerra iristean, tropa frankistekin borrokatzera eraman zuten. 1938ko martxoaren 19an, 19 urte zituelarik frontean hil zen eta 1938ko martxoaren 22an hilobiratu zuten (ezin izan dugu zehaztu non hilobiratu zuten)[274].

## 15. AGUIRRE ODRIOZOLA, VICTORIANO

1917ko uztailaren 1ean Altzon jaioa, Alegian bizi zen. Nekazaritza lanak egiten zituen Beistin baserrian. Gerra iristean, frontera borrokatzera bidali zuten[275].

## 16. AGUIRRE ORMAZABAL, JOSE MARIA

1914ko ekainaren 11n Alegian jaio zen eta Beistiñena etxean, okina zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, frontean borrokatzera joan zen[276].

## 17. AGUIRRE ORMAZABAL, JULIAN DIONISIO

1919ko otsailaren 19an Alegian jaio zen. Manuel anaia tropa frankistekin borrokan hilda edukitzeagatik eta Jose anaia gerran tropa frankistekin borrokan aritzeagatik, lehenengo klaseko prorroga eskuratu zuen. Bi arrazoi nagusigatik eman zioten honako prorroga: bata, familiako oinordekotza mantentzean zetzan eta bestea, eskulanerako jendea behar baitzen familian bertan[277].

## 18. AGUIRRE ORMAZABAL, MANUEL

21 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, tropa frankistekin (Sizilia 8. Zenbakia Mendiko Batailoian) borrokatzen hil zen Otxandion (Bizkaiko frontea), gerra zauriengatik. Bere hilotza Gasteizko Ospitale Militarrera eraman zuten. Maria Teresa Agirre Ormazabalek, haren anaia, tronpeta hotsen

---

[269] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // RCT. Actas de defunciones, Tomo 35, nº 96/1941 (1941/06/27). "Hijo de Ángel y Lucía; casado con Eugenia Múgica, dejando una hija: Remigia" // CDMH-PS Bilbao, caja 80, exp 1, ficha 38 // Irargi, PS Bilbao, rollo 79, caja 80, exp 1, ficha 38 // CDMH-PS Bilbao, caja 91, exp 2, ficha 188 // CDMH, PS-SANTANDER_L.C. 18, EXP.1 "Nominas de haberes y nominas adicionales de jefes, oficiales, suboficiales y tropa del batallón número 12 'Sacco y Vanzetti' c.n.t. 4 correspondientes a los meses de octubre y diciembre de 1936, así como de enero a julio de 1937. Tras la caída de Bilbao se unió al 'Durruti' // AHPV, Registro Central de Fallecidos en Campaña, AGUIRRE GOROSTARZU, JOAQUÍN. GUIPÚZCOA ALEGRIA DE ORIA PEON CASADO 28 FRENTE DE GUIPÚZCOA 30/04/1937 CNT 4 0 R.C. Nº4 DE BILBAO Tenía una hija // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. VII-246 // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. VIII-411 // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. VIII-023 // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. IV-286 Euskara // FAHPV:: R.C. Nº 4 de Bilbao.

[270] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[271] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[272] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[273] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // AGMGU, Prisioneros. Cod: 13 (Prisioneros en Hospitales Penitenciarios).

[274] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[275] AUA: 483. Kaxa.

[276] AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[277] AUA: 483. Kaxa.

artean Alegiara ekarri eta bertako hilerrian hilobiratu zutela gogoratzen du. Handik, 1961eko uztailaren 24an, Madrileko Erorien Haranera lekualdatu zuten hilotza. Gaur egun, oraindik, errepublikazaleak, errepresioz, Langile Batailoietan eraiki zuten eraikinean aurkitzen da[278].

## 19. AIZPURUA AGUIRREZABALA, FRANCISCO

Nekazari lanetan jarduten zuen eta gerra hastean, 24 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[279].

## 20. AIZPURUA AGUIRREZABALA, JOSE RAMON

1918ko maiatzaren 11n Alegian jaio zen eta ofizioz, nekazaria zen Aristizabal baserrian. 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui Lasa alkateak tropa frankistekin borrokatzera joateko zerrendan sartu zuen. Guztira, Aizpurutarrenean, bost anaia ziren. Haietatik, bi anaia, tropa frankistekin borrokan egitera eraman zituzten. Bere anaia Miguel Antonioren gisan, Jose Ramon, tropa frankistekin borrokatzera joatetik libratu zen bi arrazoi nagusirengatik: familiaren oinordetza bermatu behar zelako eta Aristizabal baserriko lurrak lantzeko, elikagaiak lortu nahi baziren eskulana behar zelako[280].

## 21. AIZPURUA AGUIRREZABALA, JUAN JOSE

1911ko urtarrilaren 17an Alegian jaio zen eta ofizioz, nekazaria zen. Gerra hasi zenean 21 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[281].

## 22. AIZPURUA AGUIRREZABALA, MANUEL

1913ko abuztuaren 25ean Alegian jaio zen eta ofizioz, nekazaria zen Aristizabal deituriko baserrian. 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui Lasa Alegiako alkate frankistak deituriko zerrendan agertuta, errekete gisan frontean borrokatzera joan zen. Hartan zebilela, gerra zauriengatik 1938ko abenduaren 28an hil zen. Hil zenean, 25 urte zituen[282].

## 23. AIZPURUA AGUIRREZABALA, MIGUEL ANTONIO

1909ko otsailaren 13an Alegian jaio zen. 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui Lasa alkateak tropa frankistekin borrokatzera joateko zerrendan sartu zuen. Guztira, Aizpurutarrenean, bost anaia ziren. Haietatik, bi anaia tropa frankistekin borrokan egitera eraman zituzten. Miguel Antonio berriz, tropa frankistekin borrokatzera joatetik libratu zen: familiaren oinordetzagatik eta Aristizabal baserriko lurrak landu egin behar zirelako handik elikagaiak ateratzeko[283].

## 24. AIZPURUA AGUIRREZABALA, MIGUEL IGNACIO

31 urte zituen gerra hasi zenean eta Eugenio Jauregui Lasak, Alegiako alkate frankistak, tropa frankistekin borroka egiteko deitu zuen[284].

## 25. AIZPURUA ARRIZABALAGA, CARLOS

Gerran tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[285].

## 26. AIZPURUA ECEIZABARRENA, JOSE MARIA

1919ko otsailaren 28an Alegian jaio zen, eta papergilea zen ofizioz. Gerra Zibilaren ostean, tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa jasotzen zuen. Aireko ejertzitoko soldadu: 5ª Región Aérea (Valladolid)[286].

## 27. AIZPURUA ECEIZABARRENA, RAMON

1914ko urriaren 11n Alegian jaioa, papergilea zen Olarrain fabrikan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egiteko deitu zuten. Valentziako frontean ibili zen borrokan, norekin ibili zen zehaztu ezin izan dugularik. Soldaduen Batailoi Diziplinatzailean ageri zaigu. Horrek behintzat, tropa frankistek preso gisan gatibu-lanak egiten erabili zutela adierazten digularik[287].

[278] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // San Isabel Hilerritik Lekualdatutakoen Erregistro-Liburua 1961-07-24, 3. Zenbakia // Alegiako Erregistro Zibila.

[279] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[2807] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

[281] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[282] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Alegiako Erregistro Zibila.

[283] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[284] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[285] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[286] AUA: 483. Kaxa // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[287] AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AGMG : Archivo General Militar de Guadalajara Indizea: 2 Kaxa: 468 Espedientea: 11229.

## 28. ALBERDI, MIGUEL

Alegian egondako milizianoa[288].

## 29. ALUSTIZA, LUCIO

Alegian egondako milizianoa[289].

## 30. ALUSTIZA, SERAPIO

II. Errepublika iritsi aurretik Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[290].

## 31. ALUSTIZA ECHEVERRIA, MARCOS

Gerra hasi zenean 28 urte zituen. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran zehar, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Diktadura frankistan zehar, 1941eko martxoan, Alegiako udal-gobernuan zinegotzi postua lortu zuen[291].

## 32. AMESTI, FELIX

Alegian egondako milizianoa[292].

## 33. AMONARRIZ URANGA, ANDRES

EAJ/PNV-ko afiliatua izaki, Alegiako Batzokiko idazkaria izan zen. Kale Beran 1936ko uztailaren 7an inauguratu zuten Gazte-Alayak Elkarteko kide izan zen. II. Errepublikan zehar, propagandista nazionalista egiteaz arduratu zen. Batzokian, zenbait mitin, antzerki eta festa ere antolatu zituen.

Horregatik guztiagatik, tropa frankisten errepresioaren beldurrez 1936ko uztailaren 25erako Alegiatik alde egin zuen. Ziburun errefuxiatu zen. Handik, 1940ko ekainaren 8an berriro ere Alegiara itzuli zen. Antza denez, ez zen F.E.T. eta J.O.N.S-ean afiliatu. 1941eko urriaren 5ean, udalak, ordura arte konfiskatuta eduki zuen Royal markako idatz-makina itzuli zion.

1941eko otsailaren 21ean, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, nazionalista izateagatik, estatu frankistari, 3.000 pezetako isuna ordaintzera behartu zuen[293].

## 34. APELLANIZ, FRANCISCO

Alegian egondako milizianoa[294].

## 35. ARACAMA, JOSE MARIA

II. Errepublikan zehar, Alegiako udaleko epailea izan zen[295].

## 36. ARACAMA, MIGUEL

Tropa frankisten alde borrokatzeagatik, gerra ostean subsidioa kobratzen zuen[296].

## 37. ARACAMA SARASOLA, MIGUEL

1914ko irailaren 12an Alegian jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraien alde borrokatzeko deitu zuten. Frontean aurkitzen zen[297].

## 38. ARAITAORRA, NARCISO

Alegian egondako milizianoa[298].

---

[288] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[289] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[290] AUA: 485. Kaxa.
[291] AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[292] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[293] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.862 // Iñaki Egaña. Iparraldean erbesteratu eta EAJ/PNV-k zerrendatutakoak.
[294] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[295] AUA: 485. Kaxa.
[296] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[297] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[298] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

## 39. ARAMBURU ARANDIA, JOSE

Alegiako udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[299].

## 40. ARAMBURU BALANZATEGUI, FERMIN

Gerra hasi berritan 31 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[300].

## 41. ARAMBURU BALANZATEGUI, FRANCISCO

Gerra hasi berritan 33 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egiteko deitu zuten[301].

## 42. ARAMBURU LASA, LUCIO

1916ko abenduaren 2an Alegian jaio zen eta nekazari lanetan ibiltzen zen. Bere anaia Miguel Aramburu Lasak, errepublikazaleekin Bilbon aurkitzen zela adierazi zuen. Gudari gisan borrokatu zuen. Soldaduen Batailoi Diziplinatzaileetan ibili zen[302].

## 43. ARAMBURU LASA, MIGUEL

1919ko irailaren 18an Alegian jaio zen eta gerra hasi zenean bertan bizi zen. Gurseko kontzentrazio-eremuan egon zen preso[303].

## 44. ARANA, MODESTO

Alegian egondako milizianoa[304].

## 45. ARANDIA GASTAÑAGA, LUCAS

1916ko martxoaren 24an jaio zen eta mekaniko gisan jarduten zuen lanean. Gerra hastean, frontera borrokatzera joan beharra izan zuen[305].

## 46. ARANGUREN, LUCIANO

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[306].

## 47. ARANGUREN, ZOILA

Diktadura frankista garaian, soldaduak izan zituen bizitzen bere Alegiako etxean, beste zenbait alegiarren gisan[307].

## 48. ARANGUREN MAIZ, JOSE ZACARIAS

1903an Alegian jaio zen. Ofizinista gisan lan egiten zuen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[308].

## 49. ARANGUREN MAIZ, LUCIANO ZACARIAS

1914an Alegian jaio zen. Gerra hastean, 22 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. 1941eko martxoan, Alegiako udaletxean egindako udalbatzaren ostean, lehen alkateorde postua lortu zuen[309].

## 50. ARANGUREN MAIZ, LUIS ZACARIAS

1910ean Alegian jaio zen. Zurgin lanak egiten zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran zehar, bonba baten eraginez, lurrean enterratuta geratu zen eta horrek, arazoak ekarri zizkion bizitzan zehar[310].

---

[299] AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia.
[300] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[301] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[302] AUA: 483. Kaxa // AGMG Indizea: 2 Kaxa: 557 Espedientea: 16803.
[303] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa 6. Negoziatua.
[304] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[305] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
[306] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[307] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[308] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[309] AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[310] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 51. ARANGUREN MAIZ, RUFINO ZACARIAS

1937ko urtarrilaren 3an, agintari-frankistek alondegiko praktikante lanpostutik kanporatu zuten. Musikari trebea izan zen, eta ideologia ezberdinetako musikariak bildu eta tartean nazionalistak egoteagatik, nazionalistatzat identifikatu zutelako kargugabetu zuten. Hala eta guztiz ere, prozesu baten ostean, ez zela nazionalista frogatu ostean, lana mantendu eta agintari frankistek hiru hilabetez baino ez zioten soldata kendu[311].

## 52. ARANZASTI, MATIAS

Katolikoa izateagatik, tropa frankistak Alegian sartzean, ez zuten bere lurperatzaile lanetik kanporatu[312].

## 53. ARANZASTI, JOSE

Gerran tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[313].

## 54. ARANZASTI GALARRAGA, JOSE

1914ko ekainaren 13an Alegian jaio zen eta nekazari lanetan jarduten zuen Osibar baserrian. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, frontera borrokatzera joan behar izan zuen. Kinten oharren arabera, gerraren hasieran ez zekiten non zegoen, gerora, Burgosen aurkitzen zen[314].

## 55. ARANZASTI, MANUEL ANTONIO

Gerra hasi baino lehen EAJ/PNV-ko kidea izan zen. Behin tropa frankistak Alegiara sartzean, Círculo Tradicionalista-ko afiliatua egin zen[315].

## 56. ARANZASTI IZAGUIRRE, ANTONIO

Alegiako Euzko Nekazari Vascuña-ko idazkaria izan zen[316].

## 57. ARANZASTI MUGICA, JOSE MARIA

Alegiako Círculo Tradicionalista-ko afiliatua izan zen diktadura frankistan zehar[317].

## 58. ARCE, VICENTE

Alegian egondako milizianoa[318].

## 59. ARIN, JUAN JOSE

II. Errepublika ezarri baino lehen, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[319].

## 60. ARIN BERECIARTU, FIDEL

Nekazaria zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 35 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[320].

## 61. ARIN BERECIARTU, JACINTO

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua. Militar frankistek herriak demokratikoki aukeratutako II. Errepublikako gobernuaren aurka emandako estatu kolpearen ostean, frankisten aldeko aldarria egin zuen. Horren eraginez, Alegiako errepublikazaleek, estatu-kolpearen alde ezarri ziren beste zenbait alegiarrekin bat, Zentro Errepublikarretik, egunean bi aldiz sinatzera pasatzera behartu zuten.

Behin tropa frankistak, 1936ko abuztuaren 7an Alegiara sartu zirenean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten. Hala eta guztiz ere, lehenengo udal-gobernu frankistatik, zinegotzi postua bete zuen[321].

---

[311] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[312] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[313] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[314] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[315] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.
[316] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 452. Kaxa. 1. Zenbakia.
[317] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.
[318] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[319] AUA: 485. Kaxa.
[320] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[321] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia //423. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 62. ARIN MUÑOA, JUAN JOSE

Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[322].

## 63. AROSTEGUI, IGNACIO

Tropa frankistekin gerran aritzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[323].

## 64. AROSTEGUI, MANUEL

II. Errepublika iritsi baino lehen, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[324].

## 65. AROSTEGUI, MARCELO

Alegian egondako milizianoa[325].

## 66. AROSTEGUI, MARCOS

II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933) zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[326].

## 67. AROSTEGUI, TOMAS

Gerra hasi baino lehen EAJ/PNV-ko kidea izan zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[327].

## 68. AROSTEGUI AGUIRREZABALA, JUAN IGNACIO

1916ko apirilaren 27an Alegian jaio zen eta Langaurre baserrian jarduten zuen nekazari lanetan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[328].

## 69. AROSTEGUI BERAZA, JOSE

1911ko abuztuaren 14an Alegian jaio zen eta ofizioz trenbideetako langilea izan zen. Gerra hastean, 25 urte zituen eta Tolosan bizi zen. Gudari lanetan ibili zen Azaña-Gipuzkoa batailoian lehendabizi eta honakoa desegin ostean, Facundo Perezagua batailoian parte hartu zuen, biak ala biak Eusko Gudarostearen barnean. Gerraren eraginez, mutilatua izan zen.

1937ko abenduan, frontean, borrokan hil egin zen. Seguruenik, hil zenean, tropa frankisten aldean borrokatzen ari zen, Logroñon errekrutatu baitzuten, Mixto Infantería Armas nº86-an[329].

## 70. AROSTEGUI BERAZA, JOSE

Marinela ofizioz, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen. Gerraren ostean, Langile Batailoietan ordaindu zuen, errepublikazaleen ejertzitoan parte hartu izana. Horren eraginez, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko ekainaren 20an, 100 pezetako isuna ezarri zion[330].

## 71. AROSTEGUI BERAZA, LORENZO

1917ko martxoaren 13an Alegian jaio zen. Gerra Zibilean, tropa frankistekin borrokatu zuen, zehazki, Infanteriako America 23. Zenbakiko Erregimenduan. Terueleko frontean aurkitzen zelarik, 1938ko urtarrilean, eskuineko izterrean zauritu egin zuten. Horren eraginez, hilaren 7an, Zaragozako Gurutze Gorrian artatu zuten. Gerraren ostean, tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidio jasotzen zuen[331].

---

[322] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[323] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[324] AUA: 485. Kaxa.

[325] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[326] Alegiako Udal-Agiritegia.

[327] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.

[328] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[329] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AMT. Registro de salida de Alcaldía; nº3127, 04/11/1940; AMT 2000 // AMT. Caja 2389, 1937. Expediente del reemplazo de 1937 // CDMH. Fichero General (Nº fichas: 2) // CDMH. S. M. Carpeta 1248; Expediente 14. Natural de Alegría de Oria, Guipúzcoa. Nació el 06-06-1911; ferroviario; hijo de José Antonio y Francisca. Declarado inútil por heridas recibidas en el frente. // CDMH. Fondo Gijón, Carpeta 8, Serie G, Folio 108. Miliciano de la 1º Compañía, Bón Perezagua, nº10. // CMDH, Fondo Político Social. Político Social. Bilbao. Caja 250 Nº 19, "Relación nominal de oficiales y milicianos de la 1º Compañía del Batallón de Infantería nº20 Azaña (Guipúzcoa) (IR), consignando el armamento que poseen" // IRARGI, Rollo 307 // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. VIII-56.

[330] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1024 // AGA-Justizia. Kod.: 4 (Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia).

[331] AUA: 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

## 72. AROSTEGUI ELOLA, JOSE MARIA

1918ko urtarrilaren 31n Alegian jaio zen eta papergilea zen La Esperanza fabrikan. Gerra hastean, 18 urterekin frontean zegoen. Gerra ostean, tropa frankistekin borrokatzeagatik subsidioa kobratzen zuen[332]

## 73. AROSTEGUI TOLOSA, TOMAS

Ideologia tradizionalistakoa eta nekazaria, II. Errepublikan zehar Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen. 1936ko uztailean oraindik ere zinegotzia zen. Gerra hastean, 38 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, bere postutik kanporatu zuten. Horren eraginez, Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[333]

## 74. ARRATE ITURRIZA, JOSE CRUZ

Okin gisan lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 40 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[334]

## 75. ARRAYET ENDEIZA, JOSE ALFREDO

1915eko abenduaren 9an Alegian jaio zen eta herrian bertan lan egiten zuen. Pianoa eta organoa jotzen zuen, Tolosako Escolapioetan ikasita. II. Errepublika garaian, Alegiako Batzokian, antzerkiak egiten zituen.

Tropa frankistak Alegian sartzean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten. Baina ordurako, Eusko Gudarosteko Loiola 1 Batailoian zebilen, zeinetan "kabo" kargu militarra bete zuen. Gerra garaian, Villarrealeko frontean eta Santanderren ibili zen borrokan. Bilbon zegoela, Eusko Jaurlaritzako egoitza zen Hotel Carlton deiturikoan, guardia-lanak egin zituen. Tropa frankistak atxilotzeko zeudenean, Jose Alfredok, frantziar nazionalitatea izaki, bertan errefuxiatu gisan eskaera eginez gero, zein kondiziotan itzuliko zen Frantziara galdetu zuen. Urte batzuk lehenago, Frantzian soldaduska egiteari uko egin izanagatik, desertore gisan, lurralde urrunera eramanen zutela agindu zioten frantziar autoritateek. Hori horrela, tropa frankistek, "Santoñako Paktuaren" ostean hartu zuten preso, Felipe Otaño Mugica, Juan Irastorza, Lavaca, Alberto eta Pedro Gastañaga Jauregui eta Ganzarain alegiarrekin batera.

Arrayetek, Langile Batailoietan hiru urte pasa zituen. Haren ostean, herrira itzuli eta gutxira Eugenio Jauregui Lasak eta Joaquin Jauregui Lizarribarrek "aktibista arriskutsua" izan zitekeelakoan ipinitako salaketaren bidez, Soldaduen Batailoi Diziplinatzailera bidali zuten. Azken horretan, mediku laguntzaile gisan lan egin zuen, bi urte eta erdiren ondoan, Alegiara itzultzea lortu zuelarik. Guztira beraz, bost urte eta erdi inguru egin zituen preso Jose Alfredo Arrayet Endeizak.

Gerra ostean, Jose Maria Tolosa Zudaire-rekin, mekaniko-dentista gisan lan egin zuen[335]

## 76. ARRAYET ENDEIZA, VALENTIN

Alegiakoa jaiotzaz, Ibarran bizi zen eta bertan mekaniko gisan jarduten zuen. EAJ/PNV-ko afiliatua izateagatik, erbestera egin behar izan zuen. Nay-in (Basses Pyreneés) bizi izan zen, bere emazte Josefa Aguirre Aracena (31 urte), Xabier (9 urte) eta Jose Alfredo (6 urte) semeekin batera. II. Mundu Gerran zehar, Frantziako erresistentzian parte hartu zuen[336]

## 77. ARREGUI JAUREGUI, MANUELA

12 urterekin Ormaiztegi-Zegama aldera artzain joan zen, bere alaba Miren Ixiar Intxausti Arregik adierazi digunez. Artzainekin gazta egiten ikasi zuen eta gaztarik ez zen falta izan Inchausti-Arreguitarren etxean. Geroago, Lasarteko jatetxe batean lan egiten jardun zuen. Tolosan, Aiertza-renean, jertseak eta galtzerdiak makinan egiten ikasi zuen. Gero, haren amak, merkatuan saltzen zituen.

II. Errepublikan zehar Legorretako udalean, telefonista kargua ere bete zuen eta bere senarra Ricardo Inchausti udal-idazkari zelarik, haren idazkari lanak ere egiten zituen. Bere senarra euskal nazionalista izateagatik udal-kargutik botatzean, berau ere kanporatu egin zuten. Behin Alegiara bizitzera etorri zirelarik, lan gogorra egin behar izan zuen etxekoak aurrera atera ahal izateko. Horien artean, etxean sukaldean egiteaz gain, bere alaba Miren Ixiarrek egin ohi zuen bezala, senarrak ateratzen zituen argazkiak errebelatzen jarduten zuen, besteak beste[337]

## 78. ARRESE, PEDRO JOSE

II. Errepublika ezarri baino lehen Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[338]

[332] AUA: 483. Kaxa // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[333] AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia // 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[334] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[335] AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Ernesto Arrayet.
[336] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia // Testigantza: Ernesto Arrayet.
[337] Testigantza: Miren Ixiar Intxausti Arregi.
[338] AUA: 485. Kaxa.

## 79. ARRICARTE ZURIA, ANTONIO

Trenbideetako langilea zen. Gerra Zibila hasi berritan, 32 urte zituen eta, tropa frankistek, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[339].

## 80. ARRIETA ASEGUINOLAZA, ANCHES

Diktadura frankistaren garaian Alegiako udal-gobernuko zinegotzi izan zen[340].

## 81. ARRIETA GARMENDIA, JUAN

Orendaingoa jaiotzez, Alegian bizi zen. Hasiera batean, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, errekete gisan, Oriamendi Tertzioan borrokatu zuen. 1941ean, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi postua lortu zuen[341].

## 82. ARRUABARRENA GANZARAIN, EUSTAQUIO

1919ko urriaren 8an Alegian jaio zen. Tropa frankistekin borrokatzen ari zenean, Ebroko batailan hil egin zen[342].

## 83. ARRUE, PEDRO JOSE

II. Errepublika iritsi baino lehen Alegiako zinegotzia izan zen[343].

## 84. ARRUE BASABE, FRANCISCO

Sanjurjadaren ostean II. Errepublikako gobernuaren alde ez eginagatik, Alegiako udal-gobernua eskuz hautatu zuen Gipuzkoako Gobernadore Zibilak. Horren eraginez, 1933ko urtarriletik Francisco Arrue Basabek, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi kargua bete zuen[344].

## 85. ARRUE RECONDO, MANUEL

1918ko apirilaren 11n Alegian jaio zen eta ikaslea zen institutuan. Gerra garaian, erreketeen Oriamendi Tertzioko 2. Konpainian borrokatzen aritu zen. Zehazki, 1937ko uztailaren 31tik urte bereko urriaren 15era arte, Leongo frontean tropa frankistekin borrokatzen egon zen[345].

## 86. ARTANO ALTUNA, JOSE[346]

Amezketarra jaiotzez, Alegian bizi zen, zeinetan iturgin, bizargin eta bonbero[347] gisan ere jardun zuen. Filomena Gastesi Iturriozekin ezkonduta zegoen eta, beren Imanol, Bingen, Miren eta Mikel seme-alabekin San Juan kalean bizi ziren.

Artano, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen, eta 1934an Alegiako EAJ/PNV-ko Batzordeko presidentea, bai eta Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat ere, Antonio Arrizabalaga Aguirre (Bigarren Errepublikako EAJ/PNV-ko Alegiako alkatea), Pio Montoya Arizmendi (apaiz abertzalea eta Gerra Zibilaren eraginez, Frantzian errefuxiatua) eta Gregorio Oquiñena Errorekin (EAJ/PNV-ko afiliatua eta albaitaria) batera.

Gerra iritsi eta Alegiara tropa frankistak sartu bitartean, Amezketan pasa zituen egunak. Tropa frankistak Tolosaldean sartzen ari zirelarik, bere emazte Filomenaren aholkuz eta laguntzaz, bere karguan zituen Miren eta Mikel seme-alabekin eta emaztearekin, Bilborako erbestea hasi zuen. Behin Bilbon egonik Santiago elizako sakristau eta zaindari lanak bete zituen. Tropa frankistak Bilbon sartzearekin bat, haren semea Imanol erreketeek eraman zuten eta beronek sakristau lanetan jarraitzeko aukera izan zuen.

Bere emaztea, Filomena Gastesi Iturrioz, Altzon desherriratuta zegoen eta oso gaixorik jarri zen. Herriko Jose Maria medikuak, badaezpada, testamentua egin beharra zegoela adierazi zion eta horretarako, beharrezkoa zela haren senarra Jose Artano Altuna etortzea. Hasieran Alegiara itzuli nahi ez bazuen ere, azkenean, bertara etorri zen. Alegiara iristean, alkatearengana joan beharra izan zuen eta hark, oso modu txarrean hartu zuen. Azkenean, Tolosan, testamentua egiteko tokia adierazi zion. Hurrengo egunean Tolosan adierazitako tokira agertu ostean, errekete eta Guardia Zibilen artean, atxilotu eta, Arte eta Lanbide Eskolan preso eduki zuten.

---

339 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
340 AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia.
341 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
342 AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
343 AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia.
344 AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.
345 AUA: 483. Kaxa // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Ficha Nº 3020. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 1914.
346 Sumarisimoa 300/38.
347 Gerra ostean, Alegiako bonberoen nagusia izan zen.

1937ko azaroaren 8an, Tolosako Presondegira eraman zuten. Bertara, bere semea den Mikel Artano Gastesik, egunero janaria eramaten zion eta, ostegunetan, aitarekin hitz egiteko aukera izaten zuen. Gerra-Kontseilua, Gerrako Auditoriako 6. Erregioan egin ostean, 1938ko otsailaren 19an, Ondarretako Presondegira eraman zuten, urtebeterako kartzela zigorrarekin eta, handik aurrera, kargu politikorik bete ezin izango zuelarik. Orué abokatuari esker, eta Alegiako zenbait testiguri esker, Artanoren kartzela-zigorra ez zen hain luzea izan. Beste epaiketa bat egin zioten eta, handik hiru egunera, libre geratu zen. Artanori, kartzelak, izugarrizko kaltea suposatu zion. Gerra hasi baino lehen, udaletxean, ur-kontatzaile lanetan jarduten zuen, baina behin tropa frankistak txintxarrien herrira sartu zirenetik, haren lanetik bota zuten.

Hori gutxi ez balitz, Gerra-Kontseiluaren bidez, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialari, Artano eta haren emazte Filomenaren ondasunak konfiskatzeko agindua eman zioten: “Echeandia” etxea, San Juan 16an kokatutakoa eta “Echechiqui” etxea, San Juan 33an kokatutakoa. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak ere, 1.500 pezetako isuna ezarri zion, bere jardun politikoagatik. Etxeetako giltzak, beren semea zen Imanol Artano Gastesi, gerra pasa ostean soldaduska egitetik itzuli zenean eman zizkieten. Etxeak, goitik behera, hutsik zeuden. Beraz, Artano eta haren familiak, Alegiako frankisten errepresio gogorra jasan behar izan zuten[348].

## 87. ARTANO GASTESI, BINGEN

1931ko apirilaren 5ean Alegian jaio zen. Gerra hasi zenean, bost urte baino ez zituen. Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, “izoa” Filomena Iturrioz Murua, bere ama Filomena Gastesi Iturrioz eta anaia Imanolekin batera, Bilborako bidea hartu zuen. Alde egitearen arrazoi nagusia, II. Errepublikan zehar, bere familiak euskal nazionalismoaren alde eginiko aldarria izan zen eta ondorioz, tropa frankistengandik, jasan zezaketen errepresioa.

Tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, Santanderrerako bidea hartu zuen, familiarekin. Handik, Clères-era (Frantzia) eramango zuen Sarastone itsasontzia hartu zuen.

Behin, Alegiara itzulita, errepresio frankista jasan behar izan zuen. Izan ere, gurasoei eta “izoa”-ri, haien ondasun higiezinak kendu zizkieten. Gainera, ama Filomena Gastesi Iturriozi, ez zioten herrira sartzen utzi, II. Errepublikan zehar egin zuen jardun politikoagatik. Horren eraginez, Bingen berarekin bizi izan zen, Altzoko baserri batean desherriratuta. Aita, berriz, Ondarretako kartzelan izan zuen urtebetez[349].

## 88. ARTANO GASTESI, GREGORIO IMANOL

1919ko urriaren 5ean Alegian jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, “izoa” Filomena Iturrioz Murua, bere ama Filomena Gastesi Iturrioz eta anaia Bingenekin batera, Bilborako bidea hartu zuen. Behin Bilbon, Alegiatik falta ziren familia-kideak etortzerako, euskal moneta sortu berriarekin zerikusia zuen inprenta batean jardun zuen lanean. Tropa frankistak 1937ko ekainaren 19an sartzerako, bere aita Jose Artano Altuna eta berak ezin izan zuten gainontzeko familia-kideekin Santanderrerako bidea hartu. Horren eraginez (erreketeekin borrokatzera joaten ez bazen, kartzelara sartuko baitzuten), 17 urterekin, Nuestra Señora de Begoña Tertzio erreketearekin, Asturias, Castelló eta Terueleko frontean borrokatu behar izan zuen. Behin gerra amaituta, soldaduska egin beharra izan zuen. Hura Alegiara heldu zenean, bere familiak konfiskatuta zituen etxeen eta dendaren giltzak eman zizkioten[350].

## 89. ARTANO GASTESI, MIKEL

1923ko otsailaren 16an Alegian jaio zen. Haren ama, Filomena Gastesi Iturrioz, II. Errepublika garaian, Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidentea zen. Aita, Jose Artano Altuna, iturgina eta bizargina ofizioz, EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat izan zen, Antonio Arrizabalaga Aguirre, Gregorio Oquiñena Erro eta Pio Montoya Arizmendirekin batera.

Horren guztiaren eraginez, gerra hasi eta gutxira, Mikel Artano Gastesi, bere arreba Miren eta aita Jose-rekin, Amezketan errefuxiatu zen. Haren ama Filomena Gastesi Iturriozek, han pairatzen zuten arriskuaz berri eman ostean, Bilborako bidea hartu zuten guztiek, amarekin batera. Han, beste zenbait alegiarrekin Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan zen. Bilbon gosetea nabarmen pairatu zuten eta, bonbardaketak geratu ostean, Mikel, elikagaiekin etortzen ziren itsasontzietara joaten zen janariaren bila. Bitartean, frontetik etortzen ziren gudarientzako trajeak banatzen lan egin zuen.

Tropa frankistak Bilbora sartzerako, Santaderrera egin zuten trenean. Handik, Sarastone itsasontzia hartu behar zuten, Frantziara joan ahal izateko. Ia bertan geratu zen Mikel Artano Gastesi, bere itxuragatik, frontean borrokatzeko gai zela adierazi baitzioten. Horren aurrean, bere ama Filomena Gastesi Iturriozek, galtzak moztu eta orduan, itxura gazteagoarekin, itsasontzian sartzen utzi zioten. Azkenean, beraien helmugara, Clères-era, iritsi ziren.

Behin, Alegiara itzulita, Mikelek, errepresio frankista jasan behar izan zuen. Izan ere, gurasoei eta “izoa”-ri, haien ondasun higiezinak kendu zizkieten. Gainera, ama Filomena Gastesi Iturriozi, ez zioten herrira sartzen utzi, II. Errepublikan zehar egin zuen jardun politikoagatik. Aita, berriz, Ondarretako kartzelan izan zuen urtebetez[351].

[348] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002777/0020 // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1118 // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.* 86-91.orr.

[349] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

[350] AUA: 483. Kaxa // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

[351] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

## 90. ARTANO GASTESI, MIREN

1921eko otsailaren 8an Alegian jaio zen. Haren ama, Filomena Gastesi Iturrioz, II. Errepublika garaian Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidentea izan zen. Aita, Jose Artano Altuna, iturgina eta bizargina ofizioz, EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Alegiako Batzokiko sortzaileetako bat izan zen, Antonio Arrizabalaga Aguirre, Gregorio Oquiñena Erro eta Pio Montoya Arizmendirekin batera.

Horren guztiaren eraginez, gerra hasi eta gutxira, Miren Artano Gastesi, bere anaia Mikel eta aita Jose-rekin, Amezketan errefuxiatu zen. Haren ama Filomena Gastesi Iturriozek, han pairatzen zuten arriskuaz berri eman ostean, Bilborako bidea hartu zuten guztiek, amarekin batera. Han, beste zenbait alegiarrekin Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan zen. Bitartean, Mirenek, euskaldun ofizialen uniformeetarako intsigniak bordatzen lan egin zuen.

Tropa frankistak Bilbora sartzerako, Santaderrera egin zuten trenean. Handik, Sarastone itsasontzian, Frantziara bidea hartu zuten. Han, Clères-en egon ziren errefuxiatu gisan.

Behin, Alegiara itzulita, errepresio frankista jasan behar izan zuen Mirenek. Izan ere, gurasoei eta “izoa”-ri, haien ondasun higiezinak kendu zizkieten. Gainera, ama Filomena Gastesi Iturriozi, ez zioten herrira sartzen utzi, II. Errepublikan zehar egin zuen jardun politikoagatik. Aita, berriz, Ondarretako kartzelan izan zuen urtebetez[352].

## 91. ARTOLA, ARANTXA

Ahozko testigantzen bidez jaso ahal izan dugunez, bere ahizpa Gertudrisekin batera ilea moztu ostean, Alegiako kaleetan zehar ibili zuten. Haren bitartean, herriko alde frankistako pertsonen umilazioak jasan beharra izan zuen.

## 92. ARTOLA, GERTRUDIS

Ahozko testigantzen bidez jaso ahal izan dugunez, bere ahizpa Arantxarekin batera ilea moztu ostean, Alegiako kaleetan zehar ibili zuten. Haren bitartean, herriko alde frankistako pertsonen umilazioak jasan beharra izan zuen.

Horrez gainera, beste ahozko testigantza baten arabera, Mercedes eta Maria Arrizabalaga ahizpekin eta Margarita Aguirre Letamendiarekin batera, frankistek kamioi batean sartu zituztela eta fusilatzera zeramatzatela berretsi zietela jaso dugu. Donostiara eraman zituzten laurak. Han etxera itzultzeko esan zien Eugenio Jauregui alkate frankistaren semeak, ez zituztela hil behar esanez.

## 93. ARTOLA CIPITRIA, SABINO

Andoaindarra jaiotzez, baina Alegian bizi zen. Ferratzailea zen ofizioz, ezkondua eta bi ume zituen. 1936ko irailaren 10ean atxilotu eta Tolosako Presondegira eraman zuten Jose Azpeitia Baztarrica, Eugenio Goicoechea Lasa, Juan Bautista Otamendi Otamendi, Juan Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Estanislao Goicoechea Lasa eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera preso. Artolak, 1936ko urriaren 21ean bere askatasuna lortu zuen[353].

## 94. ARTOLA EGIBURU, PAKITA

1923ko urtarrilaren 29an Alegian jaio zen. Etxean, anai eta ahizpen artean zaharrena izaki, lan asko egin zuen. Eskola nazionaletan ikasi zuen eta Maria Angeles Montoyarekin katekesia “euskara berrian” ere ikasi zuen. 1932ko uztailaren 9an nazionalistek Alegian ospatutako mitinaren lekuko izan zen. Gerraren hasierarekin, Alegiako Karmenetan ospakizunean zebiltzala ohartu zen. Gerran zehar, Alegiatik gertu kokatzen zen baserri batean egon zen bizitzen denboraldi batez eta bertatik, Tolosatik Alegiara hurbildu zen tanketa bat ikusi zuen. Frankisten tiroekin, tanketak, atzera Tolosara egin behar izan zuen[354].

## 95. ARTOLA GARIN, ALEJO

1911ko uztailaren 16an Alegian jaio zen eta nekazaria zen, Arzabalza baserrian. Tropa frankistak Alegiara sartzean beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Hasiera batean, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, erreketeen Oriamendi Tertzioko bigarren konpainian jardun zuen borrokan. Gerraren ostean, Alegiako Círculo Tradicionalista-n afiliatu zen[355].

## 96. ARTOLA GARIN, JUAN BAUTISTA

1909ko otsailaren 28an Alegian jaio zen eta langilea zen ofizioz. Alegian tropa frankistak sartu zirenetik alde eginda zegoen eta errepublikazaleen alde borrokatu zuen. Tropa frankistek atxilotu eta, Donostiako Plazako 8. Auzitegi Militarrean Gerra-Kontseilua egin ostean, Muelako Langile Batailoian BB.TT. nº 41 delakoan aritu beharra izan zuen, gatibu-lanak eginez. Hura, diktadura frankistak ezarri zion zigorra izan zen[356].

---

352 ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

353 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002773/0023 // Mikel Errazkinen Ikerketa Zerrenda.

354 Testigantza: Pakita Artola Egiburu.

355 AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Ficha Nº 653.

356 AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Mikel Errazkinen Ikerketa-Zerrenda.

## 97. ARTOLA GARIN, MARCELINO

Gerra hastean 33 urte zituen, eta 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui Lasa alkate frankistak, tropa frankisten alde borrokatzera joateko deitu zuen[357].

## 98. ARTOLA GOICOECHEA, ANTONIO

Nazionalista izan zen. Gerra baino lehen Tolosako "Telas-metálicas" fabrikan lan egiten zuen, zeinetan Jose Maria Aguirre Egaña "Xabier Lizardi" euskal poeta gerentea zen. Antonio haren lagun handia izan zen eta 1933an Lizardi hiltzean, haren hiletan leku esanguratsua bete zuen, hildako kaxaren gainetik ezartzen zen zinta eutsiz. Behin Tolosa tropa frankistek hartzean, gerente frankista jarri eta Antoniok ezin izan zuen han lanean jarraitu, nazionalista izateagatik[358].

## 99. ARTOLA MENDIA, MIGUEL

Tradizionalista. Zapatagilea zen ofizioz, baina tropa frankistak Alegiara sartzean, udaltzaingo postua lortu zuen[359].

## 100. ARRIZABALAGA AHIZPAK

Ahozko iturrietatik jakin ahal izan dugunez, Arrizabalaga ahizpak (haietatik ziurtatuz, Mercedesen kasua), ilea soildu eta Alegiako kaleetan zehar ibili zituzten olio errizinoa eman ostean.

Horrez gainera, beste ahozko iturrietako batek adierazi digunez, Maria eta Mercedes Arrizabalaga Aguirre, Gertrudis Artolanekoa eta Margarita Aguirre Letamendia alegiarrak, kamioi batean sartu eta laurak Donostiara eraman zituzten. Fusilatzera zeramatzatela berretsi zieten hango soldaduek. Behin Donostiako Auzitegian, Eugenio Jaureguiren semeak, han ez zituztela fusilatu behar eta etxera itzultzeko agindu zien. Erreparatu ahal dugunez, alegiar frankistek, lau emakumeei esandako gezurra, azken hauei beldurra barneraino sartzeko erabilitako trikimailua izan zen.

## 101. ARRIZABALAGA AGUIRRE, ANTONIO

Alegiarra jaiotzez, bere herriko alkate izan zen II. Errepublikako bigarren alditik aurrera, bai eta, gerra garaian, Bilboko Gardoki 6 kaleko txaletean, Alegiako udal-gobernua osatu zenean ere. EAJ/PNV-ko afiliatua izaki, Alegiako Batzokiaren sortzaile izan zen, Gregorio Oquiñena albaitariarekin, Jose Artano Altunarekin eta Pio Montoya Arizmendi apaizarekin batera. Zenbait urtez, Batzokiko presidente ere izan zen.

Alegian tropa frankistak sartu baino lehen, Bilbora alde egin beharra izan zuen. Bertan, aurreko lerroetan adierazitako Alegiako udal-gobernu berriaren alkate izateko aukera izan zuen. Haren arrebek, errepresio frankista beraien gorputzetan jasan beharra izan zuten. Behin tropa frankistak Bilbora sartuta, gerran borrokatu zuen, Santanderreko frontean "Zapadores Minadores" Batailoian, Laredon tropa frankistek atxilotu zuten arte.

Horren guztiaren eraginez, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko martxoaren 12an, estatu frankistari, 30.000 pezeta ordaintzera behartu zuen[360].

## 102. ARRIZABALAGA AGUIRRE, MARIA

Gertudris Artolanekoarekin, Mercedes ahizparekin eta Margarita Aguirre Letamendiarekin batera, frankistek kamioi batean sartu zituzten, fusilatu egingo zituztela berretsiz. Donostiara eraman zituzten laurak. Han etxera itzultzeko esan zien Eugenio Jauregui alkate frankistaren semeak, ez zituztela hil behar esanez. Lau emakumeei beldurra sartzeko trikimailua izan zen hura.

## 103. ARRIZABALAGA AGUIRRE, MERCEDES

Gertudris Artolanekoarekin, Maria ahizparekin eta Margarita Aguirre Letamendiarekin batera, frankistek kamioi batean sartu zituzten, fusilatu egingo zituztela berretsiz. Donostiara eraman zituzten laurak. Han etxera itzultzeko esan zien Eugenio Jauregui alkate frankistaren semeak, ez zituztela hil behar esanez. Lau emakumeei beldurra sartzeko trikimailua izan zen hura. Horrez gainera, ahozko testigantzen bidez jakin ahal izan dugunez, Mercedesi, ilea soildu eta errizino olioa eman ostean, Alegiako kaleetan zehar ibili zuten.

## 104. ARZAMENDI EGUSQUIZA, PEDRO

Papergilea zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 38 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[361].

---

[357] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[358] Testigantza: ahotsak.eus. Pakita Artola Egiburu.

[359] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[360] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 485. Kaxa // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.885.

[361] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 105. AYESTARAN, FLORENTINO

1884ko maiatzaren 15ean jaio zen. Gerra Zibila hasi baino lehenagotik Argentinan bizi zen. 1939ko abuztuaren 30ean Buenos Aires-eko hirian sortu zen *Comité Pro Inmigración Vasca* delakoko partaide izan zen. Honakoa, gerran zehar eta haren ostean, euskal errefuxiatuak Argentinara ekartzeaz arduratu zen.

## 106. AYESTARAN, JULIAN

Veracruzen (Mexiko) jaio zen eta Alegiako parrokoa izan zen II. Errepublikan eta diktadura frankistan zehar. Alegiako udal-gobernuak Pozazubi-Chiqui-tik hurbil gaztainondoak landatzeagatik, iskanbila sortu zuen udaletxean, lur haiek elizarenak zirela berretsiz. Azkenean, II. Errepublikan zehar, Alegiako elizari kendutako ondasunak, frankismoan zehar erreklamatu eta itzuli egin zizkioten. Horrez gainera, Alegiako presoei Auzitegi Militar frankistek burututako epaietan, testigu gisan parte hartu zuen[362].

## 107. AYESTARAN, MIGUEL

Altzokoa jaiotzez, baina Alegian bizi zen. Tropa frankisten aldeko aldarria egin izanagatik, Zentro Errepublikarretik pasa behar izan zuen sinatzera[363].

## 108. AYESTARAN ARRESE, JUAN

1905ean jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerraren ostean, 1941ko uztailean, Alegiako alkatea izan zen. Joaquin Jauregui Lizarribarren auzia medio, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak zinegotzi postura jaitsi zuen eta azkenik, azaroaren 14an, postutik kendu zuten[364].

## 109. AYESTARAN CANTURIENSE, JESUS

Ofizioz, diru trukatzailea zen. 1936ko irailaren 2an Alegian hil zen, 49 urte zituela, bonba batek eginiko zauriengatik. Blaya-ko (Irun) hilerrian hilobiratu zuten[365].

## 110. AYESTARAN GARIN, MARTIN

Errenteriakoa zen jaiotzez eta Alegian papergile gisan lan egiten zuen. Ezkonduta zegoen eta hiru haur zituen. Gerra hasi berritan, 40 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. 1936ko abenduaren 17an, Angel Urcelay, Miguel eta Joaquin Otaño Mugicarekin batera, Tolosako Presondegian preso sartu eta 5 egunez inkomunikatua egon zen. 1937ko urtarrilaren 18an, Alegiako Falangearen eskuetan utzia izan zen, Joaquin eta Miguel Otaño Mugicarekin batera[366].

## 111. AZCONA, BIBIANO

Alegian egondako milizianoa[367].

## 112. AZPEITIA BAZTARRICA, JOSE BAUTISTA

Ikaztegietakoa jaiotzez, Alegian bizi zen, bertan peoi lanak egiten zituelarik. Ezkongabea zen eta bere anaia Juan Bautistarekin batera San Juan bizi zen. Gerra hastean, 30 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko zerrendan ezarri zuten. 1936ko irailaren 10ean atxilotu egin zuten eta Tolosako Presondegira eraman zuten Eugenio Goicoechea Lasa, Estanislao Goicoechea Lasa, Juan Bautista Otamendi Otamendi, Juan Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera. Azpeitiak, 1936ko urriaren 21ean lortu zuen bere askatasuna[368].

## 113. AZPEITIA BAZTARRICA, JUAN BAUTISTA

Ikaztegietakoa jaiotzez, Alegian bizi zen eta peoi lanak egiten zituen. Ezkongabea zen eta bere anaia Joserekin batera San Juan kalean bizi zen. Gerra hasi berritan, 34 urte zituen eta, horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. 1936ko irailaren 10ean atxilotu egin zuten eta Tolosako Presondegira eraman zuten Eugenio Goicoechea Lasa, Estanislao Goicoechea Lasa, Juan Bautista Otamendi Otamendi, Jose Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera. Azpeitiak, 1936ko urriaren 21ean lortu zuen bere askatasuna[369].

---

362 AUA: 485. Kaxa.

363 Sumarisimoa 2456/39.

364 AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

365 FFusilados Irun 1936.

366 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002775/0014.

367 Guerra Civil-Iñaki Egaña.

368 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002773/0027 // APPSS. Prisión de Partido de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº2. Juzgado: Gobernador Militar de la Plaza. Concepto: detenido.

369 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002773/0026.

### 114. AZPEITIA BELOQUI, PEDRO

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua eta papergilea zen ofizioz. Alegiara tropa frankistak sartu zirenerako, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Herrian sortutako lehen udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[370].

### 115. AZPEITIA GARMENDIA, RAMON

1943. urteko soldaduska deialdia[371].

### 116. AZPEITIA ORBEGOZO, JOSE (EULALIO)

Deban jaioa, mikeletea lanbidez, Alegian bizi zen. Gerra garaian, mikelete gisan obra publikoetan ibili zen, 1936ko azaroaren 26an bere lanetik kanporatu egin zuten. Gerra-Kontseilua egin ostean, absolbitu egin zuten[372].

### 117. AZPIAZU, GREGORIO

Alegiako herriko arkitektoa izan zen[373].

### 118. AZURMENDI, ANGEL

II. Errepublikan zehar eraikitzeko agindua eman zen merkatuaren gaineko eskumena izanen zuen[374].

### 119. AZURZA GOROSTIAGA, BERNARDINO

1912ko ekainaren 18an Alegian jaioa, enkuadernatzailea zen ofizioz. II. Errepublika baino lehen, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen. Gerra iristean, zehazki, 1937an, frankistek, gerrara joateko soldadu gisan deklaratu zuten[375].

### 120. AZURZA GOROSTIAGA, JESUS

Alegiarra jaiotzez, gidaria zen ofizioz. 1934ko abuztuan, Alegiako udal-gobernuko fiskala izan zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, 32 urte zituen eta beraien alde borrokatzera joateko deitu zuten[376].

### 121. AZURZA GOROSTIAGA, JOSE

1909ko apirilaren 27an Alegian jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, Iruñean aurkitzen zen, eskutitz baten izenean “gaixorik” zegoela adieraziz[377].

# B

### 122. BALERDI, JUAN

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[378].

### 123. BALERDI GARAYALDE, MIGUEL

1910eko azaroaren 14an Alegian jaio zen eta papergile lanetan jardun zuen. Gerran zehar, “desagertu” gisan ageri zaigu[379].

### 124 BALERDI MACHIÑENA, ESTEBAN JOSE

1919ko irailaren 13an Alegian jaio zen eta gerra hasi berritan, 16 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi

---

[370] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[371] AUA: 483. Kaxa.
[372] BOG // Sumarisimoa 160/37.
[373] AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.
[374] AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.
[375] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa,. 6 . Negoziatua.
[376] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 361. Kaxa. 7. Zenbakia.
[377] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa,. 6 . Negoziatua.
[378] AUA: 511.Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[379] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa,. 6 . Negoziatua.

zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari. Gernikan, Antonia Sagastume Lasa, Isidora Sagastume Lasa eta haien seme-alabekin batera egon zen. Hartan zebilela, tropa frankistek preso hartu zuten. Seguruenik, gerran zehar, tropa frankistekin borrokatu zuen, izan ere, tropa frankistekin borrokatzeagatik subsidioa kobratzen zutenen zerrendan ageri zaigu[380].

## 125. BALERDI MACHIÑENA, IGNACIO

1914ko urtarrilaren 14an Alegian jaio zen, ofizioz igeltseroa, 22 urte zituen gerra hasi zenean. Gerra hasi eta berehala, Eusko Gudarosteko Loiola Batailoian jardun zuen borrokan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari. Gudari gisan borrokan zebilela, tropa frankistek preso hartu zuten[381].

## 126. BALERDI MACHIÑENA, JOSE

Gerra hasi zenean 31 urte zituen eta ofizioz igeltseroa zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari. Eusko Gudarosteko Loiola Batailoian borrokatu zuen frontean. Kartzelara sartu zuten, baina 1937ko urrian behin-behineko askatasuna lortu zuen. Handik aurrera, gertuen zuen Guardia Zibilaren Kuartelera joan behar izan zuen sinatzera[382].

## 127. BALERDI MACHIÑENA, JUAN JOSE

1909ko abenduaren 21ean Alegian jaio zen eta lanbidez igeltseroa zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari.

Gerra hasi zenean, Loiola Batailoian parte hartu zuen eta kabo postua lortu zuen. Zapadore gisan ibili zen gerran zehar. 1937ko apirilean, Alegiako desagertuen zerrendan egoten jarraitzen zuen. Gerra preso egin zuten eta Langile Batailoietan ibili zen gatibu-lanak eginez[383].

## 128. BALERDI MACHIÑENA, MARTIN

1912ko urtarrilaren 10ean Alegian jaio zen eta ofizioz pintore zen Donostian. Gerra hasi zenean, Eusko Gudarosteko Loiola batailoian jardun zuen borrokan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari.

Hartan zebilela, tropa frankistek preso egin eta ez zuen haien alde borrokatzea beste irtenbiderik izan, soldaduska garaian harrapatu baitzuen gerrak. Gerra amaitu ostean, Alegian, tropa frankisten alde borrokatzeagatik subsidioa kobratzen zutenen zerrendan ageri zaigu "Martin Balerdi" gisan[384].

## 129. BALERDI MACHIÑENA, SILVESTRE

Gerra hasi zenean 31 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, haien alde borrokatzeko zerrendetan ezarri zuten. Bere ama Joaquina Machiñena Tolosak, bere beste anaiekin batera Bilbon zegoela adierazi zion Alegiako Eugenio Jauregui alkate frankistari. Hain zuzen, Silvestre, Eusko Gudarosteko Itxarkundia Batailoiko borrokalaria izan zen. Tropa frankistek preso egin eta atxilotuta egon zen kartzelan[385].

## 130. BALERDI SAGASTUME, JOSE JOAQUIN

Bere ama Antonia eta haren ahizpa, Isidora eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, 4 urte baino ez zituela Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen. Han, Antonia Sagastume Lasak, bere senarra, Jose Balerdi Machiñena eta haren anaiak bisitatzeko aukera izan zuen, frontean Eusko Gudarostearekin borrokatzen baitzebiltzan.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Handik, tropa frankistak Bilbon sartu baino lehen 1937ko ekainean Santanderrera egin behar izan zuten.

Santanderretik, Frantziara eraman zituzten itsasontzia hartu zuten. Denbora batez bertan egon ostean, Alegiara itzuli ziren. Txintxarrien herrian, beste zenbait errepublikazaleen gisara, errepresioa frankista jasan behar izan zuen[386].

---

[480] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[481] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // Testigantza: Tere Inza Goikoetxea.

[382] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Mari Carmen, Loli eta Marixol Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia.

[383] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Ceferino Balerdi.

[384] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa,. 6 . Negoziatua // 453. Kaxa. 3. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[385] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[386] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia.

## 131. BALERDI SAGASTUME, MARI CARMEN

Bere ama Antonia eta haren ahizpa, Isidora eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, 6 urte baino ez zituela Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen. Han, Antonia Sagastume Lasak, bere senarra, Jose Balerdi Machiñena eta haren anaiak bisitatzeko aukera izan zuen, frontean Eusko Gudarostearekin borrokatzen baitzebiltzan.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Mari Carmen, oraindik ere, txalet hartan jolasten zuen panpina dotoreekin gogoratzen da. Une garratzik ere izan zuen ordea, Bilboko zenbait eremu suntsitu zituzten bonben tokiko izan baitzen.

Tropa frankistak Bilbora sartu baino lehen, Santanderrerako bidea hartu zuten, bi emakumeek (Damasa Alegiara itzuli zen) eta haien umeek. Han, Frantziara eramango zituen itsasontzia hartu zuten. Tentsio une biziak bizi izan zituzten bertan ere, Cervera itsasontzi frankista, haien inguruan mehatxu eginez ibili baitzen. Horren eraginez, itsasontzian zihoazen errefuxiatuek, ezin izan zuten elikagairik jaso egun batzuetan.

Frantzian errefuxiatuta egon ostean, laster, Alegiara itzuli ziren. Bertan, errepublikazaleak izan ziren beste zenbait alegiarrek jasan zuten errepresio frankistaren lekuko izan ziren[387].

## 132. BALERDI SAGASTUME, SILVESTRE

Bere ama Antonia eta haren ahizpa, Isidora eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, 2 urte baino ez zituela Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen. Han, Antonia Sagastume Lasak, bere senarra, Jose Balerdi Machiñena eta haren anaiak bisitatzeko aukera izan zuen, frontean Eusko Gudarostearekin borrokatzen baitzebiltzan.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Handik, 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbon sartu baino lehen Santanderrera egin behar izan zuten.

Santanderretik, Frantziara eraman zituzten itsasontzia hartu zuten. Denbora batez bertan egon ostean, Alegiara itzuli ziren. Txintxarrien herrian, beste zenbait errepublikazaleen gisara, errepresioa frankista jasan behar izan zuten[388].

## 133. BARROSO LAFUENTE, FELIPE

Alegian, peoi gisan jarduten zuen. Gerra hasi zenean, 22 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[389].

## 134. BARROSO LAFUENTE, JUAN

1913ko otsailaren 8an Ortuellan (Santurtzi) jaio zen, baina Alegian bizi zen. Gerran zehar, Sacco y Vanzetti (CNT 4. zenbakia) Batailoian borrokatu zuen[390].

## 135. BAUTISTA, JUAN BAUTISTA

Alegiarra zen jaiotzez eta langilea zen. 1938ko irailaren 15ean gerra-zauriengatik Kataluniako frontean hil zen. 19 urte zituen hil zenean[391].

## 136. BERACOECHEA LIZARRIBAR, MIGUEL MARIA

Azken gerra karlistako beteranoa izateagatik, pentsioa jaso ahal izan zuen diktadura frankistan zehar[392].

## 137. BERASATEGUI GORROCHATEGUI, FERNANDO

Mikeletea lanbidez, lau urte zeramatzan postu hartan, eta 27 urte zituen gerra hastean. Bilboko Arriaga Antzokian egon zen preso. Bertan eginiko deklarazioetan: gerra hastean, ez zuela armarik hartu adierazi zuen. Herri ezberdinetan guardia lanak egin ostean, Bilbon egon zen, Hotel Carlton (Eusko Jaurlaritzaren egoitza) eta Osasun Kontseiluko zaintza lanak egiten. Tropa frankistak Bilbora sartzean, ez zuen alde egin eta bertan geratu zen beraien aginduetara. Ez zegoen bere aurkako kargurik. Ez zen auzipetua izan. 1936ko azaroaren 26an bere lanpostutik kanporatu zuten. 1937ko abuztuaren 25eko dekretuaz, kolpistek mikeleteak desegin zituzten. 1942ko azarotik aurrera Alegiako udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[393].

---

[387] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia.

[388] Testigantza: Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia.

[389] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[390] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa, 6. Negoziatua.

[391] Alegiako Erregistro-Zibila.

[392] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[393] AUA: 1941-1947 Aktak. A SEKZIOA 1 Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 160/37.

## 138. BERAZA GARAYALDE, MIGUEL

Gerra hasi zenean 45 urte zituen eta jaiotzaz alegiarra bazen ere Zumarragan bizi zen, bere emazte Benedictarekin. Leku aldaketa, bere mikelete ofizioa medio egin zuen. Mikelete gisan 29 urte zeramatzan lanean eta gerra hastean, Zumarragako Aurrezki Kutxan lanean zegoen. Mikeletea izateagatik, Bilboko Arriaga Antzokian atxilotu zuten eta 1936ko azaroaren 26rako bere kargutik kenduta zegoen. Deklarazioen arabera, ez zuen gerran parte hartu. Saturraranen egon zen 3-4 egun, hala agindu zitzaiolako. Haren ostean, Bakiora joateko deitu zioten, mikelete zerbitzua hilabetean bete zuelarik. Handik Las Arenas-era eta azkenik, Bilbon, intendentziako eraikineko lanetan jardun zuen. Galdakaon ere, Polvorin-a zaintzen egon zen eta gero, berriro ere, Bilbon ezarri zuten. Tropa frankistak Bilbon sartzean, ez zuen Santanderrera alde egin. Tribunal frankistek, marxista izateagatik, bere aurkako karguak ezarri zizkioten. Gerra-Kontseilua, 1937ko uztailaren 13an hasi zen, bi egun beranduago emandako sententzian, atzeraguardiako lanak, boluntarioki bete zituelako akusatu zuten.

Handik, 1937ko urriaren 14an, Burgoseko Presondegi Zentralera lekualdatu zuten. Geroago, 1938ko azaroaren 11n, Astorgako Presondegi Zentralera (León). 1940ko uztailaren 13an, gelditzen zitzaizkion kartzela urteak, bere etxetik irten gabe egiteko baimena jaso zuen. Zumarragako etxean pasatu zituen bere azken preso egunak. Guztira, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra bete behar zuen. 1944ko urtarrilaren 20an hil zen, oraindik bere Zumarragako etxean preso zegoela[394].

## 139. BERAZA GARAYALDE, JESUS

Nekazari lanetan jarduten zuen. II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen. Gerra hastean, 37 urte zituen eta horren eraginez, tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[395].

## 140. BERAZA SARASOLA, JOSE IGNACIO

1910eko otsailaren 6an Alegian jaio zen eta papergile gisan lan egiten zuen. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Kintetan, preso edo entregatu gisan ageri zaigu[396].

## 141. BERECIBAR, JUAN

Alegian egondako milizianoa[397].

## 142. BERROA ARESTIMUÑO, DOLORES

Jaiotzaz Irungoa, Alegiako eskola nazionaletako irakaslea izan zen. II. Errepublikan zehar zein diktadura frankistan irakasle izateko aukera izan zuen. Hasiera batean, Alegiara tropa frankistak sartzean, bere lanetik kanporatu zuten, baina laster itzuliko zen Lolita bere postura[398].

# C

## 143. CARRERA LAVACA, JOSE IGNACIO

Amezketarra jaiotzez, baina Alegian bizi zen. Papertegian lan egiten zuen. Gerra hasi berritan 32 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera deitu zuten. Atzeraguardiako errekete gisan ibili zen, kabo postuan. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe…[399].

## 144. CARRERE AZCARRETA, GERARDO

Gerra hasi zenean, erreketea izaki, estatu-kolpea eman zutenen aldeko aldarria egin zuen. Horren eraginez, Alegiako errepublikazaleak kontrolpean izan zuten, Zentro Errepublikarrera, egunean bi aldiz sinatzera pasa behar zuelarik.

Alegiako erreketeen alferez postua bete zuen eta tropa frankistak, 1936ko abuztuaren 7an Alegian sartu zirenetik, udal-gobernuan, zinegotzi postua lortu zuen[400].

---

[394] Gipuzkoako Foru Aldundia 194. Zenbakia // Euskal Memoria Fundazioa // PENADOS AGA: 1938-1958// Sumarisimoa 160/37.

[395] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[396] AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[397] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[398] AUA: Lehen Hezkuntza Kontseilua (1934) // Testigantzak: ahotsak.eus. Pakita Artola Egiburu: ALE-002; Loli, Maixol eta Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia; Miren Ixiar Intxausti Arregi // PARES: Archivo Archivo General de la Administración. Fondo: Ministerio de Educación Nacional. Serie: Expedientes de depuración de maestros nacionales. Signatura: 32/13256. Fecha de expediente: 1936-1942. Número de páginas del expediente:-. Tipología: Depurado. Observaciones:-.

[399] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[400] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 145. CINCUNEGUI GALARRAGA, DOMINGO

1914ko uztailaren 15ean Altzon jaio zen, baina papergilea zen Alegian. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, frankisten Arapiles 7. Zenbakikoan jardun zuen borrokan. Horren eraginez, gerraren ostean, subsidioa jasotzen zuen[401].

## 146. CINCUNEGUI GALARRAGA, PEDRO JOSE

1911ko azaroaren 16an Errezilen jaio zen, baina Alegian bizi eta bertako gurinen fabrikan lan egiten zuen. EAJ/PNV-ra afiliatua, gerra hastean, 24 urte zituelarik, errepublikazaleekin frontera borrokatzera joan zen. Gerran zehar, tropa frankistek harrapatu eta preso egin zuten. Gerra-Kontseilua Bilboko Plazako 12. Auzitegi Militarrean egin eta “sobreseimiento provisional”[402] delakoa aplikatu zioten. Horren eraginez, seguruenik, Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera bidali zuten[403].

Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko uztailaren 23an eginiko epaiketaren ostean, diktadura frankistako estatuari 150 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen. Modu horretan, frankistek, Cincuneguiri “egindako kalteak” barkatuko zizkioten[404].

## 147. CINCUNEGUI IZTUETA, PEDRO

1919ko azaroaren 29an jaio zen. 1938ko otsailaren 9rako Alegiako udal-gobernu frankistak “iheslari” deklaratu zuen. 1940ko kintak deitu zirenerako hilik zegoen[405].

## 148. CISTARO VAZQUEZ, LUIS

1937ko urriaren 2an, Gipuzkoako Probintziako Osasun-Inspektoreak etxeko mediku izendatu zuen[406].

## 149. CORTES CARBEÑA, JUAN

Atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen gerra garaian. Hauek, Alegiako zentsuraz, hilobiratzeez, fronteko zenbait laboreez … arduratzen ziren, baina beti ere, frontean borrokatu gabe[407].

## 150. CUBAS, SANDALIO

Alegian egondako milizianoa[408].

# D

## 151. DE LA FUENTE BARRIO, JENARA

II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuko Lehen Hezkuntzako Kontseiluko kidea izan zen[409].

## 152. DÍAZ VICENTE, MARGARITA

1926ko urtarrilaren 4an, Alegian jaio zen. Bere aita zen Alejo Díaz Herrerosek, Bilboko umeak ebakuatzeko zerrendetan ezarri zuen. Margarita Díaz Vicentek, 11 urte baino ez zituen SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna)-erako itsasontzian bidaia hasteko hautatua izan zenean[410].

## 153. DOLADO GONZALO, JUANA

Tolosarra. Gipuzkoako Errefuxiatuen Kooperatiba erakunde sozialeko militantea izan zen. Bilbon errefuxiatu zen[411].

---

[401] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra // 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
[402] Itzulpen literala.
[403] Sumarisimoa 1409/37.
[404] AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1112.
[405] AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia // 483. Kaxa.
[406] AUA: 476. Kaxa. 1. Zenbakia.
[407] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[408] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[409] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[410] Euskadiko Artxibo Historikoa: C101_EXP1-rollos 127-128.
[411] Mikel Errazkinen Ikerketa-Zerrenda / Testigantza: ahotsak.eus. Pakita Artola Egiburu: ALE-002.

# E

## 154. ECHENAGUSIA MUÑAGORRI, MARIA

Errenteriakoa jaiotzez, II. Errepublikan zehar Alegian telefonista kargua bete zuen. 1936ko abuztuaren 7an Alegiara tropa frankistak sartu arte bertako telefonista izan zen. Ofizialki, Alegiako udal-frankistak 1936ko irailaren 12rako bere postutik kanporatu egin zuen. Kanporatzeko arrazoi nagusia, Euskadiko Aireko Ejertzitoarentzako diru-bilketa laguntza izan zen.

Haren ordez, autoritate militarrak, herriko alkateak gomendatuta Josefa Garmendia eta Maria Mercedes Vazquez ipini zituen telefonista gisan.

1937ko martxoan, Echanagusiak, 1936ko uztailean kobratu gabe geratu zen soldataren eskaera egin zion Gipuzkoako Telefonoen Komisioari. Hark, bere 156,25 pezetako soldata ordaintzeko ardura hartu zuen[412].

## 155. ECHEVARRENA URCOLA, PRUDENCIO

1916ko apirilaren 28an Alegian jaio zen eta papergile lanetan jarduten zuen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Hasiera batean, gerran zehar, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, Oriamendi Tertzioko 2. Konpainian jardun zuen frontean borrokatzen. Hartan zebilela, zauritu eta horren eraginez, Bilboko Generalisimoa-ren Ospitalera eraman zuten. Handik, 1938ko otsailean, Nuestra Señora de la Merced-eko ospitalera lekualdatu zuten. 1938ko otsailaren 26an, handik aurrera frontera soldadu gisan ezin izango zuela joan adierazi zioten. Horren ordez, laguntza-lanak egin zituen tropa frankistentzat[413].

## 156. ECHEVERRIA, JOSE

Alegian egondako milizianoa[414].

## 157. ECHEVERRIA, JOSE

II. Errepublikan zehar Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[415].

## 158. ECHEVERRIA ECEIZA, JOSE

II. Errepublikako bigarren aldian (1933-1936ko otsaila), Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[416].

## 159. ECHEVERRIA GOROSTIDI, IGNACIO

Nekazaria zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 28 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[417].

## 160. ECHEVERRIA LABAYEN, MARIANO

Gidaria zen ofizioz. Gerra hasi berritan 36 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[418].

## 161. ECHEVERRIA TOLEDO, JUAN

Gerra hasi berritan 28 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[419].

## 162. ECHEVERRIA URCOLA, PRUDENCIO

Gerra hastean papergilea zen lanbidez eta 20 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[420].

---

[412] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // GAO_JDIT_1113.

[413] AUA: 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Ficha Nº 637. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 659.

[414] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[415] AUA: 483. Kaxa // 485. Kaxa.

[416] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia.

[417] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[418] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[419] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[420] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 163. ECHEZARRETA MUGICA, JOSE IGNACIO

Amasakoa jaiotzaz, Alegian fusilatu zuten. Consuelo Iraola Mendiak argitu zigunez, bere osaba Jose Eusebio Iraola Iparraguirrek konfesatu zuen Echezarreta fusilatu baino lehen[421].

## 164. EGUIBURU, DONATO

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[422].

## 165. EGUIBURU AZPIAZU, DONATO

27 urte zituen gerra hasi zenean eta ofizioz, enplegatua zen. Oraindik ere ezkondu gabe zegoen. Gerra hastean, nazionalista izaki Azpeitiara joan zen. Bertan, Loiolako zubian zela, bonba batek zauritu eta Alegiara itzuli zen. Horren eraginez, Alegiako udaletxean aurkeztu behar izaten zuen sinatzeko. Azkenean, frankistek, 1936ko irailaren 25ean Tolosako Presondegian hartu zuten preso. Handik, urriaren 18an atera zuten. Behin kartzelatik irtenda, America 23 10. Batailoiko Infanteriako Erregimenduan ibili zen borrokan eta 1939ko martxoaren 9an kamioiarekin izandako istripuaren ostean, desagertuta ageri zaigu. Kamioiarekin hornigaiak eramaten ibili zen[423].

## 166. EIZAGA, ENRIQUE

Alegian egondako milizianoa[424].

## 167. EIZMENDI, JOSE MANUEL

Alegiako udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[425].

## 168. ELOLA LARRARTE, JOSE

Gerra hasi zenean, nekazari lanetan jarduten zuen eta 37 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[426].

## 169. ELOLA LARRARTE, JUAN BAUTISTA

Gerra hasi berritan 34 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[427].

## 170. ENETERREAGA ZABALA, JOSEFA

Celestino Olloquiegui Eneterreaga II. Errepublikako Alegiako udal-idazkariaren eta, Jose Maria Olloquiegui Eneterreaga, preso errepublikarraren ama izan zen. Bere semea, Celestino Olloquiegui hil ostetik 4 urtera, haren soldata-araztua kobratzeko eskaera egin zuen. Alegiako udal-frankistak ezezkoa eman zion hark eginiko eskaerari. Trukean, Eneterreagari, udal-frankistak, 3 pezeta emango zizkion, elikagaiak erosteko bederen zerbait izan zezan[428].

## 171. ERCILLA ECHEVERRIA, JUAN[429]

46 urteko apaiz alegiarra izan zen. Kaperau gisan ibili zen EAJ/PNV-ko Loiola EG (Eusko Gudarostea)-18.b eta Osasun Militarreko EG partaide ere izan zen. Frantzian eta Huescan egon zen erbestean, tropa frankisten aurka aritzeagatik. Frankistek, Olivenzara (Badajoz) desherriratu zuten zigor gisan eta bertan hil zen 1943ko ekainaren 19an.

[421] 1936/10/2019 (1093/003-01 San Juan Bautista libro 4 fol.175v) Echezarreta Mugica, Jose Ignacio 39/1936/10/19 Amasa, Villabona.

[422] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6 Negoziatua.

[423] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // AHPG-GPAH GEZ 002773/0057 // Aurre-diligentziak: 00357.

[424] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[425] AUA: 476. Kaxa. 1. Zenbakia.

[426] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[427] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[428] AUA: 1941-1947 Aktak. A SEKZIOA 1 Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia.

[429] CDMH. Fichero General (Nº fichas 4) // CDMH. S.M. Leg 10662, Folio 237 // CDMH. Legajo L-2338 Sacerdote que firmó el acta de Guernica autorizado para embarcar con destino // CDMH. S.M., Carpeta 7383, Folio 333 // CDMH. Fondo Político Social. Bilbao. Caja 256 Nº1 a 9 "Comandancia de Milicias Vascas. Contiene: Nº1 a 3. 1936-1937. Fichas de gudaris, consignando datos personales y militares y filiación política, pertenecientes a los siguientes gudaris Nº5. 1937. Ibaizabal Nº2 y 3. 1937. 50 San Andrés Nº 4. 1936-1937. Certificados médicos expedidos a gudaris Nº5. 1937. Cédulas y fichas personales y programas de festejos Nº6. 1937. Correspondencia particular de milicianos Nº7, Aralar, Bolivar, Ibaizabal Nº8. Loiola, Martiartu. San Andrés, Saseta, Sukarrieta Nº 9. 1937. Correspondencia cruzada entre la Comandancia. El Departamento de Defensa del Gobierno de Euzkadi y el Batallón nº7 de Ingenieros Gogorki" // Irargi: Rollo 319, Rollo 320 // Mundo Obrero Nº687, pag 2 (22/02/1938). Sacerdote antifascista. Pronunciará una conferencia sobre el tema "Doctrina social extractada de los evangelios de Cristo. Doctrina social de Carlos Marx ¿Cual de las dos doctrinas prevalecerá en el porvenir? // EUZKO APAIZ TALDE: "Historia General de la Guerra Civil en Euskadi". Lista general del clero vasco perseguido. Naroki, Luis Haramburu Altuna. V-156 "De Tolosa, 46 años, adscrito en Irún. Capellán del Loyola. Exilio: Francia; se hallaba en la lista para ser detenido. Destierro: Huesca-Badajoz (Olivenza). Falleció el 19-06-43, en Olivenza, con 52 años. Al caer Valencia, vino a esta ciudad. Fue bien recibido. Laurica le mandó a Huesca.

## 172. ERMINA, JOSE

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[430].

## 173. ERMINA BERAZA, MIGUEL

Gerra hasi berritan 36 urte zituen eta, Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[431].

## 174. ERMINA OYARZABAL, BERNARDO

1909ko irailaren 3an Alegian jaio zen eta ordudanik, Ezein bizi izan zen. Langilea ofizioz, tropa frankistak Alegian sartu zirenetik desagertuta zegoen. Horren eraginez, Antonio Erminak Alegiako alkatetzara idatzitako idatzi batean, errepublikazaleen aldean zegoela adierazi zuen. Preso hartu zuten eta Gerra-Kontseilua egin zioten, 1941eko apirilaren 4an, Bilboko Auzitegi Militarrak, askatasuna deklaratu zion[432].

## 175. ERMINA TOLOSA, JOSE MARIA

1917ko uztailaren 4an Alegian jaio zen eta Ezei baserrian nekazari lanak betetzen zituen. 19 urterekin gerrako frontean aurkitzen zen borrokatzen[433].

## 176. ERMINA TOLOSA, MARTIN

1915eko ekainaren 5ean Alegian jaio zen eta Ezei baserrian nekazaria zen. Hasiera batean, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, Oriamendi Tertzioko 2. Konpainian borrokatu zuen errekete gisan, tropa frankistekin. Terueleko frontean, eskuineko belaunean zaurituta, Gasteizko Seminarioko Ospitalera eraman zuten. Bertan, 1938ko urtarrilaren 10etik otsailaren 22ra bitartean egon zen. Behin gerra amaitu ostean, diktadura frankistak, bere tropen alde borrokatzeagatik, subsidioa ematen zion[434].

## 177. ERMINA ZABALA, JOSE MARIA

Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen, 1934ko azaroaren 13ko udalbatzatik, 1936ko otsaileko hauteskundeak arte. Langilea ofizioz, gerra hasi zenean 33 urte zituen eta Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten. 1937ko urtarrilaren 13an Juan Bautista Irizar Aramburuerekin bat idatzi zuen eskutitzean, haren emaztea, bere seme eta bi koinaturekin batera, Bilbon aurkitzen zirela adierazi zuen[435].

## 178. ERQUICIA GOENAGA, JOAQUIN

Joaquin Jauregui Lizarribarrek, Kaolinera Alegitarra-ko nagusiak, bere enpresan olanak falta zirela adierazi zuen Tolosako kuartelean 1945eko maiatzaren 10ean eta hauek zeinek harrapatzen zituen kontutan hartzeko, Jacinto Arin enkargatua eta Manuel Olanzasti langilea ezarri zituen bijilatzen.

Lapurretaren errudun, Joaquin Erquicia Goenaga egin zuten eta 4.000 pezetetara iristen ziren ondasunak enbargatzeko erabakia hartu zuten. Ez zuen batere ondasunik eta hileko lehen eta 15.egunetan pasatu behar izango zuen epaitegitik. Detenituta zegoelarik, bere buruaz beste egiteko gogoa zuela adierazi zuen[436].

## 179. ERRONDOSORO SARASOLA, MIGUEL JOSE

Legorretarra jaiotzez, Alegian bizi zen, bertan papergile moduan lan egiten baitzuen. Ezkondua, bere emaztearekin eta 7 seme-alabekin Alegiako Florida etxean bizi zen. Gerra hastean 41 urte zituen eta horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beren lerroetan borrokatzeko deitu zuten. 1936ko irailaren 10ean, atxilotu egin zuten eta Tolosako Presondegira eraman zuten Jose Azpeitia Baztarrica, Estanislao Goicoechea Lasa, Juan Bautista Otamendi Otamendi, Juan Azpeitia Bastarrica, Eugenio Goicoechea Lasa, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera. Errondosorok, 1936ko urriaren 21ean bere askatasuna lortu zuen[437].

[430] 511. Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.

[431] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[432] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[433] AUA: 483. Kaxa.

[434] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra // 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 660. Ficha: Nº 639.

[435] AUA: 483. Kaxa // 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[436] AUA: 453. Kaxa. 1. Zenbakia.

[437] APPSS. Prisión de Partido de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº1 exp 85. Orden: Gobernador Militar de la Plaza. En concepto de detenido // AHPG-GPAH GEZ 002772/0042.

## 180. ESCUDERO LARREA, VISITACIÓN DOLORES

Jostuna zen eta tropa frankistak Alegiara sartzerako bere seme-alabekin Donostiara joana zen. Haren semea, Jose Maria Zabala Escudero, tropa frankistek nola errekrutatu zutenaren testigu izan zen[438].

## 181. ESNAOLA ITURBE, BARTOLOME

Gerra hasi zenean, 31 urte zituen eta peoi gisan jarduten zuen Alegian. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Baina ordurako indar nazionalistekin frontean borrokatzen ari zen. Hain zuzen, Eusko Gudarostearekin Belkoaingo frontean borrokan ibili zen[439].

## 182. EZCURDIA ALBISU, JOSE MARIA

Alegiako medikua izan zen eta diktadura frankistan, 1941ko azarotik aurrera Alegiako alkate postua hartu zuen. 1942ko maiatzera arte egongo zen kargu horretan[440].

# F

## 183. FERNANDEZ-BARRENA ZUAZOLA, FRANCISCO

1908an Alegian jaio zen, baina gerra hastean Sestaon bizi zen eta ezkongabea zen. 28 urterekin abiatu zen gerrako frontera, Isaac Puente batailoian izena emanda. Isaac Puente Batailoia 1936ko irailean sortu zen Bilboko Casillako kuartelean eta abenduan, Arabako ofentsiban parte hartu zuen. Fernandez-Barrenak ere ofentsiba hartan parte hartu zuen. Hilaren 2an, Alonso Vega frankistaren militarren eraginez, bere kideetako 100 nola hiltzen ziren ikusi beharra izan zuen. Horrez gainera, 200 zauritu ere izan zituzten. Egun batzuk ofentsibatik haratago pasa ostean, berriro ere frontera itzuli zen batailoiarekin batera. Arabako ofentsiban ezagutuko zituen bere azken egunak Fernandez-Barrenak. 1936ko abenduaren 8an, Bilboko Ospitale Zibilean hil zen, Ubideako frontean egindako zauriengatik[441].

## 184. FERNANDEZ TEJADA, VALENTIN ANGURIO

1938ko urrian, Alegiako udaleko-idazkari izendatu zuten[442].

# G

## 185. GALARRAGA, EUGENIO

Tropa frankistekin gerran aritzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[443].

## 186. GALARRAGA, FRANCISCO

Gerran tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[444].

## 187. GALARRAGA AGUIRREZABALA, EUGENIO

1916ko azaroaren 13an Alegian jaio zen eta gidari gisan jarduten zuen lanean. Gerra hasi zenean, frontera borrokatzera joan beharra izan zuen[445].

---

[438] Testigantza: Maria Rosario eta Loli Zabala Zabala.

[439] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // BUCES CABELLO, J. 2017. Eusko gudarostea : Eusko abertzaleak, armak eskuan, Espainiako militarren altxamenduaren aurka, Azpeitia 1936. Aranzadi Zientzia Elkartea: Donostia.

[440] AUA: 422. Kaxa. 2. Zenbakia A Sekzioa 1. Negoziatua // 476. Kaxa. 1. Zenbakia.

[441] - FAHPV (Araba): R.C.Nº 1 DE BILBAO.
- Euskal Memoria Fundazioa.

[442] AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia.

[443] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[444] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[445] AUA: 483. Kaxa.

## 188. GALARRAGA AGUIRREZABALA, FRANCISCO

1911ko irailaren 7an Alegian jaio zen eta nekazari lanak egiten zituen Basurka baserrian. Alegiara tropa frankistak sartzean, beren lerroetan borroka egiteko deitu zuten. Gerran zehar, frontean borrokan ibili zen[446].

## 189. GALARRAGA AGUIRREZABALA, JOSE

1913ko otsailaren 20an Alegian jaio zen eta gidaria zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Kinten orrian "En Bata", hau da, seguruenik Langileen Batailoian gatibu-lanak egiten aurkitzen zela adierazi nahi zuen. Miranda de Ebron aurkitzen zen bere autua desglosatu zutenean[447].

## 190. GALARRAGA AGUIRREZABALA, JUAN B.

1910eko ekainaren 16an Alegian jaio zen eta nekazaria zen Basurka baserrian. Tropa frankistak Alegian sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran zehar, frontean borrokatzen egon zen[448].

## 191. GALARRAGA GARMENDIA, IGNACIO

II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933), zinegotzi postua lortu zuen katoliko independente gisan aurkeztuta. 1932ko abuztutik 1933ko abuztura, urtebetez, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi tradizionalista eta nazionalistek hala aukeratuta, udal-gobernuko diruzaina izan zen. Gerra Zibila hasi zenean, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia zen. Tropa frankistak txintxarrien herrira sartzean, bere postutik kendu zuten[449].

## 192. GALARRAGA GOICOECHEA, JESUS

Ondasun higiezinak bahitu zizkioten Alegian eta gudari edo miliziano gisan borrokatu zuen[450].

## 193. GALARZA MURUA, JENARO

Papertegian lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 30 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[451].

## 194. GANZARAIN GOICOECHEA, ROMAN

1914ko azaroaren 20an Alegian jaio zen eta erizaina zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, errekrutatua izan zen eta horren eraginez, Arapiles 7. Zenbakiko Mendiko Batailoian jardun zuen borrokan. Horren eraginez, gerra ostean, subsidioa kobratzen zuen[452].

## 195. GANZARAIN GOICOECHEA, VICTORIANO

1917ko otsailaren 23an Alegian jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, txintxarrien herritik alde egin zuen. 1937ko urriaren 18an, Alegiako udal-gobernu frankistako agintariek "iheslari" izendatu zuten. Horrez gainera, autoritate frankistek, berau Asturiasen errepublikazaleekin egongo ote zen susmatzen zuten. Zehazki, gerran zehar, Loiola Batailoian borrokatzen jardun zuen[453].

## 196. GARAYALDE URRETAVIZCAYA, JOSE

Ideia nazionalistadun apaiza, propaganda nazionalista zabaltzeaz arduratzen zen Tolosaldeko herrietan zehar. Gerra hastean, Frantziara errefuxiatu zen. Frankismoan zehar, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko abenduaren 15ean eginiko epaiketaren ostean, 500 pezeta ordaintzera derrigortu zuen diktadura frankistako estatuari, bere ardura politikoak medio[454].

## 197. GARCÍA ORTEGA, PEDRO

Papertegian lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 33 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Soldaduen Batailoi Diziplinatzailean gatibu-lanak egiten aritu zen[455].

---

[446] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

[447] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 1350/37.

[448] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra.

[449] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // 483. Kaxa.

[450] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.

[451] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[452] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

[453] AUA: 1936-1941. Aktak. A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.

[454] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1357 // Gomá Artxiboa. Kod: 11 (Errepresaliatutako klero gipuzkoarra).

[455] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AGMG: Indizea: 6 Kaxa: 1342 Espedientea: 59713.

## 198. GARMENDIA, FRANCISCO

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[456].

## 199. GARMENDIA, JOSE

1936ko uztailaren 18an gerra hasi arte EAJ/PNV-ko kidea izan zen. Behin tropa frankistak Alegian sartzetik, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[457].

## 200. GARMENDIA AGUIRREZABALA, FRANCISCO

1914ko ekainaren 4an Alegian jaio zen eta Illarramendi fabrikan, papergile gisan lan egiten zuen. Gerra iristean, frontean aurkitzen zen[458].

## 201. GARMENDIA ESTENSORO, JULIAN

Diktadura frankistaren garaian, albaitari izatea lortu zuen[459].

## 202. GARMENDIA GARMENDIA, JOSE

Alegiarra eta ofizioz langilea. EAJ/PNV-ko atzeraguardian jardun zuen. Alfaron Guardia Zibilak atxilotu eta, 1937ko abenduaren 16an Tolosako Erreketeen Kuartelera lekualdatu zuten galdeketa egiteko. 1937ko abenduaren 18an, Tolosako Erreketeen Kuartelean lehergailu baten leherketaz hil egin zen. Agintari frankistak, bere buruaz beste egin zuela determinatu zuten. Hala eta guztiz ere, presoak eskuak esposatuta zituela eta lehergailurik ez zuela esku artean jakinik, seguruenik (ikerketa egin ostean), ez zuela bere buruaz beste egin pentsatzera eraman gaitu. 1937ko abenduaren 19an Tolosako hilerrian hilobiratu zuten autopsia egin ostean[460].

## 203. GARMENDIA UGARTE, JOSE

Gerran zehar, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe …[461].

## 204. GARMENDIA UGARTEMENDIA, JOSE RAMON

Gerra hasi berritan 32 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, Jose Otañok ezkutatu eta ondoren, Orendainen ezkutatuta egon zen, milizianoek zerbait egiteko beldur baitzen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egiteko deitu zuten[462].

## 205. GARMENDIA ULACIA, JOSEFA

1936ko abuztuaren 7an tropa frankistak Alegiara sartu ziren unetik aurrera, Alegiako telefonista bilakatu zen. Haren laguntzailea, M. Mercedes Vazquez izan zen[463].

## 206. GASTAÑAGA ITURRALDE, JOSE MARIA

24 urte zituen gerra hasi zenean eta Argentinara joan zen soldaduska bertan egitera, jatorriz han jaioa baitzean, Bahia Blancan. Maria Iturralde haren amak, Alegian zegoenak, Alegiako udal frankistari eskutitz bidez, bere semea 1937ko urtarrilean, Frantzian, Argentinarako bidean aurkitzen zela adierazi zion[464].

## 207. GASTAÑAGA JAUREGUI, ALBERTO

1915eko otsailaren 25ean Alegian jaio zen eta papergilea zen Arzabalza fabrikan. EAJ/PNV-ra afiliatua, gerra hastean, Eusko Gudarosteko Loiola Batailoiarekin borrokatu zuen. Tropa frankistek, Santoñan, Jose Alfredo Arrayet Endeiza, Felipe Otaño Mugica, Juan Irastorza, bere anaia Pedro, Lavaca eta Ganzarain alegiarrekin batera atxilotu zuten. Horren eraginez, kontzentrazio-eremu ezberdinetako egoera ankerrak bizi behar izan zituen: Burgoseko Miranda de Ebron (1940/06/25-1940/07/08), esaterako. Handik, 40. Zenbakiko Langile Batailoian aritu zen 1940ko uztailaren 8tik 1942ko maiatzaren 31ra bitartean. Hartan, Oviedoko aireportuko lanetan zein Mallorcako Palman ere beste zenbait gauza eraikitzen ibili zen[465].

---

[456] AUA: 511.Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[457] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.
[458] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 511.Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.
[459] AUA: 476. Kaxa. 1. Zenbakia.
[460] Tolosako Erregistro-Zibila. Heriotza-aktak. 34. Liburukia. 38/1938 zenbakia // San Juan Bautista Parrokia // Sumarisimoa 1137/37 eta 402/49.
[461] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[462] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[463] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // GAO_JDIT_1113.
[464] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[465] Testigantza: Maria Jesus eta Maitane Gaztañaga Otermin.

Langile Batailoietan zela, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko abuztuaren 4an, diktadura frankistako estatuari 100 pezeta ordaintzera derrigortu zuen.

Kartzelatik irtetean, danbolin jotzaile, udaltzaingo eta hobiratze lanetan lan egin zuen. Bere emaztea zen Juana Otermin Eceizarekin batera, Alegiako udaletxeko eginkizunak egiteaz arduratu zen[466].

## 208. GASTAÑAGA JAUREGUI, PEDRO

1912ko abenduaren 22an Alegian jaio zen. Gerra baino lehen, ezkongabea zen eta papergile gisan Arzabalza fabrikan lan egiten zuen. EAJ/PNV-n afiliatuta, gerra garaian, Eusko Gudarosteko Loiola Batailoian borrokatu zuen. Motorra zuela probestuz, gerra garaian, frontean korreo lanak egin zituen eta ertzaina izan zen. Gernikako bonbardaketa ikusi zuen. Tropa frankistek, Santoñan, Felipe Otaño Mugica, Juan Irastorza, Lavaca, bere anaia Alberto eta Ganzarain alegiarrekin batera atxilotu zuten. Horren eraginez, kontzentrazio-eremu ezberdinetan egon behar izan zuen eta Langile Batailoietan lan egitera behartu zuten. Bertan gatibu-lanak egiten ari zela, pneumonia harrapatu zuen eta errepublikar praktikante batek zaindu zuelako bizirik iraun zuen.

Gerraren ostean, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, diktadura frankistako estatuari 750 pezetako isuna ordaintzera behartu zuen, 1941eko uztailaren 10ean eginiko epaiketaren ostean[467].

## 209. GASTESI, JOSE

Gerra hasi bezain laster, bere ama Maria Gastesi Iturriozekin, Donostiara joan zen, alegiarrez beteriko kamioi batean. Handik, kostako trenaz baliatuz, Bilbora joan ziren. Bertan, tropa frankistak sartu bitarteko hilabeteak pasa zituzten, Gardoki 6 kaleko txaletean. Handik, tropa frankistak Bilbora sartzear zeudela, Santurtzitik Habana itsasontzian irten zuten. Erbesteko denboraldia, Donibane Garazin pasatu zuten[468].

## 210. GASTESI ITURRIOZ, FILOMENA

1893an jaio zen. Gazte garaian,Victoria Eugenia erreginaren idazkariaren etxean lan egin zuen Donostian. II. Errepublikan zehar, Alegiako Emakume Abertzale Batzako presidentea izan zen.

Horren eraginez, Alegiara tropa frankistak sartu baino lehen, bere seme-alabekin eta “izoa” Filomena Iturrioz Muruarekin batera Bilborako bidea hartu zuen. Bilbon, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi ostean, tropa frankistak hirira sartu baino lehen, Santanderrerako bidea hartu zuten. Santanderren, Sarastone itsasontzian, Frantzia helmuga zuen bidaian murgildu ziren. Clères-en (Frantzia) errefuxiatu ziren.

Behin herrira itzultzean, egoera gogorra jasan behar izan zuen Filomena Gastesi Iturriozek. Izan ere, ez zioten herrira sartzen utzi, II. Errepublikan zehar izan zuen jarduera politikoagatik. Horren eraginez, bere haur Bingen txikiena harturik, Altzoko baserri batean bizitzen egon zen[469].

## 211. GASTESI ITURRIOZ, MARIA

1887an Alegian jaioa, etxeko emakumea eta ezkongabea zen Maria Gastesi Iturrioz. Gerra hasi baino lehen, Mexikon egon zen, Donostian uda pasatzen zuten mexikar aberatsen 4 umeak zaintzen. Hauen ama hil zenean, haren senarrarekin haurra izan zuen eta ezkondu nahi izan zuten, baina ez zieten utzi. Honakoen semea, Jose Gastesi izan zen eta 1926ko martxoaren 22an Mexiko DF-n jaio zen. Hasiera batean, Mexikotik itzuli eta Lekunberrin bizitzen egon zen. Laster “izoa” Filomenak eskatuta, Alegiara itzuli zen eta bere semearen aita zenak, dirua bidaltzen zion, Josetxo hezi zezan. Josetxori aita bisitan etortzen zitzaion Donostiara etortzen zenean, harik eta gerrak egoera zaildu zuen arte.

Gerra hasi zenean, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, Mariak bere semearekin bertatik alde egin zuen. Lehendabizi, beste zenbait alegiarrez beteriko kamioi batean Donostiara joan zen eta horren ostean, trenez, Bilbora. Santurtzitik irten zen Habana itsasontzian, Maria Gastesi Iturrioz eta haren seme Josetxok, Frantziarako bidea hartu eta Donibane Garazin pasa zuten erbesteko denboraldia.

Horren guztiaren eraginez, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, Maria Gastesi Iturrioz, 1940ko urriaren 7an, diktadura frankistako estatuari 750 pezetako isuna ordaintzera behartu zuen[470].

## 212. GASTESI ZALDUNBERE, ANSELMO

1915eko urriaren 4an Tolosan jaio eta Alegian bizi izan zen. Gerra Zibila iristean, desagertu egin zen, Tolosako miliziano komunisten desfilean, beraiekin joanez[471]. Jose Gastesiren arabera, seguruenik fusilatu eginen zuten[472].

---

[466] AUA: 361. Kaxa. 8. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1134.

[467] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1077 // Testigantza: Karmele eta Lourdes Gaztañaga.

[468] GASTESI, J. 2007. *Alegiari buruz kontu-kontari 1900-1950.*

[469] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

[470] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.656 // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

[471] Testigantza: Maria Teresa Agirre Ormazabal eta Mikel Artano Gastesi.

[472] ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

## 213. GASTESI ZALDUNBERE, FILOMENA

1913ko otsailaren 18an Tolosan jaio zen. Gerra hasi eta tropa frankistak Alegian sartu baino lehen, bertatik alde egin zuen. Gerran zehar, Angel Munduate Urdampilleta (ELA/STV-San Andres Batailoia) bere senarraren pausoak jarraitu zituen. Hasieran, Elgoibar aldera joan zen eta bertan, Etxebarriako Errotako jabea zen Joxepa ezagutu zuen. Hark bere baserrira eraman eta senarra frontean zegoen bitartean, Filomenak, Maria Josefa Ganuza Lardizabalekin hitz egin zuen[473], Max Kalamuako borroka lekua arriskutsutzat baitzuen eta hura (senarra) babestoki batera ekartzeko eskaera eginez. Haren bitartean, 1937ko urtarrilaren 14an, Filomena Gastesi Zaldunbereri bere seme Luis Munduate Gastesi hil egin zitzaion, eta gauez, balen artetik ihesi, hilobiratu zuten umetxoa.

Azkenean, Angel Munduate, frontetik urrundu eta Bilbon ertzain gisan aritzea lortu zuen Filomenak. Handik aurrera, Bilbo frankistek hartu bitartean, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren.

Handik, Frantziara joan zen erbestera, Nimes-era, hain zuzen. Bertan egon zen 1939ra bitartean[474].

## 214. GAZTAÑAGA, AURELIA

Diktadura frankista garaian, bere Alegiako etxean denboraldi batez soldaduak bizitzen izan zituen[475].

## 215. GAZTAÑAGA AYESTARAN, PABLO

Papergilea zen ofizioz. Gerra hasi berritan 32 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[476].

## 216. GIMENO HUARTE, AURELIA

Alegia, Altzo, Amezketa, Ikaztegieta, Baliarrain, Abaltzisketa eta Orendainek osatzen zuten mankomunitateko botikaria izan zen, zeina diktadura frankistan zehar, Alegiako udal-agintari frankistek kanporatu zuten. Herriko mekaniko eta dentista izan zen, Jose Maria Tolosa Zudairerekin ezkonduta egon zen.

1936ko maiatzaren 27an hartu zuen bertan kargu eta 1937ko apirilaren 18an, aurretiaz esan gisan, bere postutik kanporatu zuten. Kargugabetzearen arrazoi nagusia, bere jaioterrian, ezkertiarrei botoa eman eta Fronte Popularrean parte hartzea izan zen. Agintari-frankistek, bere gizona nazionalistatzat izateagatik, bera ere hala zela kontsideratu zuten. Horren eraginez, 1937ko apirilaren 13an, Tolosako Crespo (botikaria) eta Pilar Gimenok (erizaina) hartu zuten mankomunitate farmazeutikoaren ordezkaritza. Hala eta guztiz ere, 1939ko otsailean Gipuzkoako Osasun Korporazioak, bere postutik errurik izan gabe bota zutela berretsiz, Alegiako udala, Gimenok ordura arte jasotzerik izan ez zuen soldata ordaintzera derrigortu zuen. Zenbait ahaleginen ostean, 1942ko martxoaren 2an bere kargua berreskuratu zuen, bere espedientean aurkako aldarririk ez izanagatik[477].

## 217. GOIBURU ECHEVEGUREN, JUAN MIGUEL

Orendaingoa jaiotzez, Alegian bizi zen. Gerran zehar, Oriamendi Tertzioan borrokatu zuen[478].

## 218. GOICOECHEA, ESTANISLAO

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[479].

## 219. GOICOECHEA, TEODORO

1937ko urtarrilaren 20an Eugenio Jauregui alkate frankistari, bere aita Eugenio Goicoecheak, hura ez zekiela non zegoen adierazi zion eta horrenbestez, ezin izan ziola adierazi herrira itzuli behar zuela tropa frankistekin borrokatzera joateko[480]. Horrez gainera, Eugenio Goicoecheak, bere anaia Teodoro Goicoechea delakoa ere non zegoen ez zekien momentu hartan.

## 220. GOICOECHEA, ANA

Irakasle gisan jardun zuen Alegian. Haurrei klase partikularrak emateaz arduratu zen.

## 221. GOICOECHEA GOROSTARZU, CARMEN

Alegiako Eskola Nazionaletan, 1932ko maiatzaren 1etik aurrera, hau da, Francisca Ibarrolaburu jubilatu ostetik irakasle lanetan jardun zuen. II. Errepublikako bigarren aldian (1933-1936) zehar, Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokal lanetan aritu zen. Gerra hasi baino lehen Ubera eta Eibarren irakasle gisa aritu zen. Gerra hasi zenean, Angiozarren (gaur egun Bergarako auzoa) aurkitzen zen

---

[473] Maria Josefa Ganuza Lardizabal: euskararen aldeko mugimenduan parte hartu eta Telesforo Monzonen emaztea izan zena.

[474] ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

[475] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[476] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[477] AUA: 422. Kaxa. 2. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua // 437.Kaxa. 2. Zenbakia. A Sekzioa 1. Negoziatua // 454. Kaxa. 1. Zenbakia.

[478] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[479] AUA: 511.Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.

[480] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

eta Intxortako frontearen lekuko izan zen bere senarrarekin batera. Zehazki, Angiozar tropa frankisten menpe zegoenean, Carmen Goicoechearen alaba Tere Inza Goikoetxeak adierazi digunez, haren amak, militar frankista baten mehatxua jaso zuen. Hain zuzen, bere seme Migelen oihal zuria (garai hartan pardel gisan erabilia) lehortzeko jarri zuenean, militar frankistak atzetik lepoan pistola jarriz, hura azkar kentzeko agindu zion, bestela errepublikazaleek bake eskean ari zirela uste izango baitzuten. Izugarrizko giro gordina bizi izan zuten.

Tere Inzak kontatu digunez, gaur egun bere senarra den Moises Arriaran Iñarrari, tropa frankisten hegazkinei Bergaran eroritako bonba baten eraginez, hanka mutilatu beharra izan zien. Bonba horren eraginez, Moisesen lehengusua, bertan hil egin zen.

Testuinguru horretan, Carmen Goicoechea Gorostarzu eta bere senarra Nicolas Inza Askazibarrek, Angiozarretik alde egin behar izan zuten. Hori probestuz, militar frankistek, etxea goitik behera hustu zieten. Handik, senar-emazteak eta Migel txikia, Tere Alegian izebarekin zegoen bitartean, Harora bizitzera joan ziren. Handik laster, Donostiara egingo zuten eta geroago Angiozarrera berriro ere. Carmen Goicoecheak, ezin izan zuen bere irakasle postua gehiago bete izan, oposizioak, gerra garaian, Bilbon bertan egin baitzituen, eta Tere Inzak argitu gisan, ez zizkioten aitortu.

Tere Inza, izeba Gloriarekin Poxpolin (jantzi abertzaleekin) gisan jantzita Alegiako kaleetatik zebilela, Gloria izebari, hargatik isuna jarri zioten. Tere Inzak, Alegia bonbardatzen zuten garaian, Alegiako udaletxe azpiko arkupeetan gordetzen zirela gogoratzen du, argi guztiak itzalita egoten zirelarik. Horrez gainera, gerra hastean, egun batzuk Ugarten izebarekin pasatu zituela gogoratzen da[481].

## 222. GOICOECHEA GOROSTIDI, IGNACIO

Gerra hasi berritan 33 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Diktadura frankistan zehar Círculo Tradicionalista-ko kidea izan zen[482].

## 223. GOICOECHEA GOROSTIDI, IGNACIO

Gerra hasi zenean papergile gisan lan egiten zuen eta 37 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekinborrokatzeko deitu zuten[483].

## 224. GOICOECHEA IRURZUN, PIO

Miguel Primo de Riveraren diktaduran zehar, Alegiako alkatea izan zen bost urte eta sei hilabetez. II. Errepublikan zehar, Alegiako Zentro Errepublikarreko afiliatua izan zen, baina tropa frankistak Alegian sartzerako baja eman zuen. 1937ko urtarrilaren 3an, agintari frankistek, bere alondegiko lanetik kanporatzeko erabakia hartu zuten. Goicoecheak, behin eta berriz, bere lanpostua berreskuratzeko ahaleginak egin ostean, 1937ko apirilaren 4an bere lanpostua berreskuratu zuen. Hala eta guztiz ere, lau hilabetez soldatarik kobratu gabe lan egin zuen[484].

## 225. GOICOECHEA LASA, ANTONIO

1914ko ekainaren 12-13an Alegian jaio zen eta gerra hasi zenean Belgikan aurkitzen zen, ikasketa erlijiosoak egiten. Zehazki, 1935an Mèan-en (Namur, Belgika) bizi zen, Chateau Bassinnes deiturikoan[485].

## 226. GOICOECHEA LASA, ESTANISLAO

1910eko martxoaren 12an Alegian jaioa, gerra hasi zenean, 26 urte zituen. Ofizioz mekanikaria zen eta ezkongabe zegoen. 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui alkate frankistak, tropa frankisten alde borrokatzeko ateratako zerrendan ageri zen. 1936ko irailaren 10ean, nazionalista izateagatik atxilotu eta Tolosako Presondegira Jose Azpeitia Baztarrica, Eugenio Goicoechea Lasa, Juan Bautista Otamendi Otamendi, Juan Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera eraman zuten.

1936ko urriaren 21ean Goicoecheak bere askatasuna lortu zuen. Gerora, frontean zegoela ageri zaigu[486].

## 227. GOICOECHEA LASA, EUGENIO

Gerra hasi zenean 28 urte zituen eta bidezaina zen ofizioz. Haur bat zuen eta ezkonduta zegoen ordurako. 1936ko abuztuaren 16an, Eugenio Jauregui alkate frankistak, tropa frankisten alde borrokatzeko ateratako zerrendan ageri zen. 1936ko irailaren 10ean, nazionalista izateagatik atxilotu eta Tolosako Presondegira Jose Azpeitia Baztarrica, Estanislao Goicoechea Lasa, Juan Bautista

[481] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // Testigantza: Tere Inza Goikoetxea.

[482] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[483] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[484] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[485] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

[486] APPSS. Prisión de Partido de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº1, exp 103. Orden: Gobernador Militar de la Plaza. En concepto de detenido // AHPG-GPAH GEZ 002772/0059 // AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AUA: 482.Kaxa. E. Sekzioa 6. Negoziatua // AUA: 511.Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.

Otamendi Otamendi, Juan Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera eraman zuten. 1936ko urriaren 21ean Goicoecheak bere askatasuna lortu zuen.

1937ko martxoaren 16an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere bidezain postutik kanporatu zuen[487].

## 228. GOICOECHEA LASA, JUAN

Alegiarra jaiotzez, 1940. urtean atxilotu eta Tolosako Presondegian preso sartu zuten. 1940an sartu eta askatasuna ere lortu zuen arren, ez dakigu zehazki zein hilabetetan egon zen bertan[488].

## 229. GOICOECHEA LASA, TEODORO

1915eko abenduaren 7an Alegian jaio zen. Arzabalza fabrikan lan egin zuen papergilea izan zen. 1936ko abuztuaren 16an tropa frankisten alde borrokatzeko Alegiako udal-frankistak atera zuen zerrendan ageri zen. Baina, hau, errepublikazaleekin borrokatzera joana zen, Eusko Gudarosteko Loiola Batailoiarekin, hain zuzen. Haren anaia zen Eugenio Goicoecheak, alkatetzari, berau non zegoen ez zekiela adierazi zion.

Tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, Bilbora egin zuen eta haren ostean, Asturiasera, bertan atxilotu zutelarik. Horren eraginez, Gerra-Kontseilua, Donostiako Plazako 7. Zenbakiko Auzitegi Militarrean egin zioten. Bere deklarazioetan, San Jose Sindikatu Katolikora afiliatuta zegoela adierazi zuen eta ez zegoela beste inongo alderdietara afiliatuta. Horrez gain, Carlos Arrieta apaiza atxilotzera joan izanagatik salatu zuten. Hala eta guztiz ere, Arrieta apaizak eta haren neskame Isabel Insaustik, beren testigantzekin, aurrekoa deuseztatu zuten. 1943ko abuztuan, “sobreseimiento provisional” delakoa ezarri zioten.

1947ko abuztuaren 29an, kartzela eta kontzentrazio-eremu ezberdinetan egon ondoren, Kanbo “Urraldia”-n aurkitzen zen. Han zegoelarik, Coué et Casse, par Seugoangnet-en (Haute Garonne) lan egin zuen[489].

## 230. GOICOECHEA LULUAGA, ANTONIO

1918ko martxoaren 23an Alegian jaio zen eta Aristizabal baserrian nekazaritza lanak burutzen zituen. Gerra hastean, bere bi anaiak (bietako baten izena Miguel Jose) frontean izateagatik, ez zuen borrokatzera joan beharrik izan. Bi arrazoi nagusi izan ziren hura baldintzatu zutenak: bata, familia-oinordekotza mantendu beharra eta bestea, baserriko lurrak lantzeko eta bertatik etekina ateratzeko eskulana behar izatea[490].

## 231. GOICOECHEA LULUAGA, IGNACIO

Gerra hasi zenean, alegiar honek tropa frankistekin borrokatu zuen. 1937ko maiatzaren 30ean Arapiles Mendiko Batailoiko 7. Zenbakiko Boilen 24.Erregimenduan Lemoatx mendian borrokatzen ari zela hil zen. Lemoako hilerrian lurperatu zuten 53.Zenbakiko fosan. Horren berri, bere ama Micaela Luloagari, eskutitz bidez iritsi zitzaion[491].

## 232. GOICOECHEA LULOAGA, JOSE IGNACIO

1914ko urtarrilaren 15ean Alegian jaio zen eta, Aristizabal baserrian nekazari lanak egiten zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, errekrutatua izan zen eta 7.Zenbakiko Arapiles Mendiko Batailoian borrokatu zuen. Borrokan ari zela hil egin zen[492].

## 233. GOICOECHEA LULOAGA, MIGUEL

1916an jaio zen eta nekazaria zen ofizioz. Tropa frankistak Alegiara sartzean, errekrutatua izan zen. Horren eraginez, frontean hil egin zen[493].

## 234. GONZÁLEZ, GREGORIO NICOLAS

Alegiako udal-gobernu frankistak, 1941eko maiatzaren 18an, iheslari deklaratu zuen[494].

## 235. GONZÁLEZ SALAMANCA, MIGUEL

1910eko irailaren 29an Portillon jaio zen, baina papergile gisan lan egiten zuen Alegian. Gerran zehar, “desagertuta” ageri zen. 1931ko kinten deialdikoa zen[495].

---

[487] APPSS. Prisión de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº 1, exp 102. Orden: Gobernador Militar de la Plaza. En concepto de detenido // AHPG-GPAH. GEZ. 002772/0060 // AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[488] APPSS. Prisión de Partido de Tolosa, Expediente Procesal. Caja nº1 (2).

[489] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 482.Kaxa. E. Sekzioa 6. Negoziatua // Sumarisimoa 716/43.

[490] AUA: 483. Kaxa.

[491] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[492] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[493] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[494] AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia.

[495] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.

## 236. GONZALO RODRÍGUEZ, TEODORO

1910eko azaroaren 9an Arcos de Jalonen jaio zen, baina Alegian bizi zen, mekanikari lanak eginez. Gerra garaian, "desagertuta" ageri zen[496].

## 237. GOROSTARZU SARASOLA, LUCIA

48 urteko alegiarra, Gizarte-Erakundeetako kidea eta Sindikatu-Itzultzailea izan zen, UGT-en (Unión General de Trabajadores) afiliatuta. 1936ko urriaren 21ean, Kantabrian aurkitzen zen errefuxiatuta. Behin gerra amaitzean, errepresio frankista jasan behar izan zuen[497].

## 238. GOROSTEGUI MUGICA, AGUSTINA

1936ko abuztuaren 8an, Donostian, bala batek eragindako zauriengatik hil zen. 71 urte zituen[498].

## 239. GOROSTIAGA AGUIRRE, VICTORIANO

Harakina zen ofizioz. Gerra hasi berritan, 39 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deia jaso zuen. Atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe …[499].

## 240. GOROSTIAGA SASIAIN, ESTEBAN

Alegiako mediku dekanoa izan zen. Filiazio tradizionalistakoa, II. Errepublikan zehar zinegotzi lanak bete zituen Alegiako udal-gobernuan. II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933) zehar Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokala izan zen[500].

## 241. GOROSTIDI AGUIRRE, MARTIN JOSE "LA PEQUEÑA"

Orendaingoa jaiotzez, baina Alegian bizi zen. Ideologia tradizionalistakoa, militarrek herriak hauteskundeen bidez demokratikoki aukeratutako II. Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman zutenean, beraien aldeko aldarria egin zuen. Horren eraginez, Alegiako errepublikazaleek, kontrolpean eduki ahal izateko, Zentro Errepublikarrean, egunean bi aldiz sinatzera pasatzera behartu zuten. Behin tropa frankistak Alegian sartu zirenean, lehengo udal-gobernu frankistatik zinegotzi izan zen[501].

## 242. GOROSTIDI ALTUNA, ANTONIO

1899an Alegian jaioa, tropa frankistak txintxarrien herrira sartzean 37 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[502].

## 243. GOROSTIDI ALTUNA, JUAN

1936ko uztailean, Gerra Zibila hastean, Alegian bizi zen eta 1936ko abuztuaren 16an 42 urte zituen. 1936ko azaroaren 7an Oiartzunen fusilatu zuten[503].

## 244. GOROSTIDI ALTUNA, SEBASTIAN

1909ko apirilaren 20an jaio zen. Erlijiosoa zen eta horren eraginez Irunen bizi zen. Erbestea jasan behar izan zuen[504].

## 245. GOROSTIDI GARMENDIA, JOSE

Abaltzisketan jaioa, baina Alegian bizi zen. Gerran zehar, errekete gisan Oriamendi Tertzioarekin borrokatu zuen[505].

## 246. GUERENDIAGA, JOAQUIN

II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933) zehar Alegiako udaltzaingoa izan zen[506].

---

[496] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.
[497] CDMH. Fichero General (Nº fichas: 1) // CDMH. Santander-105 karpeta O seriea 2 liburua 2840 orria // AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia.
[498] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[499] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[500] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // 485. Kaxa // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[501] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[502] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[503] Desaparecidos Forzosos en la CAPV.
[504] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.
[505] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[506] AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua // 421. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 247. GUEZALAGA, VALENTIN

Alegian egondako milizianoa[507].

## 248. GUEZALAGA ILLARRAMENDI, JOSE

Zurgina zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 35 urte zituen. Tropa frankistak txintxarrien herrira sartzean, beraiekin frontera joateko deitu zuten[508].

## 249. GUIJOSA LEGUIA, LUIS

Oriamendi Tertzioko Infanteriako Komandante Nagusia izan zen. 1937ko apirilaren 4an hil zen gerra zauriengatik[509].

## 250. GUIJOSA SARASOLA, FRANCISCO

Donostiarra izatez, Alegian bizi izan zen. 1938ko urtarrilaren 8an tropa frankistekin borrokatzen frontean borrokatzen hil zen. 1938ko ekainaren 8an Donostiako Hilerrian hilobiratu zuten[510].

## 251. GUTIÉRREZ LLORENTE, DAVID

Alegian zituen ondasun higiezinak errekisatu zizkioten[511].

## 252. GURIDI ECHANIZ, LUCAS

1906ko urriaren 17an Azpeitian jaio zen eta jesuita izan zen. Donostian organista zen eta Alegiara erbesteratu zuten.

# H

## 253. HERRERO BARRENO, JOSE

Alegiarra zen eta iturgina ofizioz. Gerra oso gazte zela ezagutu zuen. Tropa frankistek atxilotu eta, Iruñako Probintziako Presondegira eraman zuten. Handik, Madrileko Santa Rita presondegira lekualdatu zuten, 19 urterekin, 1940ko azaroaren 20an iritsi zelarik bertara. Han zegoelarik, Langile Batailoietan ibili beharra izan zuen. 1942ko maiatzaren 7an, bertan hil zen. Santa Rita kartzela, benetan gogorra izan zen preso errepublikarrentzat, bertan frankistek burutzen zituzten tortura eta fusilamenduak oso entzutetsuak ziren[512].

## 254. HUEGUN ECHENAGUCIA, LEON

Zurgin gisa lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 39 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko dei egin zioten[513].

# I

## 255. IBARBIA, MIGUEL

1933ko abuztura arte herriko botikaria izan zen[514].

---

[507] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[508] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[509] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // Polloeko Hilerriko Erregistro Liburua.
[510] Alegiako Udal-Agiritegia.
[511] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6.-aren Negoziatua.
[512] Euskal Memoria Fundazioa // AGMG (Archivo General Militar de Guadalajara) Indizea: 7 Kaxa: 1541. Espedientea: 71778.
[513] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[514] AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.

## 256. IBARROLABURU, FRANCISCA

Alegiako irakasle nazionala izan zen 1932ko apirilaren 30ean jubilatu zen arte. II. Errepublikako lehen aldian, jubilatu baino lehen, Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokal funtzioak bete zituen Alegiako udal-gobernuan[515].

## 257. IBARZABAL GOICOECHEA, ANTONIO

Tropa frankistekin borrokatzen ari zela, frontean hil zen[516].

## 258. IBARZABAL GOICOECHEA, JOSE

1913ko otsailaren 6an Alegian jaio zen eta Chagalde baserrian, nekazari lanak egiten zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten, baina bi anaia zituen jadanik frontean. Bi anaia frontean izanik, baserriko lurrak lantzeko jendea behar zelako eta oinordetza mantendu behar zelako, gerrara joan barik geratu zen.

## 259. IBARZABAL GOICOECHEA, JOSE IGNACIO

Frontean hildako frankisten artean bere izena ageri zaigu[517].

## 260. IBARZABAL GOICOECHEA, JUAN

1911ko urriaren 14an Alegian jaio zen eta Chagalde baserrian nekazari lanak egiten zituen. Gor-mutua zen, baina hala eta guztiz ere, Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[518].

## 261. IBARZABAL OLANO, ANTONIO

Nekazaria ofizioz, gerra hasi zenean 22 urte zituen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Frontean borrokatzen hil zen. Ezin izan dugu zehaztu zein tropekin borrokatu zuen[519].

## 262. IBARZABAL OLANO, BENITO

1919ko martxoaren 26an jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera eraman zuten. Gerraren ostean, tropa frankistekin borrokatzeagatik subsidioa kobratu zuen[520].

## 263. IBARZABAL OLANO, JOSE

1912ko martxoaren 28an Alegian jaio zen eta nekazari lanak egiten zituen Lizarola baserrian. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[521].

## 264. IBARZABAL OLANO, JOSE ANTONIO

1914ko otsailaren 4an jaio zen eta Lizarola baserrian nekazari lanetan jarduten zuen. Gerra iristean, frontean zegoen. Sizilia 1. Zenbakiko Batailoiarekin borrokan jardun zuen[522].

## 265. IBARZABAL OLANO, SEBASTIAN

1916ko urtarrilaren 19an Alegian jaio eta Lizarola baserrian nekazari lanak egiten zituen. Gerra hasi zenean, 20 urterekin, tropa frankistek beraiekin borrokatzera eraman zuten. Hala eta guztiz ere, bere anaia Jose eta Jose Antonio delakoak frontean izateagatik, handik etxera itzultzeko eskaera egin zuen[523].

## 266. IMAZ, JUAN

1942ko ekainera bitartean Alegiako udal-gobernu frankistako idazkaria izan zen[524].

---

[515] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // 421. Kaxa. 2. Zenbakia.
[516] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[517] AUA: AUA: 356.Kaxa. 2. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[518] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[519] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[520] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[521] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[522] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.
[523] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.
[524] AUA: 1941-1947 Aktak. A SEKZIOA 1 Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 267. INCHAUSTI JAUREGUI, EUGENIO

Tradizionalista eta ofizioz merkataria. Tropa frankistak 1936ko abuztuaren 7an Alegian sartu zirenetik, ur-kontatzaile postua lortu zuen. Ordura arte, Jose Artano Altuna izan zen Alegiako ur-kontatzailea, baina udal-gobernu frankistak kanporatu egin zuen. Inchausti, Alegian errekisatu zituzten armen ikuskatzailea ere izan zen[525].

## 268. INCHAUSTI JAUREGUI, FELIPE

F.E.T. eta J.O.N.S.-eko afiliatua. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera deitu zuten. 39 urte zituen eta txintxarrien herriko lehen udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[526].

## 269. INCHAUSTI LARRAÑAGA, RICARDO

1927ko ekainaren 16tik Legorreta, Baliarrain eta Ikaztegietako udaletako idazkaria izan zen, urtean, 5.000 pezetako soldata jasotzen zuelarik. Behin gerra iritsita, bere abertzaletasunaren eta Euzko Etxean (Batzokia) antolatutako eginkizunen jakitun, tropa frankistek, bere postutik kendu zuten. 1933an Legorretako Euzko Etxeko lokala erosteaz arduratu zen Jose Miguel Esnal eta Jose Parabere-rekin batera.

1937ko urtarriletik aurrera, bere Legorretako udal-idazkari postuan, frankistek, Ascensio Garro ezarri zuten. Legorretan, telefonoaren ardura ere bazuen (bere emazte Manuela Arregui Jaureguik betetzen zuen, egiazki), baina kaleratu eta haren ordez, Juan Bautista Insausti ezarri zuten[527].

1941eko uztaila hasieran, berriro ere udal-idazkari izateko aukera iritsi zitzaion, baina oraingoan, Alegiako herrian. Hala eta guztiz ere, ez zion denbora luzez iraungo. Bere postuaren lortzea, Alegiako udal-gobernu frankistak bere kideen artean zuen eztabaidaren emaitza izan baitzen. Horren eraginez, 1941eko uztailaren bukaeran, Inchaustiri idazkari soldata kendu zioten Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren aginduz. Horren arrazoia, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi frankista batzuek, Joaquin Jauregui Lizarribar berriro ere bere idazkari postura itzultzea nahi zutela izan zen. Nolanahi ere, abokatu batek kasua aztertu bitartean, Inchaustik, lanean jarraitu beharra izan zuen, baina soldatarik kobratu gabe. Azkenean, 1941eko azaroaren 1ean, Tolosako Presondegian sartu zuten. 25 egunen buruan, kartzelatik irtetea lortu zuen[528].

## 270. INSAUSTI JAUREGUI, FELIPE

Okina zen lanbidez eta 39 urte zituen gerra hasi berritan. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[529].

## 271. IRAOLA, ANTONIO

Borrokalari frankista ohia izateagatik subsidioa kobratzen zuen[530].

## 272. IRAOLA, BERNARDO

1936ko uztailaren 18an gerra hasi arte EAJ/PNV-ko kidea izan zen. Behin tropa frankistak Alegian sartzetik, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[531].

## 273. IRAOLA, MARTINA

Alegian bizi zen eta bertan, gaur egungo jubilatuen taberna kokatzen den tokian, II. Errepublikan zehar eta ostean, taberna izan zuen bere senarra Eusebio Ugartemendia Olanorekin batera. Gerra hastean, bere senarra Izquierda Republicana-koa izaki, Bilbo aldera, zehazki, Erandiora alde egin zuen bere senideekin. Tropa frankistek, haren senarra, Santanderren atxilotu ostean, Alegiara egin zuen. Behin itzulita, etxe osoa hankaz gora aurkitu zuen. Hain zuzen, tropa frankistek etxea goitik behera miatu eta zenbait lapurreta egin zizkioten[532].

## 274. IRAOLA, ROSARIO

Diktadura frankista garaian, soldaduak Alegian egon bitartean, bere etxean bizitzen izan zituen, beste zenbait alegiarren gisan[533].

[525] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[526] AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia// 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[527] GAO_JDIT_1113 // Legorretako Udal-Agiritegia.
[528] AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 476. Kaxa. 1. Zenbakia // Testigantza: Miren Ixiar Intxausti Arregi.
[529] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[530] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[531] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.
[532] Testigantza: Juan Ugartemendia Iraola.
[533] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 275. IRAOLA ARTOLA, ANTONIO

1911ko azaroaren 17an Alegian jaio eta nekazari lanak egiten zituen Etxetxuri baserrian. Erreketea izaki, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin frontean borrokatzera joan zen[534].

## 276. IRAOLA ARTOLA, BERNARDO

Nekazaria zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 32 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe …[535].

## 277. IRAOLA ARTOLA, MARTIN

Nekazaria izan zen. Gerra hasi zenean, 29 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran zehar, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe …[536].

## 278. IRAOLA IPARRAGUIRRE, ANTONIO

Gerra hasi berritan 32 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[537].

## 279. IRAOLA IPARRAGUIRRE, CLEMENTE

Alegiarra eta ofizinista zen Clemente. Pasaian lan egin zuen eta horren eraginez, bere seme-alabetako bi bertan jaio eta hezi ziren. Estankoa izan zuten gerra baino lehen, baina errekisatu egin zieten behin tropa frankistak Alegiara sartzean. Ideologia ezkertiarrekoa, gerra hastean, Guillermo Torrijos Batailoian borrokatu zuen. Santanderreko Zezen Plazan atxilotuta egon zen. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1942ko otsailaren 7an eginiko epaiketaren ostean, absolbitu egin zuen[538].

## 280. IRAOLA IPARRAGUIRRE, JOSE EUSEBIO

Apaiza zen eta kaperau gisan ibili zen frontean. Horren eraginez, bere iloba Consuelo Iraola Mendiak argitu digunez, frankistek, Maruri-Jatabera (Bizkaia) desherriratu zuten. Geroago, Antiguo (Donostia), Zaragoza (Aragoi), Mataró (Katalunia) zein Hernanin jardun zuen apaiz lanetan. Hernanin, San Juan Bautista elizako parrokoa izan zen. 1977ko uztailetik, Hernaniko udalari eskakizun ezberdinak eginez, bertako hilerrian fusilatutako pertsonei omenaldia egin ahal izateko, panteoia eraikitzeko baimenak eskatu eta, 1978an, haien omenezko elizkizuna egiteaz ere arduratu zen[539].

## 281. IRAOLA MENDIA, ANTONIO

Tropa frankistei ihesi, bere ama Telesfora Mendia Garayalderekin eta Consuelo, Juana eta Tomas anai-arrebekin batera, erbesterako bidea hartu zuen. Bilbon, Gregorio Oquiñena albaitariaren gomendioari esker, Gardoki 1 kaleko jauregian errefuxiatuta egon ziren. Behin tropa frankistak Bilbon sartzean, Santanderrerako bidea egin zuten. Han, aita Clemente Iraola Iparraguirre, Zezen Plazan atxilotuta utzi ostean, Pasaiarako itsasontzia hartu zuten. Pasaiatik, Donostiako Groseko pilotalekura bideratu zituzten eta handik, laster, Alegiara iritsi ziren[540].

## 282. IRAOLA MENDIA, CONSUELO

Tropa frankistei ihesi, bere ama Telesfora Mendia Garayalderekin eta Antonio, Juana eta Tomas anai-arrebekin batera, erbesterako bidea hartu zuen. Bilbon, Gregorio Oquiñena albaitariaren gomendioari esker, Gardoki 1 kaleko jauregian errefuxiatuta egon ziren. Behin tropa frankistak Bilbon sartzean, Santanderrerako bidea egin zuten. Han, aita Clemente Iraola Iparraguirre, Zezen Plazan atxilotuta utzi ostean, Pasaiarako itsasontzia hartu zuten. Pasaiatik, Donostiako Groseko pilotalekura bideratu zituzten eta handik, laster, Alegiara iritsi ziren[541].

## 283. IRAOLA MENDIA, JUANA

Tropa frankistei ihesi, bere ama Telesfora Mendia Garayalderekin eta Antonio, Consuelo eta Tomas anai-arrebekin batera, erbesterako bidea hartu zuen. Bilbon, Gregorio Oquiñena albaitariaren gomendioari esker, Gardoki 1 kaleko jauregian errefuxiatuta egon ziren. Behin tropa frankistak Bilbon sartzean, Santanderrerako bidea egin zuten. Han, aita Clemente Iraola Iparraguirre, Zezen

[534] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[535] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[536] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[537] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[538] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1446 // AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.
[539] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.
[540] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.
[541] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.

Plazan atxilotuta utzi ostean, Pasaiarako itsasontzia hartu zuten. Pasaiatik, Donostiako Groseko pilotalekura bideratu zituzten eta handik, laster, Alegiara iritsi ziren[542].

## 284. IRAOLA MENDIA, TOMAS

Tropa frankistei ihesi, bere ama Telesfora Mendia Garayalderekin eta Antonio, Consuelo eta Juana anai-arrebekin batera, erbesterako bidea hartu zuen. Bilbon, Gregorio Oquiñena albaitariaren gomendioari esker, Gardoki 1 kaleko jauregian errefuxiatuta egon ziren. Behin tropa frankistak Bilbon sartzean, Santanderrerako bidea egin zuten. Han, aita Clemente Iraola Iparraguirre, Zezen Plazan atxilotuta utzi ostean, Pasaiarako itsasontzia hartu zuten. Pasaiatik, Donostiako Groseko pilotalekura bideratu zituzten eta handik, laster, Alegiara iritsi ziren[543].

## 285. IRAOLAGOITIA, JOSE

Alegian egondako milizianoa[544].

## 286. IRASTORZA AGUIRRE, JOSE MARIA

1917ko uztailaren 25ean Alegian jaio zen eta nekazari lanetan jarduten zuen. 1937ko urriaren 18an Alegiako udal-gobernu frankistak, "iheslari" deklaratu zuen[545].

## 287. IRASTORZA AGUIRRE, JUAN

1915eko abenduaren 1ean Alegian jaio zen eta Española papertegian lan egiten zuen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten. Baina ordurako, errepublikazaleekin borrokatzera alde egina zen. Geroago, tropa frankistek preso hartu zuten. Ez dakigu zehazki preso non izan zuten[546].

## 288. IRASTORZA ECHEZARRETA, MICAELA

Gerra garaian, kanoi bala batek zauritu zuen eta horren eraginez, 1936ko irailaren 20an, Donostiako ospitalean aurkitzen zen[547].

## 289. IRASTORZA IGUAIN, FRANCISCO

1909ko abuztuaren 15ean Alegian jaio zen eta, udaltzain eta gidari lanak egiten zituen gerra hasi baino lehen. Gerra hastean, 27 urte zituen eta Izquierda Republicana alderdian afiliatuta zegoen. Tropa frankistak Alegiara sartzear zeudela, Tolosara alde egin zuen. Handik, Bidania, Orio, Zarautz, Zumaia, Bergara, Antzuola, Zumarraga eta azkenik, 1936ko irailaren 18an Besainen tropa frankistek atxilotu zuten.

Handik, Iruñeako Ezkaba mendiko San Cristobal Presondegira eraman zuten. 1936ko urriaren 9an aske utzi, baina urriaren 15ean Zumarragara joan ahal izateko "ibiltzeko baimenaren" *(salvoconducto)* bila joan zenean, berriro ere atxilotu egin zuten.

1936ko azaroaren 8an, Tolosako Barrutiko Presondegian sartu zuten, eta bertan erreketera afiliatu eta frontera joateko baimena eman zieten, berari eta Jose Antonio Lasa Dorronsoro Albizturreko presoari. Lasak, Irastorza, behin frontera iristean, ejertzito errepublikazalera alde egingo zuela esan ziola akusatzen zuen. Irastorzak berriz, biek, behin erreketeekin boluntario joan ostean, ejertzito errepublikazalera pasatuko zirela akordatu zutela adierazi zuen. Azken horregatik, bi presoek, bigarren salaketa jaso zuten. Horren eraginez, 1937ko urriaren 27an, Ondarretako kartzelara lekualdatu zituzten, epaiketa azkarra egin ahal izateko.

Bertan, Irastorza, Fronte Popularrekoa izateaz, propaganda ezketiarra egiteaz, Carlos Arrieta apaiza atxilotu nahi izateaz, Mataderotik kobratutako dirua eraman eta Fronte Popularrari emateaz, kotxe bat konfiskatzeaz… akusatzen zuten beste zenbait gauzen artean. "Adhesión a la rebelión militar" delakoagatik akusatu zuten eta bere defentsa gisan, Artileriako Tenientea zen Juan Artamendi Arluciagak egin zuen. 1937ko urriaren 25ean, sententzia eman zioten: 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten eta horrez gain, Alegiako Mataderotik bildu zituen 500 pezeta itzuli beharko zizkion Alegiako udaletxeari. Handik, Goi Auzitegietara eraman zuten epaiketa, fiskalak, presoak heriotza-zigorrera kondenatu behar zirela uste baitzuen. Lehenengo auzitegiak, Fronte Popularrean parte hartzerik ez zutela izan eta inor ez zutela hil determinatuz, ez zituen heriotza-zigorrera kondenatu. 1938ko urtarrilaren 24an, Valladolideko Goi Auzitegiak, heriotza-zigorra ezarri zien bi auzipetuei. Baina Francok kondena kommutatu egin zien, eta 30 urteko kartzela-zigorra definitiboa ezarri.

Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeak, Irastorzari, Aurrezki Kutxan zuen kartila konfiskatu zion Alegiako udalarekin zuen 500 pezetako zorra ordaintzeko. Gerora, 1944an, kondena 20 urte eta egun batera kommutatu zioten.

---

[542] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.

[543] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.

[544] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[545] AUA: 1936-1941eko Aktak. A. Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa.

[546] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[547] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia A Sekzioa 1. Negoziatua.

Horren eraginez, gogorki jasango zuen diktadura frankistaren errepresioa: Burgoseko Presondegi Zentralean 1938ko azaroaren 24tik aurrera, 1944ko apirila ingurura arte egongo zen bertan[548].

## 290. IRASTORZA IGUAIN, JULIAN

1918ko urtarrilaren 27an Alegian jaio zen eta ezizenez "Txirritanekoa" esaten zioten. Tropa frankistak Alegiara sartzean, udal-gobernu frankistak, haren ama Hilariari bere semea non zegoen galdetu zion. Errepublikazaleekin aurkitzen zen gudari gisan borrokatzen. Tropa frankistek atxilotu eta preso egin zuten. Ez dakigu zehazki preso non egon zen[549].

## 291. IRASTORZA MENDIA, PEDRO

Alegiako kale-garbitzailea izan zen, agintari-frankistek, ideologia ezkertiarra izateagatik, 1937ko urtarrilaren 3an kanporatu zuten arte. Agintari-frankistek, lanpostutik kanporatzeko aitzakia gisan, II. Errepublikan zehar Ceferino Lasa Iraragorrik berari botoa emateaen truke lanpostua lortu izana erabili zuten. Irastorzak, bere lanpostua behin-betiko galdu eta ez zuen diktaduran zehar hura berreskuratzea lortu[550].

## 292. IRAZUSTA, BEATRIZ

Diktadura frankista garaian, soldaduak izan zituen bizitzen bere Alegiako etxean denboraldi batez, beste zenbait txintxarritarrek egin gisan[551].

## 293. IRAZUSTA AGUIRRE, JOSE M.

Gerran tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[552].

## 294. IRAZUSTA ESQUICHABEL, BEATRIZ

Diktadura frankistaren aldeko aldarria erakutsi zuen[553].

## 295. IRAZUSTA GOIBURU, JOSE ANGEL

1918ko apirilaren 4an Alegian jaio zen eta nekazari lanak egiten zituen Osibar baserrian. Gerra hastean, frontera eraman zuten[554].

## 296. IRAZUSTA GOROSTIAGA, JUAN

1919ko abenduaren 3an Alegian jaio zen. 1940ko soldaduska deialdikoa[555].

## 297. IRAZUSTABARRENA ZUBELDIA, JOSE R.

Papertegian lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 38 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[556].

## 298. IRIARTE GARCÍA, JUAN

Alegiarra jaiotzaz, industriala zen. EAJ/PNV-ko afiliatua izanik, Alegiako "Euskalechea" (Batzokia) elkarte politikoko presidentea izan zen. Gerra hastean, 44 urte zituen eta Alegiara tropa frankistak sartzean, haiei lagundu asmoz, dirua igorri zien. Hala eta guztiz ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 2.000 pezetako isuna ezarri zion, 1939ko azaroaren 12an[557].

## 299. IRIZAR ARAMBURU, JUAN BAUTISTA

Gerra hasi zenean, 36 urte zituen eta Alegiako alkate Eugenio Jauregui Lasa frankistak, tropa frankistekin frontera borrokatzera joateko zerrendan ezarri zuen. 1937ko urtarrilaren 13an Jose Maria Erminarekin idatzi zuen eskutitzaren bidez, haien familiarrak Bilbo inguruan zeudela adierazi zuen[558].

---

548 AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002777/0084 // Sumarisimoa 1457/37 // AGA, Justizia Saila, Zigortutakoen Erregistro Zentrala 1938-58 (katalogatu gabeko funtsa).

549 AUA: 483. Kaxa.

550 AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia.

551 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

552 AUA: 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

553 Alegiako Udal-Agiritegia.

554 AUA: 483. Kaxa.

555 AUA: 483. Kaxa.

556 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

557 NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.1,N.141.

558 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 300. IRULEGUI EIZMENDI, MARTIN

Gidari gisan jarduten zuen. Gerra hasi zenean, 36 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[559].

## 301. ITURRIOS AROSTEGUI, HILARIO

1911ko uztailaren 7an Alegian jaio zen, Etxeberri baserrian. Gerra hastean, iheslari deklaratu zuten, ez baitzekiten non zegoen[560].

## 302. ITURRIOS AROSTEGUI, IGNACIO

Nekazaritza lanetan jarduten zuen. Gerra hasi zenean, 37 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[561].

## 303. ITURRIOS AROSTEGUI, MODESTO

1909ko urtarrilaren 12an jaiotako alegiar erlijiosoa, Azkoitian bizi zen eta Doktrina Kristauko Anaia zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, Eugenio Jauregui Lasak, bere tropekin borrokatzeko deitu zuen[562].

## 304. ITURRIOS SEGURA, JOSE ANTONIO

Gidari lanak egiten zituen. Gerra hasi berritan 31 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[563].

## 305. ITURRIOZ, MODESTO

Gerran zehar tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[564].

## 306. ITURRIOZ MURUA, FILOMENA

1870eko irailaren 7an Alegian jaio zen. Merkataria ofizioz, "ultramarinos"-a zuen Bide Berri kaleko "Etxe Berri" eraikinean. Dendaz gain, taberna ere bazuen bertan.

Nazionalista izaki, Alegiara tropa frankistak sartu baino lehen, bere iloba Filomena Gastesi Iturriozekin eta haren seme-alabekin batera Bilborako bidea hartu zuen. Bilbon, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi ostean, tropa frankistak hirira sartu baino lehen, Santanderrerako bidea hartu zuten. Santanderren, Sarastone itsasontzian, Frantziarako bidea hartu zuten. Itzulera gogorra jasan zuen Filomena Iturrioz Muruak. Izan ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1940ko uztailaren 31n epaitu ondoren, diktadura frankistako estatuari 250 pezeta ordaindu behar izan zizkion. Hori gutxi ez balitz, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak, "Bideberrieta" deituriko etxea, errepidearen eta "Echeandia" etxearen artean kokatutakoa kendu zion, tropa frankisten aurkako aldarria egin zuela argudiatuz. Bere dendako giltzak, Imanol Artano Gastesi gerratik etorri zenean lortu zituen. Joaquin Jauregui Lizarribar, Alegiako udal-idazkari frankistak denda ireki zionean, goitik behera hustuta zegoen[565].

## 307. IZAGUIRRE, CATALINA

Etxeko emakumea zen eta II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933) Alegiako udal-gobernuko Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokala izan zen[566].

## 308. IZAGUIRRE ARTOLA, JOSE MANUEL

Gerra hasi zenean 31 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[567].

---

559 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
560 AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua.
561 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
562 AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
563 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
564 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
565 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
566 AUA: 348. Kaxa. 8.Zenbakia.
567 AUA: 482.kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

# J

## 309. JAUREGUI, AGUSTIN

Alegian egondako milizianoa[568].

## 310. JAUREGUI, FERMIN

II. Errepublika iritsi baino lehen Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[569].

## 311. JAUREGUI, ANTONIO MARIA

II. Errepublika ezarri aurretik Alegiako udal-gobernuko epailea izan zen[570].

## 312. JAUREGUI LASA, EUGENIO

Militarrek herriak demokratikoki aukeratu zuen II. Errepublikaren aurkako estatu-kolpea eman zutenean, tradizionalista sutsua izanik, haien alde posizionatu zen. Horren eraginez, alegiar errepublikazaleek, Zentro Errepublikarretik egunean bi aldiz sinatzera behartu zuten bere anaia Juan Bautista Jauregui Lasarekin batera. Tropa frankistak 1936ko abuztuaren 7an Alegiara sartzean, bertako alkatetza karguan ezarri zen, herriak demokratikoki aukeratu zuen udal-gobernua agintaritzatik kenduz. Alegiako errepublikazaleen aurkako errepresioa gauzatu zuen "Junta Local de Información" egiturako kide ere izan zen[571].

## 313. JAUREGUI LASA, JUAN BAUTISTA

Primo de Riveraren diktaduran zehar (1923-1930), azken aldian, Alegiako alkate tradizionalista izan zen. II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933) Alegiako alkate postua eskuratu zuen berriro ere. 1932ko abuztuaren 10ean Sanjurjo jeneralak emandako estatu-kolpea babesteagatik, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere alkatetza postutik kendu zuen. Hasiera batean, Euskal Estatutuaren aldeko hautua egin bazuen ere, EAJ/PNV-k alderdi errepublikazaleekin akordatutako Euskal Estatutuari ezezkoa eman zion, balio tradizionalak ukatzen zituela argudiatuz. 1934ko urtarrilean, Jaureguik bere dimisioa aurkeztu zuen.

Gerra Zibila hasi eta berehala, errepublikazaleek, Juan Bautista Jauregui eta bere anaia Eugenio Jauregui, kontrolpean izan zituzten (altxamenduaren aldeko hautua egin baitzuten), Zentro Errepublikarrera egunean bi aldiz pasa behar zutelarik.

Behin 1936ko abuztuaren 7an, Alegiara, tropa frankistak sartuz geroztik, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko Alegiako buruzagi gisan, txintxarrien herriko errepresio frankistaren aparailuan parte hartu zuen[572]. Zehazki, Alegiako errepublikazaleen aurkako errepresioa gauzatu zuen "Junta Local de Información" egiturako kide ere izan zen.

## 314. JAUREGUI LIZARRIBAR, ANGEL JACINTO MARIA

1911ko urriaren 2an Alegian jaio zen eta merkataria zen ofizioz. Gerra hastean, 25 urte zituen eta "Virgen del Camino de León" delako Tertzioarekin borrokan aritu zen. 1941ean, gerra ostean, denboraldi batez, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[573].

## 315. JAUREGUI LIZARRIBAR, JOAQUIN

1909ko abuztuaren 22an Alegian jaio zen, eta ofizioz merkataria zen. II. Errepublikan zehar, 1934an, Alegiako udal-gobernuko epaile lanak bete zituen. Gerra hastean, errepublikarrek preso egin zuten eta itsasontzi batean preso eduki zuten. Gerran zehar, Donostiara tropa frankistak sartu zirenean sortutako "Oriamendi" Tertzioarekin borrokatu zuen. Diktadura garaian ere postu esanguratsuak bete zituen, hala nola, udaleko idazkari izan eta 1945eko urtarrilaren 28an, F.E.T. eta J.O.N.S.-eko "Medalla de la Vieja Guardia" delakoa aitortzeraino[574].

## 316. JAUREGUI LIZARRIBAR, JUAN

1902an Alegian jaioa, ofizinista lanetan jarduten zuen. Ideologiari dagokionez, tradizionalista zen. II. Errepublikako lehen aldian zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi funtzioak bete zituen, erlijiotasunaren babes irmoa eginez. Lehenengo aldi horretan

568 Guerra Civil-Iñaki Egaña.
569 AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia.
570 Alegiako Udal-Agiritegia.
571 AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
572 AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // 485. Kaxa // 419. Kaxa. 2. Zenbakia.
573 AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
574 AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 483. Kaxa // 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

alkatetza lanak egiteko aukera izan zuen, Juan Bautista Jauregui Lasa alkatea, bere postutik kendu zutenean, Sanjurjoren altxamenduaren ostean haren aldeko posizioa hartzeagatik. 1932an, Alegiako udal-gobernuko zinegotzien hautuaz, bertako diruzain funtzioak bete zituen enkantearen bidez diruzaina ezarri bitartean. II. Errepublikako aldi eskuindarrean (1933-1936ko otsaila) ere, Alegiako alkate izateko aukera izan zuen.

Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran eta diktaduran zehar, frankismoaren aldeko aldarria egin zuen[575].

## 317. JAUREGUI LIZARRIBAR, MANUEL IGNACIO

1906an Alegian jaioa, ofizinista lanetan jarduten zuen. Errekete gisan, "Lacar" Tertzioaren 3. Konpainiarekin gerrara joan zen eta bertan alferez kargu militarra bete zuen. Ez zuen berriro ere txintxarrien soinurik entzungo, 1938ko azaroaren 4an hil baitzen, Sierra Pandolan (Ebroko Frontea), 32 urte zituelarik[576].

# L

## 318. LARRARTE ARAMBURU, JUAN CRUZ

Nekazari gisan lan egiten zuen. Gerra hasi zenean, 32 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatzera joateko deitu zuten[577].

## 319. LARREA LARREA, MIGUEL

1918ko maiatzaren 31n Irunen jaio zen, baina Alegian bizi zen. 1936ko abenduaren 10ean Arabako frontean hil zen eta Gasteizeko Santa Isabeleko hilobian hobiratu zuten. Handik, 1961eko uztailaren 24an, Erorien Haranera lekualdatu zuten[578].

## 320. LASA BURUMENDI, INES ETA JOSEFA

Diktadura frankistaren aldeko aldarria egin zuten[579].

## 321. LASA BURUMENDI, MANUEL

Miguel Angel Oyarzabal Murguiondo Alegiako alkate frankista izan zen bitartean, txintxarrien herriko udal-gobernuko zinegotzia izan zen[580].

## 322. LASA GARMENDIA, MANUEL

Etxeko gizona zen eta II. Errepublikako lehen aldian (1931-1933), Alegiako udal-gobernuan Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokala izan zen. II. Errepublikako bigarren aldian (1931-1933), Lehen Hezkuntzako Kontseiluko lehendakari lanak bete zituen[581].

## 323. LASA IRARAGORRI, CEFERINO[582]

1891ko apirilaren 24an Alegian jaio zen, eta Bigarren Errepublika baino lehen, Abya Yalan[583] lanean aritu zen.

1931ko apirilaren 12an ospatutako hauteskundeak, ustelkeriaren emaitza izan ziren Alegian. Zenbait hautagaiek, beren botoak herritarrei erosi egin zizkieten. Horren aurrean, Tolosako Distrituko Komite Iraultzaileko buru zen Cecilio Iglesiasek, Ceferino Lasa

---

575 AUA: 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

576 AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Alegiako Erregistro Zibila.

577 AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

578 AUA: 483. Kaxa // Santa Isabeleko Hilobiko Lekualdatzeen Erregistro Liburua: 162. Zenbakia // Santa Isabel Hilobiko Erregistro Liburua // Erorien Haranean Hilobiratutakoen datuak: 1188/2009.

579 Alegiako Udal-Agiritegia.

580 AUA: 422. Kaxa. 2. Zenbakia.

581 AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia.

582 AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 485. Kaxa // 511. Kaxa E Sekzioa. 6. Negoziatua // AHPG-GPAH GEZ 002777/0103 // Sumarisimoa 65 // AGA-Justizia. Kod.: 4 (Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia).

583 Gure jendartean Amerika gisan ezagutzen dugun kontinentea litzateke. Gaur egun, bertako zenbait herri, Kuna herria kasu (Panama eta Kolonbia iparraldean kokatuta), Abya Yala izena, gure ahotan ezartzeko aldarria egiten ari dira. Izan ere, Amerika izena, Americo Vespuccio europar kolonizatzailearen eraginez ezarri zioten. Modu horretan, kontinente horrek, oraindik ere Amerika izena mantentzeak, lurralde horrek europar zein mundu mailako beste zenbait botetsuengandik bizi duen kolonizatu egoeraren berri ematen digu. Beraz, Abya Yala izena, bertako zenbait herrik erabilitako kontzeptu gisan, kontinente hori dekolonizatzeko kontzeptu gisan hartu eta erabiltzea dagokigu, europarrek bertako konkista hasi baino lehen hango zenbait herrik beraien lurraldea izendatzeko erabilitako kontzeptua baitugu. Abya Yala-k, "lur heldua", "lur bizia" edo "loratzen ari den lurra" esan nahi du.

Iraragorri Alegiako alkate izendatu zuen. Ceferino Lasa Iraragorri, katoliko independente gisan aurkeztu zen aipatutako hauteskundeetara. Laster, ustelkeria kasuei irtenbidea eman asmoz, urte bereko maiatzean, hauteskundeak ospatu ziren Alegian, ustelkeria jasan zuten gainontzeko herrietan gisan. Emaitza, Lasa, alkatetza postutik zinegotzi postura jaistea izan zen, Juan Bautista Jauregui Lasa Alegiako alkate izendatu zutelarik. Hala eta guztiz ere, 1932ko Sanjurjadaren ostean, Jaureguik altxamenduaren aurkako aldarririk ez egin ostean, eta, Bigarren Errepublikako gobernuaren aldeko aldarririk ez egiteagatik, Ceferino Lasa Iraragorrik berriro ere alkatetza postua lortu zuen. 1936ko otsailaren 9an, otsaileko hauteskundeak ospatu baino lehen, Ceferino Lasa Iraragorrik bere dimisioa aurkeztu zuen, gaixorik zegoela argudiatuz.

Ceferino Lasa Iraragorrik Alegia laiko eta errepublikazaleago baten aldeko aldarria egin zuen, eta horrek bere ondorioak ekarri zizkion gerra osteko diktadura garaian. Bigarren Errepublikan zehar, ideia horiek bultzatu zituen Zentro Errepublikarra ireki zuen, Olloquiegui udal-idazkariarekin, Moreno Alegiako trenbideetako faktorearekin… batera. Dokumentu frankistetan, gerra hasi eta berehala Donostiara alde egin zuela adierazten da. Tropa frankistak Alegiara sartzean, itzuli egin omen zen eta haiei laguntza gisan 10.000 pezeta eskaini. Esanak esan, urte gogorrak pairatu behar izan zituen bai kartzelan baita kaleko giro errepresiboan ere.

Donostiako Plazako Auzitegi Militarrak epaiketa egin zionean, Bigarren Errepublikan zehar hartutako erabakiengatik zigortu zuen, batik bat, ezker ideologia izateagatik eta udal-gobernuan laikotasuna sartu nahi izanagatik.

1938ko urtarrilaren 22an Tolosako Presondegian preso sartu (lehenagotik ere atxilotuta zegoelako ustea dugu) eta 1938ko apirilaren 9an, Donostiako Probintziako Presondegira (Ondarreta) eraman zuten. 46 urte zituen kartzelara sartzean eta ezkonduta zegoen.

1938ko apirilaren 11n Donostiako Plazan eginiko Gerra-Kontseiluan, urtebeteko kartzela zigorra eta sufragio eskubiderik eza ezarri zioten, frontean hildako Goicoechea errekete alegiarraren heriotzaz poztu egin zela argudiatuz, bere aurkaria izateagatik. Aipatu isekarekin, ejertzitoaren aurkako inongo deliturik ez zuela egin ikustean, maiatzaren 10ean aske utzi zuen Angel Sagaz alferezak. 1938ko ekainaren 8an, berriro ere epaiketa azkarra aplikatu zioten Donostiako Plaza Militarrean, Goi Auzitegi Militarrak, berriro ere kartzela-zigorra ezarriz. Sei urte eta egun batez egon beharko zuen kartzelan “excitación a la rebelión militar” delako delituagatik eta horrez gainera, botere publikoa eskuratzeko eskubidea kendu zioten. Hori gutxi ez balitz, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialari, haren ondasunak konfiskatzeko baimena eman zioten, “egindako kalteak” ordaindu behar baitzituen.

1938ko urriaren 11n berriro ere kartzelan sartu zuten eta han egon beharko zuen 1944ko urtarrilaren 21era arte. *Zigorrak Aztertzeko Batzordeak*, zigorra, 4 urtetara arte jaitsi zion, 1944ko azaroaren 20an.

Horrez gainera, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak, San Juan kalean kokatuta zituen “Lasanea” etxea eta “Erretorre-echezarra”, zeinak baratze bat zuen, konfiskatu zizkion. Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, “Exaltación a la Rebelión Militar” delakoagatik, 5.000 pezetako isuna ordaintzera behartu zuen 1941eko otsailaren 7ko epaiaren bidez.

Kartzelan egon zen bitartean, zenbait gaixotasun pairatu zituen Ceferino Lasa Iraragorrik, bertako kondizio txarren erruz.

## 324. LASA IRARAGORRI, FRANCISCA

Bere ahizpa Isidora eta anaia Ceferinoren batera, gerra hasi baino lehen, Abya Yala-n[584] lanean egon zen. Ezkerreko ideologia izateagatik nabarmentzen zen eta bere ahizparekin batera, Zentro Errepublikarra ezartzeko lokala utzi zien errepublikazaleei. Horren eraginez, 1942ko otsailaren 7an Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, horren guztiaren eraginez, epaitu egin zuen, baina aurkako ezer ezin helegitean, absolbitua egin zuten bere ahizparekin batera[585].

## 325. LASA IRARAGORRI, ISIDORA

Bere ahizpa Francisca eta anaia Ceferinoren batera, gerra hasi baino lehen, Abya Yala-n[586] lanean egon zen. Ezkerreko ideologia izateagatik nabarmentzen zen eta bere ahizparekin batera, Zentro Errepublikarra ezartzeko lokala utzi zien errepublikazaleei. Horren eraginez, 1942ko otsailaren 7an, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak epaitu egin zuen, baina aurkako ezer ezin helegitean, absolbitu egin zuten bere ahizparekin batera[587].

## 326. LASA LASA, MIGUEL

II. Errepublikan zehar, Alegiako udaltzaina izan zen[588].

---

[584] Gure jendartean Amerika gisan ezagutzen dugun kontinentea litzateke. Gaur egun, bertako zenbait herri, Kuna herria kasu (Panama eta Kolonbia iparraldean kokatuta), Abya Yala izena, gure ahotan ezartzeko aldarria egiten ari dira. Izan ere, Amerika izena, Americo Vespuccio europar kolonizatzailearen eraginez ezarri zioten. Modu horretan, kontinente horrek, oraindik ere Amerika izena mantentzeak, lurralde horrek europar zein mundu mailako beste zenbait botetsuengandik bizi duen kolonizatu egoeraren berri ematen digu. Beraz, Abya Yala izena, bertako zenbait herrik erabilitako kontzeptu gisan, kontinente hori dekolonizatzeko kontzeptu gisan hartu eta erabiltzea dagokigu, europarrek bertako konkista hasi baino lehen hango zenbait herrik beraien lurraldea izendatzeko erabilitako kontzeptua baitugu. Abya Yala-k, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.

[585] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1446 // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.51.or.*

[586] Gure jendartean Amerika gisan ezagutzen dugun kontinentea litzateke. Gaur egun, bertako zenbait herri, Kuna herria kasu (Panama eta Kolonbia iparraldean kokatuta), Abya Yala izena, gure ahotan ezartzeko aldarria egiten ari dira. Izan ere, Amerika izena, Americo Vespuccio europar kolonizatzailearen eraginez ezarri zioten. Modu horretan, kontinente horrek, oraindik ere Amerika izena mantentzeak, lurralde horrek europar zein mundu mailako beste zenbait botetsuengandik bizi duen kolonizatu egoeraren berri ematen digu. Beraz, Abya Yala izena, bertako zenbait herrik erabilitako kontzeptu gisan, kontinente hori dekolonizatzeko kontzeptu gisan hartu eta erabiltzea dagokigu, europarrek bertako konkista hasi baino lehen hango zenbait herrik beraien lurraldea izendatzeko erabilitako kontzeptua baitugu. Abya Yala-k, “lur heldua”, “lur bizia” edo “loratzen ari den lurra” esan nahi du.

[587] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1446 // ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.51.or.*

[588] AUA: 421. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 327. LASA UZCUDUN, SEBASTIAN

Nekazaria zen ofizioz. Gerra hasi zenean, 40 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[589].

## 328. LASQUIBAR LARRETA, JULIA

Tolosarra jaiotzez, 1938ko urtarrilaren 13rako 490 espedienteak adierazten duenez, Alegiako agintari frankistek, Olaechea baserria eta haren inguruan kokatzen ziren Amezketa-erretia deituriko lurraldeak bahitu zizkioten, besteak beste. Ziburun (Lapurdi) egon zen erbestean, Tolosako Emakume Abertzale Batzako partaidea izan baitzen[590].

## 329. LAVACA, JOSE

1936ko uztailaren 18an gerra hasi arte EAJ/PNV-ko kidea izan zen. Behin tropa frankistak Alegian sartzetik, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[591].

## 330. LAVACA AIZPURUA, JOSE IGNACIO

1916ko azaroaren 26an Alegian jaio zen eta Arterreka baserrian jarduten zuen nekazaritza lanetan. Hasiera batean, atzeraguardiako errekete gisan ibili zen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, txapel gorri gisan borrokatu zuen erreketeen Oriamendi Tertzioko 2.Konpainian. 1937ko martxoaren 31n, Arrasateko frontean zauritu egin zuten, sabelean hiru tiro jasota. Horren eraginez, Azkoitiako Floreagan aurkitzen zen Ospitale Militarrera eraman zuten eta bertan hil zen, 1937ko apirilaren 1ean[592].

## 331. LAVACA AIZPURUA, JUAN JOSE

1918ko ekainaren 4an Alegian jaio zen eta nekazaritza lanak egiten zituen Arterreka baserrian. Tropa frankistekin frontera joateko deitu zuten arren, ez zen joan. Arrazoi nagusia, bere anaiak Pedro eta Jose Ignacio, tropa frankistekin borrokatzera joanak zirela izan zen. Horren aurrean, baserriko nekazaritza lanetarako ezinbestekoa zen esku pare bat gehiago izatea eta baita, oinordekotza babestea ere, Juan Jose etxean geratuz[593].

## 332. LAVACA AIZPURUA, PEDRO

Tropa frankistekin errekete gisan borrokatzera joan zenean, hil egin zen[594].

## 333. LETAMENDIA ARAMBURU, ANTONIO

1911ko abenduaren 10ean Alegian jaio eta gidaria izan zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, erreketea izaki, beraiekin borrokatzera deitu zutenean, Donostian sortu zen Oriamendi Tertzioan sartu zen. Bertan egin zituen Gerra Zibileko urteak[595].

## 334. LETAMENDIA ARAMBURU, MIGUEL

1913ko maiatzaren 23an Alegian jaio zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraien alde borrokatzeko deitu zuten, baina Madrilen zegoen. 1939an, Gerra-Kontseilua egin ostean, aske utzi zuten. Epaiketa, Tribunal Militar Territorial Tercero delakoak egin zion[596].

## 335. LETAMENDIA ARRILLAGA, MANUEL

Gerra hasi berritan 28 urte zituen eta doitzailea “ajustador” zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten. Loiola Batailoian borrokatu zuen errepublikazaleekin[597].

## 336. LETAMENDIA, SERAPIO

Gerran zehar tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[598].

---

[589] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[590] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // Beren ondasunak desjabetu zizkieten gipuzkoarrak.

[591] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.

[592] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Ficha Nº 638. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 104.

[593] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Ficha Nº 638. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 104.

[594] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[595] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[596] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // ANC (Arxiu Nacional de Catalunya) Nº causa TMT3: 003222.

[597] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AGA-Justizia. Kod.: 4 (Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia).

[598] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

## 337. LETAMENDIA ARRILLAGA, SERAPIO

1917ko azaroaren 14an Alegian jaio zen eta ikaslea zen seminarioan. Errepublikazaleekin joan zen borrokatzera, Bilbon zein Iruñean ibili zen. 1937ko urriaren 17an, Alegiako udal-gobernu frankistak, “iheslari” deklaratu zuen. Tropa frankistek preso hartu zuten. Soldaduen Batailoi Diziplinatzaileetan ibili zen[599].

## 338. LETAMENDIA LASA, JOSE

EAJ/PNV-ra afiliatua, Alegiako Euzko-Echeko (Batzokia) atezaina izan zen. Bigarren Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen, hasiera batean, indar eskuindarrekin afiliatuta lortu zuen postua. Geroago EAJ/PNV-ra afiliatu zen. Gerra hasi zenean, Alegiako alkate izan zen, Bilbon berriro ere Alegiako udal-gobernua osatu zen arte.

Auzitegi Militar frankistek, Gerra-Kontseilua egin zioten, zeinak 1940ko ekainaren 19tik uztailaren 6ra bitartean iraun zuen. Une horretan, Jose Letamendia Lasa, bere Alegiako etxean, preso gisan aurkitzen zen. Gerra hastean, alkate errepublikarra izan eta zenbait arma-kartutxoen konfiskatzeak egitearen ardura ezarri zioten frankistek. Salaketa ezin izan zuten frogatu eta horrenbestez, kasua, “sobreseimiento provisional”[600] gisan geratu zen. 1940ko abuztuaren 30ean, askatasuna lortu zuen.

Errepresio frankistaren jakitun izan zen, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, diktadura frankistako estatuari 2.500 pezeta ordaintzera derrigortu baitzuen. Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Batzorde Probintzialak ere, zenbait ondasun konfiskatu zizkion[601].

## 339. LETAMENDIA LASA, JUAN ANTONIO

Ideologia tradizionalistakoa, II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen. 1936ko uztailean, oraindik ere, berau zinegotzi zegoen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, bere postutik kaleratu zuten[602].

## 340. LEUNDA LULUAGA, JOSE

Alegiarra jaiotzez, gerra hasi zenean 58 urte zituen eta Zizurkilen bizi zen. Nekazaria ofizioz, ezkondua zen eta 5 seme-alaba zituen. 1936ko irailaren 29an, Tolosako Presondegian sartu eta 1936ko urriaren 7an, Gipuzkoako Probintziako Presondegira lekualdatu zuten[603].

## 341. LOINAZ, VICENTE

1933ko otsailetik Alegiako kale-garbitzailea izan zen[604].

## 342. LORENTE NAVARRO, ANTONIO

Duesoko presondegian atxilotu zuten eta 1940ko uztailaren 20an, 12 urte eta egun bateko kondena ezarri zioten tribunal militarrek. Bi urte beranduago, 1942ko irailaren 12an, Duesotik, Santanderreko Vega de Paz kartzelara lekualdatu zuten. Garai hartan, 38 urte zituen eta Rosa Fuentes Martinezekin ezkonduta zegoen[605].

## 343. LÓPEZ DE PARIZA, FRANCISCO JAVIER

Diktadura frankistan zehar, erizain titularraren postua lortu zuen[606].

## 344. LÓPEZ MARTÍNEZ, TOMAS

Barakaldokoa zen jaiotzez, baina Orian bizi zen. Frankistek atxilotu egin zuten lapurretagatik eta, Tolosako Presondegira eraman zuten. Handik, 1941eko irailaren 30ean, Donostiako kartzelara eraman zuten. Bertan hil zen, 1942ko urtarrilaren 21ean[607].

## 345. LLUVIA, ELADIO

Alegian egondako milizianoa[608].

---

599 AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa. // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // AGMG Indizea: 7 Kaxa: 1652 Espedientea: 78589.

600 Kasua modu horretan geratzen zenean, gehienetan Langile Batailoietan gatibu-lanak egitera bidaltzen zituzten epaitutakoak, frankistek, errepublikazale haiek, oraindik ere beraien zigorra ez zutela bete uste baitzuten.

601 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.671 // Sumarisimoa 3460/40.

602 AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia.

603 APPSS. Prisión de Partido de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº 1 // APPSS. Prisión Provincial de San Sebastián. Expediente Procesal. Caja nº3. Concepto detenido. Gobernador Militar de la Plaza // AHPG-GPAH GEZ 002774/0086.

604 AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.

605 PENADOS AGA: 1938-1958.

606 AUA: 476. Kaxa. 1. Zenbakia.

607 Euskal Memoria Fundazioa.

608 Guerra Civil-Iñaki Egaña.

### 346. LULOAGA SARRIEGUI, MARTIN

Papergilea zen eta gerra hasi zenean 28 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zioten[609].

### 347. LUNA MORALES, JOSE

Zaragozakoa zen jaiotzez. Intendentzia marxistari laguntzeagatik preso sartu zuten. Gerra-Kontseilua Donostiako Plazako 8.Epaitegi Militarrean egin ostean, bere arreba Pilar Luna Moralesekin batera, aske utzi zuten[610].

### 348. LUNA MORALES, PILAR

Donostiarra zen jaiotzez, baina Alegian bizi zen. 1937ko azaroaren 17an, 22 urterekin, Tolosako Barrutiko Presondegian preso sartu zuten. Kartzelaratzeko arrazoia, irrati marxistak entzun izana izan zen. Gerra-Kontseilua Donostiako Plazako 8. Epaitegi Militarrean egin eta 1939ko irailaren 2an, bere anaia Jose Luna Moralesekin batera aske utzi zuten[611].

# M

### 349. MAIZ, JOSE MANUEL

Borrokalari frankista ohia izateagatik, subsidioa kobratzen zuen[612].

### 350. MAIZ IBARBIA, JOSE MANUEL

1914ko abuztuaren 26an jaio zen eta papergile gisara jarduten zuen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera deitu zuten. Soldaduska egin zuenean, laguntza-zerbitzuak bete ahal zituela deklaratu bazuten ere, 1937ko irailaren 24an soldadu deklaratu zuten[613].

### 351. MARTÍNEZ, ANTONIO

Tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[614].

### 352. MARTÍNEZ, JOSE

Tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[615].

### 353. MARTÍNEZ ALEGRÍA, MOISÉS

Alegiarra jaiotzez, tornulari lanetan aritzen zen. Gerra hasi zenean, ezkongabea zen eta 39 urte zituen. 1936ko uztailaren 25etik Gipuzkoako Lehergaien (UGT) lehen konpainietan mobilizatua izan zen[616].

### 354. MARTÍNEZ DE BUTRÓN, NICOLAS

Artzain lanetan jarduten zuen. Gurs-eko kontzentrazio-eremuan egon zen preso[617].

### 355. MARTÍNEZ GOICOECHEA, JOSE

1913ko urriaren 23an Alegian jaio zen eta papergile lanak egiten zituen Esperanza fabrikan. Gerra hasi zenean, 22 urte zituen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Frontean aurkitzen zen[618].

---

609 AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa, 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

610 Gerra-Kontseilua: 836/38 // AUA: 557.Kaxa.12.Zenbakia // AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

611 Gerra-Kontseilua: 836/38 // AHPG-GPAH GEZ 002776/0082.

612 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

613 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

614 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

615 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

616 ACDMH. Fichero General (Nº fichas: 6) // CMDH-Gijón-Serie I-Carpeta 71, Folio 168 // CDMH, Fondo Santander, Carpeta 51, Serie O, Folio 158 // CDH, Fondo Santander, Carpeta 37, Serie O, Folio 121 // CDMH-Legajo B-1594, Folio 39 // CDMH, Fondo Santander, Carpeta 23, Serie O, Folio 107 // CDMH-Legajo B-1472, Folio 148 // CDMH-PS Bilbao, caja 81, exp 4, ficha 8 // CDMH-PS, caja 81, exp 4, ficha 7 // EGAÑA, Iñaki (Zuz.): "1936. Gerra Zibila Euskal Herrian". Aralar: Andoain, 2000. VIII-438.

617 CHUECA, J. 2006. *Gurs, el campo vasco.* Txalaparta: Tafalla.

618 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 356. MARTÍNEZ GOICOECHEA, JOSE ANTONIO

1916ko urriaren 9an jaio zen eta nekazari lanak egiten zituen Basurka baserrian. Kintek, frontean aurkitzen dela adierazten digute[619].

## 357. MARTÍNEZ GOICOECHEA, MARIA

1945eko urriaren 22ko Alegiako udalbatzan argitzen denez, bere bi alaben, Maria Dolores eta Magdalena Urcelay Martinezen tutela kendu zioten. Horren ostean, bi gaztetxoak Tolosako Asiloan edo Errukietxean sartu zituzten, ideologia frankistan hezteko asmoz. Bere senarra, Angel Urcelay Ayestaran, Alegiako Fronte Popularreko Komite Iraultzaileko presidentea izan zena zen[620].

## 358. MARTÍNEZ GOROSTARZU, LUIS

Nekazari alegiarra zen eta 11 urte zituen gerra hasi zenean. Populazioak gerraren ostean pairatzen zuen egoera kaskarraren erakusgarri, lapurreta egiteagatik preso sartu zuten urtebete eta sei hilabeteko kondenarekin. Hasieran Tolosako Guardia Zibilen kuartelean izan bazuten ere, geroago, Donostiako presondegia (1950-03-22), Logroñokoa (1950-06-12) … ezagutu zituen, besteak beste. Kondena betetzean, libre geratu zen[621].

## 359. MARTÍNEZ LASA, PEDRO

II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[622].

## 360. MARTÍNEZ LOINAZ, CORNELIO

1917ko ekainaren 1ean Alegian jaio zen. Alegiako udal-frankistak, “iheslari” deklaratu zuen[623].

## 361. MARTÍNEZ LOINAZ, PEDRO

1915eko urtarrilaren 18an Alegian jaio zen. 1937ko urriaren 18an, Alegiako udal-gobernu frankistak “iheslari” deklaratu zuen[624]

## 362. MARTÍNEZ PARADA, FIDEL

II. Errepublikan zehar, 1933an, udal-idazkari funtziotan eta Lehen Hezkuntzako Kontseiluko bokal funtziotan aritu zen[625].

## 363. MARTÍNEZ ZABALA, IGNACIO

1918ko urriaren 12an Alegian jaio zen. Alegiako udal-frankistak iheslari gisan deklaratu zuen. 1931ko abuztuaren 3tik Argentinan lanean zegoen[626].

## 364. MATEOS CALVO, RAMON

Alegiako udal-gobernu frankistak, 1941eko maiatzaren 18an, iheslari deklaratu zuen[627].

## 365. MEDRANO, SERAPIO

1938ko abenduaren 21ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Alegia, Orendain, Altzo, Amezketa eta Abaltzisketak osatzen zuten barrutiko albaitari-inspektore izendatu zuen[628].

## 366. MEDRANO UGARTE, JUAN

1915eko uztailaren 28an Alegian jaio zen. Alegiako udal-gobernu frankistak, “iheslari” deklaratu zuen[629].

## 367. MEJINO, ENRIQUE

Alegian egondako milizianoa[630].

---

619 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
620 AUA: 1941-1947 Aktak A Sekzioa 1 Negoziatua. 422. Kaxa 2. Zenbakia.
621 Euskal Memoria Fundazioa // PENADOS AGA: 1938-1958.
622 AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 485. Kaxa.
623 AUA: 483. Kaxa.
624 AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
625 AUA: 38. Kaxa. 1. Zenbakia.
626 AUA: 483. Kaxa.
627 AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia.
628 AUA: 476. Kaxa. 1. Zenbakia.
629 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
630 Guerra Civil-Iñaki Egaña.

## 368. MENDIA GARAYALDE, MIGUEL

1910ean jaioa, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Hala eta guztiz ere, gerran zehar, Eusko Gudarostearekin, kabo postua bete zuen. Gerran zehar, Matxitxakon ihesaldian ibili zen, beste gudari batzuekin batera. Tropa frankistek preso hartzean, Cordobako Palma del Rio-n egon zen. 1949an, Alegiako kale-garbitzaile postua lortu zuen[631].

## 369. MENDIA GARAYALDE, TELESFORA

Gerran zehar ihesaldiari ekin beharra izan zuen, haren senarra zein anaia, biak errepublikazaleekin gerran borrokatzen ari baitziren, beste zenbait gauzen artean. Gregorio Oquiñena Alegiako albaitariaren gomendioz, bere lau seme-alaba Consuelo, Juanita, Tomas eta Antoniorekin batera, Bilboko jesuitetara joan zen laguntza eske. Han, frankistek bonbez behin eta berriz erasotako Bilboko hirian, Gardoki 1 kaleko jauregian babestuko aukera izan zuten. Tropa frankistak Bilbora iritsi baino lehen, Santanderrera abiatu ziren. Bertan Pasaiarako bidea hartu zuten. Pasaian itsasontzitik jaitsi eta Donostiako Groseko pilotalekura lekualdatu zituzten. Handik denbora batera, bost senideak, Alegiara itzuli ziren[632].

## 370. MIRANDA FURUNDARENA, TOMAS

19 urte zituelarik, lapurretagatik atxilotu zuten eta Donostiako Presondegian sartu zuten. Bi urte eta 4 hilabete eta egun bateko kartzela-zigorra bete behar izan zuen, besteak beste, Burgoseko Presondegian egon zelarik[633].

## 371. MONTOYA ARIZMENDI, MARIA ANGELES

Alegian jaioa, bertako katekista izan zen. Ordura arte ez bezala, doktrina, alegiar haurrei euskaraz irakatsi zien Montoyatarren San Juan Kaleko etxe esanguratsuan. Nazionalista izaki, gerra garaian, erbestera joan zen bere anaia Pio Montoya Arizmendirekin. Bien bitartean, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeak, beraren eta anaiaren izenean zituzten zenbait ondasun konfiskatu zizkion[634].

## 372. MONTOYA ARIZMENDI, PIO

Alegian jaioa, Gasteizen egin zituen bere apaiz ikasketak eta, 1927rako, apaiz izendatu zuten. Bere ikasketak, Comillaseko Unibertsitate Pontifizean ere egin zituen. Han, Jose Ariztimuño "Aitzol" apaiz tolosar eta nazionalistaren lagun handia egin zen. Azken honekin eta beste zenbait euskaltzalerekin bat eginik, euskal kulturaren garrantziaz eta hura babesteko zegoen beharraz ohartu zen.

Hari horretatik abiatuta, Montoyak, Jose Ariztimuñok "Aitzol" izenpean argitaratu zuen El Día aldizkaria finantzatu zuen. II. Errepublika garaian, oso ohikoa zen, Montoya, Aitzol, Leizaola, Telesforo Monzon … Altzo aldean berriketaldi luzeak egiten ikustea.

Horrezaz gain, Alegiako San Juan etxean, musika ikasketak emateaz arduratzen zen, bere arreba Maria Angelesek, katekesia eman bitartean. Alegiako koruko zuzendaria ere izan zen.

Behin gerra hasita, euskal kleroaren gehiengoak egin gisan, erbestera alde egin zuen bere arreba Maria Angelesekin batera. Lehendabizi, Belloch-eko monasterioan pasa zuen denboraldi bat. Gerora, Kanbora lekualdatu zen eta bertan, Mateo Mugica Gasteizko apezpikuarekin 5 urte pasa zituen. Bitartean, Parisen, 1938an, Ingalaterra, Belgika eta Frantzian erbesteratuta zegoen euskal kleroa komunikatzeko asmoz, "Anayak" aldizkaria sortzen lagundu zuen.

Horren guztiaren eraginez, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeak, Alegian zituzten ondasunak errekisatu zizkien Montoya-Arizmendi anai-arrebei. 1947rako itzulia zen erbestetik eta, bere lagun Mateo Mugicaren aberriratzea lortu zuen[635].

## 373. MONTOYA BARANDIARAN, FELIX

Lizarrakoa jaiotzez, Alegiako medikua izan zen II. Errepublika iritsi baino lehen. Oso maitea izan zen alegiarren artean, beti jendeari laguntzeko prest agertu baitzen. Maria Angeles eta Pio Montoya Arizmendiren aita izan zen. Bere semea zen Piok, berau 1927an hiltzean, bere lehen meza eman zuen[636].

## 374. MORENO GALILEA, JUAN BAUTISTA

1893ko abuztuaren 29an Calahorran (Errioxa) jaio, baina Alegian bizi zen, bertako tren-estazioko faktorea izanik. Ezkonduta zegoen eta bi haur zituen, Esther eta Jose Luis[637] deiturikoak. Alegiako Izquierda Republicana-ko buruzagia izateaz gain, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko nagusia izan zen. II. Errepublikan zehar, ideia horiek bultzatu zituen Zentro Errepublikarra ireki zuen, Olloquiegui udal-idazkariarekin, Ceferino Lasa Iraragorri alkate errepublikazalearekin … batera.

---

[631] AUA: 361. Kaxa. 8. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.

[632] Testigantza: Consuelo Iraola Mendia.

[633] Euskal Memoria Fundazioa.

[634] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[635] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // Gomá Artxiboa. Kod.: 11 (Errepresaliatutako klero gipuzkoarra).

[636] OYARZABAL, A. 1983. Alegia: dos siglos de su historia 1786-1986. A. Beneditarrak-Lazkao: Gipuzkoa. 56-58.orr.

[637] Ahozko testiguetako batek, berau jesuita izendatu zutela adierazi digu.

Izquierda Republicana-ko batailoietan miliziano gisan jardun zuen, baina tropa frankistak Santanderren atxilotu egin zuten. 1937ko irailaren 29an, heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Bere heriotzera arte, Santanderreko Probintziako Presondegian atxilotuta izan zuten. 1937ko abenduaren 18an fusilatu eta Ciriego-ko (Kantabria) hilerrian hilobiratu zuten.

Hilda egonagatik ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, Izquierda Republicana-n afiliatuta egoteagatik, Alegiako Izquierda Republicana-ko buruzagia izateagatik eta, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko buruzagia izateagatik, 1941eko ekainaren 23an, 1.000 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen[638].

## 375. MUGICA, BALBINO

Alegian egondako milizianoa[639].

## 376. MUGICA AZPEITIA, SABINO

1911ko azaroaren 5ean Alegian jaioa, langilea zen Esperanza fabrikan. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Baina jadanik, errepublikazaleekin borrokatzen ari zen, Azaña-Gipuzkoa batailoian[640].

## 377. MUGICA GARAYALDE, ADRIAN

Papergilea lanbidez, gerra hasi zenean 36 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzen, hauekin borrokatzera joateko zerrendan ezarri zuten. Bere anaia Ignacio Mugica Garayaldek ez zekien non zegoen gerra hasi zenetik.

## 378. MUGICA GARAYALDE, JOSE IGNACIO

Gerra hasi aurretik, Langile Katolikoko Sindikatuko afiliatua zen eta tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Hala ere, ordurako, bere anaia Adrianek adierazi gisan, Jose Ignacio, Alegiatik ihes eginda zebilen.

Frontean miliziano gisan borrokatzen aritu zen, baina 1937ko ekainaren 19an, Okendon tropa frankistei entregatu zen beste bost milizianoarekin batera. Telefono eta kableekin entregatu zen, “lotura eta transmisioen” unitatean ibili baitzen miliziano gisan. Gerra hastean, nazionalista zen eta propaganda eginez ibiltzen zen. Horren eraginez, Bilboko Plazako 12. Auzitegi Militarrak epaitu zuen eta, “C” ataleko preso gisan klasifikatu zuten.

Okendotik, Orduñako kontzentrazio-eremura eraman zuten preso. Handik Gasteizeko kontzentrazio-eremura eta azken horretatik Murgiako kontzentrazio-eremura. Handik, Alegiara itzuli zen. 1937ko abenduaren 1ean, aske geratu zen, bere inguruko bi informe baitzeuden eta haietatik batek “A” atalean sailkatuz askatasuna lortu zuen. 1938ko maiatzaren 28an, “sobreseimiento provisional” delakoa ezarri zioten. Ondorioz, urte bereko abuztuan, Langile Batailoietan ibili beharra izan zuen aipatu tokietan. 1939ko maiatzean, jada Alegian zegoela, berriro ere, auzitegi militarrek erreklamatu egin zuten[641].

## 379. MUGICA GARAYALDE, SERAPIO

Legorretako “Mujuri” baserrikoa. Gerra garaian errepresioa jasan zuen. Apaiz egon zen Alegian[642].

## 380. MUNDUATE, MIGUEL

Gerra garaian tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[643].

## 381. MUNDUATE, PEDRO

Alegiako postaria zen eta mikelete jubilatua. 1937ko maiatzean, haren aurrekari penalen berri jakin nahi izango zuen Tolosako Correos-eko administrariak. Horren aurrean, Alegiako Eugenio Jauregui Lasa alkate frankistak, Pedro Munduate II. Errepublikan zehar tradizionalista zela adierazi zion eta horrenbestez, ez zuela kezkatu beharrik[644].

## 382. MUNDUATE SAGASTUME, ANGELES

Bere ama Isidora eta haren ahizpa, Antonia eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen Angeles.

---

[638] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1036.

[639] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[640] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[641] Sumarisimoa 10186/36.

[642] Testigantza: Miren Ixiar Intxausti Arregi.

[643] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[644] AUA: 421. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Handik, 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbon sartu baino lehen Santanderrera egin behar izan zuten.

Santanderretik, Frantziara eraman zituzten itsasontzia hartu zuten. Denbora batez bertan egon ostean, Alegiara itzuli ziren. Txintxarrien herrian, beste zenbait errepublikazaleen gisara, errepresioa frankista jasan behar izan zuten.

## 383. MUNDUATE SAGASTUME, JOSE ANTONIO

Bere ama Isidora eta haren ahizpa, Antonia eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen Jose Antonio.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Handik, 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbon sartu baino lehen Santanderrera egin behar izan zuten.

Santanderretik, Frantziara eraman zituzten itsasontzia hartu zuten. Denbora batez bertan egon ostean, Alegiara itzuli ziren. Txintxarrien herrian, beste zenbait errepublikazaleen gisara, errepresioa frankista jasan behar izan zuten.

## 384. MUNDUATE SAGASTUME, MARIA TERESA

Bere ama Isidora eta haren ahizpa, Antonia eta Damasa Sagastume Lasarekin, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, erbestera abiatu ziren. Bidean, Gernikako bonbardaketaren tokiko izan zen Maria Teresa.

Handik, laster, Bakiora abiatu ziren, ondoren Galdakaora eta, azkenik, Bilbora iritsi. Han, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. Handik, 1937ko ekainean tropa frankistak Bilbon sartu baino lehen Santanderrera egin behar izan zuten.

Santanderretik, Frantziara eraman zituzten itsasontzia hartu zuten. Denbora batez bertan egon ostean, Alegiara itzuli ziren. Txintxarrien herrian, beste zenbait errepublikazaleen gisara, errepresioa frankista jasan behar izan zuten.

## 385. MUNDUATE URDAMPILLETA, ANGEL

1910eko apirilaren 26an Oñatin jaio zen, baina aita mikeletea zuenez, Alegiara etorri ziren bizitzera. Bertan, Filomena Gastesi Zaldunbererekin ezkondu zen. Papergilea ofizioz, 26 urte zituen gerra hasi zenean. ELA/STV-ko San Andres Bataloilan jardun zuen borrokan. Max Kalamuako (Bizkaia) frontean denbora luzez egon ostean, bere emazte Filomena Gastesiri esker, arrisku gutxiago suposatuko zion lan bat eskuratu zuen: Bilbon, ertzaintzan. Max Kalamuako frontean, Luis semea jaio eta nola hiltzen zen testigu izan zen. Hiriburuan, beste zenbait alegiarrekin batera, Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren.

Tropa frankistak Bilbora sartzean, entregatu ostean, atxilotu egin zuten. Horren eraginez, 1937ko ekainetik 1939ra bitartean Langile Batailoiletan ibili beharra izan zuen Cangas de Narcean, Teruel zein Peñiscolan[645].

## 386. MUNDUATE URDAMPILLETA, ANTONIO

1904an Alegian jaio zen eta iturgin gisan lan egiten zuen. II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuan errepublikar eta nazionalista zein tradizionalisten artean egondako liskarraren ostean, diruzain postua lortu zuen. 1933ko abuztuaren 26tik 1936ko abuztuaren 7ra arte Alegiako udal-gobernuko diruzain izan zen. Hain zuzen, abuztuaren 7an, tropa frankistak Alegiara sartzean, bere postutik kanporatu egin zuten eta haren ordez, frankistek, Francisco Urteaga izendatu zuten diruzain berri gisan. Gerran gudari gisan ibili ostean, tropa frankistek, kartzelaratu egin zuten[646].

## 387. MUNDUATE URDAMPILLETA, JUAN MIGUEL

1918ko urtarrilaren 15ean Alegian jaio zen. Gerra garaian, Leoneko frontean borrokatzen egon zen[647].

## 388. MUNDUATE URDAMPILLETA, MIGUEL

1907an jaioa, papergile lanetan jarduten zuen. II. Errepublikan zehar, Gazte-Alayak elkarteko kide izan zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten. 1941eko irailetik, Alegiako udal-gobernu frankistako zinegotzi izan zen[648].

## 389. MUNITA GONZÁLEZ, GREGORIO

1936ko abuztuaren 17an, Alegiako albaitari izendatu zuten, Gregorio Oquiñena Erro ordura arteko albaitaria kanporatu ostean. Hasiera batean, 1936ko abenduaren 31n, kaleratu nahi izan zuten arren, 1937ko otsailaren 9an, berriro ere haren albaitari postua lortu zuen[649].

---

[645] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Testigantza: Koro Munduate Gastesi: Ahaztuen Oroimena 1936, Markinaldeko Frentea https://ahaztuenoroimena/tag/gastesi/ // AGMG Indizea: 8 Kaxa: 1991 Espedientea: 99797.

[646] AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[647] AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[648] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[649] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia.

### 390. MUÑOA LOINAZ, ESTEBAN

Gidaria zen ofizioz. Gerra hasi berritan 38 urte zituen eta tropa frankisten alde borrokatzera joateko deitu zuten[650].

### 391. MURUA, MARCELINO

Gerran tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[651]

### 392. MURUA MENDIZABAL, MARCELINO

Okin gisan lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 26 urte zituen eta, tropa frankistek, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[652].

## O

### 393. OLANO, JOSE

Tropa frankisten alde borrokatzeagatik subsidioa kobratzen du[653].

### 394. OLANO ARTOLA, ANTONIO

Tropa frankistak Alegiara sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[654].

### 395. OLANO ARTOLA, EDUARDO

1914ko urriaren 13an Alegian jaio zen. 1932an, bere aita Miguel Olano Alegiako udal-gobernuko diruzaina hiltzean, nazionalista eta tradizionalistek, Eduardo bere postuan ezartzea nahi izan zuten. Ahalak eta bi egin arren, azkenean, errepublikazaleen aldeko Antonio Munduate Urdampilleta ezarri zuten Alegiako udal-gobernuko diruzain.

Gerra hasi zenean, Eduardo Olano, Donostiako eskribaua zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten, baina inork ez zekien non aurkitzen zen[655].

### 396. OLANO IBARZABAL, JOSE

1912ko martxoaren 28an jaio zen eta nekazaria zen Lizarola baserrian. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[656].

### 397. OLANO IZAGUIRRE, JOAQUIN

Gudari gisan Eusko Gudarostean borrokatu zuen gerran zehar. Soldadu Batailoi Diziplinatzaileetan ibili zen[657].

### 398. OLANO LULOAGA, JOSE

Nekazaria zen ofizioz. Gerra hastean, 34 urte zituen. Horren eraginez, Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[658].

### 399. OLANO LULUAGA, SEBASTIAN

1909ko urtarrilaren 1ean Alegian jaio zen eta mekanikaria zen ofizioz. Izquierda Republicana-n eta UGT-n (Unión General de Trabajadores) afiliatua egon zen. Horren eraginez, gerra hastean eta Alegiara tropa frankistak sartu aurreko aldian, guardia lanak egin zituen.

[650] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[651] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[652] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[653] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[654] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[655] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[656] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[657] AGMG Indizea: 9 Kaxa: 2051 Espedientea: 103726.
[658] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

Tropa frankistak Alegian sartzerako, Eusko Gudarosteko San Andres Batailoian (ELA-Eusko Langileen Alkartasuna) borrokatzen ibili zen. Behin, tropa frankistek atxilotu zuten unetik eta Gerra-Kontseilua Donostiako Plazako 5.Auzitegian egin ostean, espainiar estatuko kontzentrazio-esparru ezberdinetan egon zen, horien artean, Burgoseko San Pedro de Cardeñan egon zelarik. 1941ean bere askatasuna lortu zuen.

Hala eta guztiz ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko abuztuaren 4an eginiko epaiketaren bidez, diktadura frankistako estatuari, 250 pezeta ordaintzera derrigortu zuen. Frankisten esanetan, espainiar estatuari egindako "kalteen" ordaintza zen Sebastian Olanok isun harekin egin behar zuena[659].

## 400. OLANO ODRIOZOLA, ANTONIO

1915eko martxoaren 5ean Altzon jaioa, nekazari lanak Begiristain baserrian egiten zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerran zehar, frontean aurkitzen zen[660].

## 401. OLANO ODRIOZOLA, JOSE

1912ko ekainaren 19an Altzon jaio zen, baina Begiristain baserrian nekazari lanak egiten zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitua izan zen. Frontean aurkitzen zen[661].

## 402. OLANO ODRIOZOLA, VICTORIANO

1917ko uztailaren 1ean Altzon jaioa, baina Alegian bizi zen. Gerra hastean, 19 urte zituen eta tropa frankistekin borrokatu zuen. Gerraren ostean, tropa frankistekin borrokatu izanagatik, subsidioa kobratu zuen[662].

## 403. OLANO OLLOQUIEGUI, SOFIA

1906ko irailaren 27an Alegian jaio zen. Urte gutxiz bizi izan zen txintxarrien herrian, haren aita kimikari altzotarra hiltzean, amak, haren seme-alabak hartuta, Donostiara lanera egin behar izan baitzuen. Sofia Olanok, eskuetan izugarrizko abilezia zekarren eta lanerako adina izan zuenean, haren trebezia Donostiako aristokraten etxeetan barneratu zen. Donostian bizi ziren aristokrata ospetsuenen sonbrerogile famatu eta gutiziatua bilakatu zen. Miren Begoña Amunarriz Olano bere alabak argitu ahal izan digunez, Parisera lanera joateko eskaintzarik ere egin zioten.

Elite atzerritarren artean lan egin bazuen ere, Alegiako herri txikiko nortasunetik gertu kokatzen zen euskal abertzaletasunaren aldeko aldarria beti oso present izan zuen.

Sofia Olano Olloquieguik bere abertzaletasunaren erakusle, frankistak atzetik zituen gudari bat etxean ezkutatzeko hautua egin zuen. Norbaitek, Sofia Olano Olloquieguik egin zuenaren berri autoritate frankistei eman zien eta horren eraginez, atxilotu egin zuten. Lehenik, gau bat Ondarretako kartzelan pasa zuen eta gainontzeko urteak, Donostiako Prim kalean, emakume zein gizonezkoentzat egokitutako San Jose Ikastetxeko presondegian igaro zituen[663]. San Jose Ikastetxea presondegi gisan erabili zenean, berau, mojek administratzen zuten.

Auzitegi Militar Frankistak, Sofia Olanorekin bat epaitu zituen gainontzeko pertsonak, instituzio frankisten aurkako pertsonak Frantziara pasatzen laguntzeagatik kondenatu zituzten. Guztira bi urte eta erdi egin zituen kartzelan Olanok. Bitartean, haren bi alabek, amona alargunarekin bizi behar izan zuten, Donostian bertan.

Preso zegoela, Burgoseko kontzentrazio-eremura zeramatzaten gudariak, Donostiako tren-estaziotik pasatuko zirelako berria iritsi zitzaion. Haien artean, bere senarra Castor Amunarriz egon zitekeelarik, kartzelatik irteteko baimena eskatu zuen. Eskaera onartu eta senarrarekin biltzeko aukera izan zuen besarkada eta negar-malkoen artean. Sofia Olanok kartzelan bertan, haurrei eskolak ematen jardun zuen.

Kartzelatik irten ostean, lanaren arloan birmoldaketa jasan zuen. Gerra Zibilaren ostean, emakumeek, kapelak erabiltzeari utzi zieten. Baina Olanok, bere alabak hezi ahal izateko ezinbestekoa zuen lana egitea. Horren irtenbidea, umeentzako kapelak egiten hastea izan zen[664].

## 404. OLAÑETA GAZTAÑAGA, SEGUNDO

Gerra hasi berritan 39 urte zituen eta mikeletea zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. 1936ko azaroaren 26an, bere kargutik kendu zuten. Gerra garaian, Galdakaoko dinamita fabrikan egon zen[665].

---

[659] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1135 // Sumarisimoa 1714/38.
[660] AUA: 452. Kaxa. 1. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[661] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[662] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[663]Testigantza: Mikel Legorburu Arzamendik egina. Valen Tardón.
[664] Testigantza: Miren Begoña Amunarriz Olano.
[665] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 160/37.

## 405. OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, CELESTINO[666]

Alegiako udaleko idazkaria izan zen 1918ko urtarrilaren 1etik, 1936ko abuztuaren 7an, tropa frankistak Alegian sartu zirenean kargugabetu zuten arte. II. Errepublikan zehar, ideia errepublikarrak bultzatu zituen Zentro Errepublikarra ireki zuen, Ceferino Lasa Iraragorri alkate errepublikazalearekin, Moreno Alegiako trenbideetako faktorearekin… batera. Eugenio Jauregui alkate frankistak, 1936ko abenduaren 6an, espedientea ireki zion, udaletxetik idazteko makina, ingresuen liburua hartu eta 675,80 pezeta falta zirela adieraziz. Kargugabetzearen arrazoi nagusia, frankistentzat, errepublikar erradikala izatearen aitzakia izan zen. Horrez gainera, Carrere zinegotziak, hari eta haren emazteari, tradizionalistak izateagatik, Olloquieguik azken hauteskundeetan botoa ematea ukatu ziola adierazi zuen. Bere postua berreskuratzeko ahalak eta bi egin zituen, hala udalari eskutitza idatzi nola Valladolideko Estatuko Gobernadore Generalari ere eskutitza idatzi, 1937ko urtarrila-maiatza bitartean. Adierazitako eskutitzetan, tradizionalista eta Unión Patriotako kidea izan zela adierazi zuen; bai eta errepublikarra ere, baina ez nazionalista. Idazteko makina, Altzoko bizilagun batek eraman zuela, ingresuen liburua bulegoan zegoela eta falta zela adierazi zuten dirua kartoizko kaxa batean zegoela adierazi zuen. Hala eta guztiz ere, Valladolideko Estatuko Gobernadore Generalak haren postua ez ziola itzuliko adierazi zion. Handik aurrera, Andres Vazquezek lehendabizi eta Joaquin Jauregui Lizarribarrek haren ostean, bete zuten Alegiako udaleko idazkaritza postua (tartean beste zenbait egon baziren ere). Olloquieguiren ama Josefa Eneterreaga Zabalak semea hil ostean (1940ko urtarrilaren 31n), 1944ko urriaren 3an, 1936-1939 bitarteko bere semearen soldaten ehunekoa eskatu zuen arren, ez zuen baiezkorik lortu. Hala eta guztiz ere, Alegiako udalak, 1945eko apirilean, Josefa Eneterreaga Zabalari, egunero 3 pezeta emango zizkiola adostu zuen.

## 406. OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, JOSE MARIA

1902ko apirilaren 15ean jaioa, ile-apaintzailea zen lanbidez. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Gerra-Kontseilua izan zuen, zeina 1938ko irailaren 20an hasi eta 1939ko urtarrilean amaitu zioten, Donostiako Plazako 13.Epaitegi Militarrean. Bitartean, Tolosako Presondegian atxilotuta egon zen. Ondoren, seguruenik, Ondarretako presondegira edo Langileen Batailoietara eraman zuten. Izan ere, “sobreseimiento provisional” delakoaz epaitzen zituztenean, beraien zigorra ez zutela bete uste zutelarik, frankistek, presoak, Langileen Batailoietara eramaten zituzten[667].

## 407. OQUIÑENA ERRO, GREGORIO

Alegiako mankomunitateko albaitaria izan zen eta 1936ko abuztuaren 7an udal-gobernu frankistak kargutik kanporatu zuen. 1917ko urtarrilaren 1etik Alegiako mankomunitateko albaitaria izan zen. 1923ko irailetik 1924ko apirilera Alegiako alkate ere bai. Eskuineko alderdiekin aurkeztu zen II. Errepublikako lehen hauteskundeetan, 1931n Alegiako hauteskundeetan eskuinak irabaziz. Alegiako eskuindarren zentroko presidentea izan zen 1931-1933 bitartean, dimisioa aurkeztu zuen, zentrotik karlistek irten eta nazionalistak baino ez baitziren geratu. 1936ko abuztuaren 1ean bere etxetik gertu, abiazio bonba bat erori zen eta Getariara joan beharra izan zuen bizitzera. 1937an Venezuelara joan zen Nekazaritza eta Hazkuntzako Ministerioak kontratatuta, bere familia Frantzian utziz. 1948an Donostiara itzuli zen, bere familiarekin berriro ere bilduz. 1951ko urtarrilaren 11n, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1.000 pezetako multa ordaintzera derrigortu zuen II. Errepublikan egindako jarduera politikoengatik. EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen. Horrez gainera, zenbait ondasun kosfiskatu zizkioten: Villa Pilar delako etxea (Alegia), Jauregui-Celayetako lursail zatia (Alegia), lursail partzela trapezoidea (Alegia) eta Villa Vicenta delakoa San Juan kalean (Alegia)[668].

## 408. OQUIÑENA MORALES, MARIA

Frantzian erbesteratu zen eta ezkongabea zen[669].

## 409. ORTIZ, JESUS

Alegian egondako milizianoa[670].

## 410. ORTIZ MARTIN, ANTONIO

Alegiarra izatez, Tolosan bizi zen eta bertan ile-apaintzailea zen. 17 urte zituen gerrara gudari gisan joan zenean. Gudari gisan borrokatzen jardun zuen, tropa frankistek preso hartu zuten arte. Horren eraginez, kontzentrazio-eremu ezberdinetan, frankismoaren errepresio mardulak jasango zituen: Miranda de Ebro -Burgos-, Santanderreko Zezenketa Plazan (1937/08/26-1937/09/01), Santoña -Kantabria- (1937/09/01-1937/09/28) eta azkenik, Burgoseko San Pedro de Cardeñan (1937/09/28-1939/04/29) bitartean egon zen[671].

---

[666] AUA: A Sekzioa 1. Negoziatua. 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 483. Kaxa // 485. Kaxa.

[667] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 872/2605.

[668] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 454. Kaxa. 1. Zenbakia // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.778 // Iñaki Egaña. Beren ondasunak desjabetu zizkieten gipuzkoarrak.

[669] Sabino Arana Fundazioa-Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia.

[670] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[671] AMT. 2392; 1940. Errekluten klasifikazioa. 3. Zenbakia. 1940ko kinta (Tolosa, 1940ko martxoaren 28a) // AGMG, 2082 Kaxa // AMT. Alkatetzako irteeraren erregistroa: 1888 zenbakia, 1940/09/11; AMT 2000.

## 411. ORTIZ MARTÍN/EZ, ANTONIO

1919ko ekainaren 5ean jaio zen eta La Esperanza fabrikan lan egiten zuen. 1938an Burgoseko San Pedro de Cardeñako kontzentrazio-eremuan zegoen[672].

## 412. ORTIZ ZABALA, TIMOTEO

1913ko abenduaren 19an Hondarribian jaio zen, baina Begiristain baserrian nekazari lanetan jarduten zuen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Kinten oharretan, inkorporatu egin zela adierazten zaigu[673].

## 413. OTAMENDI, JOSE

Tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[674].

## 414. OTAMENDI OTAMENDI, JUAN BAUTISTA

Alegiarra jaiotzez, 47 urte zituen gerra hasi zenean eta nekazaria zen ofizioz. Ezkondua zen eta, bere emaztea eta 8 seme-alabekin Alegiako Ola baserrian bizi zen. 1936ko irailaren 10ean, atxilotu egin zuten eta Tolosako Presondegira Jose Azpeitia Baztarrica, Estanislao Goicoechea Lasa, Eugenio Goicoechea Lasa, Juan Azpeitia Bastarrica, Miguel Jose Errondosoro, Sabino Artola eta Jose Murguiondo alegiarrekin batera eraman zuten. Otamendik, 1936ko urriaren 21ean bere askatasuna lortu zuen. Hori gutxi ez eta, Gipuzkoako Ondasunak Konfiskatzeko Probintziako Batzordeak, “Simon Basoa” deituriko lursaila eta “Arterreca” deituriko belardia konfiskatu zizkion. Bien bitartean, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiek, 250 pezetako isuna ezarri zion, Euzko Nekazari Vascuña-ko partaidea izateagatik. Hala eta guztiz ere, aipatu auzitegiak, isun txikia ezarri zion, hain zuzen, tropa frankistak sartu zirenean, hauei laguntza eman ziela argudiatuz, guardia lanak eginez[675].

## 415. OTAMENDI OYARZABAL, JUAN BAUTISTA

Tropa frankistekin frontera borrokatzera joan ostean, hil egin zen[676].

## 416. OTAMENDI ZABALA, JOSE JOAQUIN

1915eko uztailaren 23an Alegian jaio zen eta Ola baserrian nekazaritza jardunak betetzen zituen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[677].

## 417. OTAMENDI ZABALA, JOSE MARIA

1917ko martxoaren 17an Alegian jaio zen. Gerra hastean, seminarioko ikaslea izateagatik, prorroga jaso zuen. 1942an, prorroga kendu egin zioten[678].

## 418. OTAÑO MUGICA, FELIPE

Calahorrakoa jatorriz, Alegian bizi zen. Eusko Gudarosteko Loiola konpainian borrokatu zuen. Otxandianoko frontean borrokan ari zela, bala bat lepotik sartu eta bizkarretik irten ostean, larriki zaurituta egon zen denbora batez, gero sendatu zen arren. Santoñan, Jose Alfredo Arrayet Endeiza, Juan Irastorza, Lavaca, Alberto eta Pedro Gastañaga Jauregui anaiekin eta Ganzarain alegiarrekin batera preso hartu zuten[679].

## 419. OTAÑO MUGICA, JOAQUIN

1908ko abuztuaren 16an Alegian jaio eta papergilea zen ofizioz. Gerra hasterako, ezkonduta zegoen eta bi seme-alaba zituen. Sozialista zen (dokumentu frankistek emandako izendapena) eta Alegiako Fronte Popularreko Komite Iraultzaileko kidea izan zen. Bigarren Errepublika garaian, Zentro Errepublikarrean ibiltzen zen. Deklarazioetan berak adierazi zuenez, Alegiako Langile Katolikoen Sindikatuko presidentea izan zen. 1936ko abuztuaren 7an Alegiara tropa frankistak sartzean atxilotu eta Tolosako Presondegian izan zuten preso.

---

672 AUA: 483. Kaxa.

673 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

674 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

675 AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // APPSS. Prisión de Partido de Tolosa. Expediente Procesal. Caja nº2. Juzgado: Gobernador Militar de la Plaza. Concepto: Detenido // AGA-Justicia. Cod.: 4 (Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas) // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1173 // AHPG-GPAH GEZ 002773/0115.

676 AUA: 1941-1947 Aktak. A SEKZIOA 1 Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia.

677 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

678 AUA: 483. Kaxa.

679 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

1936ko abenduaren 17tik, 5 egunez, bakartuta edo inkomunikatuta izan zuten. 1937ko urtarrilaren 18an, Alegiako Falangisten eskuetan utzi zuten eta Falangean afiliatzearen trukean, bere askatasuna lortu zuen. Horren ostean, Falangearen miliziekin, lehenik Donostiara eta ondoren, Irunera lekualdatu zuten.

1938ko maiatzean, Irungo muga zaintzeko ardura bete bitartean, berriro ere atxilotu eta Irungo F.E.T. eta J.O.N.S.-eko kuartelean aurkitzen zen bere anaia Miguelekin. Momentu hartan, bere beste bi anaia, Asturiasen preso zeuden.

Horren guztiaren eraginez, 1938ko azaroaren 18an, bere anaia Miguelekin batera Gerra-Kontseilua egin zioten Donostiako Plazako 16.Auzitegi Militarrean. 1938ko udazkenean, epaiketa egiteko, bere anaia Miguelekin batera, Ondarretako kartzelara eraman zuten. Frankistek, Casirimiro Mocoroa apaiza, Gerardo Carrere, Eugenio Jauregui, Juan Bautista Jauregui, Carlos Arrieta apaiza … kolpisten aldekoak atxilotu izana eta haiek Zentro Errepublikarrera egunero bi aldiz sinatzera derrigortu izana leporatzen zieten bi anaiei. Horrez gainera, kolpisten aldekoei kotxe konfiskazioak egitea ere leporatzen zieten. Egiazki, Tolosatik etor zitezkeen eta haiek atxilotu zitzaketen milizianoengandik babesteko bermatu zuten frankisten sinaduren biltzea.

Hasieran, delitu hauengatik guztiengatik, hamabi urte eta egun bateko kartzela-zigorra eskatzen bazieten ere, azkenean, urtebete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zieten eta kargu publikoak betetzeko aukerak kendu zizkieten bi anaiei. Horrez gainera, zigorra, beraien ondasunekin ere ordaindu behar izan zuten.

1939ko maiatzaren 12an, aske geratu ziren bi anaiak, epaiketan zehar egindako kartzela egonaldiak, kartzelatik irtetea erraztu zietelarik[680].

## 420. OTAÑO MUGICA, JOSE

Lanbidez papergilea zen Arzabalza fabrikan eta 32 urte zituen gerra hastean. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin gerrara joateko deitu zuten. 1929tik Izquierda Republicana-n afiliatuta zegoen. Horren eraginez, gerra hastean, 1936ko azaroan Guillermo Torrijos 14 Batailoian izena eman eta, Tolosa, Donostia, Zumaia zein Bilbon borrokan ibili zen. 1937ko uztailean, kabo izendatu zuten. Hilabete eskasera, abuztuaren 26an, tropa frankistek Limpiasen (Kantabria) atxilotu zuten.

Aranda de Dueroko kontzentrazio-eremuan preso egon zen, 1937ko urriaren 31n aske utzi zuten arte, herriko Junta Local de Información-aren informeek bere aurkako ezer esaten ez zutelako. Hiru hilabeteetara, Guardia Zibilak, Burgoseko epaitegira deklaratzera joan behar zuela adierazi zion. Baina bere aurkako ezer ez zegoela eta, Guardia Zibilak aske utzi beharra izan zuen. Bigarren aldiz ere, Guardia Zibilak Burgosera joateko deitu zion. Epaitegietan ez zen beraren aurkako ezer agertzen, baina bigarren aldiz aurkeztu zenez, Burgoseko Probintziako Presondegian atxilotu zuten.

1938ko abenduaren 30ean, Valdenoceda-ko Presondegi Zentralean atxilotuta aurkitzen zen eta bertatik aske uzteko eskaera egin zuen, bere portaera onagatik.

1939ko urriaren 17an, Ondarretako Presondegira lekualdatu zuten, Gerra-Kontseilua efikazia handiagoarekin egin ahal izateko. Bertan, aldeko zein kontrako informeak izan zituen. Aldekoen artean, Juan Bautista Jauregui Lasa eta Jose Garmendia Ugartemendia frankistak, gerra hasi eta milizianoak herrian zebiltzala, testiguak babestu egin zituela adierazten zuen. Kontrako informeak, Bigarren Errepublika garaian propagandista sutsua izan zela, gerra hastean Tolosan armekin ibili zela eta Donostian diputazioko kargu bat ere bete zuela adierazten zuen. Azken hau ez zuela bete frogatu egin zuten. Hasiera batean, Arzabalza fabrikako jabeak Donostian fusilatu ondoren fabrika bere gain hartzeaz ere kondenatu nahi izan zuten.

Gerra-Kontseiluan, Alegiako Junta Local de Información-eko partaideek hartu zuten parte, haien informeak berresteko. Haietan, Julian Ayestaran herriko parrokoak, Jose Otaño Mugica Bigarren Errepublika garaian elizara ez zela asko joaten adierazi zuen, haren kaltetan.

Alegiako “Junta Local de Información”-eko partaideez gain, beste testigu batzuk ere deklaratu zuten: Jose Ignacio Carrera Lavaca atzeraguardiako erreketea, Jose Garmendia Ugartemendia, Miguel Ayestaran eskuindarra eta Ignacio Mugica Garayalde presoa izan ziren, besteak beste[681].

1939ko abenduaren 22an, Jose Otaño Mugicak behin-behineko askatasuna lortu zuen. 1940ko otsailaren 1ean, behin-betiko askatasuna eman zioten eta hilaren 23an Ondarretako kartzelatik irten zen.

## 421. OTAÑO MUGICA, MIGUEL

1906ko maiatzaren 9an Alegian jaio zen eta papergilea zen ofizioz. Gerra hasterako, ezkonduta zegoen. Bigarren Errepublikan zehar, Izquierda Republicana-ko afiliatua izan zen eta Alegiako Zentro Errepublikarreko bokala, 1936ko otsaileko hauteskundeetan, hauen alde bozkatu zuelarik. Langile Katolikoen Sindikatuko kide ere izan zen. Alegiako udal-gobernuko zinegotzia, 1934ko azarotik 1936ko otsailera bitartean. Ceferino Lasa Iraragorri alkateak, 1936ko otsailaren 9an dimititu ostean, Otaño, alkate ezarri zuten, otsaileko hauteskundeak ospatu bitartean.

1936ko uztailaren amaieran, bere emazte eta seme-alabekin, Ugarteko parrokoaren etxean errefuxiatu zen, abuztuaren 11n, tropa frankistak azken herri horretan sartu ziren arte. Orduan Alegiara itzuli zen eta egunero, Eugenio Jauregui Lasak, kontrolatuta izatearren, udaletxetik pasatzeko deitzen zion. Azkenean, 1936ko abenduaren 17an, atxilotu eta Tolosako Presondegian sartu

[680] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // AHPG-GPAH GEZ 002775/0104 // Sumarisimoa 2672/38.

[681] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Sumarisimoa 2456/39.

zuten. 5 egunez, bakartuta edo inkomunikatuta izan zuten. 1937ko urtarrilaren 18an, Alegiako Falangean afiliatzearen trukean, bere askatasuna eskuratu zuen. Horren ostean, Falangearen miliziekin, lehenengo Donostiara eta 1937ko martxoan, Irunera lekualdatu zuten, Joaquin anaiarekin batera.

1938ko maiatzean, Irungo muga zaintzen ari ziren bitartean, berriro ere atxilotu eta Irungo F.E.T. eta J.O.N.S.-eko kuartelean aurkitzen zen bere anaia Joaquinekin. Gerra-Kontseilua, 1938ko azaroaren 18an hasi zen. 1938ko udazkenean, epaiketa egiteko, Ondarretako kartzelara eraman zuten bere anaia Joaquinekin batera. Frankistek, Casirimiro Mocoroa apaiza, Gerardo Carrere, Eugenio Jauregui, Juan Bautista Jauregui, Carlos Arrieta apaiza … kolpisten aldekoak atxilotu izana eta haiek Zentro Errepublikarrera egunero bi aldiz sinatzera derrigortu izana leporatzen zieten bi anaiei. Egiazki, Tolosatik etor zitezkeen eta frankistak atxilotu zitzaketen milizianoengandik babesteko bermatu zuten sinaduren biltzea. Horrez gainera, kolpisten aldekoei kotxe konfiskazioak egitea ere leporatzen zieten bi anaiei.

Hasieran, hamabi urte eta egun bateko kartzela zigorra eskatzen zieten, “B” atalean klasifikatuta geratuz. Azkenean, urtebeteko kartzela zigorra eta kargu publikoak betetzeko aukerak ekidin zizkieten bi anaiei. Horrez gainera, zigorra, beraien ondasunekin ere ordaindu behar izan zuten.

1939ko maiatzaren 12an, aske geratu ziren bi anaiak, epaiketan zehar urtebete kartzelan pasatu izanagatik[682].

## 422. OTAÑO MUGICA, RICARDO

1913ko apirilaren 3an Alegian jaio zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Bilboko Gardoki 6 txaletean errefuxiatu gisan egon zen[683].

## 423. OTEGUI, SEBASTIAN

Gerra hasi baino lehen, EAJ/PVV-ko kidea izan zen. Behin tropa frankistak Alegian sartu zirenean, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[684].

## 424. OTEGUI IRAZUSTA, SEBASTIAN

1910eko otsailaren 20an Orendainen jaio zen, baina Alegian bizi zen, abarketagile lanak bertan egiten zituelarik. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin gerran borrokatzeko deitu zuten[685].

## 425. OTEGUI OTEGUI, JOSE

1913ko ekainaren 7an Alegian jaio zen eta Galarreta baserrian nekazari lanetan jardun zuen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraien alde borrokatzeko deitu zuten. Horren eraginez, tropa frankistekin borrokatzen hil zen[686].

## 426. OTEGUI OTEGUI, MARTIN

1912ko maiatzaren 24an Alegian jaio zen eta nekazari lanetan jarduten zuen Naparretxeberri baserrian. Tropa frankistak Alegiara sartzean, gerran beraiekin borrokatzeko deitu zuten. Horren eraginez, frontean hil egin zen[687].

## 427. OTERMIN ECEIZA, JUANA

Amezketako papertegian jardun zuen lanean eta handik, neskame lanetan jarduteko, Alegiara etorri zen. Okindegian ere lanean jardun zuen. Han bere senarra Alberto Gastañaga Jauregui ezagutu zuen. Urte batzuetara, Alegiako udaletxean bizitzen jarri eta bertako eginkizunak egiteaz arduratu zen[688].

## 428. OYARVIDE MAIZ, JUAN

Altzo behean jaioa, Alegian bizi zen. Erreketea izaki, gerran zehar, Oriamendi Tertzioarekin borrokatu zuen[689].

## 429. OYARZABAL, JUAN BAUTISTA

1943ko otsailean Alegiako udal-gobernu frankistako gestore izendatu zuten[690].

---

[682] AUA: 391. Kaxa. 2. Zenbakia // 485. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002775/0105 // Sumarisimoa 2672/38.

[683] AUA: 482.Kaxa. E Sekzioa 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[684] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia // 482.Kaxa. E Sekzioa 6. Negoziatua.

[685] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[686] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[687] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[688] Testigantza: Maria Jesus eta Maitane Gaztañaga Otermin.

[689] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[690] AUA: 1941-1947 Aktak. A SEKZIOA 1 Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 430. OYARZABAL GAZTAÑAGA, ANTONIO

1914ko abuztuaren 9an Alegian jaio zen eta Etxarraga baserrian nekazari lanak egiten zituen. Gerran zehar, frontean aurkitzen zen[691].

## 431. OYARZABAL GAZTAÑAGA, JUAN BAUTISTA

Borrokalari golpista ohia izateagatik, subsidioa kobratzen zuen[692].

## 432. OYARZABAL LIZARRALDE, RAFAEL

1939an, Alegiako udaleko administratzaile izendatu zuten[693].

## 433. OYARZABAL MURGUIONDO, ANTONIO

1914ko ekainaren 11n jaio zen eta apaiz ikaslea zen gerra hasi zenean. Bilboko Gardoki 6 kaleko txaletean egon zen beste zenbait alegiarrekin batera, nazionalista baitzen. Kinten arloan, "preso edo frontera borrokatzera?", hau da, agian gero Frantziara joango zela adierazten digu. Frankismoan zehar, bere apaiz postua mantendu zuen[694].

## 434. OYARZABAL MURGUIONDO, MIGUEL ANGEL

1911ko irailaren 28an Alegian jaioa, papergile lanak betetzen zituen Arzabalza fabrikan. Ramonarekin ezkonduta zegoen eta haur bat zuten. Gerra hasi eta berehala, errepublikazaleek, kontrolpean izan zuten, altxamenduaren aldeko aldarria egin baitzuen. Alegiara tropa frankistak sartzean, zinegotzi postua eskuratu zuen. Atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, Oriamendi Tertzioko Bigarren Konpainiarekin aritu zen borrokan. Oriamendi Tertzioan kabo postua bete zuen.

Gerra ostean, 1941ean, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi postua lortu zuen eta 1945ean, alkatetzakoa[695].

## 435. OYARZABAL MURGUIONDO, VENANCIO

Papergilea ofizioz, II. Errepublikako bigarren aldian zehar eta tropa frankistak Alegiara sartzean, udal-gobernuko epaile lanak bete zituen. Gerra hasi bezain laster, Alegiako errepublikazaleek kontrolatu egin zuten, erreketea izaki, altxamenduaren aldeko aldarria egin baitzuen. Gerran zehar atzeraguardiako erreketea izan zen eta ordezko kaboaren postua bete zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Gerra ostean, 1941ean, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi postua lortu zuen[696].

## 436. OYARZABAL OTAMENDI, JUAN BAUTISTA

1919ko azaroaren 1ean Alegian jaio zen. Gerran zehar, tropa frankistekin borrokatu zuen. Horren eraginez, 1938ko irailaren 15ean Ebroko frontean (Katalunia) hil egin zen[697].

# P

## 437. PÉREZ BALSATEGUI, MIGUEL

Jaiotzez Villaverde de Trucios-ekoa zen, baina Alegian metalurgiko gisa bizi zen gerra hasi zenean. Gerran zehar, Eusko Gudarosteko Gipuzkoa Batailoian borrokatu zuen. 1937ko apirilaren 4an Otxandianoko Ospitalean hil zen[698].

## 438. PÉREZ DE ARENAZA PIÑEIRO, JUSTO

1941eko azaroaren 2an , Alegiako udal-idazkari izendatu zuten, Ricardo Inchausti Larrañaga bere postutik kaleratu eta Tolosako Presondegian sartu ostean[699].

---

[691] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
[692] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[693] AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia.
[694] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[695] AUA: AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 482. Kaxa. E sekzioa 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[696] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 452. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[697] AUA: 356. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa.
[698] FAHPV: R.C. Nº 4 de Bilbao // Desagertuen Zerrenda GV.
[699] AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia.

## 439. PÉREZ OÑATE, VICTOR

Gasteiztarra jaiotzez, gidaria zen Alegian. Gerra hasi berritan 34 urte, emaztea eta umea zituen. II. Errepublikan zehar, Alegian, guardia lanak egin zituen. Tropa frankistak Alegiara iristerako, Donostiara alde egin zuen errepublikazaleekin. Behin Donostiara tropa frankistak sartzean, Alegiara itzuli zen. ELA/STV sindikatura afiliatuta zegoen eta horren eraginez, 1936ko azaroaren 17an atxilotu eta Tolosako Presondegian sartu zuten. Hiru egun beranduago, aske utzi zuten. Juan Iriarte Garcíaren esne- eta manteki-la-fabrikan egiten zuen lan eta hark ezinbestekoa zuen bere lana egin ahal izateko. 1938an F.E.T eta J.O.N.S.-eko partaide afiliatu zen, portaera ona erakutsiz. Bere askatasuna, Falangearen esku geratzeagatik lortu zuela ebats genezake.

Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1940ko azaroaren 7an eginiko epaiketaren ostean, diktadura frankistako estatuari 200 pezeta ordaintzera derrigortu zuen[700].

## 440 PLACER, ELOY

Alegian egondako milizianoa[701].

# R

## 441. RECONDO AGUIRRE, PEDRO

F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatuta, tropa frankistak 1936ko abuztuaren 7an sartu zirenetik Alegiako udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen[702].

## 442. RECONDO GARMENDIA, NICOLAS MARIA

1916ko maiatzaren 31n Alegian jaio zen eta Etxarraga baserrian nekazari lanetan jarduten zuen. Tropa frankistekin gerran zela zauritu egin zuten. 1937ko maiatzaren 21ean, Iruñeko Alfonso Carlos Ospitalera eraman zuten. Frankismo garaian, zehazki, 1941eko irailetik aurrera, Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen. Gerran zehar, tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[703].

## 443. ROYO OÑATE (EDO UBEDA), CELESTINO

1910eko otsailaren 25ean Alegian jaio zen eta langile gisan jarduten zuen. Ángela Álvarezekin ezkonduta zegoen eta haur bat zuten. Gerra garaian zehar, “desagertu” gisan ageri zaigu. Hala eta guztiz ere, 1941eko maiatzaren 19an, 100 pezetako isun bat ez ordaintzeagatik, Tolosako Presondegian sartu zuten preso. Handik, egun berean, Ondarretako Presondegira eraman zuten eta bertan ekainaren 2ra arte egon zen[704].

## 444. RUIS RUIS, AURELIO

Papertegian lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 35 urte zituen eta, Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[705].

## 445. RUIS RUIS, LUIS

Zurgin gisan lan egiten zuen. Gerra hasi berritan, 31 urte zituen eta, tropa frankistak txintxarrien herrira sartzean, beraiekin frontera joateko deitu zuten[706].

## 446. RUIZ RUIZ, JOAQUIN

1916ko abuztuaren 16an Legorretan jaio zen, baina Alegian bizi zen gerra hasi zenean. Arcaute y C$^{a}$ fabrikan papergilea izan zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Hala ere, gerran zehar, Eusko Gudarostean borrokatu zuen. 1939ko otsailean, Kataluniako frontetik Argèles-sur-Mer-eko kontzentrazio-eremura iritsi zen. Bertan, euskaldunek osatutako “Gernika-Berri” eremuan egon zen. Uztailerako, martxoan eraiki zuten Gurs-eko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten[707].

---

[700] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.687 // AHPG-GPAH GEZ 002773/0122 // Testigantza: Mari Carmen Pérez.

[701] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

[702] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[703] AUA: 483. Kaxa // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

[704] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // AHPG-GPAH GEZ 003581/0062.

[705] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[706] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[707] AUA: 483. Kaxa // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // CHUECA, J. 2006. Gurs, el campo vasco. Txalaparta: Tafalla.

# S

## 447. SAGASTUME BERBIL, MARTIN

1911ko urtarrilaren 3an Alegian jaioa, gerra hastean, Gasteizen apaiz-ikasketak burutzen zebilen. Horren eraginez, frontean tropa frankistekin kaperau gisan egon zen. Zehazki, alferez posturako hautatzen zuelarik, Zaragozako Gurutze Gorriaren Ospitale Militarrean egon zen[708].

## 448. SAGASTUME LASA, ANTONIA, DAMASA, LUISA ETA ISIDORA[709]

Antonia Sagastume Lasa, 1908ko irailaren 8an Alegian jaio zen. Isidora Sagastume Lasa berriz, 1904ko irailaren 14an Alegian jaio zen. Damasa, 1919ko azaroaren 22an Alegian jaio zen. Gerra hastean, tropa frankistak Alegian sartu baino lehen, hiru ahizpek, beren seme-alabekin erbesteari ekin zioten. Antoniak hiru seme-alaba zituen: txikienak, Silvestrek, urtebete baino ez zuen, Jose Joaquinek lau urtetxo eta zaharrenak, Mari Carmenek, bost urtetxo baino ez. Isidorak ere, haren hiru seme-alabekin egin zuen erbestera: Angeles, Maria Teresa eta Jose Antoniorekin.

Frantzia izango zen haien azken helmuga baina bide luze hartan gerraren krudelkerien testigu izan ziren: Gernikako bonbardaketa, Bilboko bonbardaketak … Damasak, Gernikatik Alegiara bueltan egin zuen eta Luisa, erbesterako bidea hartu ez zuen ahizpetan bakarra izan zen.

Bilbon zeudela, beste zenbait alegiarrekin batera Gardoki 6 kaleko txaletean bizi izan ziren. 1937ko ekainean, tropa frankistak Bilbora heldu baino lehen, Santanderrera egin zuten ihesi, Gardoki 6-ko beste zenbait alegiarrekin batera. Santanderreko portuan, Frantziarako norantza zuen itsasontzia hartu zuten. Han ere, denbora luzean bizitzen zetozen tentsio-uneen lekuko izan ziren. Izan ere, beraien itsasontzia, Cervera itsasontzi frankistaren mehatxupean izan zen egun haietan zehar. Horren eraginez, zenbait egunez, ezin izan zuten ez jan eta ez edan, II. Errepublikaren aldeko itsasontziei, itsasontzi frankistak, ez baitzien uzten errefuxiatuei beharrezko hornigaiak ematen.

Zenbait hilabetez kanpoan izan ondoren Alegiara itzultzean, errepresio frankistaren lekuko izan ziren.

## 449. SAGASTUME LASA, JOSE MARIA

1913ko otsailaren 20an Alegian jaio zen, eta iturgin gisan bere aitarekin lan egiten zuen. Bigarren Errepublikan zehar, Bedaion tradizionalistek eginiko mitinaren ostean, Guardia Zibilak miatu egin zuen eta tradizionalista batek bultzakada eman ostean, haien kotxeari harriak jaurti zizkion. Hori, geroago, frankistek berau preso egiteko erabili zuten aitzakia izan zen, beste zenbait gauzen artean.

Tropa frankistak Alegiara sartzean, hauen alde borroka egiteko deitu zuten. Baina, Jose Maria Sagastume Lasa, Izquierda Republicana-ko afiliatua izaki, ordurako Alegiatik alde eginda zegoen, Donostia aldera, Usurbileko frontean Eusko Gudarosteko Azaña (Gipuzkoa) 20. Zenbakiko Batailoiarekin borrokan eginez. Handik, Bilbora joan zen eta tropa frankistak sartzear zeudela, hiria ebakuatzen lagundu zuen. Azaña Batailoia desegin ostean, Alderdi Komunistako "Facundo Perezagua" Batailoian aritu zen borrokan, kabo gisan. Zenbait fronteren artean, Castro-Alen-en ere borrokan aritu zen.

Santoñako errendizioan, 1937ko abuztuaren 26an, tropa frankistek atxilotu egin zuten. Horrela, presoen klasifikaziorako "C" atalean ezarri zuten, kabo gisan ibili baitzen gerran, errepublikazaleekin.

Hilabetea betetzera zihoala, 1937ko irailaren 23an Duesoko kontzentrazio-eremura lekualdatu zuten. Bi Gerra-Kontseilu egin zizkioten, bata Santoñan hasia eta bestea, Bilboko Gerra Auditorioan, biak ala biak, azkenean Donostiako Plazan burutu zizkiotenak. 1939ko martxoaren 20-23 bitartean, Duesotik Ondarretako kartzelara lekualdatu zuten eta 1939ko maiatzaren 25ean, Sagastumek lehen deklarazioak egin zituen.

Bigarren Errepublikan zehar eta gerra hastean eskuindar eta tradizionalisten aurka eginiko zenbait ekintzagatik zigortu zuten. Horren emaitza, 12 urte eta egun bateko kartzela-zigorra izan zen "auxilio a la rebelión" delako delituagatik. Azkenean, Bilboko Gerra Auditorioari esker, 1940ko abenduaren 20an, 6 urte eta egun batera jaitsi ahal izan zuen bere kartzela-zigorra Jose Maria Sagastume Lasak.

Hala eta guztiz ere, Ondarretako kartzelako ziegetan, gaixo egon zen eta zenbait aldiz, erizaintzan ingresatu beharra izan zuten.

1941eko maiatzaren 7an, baldintzapeko askatasuna eman zioten. Azkenean, 6 urtean kartzela ezberdinetatik pasa ostean, 1943ko abuztuaren 26an, behin-betiko askatasuna lortu zuen Jose Maria Sagastume Lasa presoak[710].

---

[708] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.

[709] Alegiako Udal-Agiritegia // Testigantza: Loli, Maixol, Mari Carmen Balerdi Sagastume eta, Mari Cruz Urrestarazu Garmendia.

[710] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // PENADOS AGA: 1938-1958 // Sumarisimoa 11915/38 eta 3513/40 (21032/39).

## 450. SAGASTUME LASA, JOSE JOAQUIN

Legazpian bizi zen eta EAJ/PNV-ko erretaguardian jardun zuen[711]

## 451. SAINZ, ANTONIO

1933ko abuztutik aurrera herriko botikaria izan zen[712].

## 452. SANZ, DÁMASO

Alegian egondako milizianoa[713].

## 453. SAN MARTIN, DEMETRIO

Alegian egondako milizianoa[714].

## 454. SAN MARTIN, VICENTE

Alegian egondako milizianoa[715].

## 455. SAN MIGUEL LAFUENTE, PEDRO

1918ko azaroaren 26an Elduaienen jaio zen, baina Gurutzetan (Alegiako errota) bizi zen. La Esperanza fabrikan papergilea zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten, 17 urte zituelarik. Frontean borrokatzen aurkitzen zen[716].

## 456. SAN MIGUEL LAFUENTE, RAMON

1916ko abuztuaren 31n Elduaienen jaio zen eta Gurutzetan (Alegiako errota) bizi zen. Arcaute y Cª fabrikan papergilea izan zen. Hasieran, atzeraguardiko errekete gisan ibili zen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, Oriamendi Tertzioan borrokatu zuen errekete gisan[717].

## 457. SANTOS GIMENEZ, EUGENIO

Gerra hasi aurretik trenbideetako faktore gisan egon zen Nafarroan, Milagro herrian. Itxura denez, erlijioa ez zuen praktikatzen eta komunistekin hartu-emanak omen zituen. II. Errepublikan zehar Zumarragan bizi omen zen eta han ere ez omen zen elizara joaten. Guardia Gorrian zerrendatuta “alistatuta” omen zegoen eta agintari frankistek 1936ko uztailaren 27an Zumarragatik gertu gertatuko deskarrilamenduaren errudun kontsideratu zuten. Zumarragatik Alegiara bizitzera etorri zen eta Alegian ere mezetara ez omen zen joaten. Agintari-frankistek, UGT (Unión General de Trabajadores) sindikatuko kidea izan zela egiaztatu zuten, nahiz eta Alegiara iristean Falangean afiliatu. Hala eta guztiz ere, jende ezkertiar (Ceferino Lasa Iraragorri) zein nazionalistekin (Jose Maria Tolosa) harreman ona mantendu zuela adierazi zuten agintari frankistek. Alegian, Juan Bautista Moreno Galilea Izquierda Republicanako kide eta fusilatuaren faktore postua bete zuen frankismoan zehar[718].

## 458. SARASOLA, JOAQUIN

Alegiako kale-garbitzailea izendatu zuten, 1937ko urtarrilaren 3an, Pedro Irastorza Mendia kaleratu zutenean[719].

## 459. SARASOLA AIZPURUA, MIGUEL

Gerra hasi baino lehen, EAJ/PNV-ko afiliatua izan zen. Behin Alegiara tropa frankistak sartzean, Círculo Tradicionalista-ko afiliatu egin zen[720].

---

[711] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[712] AUA: 392. Kaxa. 2.Zenbakia. A. Sekzioa. 1. Negoziatua.
[713] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[714] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[715] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[716] AUA: 483. Kaxa.
[717] AUA: 483. Kaxa.
[718] AUA: 454. Kaxa 1. Zenbakia.
[719] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia.
[720] AUA: 449. Kaxa. 4. Zenbakia.

## 460. SARASOLA BERAZA, LORENZO

1917ko maiatzaren 7an Alegian jaio zen eta nekazari lanetan jardun zuen. Bere aita Miguel Sarasolaren arabera, tropa frankistak Alegiara sartu baino egun batzuk lehenago herritik alde egin zuen. Alegiako udal-gobernu frankistak, 1937ko urrian, "iheslari" izendatu zuen errepublikazaleekin egoteagatik. Horren ostean, "pasado del campo rojo, esta zona liberada" (sic) ageri zaigu. Gudari edo miliziano gisan ibili zela pentsa genezake[721].

## 461. SARASOLA IRAOLA, IGNACIA

Etxeko emakumea eta EAJ/PNV-ko propagandista izan zen, alegiar emakume hau. Errepresio frankistaren beldur, Frantziara erbesteratu zen eta bertan bi hilabete egin zituen. Hala eta guztiz ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, 1941eko uztailaren 15ean burututako epaiketaren ostean, 8.000 pezetako isuna ezarri zion bere jardun politikoa medio[722].

## 462. SARASOLA ZUBELZU, MIGUEL

Gerra hastean 30 urte zituen. Alegiako baso-zaintzailea izan zen, 1937ko urtarrilaren 3an agintari-frankistek, ideologia nazionalista izateagatik, bere lanpostutik kanporatu zuten arte[723].

## 463. SARRIEGUI YARZA, SATURNINO

Dibisio Urdinean parte hartu zuen alegiarra izan zen. Errusian sobietarren aurka borrokatu zuen 263 Granadarien Erregimentuan. Bigarren Mundu Gerran, Armada Naziak zein Francorenak, errusiarren aurka burutu zuen borrokaren esker onak adierazteko, dominak eman zizkioten. Falangearen sektore eskuindar eta errepresio gogorra egiten zueneko kide izan zen, hain zuzen, F.E.T. eta J.O.N.S.-etik 1944an sortu zen Francoren Guardia delakokoa[724].

# T

## 464. TELLERIA TELLERIA, JOSE

Nekazari gisan lan egiten zuen. Gerra hasi zenean, 40 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[725].

## 465. TOBAR AZPEITIA, VALENTIN

1912ko abuztuaren 23an Alegian jaio eta Esperanza fabrikan papergilea zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Erreketea izaki, frontera borrokatzera joan zen[726].

## 466. TOLOSA, JOSE

Tropa frankisten alde borrokatzeagatik, subsidioa kobratzen zuen[727].

## 469. TOLOSA GARIN, JOSE JOAQUIN

Gerra hasi zenean 28 urte zituen eta tropa frankistak, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten[730].

## 467. TOLOSA LASA, BLAS

1905ean jaioa, nekazaria zen ofizioz. Alegiara tropa frankistak sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[728].

## 468. TOLOSA LASA, SEBASTIAN

Arzabalza baserrian jaio eta bertan nekazaritza lanetan aritzen zen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, errekete gisan, San Ignacio Tertzioan kabo gisan eta Zumalacarregui Tertzioan borrokatzen aritu zen. Gerran zehar tropa frankistekin borrokatzeagatik, diktadura frankistan zehar subsidioa jasotzen zuen[729].

---

[721] AUA: 1936-1941eko Aktak. A Sekzioa. 1. Negoziatua. 423.Kaxa. 2.Zenbakia // 483. Kaxa // AGMG Indizea: 11 Kaxa: 2508 Espedientea: 133580.
[722] NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1098.
[723] AUA: 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[724] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[725] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[726] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[727] AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.
[728] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[729] AUA: 483. Kaxa // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra. Alegiako Karlisten Zerrenda. Id: 1578. Nº ficha: 2319.

## 470. TOLOSA LASA, VICENTE

1904an jaioa, nekazaria zen ofizioz. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[731].

## 471. TOLOSA ZUDAIRE, JOAQUIN

Ordizian jaiotakoa, baina Alegian bizi izan zen. Erroman graduatutako gregorianista ospetsua izan zen. 1913-1936 bitartean, Aramako San Martin Parrokiako apaiza izan zen. Nazionalista eta euskaltzalea izateagatik, gerra hastean, lehenengo Bergarako San Prudentzio auzora eta horren ostean, Idiazabalera desherriratu zuten[732].

## 472. TOLOSA ZUDAIRE, JOSE MARIA

1898 jaio zen eta, mediku eta dentista gisan jardun zuen bertan lanean. Bere alaba, Maria Isabel Tolosa Gimenok, bere aitarekin, zenbait baserrietara, zaldiz zein bizikletaz joaten zirela gogoratzen du. Tolosa, Aurelia Gimeno Huarte, Alegiako botikaria zenarekin ezkonduta zegoen. Haren alabak argitu digunez, Ibirikun elizaz baino ez ziren ezkondu. Modu horretan, ez zuten erregistroan beraien ezkontzaren berri eman eta horrela, frankistek zerbait errekisatzen bazieten, bakoitzari errekisatuko zieten. Erregistroan, senar-emazte gisan izenpetuta baleude, autoritate frankistek, biei beraien ondasun guztiak kentzeko aukera izan zezaketen.

II. Errepublikan zehar, EAJ/PNV-ra afiliatuta egon zen eta 1936rako, Batzokiko Zuzendaritza Juntako presidentea zen. 1936ko Gorteetako hauteskundeetan, diputatu hautagaitzan parte hartzeko hautatu zuten.

Gerra hastean, Tolosari, komandantziara deklaratzera joateko agindu zioten. Haren emazteak ordea, bere karlista zen lagun bati eskutitza idatzi zion eta hark, komandantea komandantzian zegoen bitartean, bertara ez hurbiltzeko gomendatu zion[733]. Horregatik guztiagatik, badaezpada, Alegiatik alde egin eta Nafarroan egon zen, denboralditxo batez, bere emaztearen lagun batzuen etxean bizitzen. Behin tropa frankistak Alegiara sartzean itzuli eta, poliziaren aginduz, alderdi frankistari, 5.000 pezeta eman behar izan zizkion.

Errepresioa jasan zuen, izan ere, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiak, errepublikazaleen alde erakutsitako ekintza politikoagatik, diktadura frankistako estatuari 1.000 pezetako isuna ordaintzera derrigortu zuen. 5 urtez, kargu publikoetatik ere desgaitu zuten[734].

## 473. TOLOSA ZUDAIRE, JUAN

Gerran zehar, atzeraguardiako errekete gisan ibili zen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Diktadura frankistan, 1941eko apiriletik, Joaquin Jauregui Lizarribarren aurkako mozioa ezartzeagatik, bere zinegotzi postua lortu zuen. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, 1941eko irailaren 15ean kargugabetu zuen. Baina laster, zinegotzi falta egonagatik, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, zinegotzi postuan berrezarri zuen[735].

# U

## 474. UBARA, ANGEL

Alegian egondako milizianoa[736].

## 475. UGARTE CHINCHURRETA, IGNACIO

Gidari lanetan jardun zuen. Gerra hasi zenean, 32 urte zituen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egiteko deitu zuten. Nazionalista zen eta Alegiako EAJ/PNV-ko Juntako Idazkaria izan zen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen herritik Bidaniara alde egin zuen.

---

730 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
731 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
732 ARRUABARRENA GOIKOETXEA, A. 2005. Arama: apunte historiko eta etnografikoak. Elkarlanean: Donostia.
733 Testigantza: Maria Isabel Tolosa Gimeno.
734 AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1445.
735 AUA: 425. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
736 Guerra Civil-Iñaki Egaña.

Ondorioz, Gerra-Kontseilua 1937ko abuztuaren 23an egin zioten, Donostiako Plazako 8. Auzitegi Militarrean. Testiguen deklarazioen arabera, tropa frankistak, Bidaniara sartzean, eta Alegiara itzultzean, Tolosako Komandante Militarrak atxilotu egin zuen. "Iriarte eta semeak" mantekilen fabrikako jabeei esker (Paulino Uzcudunek defendatu zuen Ugarte, mantekilen fabrikarako langile espezializatua baitzen), bere lankidearekin batera (Victor Pérez Oñate) aske geratu zen, 1.000 pezetako isun batekin. Martin Jose Gorostidi Aguirre testiguak, Ugarte, gudariak Azpeitia eta Beasainera bere kotxean eramaten ibili zela adierazi zuen. Azpeitiako komandantzian ere, gidari lanak egin omen zituen. 1936ko urrian edo azaroan, F.E.T. eta J.O.N.S.-era afiliatu zen, 1.000 pezetako isun hura ezin ordaindu izateagatik.

Hala eta guztiz ere, Ugarteren esanetan, Falangearen Lehen Lerroko Tertzioan afiliatu zen Bidaniara tropa frankistak sartzerako, eta beraz, Tolosako Komandante Militarrak askatasuna ematerako, bere zerbitzua egiten zebilen eta ez kartzelan.

1940ko uztailaren 9an, Auzitegi Militarrak, bere etxean preso egotera kondenatu zuen, "auxilio a la rebelión" delitua egin zuela adieraziz. 1940ko abuztuan, askatasuna lortu zuen bere kasua "sobreseimiento provisional" gisan geratu ostean. 1943ko maiatzaren 6an hil egin zen. Bere emaztea, Josefa Munduate zen eta seme-alabak: Jesus Maria, Maria Larraitz eta Maria Rosa[737].

## 476. UGARTEMENDIA OLANO, EUSEBIO

Alegiarra jaiotzez, gerra hasi zenean, Tolosan bizi zen. Ezkondua zen eta San Juan kalean bizi zen haren emazte eta hiru seme-alabekin batera. Plazan bertan, taberna zuten (gaur egungo jubilatuen taberna kokatzen denean) eta beraien etxea ere bertan kokatzen zen. II. Errepublikako Lehen Aldian zehar (1933ko urtarriletik), Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen.

Gerra hasi eta segituan, Izquierda Republicana-ko afiliatua izanik, herrian tropa frankistak sartu aurretik, armekin Zentro Errepublikarra zaintzen aritu zen. Alegian, Amezketako Fermin Imaz Olano indarrez hartu eta Zentro Errepublikarrera eraman omen zuen, Tolosako miliziano eta nazionalista batzuekin batera; horrez gainera, Tolosan, tradizionalista baten etxera ere joan omen zen, hura atxilotzeko asmoz. Hala eta guztiz ere, Martin Jose Gorostidi Aguirre Alegiako lehen alkateordeak, bere alde egin zuen, Alegiara oraindik tropa frankistak sartu baino lehen, eskuindarrak babesten jardun zuela berretsiz.

Behin herritik alde eginik, Portugaleten ontziolan lan egin zuen. Intendentzia marxistan lan egin zuen, bereziki, ospitaleetan laguntzen. Juan Ugartemendia, Eusebio Ugartemendia eta Martina Iraolaren semeak argitu digunez, behin Alegiatik ihes eginik, Erandion, bertan bizi zen Margarita senidearen etxean babestu ziren, haren aitona eta gainontzeko senideekin batera. Aitona, bertan hil zen eta Erandioko hilerrian hilobiratu zuten. Bilbora tropa frankistak sartzerako, Karrantza eta Santanderrera egin zuen.

Santanderren, 1937ko irailaren 11n tropa frankistek harrapatu eta preso egin zuten. 1937ko urriaren 2an, 35 urte zituela, Tolosako Presondegian sartu zuten. Gerra-Kontseilua, 1937ko urriaren 9an hasi eta 1939ko urtarrilaren 3an amaitu zioten, ordura arte kartzelan egon zelarik. Bertan, sei urte eta egun bateko zigorra "por auxilio a la rebelión" ezarri zioten. Horren eraginez, 1938ko ekainaren 10ean Guardia Zibilak, Ondarretako Presondegira lekualdatu zuen. Hiru egun beranduago, Ondarretako Presondegira iritsi zen. 1943ko irailaren 6an *Zigorrak Aztertzeko Batzordeak*, kondena 3 urtera jaitsi zion.

Horrez gainera, frankistek, egindako "kalteak" ordaindu behar zituelakoan, Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegiaren bitartez, 50 pezetako isuna ezarri zioten[738].

## 477. URANGA MURUA, AGUSTIN

Okin gisan lan egiten zuen. Gerra hasi zenean, 30 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartu zirenean, beraiekin frontera borrokatzera joateko deitu zuten[739].

## 478. URCELAY AYESTARAN, ANGEL

Jaiotzez Ikaztegietakoa zen, baina Alegian bizi zen. Papergilea zen ofizioz. Gerra hasi berritan, 32 urte zituen. Maria Martinezekin ezkonduta zegoen eta, bi alaba zituen, Maria Dolores eta Magdalena deiturikoak.

Izquierda Republicana-ko afiliatua izan zen eta, Alegiako Fronte Popularreko Komiteko presidente ere bai. 1936ko abenduaren 17an, Tolosan Fronte Popularrak egindako ekintzengatik atxilotu zuten. Tolosako Presondegiko ziegan, 5 egunez inkomunikatuta izan zuten, Martin Ayestaran Garin eta, Joaquin eta Miguel Otaño Mugica anaia alegiarrekin batera. 1937ko azaroaren 8an eginiko Gerra-Kontseiluan, 20 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten. 20 urte baino gehiagoko kartzela zigorra izan zitekeen, baina testiguek, Angel Urcelay-k zenbait frankistei laguntza eskaini ziela adierazi zuten. 1937ko azaroaren 12an, bere zigorra betetzeko Donostiako Probintziako Presondegian sartu zuten. 1938ko urtarrilaren 18an, Ezkaba mendiko San Cristobal Presondegira lekualdatu zuten. Azken urteak, bere etxean preso bete behar izan zituen, 1940ko uztailaren 14ra arte.

Errepresioak ez zuen etenik izan, 1945eko urrirako, bere emazte Maria Martinezi, haien alaben tutela kendu baitzioten. Bi alabak, Tolosako asiloan sartu zituzten, ideologia frankistaren baitan hezteko[740].

[737] AUA: 510. Kaxa. 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // Gerra-Kontseilua: 1933/40.

[738] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak // AHPG-GPAH GEZ 002774/0136 // NAI: ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.3,N.1154// Sumarisimoa 1912/37.

[739] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

[740] AHPG-GPAH GEZ 002777/0166 // Gerra-Kontseilua: 1684.

## 479. URCOLA GARMENDIA, JOSE MARIA

Orendaingoa jaiotzez, baina Alegian bizi zen. Hasiera batean, atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe … Geroago, Oriamendi erreketeen Tertzioan borrokatu zuen. Gerra ostean, 1941ean, Alegiako udal-gobernuko zinegotzi postua lortu zuen[741].

## 480. URDANGARIN, JOSE

Bertsolaria eta gudaria izan zen (ikus 2. Eranskina)[742].

## 481. URDANGARIN, JOSE

Subsidioa jasotzen zuen tropa frankisten alde borroka egiteagatik[743].

## 482. URDANGARIN, JUAN

Subsidioa jasotzen zuen tropa frankisten alde borroka egiteagatik[744].

## 483. URDANGARIN ESQUIZABAL, SEVERIANO

Saint Cyprien (12.kontzentrazio-eremuan) zein Gurs-eko (B islotean, 16.Barrakoian, 4.Taldean) kontzentrazio-eremuetan egon zen. Diktadura frankistan, Soldaduen Batailoi Diziplinatzaileetan gatibu-lanak egin zituen[745].

## 484. URDANGARIN ZABALA, JOSPE

1912an Alegian jaioa, tropa frankistak Alegiara sartu zirenean, beraiekin borroka egitera joateko deitu zuten[746].

## 485. URDANGARIN ZABALA, JUAN

1912ko irailaren 26an Alegian jaio zen eta ofizioz, Arzabalzako papergile zen. Alegiara tropa frankistak sartzean, alde eginda zegoen eta oraindik ere, 1937ko apirilean, ez zen haren berririk. Alegiako udal-gobernuko kintetan preso zegoelako susmoa agertzen da[747].

## 486. URDANGARIN ZABALA, JUAN MARTIN

1909ko azaroaren 13an Alegian jaio zen eta ofizioz mekanikaria zen. Alegian tropa frankistak sartzean, Alegiatik alde eginda zegoen eta 1937ko apirilean oraindik ere ez zen haren berririk[748].

## 487. URDANGARIN ZABALA, MIGUEL

Alegiarra jaiotzaz, gidari lanetan jarduten zuen. Alegiara tropa frankistak sartu zirenean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. 1936ko abuztuaren 10ean, Alegiako frankistek eratutako lehen udal-gobernu frankistako zinegotzia izan zen. Atzeraguardiako errekete gisan jardun zuen. Errekete hauek, atzeraguardiako laboreez arduratzen ziren: zentsura, hilobiratzeak, fronteko labore jakin batzuk baina borrokan egin gabe …[749].

## 488. URIARTE, JULIO

Alegian egondako milizianoa[750].

## 489. URRETAVIZCAYA UGARTEMENDIA, JOSE

Nekazari gisan lan egiten zuen. Gerra hasi zenean, 28 urte zituen. Horren eraginez, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borroka egiteko deitu zuten[751].

---

741 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

742 ARREGUI, JEXUS. 2016. *Historia de la familia Artano Gastesi Altuna Yturrioz.*

743 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

744 AUA: 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua.

745 CHUECA, J. 2006. Gurs, el campo vasco. Txalaparta: Tafalla. // AGMG Indizea: 12 Kaxa: 2634 Espedientea: 141089.

746 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

747 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

748 AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

749 AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 1941-1947 Aktak. A Sekzioa. 1 . Negoziatua. 422. Kaxa. 2. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 483. Kaxa // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

750 Guerra Civil-Iñaki Egaña.

751 AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.

## 490. URRESTI, FRANCISCO

Alegian egondako milizianoa[752].

## 491. URTEAGA ITURRIOZ, FRANCISCO

Karlista. Tropa frankistak Alegiara sartu eta Antonio Munduate Urdampilleta, Alegiako udal-gobernuko diruzain postutik kaleratu egin zuten. Haren ordez, Francisco Urteaga Iturrioz, Alegiako udal-gobernuko diruzain berria bilakatu zen[753].

# V

## 492. VAZQUEZ, M. MERCEDES

1936ko abuztuaren 7an tropa frankistak Alegiara sartu ziren unetik aurrera, Josefa Garmendia Ulacia telefonistaren laguntzaile bilakatu zen[754].

## 493. VAZQUEZ GOMEZ, ANDRES

Laguna de Dueron (Valladolid) jaioa, Alegiako irakasle nazionala izan zen. II. Errepublikan zehar tradizionalisten aldeko botoa eman zuen (Derecha Españolistan afiliatua) eta tropa frankistak Alegiara sartzean, Alderdi Karlistan afiliatu zen. Tropa frankistak Alegiara sartu osteko lehenengo udal-gobernuko idazkaria izan zen: 1936ko abuztuaren 16tik, 1937ko uztailaren 18ra arte. Alegian errepublikazaleen aurkako errepresioa gauzatu zuen "Junta Local de Información" deituriko egiturako kide izan zen. Aldi horretan guztian zehar, irakasle nazional funtzioa betetzen jarraitu zuen. Hain zuzen, bi postuetan lana ezin zuela egin argudiatuz bere kargua Joaquin Jauregui Lizarribar erreketearen eskuetan utzi zuen[755].

# Z

## 494. ZABALA, LADISLAO

Tropa frankistak Alegia sartu zirenetik, Alegiako udal-gobernuko abokatua izan zen[756].

## 495. ZABALA ATIN, IGNACIO ANTONIO

1888an Amezketan jaio zen eta Alegiako bizilaguna zen gerra hasi zenean. Mikeletea izan zen. Gerra garaian, errepublikazaleekin borrokatzen egon zen: Gazteluko fronte gogorrean esaterako. Bere iloba Maria Rosario Zabalak argitu digunez, ia eskuan tiroa ematekotan egon zen aitona, gerraren gogorkeriak eraginda.

Tropa frankistek atxilotu eta 1937ko ekainaren 30erako Arriaga Antzokian ezarri zuten behin-behineko kartzelan atxilotuta egon zen. Garai hartan, 49 urte zituen. Bere deklarazioen arabera, armak portuetako frontean eta ordena publikoa mantentzeko erabili zituen. Donostiatik Bilbora lekualdatu zuten eta bertan, Gizarte-Laguntzak ematen ibili zen. Behin frankistak Bilbora sartzean, beraiek agindutako zerbitzuak bete zituen. Ez zuen inongo alderdi politikoetan parte hartu. Bere aurkako kargurik ez zegoen, frontera borrokatzera aginduei men eginez joan zela berretsi zuten. Ez zuten auzipetu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 1936ko azaroaren 26an bere postutik kaleratu egin zuen. 1937ko abuztuaren 25eko dekretuaz, agintari-frankistek mikeleteak desegin zituzten. Horren eraginez, gerra ostean, Altzoko kaolin minan lan egin behar izan zuen[757].

## 496. ZABALA ESCUDERO, JOSE MARIA

1919ko uztailaren 21ean Tolosan (Zarate) jaio zen, baina 1924 aldean Alegiara bizitzera etorri ziren, aita Ignacio Antonio mikeletea baitzuen. Papergile gisan zein bizargin gisan lan egiten zuen. 18 urte zituenean, tropa frankistek kamioi batean sartuta eraman

[752] Guerra Civil-Iñaki Egaña.
[753] AUA: 361. Kaxa. 7. Zenbakia // 423. Kaxa. 2. Zenbakia // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[754] AUA: 454. Kaxa. 1. Zenbakia.
[755] Alegiako Udal-Agiritegia.
[756] Alegiako Udal-Agiritegia.
[757] BOG // Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzionarioak: 186. Zenbakia // Sumarisimoa 160/37.

zuten, bere ama Visitación Dolores Escudero Larrearekin Donostiako kalean zeudela. Gerra garaian, Reusen ibili zen eta ondoren soldaduska egin beharra izan zuen. Guztira, sei urte egin zituen etxetik kanpo. Diktadura frankista garaian, gerran tropa frankistekin borrokatzeagatik, subsidioa jasotzen zuen[758].

## 497. ZABALA GOICOECHEA, VALERIANA

Altzokoa jaiotzez, Alegian bizi izan zen. Etxeko lanak egiteaz arduratzen zen. Tropa frankistekin borrokatu zuen Jose Maria Zabala Escuderorekin ezkonduta zegoen[759].

## 498. ZABALA SAIZAR, TIMOTEO

II. Errepublikan zehar, Alegiako udal-gobernuan EAJ/PNV-ko zinegotzia izan zen. II. Errepublikako bigarren aldian (1933-1936) zehar, Lehen Hezkuntzako Kontseiluko lehendakari lanak bete zituen. Euskal Estatutuaren harira sortutako auzia medio, 1934ko irailaren 8an bere dimisioa aurkeztu zuen, bere alderdiko kideekin batera. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak beren postuetara itzultzeko derrigortu arren, hauek ez ziren itzuli. Horren eraginez, Alegiako udal-gobernuan ordezkatu egin zituzten eta ez ziren berriro ere Alegiako udal-gobernuaren parte izan 1936ko otsaileko hauteskundeetara arte. Data horretan, Euskal Estatutuaren auziagatik, amnistia lortu zutelako utzi zieten hauteskundeetan berriro ere parte hartzen.

Behin gerra eta diktadura iritsi ostean, Zabalak ezin izan zuen Alegiako udal-gobernuan parte hartu bere postutik kaleratu baitzuten. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[760].

## 499. ZABALA SAN SEBASTIAN, JOSE ANTONIO

Okina zen ofizioz. Gerra hasi berritan, 20 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[761].

## 500. ZABALA SAN SEBASTIAN, JUAN JOSE

Ofizioz, okina zen. Gerra hasi berritan, 22 urte zituen eta, tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Horren eraginez, frontean, 3.Zenbakiko Artileria Astuneko soldadu gisan ibili zen.

1937ko otsailaren 22an, Gerra-Kontseilua egin zioten, tropa errepublikazaleei laguntza eskaini ziela argudiatuz. Izan ere, bere nagusia zen Ceferino Lasaren kamioiarekin, milizianoak Amezketara eramateaz arduratu zen. Frankisten arabera, azken hauek, Amezketan, kamioi eta armen konfiskazioak egitea zuten helburu. Zabalak askatasuna bi arrazoirengatik lortu zuen: 1936ko abuztuaren 1ean, Alegiara oraindik tropa frankistak sartu gabe zeudelarik, Ceferino Lasarekin batera Donostiara alde egiteagatik eta, Arrasatera eginiko bidaia luzearen ostean, tropa frankistekin elkartzeagatik[762].

## 501. ZABALO IRAOLA, DANIEL

1901ean Alegian jaioa, langile gisan jarduten zuen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten[763].

## 502. ZABALO IRAOLA, JOSE MARIA

1913ko ekainaren 27an, Alegian jaio zen eta Esperanza fabrikan, papergile lanetan aritzen zen. Tropa frankistak Alegian sartzean, beraiekin borrokatzeko deitu zuten. Hala eta guztiz ere, errepublikazaleen alde egin zuen borroka[764].

## 503. ZABALO IRAOLA, RUFINO

1909ko maiatzaren 4an Alegian jaioa, langile gisan jarduten zuen. Gerra hasi eta tropa frankistak Alegiara sartu baino lehen, alde egin zuen; 1937an, oraindik ere ez zegoen haren berririk. Errepublikazaleekin frontean borrokan jardun zuen[765].

## 504. ZUAZO, CASTOR

Alegian egondako milizianoa[766].

---

[758] AUA: 483. Kaxa // 511. Kaxa. E Sekzioa. 6. Negoziatua // Testigantza: Maria Rosario eta Loli Zabala Zabala.
[759] Testigantza: Maria Rosario eta Loli Zabala Zabala.
[760] AUA: 348. Kaxa. 8. Zenbakia // 485. Kaxa // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[761] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[762] Gerra-Kontseilua: 571/36 // AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[763] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[764] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[765] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[766] Guerra Civil-Iñaki Egaña.

## 505. ZUBELDIA AYESTARAN, LAUREANO

Alegiako udal-gobernu frankistako epailea izan zen[767].

## 506. ZUBELDIA GOROSTIDI, LAUREANO

II. Errepublika ezarri baino lehen Alegiako udal-gobernuan zinegotzia izan zen. Laureano Zubeldia, danbolin jolea ere izan zen[768].

## 507. ZUFIRIA AGUIRRE, ANTONIO

1910eko maiatzaren 2an Itsason jaio zen eta gerra garaian, Anaia Kristau lanetan Irunen zebilen[769].

## 508. ZUFIRIA AGUIRRE, MIGUEL

1903an jaioa, nekazaria zen lanbidez. Gerra hastean, alegiar errepublikarrek zaindu egin zuten, altxamenduaren aldeko aldarria erakutsi baitzuen. Tropa frankistak txintxarrien herrira sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten[770].

## 509. ZUFIRIA AGUIRRE, TIBURCIO

1915eko apirilaren 12an Alegian jaio zen. Gerra hastean, 21 urte zituelarik, Donostian bizi zen, bertan Anaia Kristauekin ikasketak egiten ari baitzen. Tropa frankistak Alegiara sartzean, beraiekin borrokatzera joateko deitu zuten. Garai hartan, Anaia Kristauen Misiolari lanetan aritzeagatik, frontera borrokatzera joatetik libratu egin zen[771].

## 510. ZUQUIA, JOSE ANTONIO

II. Errepublika iritsi baino lehen Alegiako udal-gobernuko zinegotzia izan zen[772].


**Aguirre Apaolaza Marcelina**


**Aguirre Ormazabal Manuel**


**Aranguren Maiz Rufino**


**Arrayet Endeiza Jose**


**Arregui Jauregui Manuela**


**Arrizabalaga Aguirre Antonio**


**Arrue Recondo Manuel**


**Artano Altuna Jose**


**Artano Gastesi Imanol**


**Artano Gastesi Mikel**


**Artano Gastesi Miren**


**Ayestaran Julian**


**Balerdi Machiñena Ignacio**


**Balerdi Machiñena Jose**


**Balerdi Machiñena Martin**


**Berroa Arestimuño Dolores "Lolita"**


**Cincunegui Galarraga Pedro**


**Echezarreta Mugica Jose Ignacio**


**Eguiburu Azpiazu Donato**


**Ganzarain Goicoechea Victoriano**


**Garmendia Ulacia Josefa**

[767] AUA: 360. Kaxa. 4. Zenbakia.
[768] Alegiako Udal-Agiritegia.
[769] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua.
[770] AUA: 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[771] AUA: 482. Kaxa. E. Sekzioa. 6. Negoziatua // 510. Kaxa: 1936-1939 Gerra Zibileko Dokumentuak.
[772] AUA: 391. Kaxa. 3. Zenbakia.

# 7. Eranskinak



## 7.1. ERANSKINA: GERRARA JOAN ZIREN ALA EZ, ETA JOAN BAZIREN ZEIN TROPEKIN BORROKATU ZUTEN IDENTIKATU EZIN IZAN DITUGUN ALEGIARRAK[772]

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936ko ABUZTUAREN 16an | LANBIDEA |
|---|---|---|
| AGUIRRE CHAPARTEGUI, BERNARDO | 36 | Bidezain langile-ordezkatzailea |
| AGUIRRE CHAPARTEGUI, HILARIO | 40 | Nekazaria |
| AGUIRRE MACHIÑENA, MARCELINO | 22 | "Soldadu joana" |
| AGUIRRE ODRIOZOLA, VICTORIANO | 19 | Nekazaria |
| AIZPURUA AGUIRREZABALA, FRANCISCO | 24 | Nekazaria |
| AIZPURUA AGUIRREZABALA, JUAN JOSÉ | 25 | Nekazaria |
| AIZPURUA AGUIRREZABALA, MIGUEL IGNACIO | 31 | Nekazaria |
| AIZPURUA ECEIZABARRENA, RAMÓN | 22 | "Soldadu joana" |
| ARAMBURU BALANZATEGUI, FERMÍN | 31 | Langilea |
| ARAMBURU BALANZATEGUI, FRANCISCO | 33 | Langilea |
| ARANDIA GASTAÑAGA, LUCAS | 20 | Mekanikoa |
| ARANGUREN MAIZ, LUCIANO ZACARÍAS | 22 | Ikaslea |
| ARANGUREN MAIZ, LUIS ZACARÍAS | 26 | Zurgina |
| ARANGUREN MAIZ, JOSÉ ZACARÍAS | 33 | Ofizinista |
| ARANGUREN MAIZ, RUFINO ZACARÍAS | 29 | Alondegian praktikante |
| ARÍN BERECIARTU, FIDEL | 35 | Nekazaria |
| ARÍN BERECIARTU, JACINTO | 33 | Nekazaria |
| ARÍN MUÑOA, JUAN | 28 | Langilea |
| ARÓSTEGUI AGUIRREZABALA, IGNACIO | 20 | Nekazaria |
| ARÓSTEGUI TOLOSA, TOMÁS | 38 | Nekazaria |
| ARRATE ITURRIZA, JOSÉ CRUZ | 40 | Okina |
| ARRICARTE ZURIA, ANTONIO | 32 | Trenbideetako-langilea |
| ARTOLA CIPITRIA, SABINO | 38 | Errementaria |
| ARTOLA GARÍN, MARCELINO | 33 | Nekazaria |
| ARZAMENDI EGUSQUIZA, PEDRO | 38 | Papergilea |
| AYESTARÁN ARRESE, JUAN | 31 | Ofizinista |
| AYESTARÁN GARÍN, MARTÍN | 40 | Papergilea |
| AZPEITIA BAZTARRICA, JOSÉ BAUTISTA | 31 | Langilea |
| AZPEITIA BAZTARRICA, JUAN BAUTISTA | 34 | Langilea |
| AZURZA GOROSTIAGA, JESÚS | 32 | Gidaria |
| BARROSO DE LA FUENTE, FELIPE | 22 | Langilea |
| BERAZA GARAYALDE, JESÚS | 37 | Nekazaria |
| ECHEVERRÍA LABAYEN, MARIANO | 36 | Gidaria |
| ECHEVERRÍA GOROSTIDI, IGNACIO | 28 | Nekazaria |
| ECHEVERRÍA TOLEDO, JUAN | 28 | Langilea |
| ECHEVERRÍA URCOLA, PRUDENCIO | 20 | Papergilea |
| EGUIBURU AZPIAZU, DONATO | 27 | Ofizinista |
| ELOLA LARRARTE, JOSÉ | 37 | Nekazaria |
| ELOLA LARRARTE, JUAN BAUTISTA | 34 | Langilea |
| ERMINA BERAZA, MIGUEL | 36 | Langilea |
| ERMINA TOLOSA, JOSÉ MARÍA | 19 | Nekazaria |
| ERMINA ZABALA, JOSÉ | 33 | Langilea |

[772] Garaiko dokumentua, ez zaio aldaketarik egin. Zerrenda, frankistek argitaratu gisan ageri da. Ez dugu bereizketarik egin gerrara joan zirenen eta ez zirenen artean: AUA: 510.Kaxa. 1936-1939 Gerrako Dokumentuak.

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936ko ABUZTUAREN 16an | LANBIDEA |
|---|---|---|
| GALARRAGA AGUIRREZABALA, EUGENIO | 19 | Gidaria |
| GALARRAGA AGUIRREZABALA, FRANCISCO | 25 | Nekazaria |
| GALARRAGA AGUIRREZABALA, JOSÉ MARÍA | 23 | Nekazaria |
| GALARRAGA AGUIRREZABALA, JUAN B. | 26 | Nekazaria |
| GALARZA MURUA, JENARO | 30 | Papergilea |
| GARMENDIA AGUIRREZABALA, FRANCISCO | 22 | Papergilea |
| GARMENDIA UGARTEMENDIA, JOSÉ RAMÓN | 32 | Langilea |
| GAZTAÑAGA AYESTARÁN, PABLO | 32 | Papergilea |
| GOICOECHEA LASA, EUGENIO | 26 | Bidezaina |
| GOICOECHEA GOROSTIDI, IGNACIO | 33 | Langilea |
| GOICOECHEA GOROSTIDI, IGNACIO | 37 | Langilea |
| GOICOECHEA LASA, ESTANISLAO | 26 | Mekanikoa |
| GOROSTIDI ALTUNA, ANTONIO | 37 | Langilea |
| GUEZALAGA ILLARRAMENDI, JOSÉ | 35 | Zurgina |
| HUEGUN ECHENAGUCIA, LEÓN | 39 | Zurgina |
| IBARZABAL GOICOECHEA, JUAN | 26 | Nekazaria |
| IBARZABAL OLANO, JOSÉ | 24 | Nekazaria |
| INSAUSTI JAUREUGI, EUGENIO | 36 | Merkataria |
| INSAUSTI JAUREGUI, FELIPE | 39 | Okina |
| IRAOLA IPARRAGUIRRE, ANTONIO | 32 | Langilea |
| IRAZUSTA GOIBURU, JOSÉ ÁNGEL | 18 | Nekazaria |
| IRAZUSTABARRENA ZUBELDIA, JOSÉ R. | 38 | Papergilea |
| IRULEGUI EIZMENDI, MARTÍN | 36 | Gidaria |
| ITURRIOS ARÓSTEGUI, IGNACIO | 37 | Nekazaria |
| ITURRIOS ARÓSTEGUI, MODESTO | 28 | Nekazaria |
| ITURRIOS SEGURA, JOSÉ ANTONIO | 31 | Gidaria |
| IZAGUIRRE ARTOLA, JOSÉ | 31 | Langilea |
| JAUREGUI LIZARRIBAR, JUAN | 34 | Ofizinista |
| LASA UZCUDUN, SEBASTIÁN | 40 | Nekazaria |
| LARRARTE ARAMBURU, JUAN CRUZ | 32 | Nekazaria |
| LETAMENDIA ARRILLAGA, MANUEL | 28 | Doitzailea (ajustador) |
| LULOAGA SARRIEGUI, MARTÍN | 28 | Papergilea |
| MAIZ IBARBIA, JOSÉ MANUEL | 22 | Papergilea |
| MARTÍNEZ GOICOECHEA, JOSÉ | 22 | Nekazaria |
| MARTÍNEZ GOICOECHEA, JOSÉ ANTONIO | 19 | Nekazaria |
| MÚGICA GARAYALDE, ADRIÁN | 36 | Papergilea |
| MUNDUATE URDAMPILLETA, MIGUEL | 29 | Papergilea |
| MUÑOA LOINAZ, ESTEBAN | 38 | Gidaria |
| MURUA MENDIZABAL, MARCELINO | 26 | Okina |
| OLANO ARTOLA, EDUARDO | 22 | Ofizinista |
| OLANO LULOAGA, JOSÉ | 34 | Nekazaria |
| OLANO ODRIOZOLA, ANTONIO | 21 | Langilea |
| OLANO ODRIOZOLA, JOSÉ | 23 | Nekazaria |
| OLAÑETA GAZTALAGA, SEGUNDO | 39 | Mikeletea |
| OLLOQUIEGUI ENETERREAGA, JOSÉ MARÍA | 33 | Ile-apaintzailea |
| OTAMENDI ZABALA, JOSÉ JOAQUÍN | 21 | Nekazaria |
| OTAMENDI ZABALA, JOSÉ MARÍA | 18 | - |

| IZEN-ABIZENAK | URTEAK, 1936ko ABUZTUAREN 16an | LANBIDEA |
|---|---|---|
| OTAÑO MÚGICA, MIGUEL | 30 | Papergilea |
| OTAÑO MÚGICA, MIGUEL | 28 | Papergilea |
| OTAÑO MÚGICA, RICARDO | 23 | Langilea |
| OTEGUI IRAZUSTA, SEBASTIÁN | 26 | Abarketagile |
| OYARZABAL GAZTAÑAGA, ANTONIO | 22 | Nekazaria |
| OYARZABAL MURGUIONDO, ANTONIO | 22 | Ikaslea |
| PÉREZ OÑATE, VÍCTOR | 34 | Gidaria |
| RUIS RUIS, AURELIO | 35 | Papergilea |
| RUIS RUIS, LUIS | 31 | Zurgina |
| SAN MIGUEL LAFUENTE, PEDRO | 17 | Papergilea |
| SARASOLA ZUBELZU, JOSÉ MIGUEL | 30 | Nekazaria |
| TELLERÍA TELLERÍA, JOSÉ | 40 | Nekazaria |
| TOLOSA LASA, BLAS | 31 | Nekazaria |
| TOLOSA LASA, VICENTE | 26 | Nekazaria |
| TOLOSA GARÍN, JOSÉ JOAQUÍN | 28 | Langilea |
| URANGA MURUA, AGUSTÍN | 30 | Okina |
| URCELAY AYESTARÁN, ÁNGEL | 32 | Papergilea |
| URDANGARIN ZABALA, JOSPE | 24 | Langilea |
| URDANGARIN ZABALA, JUAN | 27 | Langilea |
| URTEAGA ITURRIOS, FRANCISCO | 38 | Organista |
| URRETAVIZCAYA UGARTEMENDIA, JOSÉ | 28 | Nekazaria |
| ZABALA SAIZAR, TIMOTEO | 36 | Ofizinista |
| ZABALA SAN SEBASTIÁN, JOSÉ ANTONIO | 20 | Okina |
